

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

**ELIZAK ETA ESTADUAK
BAT EGIN ZUTEN
DENBORAKO ELIZA**

(306'garren urtetik 476'garren urtera)

Eliz-Edesti-Sorta

INSTITUTO POLITECNICO DIOCESANO.

Nieves Cano kalea.

GAZTEIZ.

Ta, nerekin itzezin nai ba'duzu, auxe duzu nere urrutizkiñaren zenbakia:
(945) 13 22 11

Wilsen Editorial
La Fuente, 2
Teléfono (948) 52 11 36
31282 ACEDO (Navarra)

I.S.B.N. 84-85918- 79-7
Depósito Legal: NA - 9 09 - 1993

Imprime: Wilsen Editorial
31282 ACEDO (Navarra)

EUSKERAZAINTZA
Euskeraren Erri-Akademiko
nere lagun eta adiskide maiteei
begirune aundiz eta aunitz esker onez.

Oarra.

Liburu onek, azkeneko orrietan, iztegi bat badu.

LIBURU ONTAN JORRATZEN DIRAN GAIAK

ITZAURREA 20.

ERABILLI DITUDAN IDAZTIEN ZERRENDA 32.

ASTIEN URRATSAK 38.

GARAI ARTAKO EDESTILARIAK 42.

Zesarea'ko Eusebio edestilari eta teologilari. Eusebio'ren
sinispidea.

Laktantzio, Sokrate, eta Sozomeno: Iru edestilari aundi.
Ziro'ko Teodoreto edestilari eta teologilari.

Bere lanak eta bere pentsabidea.

Ebagrio, Akileia'ko Errufino, eta Epifanio.

I KOSTANTINO AUNDIA 62.

Diokleziano'ren tetrarki edo agintaritza laukoa. Kostantino'ren
gurasoak.

Elena Donea ¿Kostantzio Kloro'ren maitale lizuna?

Kostantino Britani'n Inperatore egiña.

Erroma'ren Inperiolurrean gudua.

Maxentzio'ren aurkako borroka.

Milbi-Zubi'ko garaitza.

Zeruan agertutako gurutzea. An... ¿zer gertatu zan?

"MILAN'GO" ERABAKIA: ELIZARENTZAT ASKATASUN
OSO A ETA PAKEA 77.

Garaitza aren aurretiko Kostantino'ren sinispidea. Kostantino,
¿inperatore kristaua?

Zergaitik egin ote zan kristau?

Benetan egin zan kristau?

Kostantino eta Lizinio. Bien arteko borroka.

Kostantino, inperatore bakarra.
 Bere politika-era. Kostantinopla'ren eraiketa.
 Zergaitik eraman zuan Kostantinopla'ra inperio-lurraren
 uriburutza?
 Kostantino ¿agintari ankerra? Berak agindutako eraillketak.
 Zergaitik 11 zuan Krispo bere seme nagusia?
 Zergaitik il ote zuan Fausta bere emaztea?
 Izan ote zuan Elena Doneak eraiketa ontan zer ikusirik?
 Kostantino'ren beste eraillketak.
 Kostantino Elizaren laguntzaille... eta zaindari.
 Kostantino, jauretxegillea. Basilikak.
 Batikan-Mendikoa, eta Jerusalem'goa.
 Elene Donea ta Gurutze Donearen aurkikuntza. Zer gertatu ote
 zan an?
 Batikan-Muiñoko Jauretxea Kepa Donearen illobi gaiñean.
 Kostantino Elizaren zaindari.
 Donatikeria. Ereji onen gogortasuna.
 Ereje askoren kontzientzi garbia.
 Elizaren Asaba Doneak.

MARTIRIAK APOLOGILARIEN IKUSPIDETIK 107.

Martirien jardunkera Jainkoagandiko laguntasunaren adigarri.

ELIZAREN ZABALKUNTZA ETA APOLOGILARIAK . 109.

Zabalkuntza arrigarri ura Jainkoagandiko laguntzaren adigarri.

ITUN BERRIKO "KANON" EDO LIBURU SAGARATUEN ZERRENDAREN OSOKUNTZA 115.

Itun berriko Liburuak nola eta noiz onezagutu ziran. Elizak
ortarako erabili zuan kriterio edo ezagutailua.

LEKAIDETZA KRISTAUAREN SORKUNTZA 122.

Paul Donea ta Andoni Donea.Lekaide bakartiak eta lekaide-
taldeak.

Pakomio Deunaren eraberrikuntza Ejito'n.
Palestina ta Siri'ko lekaideak.
Palestina'ko lekaide latindarrak.
Jeronimo Donea. Bere andre lagunak.
Basilio Donearen lana.
Beste lekaidetza-kerak batzuk. "Estilita" edo "zutabezaleak".
Zutabezaleen mixiogintza-lanak.
Lekaidetzaren garrantzia kristautasunarentzat.
Eta kulturarentzat.
Lekaide batzuen geiegikeriak.
Lekaideen soin-garbiketarik eza.-
Lekaideen arteko gaixotasunak.

ANDRA MARI'GANAKO ERASPENA AURREN-MENDEETAKO
ELIZAREN BAITAN 166.

Josu'ren Ama, ebangelioetan gutxitan agertzen? Zergaitik ori,
ori egia
Miren Doneari-buruz ebangelioek diotena.
Dioten ori, lenen kristauen eraspenerako naikoa.
Ebangelioek esaten dutena, erriagandik jaso dute.
Ebangelio apokrifoak, Miren'i kristauek zioten maitasunaren
adigarri.
II Mendearen lenen erdian Miren Doneaganako eraspena.
Apokrifoak berriro: eta lenen teologilariak.
Antioki'ko Iñazio, Lyon'go Ireneo, Erroma'ko Justino
Mendearen azkenean, Kartago'ko Tertuliano.
 mendea ta Miren Donea.
Alexandri'ko Origenes. Poitiers'ko Ilario.
Miren Donearen birjintasuna, erditze aurretik.
Erditzean ere birjiña?
Ireneo zalantzan? Tertuliano aurka. Jeronimo ere zalantzan?
Erditze ondorean ere Miren beti birjiña?
Ebangelioak aipatutako "Jaunaren Senideak.
Tertuliano, Elbidio ta Bozano birjintasun orren aurka.

Kristaudia, ordea, birjintasun orokorraren alde.

Milan'go Ambrosio'ren mintzaera Miren Beti Birjiñaren alde.

IV MENDEAREN ASIERAKO AITASANTUAK 190.

Martzelino. Sasijainkoei bein intzentsu eskeiña? Ta, ori egia ba'litz, zer?

I Martzelo. Erroma'ko karriketetan zalapartak.

Eusebio. Zalapartak berriro Erroma'ko Elizaren barnean.

Melkiades. Aitasantua ta inperatorearen arteko arremanak.

Silbestre. Kostantino'ri legena sendatu?

"Donatio Constantini", "Kostantino'ren Doaia".

Dokumentu orren balioa.

DONATIKERIA 200.

Ereji orren muiña. Donatikeria eta gaur-egungo "
Askapen-Teologia "

Donatikeri zaleek anarkistak?

Martiri iltzeari ereje aiek zioten zaletasuna.

Kostantino'ren aiekingo jardunkera: zigorra.

Kostantino'k amore eman bear azkenean.

ARIO TA ARIANIKERIA 220.

Arianikeriak, alako indarra ,zergaitik? Ario ta bere gotzaia:

Alexandri'ko Alexander.

Ario'ren nortasuna ta nolakotasuna.

Aro artako gotzai batzuk: Palestina'ko Zesarea'ko Eusebio,

Samosata'ko Paul, Nikomedi'ko Eusebio...

Alexandri'ko Atanasio.

Antioki'ko Luziano.

Antioki'ko Teologi-Eskola ta arianikeria.

Urtez-urte arianikeriaren lenen urratsak

Ario'ren "Thalia" izeneko idaztia.

Ariotarren arrazoiak

Eztabaidako itzak: "homousios", "homoiusios".

"Homoios" eta "hypostases". "Anomoiostarrak".
Kostantino inperatorearen jardunkera.

NIZEA'KO KONTZILIO EKUMENIARRA 240.

Nizea'ko Kontzilioa ¿Kostantino'ren kontzilioa? Nizea'n bildutako gotzaiak.
Kordoba'ko Osio'ren garrantzia.
Kostantino benetan kontzilioa aurrera ateratzearen alde.
Soilki inperio-barrungo pakea nai zualako?
Semea Aita'ren "omousios", ots, Aita'ren "zertasunkide".
Zergaitik izan zan ori, ia gotzai danek onartua?
Kostantino'k Ario'ri ta Atanasio'ri eskutitz baldarra.
Kontzilioaren beste erabaki batzuk.
Nikomedi'ko Eusebio, eta Ario bera, erbestera jaurtiak.

KONTZILIO OSTEKO BORROKAK 266.

Orain Kontzilioko gotzairik geienak Kontzilio aren aurka. Ori zergaitik?
Nikomedi'ko Eusebio eta Ario erbestetik yare itzuli.
Ario'ren aitorten iruzurlaria
Nikomedi'ko Eusebio arianikeri-zaleen buruzagi. Eta Kostantino'ren aolkulari!
Kostantino arianikeri-zaleen alde.
Atanasio bein da berriro, erbesteratua.
Sortalde guztia Atanasio'ren aurka.
Palestina'ko Zesarea'n ariozaleen batzarra:
Atanasio'k gotzai bat erail ote zuen edo ez aztertzeko!
Tiro'ko sasikontzilioa.
Kostantino Atanasio'ren aurka.
Alare, Kostantino, bere azken urteetan benetako kristaua.
Kostantino'ren eriotza, Nikomedi'ko Eusebio'k bataiatuta.
Atanasio, yare, erbestetik bere urira: Alexandri'ra.

KOSTANTINO AUNDIAREN SEME KAXKARRAK . . . 294.

Inperioaren zatiketa. Kostantino Aundiaren nortasuna ta nolakotasuna.

Odola berriro bere sendiaren barruan.

II Kostantino I Kostante anaiaren aurka gudan illa.

I Kostante sarkalde guztiko inperatore.

I Kostante, Atanasio'ren adiskide sutsua.

II Kostantzio, Atanasio'ren etsai amorratua.

Julio Aitasantua Atanasio'ren lagun eta babesle zintzoa.

Sardika'ko Sinodoa.

Sortaldetiko gotzaiak, zipozturik Sinodo'tik igesi.

Julio Aitasantua, Osio ta Atanasio gotzai aiek eskomikatuak.

Sortaldea zisman?

I Kostante, Magnentzio iraultzalariak garaitua. Eta erailla.

Atanasio Erroma'n lekaidetzarako zaletasuna ereiten.

II Kostantzio Afrika'n donatikerizaleak zigortzen.

ATANASIO DONEAREN URTERIK BETEENAK 311.

Atanasio berriro Alexandri'n. Atanasio eta Ejito'ko lekaroetako lekaideak.

Atanasio eta Etiopi'ko Elizaren sorkuntza.

Liberio Aitasantua Atanasio'ren adiskide.

Akilea, Arles, Milan eta Beziers'ko sinodoetan gotzaien jardunkera negargarria II Kostantzio'ren esanera makurtuz.

Makurtu ziran Liberio'k bidalitako ordezkariak ere.

Lau gotzai bakarrik II Kostantzio'ri aurpegi emateko gauza.

Lauak erbesteratuak.

Poitiers'ko Ilario'ren jardunkera bikaiña.

II Kostantzio, Liberio Aitasantuaren aurka..., alperrik.

Liberio erbesteratua. Felis, sasiaitasantu.

II Kostantzio Osio'ren aurka. Osio, erejira jausi?

Atanasio, igesi, Ejito'ko lekaroetako lekaideen artera.

An idatzi zituan liburuak.

Alexandri gotzai arianikeri-zaleen menpean.

Katolikoan aurka zigorketa gogorra.

Arianikeriaren zatiketa.

Aezio, ta bere "anomoioskeria".

Antzira'ko Basilio eta onek asmatutako "omoiusios" itza.

Sortaldeko gotzaidia omoiustarra; zergaitik?

Sirmio'ko "formula" edo sinistarauak.

Liberio Aitasantuaren arazoa.

Liberio'ren eta II Kostantzio'ren arteko solasaldi latza.

Liberio erbesteratua.

Liberio ariotarren katigu.

Katigutzape artan, izenpetu ote zuan zerbait Liberio'k?

Zergaitik utzi ote zion Kostantzio'k Erroma'ra itzultzen

Felix sasiaitasantua Erroma'tik erriak uxatua.

Arianikeriaren zatiketa irukoitza.

Kontzilioa egin da kontzilioa egin, gelditzeke, II Kostantzio.

Bere azkeneko urteak.

Barbaritarren aurka garaille.

Bere bi lengusuak, Galo ta Juliano geeroagoko fedeuktzaillea,

"Zesar" izendatu.

Galo, Sorkaldeko "Zesar", Kostantzio'k berak eriotzara epaitua.

Juliano, Galietako "Zesar", iraultzari inperatore izendatua.

II Kostantzio'ren eriotza, Juliano lengusuaren aurka zijoala. .

JULIANO "FEDEUKATZAILLEA", INPERATORE 367.

Bere gaztaroa Kapadozi urrutian erdi-baiturik. Ariotarren artean azia eta ezia.

Elizako "lector" edo "irakurlea".

Filosofilari eta ertilari jentillen miresle sutua.

II Kostantzio bere lengusuak, Galietako "Zesar" egiña.

Galietan, jaurle bikain eta gudalburu yayo garaillea.

Adimen zorrotzeko gizona, baiñan amets-mundura iraulixea.

Aztikeri eta jakintz-izkutu zalea.

Galietako gudariak, iraultza-bidez inperatore egiña.

Bere aurka zijoala, II Kostantzio'ren eriotza.

Juliano inperiolur osoko inperatore.
Jentiltasuna, berriro Erroma'ren erlijio.
Juliano Elizaren zigortzaille.
Zigorkera aren nolakotasuna.
Jerusalen'go Jauretze judutarraren bir-eraiketa.
Zergaitik gelditu zan eraiketa ura?
Juliano'ren idaztiak.
Pertsiarren aurkako gudu txoroa.
Juliano'ren eriotza: "Garaille aiz, Galilear ori".
Egia ote, ori esan zuala?

NIZEA'KO KONTZILIOAREN GARAITZA 385.

Juliano "Fedeukatzaillearen" ondorengo Eliza. Jobiano inperatore zintzoa.
Diarkia: Balentiniano-Balente.
Barbaritarrak muga guztietan borrokalari.
Saxoniarrak Britani'n. Gotiarrak, Danubio'ren egoan.
Bi inperatoreak jentiltasunaren aurka.
Balentiniano, Sarkaldean benetako katolikoa.
Balente, Sortaldean, arianikerizale gogorra.
Sortaldean, katolikoak zigorpean larri.
Atanasio berriro erbesteratua.
Balentiniano'k Graziano aukeratu bere ondorengo.
Balente'ren eriotza gotiarren aurka borrokan.

OSTERA "DIARKIA": GRAZIANO-II BALENTINIANO . 389.

II Balentiniano, umetxoa, Graziano'ren erdianaia. Iraultza berriro Sarkaldean.
Magnus Maximus sasiinperatore. Graziano erailla.
Graziano'ren izaera bikaiña. Berak emandako erlijio-lege berriak
Jentiltasuna ta erejia, zigortuak.
Teodosio'k, Magnus Maximus garaituz II Balentiniano salbatu.
Justine II Balentiniano'ren ama arianikeri-zalearen eskua.

II Balentiniano eta Justine Milan'go Anbrosio'rekin asarre.
Baiñan, Justine adiskide ta lagun aundiak, biak

IV MENDEAREN BIGARREN ERDIKO AITASANTUAK 403.

Markos eta I Julio. I Julio Atanasio'ren adiskide aundia. I Julio aitasantuzaren eskubideen babesle.

Liberio Aitasantu eta Felis sasiaitasantua.

Damaso Aitasantua eta Ursino sasiaitasantua.

Asarrealdi ta borroka beltzak Erroma'n

Damaso eta erejia. Ariokeria iltzeaz inperio-lurretan.

Damaso ta Zesarea'ko Donebasilio, asarre?

Alexandri'ko Donatanasio'ren erruz?

Sirizio Aitasantu. Anbrosio'ren adiskide.

Sirizio origenes-zalea zalako, Jeronimo asarre?

KATOLIKOTASUNA SENDOTZEN 418.

Ereji berriak.

LAUGARREN MENDEKO INPERATOREAK 419.

I Teodosio "Aundia". Katolikotasunaren babesle zindoa. Teodosio, ereje ta jentillen aurka.

Barbaritarrekingo jardunkera berria.

Bisigotiarrak, Teodosio'ren esanera, Erroma'ren alde borrokan.

Teodosio, Anbrosio Doneak eskomikatua.

Katolikotasuna Erroma'ko Inperioaren erlijio bakar eta ofiziala.

Teodosio'k inperioa bere bi semeen artean zatitu.

Erroma'ko inperioa, betirako bi zati egiña.

APOLINARKERIA 428.

Laodizea'ko Apolinar aita-semeak. Semea ereji sortzaille. Bere pentsaera. Ereji berriaren muiña.

Atanasio erejiaren aurka.

Apolinarkeriaren gaitzespena II Kontzilio Ekumenetarrean.

MAZEDONIKERIA 433.

Mazedonio. Bere pentsaera eta izakera gogorra. Kostantinopla'n iru gotzai: Paul katolikoa, Mazedonio, ta Eusebio.

Eusebio au, Nikomedrtik II Kostantzio'k Kostantinopla'ra aldatua.

Paul erbesteratua. Kostantinopla'n zalapartak. Eriotzak kaleetan.

Mazedonio, erriak gotzaigotik jaurtia.

ASABA KAPADOZIARRAK 439.

Zesarea'ko Basilio Donea. Sendi santu batetik iru ume Santu.- Makrina Donea, eta bere anaiengan izan zuan eraginmena.

Basilio'ren gaztaroa. Eziketa sendoa jakintzetan.

Juliano Fedeukatzailea izango zanaren ikasketakide Atenas 'en.

Lekaide, apaiz, eta gotzai. Arianikeriaren etsai.

Basilio Donea ta Balente inperatore arianikeri-zalea.

Basilio eta Mazedonikeria.

Basilio teologilari eta idazle. Bere idaztiak.

Basilio lekaidetzareneraberritzaille. Bere "Lekaidetza-Arauak" .

Erroma'ko kuriarekingo eztabaidak.

Naziantzeko Gregorio.

Ama done baten eta Naziantze'ko gotzaiaren semea.

Eziketa. Olerkari, teologilari, idazle, izlari yayo, apaiz, gotzai, eta Kostantinopla'ko II Kontzilio Ekumeniarraren lendakari, baiñan, bereiziki, bakartasun-zale.

Bere ekintzak, bere borrokak, bere naigabeak, bere garaitzak.

Nisa'ko Gregorio.

Platonzalea. Ezkondua. Gero, lekaidea. Geroago, apaiza; eta gotzaia.

Basilio aren ekintzetan aintzindari.

Bere teologia eta bere liburuak.

SORTALDEKO BESTE ZAZPI IDAZLE KRISTAURIK OSPET-SUENAK 457.

Alexandri'ko eta Zesarea palestindarreko Teologi-Eskolak.
 Didimo "Itxua". Makario "Zarra". Ebaristo "Pontiarra".
 Antioki'ko Teologi-Eskola.
 Tarso'ko Diodor. Jerusalemgo Ziril Donea.
 Erejira jausi zan Apolinar laodizeatarra. Mopsuesti'ko Teodor.
 Osroene'n Edesa'ko Teologi-Eskola.
 Afraates "Siritarra". Efren Donea.

KOSTANTINOPLA: II KONTZILIO EKUMENITARRA . 469.

I Teodosio inperatorea eta Damaso Aitasantua, adiskideak. An-
 tioki'ko Melezio aurrena eta Naziantze'ko Gregorio gero,
 Kontzilioaren lendakariak.

Kontzilioaren inguruko eztabaidak.

Mazedonikeria eta apolinarkeria, gaitzetsiak.

Gogo Deuna, Aita eta Semea bezain Jainkoa. Jainko bakar bat
 bera,

Aita'rekin eta Semea'rekin.

Kostantinopla'ko Kontzilio au, Ekumenekoa?

I Teodosio, Kontziliooko erabakien beteerrazitzaille.

SARKALDEKO IDAZLE TA ASABA DONEAK 485.

Potiers'ko Ilario. Kalagurri'ko Prudentzio olerkari euskaldu-
 na. Nola'ko Paulin.

Milan'go Ambrosio. Bere ekintzak eta bere idaztiak.

Ambrosio ta Teodosio.

PELAJIKERIA 498.

Erejiaren muiña. Pelajio'ren eta bere adiskideen jardunkera. Pe-
 lajikeria gaitzetsia.

JERONIMO DONEA 502.

AUGUSTIN DONEA 519.

ERDIPELAJIKERIA 537.
Augustin'ekirrista?Kasiano'renaburua.Lerins'koDonebixente.

I TEODOSIO "AUNDIA"REN SEME MOTTELAK 554.

Erroma'ren Inperiolurra betirako bi zati egiñik.Arkadio
Sortaldeko inperatore. Eudozi inperatemea.

Donibane Krisostomo erbesteratua.

Onorio Sarkaldeko inperatore.

Onorio jentillen eta erejeen etsai.

Stilikon bandaliarra Erroma'ren serbitzura.

Barbaritarrak Inperiolurraren barrura.

Inperiolurren barruan buruzagi lejiolariak iraultzan.

Bisigotiar ariotarrak Galietan.

Ataulfo bisigotiarra Erroma'ren serbitzura. Gala Plazidia

Onorio'ren

arrebarekin ezkondu.

II Teodosio Sortaldeko inperatore.

Bandaliarrak Afrika'n. Atila Danubio'ren ibarrean.

Pulkeri Sortaldean inperateme. Emakume txit kristaua.

Pulkeri, birjintasunezko ezkontzaz Marzian'ekin ezkondu.

I eta II Leon Sortaldean inperatore.

Genseriko bandaliarrak Erroma'ren gudu-ontzidia garaitu.

III Balentiniano Sarkaldeko inperatore.

Atila. "Landa Katalauniarretako" borroka. I Leon Aitasantua.

II Balentiniano jentil eta erejeen aurka legegintzan.

SARKALDEAN ERROMAR-INPERIOKO AZKEN AMAR
INPERATOREAK 571

Petronio Mximo inperatore. Erroma'n arazo larriak.Marko

Melizio Abito, gotiarrek izendatutako inperatorea.

Mayoriano, III Sebero, eta Antemio: Rizimer suebitarrak
izendatutako inperatoreak.

Olibrio inperatore.

Unnderiko, Genseriko'ren semea eta bandaliarren erregegaia.

Eudoxi "Gaztea" III Balentiniano'ren alabarekin ezkondu.
Nepote, Sarkaldeko inperatore, Sortaldeko I Leon'era laguntzari eskerrak. Orestes, iraultzan garaille.

Romulo Augustulo, Sarkaldeko azken inperatorea, Orestes bere aita

iraultzalari garailleak jarria.

Eruldarrak Erroma'n sartu.

Odoakro. Eruldarren buruzagia, Itali'ko Errege.

IPARRALDETIKO BASATIEN ETORRERA 581.

"Barbaro" aiek nor ziran, zer gizarte-bizi-keraz zuten? Zergaitik etorri ziran? Zertarako?

Zer erlijio-motaz zuten?

SORTALDEKO INPERATORE AALTSUEN ETA SARTALDEKO INPERATORE AULEN ARTEAN V MENDEKO AITASANTU BIKAIÑAK 593.

Barbaritarrek Elizari egindako kalte izugarriak. I Atanasio, origeneskeriaren gaitzesle.

I Inozentzio, Aitasantutzaren eskubideen babesle.

Zosimo Aitasantua ta pelajikeria.

Zosimo, sinispideari-buruzko arazo baterako, "beso sekularraren" laguntza eske.

I Bonifazio Aitasantu, eta Eulalio sasiaitasantu.

Zisma konpontzeko I Bonifazio'k "beso sekularraren" laguntza eskatu.

Onorio inperatoreak, Aitasantuen autaketarako lege-emanez erantzun.

Inperatore batek aitasantu-autaketan eskua sartzen, aurreneko aldia..

I Bonifazio, Eliz osorako Aitasantutzak duan Almenaren babesle.

I Zelestino ere aitasantuen eskubideen zaindari.

I Zelestino eta Efeso'ko Kontzilioa.

III Sisto Pelajikeri eta nestorikeriaren aurka.

I Leon "Aundia". Aitasantutza babesten, au ere.

Atila'ren nortasuna. I Leon eta Atila.

I Leon eta Genseriko bandaliarra.

I Leon eta monofisikeria. Kaltzedoni'ko Kontzilio Ekumene-koia.

I Leon'en nortasuna. Aren kultura sendoa.

Ilario Aitasantua, sinispide zintzoaren eta kanon-legearen babesle.

Simplizio, Aitasantu. Odoakro'rekin pakean. Sortaldean, iskanbi Ilak.

II Felis. Aitasantu-autaketarako eman zuan ala-olako legea.

Akazio Kostantinopla'ko Patriarka.

Kostantinopla'ko Elizaren aurreneko zisma.

I Gelasio. Kostantinopla'ko zisman... asmatu ez?

SORTALDEKO ELIZAREN IBILLERA 623.

KRISTO'REN AMA, "ZEOTOKOS" EDO "JAINKOAREN AMA EFESO'KO KONTZILIOAN 625.

Alexandri'ko Zirilo ta Kostantinopla'ko Nestorio. Nestorio'ren nortasuna.

Nestorikeriaren zergaitia eta mamia.

Zirilo ta Nestorio bata bestearen aurka.

EFESO. ELIZAREN III KONTZILIO EKUMENEKOIA 635.

Kontzilioari-buruzko naaspillak. Kontzilio ura bearrezkoa?

Aitasantua ta inperatorea

Alexandri'ko Zirilo, Kostantinopla'ko Nestorio eta Antioki'ko Jon.

Zirilo azpikeriz ibilli?

Kristo'ren Nortasunari-buruzko Dogma.

Nestorikeria Kontzilioaren ondorean ere bizirik.

Eliz Nestoritarren zabalkundea. Pertsu, nestoritarra.
Kazastan, Turkestan, Tibet, Mongoli ta Txinaⁱko Eliz Nestoritarra.

Indi'ko Eliz Nestoritarra,
Pertsu'ko Eliz Nestoritarren itzala maometarren artean.
Gaur-egungo Eliz Nestoritarra.

GURE ELIZA ERROMA'RENINPERIOLURRETIK AT 646.

Pertsu'ko Eliza. Bere nortasuna.
Elizaren aurkako lenen zigorraldia.
Bigarren zigorraldia.
Pertsu'ko Elizaren aitzoko martiri ugariak.
Pertsu'ko Eliza nestoritar biurtua.

IZTEGI 662.

ITZAURREA

Eskuetan duzu, irakurle, Eliz-Edesti-Sorta onen seigarren liburua: "ELIZA TA ESTADUA ALKARTU ZIRAN DENBORAKO ELIZA.

Eta beste edozer gauzaren aurretik, liburuaren izenburu ortaz esan nai nizuke zerbait. Ez zait erreza gertatu izenburu egoki baten billaketa. Eta orain ere... ez dakit egokia dan azkenean eman diodan ori. Bai, badakit bertan "ELIZA" itza bi aldiz agertzen dala, baiñan ez da ori geien kezkatzen nauan arazoa.

Aurrena, "AGINTARI KRISTAUEN DENBORAKO ELIZA" etorri zitzaidan burura, liburu au "bataiatzerakoan". Baiñan Agintari kristauak gero ere asko izan diralako eta, Jainkoari eskerrak gerontzean ere ugari izango diralako, ez zidan izen buru orrek balio, aski muga estuen arteko aro motza bait du gai nere liburu onek: 313'tik 576'era bitarteko asti laburra.

Orduan, idazti oni "ERROMA'KO INPERATORE KRISTAUEN DENBORAKO ELIZA" izen-ipintzea gogoratu zitzaidan. Baiñan ez zitzaidan izenburu ori ere atsegiña gertatzen, Orduango inperatoreak kristauak izatea ez baiña garrantzi aundiagoko gauza bait da edestiaren orrietarako, inperatore aiek kristau izatearen ondorioa: Elizarentzako pakea eta askatasuna.

Oridalata, liburuari "ASKATASUNA TA PAKEA LORTU ZITUAN DENBORAKO ELIZA" deitzea artu nuan asmo.

Ez ninduan ordea izen orrek ere "betetzen". Izan ere, askatasun ura eta pake ura baiño zerbait sakonagoa eta astunagoa eta milla

aldiz edestia-zear garrantzi aundiagokoa gertatu bait zan, ordurarte jentillak izandako inperatore aiek kristau biurtu izatetik: Eliza ta Lateria alkaturik gelditu izatea. Nola gaiñera bata bestearekin alkaturik!

Alkartasun orokor ori izan da edestiaren ardatza gaur-egun arte. Eta gaur-egunez ere, zenbat kristauak ez dute alkartasun orokor ura kuttunkeri biguñez amesten!

Ortik, eskuetan daukazun idazti onen izenburua: "ELIZA TA ESTADUA ALKARTU ZIRAN DENBORAKO ELIZA".

Badakit izenburu ortan "ELIZA" bi aldiz agertzen dala, eta ori "alperrikako bikoizketa", ots, gateleradunen esakeraz "redundancia" izan daitekeala, alperrikako bikoizketa ba'litz beintzat **eta** orrela ba'litz, erretorikak agintzen duanaren aurkakoa okerkeri bat izango litzakela.

Baiñan neri erretorikagaitik ez zait axola aundiegirik. Argitasuna zait neri benetan axola. Eta argitasun ori billatzeko, irakurketa leguntzen, argitzen eta ulerterrezagotzen duan guztia erabilli bear dala iduritzen zait, eta irakurketa gogortzen, illuntzen eta ulerkaitzagotzen duan guztia erabat eta asarre baztertu bear dala.

Gaiñera, liburu onen izenburuan "ELIZA" bikoiztatze ori, ez zait neri ain alperrikakoa gertatzen.

Neke aundirik gabe onartu nezakean liburu onentzat onako beste izenburu au ere: "ESTADUAREKIN ALKARTU ZAN DENBORAKO ELIZA". Izenburu ori erretorikaren arauekin bateratuagoa zan agian, baiña baita legorragoa ere. Ez zitzaidan gaiñera bear bezain aberatsa iduritzen. Aulegia zan. Ez zuan indarririk. Ez zitzaidan, alkartze arek izan zuan izugarrizko garrantzi guztia kementsu adierazteko egokia agertzen. Ta, ez dezagun aztu, egokitasun ori billatzen saiatzea ere erretorikaren arau bat dala. Erretorikaren araurik nagusiena.

Orrela sortu zan liburu onentzat, orduango nere ustez azkene-koa izango zan izenburua: "ELIZA TA ESTADUA ALKARTU ZIRAN DENBORAKO ELIZA".

Alare gelditzen zitzaidan kezka bat barruan. "Eliza ta Laterria beti ibilli bear dituk alkaturik, errialde kristauen onerako, esaten nion ere buruari Bakoitza bere eginkizun bereizian arituz, baiñan beti ere alkaturik eta alkarri lagunduz".

Bereala oartu nintzan Kostantino'z onderengo Elizaren eta Laterriaren bitarteko alkartasun ura beste mota bateko alkartasuna izan zala, ia-ia bi Erakundeak Erakunde bakarra biurtu zituan alkartasuna. Gorputzak eta animak gizon bat egiten duten bezala Elizak eta Laterriak ere "Izaki" bat egiten dutela uste izateraiño iritxi bait zan azkenean erdiaroa-zear jendea. Izaki orren "anitua" Eliza omen zan; "gorputza" berriz, Laterria eta, "anitua" sagaratua zualako sagaratua omen zan batuketa ortatik sortzen zan Izakia ere: KRISTAUDIA.

Oldozketa ortatik irten zitzaidan, erabat azkenekoa gertatu dan izenburua: "ELIZAK ETA ESTADUAK BAT EGIN ZUTEN DENBORAKO ELIZA".

* * *

Kronologi edo aldien erari dagokionez, sail ontako sei liburuen atean bigarrena bear luke liburu onek. Apostoluen eta martirien denborako Elizaren ostean, I Kostantino "Aundiak" Elizari eman zion pakeaz-geroko Elizaren edestia aztertzen bait du.

Pake arek, iparraldetiko erri basatien etorrerak astindu ta ankazgoratu zuan arte iraun zigun Kristaudiko Sarkaldean.

Orregaitik Sarkaldeko Inperio Erromatarraren jausketaraiño luzatzen du, eta or amaitzen du, liburu onek bere ikerketa-lana.

Idazti-sorta au ordea, On Jose Zunzunegi edesti-irakaslearen aolku zugarra jarraituz, Birjaiotza-Aroan asi nualako gertatzen da seigarrena berez bigarrena izan bear luken liburu au.

Ona, aurreko bosten izenburuak:

"SAN IÑAZIOREN DENBORAKO ELIZA": Amabost, amasei eta amazpigarren medeetako Birjaiotzakoan Elizaren ibillera.

"DENBORA BERRIETAKO ELIZA": Amazazpi eta emezortzigarren mendeetako Argikuntzaren aroan Elizaren bizitza.

"DEMOKRAZIAREN DENBORAKO ELIZA ": Emeretzigarren mendean Elizaren jardunkera.

"GURE DENBORAKO ELIZA ": Ogeigarren mendeko Elizaren arazoak eta itxaropenak.

"APOSTOLUEN ETA MARTIRIEN DENBORAKO ELIZA": Aurreneko iru mendeetako Eliz gazte aren ibillera neketsu aintzakorra.

Eskuetan daukazun onek laugarren eta bosgarren mendeak aztertuko ditu, 313¹ garren urtean Lizinio eta Kostantino inperatoreek Elizari pakea eman ziotenetik, 576'ean Odoakro eruldarrak, Romulo Augustulo inperatorea garaituta, Erroma'ren Sarkaldeko Inperiotza ezereztu zuan arteko epea jorratuz,

* * *

Liburu au argitara agertu aurretik, badut, beti bezala, nori eskerrak emana:

Gazteiz'ko Eliz-Unibersitatean Itun Berria irakasten duan On Jose Manuel Arroniz biblilari yayo adiskideari lendabizi. Liburu ontan, Itun Berriko Liburu Sagaratuen "kanon" edo "zerrenda" Elizak nola osotu zuan azaltzen duan atala berea da. Nik ez bait dut, berak gazteleraz idatzi zidana euskerara itzuli besterik egin. Ar bitza nere eskerrik beroenak apaiz jaun bikain onek.

Ikastetxe berean irakasle da On Karlos Garzia Llata apaiz salesiarra ere. Mirenizti edo mariologia irakasten du. Nik, liburu ontan, lenen mendeetako kristauek Miren Neskutsari izan zioten eraspenaz idazteko, bere laguntza eskatu nion-da, berak idazlan oparo bat gertutu dit gazteleraz.

Alare, nere liburu ontako atala ez da aren lan orren itzulpena. Lendabizi, nere au zerbait zabalagoa dalako, eta, bigarren, nik ari ez diotalako lerroz-lerro jarraitu. Alatagutziz, izugarritzko laguntza aundia izan zaizkit berak idatzi dizkidan orriak.

Eskerrak baitare beti bezala, nere idazketako akatsak zuzentzen dizkidan Joseba Zubikarai lekaide karmeldarrari. Oraingoan gaiñera, esker berdiñak eman bear dizkiot lan ortan bertan lagundu didan On Andres Agirre apaiz zegamatar adiskideari.

Irakurle. Ikus, eskuetan daukazun liburu onek, aratz irten dedin erabilli dituan urratsak:

^a Lendabizi, nik neronek, ortarako "eragaillu" edo "ordenadoreak" ematen dituan erreztasunetaz baliatuz, eragailluan bertan astiro aztertua, garbitua eta txukundua izan da.

2'gna: Berriro neronek goitik beera bir-irakurria. Len oartzeke igaro ziran akats berriak aurkituz, jakiña.

3'gna: Akats berri oiek zuzendu ondorean, Zubikarai'tar Joseba'ri bidalia.

4'gna: Joseba'k aurkitu dituan akatsak eragaillura jasotzerakoan, berriro arreta aundiz guztia ber-irakurria.

5'gna: Zuzenketa oiek danak eginda Agirre'tar On Ander apaizari emana.

6'gna: Ander'ek ere aurkitu bait ditu akatsak, akats oiek eragaillura sartzerakoan atzera berriz ajola osoz irakurria.

Alare, irakurle, baietz alatagutziz zuk, guri eskuetatik iges egin diguten akatsak aurkitu.

Baditut beste batzuk ere, nere eskerrik onena ongi merezia dutenak:

Eragaillu-arazoetan ain ederki lagundu ditaten Xabier Garnika eta Luis Blanco, gai auetarako, Gazteiz'ko gure Elizbarrutiar-Politnik-Istitutoan irakaslerik yayoenak.

Era berean nere eskerrak, laser-bidez orri auek argitaratzeko lagun atsegin izan ditudan Maria Cabrerizo Andreari eta Ana Biana Andereñoari, Istituto berean lan egiten duten idazkari prestuak biak.

Nere eskerrak baitare, orri auetan azkeneko akats-eiza egin duten Mauro Elizondo ta Augustin Apaolaza beneditarrei eta Patxi Beristain frantsikotarrari.

Atagutziz, ziur nago akatsak aurkituko dituzula liburu ontan. Nere adiskide aundi batek esan oi duanez, soilki komunisten eta opusdeitarren libuurak agertzen omen dira akatsik gabe. Gu ordea, iñolaz ere oso akats-garbitzaille makurrak gera. Barka eiguzu, irakurle.

* * *

Nere liburu auetakoren bateko itzaurrean esana dut, jakintza aundiko gizontzat daukadala Zubikarai'tar Joseba lekaide karmeldarra. Orregaitik izan zaizkit ain atsegiñak bere eskutitz batean aurkeztu dizkidan itz auek:

"Karmen'go Prailleak - Markina - (Bizkaia).

"Kaixo Bixente adiskidea:

"Zuk Elizako Kondairari buruz idazten dozuezan orrialde sendoak gogoz irakurtzen dodaz, eta gaiñera, niretzat ezjakiñak diranez, jakingarri egiten jataz.

"Eskarrak, ba, eta agindu".

Zuri eskerrak, Joseba.

* * *

Arras gizon jakintsua eta lenen-lenen maillako idazlea da neretzat Zubiri'tar Iñaki ere. Eta, gaiñera, bera injinierua dalarik, — banuan orrelako zientzi-gizon baten iritzia jakiteko gogoata, ain arreta aundiz, akatsak egoki billatuz eta guzti irakurri duan nere azkeneko liburua zer iduritu zaion galde egin diot. Ona zer erantzun didan:

"Eliz-Edesti-Sortako bere bosgarren alea dan "Apostoluen eta Martirien Denborako Elizari buruz, nire eritxia emon dagidan eskatu daust, idazle eta adiskide ederretsia dodan Latiegi'tar Bixente'k, eta nai orreri uko egin ezin dagikeodan ezkerro, arloari ekiten dausat.

"Izan be, elizgizona ez nazan aldetik, ni baiño egokiagoa izango zan orretarako, Eliz-arazoetan ezaguera izan dagian bat, baiña Bixente'ren eskatutakoari uxatzerik ez, eta liburu onek elerti ta euskerari buruz dituan bereiztasunak soillik aipatuko ditut, gogoan artzeke niri ez dagokidazan beste ikuspegiak.

"Liburua lenengo apostoluen garaian asten da, eta aldi aretako Palestina'ko giro, agintari, egoera politikua etabar, labur baiña argi eta zeatz eskintzen daukuz. Olan, Kristo'ren ondorengoan ezaugarriak emoten daukuz, baita erodestarren leiñuko agintarienak be.

"Bidali edo apostoluen artean Tarso'ko Paul erraldoi agertzen yaku, ez bakarrik jentillen artean buruturiko lanagaitik, Kristo'ren irakatsiaren orokortasuna aldarrikatu ebalako, ikuspegi motzeko askoren jarkipena gaudituz. Izan be, Elizaren lenengo aldietako kristauak su bereizi batek artuta ikusten doguz, aurrean aurkituko ebezan oztopoak garaitu arte, eta Jaunaren mezua munduan zear aldarrikatuz.

"Elizaren asiera ta garapenak zer-ikusi andia dau ez bakarrik judutarrekin, baita "Mare Nostrum" itsasoaren ertzean kokatuak ziran beste erriekin be, Erroma'ko edestiarekin batez be. Augaitik ba, kristautasunaren garapenaz batean, lenengo mendeko guztitariko gora-beera politikuak damoskuz, eta zer esanik ez, Elizaren barruan sortu ziran sostorrak, erejiak eta abar.

"Bigarren eta irugarren zatietan, bigarren eta irugarren mendetako gora-beerak edesten daukuz, eta lenengo zatiaren ariari darraikio, iru zatiotan alkartasun osoa lortuz. Kristo'ren bidalien eskukada batek, eziña zirudiana jaritsi eban, eta aren anditasuna, baita txikikeria batzutan be, aldi aretako errien edestian tartekaturik eskintzen dauku, maisuki ta ezin atsegiñago.

"Arritzekoa da, 356 orrialde dituan idazti au osotzeko, egilleak bere gain artu bear izan dauan lana. Liburu on bat egitea zalla da, baiña onezaz gañera, oso zorrotza izan bear danean, egiari ta edestiari uts egin barik zor yakon begirune ta zeaztasuna gordetzearen, askozaz zaillagoa da, eta onetan, idaztiak ez dau utsik egin.

"Asko ta ondo idatzi dau Bixente'k euskal alorrean, eta esan bearrean naz, gitxik izango dabe berak aiñako erraztasun, argitasun, eta yayotasuna idazteko. Niretzat, egillea bere duiñean onenatarikoa da, eta bere bikaintasuna ondoen adierazteko, auxe esan bear dot: txit ulerterraza dala. Ona emen idazle batek bete bear dauan baldintzarik ederretsiena, gaur ainbat idazti ulerteziña, astuna, eta ganorabakoa euskeraz argitaratzen danean batez be. Idazti bat argitaratzen dodanean, nire irakurleai egiten dautsedan lenengo itauna edo galdera auxe izan oi da: "Ulerterraza izan yatzu... "? Eta baietza artzen dodanean, ezin niretzat sari andiagorik.

"Euskera idaztean, Bixente'ren lumari euskerea parra-parra dario mendiko iturburuari ur gardena lakoxe. Euskera jatorra, bizia, ariña, eta malgua, jaiotzez euskalduna dan bateri dagokion lez, au da, berez eta erraz.

"Idazle baten baldintzarik nabarmenena, ulerterraza izatea dala esan dot, baña au asko izanik be, ez da aski. Onezaz gañera, idazkerea atsegiña, erakarkorra, izan bear, eta idazti batek asieratik azkeneraiño indar jarki-eziriaz erakasten gaituanean, eta amaitu arte eskuetatik ezin dagikegunean laga, orrek esan gura dau, egilleak goresmenak merezi dituala, eta nik gaur, Bixente'ren Elizari buruz idatziriko boskarren liburu au irakurri ondoren, orixe bera esan bear dot, au da, irakurten asi nintzanetik amaitu arte, laga-eziñeko atsegiñaldia izan dodala. Aurrera Bixente, gure euskereak olako idaztiak merezi ditu-ta...! "

Zubiri'tar Iñaki bezain ertilari bikain bati atsegiña izatea baiño sari aundiagorik izan al daiteke neretzat eta nere idazti apal onenzat?

* * *

Beste zerbait ere esan nai nuke itzaurre ontan, Euskera-zaintzaren araueti zintzo jarraitzearren nere liburu auetan erabilli dedan eta oraindik darabilkidan idazkeraz.

Badakit Euskaltzaindiak, ez oraingo Euskaltzaindi txepel onek, ez, lengoak baizik, Lekuona, Kanpion, eta Azkue'ren Euskaltzaindi jator arek, agindurik utzi zuala, itzaren bukaeran "LL"rik eta "R"rik ez idaztea.

Gero, gure Euskerazaintzak, bere-egin zuan antziñako Euskaltzidi onuragarria aren agindu ori.

Euskerazaintzak ori onartu zuan batzar artan, aurka irten nintzan ni. Zergaitik?

Lendabizi, gaur-egun Euskalerrriaren erdialdeko euskerak itzen azkenean "R" eta "LL" oiek argi-argi agoskatzen ditualako. Guk ez dugu esaten "erregin", "erregiñ" " baizik. Eta era berean, "urdiñ", "berdiri", "ariñ", "egiñ", Augustiñ... Gauza bera "LL"ren agosketari dagokionez. Guk, beti, "Errezill". "Usurbill", "Urgull" esan izan dugu. Etabar.

Bigarren, Erdiaroko euskaldunek "LL" eta "Ñ" guk baiño askoz eta askoz geiago erabiltzen zituztela, ziur usterik nagoalako. Ori bait da antziña artako dokumentu zarren azterketatik atera dutan ondorioetako bat.

Badut beste irugarren arrazoi bat ere:

Adibidez, "Errezill-en", "Augustifi'ek", "Martifi'entzat, eta orrelako beste esakizunetan bi itz lerrotxo baten bidez edo goiakotxaren bidez alkartzen diranean, bi itz oiek bat egiñik gelditzen diralako, aurrenekoaren azkeneko "LL" eta "N" aiek ez dirala azken-izkiak, eta orregaitik, idatziak izaterakoan, ez dutela zergaitik "L" ta "N" biurtuak izan bearrik.

Gauza bera gertatzen zaio "RR" izki gogorrari ere, itzaren azkenean goiakotx edo lerrotxo baten bidez beste itz batekin alkartzen danean. Bi "RR"z idazten ez ba'da, bere doiñu gogorra galtzen duala. Orregaitik, adibidez, "Birresan" (bi aldiz esan) ala "berresan" (berriz esan) beren bi itzen artean lerrotxo bat sartuz idazten diranean ere, beti "birr-esan" eta "berr-esan", idatzi bear dira. Lendabizi, Ierrotxoak, edo kakotxak bi itzak bat egin dituan ezkerero, "RR" bikoitz ori itzaren azkeneko izkiak ez diralako;

eta, bigarren, "bir-esan" eta "ber-esan" idazten baditugu, itz oiek "biresan" eta "beresan" irakurri bearke lirakelako.

Era berean "malkorrazpiko", "malkor-azpiko" idazten ba'da, irakurleak, batez ere euskalduna ez ba'da, "malkorazpiko" irakurriko du, euskeraz "malkorr-azpiko" esaten dana.

* * *

Agian, aski arriturik, eta bearbada baita naiko asarreturik ere ikusiko zuan irakurle bat edo bestek, nik, itaun batzuen asieran galde ikurra erabiltzen dutala.

Badakit Euskaltzaindiak ia bere jaiotza unetik eman zuala asierako galde-ikur ori ez erabiltzeko aolkua. Ni ordea, euskeraren osasunaz geiago arduratzen naiz Akademien aolku eta aginduetaz baiño.

Badakit euskeraren birpizkundeko idazle miresgarri aiek, -- Orixe'k, Lizardi'k, Lauaxeta'k, Lekuona "zarrak" berak **ez** zutela ikur ori erabili. Nere eraspenik aundienak idazle bikain guzti aientzat! Baiñan euskeraz idatzi duten guztiei baiño eraspen aundiagoa diot nere kontzientziari, ta nere kontzientziak erabilketa orrek euskerari gaitzik ez diola egiten erakusten dit. Alderantziz, on aundia egiten diola, ulert-erretasunaren aldetik.

Badakit, gartzeleraz landa, beste izkuntzek ez dutela erabiltzen. Askotan esan oi didate ori Euskerazaintzako nere lagunek.

Baiñan, purtugalerak ere erabiltzen duala egia izateaz gaiñera, beste izkuntza aiek badute, galdegintzarako, era bereizi bat, aditza aditz-jabeari aurreratuz: "Avez vous..."? frantzeraz. "Have you..."?, inglanderaz. Orregaitik, irakurleak esaldiaren asiera berberatik badaki irakurtzera doana galdera bat dala.

Euskerak ez du orrelako itaunkera bereizirik. "Al", gaur egun galde-esarietarako erabiltzen dugun "al" ori ez bait da berez galde-ikurra oi-ikurra baizik. Eta era ortan izan da gure klasikoek erabilia. "Ekarriko al du", ez da itaun bat, arritasunezko ta

larritasunezko oi u bat baizik: gaztelerara itzulita ez litzake "oa lo traerV" izango, "ique no deje de traerlo!", baizik.

Asierako galde-ikurraren eta oi u-ikurraren erabilketak, maiz aski, aunitz argitzen du euskal-esaldien ulerketa. Adibidez:

"An ¿zer gertatu zan?", irakurri duzu goraxeagoko lerro batean. Idazkera orren indarrez, esaldiaren garrantzia an "gertatu zanaren" gainean ipintzen da. "An zer gertatu zan?" edo "zer gertatu zan an" idatzi banu, garrantzia "gertatu zanari" ez baiña, gertatutakoa gertatu zan "lekuari" eman izango nion.

Ez ote zan aski, kakotx baten bidez, "an, zer gertatu zan?" idaztea. Ez; kakotx orren eragiñez, garrantzia Ien baiño indar geiagorekin gertatua gertatu zan lekuari emango bait genioke".

Nik esan nai nuana era egokian adierazteko, naitanaiez, "an ¿zer gertatu zan?", idatzi bear nuan.

Orregaitik, asierako ikur oiek, esaldia era egokian ulertzeko erreztasuna ematen dutenean, aspaldidanik darabilzkit eta erabilliko ditut nik.

Berez aski zaila dan Euskeraren ikaskaketa, ulerketa, ta erabilketa erreztu dazakean guztia onartu bera dugu guk, eta Euskeraren ikasketa, ulerketa ta erabilketa eragozten duan guztia, gaitzetsi, madarikatu, ta baztertu. Ori kontuan artuz, errez ulertuko duzu zergaitik liburu ontan "H"rik ezin aurkitu izango duzun. Alperrikakoa dalako eta Euskeraren ikasketa, ta Euskerazko idazketa aspergarri ta izugarriki zaila biurtzen dualako.

Euskera bezala il-zori larrian aurkitzen dan izkuntza batekin ez daiteke, arnasa galerazten dioten txatxukeriek jostaketan ibilli.

Ori izan da ain zuzen oraingo Euskaltzidi onek egin duan pekatua, izen guztien artean izenik gogor zakarrena duan pekatu larria: "MATRICIDIUM": Ama Euskeraren eriotzarako bidea gertutu izatea,

Eta oraingoz zer esan geiagorik ez bait dut, pozik aurkeztuko dizut nere norabidea, nigandik zerbait jakin nai baduzu edota nere alde ala nere aurka zure iritzia eman nai ba'didazu, nora jo jakin dezazun: Naikoa zenuke nere izenera, Gazteiz'ko Nieves Cano kalean dugun Instituto "PoItUnico Diocesano"ra idaztea. Baiñan zuzenean nere etxera jo nai ba'duz, ona non aurkituko nauzun:

LATIEGI'TAR BIXENTE
RIKARDO BUESA KALEA, 1 - 3'.
URRUTIZKIÑA, (945) 13.22.11.
01008 GAZTEIZ-BITORI

ERABILITAKO IDAZKIAK

Ona orain emen, liburu au antolatzeko erabilli dedan idaztien bibliografi edo idaztidia. Zerrenda ontako liburuetaz gaiñera, jakiña, erabilli bear izan ditut beste nere lau liburuen itzaurretan aipatu nituan aietatik geienak ere. Ikus emen, orain bereiziki erabilitako idazti berriak:

- "La Chiesa Antica. Sec. II-IV". "Problemi di Storia de Ia Chiesa" deritzan bildumak argitaratua. Milan, 1970.

- "Decretales Pseudo-Isidorianae". Nik, 1963'an Paulus Hinschius'ek egindako argitalpena erabilli dut.

- "Catecismo de la Iglesia Catcilica", Oraintxe bertan, 1992'ko urrillaren I l'an Jon Paul Aitasantuak "Fidei Depositum" edo "Sinispidearen Altxorra" izeneko eskutitz baten bidez mundu osoari aurkeztu dion "Eliza Katolikoaren Dotriña-Liburu" berria. Frantzeraz izan da lendabizi idatzia, eta frantzeratik latiñera eta beste izkuntza guztietara biurtua. Euskerazko itzulpenik ez da. Nik gaztelerazkoa bakarrik izan dut eskuetan. Eta itzulpen ofiziala dalarik, soilki gazteleraz egingo ditut bere aipamen guztiak, naiz nai gabe itzen zentzua aldatu ez dedin. Itzulpen orok alda bait dezake idazki baten jatorrizko zentzua.

- Cullmann, Oskar: "Saint Pierre, Disciple, ApÔtre, Martir".

- Pierre Batiffold: "Le Catholicisme des Origines a Saint Leon". 4 liburu, 1927'tik 1929'ra argitaratuak.

L. Duchesne: "Histoire Ancienne de **Baduzu** erderaz ere izenburu onekin: "Los Seis Primeros Siglos de la Iglesia". P. Rodriguez agustindarrak gazteleratua.

- Peña, Ignacio: "La Desconcertante Vida de los Monjes Sirios. Siglos IV-VI". Salamanka'n. 1985'ean.

Theodoretus Cyrensis: "Religiosa Historia". Liburu ontan, Siri'ko lekaide-lekaimeen edestia damaigu Teodoreto Ziro'ko Gotzai txit ezagunak. Eleneraz idatzi zuan berak. Migne'ren "Patrologia Graeca" n, eleneraz eta lateraz dator, 82'garren tomoan. Paris'ko "Sourges Chrtiennes" bildumak (Paris, 1.979) eleneraz eta frantzeraz argitaratu du. Liburuaren azterketa eta frantzeraketa, Paris-Naterre'ko unibersitatean irakasle dan Pierre Canivet, eta Bruselas'ko unibersitate "yareko" irakasle dan Alice Leroy-Molinghen'ek egin dute. Arras liburu atsegiña da, irakurtzeko, Teodoreto'ren edesti au.

A. Fliche V.Martin. Bi auen zuzendaritzapean argitaratua, "Histoire de L'Eglise". Lenengo Liburua, 1938'an argitaratua. 21'garrena, 1952'an.

- Indro Montanelli. "Storia di Roma". Bi liburu. Nik 1967'an argitaratu zan italierazko irugarren agerpenaren gaztelerazko itzulpena erabili dut. Gazteleratzaillea, Domingo Pruna.

- Eusebio Zesarea'ko Gotzaia: "Historia Ecclesiastica", eta Vita Sanctissimi Inperatoris Constantini". Azkeneko liburu au Eusebio'k ez baiña, seguruaski, aren atzetik Zesarea'ko gotzaia izandakoren batek idatzia izan zala, uste oi da gaur. Liburu oiek Laterazko itzulpen zaarrean erabili ditut. Itzulpen ori Alemani'ko Koloni'n 1570'ean argitaratutako "Historiae Ecclesiasticae Scriptores Graeci"n aurki dezazkezu.

Henry-Marrou: "De la Perscution de Diocletien a la Mort de Grégoire. (303-604)". L.J. Rogier, R. Aubert eta M.K. Knowles'en zuzendaritzapean eratutako "Nouvelle Hitoire de l'Église"ren lenen liburuan.

"Historiae Ecclesiasticae Scriptores Graeci". Alemani'ko Koloni'n 1570'ean argitaratua.

- Lactantius. "Opera Omnia". Samuel Brand'en ardurapean "Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinorum" izeneko bilduman 1890'ean

Biena'n argitaratua.

- P. D Siepierski: "Nicea and the marginalized". (Theologi Dighest, XXXVIII-I-1991). Nik idazle oni, gaur-egungoak diran kezka, IV mendekoei eskatzea zillegi ez dala, esango nioke. Ona zer idatzi digun bere lanaren asieran: "One of the most striking characteristic of the Council of Nicea is its neglect of social and economic issues": "Gizarteko eta ekonomiari-buruzko auziak aztu izatea da Nizea'ko Kontzilioaren ezaugarrietako bat". Baiñan auzi oiek gaurko arazoak dira, ez atzo urrun artakoak.

- H. Leclercq: "Cënobitisme". "Dictionnaire d'Archeologie Chrétienne et de Liturgie" izeneko iztegi aundian.

- Carol J. B.: "Mariology". Laterri Alkartuetako Milwaukee'n argitaratua (1955-1957). Nik, B.A.C.'entzat Marfa Angeles G. Careaga'k gazteleraz egindako itzulpena erabili dut.

Garcia Llata, Carlos. Salesiarra. Gazteiz'ko Teologi-Fakultatean mirenizti-irakaslea. Lenen-Eliza-baitan Miren Neskutsari izan zitzaion eraspenez, nik eskatuta, idazlan eder bat eratu dit. Eta, naiz nik bere eskema jarraitu ez, benetako laguntza aundia izan zait, bai orixe, idazlan eder ori.

- Arroniz, Jose Manuel. Lagun aundia dutan apaiza. Gazteiz'ko Teologi-Fakultatean Itun Berria irakasten duana. Itun Berriko Idazti Doneen "Kanon" edo zerrenda Elizak nola osotu zuan irakatsiz, idazlan bat eskatu nion oni ere. Bere idazlan ori euskeratu ta erri xearen ulertze-neurrira moldatu besterik ez dut nik liburu ontan egin.

La Chatre (Maurice de): "Historia de los Papas y de los Reyes. Homicidios, Envenenamientos, Parricidios, Adulterios e Incestos de los Pontffices Romanos desde San Pedro hasta nuestros dfas. Vertida al castellano por un abogado de los tribunales del reino. Habana, Madrid, Barcelona. 1870". Aitasantuen etaerregeen aurka,

baiñan batez ere Aitasantuen aurka, asmatu ta esan diran zikinkeri, astakeri eta gezurgaizto guztien bilduma.

- I. Ortiz de Urbina. S. J. "Nicea y Costantinopla". 1963'an Paris'en izen onekin argitaratua: Nic& et Constantinople". Bi izkuntzetan, egilleak berak.

Christian Duquoc: "Dieu Diff&ent". Paris, 1977. Bada gaztelerazko itzulpena, 1978'an Salamanka'n "Sfgueme" bildumak argitaratua.

- Bruno Forte: ""Trinita Comme Storia". Milan, 1988. Urte ortan bertan argitaratu zuan "Sfgueme" k liburu orren gaztelerazko itzulpen bat. Liburu onek eta onen aurrean aipatu dugun Ch. Duquoc'enak puntu bat berean oiñarritu nai dute ariotarren aroko "homousiostarren" eta "homoiusiostarren" arteko etsaigoaren arrazoi nagusia: Estoitarren filosofiak eratu zuan giroan. Filosofikera orren ustez, "Unam" edo "Bata" dugu izatedun guztiaren sortiturria. "Bat" edo "Unam" ortatik datorrela zioten estoitarrek, izatedun ooren jerarkia, ots, dan guztiaren mailladia. "Jerarkia" urratzen zutela "homousiostarrek", uste izan omen zuten "homoiusiostarrek", aiek Semea Aitaren "zertasun berekoa" zala esaten zutelako. Ori dioskute beintzat Ch.Duquoc eta B. Forte'ren liburu auk. Ez zait iduritzen zuzen dabiltzanik. Askoz bakunagoa eta era berean askoz sakonagoa dala derizkiot arianikeriaren aroko bi talde aiek bata bestearengandik bereizten zituan arazoa. Ontaz ordea, bere tokian mintzatuko naiz.

- Basurko, Xabier: "El Canto Cristiano en la Tradición Primitiva". Vitoria, 1991.

- Sokrates Scholasticus: "Eliz-Edestia". Nik liburu au "Historiae Ecclesisticae Scriptores Graeci" deritzan bilduman aurkitu dut. Onela dator bertan: "Socratis Scholastici Historiae Ecclesiasticae Libri VII".

- Sozomeno: "Eliz-Edestia". "Historiae Ecclesiasticae Scriptores Graeci" izeneko liburuan onela dator: "Hermiae Sozomeni Salaminii Historiae Ecclesiasticae Libri IX".

Teodoreto: "Eliz Edestia". Au ere "Historiae Ecclesiasticae Scriptores Graeci"n dator. Onela: "Theodoriti Aepiscopi Ciri Historiae Ecclesiasticae libri Qunque".

- "Liber Pontificalis". Bere zatirik zarrena, Kepa Doneagandik Silbestre donea bitartekoa, VI mendean, 514'ean iI zan Simako'-ren aitasantutzakoan -- idatzia da. Nik, bi argitalpen erabilli ditut: Theodorus Mommsen'ek "Monumenta Germaniae Historica"n egiña, eta DucMsne'rena: "Liber Pontificalis. Texte, introduction et comentaire par l'Abbë L. Duchsne. Paris, 1957. Iru tomo dira.

- "Dictionnaire de Gographie Ancienne et Moderne. Par un bibliophile". Dakusazunez, egillearen izenik ematen ez digun liburua da, baiña txit egokia Sarkaldeko uri eta lurralde askoren izen zarrei gaur nola esaten zaien jakiteko. Sorkaldeari dagokionez utsune asko eta aundiak ditu.

- "Dictionnaire de Biographie Franeaise". Paris'en, 1.932'an asi zan argitaratzen. 18 liburu aundi atera dira, eta oraindik "Joncoux" itzaraiño bakarrik iritxi da.

- "Dizionario Biografico Degli Italiani". Erroma'n argitaratzen dana. Aurreneko liburua 1.932'koa da. 18 liburu mardul argitaratu dituzte. Alare, soilki "Difalco" itzara iritxi dira. Oso-oso-oso iztegi ederra da.

- "Dictionarium Morale et Canonicum". Zuzendari, P. Pallazzini. 3 liburu dira. 1962'tik 1966'era Erroma'n argitaratuak.

- "Bibliotheca Sanctorum". Instituto Giovanni XXIII della Pontificia Univeresita Lateranense". Amabi liburu eder dira. Bolandiarren lanean oiñarrituak.

ELIZA IV MENDEAN

ASTIEN URRATSAK

- 303-04....Elizaren aurka Diokleziano'ren lau erabakiak.
- 305 Diokleziano'k eta Maximiano'k Agintaritza utzi.
Bigarren tetrarkia.
- 306 Kostantino Britani'n inperatore altxatua.
- 309 11 Sapur Pertsu'ko errege.
- 311 Galerio'k Elizari askatasun osoa eman.
- 312 Milbi-Zubi'ko borroka.
Kostantino Sarkaldeko Agintari.
Donatikeriaren asiera.
- 312 Lizinio, Maximino Daia garaituz gero, Sortaldeko
Agintari.
- 314 Arles'ko Sinodoa.
- 318 Jentiltasunaren aurka Kostantino'ren lege bakarra:
Jauretxeetaz kanpoko aztigintzaren eta sakrifizioen
debekua.
- 323 Alexandri'ko Sinodoa: Ario gaitzetsia.
Pakomio Doneak Tabenese'ko lekaidetxea sortu.
- 324 Kostantino, Lizinio garaituta Inperatore bakarra.
- 325 Nizea'ko Kontzilioa. Ekumeniarretan aurrenekoa.
- 328 Atanasio Donea Alexandri'ko gotzai.
- 330 Kostantinopla'ren eraikintza bukatua.
Makario Eszete'n.
- 335 "Tiro-Jerusalengo lapurkeria."
Atanasio Alexandri'ko gotzaigotik jaurtia.

- Ario'ren eriotza
- 337 Kostantino'ren eriotza, Inperio-lurra irutan zatitua.
Kostantino'ren iru semeak inperatore.
- 339 Perts'i'n kristauen aurka zigorra.
- 240 Kostant'ek II Kostantino garaitu.
Kostant Sarkaldeko Inperatore bakararra.
- 341 Enkanitarren sinodoa Antioki'n.
Wulfila godo edo gotiarren gotzai ariozalea.
- 342 Sardika'n sinodoa inperatoreak.
- 346 Pakomio Donearen eriotza.
- 347 Kostant donatikeriaren aurka.
- 350 Ilario Poitiers'ko gotzai.
Kostant, Majentzio'k garaitua.
Frankiarren eraso.
- 351 Kostantzio inperatore bakararra.
- 355 Frankiarrak, Alamandarrak Saxoniarrak, inperiolurrera.
- 356 Andoni Donearen eriotza. Atanasio erbesteratua.
- 357-59 Sirmio'ko sinodoak.
- 360 Juliano Sarkaldeko inperatore.
"Omeandarren" kontzilioa Kostantinopla'n.
- 361 Juliano inperiolur osoko inperatore bakararra.
- 362 "Aitorleen" sinodoa Alexandri'n.
- 363 Juliano, pertsiarren aurka borrokan illa.
- 364 Balentiniano Sarkaldeko inperatore.
Balente Sarkaldeko inperatore.
- 365 Alarnandarrak inperiolurrera sartuak.
Armeni'ko Elizaren lenen kontzilioa.
- 366 Alamandarrak garaituak.
I Damaso Aitasantu
- 367 Poitiers'ko Ilario Donearen eriotza.
- 367 Martin Donea Tours'eko gotzai.
Basilio Donea Kapadozi'ko Zesarea'ko gotzai.
- 371 Nisa'ko Gregorio, gotzaia.
Kaliari'ko Luzifer'en eriotza.

- 372 Naziantze'ko Gregorio Donea gotzai
- 373 Alexandri'ko Atanasio eta Antzira'ko Markel'en eriotza.
- 374 Ambrosio Donea Milan'go gotzai.
Sinai'n Faran'go gotzaigoaren sorkuntza.
Galietako Balentzi'n sinodoa.
- 375 Grazian Sarkaldeko inperatore.
Jeronimo Donea basamortuan.
Priszilianikeriaren astapena.
- 376 Ostrogotek Danubio ibaia igaro
Sirmio'ko Fotin'en eriotza.
Grazian donatikeriaren aurka.
- 377 Erroma'n sinodoa: Apolinar gaitzetsia.
- 378 Balente'ren eriotza Adrianopolis'ko borrokan.
Teodosio Sortaldeko inperatore.
- 379 Pertsu'n II Sapur'en eriotza.
Basilio Donearen eriotza. Antioki'n sinodoa.
- 380 Arianikeriaren aurka Teodosio'ren erabakia.
Priszilitarren aurka Zaragoza'n sinodoa.
- 381 Kostantinopla'ko Kontzilioa. Ekumeniarretan bigarrena.
- 382 Ebage pontiarra Eszete'n.
- 383 II Balentin Sarkaldeko inperatore.
Wulfila gotiarren gotzaiaren eriotza.
- 386 Augustin Donea kristau biurtua.
Damaso Aitasantuaren eriotza.
Sirizio Aitasantu. Erroma'n sinodoa.
- 389..... Jeronimo Donea Belen'en.
- 390 Gregorio naziantzetarraren eriotza.
- 391 Teodosio'ren Jentiltasunaren aurkako legeak.
- 392 Balentiniano'ren erailketa Argobasto'k.
Monpsueta'ko Teodosio gotzai.
- 394 Teodosio inperiolur guztiko inperatore bakarra.
Teodosio, inperiolurra berriro zatitzea pentsatzen.
Nisa'ko Gregorio Donearen eriotza.
- 395 Teodosio'ren eriotza. Inperiolurra betirako zafitua.

- Augustin Donea Ipona'ko gotzai.
- 397 Kartago'n sinodoa.
Ambrosio eta Martin Doneen eriotza.
- 398 Jon Krisostomo Kostantinopla'ko gotzai.
- 399 " Uns" edo undarrek Sortaldeari eraso. Gotiarrek Grezi'n sartu.
- 399 Yezdegerd Pertsia'ko errege. Kristauei askatasuna.
- 400 Undarrak Elba ibaiean.

GARAI ARTAKO EDESTILARI ZARRAK.

Legezkoa dugu noski, garai artako idazle zarren berri ematea. Aiengandik artu bait dute aria, gero, orduango arazo eta gertakizunetaz ari izan diran edestilari guztiek.

Idazle zar aien artean, garrantzitsuenak, ezpairik gabe, orduango "Eliza-Asabak" ditugu. Baiñan Eliz-Asaba bakoitza bere garaiean bereiziki aztertuko dugun ezkerro, emen, orri bereizian, soilki beraien kopurua emango dugu.

Mintza gaitezen beraz une ontan, banaka-banaka, Eliz-Asaba izatera iritxi ez ziran antziñate artako edestilarietaz.

* * *

ZESAREA'KO EUSEBIO. Orrela esaten zaio Palestina'n zegoan Zesarea'ko gotzaia izan zalako. Kapadozi'n ere, gaurko Turki'ren erdian, beste Zesarea bat izan bait zan. Palestina'ko Zesarea artan sortu zuan Origenes'ek, AlexancIrrtik alde-egin bearrean aurkitu zanean bere Teologi-Eskola, eta Zesarea artan bizi zan Origenes'en ikasle ospetsu bat, Panfilo, 265'garren urtetik 270'garren urtera bitartean, Palestina'n eta agian Zesarea'n bertan gure Eusebio sendi lander baten altzoan jaio zanean.

Panfilo bera izan zuan irakasle egokia, eta, maixu arenganako esker onez, "Panfili" artu zuan ikasleak abizen lez. Duintasun aundia ematen bait zion gaiñera edozeiñi, Panfilo'ren zuzendaritza-

pean ikasia izateak. Eta, arrezkero, orrela esan ere esan oi zaio beti: Eusebius Panfili.

Diokleziano Eliza zigortzen asi aurretik, asirik zuan Eusebio 'k bere idazketa-lana.

Zigorraldi artan Irakasle-ikasle biak, Panfilo ta Eusebio, espetxera jaurtiak izan ziran. Panfilo, martiri il zan 310'ean. Espetxeratutako guztiak ez ziran eraillak izaten-da, bizirik irten zan Eusebio.

"Fedea ukatu zualako irten zala espetxe artatik bizirik", zabaldu zuten gero bere etsai batzuek. Ori, ordea, gezur-gaizto aundia da. Laister Zesarea bertako gotzai egiña izan bait zan Eusebio. 312'an il zan Maximino Daia kristauen zigortzaille makurra. Ondo bizirik zegoan beraz inperatore aren denboran gertatutako guztia, urrengo urtean Eusebio gotzai egiña izan zanean, eta, ziur, ez zan gotzai egiña izango len fede-ukatzaille koldarra izan

Ario'ren alde irten zan, Ario Alexandri'tik iges Zesarea'ra etorri zitzaionean. Eta orregaitik 324'ean Antioki'n egindako sinodo batek eskomikatua izan zala diote batzuek. Baiñan sinodo ori iñoiz egin zan ere ez dakigu.

Gaiñera eskomika orrek ez du zentzurik. Urte bete geroago, 325'ean Nizea'ko Kontzilioan bait zan, gotzairik onuragarrienetako lez, Eusebio Zesarea'ko gotzaia; eta an egoteaz gaiñera, ari egotzi bait zien Kontzilioko asabek, Kostantino'k inperatoretzan ogei ta bost urte bete zituala-ta, gertakizun ura ospatzeko itzaldia.

Eta, eginkizun txit onuragarri ori Eusebio'ri emateaz gaiñera, Eusebio'k Kontzilioan aurkeztu zuan kredoa, ots, Eusebio'k bere Elizan erabiltzen zuan kredoa, artu bait zuten eredutzat kontzilioki-deek Ario'ren aburuak aztertzeke. Bada au zalantzan ipintzen duanik, baiñan egia dala dirudi

Alatagutziz, egia da baitare, pakearen billa seguruaski arianikeri-zaleen artean, edo beintzat erdi-arianikeri-zaleen artean ibilli zala gure Eusebio, baiñan ori bere lekuan ikertuko dugu.

Orduan, Sorkaide guztian bi ziran gotzai-aulkirik ospetsuenak: Alexandri'koa Ejito'n, Antioki'koa Sirl'n. Azkeneko au eskeiñi zioten 331'an. Berak ordea, Zesarea ¹ko bere Elizari bizkarrik ez ematearren, "avec un beau desintereselement", ots, "apeta-ezarik ederrenez" egin zion uko eskari kilikagarri ari (Catholicisme).

Egon zan Fenizi'ko Tiro eta Jerusalem'go kontzilioetan. Azkeneko au 336'ean izan zan egiña, Kostantino'k agintzen ogei ta amar urte betetzen zituan urtean. Eusebio'k egin zuan Kostantino'-ren aurrean, ori goratzen zuan itzaldia.

337'an ii zan Kostantino. Eta berealaxe urte bete geroago 338'an bertan seguruaski, aren adiskide aundia ain aundia ere! -- izan zan Eusebio gotzai zesareatarra.

* * *

Idazle lez, kristautasunaren arlo asko jorratu zituan Eusebia Zesareatarrak: Edestia, "eksejesi" edo "bibliaren azalpena", teologia, apologia eta baita "elokuentzi" edo "izketederriztia" ere.

Baiñan bereiziki, edestilari bezala izan da beti ezaguna. Bera baita lenen eliz-edestilaria. Bere aurretik ez zuan Elizak edestilari-rik izan. Bera da, egiaz, "le pre de l'histoire ecclesiastique", "eliz-edestiaren aita" (ib).

Edestiztiaz gaiñera gaur bada edestiari-buruz beste "izti" edo jakintza bat: Edestiaren Filosofia. Era berean esan genezake Edestiaren Teologi bat ere badala. Ba edestiaren teologilari izan genduan Eusebio: luma artzerakoan bere elburua, edestiko gertakizun guztiak Jainkoaren eskuetan daudela eta edestia bera Jainkoaren "probidentzi" edo "ardura doneak" daramala erakustea izan bait zan.

Ona, barruti ortako bere lanak:

- "Kronika": Erri zaarren, Kaldea, Asiri, Ejito, Juduerri, Grezi eta Erroma'ren edestia dugu liburu onen aurreneko zatia. Bigarreanean, luzeenean, Abraan'en jaiotzatik asita Kostantino'ren

agintaritzako ogei ta batgarren urtea bitarteko gertakizunen "sinkroni" edo "aldien-kidaketa" damaigu.

Liburu orren lenen-zatia, armenierazko itzulpen batean gorde zaigu, eta bigarrena Jeronimo Doneak latíñera egindako itzulpe-nean.

"Eliz-Edestia": 10 liburu. Ez da elertian eredu: "gaizki eratua, eta gaizkiago idatzia": "il compose mal et escrit encore plus mal" (Ib). "His vast erudition is not matched by clarity of thought or attractiveness of presentation". "Aren ezagupen aundiak ez zuan bere kideko oldozkeraren argitasunik eta aurkezpenaren atsegingarritasunik izan" (Enc.Brit.) Alare antziñateko Eliza ezagutzeko, bear-bearrezko idatzia da berea.

Ta, elertiaren aldetik gaizki eratua eta gaizki idatzia ba'da ere, edesti-iztiaren aldetik zintzo landua da, Kostantino'ri egiten dizkion geiegizko goratarreak gogoan artzen ez ba'ditugu. Badaki Eusebio'k dokumentuek zenbat balio duten, eta ugari damaizkigu bere idazlanaren sarean. Arreta aundiz agertzen ditu albisteen iturriak, ots, albiste bakoitzaren "nondikoa" eta "norengandikoa".

Gaiñera, Eusebio'k, naiz Sarkaldea oso gutxi, arras ederki ezagutzen zuan Sortaldea. Era berean ezagutzen zuan bere denboraz aurretik Sortaldean argitaratutako literatura kristau guztia. Orrela, antziñako liburu aietatik asko, Eusebio'ren bidez ezagutzen ditugu.

- "Martirien Egiñak". Galduak ditugu.

- "Palestina'ko Martiriak Diokleziano'ren Zigorraldian Jasandako Nekeen Azalpena". Bi eran idatzi zituan: era laburrean eta era luzean. Era laburrekoa, bere "Eliz-Edestian" sartu zuan. Era luzekoa sirieraz egin zan itzulpenean gorde zaigu. Oso balio aundiko liburua da, berak ikusitako edo lekuko izan ziranengandik arreta aundiz berak jasotako aibistek ematen bait dizkigu.

- "Panfilo'ren Bizitza". Galdua.

- "Edestiari-buruzko Geografia". Lutelesti edo geografi au, bibliari dagokiona da. "Onomastikon" edo "Izen-Bilduma" deritzan laugarren zatia bakarrik iritxi zaigu gure garai ontara. Zati orrek, biblian agertzen diran toki-izenen berri ematen digu; eta izen oien

"etimologia", ots, izen oien "esan-naia". Zati au, Eusebio'k idatzi zuan bezala eleneraz iritxi zaigu. Eta baita Jeronimo Doneak egin zuan latinezko itzulpen batean ere.

* * *

Apologilari bezala, zazpi idatzi eder idatzi zituan Eusebiok:

- "Jerokies'en Aurka". Ondo ezaguna dugu Diokieziano'ren lagun izandako filosofilari jentil ori: Jerokles edo Hierokles. Baitare ezaguna dugun Tiana'ko Apolonio ura Kristo baiño gizon jakintsuagoa, santuagoa, eta mirarigille aundiagoa izan zala esanez, eta orrela Kristo zakartuz, Jerokles orrek kristautasuna nola ezabatu nai izan zuan. Ederki erantzun zion Eusebio'k. Ez zan gauza zailla. Tiana'ko Apolonio, Julia Mammaea inperatemeari atsegin emateko, Filostrato'k idatzitako edesti-eleberri bateko pertsona bait dan. Egiaz bizitu zana, baiñan gero Jerokles'ek olerti-lorez ugari ta oparo eder-jantzirik, eta españiarren Zid'en antzera illik ere borrokak irabazteko gai biurturik, bere liburuan agertu zuana.

- "Porfirio'ren Aurka". 25 liburu, ia osoro galduak, zati batzuk izan ezik. Luzaro mintzatu giñan, jentillen filosofia eta filosofi ortatiko moralitatea kristauen dotriña eta moralitatea baiño obeak zirala esaten zuan Porfirio'z.

- Origenes'en alde Apologia". Eusebio'k, Panfilo'ren laguntza-rekin, biak espetxean zeudela idatzia. 4 liburu zituan lan ontatik soilki aurrenekoa iritxi da gugana, Rufino'k egindako laterazko aldakuntza batean.

- "Gezurtapena eta Goratarrea": ("Refutatio et Apologia"). Jentillek egiten zituzten galde eta ipintzen zituzten eragozpen batzuei erantzuna zan, galdua dugun liburu au.

- "Ebangeliorako Gertupena". 15 liburu. Eusebio'k, Ebangelioa onartzera prestatu nai ditu jentillak eta juduak. Jentilien aldetik, erlijio zarra ukatu zutela jaurti oi zitzaien kristauei, eta Yabe'ren erlijioa ukatu zutela berriz juduen aldetik. Kristautasuna zer dan

azaltzen die Eusebio'k batzuei eta besteei. Idazle jentillak ugari aipatzen ditu Eusebio'k bere lan ontan.

- "Ebangelioaren Azalpena". 20 libururu. 10 galduak. Juduentzat idatzi zuan Eusebio'k lan au. Lege zarra ez omen zan betikoa, Lege Berriari bidea gertutzeko bakarrik emana baizik.

- "Teofania": (Jainkoaren Agerketa). Oraintxe aipatutako bien laburpena 5 liburutan. Idazlan au, sirierara bihurturik 411'ean idatzitako larruki batean iritxi zaigu.

* * *

Bibilari bezala asko eta asko idatzi zuan Eusebio'k baiña ia guztia galdua dugu. Maiz aipatzen du Jeronimo Doneak, eta aren lan batzuk, onen aipamen oien bidez bakarrik ezagutzen ditugu.

Bere teologi-lanen artean aipa ditzagun "Anzira'ko Markel'en Aurka" eta "Elizaren Teologiari-Buruz", au ere Markel anziratarren aurka idatzia. Markel, sabelikeri-zalea iduritzen zitzaion 1) Zesarea'ko Eusebio'ri. Oroi Sabelio'k Jainkoa Pertsona bat bakarra zala esanez Jainkoaren Irutasuna ukatzen zuala.

Idazlan oietaz landa, egin zituan itzaldietatik eta idatzi zituan eskutizetatik ere batzuk gure egunotaraiño iritxi zaizkigu.

* * *

Arianikeri-zalea izan ote zitzaigun Eusebio?

Ez noski. "Sans doute ne doit-on pas dire qu'il a etss un arien au sens strict; mais on comprend sans peine que certaines de ses formules tout au mois aient ete fortement suspectes et qu'il n'ait pas laissë apres lui une reputation au-dessus de tout soupçon" (Ib).

Euskeraz. "Zalantzarik gabe: Zentzu osoan Eusebio arianikeri-zalea izan zala, esan ez daitekean gauza da: ulertzekoa da alataguztiz, bere esaldi batzuk oso kezkarriak gertatzea, eta, bere atzetik utzi duan otsa ere itzalgaitz orotik yare ez egotea".

* * *

LAKTANTZIO Lactantius Caecilius Firmianus --, Kostantinopla'n 250'aren inguruan jaioa, idazle latindar apaia. Zizeron artu zuan eredu, eta aren bidetik txukun ibilli zalako, "garai artako izlaririk dotoreena" izan zitzaigun, bera ere eun urte geroago idazlerik onena izan zan Jeronimo Donearen ustez. Birjaiotzako Iatinzale pinpiriñak berriz, "Zizeron Kristaua" zioten.

Laktantzio'k, idazkera bikain aren jabe zala oarturik, jakintsu jentillak kristautasunera ekartzearren asi zitzaigun luma-lanean, bere kristau-gozotasuna bere antzeko jentil kulturatuei eman naiez. Bera ere, gizon mardula zalarik biurtu bait zan kristau.

Ori dalata, nabari zaio teologi-jakintzaren falta. Adibidez, milenarista agertzen zaigu, eta Irutasun Donearen izkutua ez zuan era zuzenean ulertu...edo beintzat, bear bezala azaldu. Bibliari-buruz ere ez zan egokiegia izan bere ezagupena.

Garai artako filosofia, bai, ezagutu zuan. Orregaitik, "his vocabulary is a queer mixture of Christian and Stoic elements": "bere iztegia, kristau eta estoik izkera oietaz eratua dugu" (Enc. Brit.).

"S. MrÔme regrettait qu'il n'ait pas eu autant de facilités pour prouver la foi chr&tienne qu'il en avait eu pour rUter ses adversaires": "Donejeronimo'k samingarritzat euki zuan, ark, sinispidea babesteko, etsaiak gezurtatzeko baiki izan zuan aiñako gaitasunik ez izatea" (Catholicisme).

Ikus Laktantzio'ren idazlanak:

- "De Opifitio Dei": "Jainkoaren Lana". Giza-soiñaren edertasuna eta bere gorpuzki guztien egokitasuna, ain bikainki lortuak diralako, naitanaiez izan bear omen dute Jainkoaren egintza.

- "Divinae Institutiones": "Jainkogandikoari-buruz"; Elizaren aurkako zigorraldirik gogorrean, 303'tik aurrera argitaratua. Bera da "the first attempt of a systematic presentation of Christian thought in the latin language but it lacks insight and discernement": "Naiz teologiaren aIdetik sakontasun eta araztasun geiegirik ez,

bera da oldozkera kristaua logikaren araura agertzeko lendabiziko saioa" (Enc. Brit.).

Iztegi bikain orrek dioskunez, Laktantzio'k liburu ortan, filosofilari eta idazle klasikoengandik jasotako arrazoiak askoz geiago darabilzki, Idazti Doneetatik artutakoak baiño. Gogoan gorde bearra zuan ordea iztegi orrek, Laktantzio'k kristaudentzat ez baiña jentillentzat idatzi zuala bere liburu ori.

- "Epitome": Oraintxe aipatzea egin dugun liburu orren laburpena.

- "De Ira Dei": "Jainkoaren Gorrotoaz". Epikuro-zaleei eta estoitarrei zuzendua. Jainkoak, egin dituan izaki guztien eta bereiziki gizakume guztien ardura baduala, eta, orregaitik ainzuzen, ongilleak saritzen eta gaizkilleak zigortzen dituala, erakutsi nai izan zien.

- "De Ave Phenice": Ez dakigu ziur berea dan itz neurtuz egindako poema au. Fenix esaten zitzaion egaztia, bere errautsetatik berbiztutzen omen zan, mitologiako txoria dugu. Kristo berbiztuaren irudi lez erabilli zuan olerkariak bere lan ontan. Ez zan ori egiten aurrenekoa izan. Irudi orixe bera, Fenix txoriaren irudia, Kristo'ren berbizkundeaz mintzatzerakoan, erabilli bait zuan lenago Tertuliano'k. Eta baita Alexandri'ko Klemente'k ere.

- "De Mortibus Persecutorurn": "Zigortzailleen Eriotzaz". Au du bere lanik ederrena eta ospetsuena. Edesti-liburua da. Eliz-zigortzailleak Jainkoak izugarrizko eriotzez zigorturik ii ziralara erakusteko idatzia.

Bere beste lan batzuk aspaldi galduak dira. Alare ezagutu zituan Donejeronimo'k, eta lan aien berri-ematen digu. Irakasle eta jakintsu bezala, izen eder aundiko gizona izan bide zan Laktantzio. Diokleziano¹ k, orduan Erroma'ren inperio-lurreko uriburua zan Nikomedi'ra deitu zuan, an erretorika irakas zezan. Ez zuan asko eginkizun artan iraun. Kristau egiña bait zan, Diokleziano'k liza zigortzen asi zunean. Orregaitik, irakaskintza eta zuan guztia galdu, ta txirotasun gorrira amildurik aurkitu zan. Zorionez, urte batzuk geroago, Kostantino'k Galietan Inperatoretza artu zuanean, Krispo

bere semearen irakasie izateko, lurralde artako uri nagusira, Treberis'ko urira, otsegin zion, eta pozik joan zan aruntz Lak-tantzio.

* * *

SOKRATE Socrates Scholasticus 380'aren inguruan jaio zan Kostantinopla'n, eta legegizona izan zan an bertan. Orixe esan nai bait zuan garai artan "scholasticus" itzak: epaitegietan lan egiten zuan legiztilaria: abogadua. 445'aren inguruan il zan.

Eusebio'ren lana osotzea eta 439'garren urteraiño luzatzea izan zan Sokrate kostantinopolitarraren lana. Ez zuan, ez noski Sarkal-deko gertakizunen ezaguera aundiegirik izan, baiña Sortaldeari dagokionez, dokumentu ugari erabilli aal izan zuan. Berak lekuko lez jasotako gertakizunak ere sartu zituan bere liburuan, eta baita, zoritxarrez, agoz-ago iritxi zitzaizkion eta ain fiagarri ez ziran kondaira utsezko albistek ere.

Erabilli zituan, baitare, gaur galduak diran edesti-liburu zarrak: Zesarea'ko Gelasio'rena adibidez; eta oso garrantzi aundikoa omen zan Eraklea'ko Sabino'ren Kontzilioei-buruzko Dokumentuen Bilduma.

Aipatzen dituan gertakizunen kronologi edo urtegarrenari-buruz, akatsak baditu. Bere liburua azkeneko zatiek ez dute leenagokoak aiña balio, maizegi jasotzen bait ditu agoz-ago iritxi zitzaizkion albistek eta sinispen geiegi ematen bait die, azterketa sakonagorik gabe, orrela ezagututako albiste oiei.

Teologi gaietan berriz, ez bait zan apaiza!, maiz aurkitzen da kolokan ziurtasun aundirik gabe, eta bai omen du "a touch of healthy anticlericalism", ots, "apaiz-ziriketa osasungarriaren ttantta bat" (Enc. Brit.).

Bere omenez esan bear da, aski zabala izan zala, garai astu artako idazlea izateko; naiz bera katolikoa izan, eraspen zintzoz ikertzen ditu erejeak, eta, ez da erlijio-auzietarako indarkeria erabiltzearen laguna.

Aro artan, piztua zan Antioki, Alexandri eta Kostantinopla'ren artean aierkunde zitala. Antioki'k eta Alexandri'k ez zioten goxoki begiratzeko alkarrak, eta biek, bekaizkeri bitxia zioten, bien gaindik burua jaso nai zuan Kostantinopla sortu-berriari. Ta, bereiziki, eta batez ere, orduan inperioko uriburu zan Kostantinopla aren, eta jendez, aberastasunez eta kulturaz inperio guztiko uririk aundiena zan Alexandri'ren artean genduan bizkorrena aierkunde ori.

Sokrates berriz Kostantinopla'koa izaki-ta, era latzez mintzatu zitzaigun Alexandri'koak ziran Teofilo'z eta Zirilo Doneaz. Ez zion Donibane Krisostomo Kostantinopla bertako gotzaiari ere eraspen geiegirik erakutsi. Jaurlaritzaganako bildurrez ote? Ikusiko dugun bezala, Krisostomo'k izan bait zuan agintaritzaren aldetik arazo larririk aski.

Danadala, laguntza aundia zaigu Laktanzio, IV mendearen azkenaldeko eta V'aren asierako bizitza ezagutzeko. Gaiñera, dokumentu asko jaso zituan guretzat bere liburuaren orrietan.

* * *

SOZOMENO Herminiae Sozomenus Salaminii Palestina'n Gaza uriaren alboan IV mendearen erdi-aldeaz gero jaioa eta 484'ean illa. Au ere "scholasticus" izan zitzaigun, abogadua, itz arek orduan zuan zentzuaren araura. Kostantinopla'n ari izan zitzaigun epaitegi-lanetan. Bere uriskan Gaza'ren alboko Beteli'n bazan aipu ederreko lege-ikastola bat. An ikasia genduan eskierki gure Sozomeno.

Berak dioskunez, mirari bat ikusi ondorean kristautu omen zan bere aitona, eta orduetzeko bikain jardun zan bere sendi osoa zigorraldi guztietan.

- Kultur oparozko jakintsua, Kristautasunaren Edesti bat idatzi zuan lendabizi: Josu'ren zeruetarako Igokunde-egunetik asita 323'garren urteraiño iristen zan Edesti-Liburu. Zoritxarrez, galdua dugun idazlana.

Gero, Eusebio'k idatzitako Edestiaren jarraipena eman zigun. I Kostantino'gandik asita 11 Teodosio'rairio, "bee inperiotzako" inperatoreen zerrenda jarraituz.

Sozomeno, Sokrates'en garaiekoa dugu, eta bere bigarren liburu au idazterakoan, beste ark idatzitakoaz baliatzeko ez zuan kezkarik erabili. Alare, ez da aren kopiatzaille, eta, gaiñera, beste iñork ematen ez dituan albiste berriak eta dokumentu ezezagunak naro sartu zizkigun bere liburura. Ori du bere merezimendurik eskergarriena. Ori, eta egi-billatzaille leiatsu zintzoa izatea:

"Sozomen made a painstaking effort to be acquainted with all the sources of information on the subjects which *he* touched, and he has a passionate desire for the truth" (Cath. Enc):

"Neke aundiko lanak artu zituan Sozomeno'k bere langintzari zegozkion albiste-iturriak oro ezagutzeko. Egia lortzea izan zan bere naimenaren griña bakarra".

Ez da gutxi esatea.

* * *

ZIRO'KO TEODORETO Theodoretus Episcopus Cyri -- sendi aberats baten semea. Antioki'n, 393'aren inguruan jaio zan. Zazpi urteko umea zala sartu zan lekaidetxe batera eta an Donibane Krisostomo eta Monpsuesti'ko Teodoro izan zituan irakasle. Ta ikasketa-kide, Nestorio eta Antioki'ko Jon.

425'ean Ziro'ko gotzai egiña izan zan. Antioki'tik bertan ipar-sortalderuntz zegoan Ziro izeneko uri eder ura; eta benetan zabala bere elizbarrutia. Zortzireun parroki bazituan beintzat, eta baita jende ezberdin ugari ere: katolikoak, erejeak, juduak eta jentillak. Baita gizakume txirorik aski ere.

Auei laguntzen txautu zuan Teodoreto'k gurasoengandik jasotako dirua, eta gotzaigoak ematen zion guztia. Ederki lan egin zuan bere ez-kristauak kristautzen eta erejeak bide zuzenera ekartzen. Pozik eman zion eskutitz baten bidez bere lan oien berri, orduan Aitasantu zan I Leon "Aundiari".

Esan dezagun itz batez, gotzai egokia izan zala Ziro'ko Teodoreto. Bañan Nestorio'ren lagun izateak galdu zuala, zoritxarez.

Teodoreto ez zan nestoritarra.

Elizak, Kristo pertsona bat bakarra dala, ots, gizon egindako Irutasun Doneko bigarren Pertsona ber-bera dala, erakutsi du beti; eta, orregaitik, Miren'engandik Irutasun Doneko bigarren Pertsona jaiio zalako, Miren Jainkoaren ama dala,

Nestorio'k ordea Kristo'k bi pertsona dituala esaten zuan: Bat, jainkotiarra: Irutasun Doneko bigarren Pertsona, bestea, gizatiarra, Miren'gandik jaiotako Josu gizakumearen pertsona; eta, orregaitik, Miren ez zala Jainkoaren ama; soilki Josu gizonaren ama besterik ez zala.

Aitasantuak bereala gaitzetsi zuan nestorikeria.

Altasantuaren aburu berekoa zan Teodoreto ere. Ala, Antioki'-ko gotzaiarekin batera, pentsaeraz aldatzeko eskatu zion Nestorio'-ri. Nestorio'k ordea, bere bidetik jarraitu zuan.

Egun aietan irten ziran argitara, Nestorio'ren aurka, Zirilo Done Alexandri'ko gotzaiaren "Anathernatismi" edo "Gaitzespenak".

Asarretu zan Teodoreto, "Gaitzespen" aietan apolinarkeria ikusten zualako. Oroi, Apolinar'ek "Kristo'k giza-animarik ez zuala eta anima onen lekua Itza'k berak artzen zuala", erakutsi nai izan zigula.

Ez zan isilik gelditu gure Teodoreto. Gogor idatzi zuan Zirilo'ren "Gaitzespenetan" ikusten zuala iduritzen zitzaion apolinarkeriaren aurka.

431. Efeso'ko Kontzilioak era bat gaitzetsi zuan Nestorio'ren dotriña. Teodoreto'k ordea, Sortaldeko gotzaikide batzuekin batera beste kontzilio bat egin ondorean, ez zuan Efeso'ko Kontzilioa ontzat artu, eta Zirilo 'ren aurka jarraitu zuan idazketan.

Teodoreto ez zan gogapenez nestoritarra. Baiñan bere ustez, nestorikeria baiño arrisku geiagokoa zan Elizarentzat apolinarkeria; ta apolinarkeria iruditzen zitzaion Zirilo'ren jardunkera: apolinar-

keria: Giza-anima falta zitzaiolako Josu gizon osoa ez zala erakusten zuan sinispide okerra.

Azkenean ordea, ikusi aal izan zuan Zirilo'ren zintzotasuna, eta egin zan, 435'ean, bi gotzai aien arteko pakea.

Teodoreto'k berak ordea ez zuan pake osorik lortu. Beste alde batetik eraso bai zioten orduan etsai berri batzuek. Erejeak, oraingo auek.

Guk, Kristo'gan bi zertasun edo "naturaleza" aurkitzen dirala sinisten dugu, Elizaren erakutsia jarraituz. Izan ziran ordea antziña artan, Kristo'k zertasun bat bakarra, eta ura jainkotiarra, izan zuala esaten asi ziranak. Jainkoaren zertasuna. Kristo'ren giza-zertasuna lurrin-ttantta bat sutan bezala ezereztu omen zan jainkozko zertasunak ukitu zuanean. "Monofisita" edo "zertasunbakar-zaleak" esan zitzaien, eta ereje auek izan ziran orain Teodoreto'ren aurka irten ziranak. Nestorio bezain errudun izan omen zan ba Teodoreto, nestorikeriaren sorketan eta zabalketan!

451. Kaltzedoni'ko Kontzilioa. An izan zan Teodoreto, Marzian inperatoreak deituta, naiz, Ejito'ko ta Palestina'ko gotzaiek ura an ikusi nai ez. Monofisi-zaleak bait ziran danak. Kontzilio artan Monofisikeria gaitzetsi aurretik, VIII eseraldian, zalantzarik gabe gaitzetsi zuan Teodoreto'k nestorikeria. Len esan dugun lez ez bait zan beñere nestorizalea izan.

Monofisizaleek ordea Siri'n ere nagusi ziran-da, ez zioten atsedeen-unerik eman Teodoreto gizagaixoari, eta kendu zioten Ziro'ko gotzaigoa.

Baiñan, azkenean, gertatu zan arentzat ere noizbait pakea. Bere aulkira itzuli zan; eta an il zan, Ziro'ko gotzai lez, 457'aren inguruan, Elizarekingo pake gozan.

* * *

Eliz zarreko idazlerik aundienetakoa eta bere garai artako izlaririk onenetakoa izan zitzaigun Ziro'ko Teodoreto. Xoragarriak ditu bai axal politaz bai mami sendoz, "Bibliari-buruzko Azalpe-

nak". Baiña ez dira bereak. Berak leialki adierazten zuan bezala, Azalpen aiek Antioki'ko Teologi-Eskolak sortutako onenetakoak bait dira. Beraz, Anrtioki'ko Teologi-Eskola bera, ots, ango irakasle ta ikasleak dira liburu aren egiazko egilleak.

Bibilari ona izan zan-da, ederrak dira Itun Zarrari-buruz eratu zituan Gogoetak, eta oso-oso ederrak Donepaul'en Epistolei-buruz idatzitakoak.

- Donezirilo'ren "Gaitzespenen" aurka argitaratutako idazlanak aipatu ditugu. Idazlan oiek, eun urte geroago, Kostantinopla'ko II Kontzilio Ekumenetarrak gaitzetsiak izan ziran.

- "Apologia". Eleneraz idatzitakoen artean bikaiñena; eta azkenekoa. jentillen jakinduria ta kristautasunagandiko jakinduria aztertzen ditu.

- "Amar Itzaldi Probidentziaz". Antioki'n Ardura Doneari-buruz eman zituan itzaldien bilduma.

- "Juduen Aurka". Zati batzuk bakarrik iritxi zaizkigu.

- "Pentalogium de Incarnatione", "Itza'ren Gizon-Egiteari-buruz Bost Itz". Zirilo'ren eta Efeso'ko Kontzilioaren aurka. Liburu au ere Kostantinopla'ko II Kontzilio Ekumenetarrak gaitzetsia izan zan.

- "Trinitate Done Biziemailleaz ta Jaunaren Gizon-Egiteaz".

- "0 Eratites", "Eskalea". Jaunaren Gizon-Egiteaz au ere.

- "Eliz-Edestia", 440'garren urtean-edo argitaratua. Bost liburu dira; 323'tik 428'ra arteko epea betetzen dute. Liburu au idazteko begien aurrean izan zituan Eusebio'k, Sokrate'k eta Sozomeno'k idatzitakoak.

- "Lekaideen Edestia"

- "Animako Garbitasun Jainkotiar Doneaz". "Lekaideen Edestiaren" osogailu Iez tajutua.

- "Erejlen Edestia". 453'an argitaratua. Nesterio'ren aurkako atala Teodoreto'k idatzia ez dala; liburu ortara norbaitek gero sartua dala, esan oi da. Ez dirudi. Ordurako ordea Nestorio'gandik bereizia bait zan Teodoreto.

- Jainkoaren Ardura Doneaz egindako aiek izan ezik, galduak ditugu Teodoreto'ren itzaldi guztiak, baiñan aski ugari iritxi zaizkigu bere eskutitzak "de estilo elegante y valiosas para conocer la historia de la Iglesia y el Dogma, aunque contaminadas de nestorianismo" (Espasa).

* * *

EBAGRIO, Evagrius Scholasticus Epiphaniensis abogadua beraz, au ere: "scholasticus". Ez-apaiza. Ezkondua. Ume batzuen aita. "Ex praefectis oriundus", ots, "Jaurliaren sendikoa jatorriz" berak dioskunez. Kristau zintzoa.

Siri'n, Epifan zeritzan uri batean jaio zan 536 edo 537'garren urtean. Ii mendeaz gero, Siri'n bizitu bait zan bere sendia. Ain zuzen, mende artan, 272'garren urtean, iritxi zan bâ' gure Ebagrio'ren asaba bat, Aureliano inperatoreak Palmira'ko Zenobia erregiñaren aurka gudu-egiteko ekarri zuan gudaroztean. Borrokari trebea izan omen zan gudu artan Ebagrio'ren asaba zar ura.

Ebagrio bera ere Laterriaren ekintzetan aritu zitzaigun beti lanean, eta "Ex Praefectis" ots "Deduzko ("ex" orrek esaldi ontan ori esan nai bait du) Jaurle" izatera iritxi zan.

"Elizaren Edestia" idazterakoan, bere asmoa, Eusebio'k, Sokrate'k, Sozomeno'k, eta Teodoreto'k egindako lanari luzapena ematea izan zuan. Orregaitik, 431'an Efeso'ko Kontziliotik asita 594'garren urtean Gregorio Patriarkaren eriotzaraiño eltzen da, berak tajutu zigun Edestia.

Teologi-arazoei txit garrantzi aundia ematen die bere liburu ortan, eta "Il les traite avec une rare intelligence malgré leur complexité: "Adimen argiz aztertzen ditu, naiz berenez arazo oiek txit naaspilgarriak izan" (Catholicisme).

Iztegi aberats onen aburuz, aundia izan genduan Ebagrio'k sinispide zuzena babesteko jokuan ipiñi omen zuan ardura. Ala jaurti zion aurpegira Eusebio zesareatarrari arianikeri-zaleekin geiegizko tosintxak erabilli izatea.

Egia, guztia, ezpairik gabe.

* * *

Orduango beste liburu guztiak galduak ditugun ezkerro, Ebagrio'ri zor diogu, VI mendeko kristautasunaren gora-beren ezagupena.

Liburu geiago ere idatzi zituan baiñan ez zaizkigu gure egunotaraiño iritxi, eskutitz eta itzaldi batzuk izan ezik. "Il donne l'impression d'un travailleur consciencieux et informe": "Kotzientzizko langille ondo ikasiaren itsura dagerkigu" (Ib).

"Dans le traitement de ses sources, l'historien Ēvagre fait preuve d'un jugement critique et d'une impartialité remarquables": "Bere albiste-iturrirei dagokienez, garai artakoak izateko arrigarriak diran alderdikeririk-eza ta ikerketa-era zintzoa agertzen dizkigu Ebagrio edestilariak". (Dic. Hist. et Geogr. Ecclesiastiques).

Alare, mirariak-eta aipatzerakoan, sinislario samarra agertzen zaigu bera. Ala, adibidez, bere aitona kristautu zuan miraria kontatzen digunean: Sute ikaragarri batean, gurutze santuaren erlikiak gorde omen zuan jendea, galdetan kiskalia izatetik. Berdin berari izurrite batean gertatutakoaren berri ematen digunean.

Izurrite ori 542'an gertatu zan. Izugarria izan zan amar urtez Siri'n eta Siri'ren inguruko lurraldeetan. An galdu zituan, izurritearen azken-unean galdu gaiñera, bere lenengo emaztea, bien alaba, eta oso maite zuan billobatxoa. Arras gaizki ibilli zan bera ere, naiz azkenean bizirik irten. Iarri aietan, Simon Estilita Donea izan zuan poz eta atsedean emaille, zeru goitiko gozagarriz betetako eskutitz xamur baten bidez.

Donesimon Stilita'k, mirariz jakin omen zituan gure Ebagrio'ren nekeak.

Izan zuan ordea aren eskutitz legunak aalmenik aski. Seiren bat urte geroago bigarren aldiz ezkondu bait zan Ebagrio Antioki'ko neskatil gazte batekin. Baiña izan zituan orduan ere arazo gorriak. Bera ezkontzen zan bitartean, eta uriak ezkontza ura ospatzen zuan

unean, -- Jaurlearitzaren serbitzura legiztilari txit ezaguna bait zan Ebagrio --, berebiziko lurrikara batek astindu bait zuan Antioki guztia.

Ikus nola damaigun senargaiak berak gertakizun zital aren berri:

"Cum pridie calendas octobris teneram virginem uxorem ducerem, et civitas propterea festum celebraret, et publicos conventus cum pompa circiter thalamum iugalem agerent, tertia hora post crepusculum turbatio et terremotus simul cum impetu irruens totam civitatem, concutit templum Deiparae Mariae":

"Iraillaren ogei ta amarrean, neskuts gazte bat emaztetzat artzen nuanean eta erriko jende-taldeek dotore ezkon-abetesketan ari ziranean, illunabar-ondorengo irugarren orduan, dardara ta lur-ikarak indar aundiz uri guztiari erasoz, bereiziki Miren Jainko-Erditzaillearen jauretxeari gaitz-egin zion".

Miren Neskutsari eraspen aundia izan zion Ebagrio'k. Orregaitik, berak eta bere emazte berriak illunabar artan igaro zuten ikara baiño sakonago sarturik gelditu zitzaion lur-ikarak Miren'en jauretxeari egindako kaltea.

* * *

AKILEIA'KO RUFINO (345?-411?). Sarkaldeak ez zuan aro zarrean edestilaririk izan, eta eleneratik egindako itzulpenetaz baliatu bear izan zuan alde ontako Elizak. Bi izan ziran itzultzaile aiek: Rufino eta Epifanio.

Rufino Akileatarra -- Rufinus Tyrannius -- Itali'n jaio zan, Adriatik-Itxasoaren ipar-iparreko ertzean zegoan Akileia uriaren alboan. 20 urteko mutilla zan bataioa artu zuanean, eta bereala lekaidetxe batera sartu zan. Erroma'n egin zituan ikasketak, eta emen ezagutu zuan Jeronimo Donea. Adiskide aundiak izan ziran urte batzuen epez, zearo asarretu ziran arte.

Bakarti eta lekaide zarren oiturak jakin naiez, Ejito'ra joan zitzaigun. Baiñan gizon aien bizieraz gaiñera, ezagutu zuan an beste zerbait ere: origenekeria.

Mintzatuak gera ereji gogor ortaz. Palestina'n eta Ejito'n lekaide eta bakartasun-zale aiek gaizki ulertu zuten Origenes'en aszetika, eta maixu aundi aren irakaskintzak okertuz, Origenes'ek berak sekulan ezagutu ez zuan eta sekulan ontzat artuko ez zuan erejiaren antzeko zerbait sortu zuten: origenekeria.

Ta, dirudianez, geiegi kutsatu zuan origenekeriz gure Rufino.

Beste norbaiterekin ere egin zituan adiskidetasunak Rufino'k Ejito'ko basamortuetan: "devout seeker after perfection" (Enc. Brit), ots "santutasunaren billatzaille leiatsua" zan Melania izeneko alargun erromar aberatsarekin.

Biak joan ziran Ejito'tik Palestinara, ta Melani'k, an, neskatxentzat lekaimetxe bat sortu zuan Jerusalem'en, eta andik bertan lekaidetxe bat Rufino'k Melani'ren laguntzarekin. Lekaidetxe au, "etxe" baiño geiago zan "tegi" bat, ots, lekaidetegi bat, lekaide bakoitza bere txabolatxoan bizi bait zan.

Jerusalem'en egin zan apaiz Rufino.

Jeronimo Donea Belen'era etorri zanean, bizkor berbiztu zan Erroma'n sortutako Rufino ta Jeronimo'ren arteko adiskidetasuna. Laister ausi zan ordea, betirako gaiñera, adiskidetasun gozo ura. Biak origenekeri-zaletzat salatuak izan ziranean, ainzuzen.

Jeronimo'k, bera ez bait zan sekulan origenekeriz orbandu, laister garbitu zuan bere burua. Rufino'k ordea, setatsu, ez zuan amorerik eman nai izan. Ortik asi ziran bien arteko eztabaida Latzak.

Melani'rekin ostera Itali'ra biurturik, gogor asi zan Rufino lanean. Bere merezimendurik aundiena, ainbatteologi-lan eleneratik latiñera itzultzea izan zan, ordurako galdurik bait zegoan Sarkaldean eleneraganako zaletasuna.

Itzuli zituan liburuen artean aipu bereizia merezi dute Origenes'en liburuak. Ez zituan, ez noski, maixu bikain aren guztiak itzuli, baiña itzuli zituenak ere badute berak erantsi zien atal hat: Liburu

aietatik, esaldi batzuk kendu eta beste batzuk aldatu egin zituala. Kendu edo aldatu egin zituan ba erejeek sartuak edo aldatuak zirala uste izan zuan esaldi guztiak. Egia da, aldakuntzak egitean, Origenes'ek beste liburu ta idaztietan ematen dituan esaldiak erabiltzen saiatu zala, baiñan alatagutziz, Origenes'ek berak toki oietan zer esaten zuan jakiterik izateke utzi zuan mundua.

Origenes'en "De Principis" edo "Oifiarriel-Buruz" izeneko liburu ospetsuari, itzaurre bat ipiñi zion, eta bertan, asmo biurriz bearbada, Jeronimo'k Origenes'eri betidandik izandako zaletasuna azaltzen zuan.

Aro txarra zan ura, orrelako azalpenak egiteko-ta, ekin zion, gogor, Jeronimo'k, Eta asarretu ziran berriro bi gizonak.

Bere buruaren "Apologi" bat idatziz erantzun zion Rufino'k. Berealaxe idatzi bear izan zuan bigarren "Apologi" bat, laburragoa au, kontuak eskatu zizkion Anastasio Aitasantuarentzat.

AkiIeia'n bizi zan Rufino, etenik gabe greziarren idaztien itzulketan.

Barbaritarrak ordea bertan zituala-ta, egoalderuntz joan zan lanerako pake-leku baten billa. Ta, 408'an Alariko'k Erroma'ko uriari eraso zionean, Afrika'raifio joatea gogoratu zitzaion Rufino'ri, baiñan Sizili'n il zan, lanean beti bezala, 410 edo 411'garren urtean.

Edestilari bezala bere lanik oargarriena, 403'an argitaratu zuan Eusebio'ren "Eliz-Edestiaren" itzulpena da. Bi liburu erantsi zizkion Rufino'k, berak idatziak biak, azken-urteetan gertatutakoaren berri emateko.

* * *

EPIFANIO Epiphanius Scholasticus -- VI mendean bizitu zan idazlea, ia osoan ezezagun dugu. Garai artan politikari altsua aurrena eta gero idazle eta lekaide izan zan Kasiodoro 'k dioskunez, berak eskatuta itzuli omen zituan Epifanio'k eleneratik teologilari

batzuen lanak. Eta baita, egin zituan itzulpenik garrantzitsuena, Sokrates, Sozomeno, eta Teodoreto'ren Eliz-Edestiena.

Iru idazti aiekin liburu bat eratu zuan, eta "Historia Tripartita" eman zion izen: "Edesti Irukoitza".

Itzulpen oiek danak, Kasiodoro'k beretzat eta bere lekaideentzat eraiki zuan lekaidetxean egin zituan Epifanio'k, an bizitzearen saritzat. Bera ez bait zan lekaidea.

Elertiaren aldetik ez du bere "Edesti Irukoitzak" balio aundiegi-rik. Ala ere, Sarkaldeko Elizan "Rufino y la Historia Tripartita fueron los libros históricos fundamentales de la edad media" (Jedin. Gazteleratzaillea, **D.** Ruiz Bueno).

KOSTANTINO

Kostantino'ren denborako giroa ulerterrezagoa biurtzeko, "Apostoluen eta Martirien Denborako Eliza" deritzan liburuan eman genituan xeetasun batzuk oroiterazi nai nituzke.

- Gizon batentzako Erroma'ren inperio-lurra zabalegia zala-ta, "Tetrarki" edo "Agintaritza Laukoitz" bat eratu zuan 286'garren urtean Diokleziano inperatoreak.

- Lau agintari oiek bi "Augustus" eta bi "Zesar" izango ziran. Agintari aiei izen oiek ematea ere Diokleziano'k berak pentsatu zuan gauza da.

- "Augustus" bat eta "Zesar" bat Sortaldean, eta beste "Augustus" bat eta "Zesar" bat Sarkaldean. Orrela zegoan eratua Diokleziano'ren "tetrarkia", ots, "agintaritza laukoa". "Tetra" itzak "lau" esan nai bait du eleneraz, eta "arkia" k berriz "agintaritza".

- "Zesar" biak, Diokleziano'ren asmoetan, bakoitza bere "Augustus" en laguntzaille baiño geiago, aren ondorengoa zan, ura iltzen zanerako.

- Lau Agintariak aalmen berdiña izango zuten inperio-lur guztirako. Ala, lauek izenpetuak izan bearako zuten inperio-lur guztirako ematen ziran legeak.

- Altaguztiz, bakoitzak bere lurralde bereizia izango zuan.

- Diokleziano bera izan zan, aurreneko tetrarkian, Sortaldeko "Augustus"; eta Galerio, aren "Zesar". Sarkaldean, Maximiano izan zan "Augustus" eta Kostantzio Kloro, bere "Zesar".

(Galiak, ots, Auñamenditik Rin ibaieraifloko lurraldeak, eta Britani, gaurko Inghlanderria, ziran Kostantzio ;Gloro gure Kostantino'ren aitaren jaurerria).

- "Augustuek" eriotzez, edo beren naimen onez, agintaritza uzten zutenean, "Zesar" biak, besterik gabe "Augustus" biurturik geldituko ziran, eta bakoitzak bere "Zesar" aukeratuko zuan.

Naiz, legez gauzak orrela, egiazko goi-nagusitasun bat beti gorde zuan berekin Diokleziano'k tetrarkiaren barruan. Ala, berak "Augustutza" laga zuanean, ori bera egitera beartu zuan, orrelakorik egin nai ez zuan Maximiano.

305'garren urtean amaitu zan lenen tetrarkia. Dlokleziano'k eta Maximiano'k agintaritza utzi zutenean.

- Orduan bertan jaio zan bigarren tetrarkia: Lengo "Zesar" biak, Diokleziano'k emandako lege aren indarrez, besterik gabe "Augustus" biurturik aurkitu ziranean. Galerio Sorkalderako; eta Kostantzio Kloro Sarkalderako. Baiñan ez zuan bakoitzak bere "Zesarrik" aukeratu. Galerio'k bai, Maximino Daia. Baiñan Kostantzio Kloro'k, ez. Galerio'k, kargu guren artarako, Sebero aukeratu bait zion. Galerio'k Diokleziano'ren tokia artu zualako, uste izan zuan nunbait, ark izan zuan bezala, berak ere tetrarki guztiaren gaiñetik alako nagusitasun garai bat bazuala.

Alare, naiz Galerio'k era ortan bere eskua sartu, pakean egin ziran agintari-aldaketak orduan.

- Kostantzio Kloro il zanean (306) amaitu zan pakea; eta 18 urte iraun zuten ondorengo guda, borroka ta zalapartek. 324'ean Kostantino agintari bakarra gelditu zan arte!

Zalaparta aien ondorioz une batean, tetrarkia, "exarki" edo "agintaritza seikoia" gertatu zan: "Zesar" bat, Maximino Daia; eta bost "Augustus": Bi, legezkoak: Galerio eta Sebero; beste iru, legez kanpokoak: Kostantino, Maxentzio, ta Maximiano, bigarren aldiz azkeneko au.

Laister, iru izango dira "Augustuak": Kostantino, Maxentzio eta Lizinio. Bi, geroxeago: Kostantino eta Lizinio. Eta bat bakarra azkenean: Kostantino.

* * *

KOSTANTINO "AUNDIA", Caius Flavius Valerius Constantinus Izen ortako lenen inperatorea. Lenengoa baitare, Erroma'ko inperatoreen artean, bere burua kristau aitortzen. Mesi izeneko probintzian jaio zan, Bee-Danubio'ren egoaldean, Kostantzio Kloro ta Elene Donearen seme.

Kostantzio Kloro, gudaiburu ongi ezaguna zan orduan. Elene berriz, ez zan, artean, Santa Elena. Kristaua ere ez bait zan oraindik!. Ez zan, eztare, jatorriz, gizartean goi-mailetako neska.

"Stabularia", ots, neskamea zala diosku Anbrosio Doneak: Bitini'ko ostatu bateko neskamea. "Constance Chlore en fit son epouse, ou plus exactement, sa concubine; de cette union devait naltre Constantin": "Emaztetzat, obeto esateko oge-laguntzat, artu zuan Kostantzio Kloro'k, eta alkartze ortatik jaio zan Kostantino" (Catholicisme).

Ez gaitzan "ogelagun" itzak ikaratu. Goi-maillako gizaseme eta bee-maillako emakume baten artean ezkontza oso gaizki ikusia zalako, era ortako alkarketak maiz egiten ziran. Eta ez ziran gizartean oker ikusiak. Orregaitik, "oge" itza azturik utzita, soilki "lagun" itz garbia erabilliz, egokiagoa litzake "laguntzat" artu zuala besterik ez esatea. "Emakumezko lagun" aiek emazte bezala izaten ziran beren "gizon lagunentzat". Esan ere, "emazte" esaten bait zitzaien. Legezketasunik gabeko emazteak.

Zentzu ortako itza darabilki "Encyclopaedia Britannica" k ere: "marry", "ezkondu": "She served in an inn before marrying Constantius": "Ostatu batean mirabe izan zan Kostantzio'rekin ezkondu aurretik".

Eta "Dictionnaire d'Histoire et Geographie Ecciesiastique" k berriz onela dio: "Constance Chlore en fit son epouse, sans pouvoir, etant donne cette condition (biak gizarte-mailla berekoak ez izatea), l'epouser legalement: le mot concuvine parait inexact et pejoratif. (On peut dire la même chose de la compagne de S. Augustin)":

"Bere emazte egin zuan Kostantzio Kloro'k neskatil ura, naiz, bere gizarte-maillakoa ez zalako legez arekin ezkontzerik izan ez. Orregaitik, ogelagun itza, egokia ez izateaz gaiñera, bada erdeñuzkoa ere. (Beste orrenbeste esan daiteke Augustin Doneak gaztetan izandako neska lagun aretaz").

Ez zuan Kostantino ta Elene'ren arteko alkarte ark, Elene'k nai bezain asti luzez iraun.

293'garren urtean, Diokleziano'k Maximiano Sarkaldeko "Augustus" eginda, onen laguntzaille izan zedin Konstantzio Kloro "Zesar" izendatu zuanean, Kostantzio Kloro, Elene utzita, Theodore zeritzan Maximiano'ren alabarekin ezkondu zan.

Berrogei ta bost urteko aski emakume gaztea zan oraindik Elene, bere "gizon lagunik" gabe, bakarrik gelditu zanean. Ez zan oraindik kristaua; garai artako Eusebio zesareatarrak dioskunez, Kostantino inperatorea izan bait zan bere ama kristau egin zuana, eta, ez, alderantziz, maiz esan oi dan bezala ama, semea kristautu zuana.

Elene'ren kristautze ori noiz gertatu zan ez dakigu, baiñan 293'an, Elene bakarrik gelditu zanean, urte asko falta ziran oraindik Kostantino inperatore izateko. Eta geiago, Kostantino, inperatore egiña izan ondorean, bere buru ber-beraren kristautasunean ziñez pentsatzen asteko. Beraz, adin aundiko emakumea zan Elene, kristau egin zitzaigunean.

Baiñan bein kristau egiñik, benetako kristaua izan zan bere bizitza guztian. Zoriontsu bizi izan zala ere, uste izatekoa da; ordurako bere semeak, "Augusta" tituloa emanaz "Inperateme Alarguna" izendatu bait zuan. "Flavia Julia Helena" agertzen zaigu, aren irudiz Kostantino'k argitaratu zituan diruetan. Altaguztiz, ez zitzaion Elene'ri arantza zorrotzik peitu. Krispo billoba kuttunaren erailketa adibidez. Gaiñera, berak semea eta bere billoba ark aita zuan Kostantino'ren aginduz egiña izan bait zan eriotz minkor ura!

Gaur-egun aldareetan dugu Elene Donea. Aski berandu asi zan ordea Eliza-baitan aren santutasuna agurtzen. Sortaldean aurrena; VII mendean. IX'ean berriz Sarkaldean. Sortaldetarrek egun bat

berean ospatzen dituzte, santu lez ama-semeak, ots, Elene ta Kostantino: Orrillaren 21 'ean. Sarkaldeko gure Elizak ez du beñere Kostantino aldareko santutzat euki, elizbarruti bakanen batean izan ezik

Itzul gaitezen ordea gertakizunen arira:

Kostantzio Kloro Diokleziano' k Maximiana'ren laguntzailletzat Sarkaldeko zesar izendatu zuanean, Diokleziano'ren serbitzura Nikomedi'n gelditu zan Kostantino gaztea. Sasijainkoen jaupari aztiak Diokleziano'ri kristauen aurkako iragarketa egin ziotenean, an zan Kostantino, inperatorearekin; eta Sortaldean egon zan Diokleziano 'k agindutako kristau-zigorketa-aro guztian ere.

Diokleziano'k eta Maximiano'k agintaritzza nagusia utzi zutenean, Galerio izan zan Sortaldean "Augustus" izendatua, eta Kostantzio Kloro Sarkaldean. Kostantino, orduan, bere aitarengana joan zan. Igesi, dirudianez. Galerio'k baituran gorde nai zualako?

Oso asti laburrez egon zan Kostantzio Kloro Sarkaldeko "Augustus" edo inperatore nagusi lez agintzen, 306'garren urtean il bait zan Inghlanderrian; garai artan Eboracum zeritzan eta gaur-egun York deritzan urian. An zan une artan Kostantino; eta antxe bertan izan zan gudarozteak "Augustus" egiña.

* * *

Ez ziran gauzak pakean konpondu. Esan dugu Sortaldean Galerio zala Augustus edo inperatore nagusi. Sarkaldean bazuan Galerio'k Kostantzio Kloro'rentzat izendatua, onek sekulan aintzat artu ez zuan "Zesar" bat: Sebero. **IM**, orain, Galerio'k, adiskide aundia zuan Sebero orri eman zion Sarkaldeko "Augustutza".

Agian Laterri-barruko guda baten bildurrez, ez zuan Galerio'k, Britani'n gudariek "Augustus" egin-berri zuten Kostantino zigortzerik pentsatu. Alderantziz, naiz gogo txarrez, Sebero'ren "Zesar" izendatu zuan.

Alperrik guzia. Urte artan bertan il zan ba Sebero, Itali'n iraultzagille jeiki zitzaion Maxentzio'ren aurka guduan. Maxentzio,

Diokleziano'rekin Augustus izandako Maximiano aren semea zan, eta aren seme izate orrek asko lagundu omen zion iraultzan garaille irtetzeko. Ez zan semea aitaz aantzi. Berriro berealaxe jaso bait zuan "Auscustutzara"! Pozik ikusi zuan Maximiano'k bere burua, bigarren aldiz Augustus egiña. Ta, bere zori ona ziurtzeko, Kostantino bere alderdira erakartzea pentsatu zuan, eta, ortarako, bereala Galietarako eta Britani'rako "Augustus" tituloa onezagutu zion; eta Fausta bere uzagalaba emaztetzat eman.

Bazuan orain Kostantino'k Augustus izateko, itxuraz legezko titulo bat. Ez balio aundikoa, titulo ori ematen ziona, Maximiano, ez zan ba bere bigarren agintaritzza ontan legezko inperatorea, iraultza batetik sortua baizik.

Fausta gazteari ere, ez zitzaion balio ederregikoa gertatu bear Kostantino'rekin ezkontzea; azkenean bere senar onen aginduz galduko bait zuan lepoa.

Maximiano utzi dugu Itali'n "Augustus", Galia ez gaiñerako Sarkalde osoan agintzen. Laister asarretu zan ordea Maxentzio bere semearekin, eta, igesi, bere suiflarengana joan zan: Kostantino'rengana. Baiñan asi zan emen ere lardaskan. Kostantino Rin ibarrean germaniarren aurka borrokan ari zala, aren aurka jeiki zan Aretate (gaur Arles) izeneko urian. Garaitua, "bere burua iltzera beartua izan zan": "Compelled to commit suicide" (Enc. Brit.),

Kostantino, Inperatore izateko legezko titulorik gabe gelditu zan berriro, eta, utsune ori gaindu nairik, bera 11 Klaudio'ren oiñordekoa zala oles egin zuan. Orrela, 11 Klaudio 2681 tik 270'era Diokleziano baiño leenago izan bait zan inperatore --, Diokleziano'k inperatoretzarako ezarritako legeen gaindik igaroz, iturri zaarragoetatik artu nai izan zuan inperatoretzarako eskubidea.

Bazuala gure Kostantino'k agintari izateko leia!

Laister agertuko zuan lei ori.

Bi "Augustus" genituan une artan Sarkaldean: Alpe eta Auña mendietatik iparreruntz, Kostantino; mendi oietatik egoaldera, -- Itali'n, eta Afrika'n Maxentzio. Biak ziran ezkon-a-

naiak; Fausta Maxentzio 'ren arrebarekin ezkondurik bait zegoan Kostantino

Britani ta Galietako lur zabalak ordea ez ziran naikoa, "Kostantino'ren aundinaia" "Constantine's ambition" (ib) asetzeko, eta Itali'ra sartu zan borrokalari, Maxentzio'ren buruzagiak Augusta Taurinorum (Turin), Breszi eta Berona urietan garaituz. Ta bereala, Milbi-Zubi'ko borrokaldian berebiziko garaitza lortu zuan. Borroka artan il zan Maxentzio.

Edesti-era kristauak, zeruko aingeru eta inpernuko etsaia bait liran aurkeztu izan dizkigu Kostantino ta Maxentzio. Ori ordea, egia ez da. Kostantino ez zan aingerua, eta Maxentzio ez zan Elizaren etsaia; ez zuan beñere Elizarik zigortu. Alderantziz kristauekin eraspentsua izan zan benetan; eta esku-zabala. Konbeni zitzaiolako bakarrik ote? Ez ote zan, erlijioari legozkiokean arazoetan, indarkeria erabiltzearen etsai?

* * *

ERROMA 'REN "LABARUM " EDO IKURRIÑEAN, KRISTO'-REN GURUTZEA Alare, garrantzi aundia izan du edestia-zear, Kostantino'k Milbi-Zubi'n Maxentzio'ren lepotik lortutako garaitza arek-eta, ongi merezi duala deritzait azterketa sakonago txo bat.

312'garren urtea zan. Pakean bizi zan Eliza inperio-lur osoan, Galerio'k, kristauei, yareki kristau bezala bizi eta kristau bezala jardun aal izateko eskubide osoa emanez, 311'ko erabaki ura izenpetu zuanez gero.

Milbi-Zubi'ko borrokaldia beraz, ez zan Elizari pakea ematearren egiña izan; Kostantino'ren agindu-naia betetzeko baizik. Egia, Maxentzio iraultza-bitarte agintaritzara iritxitako inperatorea zala. Baiñan, legezko agintaria al zan, inperiotza bere militarren kolpe baten bidez artu zuan Kostantino bera?

Alatagutziz, kristauen artean, zerutiko mirariz lortutako gurenda donea bezala izan da ikusia Milbi-Zubi'n gertatu omen

zana, Kostantino'k adiskide, lagun eta miresie aundia izan zuan Zesarea'ko Eusebio edestilariak bere liburuetan idatzitakoaz gero.

Izan ere... "Before this battle Constantine had a device representing the monogram of Christ painted on the soldiers' shields, the first of his actions indicating conversion to christianity" (ib). "Borroka-aurretik, gudarien babesgailuetan Kristo'ren ikurra margozteko agindua eman zuan Kostantino'k, eta ekintza ori dugu kristautasunera urbiltzen ari zalaren adigarria. Aurreneko adigarria".

Ori dana, Eusebio'k dioskunez, Kostantino'k aurretik zeruan ikusi omen zuan agerpen arrigarri baten ondorioa izan omen zan,

Milla aldiz kontatua, Kostantino'k zeruan ikusi omen zualako agerpen ospetsu ura!

Ona nola eman zigun Eusebio'k, Kostantino beraren ezpafiñetik entzunik, agerpen aren albisteak:

"Cum iam sol ad medium coelum ascendisset die in promeridianum paululum inclinante, dixit se crucis signum ex lucis splendore figuratum, in ipso coelo soli imminens manifesto oculis aspexisse inque eo inscriptionem consignatam quae haec verba complectebatur, IN HOC VINCES". (Izki nagusiak Eusebio'renak dira).

Euskeraz: "Eguzkia ortzi erdira igorik eguerdia pittin bat igarotzen asi zanean, argi-dizdiraz eraturako gurutze bat zeruan bertan eguzkiaren gainean ezarria bere begiz ikusi zuala esan zigun (Kostantino'k); eta, gurutzearekin, onako itz auek osotzen zuten idazki au: ONEKIN GARAILLE".

Ori guziaz, "sermone jurejurando confirmato", "mintzoa ziñegiñez tinkatuz", esan ziola diosku Zesarea'ko Eusebio'k.

Ibilli omen zan kezkatu agerpen aren ondorean Kostantino, baiñan gauez, ametsetan, Kristo bera agertu omen zitzaion, zeruan ikusitako gurutze aren ikurra borrokaldira eramateko aginduz. (Auztia ere Eusebio'k damaigun albisteak dugu).

Benetan sinistu zuan noski Kostantino'k agerpen aiek egiazkoak zirala; eta poz aundiz bete zuan ametsetan entzundako Kristo'ren agindua.

Eta, arrezkero, laister, ortzian agertutako Kristo'ren gurutze ura izango da Erroma'ren ikurriña; "labarum" esango zitzaion inperatoreen ikurriña.

Eta, arrezkero, geroago eta geiago, Kostantino Elizaren benetako adiskide ta laguntzaille oparoa biurtuko zaigu. Ta, azkenean, eriotzako orduan bataio arturik, oso-osoa ilko zaigu kristau.

Naitanaiezkua dugu beraz, Kostantino'ren kristau biurtze ortaz itzegitea.

* * *

KOSTANTINO INPERATORE KRISTAUA -. Ezpairik gabe merezi du Kostantino'k aipamen eder ori.

Bere kristau-biurtzea noiz eta nola gertatu zan ez dakigu. Poliki-poliki urteen joanean seguruaski.

Umetatik, adimen-giro zabalean azi zan Kostantino. Jentillak zituan bere gurasoak, baiñan biotz onekoak biak. Orrelakoa agertu zan beintzat Elene ostalari apala, bai inperateme bezala, bai kristau bezala, semeak gaitasun artara igo, ta, goxoki, Elizaruntz eraman zuanean. Esan dugun bezala, semea izan bait zan, ama kristau egin zuana.

Era berean, Kostantino'ren arrebak -- ugazarrebak -- egiazko kristauak izan ziran, bein kristau egin ziranez gero.

Aita berriz, 1 Kostantzio Kloro, naiz jentilla, jite zintzokoa, pakezalea, eta erlijioagaitik ñori gaitzik ez egitearen aldekoa izan zan beti. Ikusi genduan nola lenen tetrarkian ere -- Diokleziano'k, Galerio'k Maximiano'k eta berak, Kostantzio Kloro'k, osotutako tetrarkian --, bera bakarrik izan zala kristauak ukitu ere ez zituana. Gauzak asko okerrago ipiñi gabe beste iru aien aurka agirian jeikitzerik ez zualako, lau agintarien izenean Dioldeziano'k emandako zigor-legea betez, ezereztu zituan, baike, Galietan eta Britani'n kristauen elizak, baiñan kristau bat bakarrari ez zion gaitzik egin. Bear zan orduan era ortan jokatzeko, kemenik aski!

Kemen ortatik Kostantzio Kloro'k ugari izan zualako, pake osoan bizitu ziran kristauak Britani'n eta Galietan, beren senideak imperiolurraren beste probintzi guztietan, millaka, martiri iltzen ziran bitartean.

Eusebio'k dioskunez "Summus Deus" edo "Jainko Guztien Gaindiko Jainkoaren" gurtzaille izan zan Kostantzio Kloro, eta ala izanen zan Elene bere emaztea ere: agian, jainkobakarzaleak, biak. Edo, beintzat, Jainko bakar baten gurketara iristeko, adimenez aski ondo prestatuak.

"La atmÓsfera general de la casa paterna de Constantino es en todo caso favorable al cristianismo" (Jedin).

Aitaren bidetik jarraitu zuan Kostantino'k ere, ura **aren** gudarozteek "Augustus", ots, inperatore altxa zutenean. Eta bereala asi zan erlijio-arazoetaz kezkatzen.

Bera, "Sol Invictus" edo "Eguzki Menderakaitzaren" gurtzaillea zan, eta jainko orren itxura eraman zuten, argitara eman zituan lenengo diruek.

Giro ortan gertatu ziran Milbi-Zubi'ko gurenda ta bezperako agerpena.

Zer izan zan agerpen ura? Egiazko gertakizuna? Kostantino'ren iduripen utsa? Gau artan bertan izandako ametsaren zati bat? Bigaromeneko borroka il edo bizizkoa zualarik, ez bait da arritze-koa gertakizun aiek Kostantino'ren irudimen larrituak sortutako iduripen utsak, ala, gauezko amets lasaigarriak izatea.

Laktantzio'k beintzat ez zuan gertakizun aietan munduz-kanpo-ko gauzarik ikusi. Bera izan zan, sei urte geroago, guzti orren berri ematen aurrenekoa, 318'an argitaratutako "De Morte Persecutorum" deritzan liburuan.

Ona bere itzak: "Commonitus est in quiete Constantinus ut caeleste signum Dei notaret in escutis atque ita proelium committeret. Facit ut iussus est et trasnsversa littera X summo capite circumflexo Christum notat". Euskeraz:

"Lotan zegoala, Jainkoaren ikur zerutiarra gudarien babesgai-lluetan marrazteko eta borrokara orrela joateko agindua artu zuan,

Kostantino'k. "X" izkia gurutz-eran lerro zutiari goia okertu, eta orrela Kristo'ren ikurra tajutuz bete zuan agindu ura".

Laktantzio'ren itz oiek ulertzeko, oroi dezagun, eleneraz Kristo'ri "Xristos" esaten zaiola eta itz ori "XPISTOS" idazten da la, "X" eta "P" dira beraz "Xpistos"en aurreneko izki biak.

Ezaguna zan ordurako "X"en erdian "P" bat zutik ipiñiz lortzen dan Xpistos'en ikurra. Beste gauza bat izan zan ordea, Laktantzio'k dionez, Kostantino'k egin zuana: "X" a gurutze-eran ipiñi, eta gurutz orren lerro zutiari goiko muturra bere ezkereruntz okertu, "P" baten itxura artzen duan arte. Orrela lortzen dan ikurra ere, Xpistos'en ikur lez ezaguna bait zan ordurako.

Ez du Laktantzio'k esaten "Jainkoaren ikur zerutiar" ura eguzkiaren gainean zeruetan argertu zanik eta Kostantino'k an ikusi zuanik. "Lactancio no reclama para su narración carácter de acontecimiento religiosa" (id). Are gutxiago esaten digu, geroago Eusebio Kostantino'ren lagunak esango digun bezala, Kostantino'k ez ezē gudarozte osoak ere ikusi zuala ikur ura zeruetan.

Eta pozik esango zuan ori Laktantzio'k ere, bai orixe, gertakizun oien aipurik 318 artan izan ba'lu. Eusebio bezain Kostantino'ren lagun eta miresle bait zan bera; eta zerutiko agerpen aiek indar izugarria ematen bait zioten Kostantino'ri kristauen aurrean ez ez'e, baita ain aztikerizale eta siniskerietara okertuak ziran jentillen aurrean ere. Zeruak inperatore izatera autetsi edo predestinatua! Zer geiago itxaron zezakean inperio osoko inperatore bakarra izan nai zuan Kostantino'k?

Laktantzio Kostantino'ren laguna ez ezē Kostantino'ren uste osoko gizona ere bazala zalantzan ipiñi ez daitekean gauza da; aren eskuetan utzi zuan ba Kostantino'k Krespo bere seme zarrenaren ezikuntza.

Borroka aurretik kezka urduritutako Kostantino'ren irudimena sortarazitako irudipen eta amets utsa besterik ez dugu beraz zeruetako gertakizun arrigarri ari dagokion gutzia.

Eusebio'k ez duala 324'ean argitara emandako bere "Eliz-Edestia"ren azken-argitalpenean, zeruetako agerpen aren aipurik egiten

esateak ez digu ezertarako balio, gertakizun aren aipua argi-argi egiten bait du 323'eko itzaldi batean. Geroago, "Kostantino'ren Bizitzan luzaro mintzatuko zaigu gertakizun artaz.

"Eusebio en la "Vida de Constantino" reproduce aquella versión del acontecimiento que, a causa de la lejanía temporal y gracias a la mirada retrospectiva que transfiguraba el curso victorioso de la vida, se ha formado el propio Constantino" (Jedin).

Danadala, Milbi-Zubi'ko gertakizun ura izan zan Kostantino kristau biurtzera eramango zuan bidearen astapena.

Eta or billatu bear da bere aldakuntzaren zio nagusia.

* * *

ZERGAITIK EGIN OTE ZAN KRISTAU? Kostantino, ez zan kristautasunera alderatu, politikazko zioek eraginda.

- Ez noski aita il zitzaionean inperatore izateko kristauen laguntza bearrezkoa zualako. Galietan eta Britani'n oso-oso gutxi bait ziran oraindik kristauak. Bera berriz, Kostantino, probintzi aietako agintari izaki! Sarkaldean España, Afrika eta Itali, ta Sarkaldean probintzi guztiak, oraindik bere etsaienak bait ziran.

- Eta gero, inperatore bakarra izatera iritxi zanean ere, ez zan kristau egin bere inperiotza Elizaren babespe indartsuan eratzeko, iñolaz ere Eliza ez bait zan orduan indartsua, eta kristauak, Sorkaldean bertan, naiz Sarkaldean baiño askoz ugariagoak izan, inperio--barruko gizartean oraindik "a small and unimportant minority", "garrantzi gutxiko talde txiki bat" besterik ez bait ziran, eta Eliza bera "weak and divided", ots, "auldurik eta zatiturik" bait zegoan. Ainbeste erejien zatiketek auldurik!

- Orrela, Eliza Kostantino¹ri ez baiña, Kostantino izan zan Elizari laguntza aundia eman ziona.

Beste bide batetik billatu bearko dugu gure arazo onen askapena.

Kostantino ez zan santua, baiñan bai ziñez erlijiotasun sendoko gizona. Aia. bi gauza auek erakusten dizkigute Milbi-Zubi'ko

gurendaz gero idatzi zituan eskutitzek eta eman zituan aginduek bi gauza erakusten dizkigute:

- Bere garaitzak oro Jainko Nagusiaren laguntzaz lortuak zituala eta bere ustez Jainko Nagusi ura Kristauen Jainkoa zala, ziurki sinisten zuan gauza zala.

- Era berean uste zuala ziur, bere etorkizuna sendotzeko eta baita inperiolur osoaren etorkizuna ziurtzeko ere, Jainko aren laguntza naitaniezkoa zuala; Jainko ura bear bezala gurtzen ba'zuan bakarrik lortuko zuala laguntza ura, eta, alderantziz, ori egiten ez ba'zuan, gainean izango zuala Jainko aren asarrea.

"Milbi-Zubi'ko ikuskizuna, beraz, irudipen utsa izan edo izan ez, etenik gabeko buitzaketa izan zan Kostantino'ren itzulpenerako, arrezkero Elizari egin zizkion emaitzek erakusten dutenez": "This vision, whatever is its nature, was decisive in his conversion, evinced in the favours he henceforth showered on the Christian Church" (Enc. Brit).

"Constantino estaba persuadido de que al comienzo de su campaña contra Majencio se le habia manifestado el signo de Ia cruz, y con la ayuda de Cristo habfa vencido al rival que confiaba en los dioses gentiles. A partir de este acontecimiento Cristo fue para objeto de culto o veneración como su dios protector; esa fue la ocasion de su "conversion" (*en* sentido etimológico) al cristianismo" (Jedin).

"TOUTI NIKA", eleneraz; "In hoc vinces", lateraz; "Onekin garaille", gure izkeraz. Itz oiek sakon sartu ziran noski Kostantino'ren barne-muiñetan.

Milbi-Zubi'tik bertan zegoan Erroma, eta garaille sartu zan uri artara gure Kostantino, an Senatuak Sarkalde guztiko "Augustus" izendatua izateko.

Naitanaiez, jentillek usmatu bear izan zuten orduezkero, erlijioari-buruzko aldaketa aundiren bat asia zutela.

Ori adierazten digu Kostantino'ren garaipena aldarrikatzeko, Galietako uriburu zan Treberis'en izlari batek 313'an egin zuan goratzarrezko itzaldiak. Izlari ura jentilla zan. Bearrezkoa zuan,

orrelako itzaldietan oitura zan bezala, Erroma'ko jainko zarren aipu ugariak egitea. Itzaldi ontan ordea ez duzu orrelako aipurik aurkituko. Soilki Kostantino'ri garaitza agindu zion, eta gero garaitzara eraman zuan Jainko baten aipua.

Ori, kristauek bezalaxe onartu zezaketen jentillek ere; batez ere, jentil auek platontasunberri-zaleak ba'ziran. III mendiaz gero filosofilarien artean, batez ere platontasun berri-zaleen artean, ari bait zan beste jainko eta jainkeme guztien gaindiko "jainko nagusi" baten sinismena mardultzen. Eta baita, mende aren azken-aldera, siniste ori, kulturarik askiko jendearen artean zabaltzen ere. Baleike gaiñera, Ieenagoko Seneka estoitarraz esan oi dan bezala, bat edo beste, Jainkoak bat bakarra izan bear dualako kezka bere baitan sumatzen asi izatea ere.

- Gudalburu garaille bat bere gurenda ospatuz Erroma'ra sartzan zanean zuzen Kapitotio'ra joaten zan, an zegoan Jupiter sasijainko nagusiaren aldarean esker-opari bat eskeintzera. Ez zuan, dirudianez, Kostantino'k orrelakorik egin. Eta ori ez egitean, bere gurenda beste Jainko batengandik artua zuala adierazi nai izan zuan.

- Borrokaldia asi aurretik ere ez zuan Kostantino'k, Maxentzio'k bai, Maxentzio'k egin zuan bezala borroka aren zoria igarri naiez, abereen errañik aztertu. Naikoa zuan berak zerutik etorri zitzaion mezua, eta bere uste guzia mezu artan jarririk sartu zan borrokara.

- Kostantino'ren garaitza ospatzeko, maku eder bat eraiki zion Erroma'n Senatuak. Maku ortan "Eguzki Menderakaitza" lez agertzen zaigu Kostantino.

Ori ordea Senatuaren ekintza izan zan. Ez Kostantino'rena. Senatuak bazekian b "Eguzki Garaiilearen" gurtzaille izan zala Kostantino. Baiñan aren barruan sortzen ari zan aldakuntzaren berririk ez zuan. orduan Erroma'ko senatoreak, danak, jentillak ziran. Alare, maku artarako idatzi zanak ez du Erroma'ko jainko zarrrik aitatzen. Soilki, gurenda "eragipen jainkotiar baten" eta Kostantino'k erabillitako kemenaren ondorio izan zala diosku.

- Maku aren eraiketan baiño esku geiago sartu zuan noski Kostantino'k Erroma'ko "foruen" edo "enparantza nagusian" jaso zitzaion irudiaren eraketan. Irudi onek, Milbi-Zubi'ko ikurrin aren antzeko bat zeramakian eskubiko eskuan bere Kristo'ren ikur eta guzti, eta onako idazki auxe:

"Egiazko indarraren iturri dan ikur osasungarri onen laguntzaz gaizkatu eta tiranikerizko uztarpetik yaretu dut zuen uria, eta askatasunarekin batera lengo aintza ta duintasuna itzuli Senatuari ta Erroma'ko erriari".

Ori guztia, Eusebio'k dionez, Kostantino beraren aginduz izan omen zan egiña.

- 312 garren urteaz gero, asten da diruetan Kristo'ren ikurra agertzen: "P" bat zutik "X" baten erdian. Eta laister ez da diruetan "Eguzki Menderakaitzaren" irudirik agertuko.

312'an bertan idatzi-bide zion, ordurako Ejito'n Siri'n eta Asi Txiki'ko probintzietan "Augustus" zan Maximino Daia'ri, kristauen aurkako zigorketa oro erabat gelditzeko aginduz. Maximino Daia ori da, Gaerio'ren "Zesar" zalarik, Eliza ain gogorki zigortu zuana. Baiñan etenik zeukan zigorketa, Galerio'k Elizari pake osoa eman zion ezkerok. Ta, egia esan bearra bait da Galerio illik, eta bera "Augustus" ez zitzaigun osteraz zigorketara biurtu. Altagutziz ez zan fiatzeko gizona.

Orregaitik idatzi ote zion Kostantino'k, basati ura berriro odolkerira itzuliko zalaren bildurra? Edota, orain egiazko Inperatore Nagusia bera, Kostantino zala adierazi izan nai ote zion?

- Urte berekoa du, Elizari, kendu zitzaizkion ontasun guztiak itzultzeko aginduz, Anulino Afrika'ko Jaurleari idatzi zion eskutitza ere.

- Beste eskutitz batean, urte ortan bertan, dirutza eder bat eman zion Zeziliano Kartago'ko gotzaiari, "apaizak elizaren liturgi txit done sagaratuan" era egoki ta dotorean jardun zezaten. Eskutitz ontan agertzen danez, ordurako Osio gotzai kordobatar ospetsua erlijio gaietarako aolkulari arturik zeukan Kostantino'k.

Afrika'ra bidalitako beste irugarren gutun batean, Laterri-serbitzu orotik yaretzen ditu ango elizgizon guztiak, Jainkoari dagozkionetan eragozpenik gabe ari zitezen.

Oiek danak, Eusebio'k damaizkigun albisteak dira.

Ez dira azturik uztekoak, Kostantino'k ekintza oietarako izan zituan arrazoiak: Erljioaren gauzetan baldarki ibiltzeak, gaitz gogorrek ekartzen dizkiola Laterriari. Zorion aundiak ordea, alderantziz, erlijioari dagokion oro zintzo betetzeak. Dakusazunez, Diokleziano'k kristauak zigortzeko eta Galerio'k kristauei askatasuna emateko erabili zituzten arrazoi ber-berak dira. Beti ere Erroma'ko inperatoreek erlijioaz arduratzekoan erabili oi zituzten arrazoiak: Liturgi oparo baten bidez, jainkoen asarrez beren burua eta beren Laterria gordetzea. Eta jainkoen laguntza erakartzea.

Orrek, Kostantino'gan inperatore zar jentillen pentsabideak bizirik zeudela oraindik, esan nai du, naiz Kostantino ordurako kristautasunera alderaturik egon.

Alatagutziz, arrazoi du Jedin edestilari doixtarrak:

"No cabe duda de que los rasgos especiales, hasta aquf tratados, de la conducta de Constantino con el cristianismo en los años 312-313 tienen cada uno de por sf peso y fuerza probatoria diversa. En su conjunto, sin embargo, nos llevan a la conclusion forzosa de que, en ese espacio de tiempo, Constantino llevd a cabo su personal conversidn al cristianismo. Esta "conversidn" ha de entenderse en el sentido de un cambio de orientacidn que no permite aUn juzgar hasta que punto penetr6 Constantino en la inteligencia del mensaje cristiano de redencidn, ni sobre la medida en que acept6 los principios de la Mca cristiana como norma de su accidn personal".

* * *

"KOSTANTINO'K EMANDAKO MILAN'GO ERABAKIA" -. Ori, maiz aldiz irakurriak gera. Baiñan, ori, ez da egia. Bat ez baiña bi izan ziran erabakiak. Ez, Milan'en emanak, Nikomedi'n

baizik. Ez zituan Kostantino'k eman; Lizinio izan zan eman zituana.

Iru "Augusto" zeuden une artan Erroma'ren inperiolurretan agintari: Maximino Daia, Sortaldea; Lizinio, Balkanetan; Kostantino, Sarkalde guztian. Bereala, geldituko dira bi; Lizinio'k, gudaz eraso dion Maximino Daia garaituz gero.

Baiñan lentxeago, urte ortan bertan, 313'an, adiskide duan Kostantino'ri ikustaldi bat egitearren, Milan'era etorriko zaio Lizinio.

Kostantino'k bere arreba bat, Kostantzia, emango dio emaztetzat, eta bi "Augustoek", Lizinio'k eta Kostantino'k edestirako garrantzi arras aundiko asmoak artuko dituzte eztaigiro atsegin artan.

Alkarrizketak amaiturik, Milan'dik Rin ibaieruntz joan zan Kostantino, an frankiar borrokalariei aurpegi ematera. Ortaz baliatu zan Maximino Gaia, Lizinio'ren lurretara sartzeko. Motza izan zan, Laktantzio'k erlijiozko-borroka lez aurkeztu zigun, Laktantzio'ren eta Maximino Daia'ren arteko gudu ura.

Ona Laktantzio'k damaizkigun pitxikeri batzuk: Borroka aurretik, Maximino Daia'k, kristautasun ororen desegitea eskeiñi omen zion Jupiter sasijainkoari garaitzaren truke.

Alderantziz, Lizinio'ri aingeru bat agertu omen zitzaion otoitz bereizi bat erakutsiz. Ziur lortuko omen zuan onek garaitza, borroka asi aurretik otoitz ura "summus deus" edo "jainko nagusiar" egiten ba'zion.

Ala gertatu ere gertatu zan. Borroka galduta, igesari eman zion arin Maximino Daia'k. Alare, nai izan zuan, oraingoan kristauen laguntza irabazita, gudugintzan jarraitu. Ta, kristauen laguntza irabazteko, askatasun osoa eman zion Elizari. Andik laister il zan ordea-ta, eriotzak eten zizkion borrokarako gogo guztiak.

Ikusi dezakezunez, errez aipatzen zituzten zerutiko agerpen arrigarriak, aro artako edestilariek.

Danadala, egia da Lizinio'k otoiz bat esanerazi ziela bere gudariei borroka-aurretik. Eta otoiz ura, Kostantino'k bereei esanerazi omen zien aren antzekoa omen zan.

Garaitzaz gero, Sortalde guztiko "Augustus" bakarra gelditu zan Lizinio.

Ez zan gozoa ibilli bere etsaiekin; Maximino Daia'ren lagun garrantzitsu guztiak erail bait zituan. Baita Maximino Daia'ren babespera bildurik zeuden Diokleziano'ren emaztea ta alaba ere. Lendik ezagunak ditugu bi emakumezko auk. Priska, zuan amak izena. Baleri berriz alabak. Au, **Baleri Galerio**'ren emaztea izan zan, egiazko "Augusta", eta alargun zegoan orduan. Antzua zalarik, bere senar aren sasikume bat artu omen zuan semetzat. "Espasa" k dionez, ugazama aren begien aurrean erail omen zuan Lizinio'k mutil ura. Baleri'k, ordea, eta bere ama Priska'k, alde egin aal izan zuten, eta illabete batzuen epez Trazi'ko mendietan bizitu omen ziran, Lizinio'gandik igeska. Alare, azkenean ertzaifiek arrapatuak izanik, Lizinio'ren aginduz, lepoa moztu zitzaien.

* * *

Sarkalde osoaren "Augustus", orduan eman zituan Lizinio'k bere erabaki ospetsuak: "June, 15, 313. He issued in Nicomedia (Izmit) an edict (often misleadingly called the edict of Milan) proclaiming the common policy agreed between the two emperors at Milan, of full toleration for all religions and restitution of wrongs done to the Christianity. Constantine himself went further making lavish donations to the churches and granting immunities to the clergy" (Enc. Brit.).

Euskeraz: "313'ko ekaifak 15. Nikomedi'n eman zuan, sarri okerki Milan'goa esan oi zaion Erabakia, bi inperatoreek Milan'en eratu zuten politika-bidea aldarrikatuz: eraspen osoa erlijio guztientzat, eta Elizari egindako okerkerien ordainketa. Aurrerago joan zan Kostantino bera, elizei emaitza naroak egiñez eta elizgizonei abantail ederrak emanez".

Ez da arritzekoa, Eusebio'k eta Laktantzio'k, Lizinio orduan kristautzat euki izatea. "Eta baleike, agian, Kostantino'ren garaitzak unkiturik, kristauen jainkoaren onginaia lortu naiez ibilli izatea": "and may perhaps, impressed by Constantine's success, have wished to win the favour of the Christian god" (1b).

Ez zuan asko iraun ezkon-anaiak ziran Kostantino'ren eta onen arrebarekin ezkonduetako Lizinio'ren arteko pakeak.

Aurreneko borroka, 314'ean bertan izan zuten. Mesi eta Panoni galdu zituan Lizinio'k. Au, kristauak Kostantino'ren alde eta bere aurka zituala uste izanik, Eliza "legunki zigortzen" asi zan, " mild persecution" kristauei gudarozteko eta Laterriko kargu garrantzitsuenak kenduz, adibidez, urietan elizkizunak eragotziz, eta gotzaiei kontzilioak egitea debekatuz.

324'ean izan zan azkeneko gudua bi inperatoreen artean. Bi borrokaldi galdu ondorean, Tesalonika'ra erdi-baiturik bidalia izan zan Lizinio. Eta bertan erailla urrengo urtean, iraultza bat gertutzen omen zebillelako.

Bigarren ezkon anaia, Kostantino'k iltzen duana: Maxentzio izan zan aurrenekoa, Au bigarrena: Lizinio.

Pakean bizi ziran oraindik ezkon-anai biak Lizinio'k 313'an Nikomedi'tik bi erabaki aiek aldarrikatu zituanean: Bat, ezagunena, inpeiolur guztirako zan. Bestea, mamiz aren antzekoa, Palestina'rako, dirudianez.

Erabaki bikoitz arek, Lizinio berak jakiñarazten zuan lez, Milan'en eztaigiroko billera artan berak eta Kostantino'k ontzat artu zutena lege biurtu besterik ez zuan egiten. Eta, eskierki, Galerio'k 311'ean emandako beste ura baiño askoz aurrerago zijoan oraingo au.

Eleneraz eta lateraz emana izan zan. Laterazkoa Laktantzio'k gorde digu. Bestea, Eusebio'k.

Ikus, laburki, erabaki aren muiña:

- Askatasun osoa inperiolurreko biztanle guztientzat, bakoitzak nai duan erlijioa aukeratu al dezan. Gauza egokia izango omen da

askatasun ori, Erroma'rentzat "Summa Divinitas" edo "Jaun Goikoenaren" onginaia irabazteko.

Gero, Elizarentzat arras onuragarriak diran azal batzuk datoz:

- Illobitegi, otoiztegi, jauretze, eta Elizarena izandako gauza ororen biurketa. Guztia itzuli bear zaio Elizari. Naiz Laterriaren, naiz pertsona soillen jabetasunpera igaroak izan, berdin dira ontasun aiek danak Elizari biurtu bearrak.

- Era ortan, Eliz osoa, eta baita tokian-tokiko Elizak ere, "legezko pertsona" bihurturik gelditzen dira; gauzen jabe izateko gai.

- Eliz osoari ematen zaizkio erabaki onen bidez, Kostantino'k, ikusi dugun lez, Afrika'ko Elizari eman zizkion abantail eta onura guztiak.

- Azkenean, ostera, Inperatoreek ordurarte lagun izandako "Summa Divinitas" ura aipatzen du Lizinio'k, eta gerorako ere, -- erabaki onen bidez ain zuzen --, "Jainkotasun Guren" laguntzaille aren babesa Erroma'rentzat irabaziko dalako itxaropena.

Gaterio'k ez zezakean orrelakorik esan. Gaterio'ren erabaki arek ez du, Elizaganako, Lizinio'ren onek erakusten duan begirapen eraspentsurik eta onginaia ederrik erakusten.

Galerio'k, Kristauen Jainkoaganako bildurrak eraginda-edo..., ala, kristauen artean azkeneko zigorketak alperrik egindako sarraski zikin arek nazkatuta-edo..., bere naimenaren aurka bezala eman zuan Elizaren aldeko erabaki ura.

Lizinio'ren erabaki au ordea, naiz Lizinio'k emana izan, oso-osoan Kostantino'ren izpiritua zeraman erabaki au, biotz-biotzez izan zan emana. Kostantino ez ezik, Lizinio bera, geroago Elizarekin ain zipotz jardun bearra zan Lizinio, Kostantino'ri lagundu zion Jainko aren aalmen orokorraz onusterik bait zegoan orduan, eta bera ere Jainko aren laguntza bereganatu naiean bait zebillen.

Benetan artu zuan Kostantino'k Elizaren zaindari izateko bearkizuna, baiñan geiegi naasi zituan Eliza ta Laterria. Erroma'ko jentil-aroan Erljioaren eta Laterriaren buru izan zan beti inperatorea. Orrela ikusten zuan Kostantino'k ere bere burua. Milbi-Zubi'ko garaitza-ostean ere Erroma'ko erljio jentillaren buru izanez jarraitu zuan, eta, agian bera oartzeke, orixe bera izan nai izan zuan kristautasunari-buruz ere.

"Constantin entendait proteger **mais comme un maitre tout-puissant**" (Catholicisme): "Lagundu nai zion Kostantino'k Elizari, baiña Elizaren nagusi alguztiduna bera ba'litz bezala".

Seguruaski, Elizako jendeengan jentilledikoengan baiño uste on geiago ipintzen zualako sartu zuan Eliza Laterriarenak diran eginkizunetara:

- Ala, adibidez, Elizari ez baiña eguneroko gizarte-bizitzari zegozkion auzietarako ere eskubide osoa eman zien gotzaien epaiketeri.

- Eraiki zituan Basilika ederrak eta ancika elizak kontuan artu gabe ere, izugarri aundia izan zan bere agintaritzako denboran Elizari eman zion dirutza. Era berean jardun ziran Kostantino'ren sendikoak ere. Ala, Aitasantuen egoitza izan zedin eman zion Fausta inperatemeak bere jauregia, Letran'go Jauregia, Silbestre Aitasantuari, eta an bizitu ziran Aitasantuak antziñate guzian I.308'garren urtera bitartean.

Ez zan Kostantino'ren emaztea baiño zekenago ibilli Kostantino'ren ama, Elene Donea.

- Probintzietatiko zergen puska bat, karitate-ekintzetarako, Elizaren eskuetara bideratu zuan legez. Ta bizirik jarraitu zuan lege orrek, Juliano fedeukatzaillak ezereztu zuan arte. Baiñan lege bizia biurtu zan berriro, Juliano illik; eta "naiz bigarren aldi ontan irurden batera jexia izan, bazan oraindik diru-pillo mardula": "mesmo quando reduzida a um terço, era considerada generosa" (Chadwick. Portugaleratzaille, Alvarran de Carvalho).

- Saiatu zan Erroma'ko legedia kristau sentipenez leguntzen, umei, jopuei, katigui, eta nekazari txiroei lagundu nairik lege

berriak emanez. 316'ean emandako erabaki batez, gaizkillei burni gurituz soilik ez marrazteko agindu zuan, "gizakurna Jainkoaren irudira egiña dalako".

Bazuan Kostantino'k kristautasunagandiko leguntasunaren bearra. Ez bait zan, bere jitez, oso gizakume gozoa: ikusi dugu nola il zituan bere aitagarreba (Maximiano inperatorea) eta bere bi ezkon-anaiak (Maxentzio eta Lizinio) Ta, iru eriotz oiek zuritu daitezkeanak ba'dira ere, ez dirudi urrengoak orrelakoak izan daitezkeanik. Laister ikusiko dugun bezala, "Catholicisme" iztegiaren iritziz beintzat "odol otzez agindu bait zituan Krispo bere seme nagusiaren, eta Fausta bere emaztea inperatemearen erailketak": "Il ordonna de sang-froid la meurtre de son fiis ain Chrispus, celui de sa femme l'imperatrice Fausta" (ib) Baiña ikusiko dugu guk bere tokian, bi eriotz oiek ez zirala ain odol otzez aginduak izan.

- 321'ean, jai-egun egin zuan igandea, egun ortan lan egitea debekatuz: Epal-gelak ere itxirik egon bear zuten igandez, jopuei askatasuna emateko eta bearrezkoak ziran karitate-ekintzetarako izan ezik. Ta nekazariak ere, bear-bearrezkoa zutenean bakarrik joan zitezkean alorretara.

Kostantino ordurako zearo kristau bihurturik zegoalaren siñale? Kontuz!

"O veneravel dia do Sol" zalako egin zuan jai-egun Kostantino'k! Ordurarte Erroma'n zazpi egunez jarraian egin oi zan lan, eta zortzigarrenean atsedean artu. Kroazi'ko Zagreb urian aurkitu dan arri-idazki batek ere oroitzen digu nola eta zergaitik aldatu zuan Kostantino'k oitura ori, sei eguneko lana eta zazpigarreneko atsedena aginduz: zazpigarrena Eguzkiaren eguna zalako!

Ez aztu, Milbi-Zubi'ko gurenda-aurretik, Kostantino, "Eguzki Menderakaitzaren" gurtzaille zala.

Gaiñera, "il soutint les institutions paYennes dans toute la mesure oin il jugeait utile ii la paix de ses tats" (ib): "Bizirik gorde zituan erakunde jentillak, pakerako bearrezkoak zituala uste izan

zuan neurrian". Esan dugu, ala "gorde zuala jentiltasunaren apaiz nagusi izatea ere": "il garda le pontificat paYen" (ib).

Jentilla ote zan ba Kostantino? Ez. Kristautasunera ixuria zegoan ordurako Kostantino'ren gogoa.

Kristautasunean gogoa eukitzea, eta era berean jentiltasunaren "apaiz nagusi" "pontifex maximus" izatea, alkarrekin lotu ez daitezkean gauzak dirala? Bai, gure garai ontan. Ez bide zan orrela IV mende artan, ez kristau erriak, ez teologilariek, ez gotzaiek ez aitasantuek, ez bait zuten Kostantino'ren jardunkera ortan deus arrigarririk ikusi. Ez gaitezen ba aitasantuak baiño aitasantuzaleago izan naiez, alperrik nekatu.

Egia da, katekumeno uts ere izatera iritxi ez zalako, Elizatik at bizitu zala eriotzako ordura arte. Baiñan ori, ez zan arritzeko gauza, maiz eta ugari egin oi zana baizik. IV mendeko giro latz ura ez zan gure XX mendeko giro biguin au bezalako. Oroi, esanik utzi genduan lez bein bakarrik ematen zuala Elizak pekatuen barkapena. Oroi, orregaitik ain zuzen, kristau gazteei, bataiatuta zeuden gazteei, pekatu larrien barkapena geroagorako uztea aolku-ematen zitzaie, eta askok, orretxegaitik bakarrik, eriotzako ordura arte uzten zutela obenen barkapena. Berdin gertatzen zan bataioarekin ere. Oso maiz uzten zala azken urteetarako.

Ta inperatore baten bizitza bazan noski naiko gogorra barkapen-eskea azken urteetaraiño luzatzeko. Kostantino'ren bizitza batez ere. Ikus nola dion ori bera H. Marrou edestilari ezagunak: "Qu' il,

Constantin ait attendu la veille de sa mort pour demander et recevoir le baptême correspond a un usage alor fr4uent et s'explique par les dures necessitès du rn&ier d'empereur; pour ne parler que des crimes les plus Ulatants, Costantin dut successivement assumer la responsabilitè de la mort de son beau-pre, de trois beaux-fthes", de son fils aine et de sa femme".

Ta onela jarraitzen du "Catholicisme"k: "On doit ajouter que la raison d'tat fit commettre a Constantin des crimes abominables: il ordonna de sang-froid le meurtre de son fils aine Crispus, et celui de sa femme l'impèratrice Fausta".

Euskeraz: "Kostantino'k bataioaren eskea eriotzaren bezpera-eguneraiño atzeratu izatea, mende aietan oiturazkoa zanarekin bat dator, eta aski ulerterreza dagite atzeratze ori inperatoretzaren bearkizun gogorrek. Naiz egin zituan gaiztakeririk aundienak bakarrik aipatu, bere kontzientzigaiñean artu bearrak zituan ba Kostantino'k, bata bestearen atzetik, aitagarrebaren, iru ezkon-anaien, seme nagusiaren eta emaztearen erailketak".

"Esan bearra da, Laterriaren zoria zala-ta gaiztakeri iguingarriak egin zituala: odol otzez agindu zituan Krispo seme nagusiaren eta Fausta bere emazte inperatemearen erailketak".

* * *

Salaketa gogorrek dira oiek Kostantino'ren aurka. Ikus dezagun arrazoizkoak diran edo ez. Ortarako, sartu gaitezen Kostantino'ren buru-barnera eta joan gaitezen IV mendeko gizarte-girora, "anakronizko" edo "aro-nasketazko" okerrik egin ez dezagun,

Len ere erail zuan jendea Kostantino'k, Milbi-Zubi'ko ekintzaren aurretik, Galietan. Ikus:

"Franks", ots, Frankiarrek bat-batean ekin zioten Rin ibaieko lurraldetik. Zearo garaitu zituan ordea Kostantino'k. "Les hizo muchos prisioneros, entre ellos a los reyes Astarico y Gaiso, siendo todos entregados a las fieras en el anfiteatro de Trëveris" (Espasa). Treberis, Kostantzio Kloro ezkeru Galietako uriburua zan.

Ez da noski gauza donea, gudan baituak piztietara jaurtitzea. Baiñan, orduan, Kostantino ez zan oraindik kristaua; "Eguzki Menderakaitzaren" gurtzaillea zan, Eta garai artako moralitatearen araura, ori, Kostantino'k egin zezakean gauzarik zuzenena ta arrazoizkoena zan: Katigu arrapatutako Erroma'ren etsaia, edo gurutzera edo zirkoetako piztietara, esklabutzarako bearrezkoa ez ba'zan beintzat.

Egia da bere aitagarrebari bere burua illerazi ziola. A itagarreba ori Maximino zan; Fausta Kostantino'ren emaztearen aita; aski gizon biurria. Diokleziano'ri eskerrak, lenengo tetrarkian, ots, "lau

gizonek osotutako Jaurlaritzan", Sarkaldeko "Augustus" izan zan. Naiz gogo txarrez, Diokleziano'ren aginduz arekin batera utzi zuen "augustutza". Baiñan bere semea, Maxentzio, Galerio Sortaldeko "Augustus"ek Sarkaldeko "Augustus" izendatu zuan Sebero'ren aurka izkilluz jeiki zanean, semearen onespenearekin "Augustus" egin zuan ostera bere burua.

Laister ordea semearen aurka asi zan azpilanean. Jakin zuan semeak, Maxentzio'k. Kostantino'rengana joan zan orduan aita, Maximiano. Ongi artu zuan Fausta'k. Kostantino, Rin-aranean zebillen, ostera frankiarren aurka borrokan. Berrero azpijokuan asi zan Maximiano, suiñaren aurka oraingoan, ots, Kostantino'ren aurka. Jakin zuan Kostantino'k. Norbaitek dionez, gudalburu batzuek, azpijokuzale ura baituta, Kostantino'ri gertatuaren berri eman ziotelako. Beste batzuen ustez, Fausta'k berak, senarrak ez galtzarren, aita salatu zualako.

Kostantino'k, atsegiñena zitzaion eriotza aukeratzeko eskubidea eman zion aitagarreba makurrari. Maximiliano'k, bere burua iltzea erabaki zuan.

Ez dut uste, ez orduan ez orain iñork eriotz orren zama Kostantino'ri leporatu lezaiokeanik.

H. Marrou edestilaria iru ezkon-anaien eriotzaz mintzatu zaigu. Ezkon-anai oietatik, ezagunak ditugu bi: Maxentzio, Fausta Kostantino'ren emaztearen anaia, eta Lizinio, Kostantza izeneko Kostantino'ren ugazarrebaren senarra. Bassariano izan zan irugarrena, Anastasia zeritzan Kostantino'ren beste ugazarreba batekin ezkondua.

Maxentzio ez zuan Kostantino'k Milbi-Zubi'ko borrokan zan, ainzuzen Tiber ibaiean itota, igesi zijoala txalupaz eratutako zubitik erori zalako.

Eriotz orren zuzentasunaz edo gaiztotasunaz iritzi bat emateko, naitanaiez, aurretik, galde oni erantzun bear diogu: Kostantino'k bai al zuan egiazko arrazoirik, Maxentzio'ri gudu ura egiteko? Orren antzeko galderak ordea, geiago dira gaur-egungo girokoak laugarren mendekoak baiño.

Alatagutziz, baietz, erantzungo nuke nik: arrazoia ez ez bazuala Maxentzio'ri gudu ura egiteko bearkizuna ere. Maxentzio, iraultzalari bat besterik ez zan. Indarrez agintaritza artu zuana, eta indarrez artutako agintaritza ori gordetzearren, Galerio'k izendatutako Sebero zeritzan legezko "Augustus" ura borrokan il zuana. Kostantino berriz, naiz legezko "Augustus" izan ez, bazan legezko "Zesar", Galerio'k titulo ori eman ziolako. Orregaitik, Kostantino "Zesar", iraultzalari agintaritza-lapur ari gudu egitera bearturik zegoan.

Lizinio'ren eta Kostantino'ren artean ezan beñere egiazko adiskidetasunik izan. Bietako bakoitzak izan nai bait zuan Erroma'ren inperiolur osoko inperatore bakarra. Ez da erreza, gurari ori lortzeko, prestakizunak egiten, aurrena nor asi zan esatea.

Kostantino'k, 280'garren urteaz gero kristaua zan Armeni'ren adiskidetasuna lortu zuan, orrela Lizinio'ren gibelaldea arriskuan ipiñiz. Ez zan bitartean Lizinio geldik egon, eta saiatu zan Kostantino'ren erorketa gertutzen.

Ain zuzen ekintza baldar aietako baten ondorioz il zuan Kostantino'k Bassiano, bere irugarren ezkon-anaia. Iliri'ko "Zesar" egin nai izan zuan Kostantino'k Anastasia bere ugazarrebaren senar ura. Lizinio'k ordea, lortu zuan aren laguntasuna-ta, gizagaixo ura Kostantino'ren aurka jeiki zan iraultzan. Menderatua izan zan ordea, ta, jakiña, eriotzara galdua.

Bai al da iñor eriotz ortan Kostantino errudun epaituko duanik?

315'ean gudan ziran "Augustus" biak bata bestearen aurka. Kostantino'ri Panoni ta Misi emanez lortu zuan pakea Lizinio garaituak, baiñan ez zuan pake ark geiegi iraun. Orduan asi zuan kristauen aurka Lizinio'k bere "zigorketa ariña", kristauak agintelekuetatik kenduz, eta gotzaiei, gotzai guztiei? sinodo-gintza debekatuz. Ez bait zuan kristauengan konfiantzarik, danak kostantinotarrak zirala iduritzen zitzaolako. Eta ez zitzaion seguruaski arrazoirik peitzen.

Lizinio'k bazekian edestia-zear beren inperatoreen serbitzari leialak izan zirata kristauak beti. Baiñan ez ziran berdiñak leenago-

ko eta oraingo kinkak: Leenagoko inperatore aiek, jentillak izan ziran danak. Orain ordea, Lizinio, bai; Lizinio jentilla zan. Ala izan zan beti eta ala il ere ilko zan. Baiña inperatore jentil aren alboan bazan beste inperatore bat; kristaua!. Nor, eta, Kostantino gaiñera! Borroka guztietan gudari garaillea! Elizaren babesle sendoa, lagun ziurra ta miresle benetakoa! Ta..., Erroma eta Eliza salbatzeko, zeruetan agertutako ikur miragarri ark adierazten zuan Iez, Jainkoak berak aukeratutako gizona!

Nola ez aren aldekoak izan kristauak?

Orregaitik, gurutzada santu baten itxura artu zuan, Kostantino'-ren aldetik, bi "Augustus" aien arteko guduak. Txikiagoak ziran Kostantino'ren gudari-taldeak. Alatagutziz, guda-buruzagi arras yayoa bait zan Kostantino berea izan zuan azkenean gurenda. Lizinio, baiturik, gaur Salonika esaten zaion eta orduan Tesalonika esaten zitzaion urira izan zan "erdi-katigu" eramana. 324 urtea zan.

Urrango urtean, Lizinio'ri lepoa moztutzeko erabakia eman zuan Kostantino'k. Eraiketa orren zioa? Iraultza bat gertutzen ari zala Lizinio.

Egia ote?

Ez dakigu.

Lizinio'ren jardunketa ezagutzera iristeko bide egokirik ez dugu. Ez bait zuan berak edestilaririk izan. Kostantino'k bai, izan zituan bi: Eusebio eta Laktantzio. Ainzuzen, Lizinio'ren berri jakiteko, ari-buruz bi aukeratu diren bakarrak etsi bearrean aurkitzen gera. Biek, Lizinio'ri botatzen diote Kostantino'rekingo guduketa aien errua. biak, bai Laktantzio eta bai Lizinio, nork geiagoka bezala, aal duten guzia goresten dute Kostantino. Aren adiskide aundiak bait ziran. Eta orrexegaitik ainzuzen, ez zaizkigu guri fidagarriegiak iduritzen.

Ezin esango dugu beraz Lizinio'ren aurka gudu-egiteko Kostantino'k zio zuzenik bazuan edo ez. Baiñan, bai, esan bearke dugu berriro, kezka aukeratu danak, gaur-egungo moralitateari dagozkion arazoak dirala. Orduan orrelako kezkarik ez bait zan ezagutzen. Orduan, eta baita geroago ere, ez dute inperatore ta

erregeek beren aintza ta aunditasuna audiagotzearren gudara joateko aitzaki aundiren bearrrik izan, "Menderatsetiko eskubidea", "el derecho de conquista", ez al da munduko legedi guztietan egiazko eskubidetzat eukia izan?

Ta? Lizinio'ren erailketaz zer? Erantzun berdiña. Ez dakigula ziurki, Kostantino'k ezkon-anaia zuan bere etsai ura eriotzara galtzeko arrazoi zuzenik izan zuan edo ez.

Danadala, badirudi eroapen aundia izan zuala Lizinio'rekin Kostantino'k.

Ez zan Kostantino, Sortaldeko Elizak laister uste izango duan bezala, gizakume santu "Isopostolos" edo "Apostoluen kidekoa". Ez zuan, ez orixe Kostantino'ren "zaldiaren agoburni santuak" ere, gaur oraindik Sortaldeko eliz batean aurkitzen dan bezala urrezko erlikario batean sartuta gordetzerik merezi,

Baiñan Kostantino santua ez ba'zan are gutxiago zan Lizinio gizakume zintzo atsegiña. "S'il faut faire la part de exag&ations dans le portrait qu'Eu0be de C6arée nous a conservē de Licinius, dans le bout de rehausser paraWlement la figure de Constantin, il semble rianmois qu'en vieillissant Licinius soit reste, jusque sur le tr8ne, un "arriviste" souKoneux, impulsif et cruel. Il fit ainsi disparaItre tous ceux qui paraissaient susceptibles a ses yeux de briguer sa place ou de lui rappeler les conditions de son ascension, notamment Valeria, fille de Diocl&ien et femme de son ami et protecteur Galre" (Catholicisme),

Euskeraz:

"Kostantino goratzearren Eusebio'k Lizinio'ren irudia geiegi beztu izatea baleikeala aztutzeke, badirudi Lizinio zartzaroan ere, bere inperatore aulkian bertan "arribista" edo "oro-beretzat-nai-zale" bat izanez jarraitu zuala, jeloskorra, zakarra, ankerra. Ala "garbitu" zituan bere ustez aulkia kentzeko ala bere igoera nolakoa izan zan oroiterazteko gai izan zezaiozkean guztiak: Adibidez, Baleri, Dikloziano'ren alaba eta Lizinio'k berak adiskide eta babesle izandako Galerio'ren emaztea".

Kostantino'ren obenik aundienak, bere seme nagusiaren eta bere emaztearen erailketak izan zirala esan oi da, naiz nik, bi oiek baiño aundiagoa, beste bat izan zuala uste izan.

Krispo, Kostantino'k Minerbina zeritzan bere lenen emazteagandik izan zuan semea zan. Inperatorearen seme zarrena! Orregaitik, oraindik aurra zala izan zan Krispo, bere aitak "Zesar" izendatua. Izendaketa orren bidez, agintaritzarako bere ondorengotzat aldarrikatzen zuan Kostantino'k bere semetxo ura. Azi zan mutilla. Bai gorputzez bai adimenez arras gizaseme bikaiña irten omen zan. Eta izugarri gudalburu yayoa, barbaritarren aurka borrokan, naiz oraindik adiñez oso gaztea.

Zer zala-ta galdu zuan aitak eriotzara?

Ez dakigu.

Filostorgio edestilariak idatzi zuanez, Fausta, Kostantino'ren emaztea, bere ugaz-seme artaz zoroki maitemindu zan. Ezin izan omen zuan ordea mutilla lizunkerira makurtu. Orduan zitalkeri gaiztoz, gauzak azpikoaz gora kontatuz salatu omen zuan Krispo, aren aita eta bere senarraren aurrean: Krispo izan zala, alegia, bera, Fausta, indarrez izorraketara beartu nai izan zuana. Ta, Kostantino'k, ori entzunik, amorruez galdu zuala eriotzara bere seme nagusia. Ori dana, Filostorgio'k dioskuna.

Guzi ortaz ordea... zer pentsatu?.

Ez dala egia. Eta, orregaitik, edestilariak ez dutela aintzat artu. Filostorgio'k asmatua ote da? Ez noski, baiñan bai Filostorgio'k Kostantino'ren etsaien ezpaitatetik jaso. Ejito'n Jose'ri Putifar'en emaztearekin gertatua zeukan noski irudimenean ori asmatu zuanak. Esan bearra da gaiñera, Putifar baiño iguingarriagoa agertzen zaigula ipui ortan Kostantino: Putifar'ek, naiz emazteak kontatu ziona sinistu, ez zuan Jose eriotzara galdu, espetxera baizik. Kostantino'k ez zuan bere seme nagusiarentzat espetxerik gogoan artu: Eriotzara galdu zuan. Eta Putifar eta Kostantino'ren arteko kidaketa ori gogorragoa gertatzen da oraindik Kostantino'ren aurka, onek, Kostantino'k, Krispo bere semea zuala, --bere seme nagusia!

eta alderantziz Putifar'entzat Jose azokan erositako jopu bat besterik ez zala, gogora ekartzen ba'dugu.

Ipui ori egia zala uste izan ote zuan Filostargio'k? Aia Kostantino iraindu-billa ote zebillen, ori, Kostantino'ren etsaien ezpañetatik jasota, bere liburura sartu zuanean?

Filostorgio edestilaria zan, kapadoziarra jaiotzez, ariozale amorratua, gutxi-gora-bera 363'garren urtetik 439'garrenerako epean bizitua. Eusebio'k idatzitakoaren jarraipena izan nai zuan "Eliz-Edesti" bat idatzi zuan: 439'garren urterako argitara emanik zeukan liburua. Esan dugun bezala, ariozale aundia izan genduan bere, talderik gogorrenekoa, eta talde gogor orren aintzindari zan Eunomio'ren adiskide miña. Idazle txukuna da, baiñan adiskideen alde eta etsaien aurka odol beroegikoa. "Bere liburua sinispide oker guztien onespena eta sinispide zuzen guztien gaitzespena dala" esango digu gero Fozio Kostantinopla'ko Patriarka ospetsuak. Geiegitxo esatea? Filostorgio beintzat arianokeriaren babesle sutsua bezain arerio gogorra izan zitzaigun egillekatolikotasunarentzat ez ezik jentiltasun ber-berarentzat ere.

Ez dirudi ordea, Filostorgio bezain edestilari ariozale batek, ariozaleekin ain eraspentsua izan zan Kostantino'rekin zergaitik asarretu izan zezakeanik. Baiñan, Filostorgio ariozale ertzakoiene-takoa izan zan da... Nork Jakin! Errez egitzat artzen bait da gaiñera, etsaiaren aurka dijoan guztia!

Arrazoiz obeki jantzia derizkiot "Espasa"k damaigun iritzia: "Crispo se habia ya distinguido por sus brillantes cualidades, las cuales le habian conquistado gran popularidad, y desde niño habfa obtenido el tftulo de cesar, por lo cual, y deseando la emperatriz Fausta asegurar el imperio a sus tres hijos Constantino, Constancio y Constante, se ignora que medios empleo para que el emperador ordenara su muerte".

Baiñan bai al zuan Fausta'k bere semeen etorkizunari-buruz bildur izateko arrazoirik? Krispo "Zesar" egiña izan zan, egia. Baiñan "Zesar" egiñik zeuzkan ordurako Kostantino'k Fausta'ren bi seme zarrenak ere, Kostantino Gaztea ta Kostantzio, Lizinio'ren

sasiseme Liziniano'rekin batera. Ziur egon zitekean Fausta, laister esango dugun arrazoiagaitik, bere irugarren semea, Kostante, ere "Zesar" egiña izango zala.

Ta edozein modura ere, Kostantino bere seme berberaren aurka okertu nai izatea baiño, Kostantino, onek ain etsai zuan Lizinio'ren semearen aurka ipintzea ez al zuan Fausta'k eginkizun errezagoa?

Ez dagola antziñako gauza aiek era ziurrean jakiteko modurik!

Orregaitik, Krispo "in circonstanze misteriose" erailla izan zala, diosku "Enciclopedia Italiana"k. Izan da, Kostantino'k bere semea, onek gudu-lekuetan lortutako garaitzen bekaizkeriz il zuala esan digunik. Eta, baita, asko izan bait ziran Sarkaldean Kostantinopla inperiolur osoaren uriburu egitearen etsai **bere** semea Kostantinopla'ren etsaien buruzagia zalako il zuala esan duanik ere.

Alatagutziz, Krispo'ren eta Fausta'ren erailketak alkarrekin loturik daudela ematen du. Amak, Elene Doneak, ikusierazi omen zion Kostantino bere semeari, Fausta gezurretan ibilli zala Krispo'ren aurka. Geiago oraindik: Fausta "zaldi-ikulluko morroi batekin" lizunkerian naasirik zebillela agertu omen zion. Ori jakitean agindu omen zuan Kostantino'k bere emazte aren eriotza.

Fausta, bere bañu-ontzian izan zan itoa. "Elena, madre del emperador, convenció a este de las calumnias que encerraban las acusaciones que contra Crispo habfa lanzado la emperatriz a la vez que la tachaba de adulterio con un mozo de las caballerizas imperiales" (Espasa). Ori ordea, sinistu daitekean gauza ote da?

Tamalez, Krispo'ri eta Fausta'ri-buruz zer gertatu zan, egitan jakiterik ez dugu. Eusebio ta Laktantzio'k ez digute deus esaten. Eta bi kostantinozale gartsu aien isiltasunak, ez dio Kostantino'ri on aundirik egiten.

Ta, naiz seme baten eta emazte baten erailketak gauza ariña izan ez, nere ustez beste gizakume baten erailketa izan zan Kostantino'ren obenik nazkagarriena:

Lizinio eriotzara epaituz gero, Lizinio'ren semeari, Liziniano 'ri kendu zion bizia: "Zesar" egiñik zeukan Liziniano ari ber-berari!

Amabi urteko mutikoa zan orduan Liziniano. Zeren billa zebillen ori egitean Kostantino? Lizinio'ren semea illez, Lizinio'ren jarraileak betirako isilik uztearen billa? "Per prevenire, a quanto sembra, nuovi disordini" (Enciclopedia Italiana).

Danadala, mutiko gaixo aren erailketak nondik zurituri ez du. Ez nondik ez nola zuzendurik ez du.

* * *

Kostantinopla aipatu dugu. 324'ean asi zan Kostantino an bizitzen eta 330'ean izan zan uriaren sagaraketa.

Krist'aurreko 749'garren urtean izan zan Erroma zarra eraikia. Eta arrezkero bera izan zan bere inperiolurreko Uriburua, Krist'oste-ko III mendearen azkenean Diokleziano'k Nikomedi Uriburu biurtu zuan arte. Izenez, Erroma'k jarraitzen zuan Uriburu, baiñan Diokleziano'k Nikomedi'tik jaurtu edo gobernatu zuan Erroma'ren inperiolurra. Nikomedi'n bizitu zan aren ondorean Galerio ere. Eta Lizinio, Sortaldeko inperiotza artu zuanez gero. Eta Kostantino bera, uriburutzarako uri egoki bat asmatu zuan arte. Uri egoki ori orduan Bizantzio esan oi zitzaion uriska bat izan zan.

Nikomedi Marmara itxasoaren asi-aldeko lur-ertzean zegoan, gaur-egun Izmit izeneko uria dagoan tokian. Bosforo itxas-atakaren ego-sortaldera.

Pentsatu zuan Kostantino'k ere, Lizinio erabat garaituz gero bertan bizitzen jarraitzea. Baiñan, Bosforo'ren beste aldera aurkitzen zan Bizantzio egokiagoa iduritu zitzaion noski, eta ara eraman zuan uriburutza, antziñako greziarren koloni izandako uri ari bere izena emanaz: Kostantinopia.

Zergaitik egin ote zuan ori? inperio osoko inperatore zanez gero, zergaitik ez ote zuan uriburutza Erroma zarrera itzuli?

Ez noski Sartaldea Sarkaldea baiño geiago maite zualako. Sarkaldean izan bait zan bera "Augustus" egiña, eta Sarkaldean izan bait zan "Zesar" aurrena eta "Augustus" gero, Kostantzio Kloro bere aita ere.

Berak ainbeste maite zuan ama, Elene Donea bai, Sortaldekoa zan, bitiniarra. Baiñan bere amari atsegin eman naiez ibilli ba'zan Nikodemi'n jarraituko zuan Kostantino'k. Nikomedi, Bitini'ren uriburua bait zan.

Ez zan, eztare, politikak bultzatuta ibilli. Politikagintzarako toki egokiago zan Erroma, bere inperiolur osoaren erdian zegoalako eta bide guztiak Erroma'runtz begira egiñak izan ziralako. Esaera zaarra da "edozein bide ona dala Erroma'ra joateko".

Guda-zuzenketarako berriz, Bizantzio arriskurik aundienetako lekuetatik

urrutiegi aurkitzen zan. Erroma'ren inperiolurrarentzat, arriskua Rin ibaiaren aranean zegoan Danubio ibaiaren egoan baiño geiago. Arriskurik aundiena, Sartaldearena zan, ez Sortaldearena. Eta an, Sarkaldean, ondatu zan inperiotza. Sortaldean, Sarkaldean ondatua izan zanez gero ere, beste milla urte luzez iraun bait zuan oraindik.

Erroma zarra askoz obeki zegoan Rin ibaieko zirrikuak babesteko Kostantinopla berria baiño.

Soilki arrotasunak eraginda uriburu berriari bere izena emanaz bere burua betirako oroigarri egin nairik aldatu ote zuan Kostantino'k inperioaren uriburutza Erroma'tik Kostantinopla'ra? Ez dirudi. Sakonkiegi bizi izan zuan berak erlijioari zegokion guztia, ekintza artan erlijioari-buruzko ziorik ez izateko.

Oartzen zan Kostantino bere inperio-kera inperiotza berri baten asiera zala. Eta inperio berri batek uriburu berri bat eskatzen zuan. Erroma zarra inperio zarraren burua izan zan. Baiña inperio zar ura jentilla eta Elizaren arerio zigortzaillea gertatu zan. Inperio berria, kristaua izanen zan. Eta Elizaren adiskidea ta laguna.

Ordurako sentimentuz beintzat kristautasunak arturik bait zegoan Kostantino. Ikus lentxeagoko bere idazki baten doiñua: "Zure zuzendaritzapean asi eta burutu aal izan dut ainbeste gauza zuzen, esaten dio Kostantino'k "Jainko Doneari". Eta onela jarraitu "Zure ikurra gudaroztearen aurrean ipiñi dutalako eraman al izan ditut nere gudariak alako garaitza aundietara. Eta berriro ere Laterria arriskuan aurkituko ba'litz, zure agindu ori

zintzo betez irtengo nitzake berriro etsaien aurka. Orregaitik daukat nere anima zukan ipiña. Maite dut zure izena, eta benetan gurtzen dut, ainbeste mirariz lagundu didan eta, orrela, sinismena piztu ta sendotu didan zure aalmena".

Idazti ori, Sortaldeko probintziei bidali zien Kostantino'k; Lizinio garaitu ezkeren aien agintari ere izatera iritxi bait zan: Sarkaldeko eta Sorkaldeko Agintari. Inperio osoaren Inperatore bakarra: " Mon "- " arka"

Gogoeta oiek oroitzuz ulertu dezazkegu lentxeago Kostantino'k emandako erabakiak: kristautasunaz gantzututako erabakiak:

- Kristau egiten ziran juduek, izango zuten beste juduen litxarkerien aurka Laterriaren babes. Dirudianez, gogor ibilliak ziran juduak kristautasunaren kaltean, Judu auk, Itun Zarrean jarraitzen zuten juduak ditugu, beste judukristau aiek, erdaintza zala-ta Paul Doneari ainbeste neke eman zioten aiek, ezereztu bait ziran ordurako. Erabaki ontan Kostantino'k, jentiltasunaren eta judutasunaren gaindik, kristautasunari eta kristautasunari bakarrik, esaten dio "cultus Dei" edo Jainkoaganako gurteta zuzena.

- Zesaraugusto ezkeren, bazan ezkongeei eta semerik gabeei zerga astuna ipintzen zien lege bat. Lege orrek, Erroma, gudarako batez ere, jende geiagoren bearrean aurkitzen zala adierazten digu. Ba, lege ori Kostantino'k ezabatu zuan. Zergaitik? Kristautasunaren altzoan egunetik-egunera gero ta geiago sortzen ziran lekaide bakartien omenez, seguruaski. Erroma inoiz baino geiago aurkitzen bait zan orduan, baztar guztietatik erasotzen zioten barbaritarrei aurpegi emateko jende ugariagoren bearrean.

Jakin zuan Kostantino¹ k jentiltasuneko jaupari batzuk, toki batzuetan eta jai aundietan, kristauak antziña bezala Erroma'ko jainko zarren gurtetara eraman naiean ibilli zirala. Berealaxe, debekatu zuan jardunketa zipotz ori. Agindua ezetsita jardunketa zipotz artan jarraitzen zutenei, zigorpen bikoitza ipintzen zien aukeran: Dirutza aundiko isun edo multa bat, ala "flagelatio" edo erromatarren zigorketa izugarri ura.

- Ta, nola ez? zearo debekatu zuan, gurutzea gaizkille aundien zigorketarako erio-izkillutzat erabiltzea. Gurutzea, orain, Kristo'-ren gurutzea, Erroma'ko Inperioaren eta Inperatorea beraren ikurra zan!!!

Kostantino'k ez zuan jentiltasunik debekatu. Ez zituan jentillak kristau biurtzera beartu. Eta jardunkera orrek, Kostantino biotz eta adimen zabaleko gizona izan zala adierazten omen digu, edestilariak diotenez. Egia. Erljiozko askatasunari-buruz orrelakoa izan bait zitzaigun Kostantino.

Egia da, zail gertatuko zitzaiola beste era batera jardutea. Erroma'ren inperiolurreko jendeak jentillak bait ziran oraindik geienak Sortaldean bertan. Sarkaldean berriz "in grande majoritë" (Cathol.), "Geiengo aundiz" jentillak. Esan ere esan daiteke beraz jentillen iraultza baten bildurak zuzentzen zuala Kostantino'ren ibilkera.

Alare, ez da noski ori, arrazoi bakarra. Jentillak ez ziran jainko zarren alde iraultzara jeikitzeke gauza. Akiturik bait zegoan ordurako jentiltasun zaarraren indarra.

Eman ere, eman bait zuan jentiltasunaren aurka lege bat, Bat bakarra, baiñan aski mingarria, edozer gauzagaitik, gozo alalean, senide, aide ta adiskideak bilduz, jainko zarrei sakrifizio edo gurketa-eskeintzak egitera ain sakonki oiturik zeuden erromata-rrantzat. Izanere, ofizialki egiñak ez ziran sakrifizio aski urriak ez gaiñeko guztiak, eta erromatarrek ain maitea zuten aztigintza debekatzen zituan ba lege arek.

Alatagutziz, ez zan lege mingarri aren aurka zerbait egitera iñor ausartu. Ez zuala Erroma'ko jentiltasun zaarrak iraultzarako giartasunik!

Naitanaiezkkoa dugu beraz beste arrazoi bat billatzea. Ez zaigu zaila gertatuko. Arrazoi ori Kostantino'ren izaera berbera bait da. Kostantino erlijioari dagozkionetan, biotz eta adimen zabaleko gizona irten zan: danei eskubide berdiñak ematearen zalea. Izan zuan nork irakatsia. Bera bezalakoa izan bait zan bere aita ere: Kostantzio Kloro Sarkaldeko inperatorea.

Ta merezimendu geiago du aitak semeak baiño. Ark ez bait zuan, onek izan zuan bezala, liberaltasun ori ikasteko maixurik izan. Gaiñera, zaillagoa bait zan liberal izatea aren denboran, tetrarkiko beste iru agintariak ain kristauen etsai amorratu zigortzaille odoltsuak ziranean.

Alde ortatik gorespenik aundiena zor zaie aita-semeei, aldi gogor eta anker zipotz artan ain gizaseme zabalak izan ziralako. Ez orduan, ez mendeak eta mendeak geroago ere, ez duzu, ia gure egunok arte, aiek bezalako agintari zabal bat maiz aurkituko.

* * *

Bere kemen eta aalmen guztiak erabilliz saiatu zan Kostantino, Bizantzio zarra Kostantinopla berria biurtzeko, uritxo ura edertzen eta aunditzen. Izugarrizko diruak txautu zituan an, arresi sendo, karrika dotore eta jauregi ta jauretxe ikusgarriak egiten. "Derroclironse montones de oro. Surgieron palacios e iglesias con verdadera profusibn. Todo et lujo oriental encontr6 allf su cultivo más exquisito" (Llorca).

Bikaiñak ziran eliz kristauak, batez ere, bere illobi-leku izan zedin eraiki zuan Amabi Apostoluen omenezko basiIika. Jentillentzat ere, jainko zarren jauretxe ondatuak txukunduz gaiñera, eraiki zituan berriak.

Ori, Kostantino inperatore kristaua, sasijainkoei jauretxeak egiten ikuste ori, gauza mingarria izan da mendetan eta mendeetan kristaumentzat; gaur ordea benetan gauza pozgarria zaigu; gure II Batikan Kontzilioak aldarrikatu duan "sinispiderako askatasuna" Kostantino'k ederki usmatu zuala adierazten bait digu.

Kostantino'ren mendekorik geienak bere inperio-lur guztian jentillak ziran. Orregaitik, Laterrri-Buru bezala, egin zuan ori egitera bearturik zegoan Kostantino.

326'ean jarri zan uri berriaren aurren-arria. Akar ta gogor egin zan lan-da, andik lau urtera, 330'ean bere eraiketaren amaia ospatu aal izateko gerturik aurkitzen zan. Egun artan Jainko kristauaren

izenean izan zan bedeinkatua Kostantinopla. Baiña baita Erroma'ko jainko zarren izenean ere, arrazoizkoa zan lez. Uri berri ark, oraindik geienbat jentilia zan inperio baten buru izan bear bait zuan.

Alatagutziz, Kostantinopla izan zan, bere lenengo-arritik azkeneko arrira, lendabiziko "uri kristaua". Ori zan bâ Kostantino'k nai zuana: Kristau jaio zan uri batean ezarri kristaua izan bear zuan inperio berriaren buruzagitza. Erabaki batean idatzi zuanez, "Jainkoagandik artu zuan agindua betez eraikia" izan omen zan gainera uri berri ura. Eta, "azkeneko garaitza Lizinio'ren aurkako garaitza eskertzearren Jainkoari opaldua".

Erroma'ko Uri zarra, aro jentil zarraren ikurra zan; Kostantinopla berria, aro kristau berri baten ikurra izanen zan. Orregaitik, uriaren bedeinkapeneko egun ura, aro zarraren amaia eta aro berriaren asiera izango omen zan munduaren edestian.

Egun artan aldatu zan Kostantino Nikomedi'tik Kostantinopla'ra. Alatagutziz, ez zuan oraindik Kostantinopla'k osoan Erroma'ren tokirik artu. Agian zalapartarik sortu ez zezaion, aski apal ibilli bait zan Kostantino: Erroma'n jarraitu zuan Senatuak; Erroma'n Aitasantuak; eta Kostantinopla'ri "Bigarren Erroma" esan zitzaion, "Aurrenekoa Erroma" izaten lengo Erroma zarrak jarraitzen zuala adierazi naiez.

Ez zuan pentsatzen orduan Kostantino'k, rnendeak geroago, Fozio'k eta Mikel Zerulario'k sortutako zisma mingarriaren aroan "Erroma Berria" esango zitzaiola bere Kostantinopla ari, Erroma Zarrak Sortaldean agintzeko eskubiderik ez zuala adierazi naiez.

* * *

Kostantino'k egindako elizak aipatu ditugu. Eliz aiek "basilika-eran" izan ziran egiñak. Garai artan "basilika" areto aundiei esaten zitzaien. Uri erromatarretan jendea biltzeko-ta erabilli oi ziran aretoei.

Laukoiak ziran, zabal baiño luzeagoak. Alakoak izango dira inperio kristaueko elizak ere. Aundienek, zutabeen bidez, aretoa, sarreratik aldarera iru edo bost zati luzetan banatua izango dute, eta iruetan edo bostetan zabalena izaten dan erdiko zatiaren amaian maku eder baten atzean "abside" edo "eliz-buru" bat. Aldarea eliz-buruko aren barruan egoten zan.

Makuak bere gainean uzten zuan orma-zati zabal aundia "mosaiku" edo margodun "arkoxko-lan" bikaiñez edertua egon oi zan. Eta baita absisdearen orma guztia ere. Doneen irudiak eta bibliatiko gertakizunak, artzen zituzten ertilariek lan miresgarri aietarako gaitzat. Bereiziki "Pantokrator" edo "Kristo Izadi-Nagusi Garaillearen" irudia.

Kostantino'k egindako eliz eta basilika guztien artean bi zaizkigu aipagarrienak:

Jerusalen'go Golgota-Mendi'n Josu'ren illobi donearen gainean eraikitakoa eta Erroma'ko Batikan mendian Kepa Donearen omenez egin zuana.

* * *

Arras ospetsua izan da kristaudiaren edestian Jerusalem'goa. Jauretxe ura maometarrendandik yaretzea izango da erdiaroko zaldun kristauen leiarik gartsuena. Jauretxe ura egiten ari zirala izan omen zan aurkitua Josu'ren Gurutze Donea. Aurkitu zuana, Elene Donea, Kostantino inperatorearen ama.

Zer esan?

Egia da Elene, ordurako andre adintsua, Palestina'n erromes izan zala. Egia baitare Gurutzearen aurkikuntza artaz oso goiz asten dirala dokumentuak mintzaten. "Before 337 it was claimed in Jerusalem that, during the building of Constantine's church on Golgotha, Christ's cross had been found. Later in the century Helena began to be credited with the discovery" (Enc. Brit).

Euskeraz: "337'garren urtearen aurretik ere ziur esaten zan (was claimed) Jerusalem'en, Golgota'ko jauretxea egiterakoan

Kristo'ren gurutzea izan zala aurkitua. Geroago, baiñan mende artan bertan, Elene'ri erantsi zitzaion aurkikuntz ura".

Zirilo Doneak, 347'an edo 348'an Jerusalem'en bertan egindako itzaldi batean uri ark gurutzeari zion eraspenaz mintzatu zan. Egia, ez zuala gurutze aren idoroketarik aipatu. Baiñan, bearrezkoa al zuan aipamen orren egintza?

Ama 11 zitzaionean, Kostantino'k, jauretxe bat eraiki zion Erroma'n Gurutze Doneari. Eraiketa ori, Elene'k gurutzeari izandako eraspenaren oroiz egiña izatea baleikeala, esan du norbaitek. Bai. Baleike. Baiñan Elene'k gurutzearen idoroketan zer ikusirik izan ez ba'zuan, nondik eta nola Elene'k gurutzeari alako eraspen bereizia?, aren omenez Kostantino jauretxe bat egitera bultzatze-aiñako eraspena?

Elene'k gurutzeari izandako eraspena ain aundi eta ain bereizia ba'zan, semea eraspen aren oroiz gurutzeari jauretxe berri bat eraikitzen ipintzera aiñakoa ba'zan, badirudi eraspen arrigarri aren zergaitiak ere, zerbait txit arrigarria izan bear zuala. Ots, Elene Donea, bere bizitzan, gurutzeari-buruzko zerbait arrigarriaren lekuko izan zala.

Oso goizetik egon zan Elene Donea gurutzearen idoroketari lotua: Ikus nola kontatzen diguten laugarren mendean bertan idoroketa ori Anbrosio doneak 395'ean Teodosio inperatorearen illetetan egindako itzaldiak, mende orren azkenekoak edo urrengoaren asierakoak diran Rufino edestilariaren "Eliz-Edestia"k, eta Nolako Paulin Donearen "Eskutitzek":

Golgota-Mendi'n zulaketak egitea agintzen du Elene Doneak. Iru gurutze agertzen zaizkio. Kristo'rena eta aren alboan gurutzatutako bi lapurrenak. Iruetan Kristo'rena ezagutzeko, Rufino'k dioskunez, gaixorik zegoan gizon bat ukitu zuten gurutze aiekin. Aurrenekoak eta bigarrenak ez omen zuten ezer gertaerazi. Irugarrenak ordea, bat-batean sendatu omen zuan gizon gaixo ura.

Paulino nolatarrak, gizon gaixo bat ez baiña ildako baten gorputza izan zala erabilia diosku, eta irugarren gurutzeak berbiztu egin zuala ildako ura.

Anbrosio doneak ez zekian orrelako mirarien berririk. Erreza izan zala dio iru gurutze aien artean Kristo'rena ezagutzea, Pilato'k ipintzea agindutako INRI zion iragarki ura oraindik josirik zeramalak.

Badirudi beraz, lenen azterketa onen ondorioz, Eiene'k billatua izan zala Gurutze Donea. Ez da ordea ori, ain gauza ziurra.

Izan ere, antxe bertako Zesarea¹ko Eusebio'k zeetasun osoz eman zigun, bere "Kostantino'ren Bizitza"n, Elene'k egindako erromesketa aren berri. Aipatzen du nola, Josu'ren jaiotza ospatunairik, Belen'en basilika bat egiteko agindu zuan. Baita bigarren basilika bat ere Oligondo-Mendi'n, Josu zeruetara igo zan lekuan. Elene'k gurutzerik aurkitu izateari-buruz ordea, ez du txintik ere esaten. Ezta, gurutzea aurkitua izan zan lekuan, Golgota-Mendi'n ainzuzen eraikitako jauretxe kostantindarraren sagaraketaren berri ematerakoan ere.

Sagaraketa ori 335'ean egin zan, Jauretxe aren edertasunaz, Gurutze Donea ber-beraz, eta jauretxe aren barruan Gurutzeari opaldutako otoiztegitxoaz bai, astiro mintzatzen zaigu. Elene'tzaz ordea, ezer ez.

Sagaraketa artan Eusebio berak egin zuan sagaraketa-mezako itzaldia. Itzaldi ortan ere, Elene., aipatu ere ez.

Eusebio'k bazekian Kostantino'k bere ama zenbaiteraiño maite zuan. Gurutze Donearen billatzaillea Elene izan ba'litz, ain Kostantino zurikatzaile nabarmena zan Eusebio'k, sinistekoa al da inperatorearen ama oparo goresteko adiontasun ura alperrik galduko zuanik?

Baiñan isiltasun ori ez da Eusebio'rena bakarrik:

333¹ an izan zan Palestina'n "Bordele'ko Erromesa". Golgota eta Kostantino'ren basilika ikusi zituala idatzi zuan; baiñan Elene Doneri'k ez du ezertarako aipatzen.

IV mende orren azkenean edo V'aren asieran egon zan erromes Eteria zeritzan neskuts galiziarra Lur Doneetan. Gurutze Donearen idoroketaz, bai, mintzatzen zaigu. Ez ordea Elene Doneaz.

Iru galdera Gurutze Deunaren aurkikuntzari-buruz:

- Noiz izan aurkitua? "Quelques années apres le Concile de Nicee" (Cath): "Nizea'ko Kontzilioa baiño urte batzuk geroago". 325 'ean egin zan Kontzilio ori. 325'az gero, beraz. Baiñan 333'az aurretik. Urte ontan ikustatu bait zuan Bordele'ko Erromesak Gurutze Deunaren basilika.

- Gurutze Deuna'ren aurkikunde ori, egiazkotzat euki al dezakegu? Bai. Oso-osu goiz mintzatzen bait dira gertakizun ortaz, uste on guzia merezi duten idaztiek. Era berean, Gurutzearen aurkikunde ontzat artzera bultzatzen gaitu, IV mendearen erdirako Jerusalemen bertan, urtetxo batzuk lentxeago gertatutako Gurutze Deunaren idoroketa ain orokorki, ain ziurki, eta ain eraspentsuki sinisten eta ospatzen zala jakiteak.

Baiñan mendearen erdiaren aurretik ere, badakigu Jerusalem'en-go Elizak Gurutze Santuaren idoroketa ospatzen zuala. 325'etik laister izan zan Guretzearen idoroketa. Ba, 333'garren urtean izan zan Jerusalem'en, an Gurutze Deunaren basilika ikustatu zuan Bordele'ko Erromes aipatu-berria. Ta "Encyclopaedia Britannica"k berriz, 337'a baiño lenago idoroketa ura Jerusalem'en ospatzen zala esan digu. Mendearen erdiruntz Zirilo Donea zan Jerusalem'go gotzaia. Bein baiño geiagotan mintzatu zan Gurutze Doneaz.

Laister zabaldu zan noski Gurutze Doneaganako eraspena mundu kristaua-zear. Ta eraspena ez azkar, oso goiz naitanaiez! zabaldu ziran Gurutz aren zatiak ere, zati oietako bat IV mende ber-beraren barruan iritxi bait zan munduaren azkeneko bazterreraifño. Nun eta Mauritani'n! aurkitu bait da Gurutze Deunaren zatiaz itzegiten digun 397'ko arri-idazki bat.

Ori guzia gogoan artuta ere, Gurutze Deunaren idoroketa dokumentuz ongi ziurtua ez dagoala esaten duanik baldin ba'da, ori esaten duarentzat ez daiteke ongi dokumentatutako gertakizunik edestian idoro.

- Elene Donea, Kostantino'ren ama, izan ote zan Gurutze Donea billatu zuana? Baleike, baiñan ez dirudi.

Seguruaski gaiñera, ilda zegoan Elene, Gurutzea aurkitu zanean. Uste danez, 327'an edo 328'an il bait zan bera.

* * *

BATIKAN-MENDIKO JAURETXEA, Donekeparen omenez eraiki zuan Kostantino'k. Elizaren lenengo Aitasantua illobiraturik zegoan tokian bertan.

Kepa an izan zala obiratua sinistu bait du betidanik kristaudiak. Eta ori adierazten digu aren illobiaren omenezko basilika eraikia izan zan lekuak berak ere.

Toki ura muiño bat da. Zelaitze-lan izugarria egin bear izan zuan an Kostantino'k lur pillo aundiak tokiz aldatuz eta maldak ormatza aundi sendoen bidez ziurtuz, toki malkartsu ura, bertan basilika bat altxatzeko egokia biurtu zedin. Erroma guztiak Kepa an obiratua zegoala eskier sinisten zualako siñale bizkorra. Bestela ez bait zuan balio ainbesterañoko nekeak artzen ibiltzeak, basilika ura an inguruan toki zelaiean eraikia izan zitekean ezkerro.

Kepa ordea, Batikan-muñoan zegoan obiratua.

Neron'en zigorketakoan amarren bat urte zituan Tazito'k, gauzak Batikan-auzoan gertatu zirala idatzi zigun 11 mendearen lenen urteetan. Eta Batikan-muñoan eraiki zioten kristauek lenengo illobi-etxolatxo Kepa'ren gorputz illari: gure egunotan egindako azterketek argira atera diguten etxola. Etxolatxo ortaz mintzatzen zaigu 11 mendearen azken-aldera Kaio bereter edo presbitero erromatarra. Gure egunotan, izan da aurkitua Batikan-jauretxearen azpian Kepa'ren illobia. Ez gauza geiegi, Kepa'ren gorpuzkiei dagokienez.

"Era isekagarrian" izan zirala eraillak Neron'en denborako ziñopak, dio Tazito edestilariak. Gurutzean iltzea, ez zan ilketa isekagarria, egunero gaizkilleekin erabilli oi zan erailketa izugarria baizik. Bestalde, kristau asko, gauzez Neron'en lorategiko illunbea argitzeko bizirik erreak izan zirala ere badiosku. Ba, ainzuzen gurutzatuen eriotza isekagarri biurtzeko eman zitzaizela su ura, uste izan du Griffé edestilariak:

"S en a etb ainsi, il *ne* faut pas s 'tonner que les fouilles rth..entes, qui ont permis de dégager la tombe de l'apÔtre n'aient

donne que des resultats decevants en ce que concerne les reliques. Si le corps de l'apôtre, apres avoir ete crucifie a servi de torche, les chretiens desireux d'ensavelir ses restes n'ont recueilli que des cendres ou au mieux des ossements plus ou moins carbonises ou même calcines qui pouvaient mal resister a l'effritement".

Euskeraz: "Ori gertatu ba'zan, ez da arritzekoa, apostoluaren illobia agertu diguten azterketa egin-berriek, aren gorpuzkiei-buruz ain emaitza urrikoak gertatu izatea. Apostoluaren gorputza, gurutzatua izan ondorean zuzi piztua lez erabillia izan ba'zan, aren kondarrak jasotzerakoan kristauek ezin izan bait zuten, erraultsa eta kiskalketari nolabait eutsi aal izan zioten ikatz edo galtzin biurtutako ezurño batzuk besterik jaso".

Beti bere Batikan-Mendiko illobi artan egon ote dira Kepa Donearen ezurrak? Baleike noizbait, zigorketa-aldi gogor batean, Erromati'k at Donesebastian'en katakunbara eramanak izatea, atzera berriz Batikano'ra itzuliak izateko, baiñan ez da gauza ziurra.

* * *

KOSTANTINO ELIZAREN ZAINDARI NAGUSIA. Kostantino¹ k Eliza, Laterri-barrungo batasuna sendotzeko erabilli zuala esaten dutenak badira.

Baleike. Inperatore guztiek erabilli zuten erlijioa Laterriaren batasuna ziurtzeko. "Laterri bat, erlijio bat", izan zan inperatore jentillen gogapen nagusia. Ezpairik gabe uste izan zuten Erroma'ko erlijio zaarraren sendotasuna makaltzen ba'zan, aulduko zala Erroma'ko Laterriaren indarra.

Laterriaren sendotasuna zeukaten buruan kristautasuna odolabidez ezereztu nai izan zuten inperatoreek, Domiziano ta Trajano beraiengandik asita. Laterriaren batasuna bizkortzearen atzetik zebillen Aureliano, III mendean "Eguzkiaren Gurketa" inperio-lur osoko erlijio nagusia egin nai izan zuanean. Orixe bera billatzen zuan Diokleziano'k Erroma'ko Elizaren aurka zigorketarik

gogorrena piztu zuanean: jainko zarren erlijioa sendotuz, Laterria sendotu nai zuan.

Ori bera, Kostantino'k, kristautasunaz baliatuz egin nai izan omen zuan. Egia, oraindik gutxiengo bat zala kristautasuna inperioaren altzoan, baiña kristauak asko edo gutxi izateari arreta aundirik emateke, oartu omen zan Kostantino kristautasunak bere baitan zuan bizkortasun arrigarriaz, eta Eliza babestuz eta indartuz kristautasunaren bizkortasun ori erabilli nai omen zuan aro arriskutsu artan inperioa zuzpertzeko.

Baleike. Kostantino'k, ikusi zuan. Nikomedi'n bait zegoan orduan Kristauek Diokleziano'ren zigorketakoa erakutsi zuten jardunkera miresgarria. Ta ikusi zuan, alderantziz barrungo kemen oro galdu zuala Erroma'ko erlijio zaarrak, sekulan egiazko kemenik izan ba'zuan. Kostantino ez zan iñozua, eta ez da arritzekoa ortaz jabetu izatea. Jabetu bait zan Kostantino aiñakoa ez zan Galerio bera.

Kostantino'k gaiñera, bazuan inperatore lez Laterriaren sendotasunaz arduratzeko bearkizuna.

Baiñan oker dabil orregaitik bakarrik kristautasunari lagundu ziola uste dezakeana.

Oker dabil baita, Kostantino'ren arrazoirik nagusiena ori izan zala iruditzen zaiona ere. Kostantino'k beti uste izan zuan bere garaitza guztiak Kristauen Jainkoari zor zizkiola, eta benetan mirestu ta maite izan zuan Jainko aren Eliza. Gogo guztiz nai izan zion lagundu.

Laister ikusi zuan nondik asi. Kristo'ren Eliza zatitzen zitalki ari bait zan donatikeria.

Laugarren mendea ereji aundien mendea izan zan: bereiziki donatikeriaren eta arianikeriaren mendea. Ta laister, arianikeriaren atzetik, nestorikeria azalduko zaigu. Eta monofisikeria gero. Elizak ez bait du mundu ontan iñoiz atsedeen-arorik izango. Gurutz-bidea da bâ, aintzazko azken-eguna arte, Elizak ibilli bear duan bidea. Ta, gurutz-bidean, jakiña, ez da atsedeen-une geiegirik izaten.

Baiñan era berean, sinispide zuzenaren babeslerik aundienen mendea izan zitzaigun IV mende ura: "Patres Ecclesiae" edo "Eliz-Asabarik" aundienen mendea: Eliz-Asaben "urrezko aroa". Banan-banan emango dugu Asaba aien berri, bakoitzarentzat toki egokia gertatzen zaigunean.

Ona emen orain, alboko orrian, aro zar artako Asaba Done guztien zerrenda. Orri ortan, goi-goian, ortzadun lerroaren IV mendearen urteak agiri dira, berrogeitamarka. Ta asaba bakoitzaren gainean berriz, jaiotz-urtea aurrena, bakoitza gotzai-sagaratua izan zan urtea gero gotzaihora iritxi ziran aientzat Eta, azkenean, eriotz-urtea.

Naiz frantzeraz jakin ez, errez ulertuko dituzu noski Asaba Done oien izenak: Alexandri'ko Atanasio ejitoarra; gaurko Turki'ren erdian zegoan Kapadozi'ko Basilio; an, inguru artan, zeuden Naziantze'ko ta Nisa'ko Gregorio biak; orain Beltza esaten zitzaion itxasoaren ego-ertzean eta Kapadozi'ren iparrean aurkitzen zan eta Ponto zeritzan probintziko Ebagrio; Jon Krisostomo Kostantinopia'ko Patriarka; Jon Kasiano Martsella'ko lekaidea; Ipona'ko Augustin afrikatarra; Jeronimo biblizthari erromatarra; Milan'go Ambrosio; Frantzi'ko Turena'n Tours uriko Martin; Erroma'ko Damaso Aitasantua; eta Poitiers'ko Ilario frantziarra.

Orria, Rogier, Aubert eta Knowles irakasleek zuzendutako "Nouvelle Histoire de l'Eglise" liburu oparotik artua dut. "L'age d'or del Peres de l'Eglise" esaten dio liburu ortan Henri Marrou'k 295'etik 435'erako epe luze ari: "Eliz-Asaben urrezko Aroa".

Alare, garaia artako Asaba aundienen zerrenda izan nai duan ortan Asaba Done aundi bat falta da: Edesa'ko Efren siritarra, Sortalde urruneko lurraldeetan alako eraginmen ederra izan zuan irakaslea.

295 _____ 373

Athanase d'Alexandrie

V. 3²⁹ _____ 370-379

Basile de CO'saree

33⁰ _____ 372 - **390**

Gre"goire de **Na7ia n 7e**

v. 332 _____ 371 _____ 394

Gthgoire de Nysse

345 _____ 399

Evagre le Pontique

V. 344/354

Jean ChrysoŠtomie^{98-4°7}

V. 350 _____ 39i _____ 4z8

Th6^pdore de Mopsueste

v. 365 _____ v. 435

jean Cassien

³⁵⁴ _____ 395 _____ 430

Augustin d'Hippone

F. 347 _____ 419

Jrclime

F. 339 _____ 374 - **397**

Ambroise de Milan

316 _____ 37⁰ _____ 397

Martin de Tours

V. 305 _____ 366 - **384**

Darrilse de Rome

V. 3 15 _____ V. 350 - **367**

Hilaire de Poitiers

(On a indique la date d'accession a repiseopat.)

MARTIRIAK APOLOGILARIEN IKUSPEGITIK.

Kostantino'k elizari pakea eman zionean amaitu zan martiri edo ziñopen aroa. Eraspen aundiz gorde izan du beti kristaudiak erromateko ziñopa done aien oroitza. Elizaren lenen apologiariek berriz, atsegin aundiz erabilli oi zuten antziña artan eta erabilli dute ondorengoek arrezkero martiri aien kementasuna, Kristo'k bere Eliza nola zaintzen duan irakasteko.

Apologia, ez da edestiaren arloko gaia, baiña pozez irakurriko dituzte noski nere adiñeko apaizek, irakasle izan genduan Itxaurra-ga'tar Plazido'ren onako lerro egoki auek. Bere "Lecciones de ApoloOtica"tik artuak dira:

"El martiria cristiano prueba la asistencia divina de que Boza el Cristianismo: La razdn es que Ia herdica constancia de los mftlires cristianos no tiene su explicaciÓN en las fuerzas de Ia naturaleza humana, sino en la **fuerza divina** que le asiste. (Azpimarraketa, berea). Asf lo confiesan:

"a) Los mismos mthlires, que en Ia Eucaristfa vefan el secreto de su fuerza: "4C6mo vamos a excitar al combate y a derramar su sangre, si antes no protegemos a los cristianos con la fuerza del Cuerpo y de la Sangre de Cristo?" (San Cipriano, ep. 57 ad Cornel., 2).

"b) Los espectadores cristianos. "Cristo este en el màrtir", exclama Tertuliano.

"c) Los paganos, muchos de los cuales se convertfan movidos por el valor de los cristianos. "Muchos son seducidos por *eI dnimo*

y la fe de los cristianos..." "Los ladrones y hombres robustos no pueden sufrir semejantes laceraciones; gritan y lloran; son vencidos por el dolor, porque les falta la inspirada paciencia. Pero los nuestros, por no decir nada de los varones, las niñas y mujercitas, callando, vencen a sus verdugos, y ni el fuego puede arrancarles un grito". (Lactancio, Just. **5**, 13).

"d) Los verdugos: Santa Perpetua, la martir africana dice: Prudencio, carcelero de Cartago "Ilega a querernos mucho, comprende que hay en nosotros una gran fuerza que viene de Dios".

"Aparte de estos tan vallosos testimonios, la misma razón dice que la fuerza moral de los martires es sobrenatural. La sola imaginación de los tormentos ya descritos espanta a la naturaleza humana ¿Cómo pretender, pues, que la fortaleza de los martires sea natural, y que exista naturalmente en millares y millares de personas de toda edad, sexo y condición? No se olvide además que si los suplicios eran horribles, eran, al mismo tiempo, **voluntarios, puesto que, para evitarlo, hubiera sido bastante una palabra de apostasfa**; mas aun: la disyuntiva para el martir era: o los suplicios o las delicias que se le prometían como anejas a su apostasfa.

"Finalmente, recuérdese que la pasión de los martires iba acompañada de tales y tan sublimes virtudes, que hacían del martirio el acto virtuoso por excelencia, y después de confesar todo esto, fuerza será convenir en que el martirio cristiano, tal como lo contemplamos en la historia, es **un fenomeno sobrenatural y un milagro de orden moral**". (Azpimarraketak, bereak).

ELIZAREN ZABALKUNTZA ETA APOLOGILARIAK.

Beste zerbait, arras miragarria eta apologilari guztiei txit gogokoa izan zaiena ere eskeintzen digu Elizaren lenen mende aietako edestiak: Eliz orren zabalkunde azkar, geldieziña, lureko baztar guztietara, eta gizarteko mailla guztietara, ain era ulerkaitzean iritxi zana.

Au da apologilarien arrazoiketaren bidea:

1 °: Egia da Josu'k irakatsitako dotriña, egitasunaz, edertasunaz eta egokitasunaz, gizakumeen almen ororen gaindikoa eta zearo zerutiarra dala. Baiñan Josu'ren irakaskizun miregarri orrek baditu gizakumeen arrokeriarentzat anitz gogorrak diran atalak. Adibidez:

- Adimenak ulertu ez dezazkean izkutukiak, misterioak: Irutasun Donea; Neskuts baten erditzea; Jainkoa gizon, eta ainzuzen judul, egin izatea; Jainkoa gurutz batean 1I izatea; Eukaristia, ots, Kristo "ogi" puska batean edo ontzi bateko "ardo-ttantom" batzuetan bizirik dagoala sinistu bearra...

- Pekatukerira okertutako gizakumeentzat, arras gogorrak diran Agindu zorrotzak: adibidez, pentsamentu okerrak ere galerazten dituan gorputz-animeko garbitasuna edo kastitatea.. , etsairik gogorrenak eta gaizkilleenak barkatzera ez ezē maitatzera ere beartzen gaitun karitatea...

- Mundu ontako arauekin aurrez-aurre tanka egiten duten aolkuak: "Zorionekoak txiroak" adibidez. Eta beste zazpi "Zorion" aiek danak".

Garia ereiteko, lur egokia bear da. Arkaitzean ez daiteke deus erein. Ez bait da jaioko! Nolakoa zan Josu'ren aziak aurki zezakean lurra?

Ikusi genduan, bere garaiean eta bere tokian, nolakoa zan, gaiztoz eta mundu zabalean aro artako giza-giroa.

Ba giro makur artan, lengo siniskerak eta lengo bizierak utzita, aldakuntza orokor mingarri bat eskatzera, are geiago agintzera!, zetorkien gizon-emakumeei Josu'ren erlijio berria.

"Dicho se está que semejante revolución era humanamente imposible y que la nueva religión, apenas nacida, estaba condenada al fracaso y a una muerte violenta" (Intxaurreaga).

Ikusi dugu nolako errabiz, jeiki ziran kristautasunaren aurka juduek eta erromatarrek. Izan ere, ez bait zezakean erlijio berriak aiengandik beste gauzarik itxaron. Aurre-irakatsi zien ori Josu'k berak ikasleei: "Ni jazarri naute; jazartuak izango zerate zuek ere".

Izugarrria izan zan jazarketa. Baiñan ez zan kristautasunik ezabatu. Alderantziz, garaille irten zan jazarketa ororen gaindik.

2'n: Garaille irten zan. Baiñan ori, Elizako buruzagiaren merezimenduz ote? Ez. Elizaren Buruzagi Nagusia, Kepa, arrantzale ezjakin bat zan, zearo kulturik gabea; eta ura bezain ezjakiñak ziran beste amaika Apostoluak.

Mundu ontan zerbait garaille irteerazteko iru dira bearrezko gauzak: dirua, izkilluak, jakintza.

- Elizaren buruzagiak txanponik ez zuten, aberastasunaren etsaiak ziran, eta txirotasuna aolkatzen zuten.

Izkillu bat erabili zuan Kepa'k Jetsemani'ko baratzen, baiñan Josu'k ezpatarik ez erabiltzeko agindu zion. Apostoluek eta aiek iratxitako Elizak ez zuan izkillurik erabili. Elizak ez zuan odolik isuri, bere martiriena izan ezik. Izkillu guztiak, eta munduan izan diran izkillularirik yaoenak, edo yaoenetakoak beintzat, Erroma'ren lejiolariak, aurka izan zituan mundu zabalean.

- Elizak ez zuan mundu ontako jakintzarik erabili. Ez zezakean erabili ere, jakintzarik gabeak bait ziran bere buruzagiak eta bere elizkideak,

Eta, ori..., jakintzari, filosofiaril eta elertiari, iñoiz baiño garrantzi geiago ematen zitzaien aroan.

3'n: Alare, garaille zabaldu zan Eliza mundu guztira. Garaille, eta azkar, eta arin zabaldu gaiñera:

"Kristau-jendea bera utzi zuan arriturik zabalkunde aren arintasun orrek" diosku Encyclopaedia Britannica"k, bere tokian ikusi genduan lez.

Aipu aundiko Iztegi orrek dionaren lekuko aurkeztu genezazke guk onako xeetasun auek:

- "Badakuszu, diotsa arritasunez beterik "agureen" batzarrak Paul'i Jerusalem'en zenbat millaka kristau dagoan juduen artean" (Bid. Egiñak).

- Paul Doneak berak kolosatarrei, "zuen sinispidea mundu osoan ari da ezagutua izaten", diotse.

Mendearen azkenaldera Erromatarrentzako Epistolak, "Ebangelioko itza mundu osoan ari da azitzen eta zitu-ematen" oiu dagi

Ori guztia 1 mendean bertan.

II'ean, "sinisleen kopuruaren auditze miresgarriaz" mintzatzen zaizkigu arriturik Donejustino ta Doneireneo. Ireneo'k, bere Eliz-Zerrendan Germani'ko Eliza ere aipatzen du, Erroma'ren inperio-Iurreko Elizetaz gaiñera. Guk badakigu, ordurako sendoa zala Osroene'ko Eliza, eta kristautasuna Pertsira eta Arnenira bizkor sartzen asia zala.

- Mende orren asieran, ezaguna dugu Bitini'ko Jaurle Plinio Gazteak, arriturik onek ere, eta (arriturik, Trajano inperatoreari zuzendu zion eskutitza: "El contagio de la superstición cristiana no se limita ya a las ciudades, sino que ha invadido los pueblos y los campos y se ha apoderado de personas de todas las edades, sexos y condiciones. Nuestros templos están casi completamente desiertos y despreciadas las ceremonias" (Intxaurraga'k gazteleratua)..

- II mendean oraindik, arro oiukatu zuan Tertuliano'k:

"Atzokoak gera, baiñan alare, gaur, zuen uriak, zuen ugarteak eta zuen landak berberak betetzean ditugu; Zuen inperatorearen

Jauregian gaude, eta Erroma'ko "Foro"an, eta Senatuan. Sasijainkoen jauretxeak bakarrik laga dizkizuegu zuentzat. Inperio-lurretik at erbesteratzen ba'gaituzute, utsik utziko duzute inperio-lurra. Partziarren, meditarren, eta elamitarren artean; Mesopotami, Armeni, Friji, Kapadozi, Ponto, Asi Txiki, Ejito ta Zirene'ko biztanieen artean, getulitarren, mauritarren, eta Españi'ko, Galieta-ko eta Germani'ko biztanieen leiñu ezberdiñetako jendeen artean..., baztar guztietan! aurkitzen ditugu Kristo'ren jarraileak".

Tertuliano, lege-gizona, erretorikalari txit yayoa zan, abogadu lez "iperbole" edo izkera anpatua trebeki erabiltzera jarria. Alare, elertizko larru orren azpian, egia da Erroma'ko agintari, jakintsu, eta aundikiei adierazi nai ziena: era miresgarrian, agintari, jakintsu eta aundiki aiek uste izan zezaketen guztiaren aurka, kristautasuna, jazarketa izugarri guztiak garaituz, mundu guztira zabaldurik zegoala.

Mendeak geroago, XIX'ean, ona zer idatziko digun Renan sinisgabeak arritasun ark berak kutsatuta:

"Oso-osoan eta eun da berrogei ta amar urteen epean bete zan Josu'ren aurre-iragarketa: epe motx ortan zugaitz biurturik, mundua estaltzen asia bait zan parabolako ziape-alea".

- III mendean, ona zer jaurtitzen dion Origenes aundiak, kristautasunaren aurka idatzi zuan Zelso filosofilariari: "Uste al duzu zuk, urte labur gutxi auen epean Josu'ren dotriñak orrelako garaitza arrigarria lortu zezekela Jainkoaren laguntzarik gabe? Eta Josu 'k bere dotrin ortara ainbeste greziar eta barbaritar ainbeste jakintsu eta ainbeste ezjakintsu erakarri zezazkela? Grezi osoan, eta barbaritarren Ieiñurik geienetan sartuta, zenbatu ezin aiña anirna eraman bait du Elizak Jainkoaren gurketara".

Tertuliano'z esan duguna bera esan beariko dugu Origenes'i-buruz. Au ere elertilari gurenetakoa zala, baiñan orduango elertilari guztiak bezala, erretorikako izkera anpatuaren zale. Baiñan, alatagutziz, egia dala bere iperbole dizdiratsu orren azpitik eman nai digun mezua: Bere egun aietako inperio-lurretik at ere, anitz ezaguna zala kristautasuna.

IV mendean, mende artako idazlerik txukunena artuko dugu lekukotzat: Jeronimo Donea. Ona zer esaten digun: "Jentiltasuna jenderik gabe gelditu da urietan: Nazioetako sasijainkoek ez dute ontz eta beste gautxoriena beste laguntzarik. Gudariak, ikurtzat daramate beren ikurriñetan gurutzea, eta, orrela, len eriotzara zigortutakoen eriotztegi zana, gurutzea, gaur erregeen buruko koroiak edergarria da".

Ordurako, Kostantino'k, emana zion Elizari pakea. Garaille zan Eliza.

Neron'ek Kepa Aitasantua erail zuanetik Kostantino'k Kepa aren Elizari pakea eman zion egunera arte, III menderen epea besterik ez zegoan. Era guztiko zigorketaz eta jazarkeriz betatako epe laburra. Ba, odol gorritzko epe labur ortan lortu zuan alako garaitza orokorra Kepa arrantzale gixagaixo aren Elizak. Dirurik, indarkeririk, gorrotorik, munduko jakintasunaren araura egindako propagandarik erabili gabe!

"Uste al duzu Jainkoaren laguntza bereizirik gabe... "?, galde zegoen Origenes'ek Zelso'ri.

Ori bera galdetzen diete gaurko apologiariek ere, zabalkunde arrigarri ari arrigarritasun oro kendu nai dioten agnostikoei.

Bai. Baziran garai artan zabalkunde baterako baldintza egokiak, eta baliatu ziran baldintza oietaz kristauak. Baiñan era berean baliatu ziran beste erlijioak ere, eta, nola ez, era berean baliatu ziran kristautasunaren aurka Zelso bezalako filosofilari jentillak eta Neron'en antzeko inperatore zigortzaille anker kupidagabeak. Alatagutziz, garaille irten zan kristautasuna, eta kristautasuna bakarrik irten zan garaille.

Egia, diasporak, ots juduek mundu guztira zabaldu egoteak asko lagundu ziela Apostoluei, eta kristau guztiei, beren dotriña zabaltzeko. Baiña egia baitare, era berean eta berdinduz lagundu ziela Kaifas'en lagunei juduen artean kristautasunaren aurkako gorrotoa zabaltzeko. Ala jeiki ziran laister kristauen aurka mundu guztiko sinagogak. "Zigorketen iturri" zirala, esan zuan Tertuliano'k.

Egia, ainbeste zikinkeriren artean nazkatuta, biziera garbiago baten zaí, jende txukuna ere bazala Errorna'ren lur zabaletan. Baiñan ez sinistuerazi nai dan aiña, eta bereiziki, kulturaz zerbait jantzitako gizakumeen artean. Kristautasuna ordea ez zan goiko eta goixamarreko mailla oietatik beera zabaldu. Bee-beetik gora baizik: jopu, langille txiro, ta erriko jende landerren maillatik gora. Ez daiteke esan Kristautasuna leenditiko txukuntasun mundutar batean txertatutu zala. Alderantzuiz, Kristautasunak, sortu egin zuan txukuntasuna munduan.

Egia, erromatarrek bere inperiolurra-zear egin zituzten bidezabal eder ugariak laguntza aundia izan zirala kristautasunaren zabalkunderako. Baiñan era berean izan ziran laguntza aundia kristautasunaren aurkako gorrotoaren zabalkunderako ere.

Egia, mundu osoa Inperatore baten mendean Laterri bakar bat osotuz egoteaz ederki baliotu zala Eliza bere dotriñaren ereintzarako. Baiñan ez ziran ortaz gaizki baliatu Inperatoreak eta inperatoreen ertzaintza, Eliza mundu guztian jazartzeko eta kristau gaixoak zigortzeko.

Alatagutziz, indarkeririk beñere erabiltzeke, baretasun osoan, eta bere etsaiak maitatuz, garaille irten zan Eliza. Ederki D. Plazido'k:

"El programa de Jesus es sublime. Sin embargo, si se considera la **doctrina** que quiere propagar, y el **medio ambiente** en el que la quiere difundir, y los **instrumentos que** piensa utilizar, entonces la empresa, que Jesus encomienda a sus apóstoles, de bautizar a **todas** las gentes en la nueva religión, es, a todas luces, **humanamente imposible**". Alare, garaille irten zan Eliza.

Bir-artu ditzagun Origenes'en itzak: "Uste al duzu, ori, **Jainkoaren laguntzarik gabe**, egiña izan zala...?"

ITUN BERRIKO "KANON" EDO IDAZTI DONEEN ZERREN DAREN OSOKUNTZA

Ikus dezagun nola izan zan burutua Itun Berriko Kanon edo Liburu Sagaratuen Zerrenda.

Itun Zarreko liburuak oso-osoan artu zituan Elizak juduengandik, Jainkoak goi-argituak lez, ortan Josukristo ber-beraren jardunkera jarraituz.

"Eskriturak", ots, "Idaztlak", edo, MAIZ ASKI bakar-eran, "Eskritura", "Idaztia" esaten zieten kristauak Itun Zarreko Liburu aiei. Idazti aiek Jainkoaren Itza ziran, Jainkoaren goi-argiz igurtzita idatziak izan ziralako.

Laister, "Idazti" aiekin kidatuko dituzte kristauak apostoluegandik edo apostoluen inguruko kristauengandik jasoko dituzten idazkiak. Eta Elizak, ontzat artuko du bere altzoko kristauen jardunkera ori, eta berak ere "Scriptura" edo "Idazti" lez artuko ditu idazki aiek, eta Itun Zarreko "Scriptura" rekin batera erabiliko ditu bere liturgian.

Orrela osotu zuan Biblia, Itun Zarreko Liburuei Itun Berrikoak erantsiz.

Ori, aurreneko lau Ienen mendeetan poliki-poliki egin zuan lana dugu.

Ikusi dezagun nola. Baiñan, aurretik, ikusi dezagun zer izan zan Elizak eginkizun ortarako erabili zuan "kriterio" edo "ezagugainua".

Zer eskatzen zion Elizak idazti bati, idazti ura Jainkoak goi-argitua lez onezagutzeko: Apostolutartza. Apostolu batek, edo apostoluen giroko eta inguruko batek idatzia izatea.

Apostolutartza beraz, baiña itz ori zentzu zabalean artuz. Donibane ebangelariaren ikasleekin bukatu zan apostoluen aroa: II mendeko lenen erdian. Orrela, goi-argituztat artu zituan Elizak Paul Apostoluak berak idatzitako Epistolekiz gaiñera, Paul'en ikasleek idatzitakoak, eta, era berean, Kepa'ren, Jon'en eta beste apostoluen ikasleek idatzitakoak ere.

Apostolutza zabal ori izan zan beraz Elizak Itun Berriko Liburuak onezagutzeko erabilli zuan ezagugaillua. Kristauek gaiñera bazekiten, ezagugaillu ori zintzo erabiltzeko, Elizak bazuala Kristo'k agindu zion utsezintasuna.

Ikus dezagun orain nola joan zan Eliza bere Itun Berriko "Skriptura" edo "Idaztien" zerrenda burutzen.

Itun berriko liburuak ez ziran Eliz guztietan guztiak batera onartuak izan. Arrazoa? Idazti aiek Eliz bati, edo Eliz-talde bati idatzia izatea. Ala, adibidez, Paul Doneak korintotarrei edo galazitarrei idatzi zizkien Epistolak. Arrazoizkoa da beraz, Epistola oiek aurrena Korinto'ko Elizan eta Galazi'ko Elizetan onartuak izatea. Eta, gero, Eliz oietatik inguruko Elizetara zabaldu izatea.

II mendearen asieran idatzi zan Kepa'ren II Epistola. Egilleak, Paul Donearen Epistolak aipatzen ditu. Eta Epistola oiek "Skriptura"rekin kidatzen ditu. Ori egitean, Jainkoaren goi-argiz idatzia izan zirala aitortzen digu. Entzun, Kerexeta - Zugasti itzultzaileen euskeran:

"Sinista ezazute *Jaunaren* eramanpena gure onerako dala. Orixe da, gure anai maite Paulo'k ere, eman zayon jakinduriz, idatzi zizutena. Baita bere eskutiz guztietan gai oni buruz azaltzen duana ere. Badira eskutiz oietan gauza ulergaitz batzuk; eta gizon ezjakin aldakorrak beste zenbait Idazti (Santu) bezala, beren buruen kalterako artzen dituzte. "

Ez dakigu zenbat "Paul'en idazti" ezagutzen zituan Kepa'ren II Epistolaren egille ark. Baiñan benetan garrantzitsu dana, idazki aiek

"beste Escritura" edo Idazkiekin kidatzen dituala jakitea da. Ots, Itun Zarreko liburuak bezala, Jainkoaren goi-argiz idatziak zirala, ziur sinisten zuala,

Esan dugu, Kristauek eta juduek "Scriptura" , "Scripturae", "Idaztia", "Idaztiak", Jainkoak bere goi-argiz eraginda idatzierazitako liburuei esaten zietela.

Ederki Arroniz'ek: "Ya el autor de la II Pedro, a principios de s. 11 alude a una colección de cartas paulinas. No podemos precisar cuantas o cuMes eran las cartas que componfan esa colección. Lo que nos interesa subrayar es que el autor las equipara a las "restantes Escrituras" (II Pedro 3, 16), es decir, al Antiguo Testamento, y, por consiguiente, las considera inspiradas y canónicas".

Urte batzuk geroxeago, 11 mendearen erdialdera, Justino Donea bera da Erroma'tik Itun Berriko liburuetaz mintzatzen zaiguna. Eukaristi batzarretan Itun Zarreko Profetekin batera Ebangelioen zatiak ere irakurtzen zirala, diosku bere "Apologia"n (I, 37).

Orrek, 11 mendearen erdirako, Ebangelioak Bibliaren zatitzat Erroma'ko Elizak arturik zeuzkala, adierazten digu. Oro, II mende orren asieran il zala Jon ebangelaria.

Justino Donearen garaiekoa izan zan Martzion ereje ezaguna. Egin zuan onek ere Itun Berriko Idazti Sagaratuen zerrenda bat. Baiñan zerrenda ortan bere aburua babesteko ongi zetorzkion Idaztiak bakarrik sartuz. Lau Ebangelioetatik soilki Luka'rena artu zuan ontzat. Eta Paul Donearen 14 Epistoletatik 10 besterik ez. 3 "Pastoral" edo "Artzaintzakoak" eta Ebertarrentzakoak kendu egin bait zituan.

Martzion'en zikinker, orrek eta orduan gnosiker, eta montanikeriak eraginda ugari sortu ziran apokrifo edo sasiliburuek beartu zuten Eliza bere Liburu goi-argituen zerrenda egiten leiatzera.

AIa, guregana iritxitako Kanon edo Zerrendarik zarrena, II mendearen azken aldekoa da. "Zati Muratoritarra" esan oi zaio; zati bat dalako, eta Muratori'k 1 .740'eanean argira emana izan zalako. Muratori onek, Milan'go "Ambrosiar-Liburutegian" aurkitu zuan.

Seguruaski eleneraz idatzitako idazki baten lateratze baldar bat dan Zati ortan Itun Berriko Idazti guztiak agertzen zaizkigu, Ebertarrentzako Epistola, Jakoba Donearena, Kepa Donearen biak eta Jon Donearen III izan ezik.

Kepa'ren Lenengo Epistola ez aipatzea, itzultzaileak uste gabe egindako utsune bat izan zala dirudi, ordurako Doneireneo'k Tertuliano'k eta Alexandri'ko Klemente'k ontzat arturik bait zeukaten Epistola ori.

"Jakintza" liburua Itun Berrikoen artean ematea, itzultzaile aren okerkeri gaitza, "craso error" izan zan (Id), Idazti ori, Itun Berrikoa ez baiña Itun Zarrekoa bait da.

Apokrifo bat ere sartzen digu Itun Berriko liburuen artean: Kepa'ren Apokalipsia" ain zuzen, baiñan esaten du liburu ori ez dutela askok Jainkoak goi-argitutzat artzen.

Baiñan apokrifo ori onartu bazuan ere, Zerrendatik kanpo utzi zituan gnosizaleen eta martziondarren idazti apokrifo eretikoia oro.

Ermas'en "Artzaia" zergaitik ez zuan Zerrendan sartu adierazteko idatzi zituan lerroek, liburu ori Jainkoak goi-argituen artean sartzen zutenak bazirala, adierazten digute. Ez gaiñera nolanaikoak! "Hermas eut un grand succs dans l'Eglise ancienne. Clément d'Alexandrie, Tertulien dans sa priode catholique, le citent comme "criture". Origine n'est pas loin de le croire inspiré" (Catholicisme). "Arrakasta aundia lortu zuan Ermas'en liburuak antziñako Eliza-baitan. "Eskritura" edo "Idazti" bezala aipatzen dute Ireneo'k, Alexandri'ko Klemente'k eta, katoliko izan zan bitartean, Tetuliano'k. Origenes bera, ez zan liburu ura Jainkoak goi-argitutzat eukitzetik urruti ibilli.

III mendearen erdialdera, onako Idazti auek kristaudi osoan onartuak dirala diosku Origenes'ek: Lau Ebangelioak, Paul Donearen 13 Epistola (Ebertarrei idatzitakoa ez du aipatzen), Bidalien Egiñak, Kepa'ren Aurreneko Epistola, Jon'en Aurrenekoa, eta Apokalipsia.

Apokalipsiari-buruz Sortaldeko Elizan sortutako eztabaidak, Origenes il ondorengoak dira. Alexandri'ko Dionisio Origenes'en ikasleak Jon Ebangelariaren liburu ari egindako kritika edo epaiketarik sortuak.

IV mendearen asieran, Eusebio edestilaria da, Itun Berriko Idaztien Zerrendaz mintzatzen zaiguna.

Itzal aundiko edestilari onek, Jakoba Donearen Epistola, Juda'rena, Kepa'ren Bigarrena, Donibane'ren Bigarrena eta Irugarrena ta Apokalipsia onartu ez onartu pizturik zeuden eztabaiden berri eman ondorean, batzuek zalantzan zeuzkaten baiña berak "ez goi-arnasez igurtziak" uste zituan beste idazti batzuk aipatzen dizkigu: Paul'en Egiñak, Ermas'en Artzaia, Kepa'ren Apokalipsia, Bernabe'ren Epistola, eta "Didaje"a.

Ona berriz Jon Donearen Apokalipsiaz esaten diguna: Batzuentzat, bete-betean dala idazti ori Itun Berrikoetako bat. Beste batzuek ordea, ori, zalantzan ipintzen dutela. Esan dugu Dionisio alexandritarra izan zitzaigula Apokalipsiari-buruzko zalantza oiek sortarazi zituana.

Ez zuan Ebertarrentzako Epistolak ere Sarkaldeko Elizan arrera goxoegirik izan. Sortaldeko Elizan bai, oztoporik gabe izan zan onartua. Sarkaldekoak ordea, ez zuan Idazti Doneen Zerrendan IV mende artako bigarren erdira arte erabat sartu.

Alderantziz, Jon ebangelariaren Apokalipsiak ez zuan Sarkaldean eragozpenik aurkitu. Bai ordea Sortaldean, Eusebio'k jakiñarazi digunez, eta VI mendera arte ez zuan Sortaldeko Elizaren altzoan onarpenik lortu. Idazti orri-buruz, orrenbesterañoko kezka zergaitik? Milenaristek, gero ereje askok bezala, -- oroi gure arteko "Jeobaren Lekukoak" liburu ura bere aburu okerren oiñarritzat erabiltzen zutelako.

IV mendea, arianikeriaren mendea izan zan: ori dala-ta, bai Sortaldean bai Sartaldean ainbeste kontzilio eta sinodo egindako mendea. Ugari itzuli ziran laterara Sortaldean eleneraz idatzitako liburuak; laister ezagutuko ditugun Errufino eta Jeronimo'ren bitartez bereiziki. Jende asko joan zan Sarkaldetik Sorkaldera eta

naiz ez ainbeste, baita andik onera etorri ere: ibiltari auen artean dogmari-buruzko eztabaidetan lenen maillako teologilariak: edrbesterasturik Treberis'era etorritako Atanasio bera adibidez, eta Sortaldera joandako Ilario Poitierstarra eta Belen'en bizitu zan Jeronimo aundia.

Ariketa bizkor orrek ederki gertutu zien Elizei giroa, azkenean danek Kanon bat bera ontzat artzera iristeko.

Itun Berriko • liburuen Zerrenda osoa, ez bat geiago ez bat gutxiago bere 27 Idaztiekin, IV mendea agertzen zaigu. 367'an. Atanasio Alexandri'ko gotzaiak, bere elizkideei pazkoz idatzitako gutun batean. Pazko-gutun asko idatzi zizkien ia beti erbesteturik ibilli zan Atanasio'k bere **Au, bere gutun oietan** 39'garrena du.

Ori, 367'garren urtean. Laister, 393'an Zerrenda osoa damaigu Ipona'ko probintzi-kontzilioak ere. Eta, 419'an, Kartago'koak.

Baiña Erroma'ko Elizak, bere irakasketa lez, I Inozentzio Aitasantuaren bitartez V mendearen asieran eman zigun Itun Berriko Idaztien Zerrenda osoa. 405'ean. Urte ortan bi gauza egin zituan I Inozentzio'k, Eksuperio'ri bidali zion eskutitz batean: Itun Berriko Idazti Jainkoak goi-argitutako guztien Zerrenda aldarrikatu; kristaudiaren altzoan ugari zebiltzan apokrifoei Jainkoagandiko argikuntza ukatu.

"La carta de Inocencio I puede considerarse como un testimonio del magisterio romano (Id).

1.444'an egin zan Florentzi'ko Kontzilio Ekumenikoa. Kontzilio orrek, V mendean Eliza katolikoagandik bereizi ziran Eliz Monofisizaleetatik Katolikotasunera itzuli nai zutenentzat idatzitako Erabaki batean, bere egin zuan ofizialki I Inozentzio'ren Zerrenda ura.

Baiña, geroago Lutero'gandiko protestalaritzak Itun Berriko Idazki batzuei uko egin zielako, Trento'ko Kontzilioak, bere laugarren eseraldian, "Tradizio" edo "Eliza baitan agoz-ago gordetako Jainkoagandiko Irakasketa" oiñarriztat artuz, dogma

biurtu zuan I Inozentzio'ren Zerrenda ura, orrela Itun Berriko eta Bibli osoko liburuen arazoa bein betirako argiturik utziz.

1.546'ko Jorraillaren S'an gertatu zan ori.

Gaur egun Bibli osoko liburuak bi sailletan bereizi oi dira: "Protokanonikoak" esaten zaie talde batekoei. "Deuterokanonikoak" beste taldekoei. "Proto" itz elendarrak, "lenen" esan nai du. "Deuterokanonikoak" berriz "bigarren". Ortaz, aisa ulertuko duzu bi itz aiek zer adierazi nai duten: Liburu aietako batzuk, Kanon edo Liburu Sagaratuen Zerrendara "lenen sartutakoak" dirala, eta beste batzuk, eztabaida batzuen ondorean "geroago bigarren aldi batean sartutakoak"

Zatiketa ori 1.566'ean Siena'ko Sisto'k egiña izan zala dirudi.

Ona, Itun Berriko "deuterokanonikoak" zein diran: Donejako-ba'ren Epistola, Donejuda'rena, Kepa'ren II'a, Donibane'ren II eta III Epistolak, Ebertarrentzako Epistola, eta Apokalipsia.

Bibliako liburuen arteko zatiketa orrek Bibliaren edestia ezagutzeko bakarrik balio du, katoliko batentzat berdin bait dira Jainkoaren Goi-Argiz idatziak bi zatietako idazkiak: Protokanonikoak eta Deuterokanonikoak".

KRISTAU-LEKAIDETZAREN SORKUNTZA

Kristautasunaren aurretiko lekaideak: Lekaidetza kristaua III mendearen azkenaldera jaio zitzaigun, Siri'n eta Ejipto'n. Baiñan lekaidetza, asko zarragoa da. Lekaidea, bere bizi guztia osos-osoan, soilki Jainkoari eskeiñi naiez munduko gizarte-bizitzatik urruntzen dan gizakumea da. Eta orrelako gizakumeak Kristo gizon egin aurretik ere izan ziran ordurarte Jainkoaren Erria zan juduerrian, eta baita askoz leenago mundu zabaleko jentillen artean ere.

Ala, ugari izan ziran lekaideak antziñate urrun artan Tibet, Indi, Txina eta, seguruaski baita Ameriketako indiarren artean ere.

Israel'en Elias eta Eliseo bezalako profetek, eta beren ikasleek, basamortuetan izan oi zituzten beren bizi-lekuak. Bakartasun-zale aietako bat izan zan, Kristo'ren aintzindari, Jon Batailaria. Eta bakartasun zale aietako bat bezala bizitu zan iru urtez Kristo'ren apostolurik bikaiñena ere, Paul Donea alegia, bere mixiogintza mundua-zear asi baiño len. AIa egon bait zan ogei ta amar egunez Kristo bera Jordan ibaiaren alboko lekaroan, juduen artean Berri Ona zabaltzen asi-aurretik.

"Anakoreta" itzak "lekarora urrundua" esan nai du. Baiña Iekarotetan bakartasun gorrian bizi ziran anakoreta oietaz gaiñera, baziran Kristo'ren denborako juduen artean lekaidetxeetan bildurik bizi ziran jainkozaleak ere. Ala, Palestina'ko Esenitarrak eta, Fiton jakintsuak Ejipto'n ezagutu eta mirestu zituan "terapeuta" aiek.

Bi era oietako jainko-billatzaileak izan ziran eta badiraute juduerritik at jentillen artean, eta izan ziran eta badiraute, -- Saara'ko "Foucoldarrak" adibidez kristauen artean ere mundu zabalean.

Lekaidetza kristauak ordea ez du beste lekaidetza jentillekin zer ikusirik. Ezta juduenarekin ere; judu eta kristau lekaidetzen artean bai bait da bi mendeko ebakuntza edo "solution de continuité" luze bat (Marrou). Bi mendeko ebakuntza.

Bi mende oietan, Eliz sortu-berriaren kristauak, kristautasunaren zabalkundea zuten beren ekintza guztien elburu, "Berri Ona mundu guztian aldarrikatzeko" Kristo'ren agindua betez. Eta, batez ere Neron'ekin zigor-aroa asi zan ezkerro, martirioa izan zuten santutasun ororen gaillurra.

Zigorketak amaitu ziranean asi zan kristauen artean, martirioaren jarraille bezala lekaidetza sortzen. Batak bestearekin zuan lotura ori adierazteko txit esaera polita erabilli oi zuten VI mendean Irlanda'ko lekaideek, "martirio gorriarengandik" bereizteko, lekaidetzari "martirio zuria" esaten ziotenean.

Martirio "gorri" eta "zuriaren" arteko kidetasun ori zegoan IV mendean ere lekarora iges egiten zuten kristauen oldozkeran. Inperatoreak kristau egin ziralarik, Kristo'ren alde zintzoa izateagaitik odola isurtzerik ez zegoan ezkerro, martirio "gorriak" ez zezakean santutasun-zaleen apeta izaten jarraitu. Bizi guztirako zalako, "gorria" bezain gogorra ta oiñazetsua zan martirio "zurira" jo zuten orduan santutasunaren gaillurrera igo nai zuten kristauak,

Egia da, gizonezko eta emakumezkoen artean, emakumezkoen artean batez ere, Jainkoari birjintasuna eskeiñitako kristauak izan zirala ugari Elizaren altzoan, aurren-aurreneko egunetatik asita. Baiñan birjintza arek, adibidez Ines, Katalin, Ageda eta beste ainbeste ta ainbeste neskatil martiri aien neskustasunak, ez du geroagoko lekaidetzarekin zer ikusirik. Beste "fenomeno" edo "gertari" bat izan zan. Oroi adibidez, naiz neskutsa bai, lekaime beñere izan ez zan Nazaret'eko Miren Neskutsa.

Lekaidetzara bultzatzen zuan anitz kristau zintzotasun-zale garai artako gizarte-giroak ere. Eliza, ots, Kristo'ren artaldea, ganoragabeko "ardi" eta "artzaiez" beterik ikusten zuten kristau zintzotasun-zaleek.

Kostantino'z gero kristau izateak arriskurik ez zualako, eta, batez ere, inperatoreak kristauak izanik, kristautasunak, gizarteko bizitzan mailla-gora igotzeko, edozeini egokitasun ederrak eskeintzen zizkiolako, era guztietako jende enasa sartu zan Elizara. "Ardi" txepel oien sarrerak auldu egin zuan ordurarte ain bizkorra izandako Kristo'ren artaldeko sendotasuna. Eta..., "Artzaietaz" zer esan? Inperatoreen jauregian edo jauregiaren itzalean bizi oi ziran gotzai aiek, edo erejien arazoetan inperatoreen morroi apal ikusi ditugun beste aiek gogora ekartzeko utsa naikoa izango duzu, ainbeste kristau zintzo, nazkaturik, basamortuetara zergaitik joan zan ulertzeko.

Ez ziran Elizaz aztutzen beren otoi luze eta penitentzi gogorretan. Bazekiten, Elizaren aldi larrietan lekaroa utzita bide ona aldarrikatzeko, gaur-egungo mixiolariak bezala, mundu nasira itzultzen. Ala atwera oi zan lekarotik Paul Donea bera Ejito'ko kristauei laguntzeko. Eta, ala, beste aneika bakartasun-zale edestiazear.

* * *

PAUL DONEA TA ANDONI DONEA, "LENEN LEKAI-DEAK".- Lekaidetza kristauaren edesti idatzia, gizon auekin astenda, auek bait dira gure edestilari zaarrek aipatzen dituzten lenen lekaideak.

Ezer gutxi dakigu Paul Doneaz: Ejitotarra zala; oraindik kristautasunaren aurkako zigorketa bizirik zegoala baztertu zala lekarora; an beti bakarrik bizitu zala; 347'aren inguruan, bakartasun artan il zala; eta ezer asko geiagorik ez. A, bai; ugari izan zirala bere bidetik, lekarora joan ziranak. Baiñan auek ere bakarrik bizitu zirala, bakoitza bere bazterrean. Benetan izan ziran

"solitarii" edo "bakartiak", bai Donepaul bera, bai aren biziera eredutzat artuz lekaroetara jo zuten beste lekaide aiek danak. Ez zuten "anaiarte" edo "komunitate" bat eratu.

Paule Bakarti Doneaz dakigun gutxia, aren bizitza "Vita Sancti Pauli" -- idatzi zigun Donejeronimo'ri zor diogu.

Geiago dakigu 250'aren inguruan jaio eta 355 'aren inguruan eun da bost urteko agure il zan Donandoni'z. Bera il da bela, lau-bost urte geroago, idatzi bait zigun aren bizitza xectasun ugariz IV mende artako teologilaririk onenetako batek: Alexandri'ko Atanasio Doneak, alegia.

Izugarrizko eraginmena izan zuan liburu orrek kristaudian, Atanasio oso idazle atsegiña zalarik anitz irakurria izan bait zan Sortaldean ez ez Sarkaldean ere. Berealaxe egin ziran b laterazko itzulpen bi. Piztu zuan liburu orrek Sark alde onmtan ere, makiña bat lekaidetzarako zaletasun.

Donaugustin'en biotzean ere sortu omen zuan zirrara bizkorra manikeria utziz gero Elizarako bidea artzea pentsatzen asia zanean, berak "Aitorpenak" izeneko idaztian dioskunez.

Atanasio'k idatzi zigunez, Ejito'n nekazari txiro batzuen semea izan zitzaigun Donandoni. Naiz diruz txiroak, kristauak ziran benetan Andoni'ren guraso aiek, eta kristautasun zintzoan ezi zuten beren semea. Kulturik ez; ez zioten batere kulturik eman. Doi-doi jakinen zuan idazten eta irakurtzen.

Ala izan ziran kulturaz urriak antziña artako beste lekaide asko eta asko ere. "Face a l'orgueil des intellectuels nouvellement convertis qui transposaient a l'intérieur du christianisme la tradition aristocratique de leur maitres paiens, le monaquisme va réaffirmer, comme le franciscanisme le fera plus tard au XIII **ce primat** des simples qui constitue un des acpects essentiels du message évangélique (Marrou).

Euskeraz:

"Beren maixu jentillen jakintza gurena kristautasunera ekarri zuten jakintsu kristau-biurtu-berri aien arrokeriaren aurrean, IV mendeko lekaidetza, ebangelioak jende landerrari ematen dion

lenentasunaren aitorpena izan zan, gero, XIII frantziskotasuna izanen zan bezala. Landerren xalotasun ori, Berri Onaren zertasun ber-berari dagokion ezaugarrietako bat bait da".

18 urteko mutil gaztea zan Andoni, bein, elizara sartzean, izketan ari zan apaizari Ebangelioko itz auek entzun zizkionean: "Osoki santu izan nai ba'duzu, saldu ezazu duzun guztia, eta ema' iezu dirua txiroei". Ta, lekaidea Ebangelioko aginduak ez eze, aolkuak ere benetan artzen dituan kristaua bait da, zuan gutxia utzi, eta, Ejito'n urrats bat emate utsarekin non nai aurki daitekean lekarora abiatu zan.

Beti bakartasun geiagoren billa, iru aldi ezberdin izan zituan lekaroko bere bizitza luzeak.

Aurrenekoan, bere jaioterritik aski bertan gelditu zan, illobitegi batean, an bizi zan anakoreta baten ikasle. Irakasle oitu bat aurkitzea bakartasun-zale guztien leia izango da mendeak-zear, ziur uste zuten bâ, lekaro gorrian bakartasun osoan bizitzea txit arazo zaila eta nor berak bakarrik era zintzoan ikasi ez zezakeana zala.

Andoni'k bere eziketa "lekaide zar" baten eskuetan ipiñi izateak, gauza bat adierazi nai digu. Andoni bera ez dala, esan oi zaion bezala, "lenengo lekaide kristaua". Bera baiño leenago izan zirala beste batzuk. Baditugu Andoni'ren aurretiko beste lekaide zar aietako batzuen aztarnak, bai noski,-- mintzatu ere, adibidez, oraintxe mintzatu gera Donepaul'ez baiñan Atanasio'k bere liburuarekin eman zion izen aundiagaitik, alde batetik; eta bestetik, Andoni'k berak bere inguruko lekaideen artean lortu zuan eraspen aundiagaitik, berari esan oi zaio "Lenen Lekaide Kristaua".

Ikasle asko bildu zitzaion illobitegi artara, eta asko bait ziran aolku-billa erritik joaten zitzaizkion kristauak, sortalderuntz abiatu zan bakartasun geiagoren egarri, eta Nilo Ibaia eta Itxaso gorriaren arteko bid'erdian aurkitu zuan erromatarrek egindako eta orduan lur-jota zegoan gaztelu zar bateko arri-tartean egin zuan txabolan gelditu zan bizitzen, bakardade osoan.

Antziña artako jentillek ezin izan zuten lekaide kristauen aszetika-erarik ulertu, ez bait zan beraiek ongi ezagutzen zuten

pitagorizaleen eta platontasun-berri-zaleenaren antzekoa. Ala, iseka egin zien bakarti kristauei, len kristaua izan zalako aszetika kristaua ulertzeko ziorik aski bazuan Juliano Fedeukatzaille inperatoreak berak.

Era berean ezin ulertu dute gaur-egunean bertan kristau askok konbentu itxietako lekaide-lekaimeen bizitza, beren kristautasunaren muiña bera ere ez bait dute bear bezala ulertu.

Ontzat artzen dute gizakume ororen lenen eginkizuna Jainkoa billatzea dala, baiñan ori, kristauak, munduari bizkarrik eman gabe egin bear duala diote.

Ez dute ulertu lekaide kristauek mundutik lekarora iges egitean ez dutela mundua beren bizkarren atzean aantzirik uzten. Alderantziz, berekin eramaten dutela lekarora mundua, eta beren otoizketa luzean eta soin zigorketa gogor arrigarrian begien aurrean izaten dutela Kristo'ren aginduz Elizak salbatu-bearra duan mundua.

Soin-zigorketa aipatu dugu. Sinisteziña zaigu, bakartasun-zale aiek, ia lorik ez egiñez, bizitzeko bearrezkoa dan pittña apika janez, eta beren gorputz medarrak zartailluz oiñazetuz egin oi zituzten izugarrikeriak.

Alare, luzaro bizi oi ziran geiegikeri eriogarrietara jausten ez ziranak beintzat, biziera latz ikaragarri artan. 90 urte zituzten il ziranean Arijas'ko Eusebio'k, Onero'ko Maris'ek eta Rosus'ko Erroman'ek; 100 berriz Galta'ko Kepa'k, eta 104 Jakoba Pertsia-rrak.

Bi elburu ardietsi nai zituan bakarti aietako edozeiñek aszetika edo erlijiozko ariketa garratz aren bitartez: Aragiaren griñak menderatuta deabruaren atzaparretatik erabat anima yaretu; Aragia menderatu ta deabrua garaiturik, Jainkoagandiko graziz bakarrik lortu daitekean "kontenplazio" edo "animako begien bidez misterio jainkotiarren ikuste" gozoa.

Aszetika ez bait da kristau-bizitzaren gaillurra. Gaillur ori dan kontenplazio edo ikuste gozora iristeko mailladia baizik. Mailladi latza, baiña bearrezkoa.

Laztasun aien bidez, deabrua erabat uxatzeko gorputza ezi eta gertutzea zan, esan dugun bezala bakarti giar aiek lortu nai zuten beste gauza. Deabrua, gizon aiek, adimenaren begien aurrean zeukaten beti eta baita, maiz aski, gorputzeko begien aurrean ere, Donatanasio'k idatzi zigunez, izugarrizko borrokak izan bait zituan Andoni Doneak deabruarekin.

Izan zuan poz ederrik ere mundu ontan Andoni Doneak. Aundiena, bera bizi zalarik Iekaidetza nola zabaldu zan ikusi al izatea.

Ugaria, oso ugaria izan zan zabalkuntza ori Sortaldean, Ejito'n bertan eta Siri'n bereiziki, baiñan bereala Sarkaldean ere, Atanasio Doneak "Andoni Donearen Bizitza" kontatzko idatzi zuan liburua, esan dugun bezala, eleneraz agertu bezain laister laterara itzuli bait zan.

Orrela, liburu orren bidez eta Erroma'n erbesteraturik egon zanean lekaidetzaren alde egin zituan itzaldien bidez, izan zuan zer ikusi galanta lekaidetzaren zabalkundeanean, bera ere lekaidetzaren ain miresle sendoa eta lekaideen ain adiskide aundia izan zan Atanasio Doneak.

* * *

LEKAIDE-TALDEAK. Lekaide bakartiak beti izan dira Elizaren altzoan; lekaidetzaren asiera berean ordea geienak.

Itxas Gorriaren aldeko lekaro ondartsu eta arritsu legor artan il zitzaigun Andoni Donea. Ez ordea bakartasunean. An ere bildu bait zitzaizkion ikasleak ugari; eta kristau arruntak ere iristen bait ziran araiño beren gorputzeko edo animeko gaitzentzat eremuko gizon santuari laguntz-eska-zale.

Donandoni'ren inguruko lekaide aiek lekaide-taldeak geiago ziran lekaide-alkartea baiño. Lurrak alkartzen zituan, miresten zuten santuari inguru-egiñez bata bestearen alboan egoteak eta maixu baten bearrak, aren aolkuen argiz lagundurik, basamortuaren bakartasun izugarrian okerkeriren batera jausi ez zitezen.

Baiñan Donandoni'ren inguruko talde aiek, naiz maixuaren inguruan bata bestearengandik bertan bizi, ez zuten ezertara beartzen zituan araudirik. Bakarrik bizi ziran. Talde baten barruan baiña bakarrik. Ez zuten bata bestearenganako bearkizunik, obligaziorik. Ezta maixuarenganako ere.

Talde artako lekaide bat, nai bazuan eta nai zuanean joaten zan maixuarengana aolkuren baten billa. Maixuak ere ez zuan lekaide aren edo bere inguruko beste lekaideen gaiñeko aalmenik, autoritaterik. Bere eginkizuna aiei entzutea, aiei ats ematea eta aiei bakardadean nola zintzo bizi erakustea besterik ez zan. Eta, ori, aiek eskatzen ziotenean.

Orrelakoak izan ziran basamortuetan lekaideen lenen bilkurak bai Siri'n bai Ejito'n.

Baiñan laister asi ziran bilkura aiek gero ta sendoagoak biurtzen. Ala sortu zan otoitzean alkarrekin biltzeko oitura: Egunero batzuek. Astero beste batzuk. Eta tarte aundiagoak utziz eta baita oso bakanka ere "ceux qui son juOs dignes et capables d'une anchorBse plus totale", "bakartza osoago baterako duin eta gai zirala etsitako aiek" (Id).

Ejito'ren gerri-aldekoa zan Donandoni, eta an bizitu ere zitzai-gun.

Andik zabaldu zan arin lekaidetza, Ejito'ren egora, Tebas uriaren inguruko Tebaida'raitio, eta iparrera Nilo ibaiaren Delta edo Besarteraiño. Emen ain zuzen, Deltaren sarkaldeko besotik sarkalderuntz zegoan, eta dago, "El Sketis" edo "Esketi"a izeneko lekaroa. An sortu zan orduan, gure egunetaraiño iraun duan Iekaidetegirik ospetsuenetako bat. Orregaitik aipu aundikoa izana zaigu Esketi, Elizaren edestian.

330'ean sortu zuan Makario "Aundiak" Esketi'ko lekaidetegi ura, eta an bizitu zan geroxeago, 399'an iI zan arte, arras gizaseme bitxi bat: Evagrius Ponticus: Ebagriio Pontotarra. (Ponto, erromatarrentzat, gure Itxaso Beltza zan. Eta Ponto esaten zioten itxaso orren egoaldeko probintziari ere).

Ebagrio, "lector" , "irakurle" izan zan Kapadozi'n Zesarea'ko Basilio Donearen Elizan, ots, "Irakurletza" izen duan elizgizonen ordena txikietako bat artutako gizona. Diakono egiñik, Nisa'ko Gregorio'rekin Kostantinopia'ra joanda izlari onaren izena irabazi zuan an.

Idatzi ere idatzi zuan teologiz eta aszetikaz, baiñan, naiz Basilio ta Gregorio bezain irakasle bikaiñen erakustaz baliatua izan, aski baldarra irten zitzaion bere teologia. Origenestar porrokatua izanik, Origenes'en atalik ertzakoiadak artuz eta neurririk gabe anpatuz, "origeneskeria" esan oi zaion erejia sortu, edo beintzat zabaldu, berak egin bait zigun.

Bikaiña da ordeaszetikaren arloan, ain ederki ezagutu aal izan zituan Esketi'ko lekaideetaz idatzi ziguna.

Buruz landutako gizonak oso-oso bakanak izan ziran Ejito'ko, eta beste lurraldeetako basamortularien artean. Gure Ebagrio "Pontiar" au izan zan bakan aietako bat, eta berak bildu zituan sorta eder batean lekaroetako maixu zarrek lekaide-gai gazteei erakusten zizkieten oitura, aolku ta gogo-irakaspenak, orrela basamortuko aszetikaren dotriñari-buruz gorputz bat osotuz.

Asko zabaldu zan-da, era berean izan ziran asko, liburu onek lekaroratutako kristauak.

Baditugu lekaide zarrenen bizitzaz liburu geiago ere. IV mende artan bertan lekaidetegiak ikustatzen izandako idazleek idatziak. Ala adibidez "Lekaideen Edestia", bere izenik eman ez zigun batek laugarren mende aren azkenean idatzita, bereala Akilei&ko Rufino'k laterara itzuli zuana; mendearen azkenean bi urte Esketi'n bizitutako Paladios gotzai galazitarrak idatzi zuan "Luso' ri Opaldutako Edestia"; aldi berean Ipar-Ejito'ko lekaidetegietan luzaro bizitu ondorean Martsella'n Jon Kasiano lekaide erromatar ospetsuak idatzitako "Itzaldiak" ("Collationes") eta "Irakaspenak" ("Institutiones") ondo ezagunak...

Xaloak dira benetan Ejito'ko lekaideen "jakintza" emanez argitaratu ziran "apoteigma" edo "esarien" sortak ere. "Esaldi" edo "apoteigma" oiek arras laburrak dira, lerro batekoak edo iru-lau

itzekoak batzuetan. Ala Arsenio Donearen ezpainetan apotegma batek ipintzen dituan iru itz aiek: "iges" (egik mundukerietatik), "isilik" (ago basamortuan), "paketsu" (bizi adi beti).

"El Nitria" edo "Nitri" a izan zan, Ejito eta Liberi arteko mugan, beste izen aundiko lekaidetegi bat. Gero ospetsu izanen zan jende askok ikustatu zuan Nitri'ko lekaidetegia.

* * *

PAKOMIO DONEAREN ERABERRIKUNTZA. Donandoni'-ren denborako lekaide-bilkuma aiek laister gertatu ziran ezegokiak, lekaideen kopurua aundiagotzen eta aundiagotzen asi zanez gero. Bearrezkoa zuten aldakuntza bat, eta aldaketa ori Pakomio Doneak ekarri zien. Arrezkero "Koinobios" esan zitzaion eleneraz Iekaide-tegiari eta "Coenobium" lateraz. "Koinos", "alkar" eta "blos" "bizitza" bait dira eleneraz. Ortik sortuak dira gaztelerazko "cenobitismo" frantzerazko "cênobitisme" eta inglanderazko "cenobitism" itzak.

"Alkarrekingo-bizitza" edo "koino-bios ori 164 ataleko araudi batean tajutu zuan Pakomio Doneak

Ejito'n bertan, Tebaida'ren egoan jaio zan Pakomio 287'aren inguruan. Maximino Daya'ren gudaroztean gudari gazte zala jarri zan lenengo aldiz kristauekin arremanetan. Baita bataioa artu ere, gudarozteko aldia bete zuanez gero. Lekaidetzara jo zuan laister, eta lekaroan Palamon izeneko lekaide zar baten zuzendaritzapean jarri zitzaigun bizitzen.

Urte sail bat bertan igaro ondorean, egoalderago igota, jenderik gabe utsik aurkitzen zan Tabennesi izeneko erriska batean iratsi zuan bere lekaidetegia 323'ren inguruan, eta lekaidetegi artan ezarri zuan lege, bere araudi berria.

Ona nola zeuden tajutuak araudi orren araura Donepakomio'ren zenobitegiak:

Arrizko esi batek bereizten zuan inguru guzian lekaidetegia kanpoko mundutik. Bazuan esi ark atari bat, eta andik bakarrik

igaro zitekean kanpoko mundu obentsutik barrungo mundu sagaratura. Mundu sagaratuaren erdian, eliza; egun berezietan alkarrekin bildurik eliz artan egin bear bait dute arrezkero Iekaidetegiko "anai" guztiak. Baita alkarrekin jan ere, naiz egunero beintzat ortara bearturik iñor egon ez. Orregaitik "refectorium" edo "otordutegia" da elizaren ondoan zenobitegiaren erdian dagoan bigarren etxea. Etxe oni erantsita zeuden okindegia, sukaldea, gaixotegia, etabar.

Elizan, larunbatez eta igandez bakarrik alkartzen ziran danak, egun oietako liturgia ospatzeko. Beste egunetan, etxe bakoitzeko lekaideak beren etxean biltzen ziran eguneko otoitzerako.

Elizaz eta jatetxeaz gaiñera, zenobitegiaren barruan beste etxe batzuk bai bait ziran bertako zenobitarienzat eratuak. Launaka eratuak, ainzuzen.

Etxe aietako bakoitzean 40 lekaide bizi ziran, etxe artako "praepositus" edo "lendakariaren" ardurapean. 4 etxeek, "auzo" bat osotzen zuten. Eta 10 auzoek, zenobitegia. Zenobitegi osoko lendakariari, "Pater Coenobii" edo "Zenobitegiko Aita" esaten zitzaion. Itzal aundiko gizona, Zenobitegiko Aita ura.

Izan ere, agintarienganako menpekotasuna bait zan, kastitate edo garbitasunarekin eta txirotasunarekin batera, Donepakomio'ren araudiko atalik garrantzitsuena. Bazituan Pakomio'ren araudiak, ortan zintzo ez zebiltzanentzat, zigor bereziak. "A obedFencia, na organizaÇão de PacÓmio, era militar e absoluta" (Chadwick).

Zenobitegian baziran eginkizun berezietarako prestaturiko lekaideak: arrantzaleak adi bidez, Nilo'tik bearrezkoa zuten arraia ateratzeko, euleak eta iruleak, soiñeko landerren oial oro bertan irun, eo eta josteko, okiñak, artzaiak, lekaideak aragijale aundiak ez ziran ezkero gaixoentzat eta kanpotiko eskaleentzat beintzat aragirik falta ez zedin. Baziran baratzariak ere. Barazkia, ori bai, benetan bait zuten bearrezkoa, ia beste jakirik jaten ez zuten ezkero.

Pazkoaz kanpo urtea-zear barau-egun ziran asteazken eta ostiraletan izan ezik, bi otordu egiten ziran zenobitegian. Bi otordu aietan

zenbat jan erabakitzen zuan araurik ez zuten. Aia, lekaide askok bigarrren otorduan ez zuan pixka bat besterik jaten. Eta batek baiño geiagok, ogi-puxketatxo bat besterik ez.

Lekaideak ez zeuden otorduetan jategelara joatera beartuak. Bere otorduren bat bakartasunean egin nai zuanari, ogia, ura eta gatza bidaltzen zitzaizkion bere gelara.

Lanbide bakoitzekoak, al bait, etxe bat berean bizi oi ziran alkarrekin. Aia, baziran zenobitegietan euleen etxeak, arotzenak, oskille edo zapatarienak, idazleenak...

Bere "koinomia" edo "komunitatea" eratzerakoan lenen kristauen alkarrekingo bizitza euki zuan Pakomio'k gogoan: "Bakoitza danentzat eta danak bakoitzarentzat", izan zan Pakomio'k maiz, eta, Pakomio'ren atzetik, aren araudiaren erara sortu ziran zenobitegietako agintariak beren lekaideei bein eta berriz esan oi ziena.

Azkar zabaldu zan Pakomio Deunaren lekaidetza-kera berria Ejito guztira. Pakomio'k berak irasi zituan amaika zenobitegi: oietatik, bederatzi gizonezkoentzat. Eta bi, emakumezkoentzat. Bi auetatik aurrenekoa, Tabennese'koaren alboan, Mari izeneko bere arrebaren laguntzarekin.

346'ean il zan Donepakomio. Baiñan il-aurretik, 7,000 zenobilari ezagutu zituan, berak gizonezkoentzat eraikita 9 zenobitegietan eta aietatik sortutakoetan, emakumezkoentzat sortutako beste bi aietako lekaime-kopuruaren berririk ez dugu --, eta uenen bat urte geroago, V mendearen azkenean, baziran 50.000 lekaide pakomitarrak. IV mendearen azkenaldera sortu zan berriz Alexandri'ren albo-alboan eraginmen aundikoa izanen zan "Meta-noia" edo "Penitentzi" izeneko zenobitegia.

Zenobitegi aiek danak, Tabennese'n bizi zan eta "Arkimandrita" esan oi zitzaion Agintari Nagusi baten esanera, "gorputz" edo "kongregazio" bat osotzen zuten. Onak izendatzen zituan zenobitegi bakoitzeko "Aita" edo Agintariak eta urtero bi aldiz biltzen zituan zenobitegi danetako "Aita" guztiak Tabennese'n, batzar orokor aien bidez "kongregazio" guzia zuzentzeko.

Bi dira Pakomio'ren araudiko ezaugarririk berezienenak:

Idazti Doneenganako zaletasuna. Idazti Donea bait da pakomitarren otoitzarako, ia gai bakarra. Ortarako ainzuzen, beartzen ditu Araudiak berak Idazti Doneen zati luzeak buruz ikastera.

- Lekaide guztian berdintasuna. Danak daude Araudia betetzera era berean beartuak: baita agintariak ere. Danak dira ba Pakomio'rentzat duintasun berekoak zenobitegiaren altzoan. Orizalata ez zuan zenobitegieta apaizik artu nai izaten oso gutxi izan ziran artu zituanak, eta baldintza berezieren ondorioz artuak Eta oridalata ez zuan berak ere apaiz-sagaraketarik artu nai izan.

Ez da egia apaizgoari bildurra izan zionik. Apaizen adiskide izan zan, ederki jardun zan bere gotzaiarekin, Ejito'ko jerarki osoarekin eta bereiziki Alexandri'ko Atanasio aundiarekin. Adiskide kutunak izan bait ziran biak.

Pakonnio'ren zenobitegia, aurrerapen aundia izan zan kristau-lekaidetzaren ibilkeran, eta ez da bere atalik nagusienetan ondorengo lekaide eraberritzailleek aldatua izango. BaiNan bazuan arrisku aundi bat ere: aberastasunerako bide izatea:

Zenobitegi bakoitzean lekaide geiegi biltzen zan: eunen bat bai beintzat. Orrek bi ondorio txar zekarzkien agintariei: Alde batetik, zail gertatzen zitzairen lekaide aiek danak bere esanera apalki gordetzea, eta, bestetik, eun lekaide aiek lanerako berreun esku ziralako, egunetik egunera aberastasun ta aalmen geiegi biltzen zitzairen, agintariei beren eskuetara. "Kongregazio" edo "Alkarte" osoko Agintari Nagusiaren eskuetara batez ere. Onengana ekarri-bearrak bait ziran azkenean zenobitegi guztietan irabazitako diru guztiak, onek danen bearkizunei, eta kanpoko txiro eta gaixoenganako karitateari begira zetzairen.

Asieran, oraindik gutxi ziranean, beren lur-puska txikietan egiten zuten lekaideek lana, bizitzeko bearrezkoa zitzaiena lortzeko. Zerbait gelditzen ba'zan saldu egiten zuten. Gerorxeago, lekaide geiago sartzan ari zan neurrian, uzta-aroetan zenobitegietik-at inguruko errietako nekazariei laguntzera irtetzen ziran.

"On les voyeait sortir en troupes au moment de la moisson et se repandre dans la vaillee du Nil oÙ, en quelque jours, ils gagnaient de quoi assurer pour l'annee entiere la subsistence de la communaute et les ressources necessaires a son activite charitable": "Ikustekoa zan nola irtetzen ziran pilloka, eta nola zabaltzen ziran Nilo-ibarrean zear. Egun batzuetan irabazten zuten urte beteko mantenua eta karitate-ekintzetarako bearrezkoa zuten guzia" (Id).

Baiñan "jendez azitzen joan ziran ordea zenobitegiak-eta, neurri berean joan zan azitzen etentzeke zenobitegien ekonomi-aldetiko garrantzia": "L'importance de l'aspect economique de cette institution ne cesse en effect de croître a mesure qu'elle se developpe" (id).

* * *

PALESTINA'KO ETA SIRI'KO LEKAIDEAK. - Ejito aipatu oi da aro zarreko lekaideen paradisu bezala, baiñan Ejitoti'k kanpora ere, eta Ejito'n bezain goiz, edo goizago agian **izan** ziran Lekaideak Sortalde guztian. Palestina'n adibidez.

Emen, "lauras" esan zitzaien Ejito'ko Donandoni'ren talde aiek bezala eraturik zeuden Ilarion Donearen lekaidetegiei. "Laura" aiek bazuten Donepakomio'ren zenobitegien itxura, lekaideak esi baten barruan bizi ziralako. Baiñan ez etxeetan zenobilariak bezala, oso txabola txiroetan baizik. Eta bakardade aundian bakoitza bere txabolan. Lauretakoak ez zeuden gaiñera, zenobitegietaoak bezala araudi baten esanera. Lauretan ez bait zan araurik.

Izen aundiko maixua izan zan, "laura" aietan, Eutimio Donea.

Laister ordea, Teodosio Deunaren eragiñez, Donepakomio'ren araudiaren bidetik zenobitegi biurtuko dira "laura" aiek danak. Ez zuten ortarako bere bizieran ezer askorik aldatu bear izan.

Orrela bete zitzaizkigun V eta VI mendean lekaidez Palestina'-ko eta Sinai'ko basamortuak, Belen'go eta Jerusalem'go lurraldeak bereiziki. Belen'en bizi izan zan lekaide Jeronimo Donea.

Gauza berdiña gertatu zan iparralderago Siri'ko lurraldeetan. Bizkortasun aundiz gaiñera, beti izan bait zan Siri'ko Eliza biziera latzaren maitale. Aia zabaldu ziran ain errez an II mendean, "ardoa edatea, aragia jatea eta, senar emazteei, ezkontzaren erabiltzea" debekatzen zien ereje enkratistak.

Osroene'n, eta sortaldeko Siri osoan "todavfa hasta entrado el siglo IV estaba ligado el bautismo con la obligacido de llevar una vida de pobreza y continencia total, de forma que los bautizados considerados como **hijos e hijas de la alianza** (azpimarraketa berea) representaban la elite de la Iglesia, mientras que los demás cristianos permanecían en la condicido de catec menos" (Jedin).

Ziurki, izan ziran Ejito'ko Andoni Donearen aurretiko lekaideak Siri'n eta Osroene'n, Palestina'n bazirala ikusi aal izan dugun bezala. Badakigu Sortaldeko probintzietan lekaideak izan zirala. Eta baita Sarkaldean ere, naiz ain ugari ez. Baiñan esan daiteke noski, lekaidetzaren edestia mundu kristauean, Atanasio'k idatzitako "Donandoni'ren Edestia" irakurria izan zanez gero asi zitzaigula, Sirin eta Palestina'n izan ezik..

Udaberria lorez ta arriz oparo erditzen dan bezala, ala erditu zan mota guztietako lekaidez Eliza, **IV** eta V mendean. Egiazko udaberria izan bait zan bi mende aien epea lekaidetza kristauaren edestian.

Aipatu ditugu udaberri artako ziturik ederrena: Andoni, Ejito'n maixu bezala. Atanasio eta Jeronimo, beren idazti, eskutitz eta itzaldien bitartez zabaltzaille bezala; Pakomio era berrien sortzaille lez; baiñan izen bat peitzen zaigu oraindik aipatzeko; danetan aundiena bearbada lekaidetzaren edestian: Kapadozi'n Zesarea'ko gotzaia zan Basilio. Mintzatuko gera beraz ere.

PALESTINA'KO LEKAIDETEGI LATINDARRAK. - Sarkaldetik Palestina'ra etorritako jende laterdunek irasitako lekaidetegiak, jakiña. Irasle aien artean, iru, emakumeak; erromata-

rrak. Melani Nagusia, Paule Nagusia, eta Melani Gaztea. Kulturazko emakumeak iruak, aristokrazikumeak; eta aberatsak. Merezi dute aipu berezia.

Baiña ekintza guzti auen sustraiean Alexandri'ko Atanasio Donea daukagu.

Inperatoreekingo arazozen ondorioz, iru aldiz egon zan Atanasio Sarkaldean, erbesteraturik: 335 'ean Treberis'en; 340'tik 343'era, Erroma'n; eta 345'ean Akilea'n, eta, ain lekaidetzaren miresle eta Lekaideen adiskide izanik, sutsu mintzatu zan beti Sortaldeko bakartien bizitza miresgarriaz.

Berez ere eraginmen aundiko gizona zan-da, piztu zuan entzuleen artean bakartasunerako zaletasuna. Eta zaletasun ori bizkorragoa egin zuan laister laterara itzulirik Sarkaldera iritxi zan Atanasio berak idatzitako "Andoni'ren Bizitza"k.

Lekaidetzaz maitemindu ziranen artean, aipatutako iru emakume aiek dira agian garrantzitsuenak.

- Melani Nagusia, Balerio Maximo Erroma'ko laurlearekin ezkonduarik egon zan, 20 urte besterik ez zituala alargun gelditu zan arte. Laister sartu zan Erroma'ko tekaidetza-zaleen talde batera.

Ogeitamar urteko emakume gaztea zan, Sorkaldera erromes abiatu zanean. An, aurrena, Ejito'n Nitri izeneko lekaroan, bertako lekaidetxeak ikustatzen ibilli zitzaigun. Andik, Alexandri'ra joan zan, eta emen ezagutu zuan seguruaski, ura ere Ejito'ko lekaidetza ezagutzera etorria zan Akilea'ko Errufino.

Bein Palestina'n, bi lekaidetegi irasi zituan emen bere dirutik Jerusalem'go Oligomendi'ren maldan: gizonezkoentzat bat, emakumezkoentzat bestea.

Itzuli zan berriro Sarkaldera. Ikusi zuan Nola'ko Paulino bere lengusua, eta, Sarkaldera zijoala, ikustatu zuan Ipona'n Augustin zarra ere. Ta, berriro Palestina'ra itzulita, Oligomendi'ko lekaimetxe artara sartu zan, eta bertan 409'garren urtean, bere dirutza guztia ekintza onetan txautu ondorean.

- Paule Nagusia, erromatarra au ere, Eszipiondarren sendikoa, Pauline eta Eustoki izeneko bi alaba ospetsuen ama, izugarri

aberatsa, bere aberastasun guztiak txiroen eta beartsuen artean sakabanatu zituana, eta, Erroma'n, Jeronimo Doneak uri artan sortutakoko lekaidetza-zaleen batzarreko batzarkiderik zintzoeneta-ko bat izan zana.

Ordurako, Antioki'ren ondoko Kalzis lekaroan anakoreta egona zan Jeronimo. Baiñan biziera ain gogor artako aulegia zala ikusirik, Erroma'ra itzuli, eta an lekaidetzaren alde lanean asi zan bere kemen guztiz. Eta ez zan nolanaikoa Jeronimo Deunaren kemena.

Laister ordea lekaideen aurka Erroma'n, 385'garren urtean, istillurik aski sortu zanean, Palestina'ra urrunduzan gure Jeronimo, berekin Itali'ko lekaide batzuk eramanez.

Aruntz abiatu zan illabete batzuk geroago, aren ikaslerik onenetako bat: aipatu dugun Paule Nagusia, Eustoki bere alabarekin.

Palestina'tik Ejito'ko Nistri lekarora jo zuten eta an egon ziran, ama-alabak, ango lekaidetza-kerak zaletasun aundiz aztertuz. Palestina'n berriruzan, Belen aukeratu zuten egoitzarako eta lekaidetxe bat eta lekaimetxe bat eraiki zituzten an. Baita gaixotegi bat ere. Paule'ren diruz, guztia.

"Su caridad era tan grande que el mismo San Jeronimo se vefa obligado a imponerie moderaciÓn" (Llorente).

Paule'ren lekaimetxeak iruzan lekaime-sail izan zituan, bakoitza bere zuzendariarekin. Lekaidetxeak ez zituan ainbeste lekaide bildu baiñan izan zuan lenen-lenen maillako abata bat: Jeronimo Donea bera. Eta ez bait zan Jeronimo nolanaikoa borrokalaria, kristaudiko arazo eta istilluzan guztietan sarturik aurkitu zan bere liturgia lateraz egiten zuan Belen'go lekaidetxe ura.

- Eustoki, Paule'ren alaba. Ama 404'ean il zanez gero, Belen'go lekaimetxe aren abateme izana amabots urtez, 419'an zan arte. Pauline Gazteak artuzan orduan lekaimetxe artako abatemetza. Jeronimo'ren ikasle leiala izan zan au ere, bere aurreko beste bi aiek bezala, eta aundiak dira onek Jeronimo'k iruzan emakumezko aietaz egin zituan goratarreak. Ongi mereziak guztiak.

Melani Gaztea, Melani Nagusiaren billoba, Paninius aristokrazikumearekin ezkondua. Senar-emazte auek, beren bi semeak gazterik il zitzaizkien ezkerok, aszetika-bizitza bat asteko asmoak artu zituzten, eta bere dirutza aundi guztia karitategintzan erabiltzea.

Alariko gotiarra Itali'ra sartu zanean, Sizill'ra iges egin zuten, eta an Akilea'ko Errufino ezagutu. Gero Afrika'n bereak zituzten lurretan bizitu ziran aldi batez, eta baita an Augustin Donearekin adiskidetasunak egin ere. Bai Akilea'ko Errufino eta bai Ipona'ko Augustin lekaidetzaren maitale aundiak ziran biak, eta biak lekaide izanak. Agian bi aien aolkua jarraituz, Ejito'ra egin zuten txango Melani Gazteak eta Paninio bere senarra'k; eta ango lekaidetegiak ikustatuz gero, Jerusalem'era.

Ejito'n ikusi zutenaren bidetik sartuz, anakoretak bezala bizitzen asi ziran aurrena, baiñan bizikera aren arriskuetaz jabeturik, lekaimetxe bat eraiki zuan Melani Gazteak, eta lekaidetxe bat gero Paninio 11 zitzaionean.

Jerusalem'go lekaidetxe eta Iekaimetxe auek, izan zuten biek, Jeronimo Deunaren itzalpean, eliz-jakintzetarako joera bizia. Baiñan, batez ere, Melani Gaztearen karitatezko ekintzek egin zuten bereiziki izentsua aren lekaimetxea.

Sarkaldeko aristokrazikume zalarik itzal aundia izan zuan Melani Gazteak Sortaldeko aundikien artean ere. Miresle izan zuan Eudoxi inperatemea bera. Ala etorri zitzaion lekaimetxean ikustatzerak, eta biek egin zuten alkarrekin Lur Doneak-zear erromesketa bat.

418'n edo 419'an il zan Jeronimo Belen'en. 439'an berriz Melani Gaztea. Abateme eleneradun batek artu zuan aren lekaimetxeko abatemetza; eta, orrela, laister galdu zuten beren latintasuna Palestina'ko Iekaimetxe eta leikadetxe latindar aiek.

BASILIO DONEAREN LANA. - Elizgizon ezaguna dugu Basilio Aundia, agin "iru Aita Kapadoziarren" artean aundiena, Kapadozi'ko Zesarea' n bertan guraso aberatsen seme jaioa, Zesarea artan, Kostantinopla'n eta Atenas'en ederki jakintzetan ezia, teologilari bikaiña, idazle naroa, eta apaiza bezala aurrena eta bere jaioterriko gotzai bezala gero, "Jainkoaren artaldean Artzai" egoki donea.

Izan zan lekaide ere, apaiz-sagaraketa artu aurretik, bere uriaren alboko basamortu batean. Laister alkartu zitzaizkion bakar-tasun artara adiskide batzuk, eta an eratu ta idatzi zituan anaia zuan Donegregorio Naziantzetarraren laguntzarekin, eta onen aolku zugurrak ontzat artuz, lekaidetzaren eraberritzerako, bere bi "Araudi" ospetsuak: "Laburra" eta "Luzea".

Iru mailla igaro zituan ordurarte lekaidetza kristauak. Mentaii-tatez Itun Zarrekoa izan zan Donibane Batailariaren eredia jarraitu zuten lekaide bakartiena, aurrenekoa. Bigarrena, Ejito'n Andoni Donearen inguruan bildu ziran aien antzeko "araudirik gabeko" lekaide-taIdeena. Ta, irugarrena, "araudipeko lekaideena". Ikusi dugu nola izan zan Donepakomio irugarren lekaidetza-kera onen sortzaillea. Egia, Itun Zarraren azken-azkeneko urteetan lekidet-xeak izan zirala: Esenitar aienak adibidez. Baiñan Donepakomio'ren zenobitegiek ez dute esenitarren lekaidetxeekin zer ikusirik. Ez dira, iñoalz ere, aien jarraipenak.

Laugarren mailla Donebasilio'ren lekaidetza-kera dugu.

Donebasilio'eren "Araudien" eta Donepakomio'ren "Araudia-ren" artean ezberdintasunik aundiegirik ez dago. Gutxi gora bera berdin mintzatzen bait dira lekaidetxe bateko zutabe diran obedientziak, garbitasunaz eta txirotasunaz.

Egia da Donebasilio' k gorputz-zigorketari baiño garrantzi aundiagoa ematen diola obedientziari. Baiñan ikusi dugu nolakoa zan Donepakomio'k ematen ziona, Chadwick edestilariaren ustez. Entzun beste edestilari bati: Donandoni'ren lekaide-taldeetan, ikasleak maixuari, obeditzera bearturik egon gabe, yareki, obeditzen ziola, eta, soilki, eziketa osoa lorturik, bera bakarrik

bizitzeko gai izatera iritxi arte obeditzen ziola esan ondorean, onela dio Jedin'ek:

"En cambio, según Pakomio es la obediencia una **permanente** actitud incondicional que ha de hacer que el monje vaya alcanzando la perfección en su comunidad y por medio de su comunidad. Las disposiciones de la regla de San Pacomio sobre el sentido y la categorfa de la **pobreza** y la **obediencia en el claustro cenobita no** fueron ya corregidas en lo esencial **por ulteriores reglas monásticas**, lo cual es también una prueba de la capacidad creadora del fundador copto" (Azpimarraketa, nerean).

Alare, egia da Pakomio'k eskatzen zuan mendekotasunaz gaiñera zerbait geiago eskatzen ziola Basilio'k lekaideari: gogozuzendariari bere kontzientzia osoki zabaltzea eta aren aolkuak zalantzarik gabe oso-osoan jarraitzea. Agintariaren eskuetan "Perinde ac cadaver", ots, "gorputz illa bezala" egon bear dutela aolku-emango die beretarrei Loiola'ko Iñaki Doneak. Orrelako zerbait eskatzen zien IV mendean beretarrei Basilio'k ere.

Badu beste duintasun aipagarri bat Donebasilio'ren Araudiak: Jakintza-lanari ematen dion garrantzia. Ez da arritzekoa bera jakintza aundiko gizona izanik: "Precisamente entonces se dio principio a una de las ocupaciones que debfa convertirse en el trabajo mas tfpico de los monjes medievales: las copias de los cfficos y demás escritores de la antigüedad (Llorente).

Baiñan Basilio Doneak zekarren berritasuna beste alde batekoa zan. Eta askoz garrantzi aundiagokoa zan. Lekaidetzaren elburu ber-berari zegokion berritasuna bait zan. Ordurarte ez lekaide bakartiek ez Donandoni'ren lekaide-taldekoek ez Pakomio'ren zenobilariek usmatu ez zutena:

- Eliz osoaren alde otoi egiteaz aztutzeke, "bere animaren saibamena" izan zan, eta zan, lekaide bakartien elburua.

- Ez da naikoa, esan zuan Pakomio'k. Elizaren alde otoizketarik aztutzeke, "berekin bizi dan lekaide lagunaren salbamenaz" ere arduratu bear du lekaideak.

"La comunidad de los pacomianos debfa realizarse no sdlo en la separacdn del mundo y en la renuncia a la propiedad particular, sino primariamente en el empeño comtin de salvacin. El abad pakomiano Horsiesi recomienda encarecidamente a sus monjes que no se limiten a la solicitud por su propia salvacdn, sino que cada uno debe, por amor a su hermano, ser el servidor del otro, para asi representar todos la propia familia de Dios (Id). (Azpimarratzaillea, *ni*).

Ezaguna da Pakomio beraren esaldia: "Todos deben ser una ayuda para tf, tu debes ser de provecho para todos" (id).

Orain arte ikusi ditugun bi lekaidetza-kera oietan otoitza bakarra da lekaidea munduarekin lotzen duan katea.

- Ez da naikoa, esango du Donebasillo'k. Otoitzez ez ezê animeko eta gorputzeko karitate-ekintzez ere lagundu bear bait dio lekaideak lagun urkoari.

Oldozpen orren ondorioz gizartearen serbitzura jarri zuan Basilio'k lekaidetza. Eta ori da bere eraberriketaren adigarririk ezaugarriena: "A insist&Itia quanto a primazia dos objetivos sociais do movimento ascetico era a feicáo (lorketa) caracterfstica da organizaçáo de Basflio de Cesareia e fez (egin zuan) desta realizacáo a obra da epoca" (Chadwick).

"A obra da 4oca", ots, "garai artako ekintza nagusia" baiño geiago izan zan Donebasilio'ren ekintza, gure egunotaraiño iritxi bait dira lekaide basilitarrak.

"De este modo, la regla de San Basilio, con alguna mayor suavidad en las austeridades corporales, pero con una unió n mas íntima de sus miembros y mayor dependencia de los superiores, tuvo un éxito extraordinario. Podemos afirmar que esta Regla se convirtió en el Cddigo monstico oriental por antonomasia. Así, cuando mas tarde fueron desapareciendo las otras agrupaciones de monjes, los basilianos poblaron el Egipto y se extendieron por todo el Oriente. Apoyados por el poder civil en el Imperio bizantino, cada vez mas fuerte y robusto, a partir del siglo VI fueron ellos los monjes por excelencia del Oriente" (Llorca. Azpimarraketa, berea).

* * *

BESTE LEKAIDETZA-KERA BATZUK. - Naiz Basilio Donearen Araudiak ain zabalkunde oparoa lortu, ez ziran Irengo beste lekai- detza-kerak zearo ezabatu. Gaur-egun oraindik bizirik jarraitzen duan Kamaldularren Ordenak, Palestina'ko Laura aietan ditu bere sustraiak. Eta lekaide bakarrik-bizi-zaleak berriz ugari izan ziran Donebasilio'ren ondorean Sortalde guztian eta ugari izango dira Sarkaldean Donebenito'ren ondorean ere.

Ikus, adibidez, Ziro'ko Teodoreto'k "Lekaideen Edestian aipatzen dizkigun lekaidetza-mota bereziak: Siri'ko basamortuetan lekaidetxeetatik at bizi ziran lekaideen erak:

- "Stationarii" edo "Egonzaleak". Zutik egoten omen ziran auek beti, beti geldi, lo egiteko ere etzin gabe, iñorekin itzegiteke, eta begiak lurretik iñoiz jaso gabe. Moises, Antioko, Zebimas eta Polikronio aipatzen ditu "egontzale" aien artean Teodoreto'k.

Iru oietako bat, Zebinas, zartu zanean, ez omen zan zutik irauteko gauza-ta makil batez baliatzen omen zan artarako. Berdin gertatu omen zitzaion Polikronio'ri, eta onek, Teodoreto beraren aolkua jarraituz, txabolatxo medar bat eraiki omen zuan, bizkarra ormaren aurka jarrita zutik iraun aal izateko. Karres'ko Abraan berriz, ibiltzeko gauza ez zala utzi omen zuan zutik egote luzeak.

Berriro ibiltzen ikasi bearrean aurkituko zan noski, aurrena apaiz eta gero Karres'ko gotzai egin zutenean. Ez zituan ordea lekaidetzako oitura gogorrak aztu, gotzai egiña izanez gero:

"Cet homme admirable ne prit pas de pain durant tous le temps de son 4iscopat, ni de I4umes sec ni de Iëgumes verts cuisinës, ni de cette eau qui auprs gens passant pour compëtents en la matire est consid e comme le premier des quatre ~ients en raison de son utilitë": "Gizon arrigarri onek ez zuan bere gotzaitzako aro guztian ogirik jan; ezta Ieka-ale gordiñik edo leka eze egosirik ere; ez zuan urik edan, naiz gai oietan jakintsutzat euki oi diranek, ura, naitanaiezkoa dalako, lau izaki-gaietan garrantzitsuena

dala uste izan" (Teodoreto. Eleneratik Canivet eta Leroy-Molingen'ek frantzeratua).

Zer jaten zuan gizon onek? "Basoan berez jaiotako letxu, atxikori, apio, eta auen atzeko beste landare batzuk, gordiñik, orrela okiñen eta sukaldarien bearrik ez dugula erakutziz".

Aitortzen du Teodoreto'k "egontzaille" aietako batzuek -- batzuek bakarrik! egoeraz aldatzen zutela. Ala, Abba izeneko batek. "Onek edo zutik edo belauniko Jaikoari otoitza eskeiñiz igaro oi zituan egunak eta gauak". Beste aiek, beti zutik egoten ziranek, lotakoan ere zutik irauteko zutabe bati-edo lotu oi zioten besarpetik gorputza.

X menderaiño iraun zuan zutik egoteko lekaidetza-mota orrek. Aski aldaturik noski, garai artako edestilari batek aipatzen digun Rabban Yozedek mesopotamiarra zutik "ibiItzale" geiago bait zan zutik "egonzale" baiño: "Estaba constantemente de pie y caminaba siempre, ya orase, ya recitase los salmos" (Peña). Zutik jarraitzeko gauza ez zanean lo labur bat saieska jarritako ol batean erdi zutik egiten omen zuan, bere oiñak beti lurra uki zezaten.

- "Dendrita" edo "Zugaitzekoak". Zugaitzetan bizi ziran lekaidak. Bertan kabi bat egiñez batzuk, kabirik gabe adarretan kokaturik beste batzuk. Azkeneko auetakoa zan VII mendean Irenin'go "dendrita" marondarra. Bein baiño geiagotan jausi bait zan Iurrera, erorketa oiek eragozteko katez lotu zion adar bati bere gerria. Lotan zegoala-edo erortzen zanean, zintzilika gelditzen omen zan, zugaitz aren albotik igarotzen zan batek lengo tokira igotzen laguntzen zion arte.

Asko iraun zuan "zugaitzekoen" oiturak ere. XIII mendean Padua'ko Andoni Doneak ber-berak azkeneko egunak intxaurrondo batean egiñarazi zuan txabolatxo batean igaro bait zituan.

- "Azemetak", ots, "lorikgabeak". Ez zan lekaide auena dirudian bezain zigorkera gogorra; lorik egiten ez zuana, lekaidea ez baiña lekaidetxea izaten bait zan. Ortarako, jakiña, azemeta aiek ez ziran bakartasunean bizi, lekaidetxe batean baizik, txandaka etenik gabe gaut'egun elizan salmoak abestuz.

- "Bokoi" edo "larre-jaleak". Sozomeno'k aipatzen dituan bakartiak dira. Bakarti danen artean gogorrenak. Basoan bizi ziran, estalperik gabe; lau oinka ibiltzen ziran; eta larreetako belarra jaten zuten; baiñan ardiek bezala: jaten zutena ortzez lurretik artuz. Talde ontakoak izan ziran, gero gotzai izatera iritxitako Jakoba eta Lazaro Doneak.

- Bakartien artean, arrigarrienak eta ulerkaitzenak, "saloi" edo "eroak" esaten zitzaienak dira. Loiola'ko Iñaki Doneak esan bait zuan "Kristo irainduarekin iraindua izan nai zuala", ba Deonifiakrren bide beretik ibilli ziran mendeak leenago "ero" aiek ere. Egunez, Kristo bezala irainduak eta gaitzetsiak izateagaitik, erokeriak egiñez ibiltzen omen ziran, gaua otoitzean igarotzen zutela,

Donesimeon Eroa izan zan danetan ospetsuena. Itzulpen edo tradukzio batek itzen zentzurik aldatu ez dezan, ikus Done lilluragarri oni-buruz Peña prantziskotarrak Teodoreto'ri jarraituz idatzia:

"El más ilustre representante de esta categorfa de anacoretas fue San Simedn el Loco, cuya vida fue escrita por su contemporaneo Leoncio obispo de Ne4olis en Chipre (muerto en 650). Originario de Emesa, hoy Homs, Simedn paso 39 años de vida solitaria a orillas del río Arndn en la región oriental del mar Muerto. Cansado de estar solo, decidid regresar a su Patria y dar ejemplo inaudito de humildad a sus ciudadanos. Llegado a Emesa entró en la iglesia en el momento en que se celebraban los santos oficios. Provisto de un tirabeque y de nueces, orientó su punterfa hacia el altar, apagando una a una las velas. Después subid al ptípito y comenzó a bombardear a las mujeres con los proyectiles que le quedaban.

"Su conducta excéntrica llegd a la inmoralidad fingida. Un comerciante de vinos llegd a la conclusion de que Simedn no era tan loco como le crefan en Emesa, y le dib trabajo en su casa. Simebn, para huir de la vanagloria y hacer cambiar a su amo de parecer, se propuso algo insblito. Durante la noche se filtró en la

alcoba donde dormfa la mujer del comerciante y se hizo sorprender por el marido. Echado de la casa a grandes gritos, el comerciante repetfa, a quien quer(a oirle, que Simedn era el mas perverso de los hombres. Eso era precisamente lo que buscaba el asceta. La santidad de Simedn fue reconocida despues de su muerte" (ib).

- "Vagabundi" edo "alderraiak". "Mundu ontan kristauok arrotzak gerala eta arrotzak bezala bizi bear dugula" aitzakitatz artuz, erriz erri ta etxez etxe jendearen biotzberatasuna ustiatuz alperkeririk aundienean bizi ziran sasilekaideak. Aien aurka idatzi zuan gogor Jeronimo Doneak, eta kontzilio askotan izan ziran gaitzets lak.

- "Itinerantes". "Ibiltariak" ez noski aipatu-berri ditugun sasilekaide oien antzekoak, mixiolari zintzoak baizik apostolutzalan aundia egin zutenak. Ala ibilli ziran Asi'ko Jon Donea eta bere lekaide lagun batzuk Anatoli'ko mendi eta landetan urte askoz erriz-erri "paganoak" ots "baserritarrak" kristautzen. Bere bizitza idatzi zuanak dionez, 100.000 "pagano" edo ("pagus" "erriska" dalako) 100.000 baserritar egin omen zituan kristau eta 100 eliz ta 10 lekaidetxe sortu.

Arabi esaten zitzaion orduan, Arabi Erromatarra, Damasko'tik ego eta sortaldera dagoan lurraldeari. 13^o lurralde artako jendea, bertako anakoreten eta beste lekaideen egintzaz izan zan kristautua.

Donibane Krisostomo'k, laister aztertuko ditugun "estilita" izeneko talde bat bidali zuan Fenizi'ko baserrietara mixiolari. Aietako batek, Jon Karrestarrak, iru urteko lanaz kristau biurtutako erri bat lekaidetegi egin-berri bateko lekaideen zaintzapean utzi, eta apal-apal bere "stylo" edo zutabera itzuli zan ostera.

Sarkaldeko "pagano" edo "baserrietako jendea" ere geienik lekaideek kristautua izan zan.

- "Hipetros" edo "estalpegabekoak": Uda-neguetan, otzaldi eta bero-aldietan, iñongo estalkirik gabe lur gorriaren gaiñean bizi ziran lekaideak ditugu "hipetros" auek. Era berean baziran aski "geldi egonzale" ere, Teodoreto'k adierazten digunez: "Desprecian-do el más modesto recinto, se exponfan, inmóviles a la curiosidad

general, de tal manera que la gente podfa verles y palparles" (id. id).

Maron Donea izan omen zan lekaidetza-kera onen asmatzaillea. Bai omen zuan alare kapar bat, oituraz kanpoko euri edo elur-jasetarako baiñan oso gutxitan sartzan omen zan ara. Aren ikasle izandako Donejakoba Aundiak ordea ez zuan ez kapar ez txabolik izan. "Elurte aundi batean alboko leiza batera joateari garrantzirik eman ez ziolako, elurpean gelditu omen zan iru egunez, nekazari batzuek, pikotxak eta endaiak erabilliz, andik atera zuten arte" (id. id)

Mota ontako lekaidea izan zan, jendeak ematen zionetik eskale eta gaiñerako gaixoei laguntzeko, bi estalpe eraiki zituan Limneo.

Oroi dezagun, izotzik gogorrena ari zuanean zokorik otzenetara eta bero kiskalgarrietan eguzkiak geien jotzen zituan lekuetara joaten zan Abba "Ismaeldarra". Eta otza ta beroa gogorkiago jasan bear izateko, arkaitz gorri baten gaiñean bizitzen jarri zan Eusebio. Eta "atsegin orori uko egitearren" (id), udaz itzal egiten zion zugaitza ia sustraitik ebaki zuan Jon.

Izan ziran Siri'n biziera "hipetros" edo estalkirik gabeko biziera garratz ori eraman zuten emakumezkoak ere. Ala adibidez Alepo'n giza-mailla garaieko Maranna ta Zira andre biak. Auek ordea iñork ikusiak ez izateko, estalkirik gabeko etxola batera sartu zira, eta arrizko ormaren bidez itxierazi zuten kanpotik etxola aren atea. An barruan jasan zituzten udako eguzkiaren beroa, eta Siri'ko lurralde garaietako negu otzaren euri, elur eta izotzak.

Alepo'ren auzo batean egin zuten etxola estu ta txiki ura, eta etxola aiek izaten zuten Ieiatiltxo batetik jendeak ematen zientetik bizitu ziran.

Bi andre siritar oien kide izan ziran Ejito'n, Amna, Sinklezi, Teodore, eta Nilo ibaiaren alboan 60 urte igaro zituan Sara.

Beti zutik zeuden aien artean bai omen ziran tokiz aldatzen zutenak ere. baiñan zutik beti. Ala, adibidez, aipatu dugun X mendeke Rabban mesopotamiar ura.

Entzun zer dion Teodoreto edestilariak Osroene eta Siri'ren sortalde guztiko lekaideei-buruz bere "Lekaideen Edestian":

"Batzuek alkartean ari dira borrokan (santutasuna ardiesteko deabruaren aurka borrokan); millaka ditugu orrelakoen konbentuak. Beste batzuk bakartasunera jotzen dute, eta ez dute Jainkoarenganako beste ardurarik. Badira Jainkoaren goratzarrea kaparretan eta txaboletan biziz abesten dutenak. Beste batzuk artzulo eta leitzetan bizi dira, eta badira, estalperik gabe, eguraldien zigorrak jasan bear izaten dituztenak: orain, suzko eguzkipe gorrian kiskaltzen; gero izotz beltzetan dardarka. Batzuk egoeraz aldatzeke zutik egon oi dira ler egin arte; besteak txandaka, zutik eta eserita, jardun oi dira otoitzean. Badituzu lau orma-arteak, iñorekin arremanik gabe bakarrik bizi diranak; baiñan badituzu baitare, naiz orrela bizi, berengana joan nai duanari entzuteko prest daukazunak ere".

- "Reclusi": "Beralen Gogoz Baituak": Oso ugari izan ziran auek ere Sortalde guztian eta baita gero Sarkalde guztian ere. Mintzatu gera Ejito'ko "reclusi" etaz atal onen asieran.

Teodoreto'k, Siri'koak aipatzen dizkigu: Kukurutxu baten eran lokatzez egindako txabola txiki batean eserita irurogei urtez iñorekin itzezin gabe egon zan Azepsima lekaimea adibidez.

Emakume aren antzera, arras estua eta motza zalako, ia bertara sartu ere egiten ez zan txabola batean bizi omen zan Teodoreto'ren denboran Marziano lekaidea. Domina izeneko lekaime bat berriz, kañaberazko txabolan, eguzkia ta euria, otza ta beroa, eta aizea, bazter guztietatik sartzen zitzaizkiola.

Talelus izeneko gizezko bat, jausirik zegoan jauretze jentil baten abe batetik zintzilika, kaiola borobil txiki batean sartuta egon omen zan. "An ikusi dut, kaiola ain txikia dalako, buruz belaunak jotzen zituala bil-bil egiñik jarrita, bururik jasotzerik gabe bertan amar urte badaramazkian gizon ori" (Teodoreto).

Beste bat, Baratus, urteetan eta urteetan egon omen zan, --onek ere gorputza bil-bil egiñik zuala Antioki'ko gotzaiaren eskariak onartuz bere egoera leguntzera makurtu zan arte.

Beste batzuk, V'en mendetik aurrera, arrizko txaboletan bizi oi ziran. "Torreak" esan oi zieten lau aldeko txabola oiei. Iraun dute txabola oien aztarnak gure egunok arte, Siri'n batez ere. 2'85 metrotik 4 metroraino izaten zituan txabol aietako aIde bakoitzak. Eta atetxo bat eta leio txiki-txiki bat. Batzuek, baita komona ere. Baziran, naiz asko ez, bi eta iru bizitzakoak. Baiñan, Siri'n beintzat, bizitza bat baiño geiagoko "torre" oietan ere lekaide bat bakarra bizi oi zan.

"Lagun batekin bizi baiño naiago nuke erensuge batekin bizi" esan oi zuan Isaak "Siritarrak". Lekaide aiek izaten zuten beren ikasleak, baiñan ez zion sekulan lekaide batek ikasle bati berekin bizitzen utziko.

Bakarrik bizitzekotan, iru bizitza zertarako? "Bat gorputzaren bearbizunetarako, bestea lanerako eta irugarrena otoiketarako", erantzungo dizu Paladio'k.

Salbuespenak badira. AIa, aurkitu da 7 bizitzako torre bat. An, seguruaski, 7 emakume bizitu omen ziran, baiñan bakoitza bere bizitzan bakartasun osoan.

Aterik gabeko torreak ere aurkitu izan dira. Lekaidea edo lekaimea nondik sartzen zan barrura? Goitik noski zurubi baten bidez, gero goi ura barrendik estaliz. Edo estali gabe utziz. Otzak eta beroak, eguzkiak eta euri-jask ez bait zuten lekaime-lekaiderik ikaratzen.

Leiatillatxo, bai, torre eta txabol guztiek zuten gauza zan. Ez noski kanpora begira egoteko, andik janaria jasotzeko baizik.

Izan ziran osin eta ur-putzu legorretan bizitu ziranak ere. AIa Maron Donea. Eta, aldi batez, baita Donesimeon Aundia ere, Eusebio'k dioskunez.

Torreetan, txaboletan, illobietan eta ositietan bizi ziran lekaide eta lekaimeak, ikusten ari geranez, gizonezkoak bezain kemen-tsuak izan bait ziran lekaidetzarik gogorrenerako emakumezkoak --, ez ziran errietatik edo lekaidetxeetatik urruti egoten, kanpotik jasotzen bait zuten jateko bearrezkoa zuten

Basamortuetan urruti bizi ziranei ez zitzairen non bizi eta zer janarengaitik axolik. Edozein zulotan, bizi oi bait ziran iguruan billatzen zituzten belarrak edo beren lanaz azi zezazketen barazkiak janez.

Kristaudi guztian luzaro iraun zuten Teodoreto'k aipatu dizkigun lekaidetza-kerak bi oiek. Leize-zulorik ez zan tokietan beren eskuz egiten zituzten lekaideek, bearrezkoak zituzten leize-zuloak mendien malda pikuetan.

Euskalerrian baditugu oraindik orrelako zuloak. Araba'ren egoaldeko mendietan ainzuzen. Ugari gaiñera. Danen kopurua Europa'n aundiena bait da; baita mundu guztian aundiena ere, Kapodozi'koaren ondorean. Erdiaro garai-garaiekoak dira. V, VI eta VII mendekoak. Bertako jendeak oraindik "gobak" esaten die toki batzuetan, "gobiak" beste batzuetan: "las gobas", "las gobias". Bizkai'ko euskera egin bait zan Araba'n. "Valdegobfa", "Gobiaran", du oraindik Araba'ko aran batek izena.

Baiñan "goba" oietaz bere tokian mintzatuko gera.

* * *

Izan zan beste lekaidetza-kerak bat ere, Sirl'n bereiziki, Donesimeon "Estilita"k sortua. "Stilos" itzak eleneraz "zutabe" esan nai du, "pillare". Ortaz, "estilita" euskeraz "zutabetarra" edo "zutabezalea" dugu. Zergaitik esaten zitzairen orrela? Arrizko zutabe luze bat eginda, bertan bizitzeko, aren gaiñera igotzen ziralako.

Ez zan noski gauza atsegiña izango gaut'egun uda ta negu, zutabe aien gaiñean bizitzea. Gure egunetakooi beintzat ia txorakeria ere iduritzen zaigu "estilita" aien jardunkera. Baiñan aro bakoitzak bere erak izaten ditu eta gaur txorakeria izan daitekeana, izan zitekean atzo gauzarik egokiena, eta gaur egokitzen daukaguna, biar txorakeritzat euki izatea baleike.

"Zutabetza" arek, Siri'ko mistik-era bereizia zuan iturburu. Ala, lekaide aiek, lekaidetzarekin etenik gabeko apostolutza lotu nai izan zuten, zutabeen gaiñetik jendeari itzegiñez. Ortarako zutabezaleak, arreta aundiz aukeratzen zuan bere zutabea egin bear zuan tokia.

Zutabe aiek ez ziran basamortuetan egoten, jende asko ibilli oi zan bidegurutzetan eta azokategi ziran urien alboetan baizik. Entzuleak nai zituan zutabezaleak, biziki sumatzen bait zuan bere biotzean, oraindik ia dana jentilla zan landetako jendeari kristautasuna erakusteko bearkizuna. Ez zan ortan ikusi ditugun beste lekaideen antzekoa. Entzuleak erakartzeko berriz, bere bizitza zail latz gogor ikaragarri ura zuan zutabezaleak deigaillurik egokiena.

Ortarako, ainzuzen, igotzen zan zutabe baten gaiñera eta "inter coelum et terram" "zeru-lurren artean" jartzen zan bizitzen.

Urrutitik ikusten zuten bidez zebiltzan jendeek zutabegaiñeko lekaidea, itxasoko ontziek kaia adierazten duan argitorrea ikusten duten bezala. Izan ere, ia izen berdiña eman zitzairen zutabearen gaiñean urrundik ikusten ziran arras bitza latzeko lekaide santu aiei: "Candelabra fidei": "Fedearen argitorreak": Ain ederki aukeratutako tokietan zeudelarik, zutabezaleen lepotik par egiteko edo aien eredia eraspenez entzuteko mundu guztiak naitanaiez ikusi bear zituan "fedearen argitorreak"!

Lan aundia egin zuten sinispidea zabaltzen. Pilloka joaten bait zan jendea lekaide arrigarri aiei entzutera. Lekarotik etorritako arabitarrak, berreundaka eta irureundaka joaten zirala Done Simeon "Aundia"ren zutabepera, diosku Teodoreto'k

Simeon Aundiaren zutabea, - Irutasun Deunaren irudi izan zedin, bata besteari alkartutako iru zutabe medarragoz egiña zan. 16'tik 18 metrora zituan luze, eta, goian, bi gizonentzako aiña zabaltasun. Noizean bein, an goian apaiz sagaratu zuan Dionisio Seleuzi'ko gotzaiari bezala, norbaiteri igotzen uzten bait zion.

Zutabezale bati goruntza geiagoko zutaberik ez zetorkion ongi. An gora igotzeko esku-zurubia zaillegia gertatzen zitzaiolako, eta

askoz zaillago oraindik an goitik beeko entzule-multzo aundiei era egokian itzegitea.

Orregaitik, baziran motzagoak ere. Bata bestearen gainean jarritako bi gizonen goruntza omen zuan Donedaniel'enak. Gure egunotara iritxi diran zutabeen azterketak, 7'70, 8'70 eta 13'75 metroko goruntzak ematen dizkigu.

Ez dezagun aztu, zutabe aien izateko arrazoirik nagusiena, andik jendeari itzegitea zala. Orregaitik, gaur-egun oraindik, egunean bost aldiz otoitzera maometarrei dei egiteko "muezin" musulmanek erabiltzen dituzten "minaret" izeneko torreak, estiliten zutabe aien ondorengo dira.

Arrigarria gertatzen zaigu gaut'egun andik jetxi gabe egoten ziran lekaide aien zutabeak zeñien estuan ziran ikusteak. Simeon Aundiaren zutabe orrek 1'80 metro zituan aldetik aldera. Baziran estuagoak ere: Kimar'en bizitu zan lekaidearen zutabeak 1 '18 besterik ez ditu, eta Kefr Derian'goarenak berriz, metro bat bakarrik. Naitanaiez egon bear zuten zutik goi artan bizi ziran lekaideak; edo, lo egiteko-ta, iztarrak gurutzatuz eserita, artzai arabitarren antzera.

Zutaberik geienak, ez ziran Simon Aundiarena bezain luzeak izaten. Bata bestearen gainean jarritako bi gizonezkoen gaitasuna omen zuan Dabir Deunarenak. Gora igo, egurrez egindako zurubi baten bidez igotzen zan zutabezalea. Bein goian, lurrera bota oi zuten geienek zurubi arin ura.

Sirrko lur garai aietan izugarrizko beroa egiten du udaz, eta otz gogorra berriz eta baita elurra ere neguz. Zutabeek ordea, ez zuten eguzkiaren, euriaren eta elurraren aurkako estalperik. Ezta izotzetik non gorderik ere. Donesimeon "Aundia", kapa batez baliatzen zan negu otz gorrietan eta kukurutxu-erako txano batez udako egun kiskalgarrietan.

Orregaitik, arrituta egoten omen ziran lurralde aietako artzaiak, lekaide aiek otzez izozturik edo eguzkipean kixkaldurik nola iltzen ez ziran ezin ulerturik.

Bein batean, negu beltzeko gau batez, aize-eraso batek soñña estaltzeko bizkar-gaiñean zeukan kamel-illezko estalki bakarra eraman ziolako, larrugorian gelditu omen zan Donedabid. Goizean erdi-izozturik eta erdi-illik aurkitu zuan bere ikasle batek, eta doi-doi ekarri aal izan zuan bere onera, ur beroz aren gorputza igurtziz eta igurtziz luzaro aritu ondorean.

Leon inperatoreak, ori jakin zuanean, lekaide ari zutabe gaiñean nolabait txabolatxo bat egiteko, agindu zion lurralde artako bere ordezkariari.

Zutabe gaiñean estalkitxoa izandako zutabezale bat edo bat aipatu oi da. Ala, Donesimeon "Gaztea"k, egin omen zuan an goian larruzko kapar txiki bat. Era berean abarrezko itzalpe bat Donelazaro'k; baiña gero, osoro ezabatu omen zuan, estalpetxo ura lujozko geiegikeri bat zala iduritu zitzaiolako.

Esi bat bai. Esi bat izaten zuten zutabe aiek goiko inguru guztian, an bizi zan zutabezalea, lotan-edo, zutabetik beera jausi ez zedin.

Alare, izan ziran ezbearrez ildako zutabezaleak: Simeon izeneko bat tximistak 11 zuan Zilizi'n. Beste bat, Kostantinopla'ren inguruko lurretan itxasoan ito zan, lurrikara batek zutabe ta guzti, ara jaurti zualako. Beste bat Asiri'n kazkabarrak il omen zuan, garai artako Moskos edestilariak bere "Animaren Larre" izeneko liburuan dionez. Mikel Siritarra'k berriz, "urte ortan ekaitz izugarriak eta ondorioz sustraitik ateratako zugaitzak eta baita lurrera botatako bakarzaleen zutabeak ere, ugari izan zirala", idatzi zuan.

Zertan igarotzen zituzten zutabezale aiek beren zutabeen gaiñean zutik, egunaren ogei ta lau orduak? Otoiketan, penitentzi-gintzan, eta entzuleei izketan.

Oroi dezagun nolakoa izan zan biziera aren sortzaille izan zan Simeon "Aundia" Donearen bizi-tza:

Anatoli¹ ren egoaldean zegoan **jaio zan, Sis izeneko** erriskan, 390'garren urtean. Umetan artzai ibilli zan Tauros Mendietako larreetan. Oso-oso mutiko gaztea zan oraindik, inguru

artan bizi zan lekaide bakarti baten ikasle bezala bakartien bizitza - giten asi zanean. 15 urte zituala Siri'ko zenobitegi batera jo zuan. Donepaul lekaidea omen zeukan eredutzat artua.

Ez zan zenobitegi artan luzaro bizitu. Bere penitentzi-kera zenobitegi artarako gogorregia zala-ta, bertako nagusiak beste zenobitegi batera bidali zuan, Berdin gertatu zitzaion berriro; emengo lekaideei ere latzegia gertatzen bait zitzaien gazte aren penitentzigintza. Irugarrenean berriz, garizuma osoa baru orokorrean igaro naiez, gela batean sartu, eta bere lekaide lagunei atea kanpotik arriz itxierazi zien.

Berrogei egunak igarota ateko orma urratuta barrura sartu ziranean erdi-illik aurkitu zuten lekaide aiek baru-egille izugarri ura. Orduan, zenobitegiko nagusiak bakartien bizitza obeto zetorkiola esan omen zion. Eta besterik gabe, andik bertan zegoan mendi batera baztertu zan gure Simeon.

Bein mendian, txonkatillatik, bederatzi metroko katez, arkaitz bati lotu zion bere burua, alper-ibilketarako zirikaldira guztiak eragozteko. Egun batez ordea Meliton Antioki'ko gotzaia joan zitzaion ikustatzera, eta gotzai onek agindu ziolako ebaki zuan katea. Baiñan ortarako errementari baten laguntza bearrezkoa izan omen zan.

Bakartasun-billa, mendira igo zan Simeon. Baiñan ez zuan bakartasunik aurkitu, egunetik egunera geiago bait ziran ikustera, entzutera, eta bere jantzi zarra ukitzera, joaten zitzaizkion jendeak.

Orduan etorri zitzaion, jendetza arengandik urruntzearren zutabe bat eginda bertan bizitzen asteko gogapen arrigarria. Zutabe artatik ordea, urruntasun geiagoren billa, zutabe luzeago batera aldatu zan, eta, bereala, bigarren ontatik, azkenekoa izango zuan irugarren zutabe garaitsu artara. Eta, "an bizi da oraindak ere" esanez amaitzen du Teodoreto'k bere liburuan, Donesimeon'en zonobitegitik zenobitegira eta zutabetik zutaberako atala.

Orrela sortu zigun, Elizarentzat, lekaidetza-kera berri bat, Simeon "Estilita" Doneak.

37 urte, laister esaten da baiñan egia da, ogei ta amazazpi urte bizitu zan Donesimeon "Aundia" bere zutabearen gaiñean. Eta ez noski zitu aundirik lortu gabe. Otoiketa luze eta penitentzi gogorak egiteaz gaiñera, mixiolari eta katekista arras yayoa gertatu bait zan. Bi aldiz itzegiten zien iguruan biltzen zitzaizkion jendepillo mardulei. Aren bizitza santu arrigarriaren otsak ekartzen zituan jende aiek, eta aren izkera santuak eraberriturik itzultzen ziran beren etxeetara.

Teodoreto'k bere begiz ikusi aal izan zuanez, lekaro aietako ardi-auntz-gamelu-zaiñek, beren abereentzako ur eta larreei-buruzko arazoak Simeonen'i ekartzen omen zizkioten, eta baita beste arazo larriago batzuk arabiarren leiñuetako buruzagiek, eta danentzat izaten omen zuan arek aolku argi-emaille bat.

Erromar-lurretan urrutiraiño eta gizadi-mailladian oso gora iritxi zan Simeon Aundiaren aipua. Galietatik idatzi zion Jenobeba Doneak. Eta Simeon il zanean, aren zutabea era egokian omendu ta gordetzeko, basilika bat egin zuan Zenon inperatoreak. Eta, soilki ortarako egiña izan zan jauretze orren barruan estalita gelditu zan Simeon'en zutabea. Sortalde guztiko basilikarik ederrena izan zan ura, Kostantinopla'ko Santa Sofia'ren ondorean.

459'ko irailaren 27'an il zan Donesimeon "Aundia". 600 gudari bear izan ziran, aren gorputzaren zatien billa irrikatzen urbildu ziran kristauen ekiñetatik babesteko, berunezko zerraldo batean sartuta Antiokrrairio osorik eramana izan zedin.

Berez eta bereiziki, Siri'ko gertakizuna izan zan Zutabegaiñetiko mixiolari aiena. Baiñan zabaldu zan, naiz ez ain kopuru ugarian Sortaldeko lurraldeetara, oso gutxi ordea, ia baterez, Sarkaldekoe-tara. Ala izan genituan estilitak Siri'tik at Palestina'n, Osroene zarreko lurretan, Mesopotami guztian, Ejito'n, Kostantinopla'ren inguruetan, Arabi'n eta baita, Arabi'ko erdiugartearen ego-egoan ere, gaurko Yemen'en, alegia.

Sarkaldean ez dugu ziurki zutabezale bat besterik ezagutzen Galietako Wulfranko edo Wulflaiko. Lonbardiarra zan odolez gaur-

egungo Frantzi ta Belxika'ren arteko Ardenetan zutabe baten gaiñetik mixioketan asi zan diakono au.

Tours'eko Gregorio'k bere "Historia Francorum" liburuan dionez, gotzaiak jetxierazi omen zuan andik itz aun bitartez: "Daramazun bizitza Simeon Deunaren tankerako gizonentzat sortua izan da. Zu ordea ez zera aren kidekoa. Eta, ezin izango duzu zutabe gaiñeko egoera ortan, zutik, ain alako penitentzi gogorrik jasan. Jetxi, eta itzuli zaitetz ba zure lekaidetxera, eta zure lagunartera, aiekingo alkar-tean bizitzera".

Gorpu-zigorketaren gogortasuna aipatu zion Wulfranko'ri bere gotzaiak. Zutik egon bear utsa naiko zigorra zan zutabezalearen gorputz makalduarentzat. Batez ere eguraldiaren aldetiko zigorrak ere gogora ekartzen ba'ditugu. Gotzaiak Wufranko'ri itze-gin zionean, an zegoan Tours'eko Gregorio: Bâ berak dionez, onako au esan omen zion zutabezale ark, zutabetik jetxi zanean: "Ardenetako negua ain gogorra dalako, izotzetan, zugaitzetatik zintzilika zeuden izozburruntzien antzekoak biurtzen zitzaizkiola bere bizar ugariko ille luze-matatsa luzeak".

Alare, gorpu-zigorketa ez zan zutabe-zalearentzat bere elburu bereizia. Lekaide eta mixiolari zan batera. Baiñan bereiziki, mixiolari, katekista. Bere eginkizun nagusia jendeari Jainkoaz itzegitea zan. Orregaitik igotzen zan bere zutabera gure apaiz sermoilariak pulpitura eta "muezin" musulmanak "minaretera" igotzen diran bezala

Baiñan sermoilaria izateaz gaiñera, lekaidea ere bazan zutabezalea-ta, orregaitik ez zan gure sermoilariak pulpitutik eta mu- eziñak minaretetik bezala zutabetik jeisten. Alderantziz, otoi- ketan eta penitentzigintzan jarraitzen zuan an. Aren otoitz eta zigorketak ez ziran izpirituz beste lekaideenak bezalakoak.

Eiburu bikoitza bait zuten aiek eta auek.

Beste lekaide aiek, bakartusunera jotzen zuten jeanderengandik iges-egiñez. Beren elburu apaltasun izkutuan santutasunaren gaillurrera igotzeko otoiketan eta peni- tentzi isillean aritzea zan.

Izkutuan dana. "Ez beza zure ezkerak dagianik zure eskubiak jakin" irakurtzen zuten Ebangelioan.

Zutabezaleek alderantziz, Ebangelio'ko beste esaldi au zuten maite: "Ikusi bitzate jendeek zure ekintza onak, Jainkoa gores dezaten". Eta jendeak beren penitentzi izugarria ikusi zezan, zutabeetara igotzen ziran, jendea, ikuisten zuanaz arrituta, ingurura bildu zedin, eta, orrela, aien itza entzun aal zezan. Ta bazan baiki bidegurutzetako zutabeetatik mintzatzen ziran mixiolari arrigarri aien bearra, landetako erri txikietan artzai, nekazari ta eskulangi-lleak, ia danak, jentillak bait ziran oraindik.

* * *

Zenbat izan ziran zutabezale aiek? Asko. "Udaberriz landetako toretxoak bezain ugari", eta "Ibiltariaren bidea alaitzen duten kriseilluak" zirala dio arabierazko olerki zar batek. Edestiarentzat olerkia oiñarri ziurra ez dala? Ez nozki. Baiñan zutabezale asko eta asko aipatzen ditu beintzat, baita monofisiten arteko batzuk ere, 619'an il zan Jon Muskus edestilariak bere "Pratum Spiruale" edo "Animen Larrea" izeneko liburuan.

Aien artean emakumezkorik izan zan? Bai noski. Izan genituan zutabeetara igo ziran emazkuzkoak ere. "Conocemos la existencia de una" dio Ignazio Peña Jerusalem'go prantziskotarrak. Eta geiengo-eran, emakume bat baiño geiago adierazi naiez, "references to women Stylites have been found"; ots, "aurkitu dirala zutabezale emeei-buruzko aipua", diosku "Enciclopedia Britannica" k. Egia..

* * *

Zer jaten zuten? Beste lekaideen antzera, bizitzeko bear-bearrezkoa zuten bakarra.

"Reclusi" edo "bere naiez baitutako" aiek bezala, zutabezale bakoitzak bazuan bere ikasle guztien artean ikasle bereizi bat. orri esaten zitzaion "discipulus" edo "ikasie": "Ikasle",

ta "jarraille" ta "morroi", guztia bait zan batera. garrantzi aundiko pertsona, ikasle, ori, eta jendearen aldetik eraspen aundikoa. Ikasle orri ematen zion jendeak zutabezalearentzako janaria, eta goitik beera jeisten zuan lokarri bati lotutako otartxo baten bidez bidaltzen zion ikasleak egun bakoitzeko "otordua".

Ona lekaideen otordua: ardoa eta aragia zearo zeuden debekaturik. "La repugnancia de algunos ascetas por la carne se refleja en el canon 30 del concilio de Seleucia-Ktesifonte en el que se equipara al monje que la come con el adÜltero" (Peña).

Asko eta asko ziran ogirik ere jaten ez zutenak. Egiazko okerkeri aundiraiño iritxi ziran auetako batzuk, Mikel "Siritarra" k idatzi zuanez. Bai omen ziran ba ogirik ez jateagaitik eta ardorik ez edateagaitik eukarsitirik artzen ez zuten eremutarrak.

Ogirik ez zuten jaten..., sutan egosia zalako; ez bait zuten suak erre, egosi edo berotu zuanik ezer agora sartzten. Sua erabiltzea lujozko gauza zala etsirik bait zeuden. Orrela, Mazedonio'k ez zuan ur otzetan txeeutako garagar-iriña besterik jaten. "Nere amak oretzen zion ai ori. Aren miresle aundia bait zan nere ama", -- diosku Teodoreto'k.

Sabino'k, egunero jana gertutzen aritzeagaitik otoitzari denborik ez kentzeko, illean bein egiten zuan jana: ur otzarekin iriña nasiz eratutako aia. Eta ai ortatik pixka bat jaten zuan egunero.

Beste askok, Ejito'koek batez ere, ez zuten belarra eta landareen-zaiñak besterik jaten.

Alare, Done Jeronimo'k dioskunez, Siri'ko eta Palestina'ko eremutarrak geienak askoz obeki (¿?) elikatzen ziran. Bai orixel! Naiz egunean bein, gatza ta ogia jaten bait zituzten. Baiñan ezagutu zuala, dio, egunean bein bost piku legor bakarrik jaten zituan eremutar bat. Bost. Ongi zenbatuak. Ez sei.

Baziran ordea egunero jaten ez zutenak: Telade'ko Eusebio'k astean iru aldiz jaten zuan. Julian Saba'k, Azepsimo'k, Polikronio'k eta Simeon "Aundia" k astean bein.

Alare, Siri'n eta Palestina'n beintzat ogia ta gatza ziran eremutarren otordua.

Ogia ta gatza besterik ez, eta egunean bein bakarrik, eguzkia jartzerakoan, ain zuzen. Lekaidetxeetako lekaideak bai, auek ere ordu berean eta egunean bein jaten zuten, baiñan jaki zituzten, gatza ta ogiaz gaiñera, olio, barazkiak, leka-ateak, eta, bere garaiean zugaitzetako fruituren bat, Jeronimo'k berak dioskunez.

Otoitzaz gaiñera Ejito'ko bakartiek lan egiten zutela esan dugu. Ez ala siritarrek. Auek langintzaren etsaiak ziran, lana munduko gauza izanik eremutar bakartia beste mundura begiratzetik ateratzen zualako. "Asf, el Libro de los Grados enseña que eI perfecta debe apartarse de Ia tierra, de su cultivo, y de todo trabajo y preocupa-ciOn material" (Peña).

Zenobitegi edo Iekaidetxeetan bizi ziran lekaideak bai, egiten zuten lana Sirn ere. Esku-lana bakarrik, asieran beintzat, ez ordea adimen-lanik, ori, jakintza-lana, mundukoikeria iduritzen zitzaielako. Izan ere kultura oraindik jentilkeriz beterik bait zegoan neurri aundian. Alperrikako gauza ere iduritzen zaien Grezi'ko filosofiarien jakintza guztia. Zertarako zuten lekaideek, Platon'ek edo Aristotele'k irakatsitakoak aztertzen saiatzea? Entzun Donibane Krisostomo jakintsu aundiari:

"Lekaideek eta bakartiek norekin izketan ari bear dute? Zugaitzekin eta txoriekin? Bere egoitzako orma, eta estalkiekin? Oianekin? Lekarotako ondarrekin? Ortarako ez dute noski kultur askoren bearrik".

Gero ordea, V mendearen erditik aurrera, izugarria izan zan jakintza guztien barrutietan Siri'ko lekaidetxeak egindako lana: "En los monasterios sirios se cultivo la filosoffa, la poesfa, Ia historia, la astronomfa y la medicina, tanto en griego como en sirfaco. Es la epoca en que la lengua siria pasa, por obra de los monjes, de lengua hablada que no se escribfa, a lengua cultural" (id).

Lekaide kristauek izan ziran ondarrezko Iekarotatik zetozen arabitar basatiei kultura irakatsi zietenak. VI mendiaz gero, lekaidetxeak izan ziran Siri'n kulturaren kabi ia-ia bakarrak. Ala

jarraitu zuten arabitarrek lurralde artako jabe egin ziranean. Ordurako, Grezi zarreko idazkirik geienak sirierara itzuliak zituzten lekaide aiek, eta gero, beraiek izan ziran edo sirieratik edo zuzenean eleneratik Grezi zarreko jakintza guztia arabierara itzuli zutenak. Geroago berriz, arabiarrek izan ziran kultura zar ura Sarkaldera ekarri zigutenak. Badute beraz lekaide langille aiek, benetan eskertuak izateko eskubiderik aski.

Gai oni buruz galde bat dagi ainbat aldiz aipatu dugun Peña Jerusalem'go prantziskotarrak: La decadencia cultural del mundo [☞]abe en oriente, ano tienen su origen en le destrucciOn de los monasterios cristianos, a rafz de la epopeya de las cruzadas? se destruyeron asi las fuentes del saber en oriente"?

Aundia izan zan kristau-erria-baitan lekaide aiei izan zitzaien eraspena. Baiñan baita leenagotik zetozen lekaioetako bakarti guzti aiei eskeintzen zitzaiena ere.

Bakarti aiek, jakiña, gotzaigo eta beste eliza-karguen billa ibiltzearen adiskide motzak ziran oso. Alare asko eta asko izan ziran Elizaren onerako beste irtenbiderik ez zutela ikustean, naiz samin aundiz, gotzai sagaratuak izatera makurtu ziranak. Beste askok ordea naiago izan zuten beren bakartasunean jarraitu.

Maite zituan jendeak. Aiengana joaten zan, al zuan guztian, jakiña, --ikusi bait dugu txit gauza zailla zala bakarti askorengana urbiltzea, aiek jendeagandik iges egiten zutelako Baiña aiengana joaten zan al zuan guztian aolku billa edo miratiren baten billa.

Ikus, eraspén aren adigarri bezala, Donesimeon Estilita Aundiari gertatutakoa, Teodoreto'k idatzi zigun eran:

"Ismaelitarum autem regina, sterilis cum esset, liberosque optaret, primo quidem missis quibusdam ex primoribus, ut mater fieret obsecravit: postquam vero compos voti facta est, peperitque ut optarat, natum regem accipiens ad divinum senem contendit: et quia mulieribus aditus non patebat, misso ad illum infante, rogavit ut benedictionem impetraret: "Tuus enim est, inquit, hic manipulus. Ego cum lacrymis precum semem contull: tu ex semine manipulurn eduxisti, divinae gratiae pluviam oratione tua eliciens".

Euskeraz: "Ismaeliten erregiñak, antzu izanik, semeak nai zitudan, eta bere aundikirik garaienak bidali zizkion, beretzat amatasuna eskatuz. Onartuak izan ziran bere eskariak, eta ain gogoko zuan bezala erditu zanez gero, argira eman zuan erregetxo artuta, agure jainkotiar arengana abiatu zan laisterka. Baiñan emakumeei ez zitzaien arengana urbiltzea zillegi-ta, aurra bidali zion itz auen bidez onespina eskatuz: "Zitu au, zurea da. Azia bai, nik eraman dut nigan azia otoitzez eta negarrez, baiñan azi ura zuk biurtu duzu zitu, zure otoitzen bidez berarentzat Jainkoagandiko graziearen euri bizigarria lortuz".

Irakurri duzuna irakurri ondorean ez zaitu zutabezale aiek lortu zuten eraspen aundiak" arrituko. "Penitentzigilleen artean "los m6 perfectos son los que han elegido la **statio** en las columnas y no se extienden para dornnir", idatzi zuan VII mendean Mar Denha zeritzan Tabrit'eko metropolitak, dioskunez.

"Lo egiteko ez etziteak" arritzen du metropolita zar ura. Dakusazunez aski, goxatu ziran VII menderako, penitentzigilleen oiturak. Lo egiteko ez etzite ori, legezkoa bait zuten leenago kontzilio baten aginduz, basamortuetako lekaideek: Ez etzitea, eta jantzita lo egitea.

XI mendean ezabatu zan zutabezaletza. Ez noski, ez orixe, Kristaudiari on eder aundirik egin gabe.

* * *

Ikusi dituzun lekaidetza oietan nabaritu duzu noski lekai-deentzako arrisku-biderik ugari.

Arrisku oiek Donebasilio'k ezabatu zitudan. Baiñan Basilio'k bere lekaideak, lekaide guztien gogo-ekintzak aztutzeke, gizarte lanerako eratu zitudan: adimen lanetarako, irakasketarako, gaixozainketarako., eta apostolutzarako.

Azkeneko eginkizun orrek bazezakean arriskurik izan: Bere elizbarrutietan apostolutza ororen buruzagi diran gotzaiekingo arazoak alegia. Basilio'k ordea, gotzai izaki bera ere' ederki

eragozi zituan mota ortako arazoak, gotzaiaren nagusitasuna sendo aitortu ta babestuz.

Ikusi dugun lez, laister igaro zan lekaidetza Sarkaldeko erri barbaritarren artera. Emen ordea, Donebenito'k eman zion lekaidetzari bere izakera bereizia. Baiñan, Sarkaldean lekaidetik geienak, --ia danak luzaro beneditarrak izango zaizkigun bezala, basilitarrak izango zaizkigu Sortaldekoak.

Iñor sekulan ukatzera ausartu izan ez aiñakoa dugu, lekaide aiek munduaren onerako mendeetan eta mendeetan egin ziguten lana. Ortaz ordea, erdiarolari opal dutako liburuetan mintzatuko gera.

* * *

Alatagutziz, lekaidetxeetako lekaideen biziera errez ulertzen ba'dugu ere, arras ulerkaitza gertatzen zaigu gaurko gizakumeoi, basamortu, lekaru, gela estu, zugaitz, leize-zulo ta zutabeetan bizitu ziran aien jardunkera. Izan ere, -- aro bereizi bakoitzak bere era bereiziak izaten dituala kontuan artuta ere galde ta kezka asko sortarazten bait dituzte gure barruan gizon eta emakume aien oitura arrigarriek:

Zutabeetan beti zuti, ez bait zegoan an eseritzerik eta beti jendez inguraturik bizitu ziran aiek, non eta nola egiten zituzten gorputzak bereak dituan bearkizunak, goi artatik lurrera iñoiz jeisten ez ba'ziran? Zutabeetan bertan, jazten zituzten soiñeko baldar luzea aien babesean zutik. Entzun arazo auetan bereiziki jakintsua dan, eta, oraindik Siri'n badirauten zutabe aien aztarnak arretaz aztertu dituan Peña'tar Iñaki frantziskotar euskaldunari:

"Examinando la columna del estilita Yonthl en Kefr Derion (Siria), hemos observado señales de canalizacibn en la base de la columna. Esta canalizaciÓn no parece haber tenido otro fin que servir de evacuacidn de las aguas sucias. Probablemente existfa un tubo que bajaba de la plataforma, donde vivfa el estilita, a la base. Nuestra opiniÓn esta confirmada por la existencia, a l'50 metros de

la base, de una cavidad natural de la roca, adaptada seguramente a servir de pozo negro. Hemos observado los mismos elementos higiénicos en las columnas de Kimar y de Brad". La columna del estilita de Kherbet Deir al-Amud, al sureste de Jerusalén tiene un conducto de 0'15 metros de anchura tallado de arriba abajo en cada fragmento de la columna"

Ta... soñaren garbitasunari ez al zioten lekaide-lekaime aiek garrantzirik ematen? "El capítulo de la higiene, tal como la concebimos actualmente, harfa sonreir a estos hombres dados a la práctica de la más ruda ascesis. La higiene, punto capital de nuestra existencia, parece que no tenía importancia en la vida de algunos ascetas" (id). "Batzen" bizitzan bakarrik ez baiña, "asceta" guzti aien bizitzan ez zuala garbitasunak garrantzirik, esango nuke nik.

Lekaidetxeetan bizi oi ziranek bai, gorde oi zituzten gizartean bearrezkoa dan soin-garbitasunaren arauak. Beste aiek ordea, soñaz ezertarako ez arduratzea zuten arau nagusienetako bat.

Ala, Prokopio'k dioskunez, "Melania se vanagloriaba de haber llegado a los sesenta años sin que el agua hubiera tocado su cara, ni sus pies. Se lavaba únicamente sus manos los días que recibía la comunión" (ib). Orregaitik esaten ote zioten Melane? Elenerazko "menlane" ori euskeraz "beltza" dalarik, zikintasunez aski beltza egongo bait zan naitanaiez Melani aren aurpegia.

Efren Donea, bere garaieko lekaideen "kalpar kolpetsuaz" eta "azkazal luze-luzeetaz" mintzatzen zaigu. Al. Baiñan benetako eraspen aundiz!

Eraspen berdiñaz mintzatzen zaigu Teodoro ere, Donesimeon Zarra'z:

"Gizon zikiña --omen zan izardi-koipez zakartua, aker-larru zaldu gabeaz baldarki jantzia. Kalparra, luzea ta zikiña, iristen zitzaion oiñetaraño goitik beera". Bein Simeon Zarra bere miresle-talde ugaritsu baten aintzinean, Sina-Mendi'ra joan omen zan erromes, eta bidean, bera baiño lekaide zikiñago bat aurkitu omen zuan, "basatia zearo, buruko illedia zolda utsa bihurturik. Era

ortan, palmondo-orriz al izan zuan era arlotean tajututako soiñeko z jantzita, ezurruts illa" omen zirudian.

Jeronimo donea bi urtez egon zan Kalzis'ko lekaroan. Berak dionez, "edozein ikartzeko bezain bildurgarria bai omen zan -- zeraman itxura": "Soiñeko arlotearen barruan nazkagarri zegoan benetan nere gorputza, eta etiopiar batena bezain beltz biurturik nere larru guztia".

"En fin, estos solitarios de miembros esqueléticos, de vestidos sdrdidos, ceñidos sus cuerpos con collares de hierro, debfan infundir espanto a los refinados habitantes de las ciudades romanas y excitar su curiosidad" (Id).

"Espanto"? "Ikara"? Bai, jende txukun jentillei. Ez ordea jende txukun kristauei. Auengan ikara ez baiña, mirespena, eraspenna ta maitasuna sortzen bait zituan bakarti aien biziera latzak. Baita, ikusi aal izan dugunez, inperatore beraiengan ere!

Ta... bakarti aiek ez ziran beññere gaizkitzen? Bai noski. Batez ere, "reclusi" edo etxola txiki illun batean itxirik bizi ziran, eta "stilita" edo zutabe-gaiñean beti zutik egoten ziran aien artean, gaixotasuna ez omen zan gauza arrigarri.

"El modo de vida de nuestros ascetas, reclusos y estilitas, con todas las incomodidades que comportaba: aislamiento, inmovilidad, posicidn firrne, exposicidn a las intemperies etc. provocaba graves enfermedades. Estas pruebas soportadas durante toda una vida, llegaban a crear fendmenos psfquicos, fcilmente comprensibles, y desórdenes circulatorios sobre los que apenas nos hablan los biógrafos" (id).

Ikus ditzagun, Teodoreto'ren liburutik artuta gaixotasun aien adigarri batzuk:

Karres'ko Abraan, beti zutik egon zalako, zearo gogorturik gelditu zan. Geiago ibiltzeko gauza ez zala.

Gauza ber-bera gertatu zitzaion Jakoba Aundia'ri ere.

Asijas'ko Eusebio'k, erabilli ez izatearen ondorioz agoko ortz eta agin guztiak galdu zituan. Ortz eta agin guzti aiek, an alperrik zeudela oarturik, iges egin zioten noski ago artatik.

Izan zan, egoera jasan-ezin artan txorabiatuta, erotasunera jausi zanak ere.

Ainzuzen, arrisku oiek ere gogoan artuta asi ziran Pakomio aurrena eta Basilio gero lekaidetzaren eraberriketan.

Ez ezazu alare uste, bizitzarik gogorreneko lekaide aien artean gaixotasunak eguneroko arazoa ziranik. Ez orixe!" Alderantziz luzaro bizi oi ziran larru ta ezur biurturik zeuden gizonezko ta emakumezko done aiek.

Aipatu dugun Asijas'ko Eusebia adibidez, agoko otz eta agin guztiak galduta ere, larogei ta amar urterekin il zan (Teodoreto).

Maris'ko Omero, después de pasar treinta y siete años emparedado, sólo salló de su reclusión después de muerto, a los noventa años" (Peña).

Rosus'ko Erroman ere etxolatro bateko lau ormen artean itxirik bizitu zan zar-zarra izatera iritxi arte, "argirik gabe eta surik gabe" (Teodoreto).

Galazi'ko Kepa eun urte betetzeraino iritxi zan bizierarik latzanean.

Jakoba "Pertsiarra" k berriz, eun da lau urte bazituan Jaunak beste mundura eramán zuanean.

Orregaitik, "leyendo las vidas de nuestros ascetas comprobamos un hecho paradójico. Parece como si la falta de higiene y la práctica de la vida más austera, no hubiera comprometido su longevidad. Los viejos de cabellos blancos abundaban en los eremitorios" (Peña).

Eremutar aien garaieko gizon santu, jakintsu eta biziera latzetaz asko zekian batek, Jon Krisostomo'k emango digu "paradoja" edo arrigarrikeri orren azalpena: "decfa el Santo que la sobriedad es madre de la salud y remedio preventivo de todas las enfermedades" (id).

MIREN NESKUTSA JAINKOAREN AMAGANAKO ERASPENA

Laugarren mendean asko dira, erri kristauak Miren Neskutsarion eraspenaz mintzatzen zaizkigun dokumentuak. Aztertu-berri ditugun lekaide miresgarri aiek ere Miren Neskutsaren maitale sendoak izan ziran.

Miren'ganako eraspen orri IV mendeko Kontzilio Ekumenekoi aundi aiek eman zioten bein betirako sagarapena: Nizea'koak, Irutasuneko Bigarren Pertsona Jainkoa zala dogma egin zualako; eta Nizea'koak eta Kaitzedoni'koak Irutasun Doneko Bigarren Pertsona ura, Miren Neskutsak erditu zuan semea berbera zala dogma biurtu zualako, orrela Miren Neskutsa Jainkoaren Ama, ots, "Zeotokos" zala egi-sinesbearra egiñez.

Baiña, aurreko mendeetan zer bide erabilli ote zuan Miren'ganako eraspenak.

Ebangelio beraietan agertzen zaigu, aurrena, Miren Neskutsaren izena.

Alare, badira kristauak, Ebangelioetan Miren oso gutxi agertzen dala uste dutenak.

Atzipeturik dabiltz. Ebangelioetan gutxi ez baiña ugari, txit ugari, agertzen bait zaigu Miren'en izena.

Ebangelioak Josu'ren bizitzari-buruzko dokumentu labur ofizialak dira. Idazti "publikoak". Miren ordea ama izan zan, eta orrelako dokumentu ofizialetan ez da amaren izenik aipatzen. Ama, ama oro, sendiaren barrengo pertsona oi da. Maiteena, baita garrantzitsuena ere bearbada, baiñan soilki sendi-barrengo

pertsona. Ez da pertsona "publikoa". Ez da Laterri eta Laterri-Era-kundeetako legedien mundukoa; biotzetatik sentimentu sakonen mundukoa baizik.

Orregaitik, dokumentu publikoetan eta orrelako idaztietan ez oi da amaren izenik agertzen. Zenbat aldiz ez zan aipatzen eta goraiatzen egunero, ofizialetan ez ez idazti-mota guztietan, Franko'ren izena, bere agintaritzakoan jainkoturik egon zan aro luze guztian? Zenbat aldiz aipatu zan ordearen amaren izena? Beñere ez! Bai aldakizu zuk zerorrek andrearen izenik? Oroi gure bizitzan ezagutu ditugun gizandi on eta gaiztoak: Lenin, Churchill, Stalin, Mussolini, Hitler, Roosevelt, Jonson, De Gaulle, Adenauer... Izen oiek danak ezagunak dituzu. Ezagutzen al duzu gizaseme oietako bateren baten amaren izenik?

Orregaitik diot asko ta asko agertzen dala Ebangelioetan Miren Neskutsaren izena.

Ebangelioek gauza ederrak esaten dizkigute Miren Doneari-buruz:

- Jaunaren AMA izan zala;
- Jaunaren ama NESKUTSA izan zala.
- Beragan "gauza aundiak egin zituala Alguztidunak"
- Zorionsua zala "sinistu zualako". Edo berdin duguna, bera izan zala Kristo sinisten aurrenekoa, ots, bera zala lenengo kristaua.
- Guzti orregaitik belaunaldi guztiek esango diotela zorionsu.

Ez al da naikoa Eliz gazte artako elizkideen barnean Miren Donearenganako eraspena piztuerazteko?

Bai. Asko eta ederki mintzatzen zaizkigu Ebangelioek Miren Doneaz. Gaiñera, "Luc et Jean nous apprennent qu'elle est objet de l'amour de Dieu et sujet responsable engagé de maniere exemplaire dans ('histoire du salut" (Catholicisme): "Miren Jainkoaren maite-naiaren koka-leku bereizia izan zala, jakiñerazten digute Luka'k eta Jon'ek eta saibapenaren edestiari eredu lez era berezian lotua, berak ortarako bere onspena yareki eman zuan ezkeron".

Bada noski guzti ori, kristau zaar aien artean Miren'ganako eraspena piztutzeko naiko txinparta guri.

* * *

Esaten ari naizen guzti onek Ebangelioetatik kristau-komunitatera abiatzea ba'gera bakarrik izan dezake zentzurik. Ez kristau-komunitatetik ebangelioetara joaten ba'gera. Au, azkeneko au, izan zan ordea Ebangelioetako mamiaren ibilbidea. Komunitatetik Ebangelioetarakoa. Ebangelariak komunitate kristauak sinisten eta ospatzen zuana jaso besterik ez bait zuten egin.

Beraz, Ebangelioetan aurkitzen ditugun Miren Neskutsarenganako goratzarre oiek danak Ebangelioetara kristau-komunitatearen ezpaitzetatik jasoak izanik, besterik gabe adierazten digute erri kristau gazte ark Miren Neskutsari zion fedea. Eta eraspena. Eta maitasuna.

Alatagutziz, Bidaliek ez digute beren Epistoletan-da eraspenaren berririk emango. Beste bat bait zuten beren eginkizuna: Itun Berriko Kerigma zabaltzea. Kerigma orren mamia berriz, Josu bera zan: Josu gurutzean illa, obiratua, eta berbiztua.

Alatagutziz, Jon'ek bere Apokalipsian aipatzen duan zeruko emakume artan Miren neskutsa ikusi izan du beti Elizak. Ori ikusi ote zuten I mendeko kristau errikoi xeeek ere?

Bai, seguruaski. Bai, apokalipsi-erako izkuntzara gu baiño oituagoak zenelako; eta, baita, emakumearen irudia aurkeztean Jon'ek aipatzen duan, "emakumearen aurka borroka zegian sugetzar" ura, kristauak Miren Neskutsa oroi zezaten, asmo osoz aipatua izan zala dirudialako. Izan ere, laister ikusiko dugun lez, "Ebe - Miren" kontrajarketa edo alderantziketa, txit gogoeta kuttuna izan bait zan lenen kristauen eraspenean. Gaiñera, Apokrifoek erakutsiko digute zeñen aundia zan II mendearen asierako kristauak Miren Neskutsari izan zioten jaiera.

Miren'ganako eraspena Kristo'ganako eraspenaren barruan sortu zala, diote gaurko mirenitzaileek. Ez dute ezer aundirik

esaten: Kristo'ren jaiotza ospatzerakoan naitanaiezkoa bait zan sortzea eman zion emakumea gorestea, edota Kristo'ren eriotza gurtzerakoan gurutzapean zutik egon zan Kristo'ren ama eraspen eta maitasun aundiz gogoratzea.

Guretzeko azken-une aietan ama ta seme bezala lotu zituan Kristo'k bere oiñetan zekustan Miren bere ama eta Jon bere ikasle maitea. Ekintza ortan, Jon'engan kristau guztiok ikusi izan gaitu Elizak, eta Kristo'k amatzat bere ama bera eman nai izan zigula uste izan du.

Orrela pentsatzen ote zuten I mendeko kristauek ere? Bai seguruaski, Jon'ek, eleneraz, Josu'ren itzaldi arri eman zion idazkera gogoan artzen ba'dugu.

Izan ere, "L'evolution structurale des articles et pronoms personnels rapporté au mot Mère, cinq fois employé pour désigner Marie et Jean, confirme cette conclusion" (ib): "Ama itzari erantsitako eta Miren eta Jon aipatzeko bost aldiz erabillitako artikulua ta pertson-izenordekoen jokaerak ondorio ortara bait garamazki", II mendearen asierako kristauek berriz ederki ulertzen zuten Jon Ebangeliaren idazkera.

II mende ori aurrera doala, gero ta ugariagoak ditugu kristauek idatzitako liburuak, eta liburu oietan ugari ta pozik mintzatuko zaizkigu Miren Neskutsaz garai artako teologilari aundiak. Orrek ordea Mire'nenganako eraspenna leenagokoa dala adierazten digu: sendo pizturik zegoala I mendean ere. Erliioari-buruzko gaietan, beti, erri kristaua izaten bait da auresku; atzesku berriz teologilariak. Atzesku... aski bitarte aundiz gairiera! "El creciente interés doctrinal por la figura de la Virgen demuestra indirectamente la existencia de una devoción y de un culto marianos, ya que la historia enseña que la teología nace de la piedad, y no viceversa" (Gambero).

II Mende ortan Elizako teologilarien kezkarik aundiena Eliz gazte aren sinispidea mota guztietako erejietatik aratz eta garbi gordetzeko al zuten guztia egitea izan zan: aneika sortu ziran ereji

gogor aien okerkeria kristauei eta ereje beraiei argi ikustaraztea, eta, al ba'zan, ereje aiek Elizaren altzora erakartzea.

Ori izango da II mendeko idazti guztien gaia. Alare ez dira idazle aiek Miren Neskutsaz aztuko.

Eliz gazte aren altzoan martirietaz Miren Neskutsaz baiño geiago idatzi zala? Bai noski. Or ditugu lekuko "Acta Martirum" edo "Ziriopen Egintza" ugari aiek. Ez da arritzekoa. Len aipatu ditugun gure denborako gizandi aien amarik ez duzu bearbada ezagutuko baiñan bai aien laguntzaille eta gudalburuenak: Montgomeri, Patton, Mac Arthur, Goebels, Ciano Kontea... Auek danak beren agintariak bezala pertsona "publikoak" izanik, asko idatzi bait da beraiei-buruz.

Ba, orixe bera gertu zan antziña artako Elizan ere. Martiri aiek Kristo beren Buruzagia bezala pertsona publikoak bait ziran: munduaren aurrean Kristo'ren lekuko edo testiguak. Miren berriz, "ama", sendiaren barrengo pertsona maitea, baiñan beti ere sendi-barrengo! Alare, esan dugun bezala, ez zuten, ez orixe!, II mendeko idazle eta teologiariek azturik utzi Miren Josu'ren ama. Eta, esanik utzi dugu au ere orrek, Miren'ganako eraspena askoz leenagotik, I mende berberatik, zetorrela adierazten digu.

Ala, II mendearen asieran ainzuzen mintzatzen zaigu, Josu neskuts batengandik jaio izatearen misterioaz, 107'garren urtean, arras agure zar adintsua zala, martiri il zan Antioki'ko Iñazio Donea, garai artako gizandi kristaurik arrigarriena.

Ikus done maitagarri aren itzak, oraintxe argitaratutako "Eliza Katolikoaren Dotriña-Liburu" berriaren gatzelerazko itzulpen ofizialeetik jasoak: "Estffis firmemente convencidos acerca de que nuestro Señor es verdaderamente de la raza de David segtin la carne, Hijo de Dios segtin la voluntad y el poder de Dios, nacido verdaderamente de una virgen

Ez da, -- Miren Donea goresteke eginkizun ortan bakarra izango Antioki'ko Iñazio Donea, antziñako garai zaar aietan. II mendeko teologilari aundi guztiak, Ireneo, Justino, Tertuliano...

Eliz gazte artan Miren Neskutsari izan zitzaion eraspenaren lekuko bait ditugu

Miren Donearen neskustasuna, eta Miren Neskutsaren amatasun jainkotiarra izan zituzten gairik bereizienak erejien aurka. Teologilari baiño geiago bait ziran gizon aiek apologilari. Orregaitik, ia erejeek ukatutako egi sinesbearretaz bakarrik mintza oi ziran beren liburuetan. Erejerik izan ez ba'litz ez genduan ezagutzen dugun bezala ezagutuko garai artako kristauen sinispidea.

Urte batzuk geroago, misterio ortaz ariko da 150'garren urtearen inguruan juduen aurka Erroma'ko Justino Donea "Trifon'ekingo Alkarrizketa" deritzan idaztian.

Justino'k gaiñera, bere-egingo du eta arreta aundiz sakonduko digu I mendean Jon Ebangelariak Apokalipsian aurkeztu zigun Miren eta Ebe'ren arteko arreman misteriogarri ura.

Badirudi Ebe eta Miren'en arteko alderantzipen ori gai maitea izan zala II mendeko kristau aientzat, gai ori bera bir-artuko bait digu urte batzuek geroago Lyon'go Ireneo Doneak, alderantzipen orren zentzua, gai orrek "geroago iñoiz izango ez duan sakontasunaz agertuz" (id): "Avec une profondeur qui ne sera jamais

Bai Donejustino'k eta bai Doneireneo'k eginkizun ortan ipiñi zuten benetasunak, ez al du Miren'ganako eraspina askoz Ieenagotik erria-baitan sakonki erroturik zegoala adierazi nai?

Ona, euskeraz, Ireneo Deunaren arrazoiketako zati bat:

Kristo'k mundua, Paul Doneak dion bezala edestiaren "recapitulatio" edo "burutik-artze" bat egiñez salbatu zuala esan, eta edestiaren buruan Miren eta asieran Ebe ipiñiz gero, orrela jarraituko digu:

"Neskutsa zan oraindik Ebe, baiñan Ebe neskutsak, ez zuan Jainkoari obeditzen jakin; eta, orregaitik, bai beretzat eta bai gizadi guziarentzat. ondamen osoaren iturri biurtu zitzaigun. Miren

neskutsak ordea Jainkoaren aingeruari apalki obeditzen jakin zualako, bai beretzat eta bai gizadi guztiarentzat salbamen ororen iturria iriki zigun. Eta era ortan, bera ere salbamenaren iturri biurtu zitzaigun.

"Egiazko kontraposizio edo alderantzipena, Miren eta Ebe'ren artekoa. Lotua izan dana askatzeko, len korapilloa egiteko erabilli diran ariak, banaka, aurkako eran bir-erabiltzea beste biderik ez da izaten. Orrela bigarren ekintza onek ezabatzen du lenengoa eta bigarren ekintza au lenengo aren ezeztapena gertatzen da.

Oldozkera aski naasi orren bidez, au da Ireneo'k esan nai diguna: Jainkoak orrela nai izan dualako, Ebe'ren ekintza ezerezteko bearrezkoa izan zala Miren'en ekintza, eta gauza egokia dala, mundua emakume baten ekintzak ondatu zualako, munduaren ondapena ezerezteko beste emakume baten ekintza bearrezkoa billakatu izatea. Ondamen-salbamen-edestian, Ebe emakume neskutsa izan zala edestiaren oiñarri, eta Miren emakume neskutsa berriz edesti orren buru.

Teologi orren araura, txit egoki, "causa salutis" esan zion Ireneo Doneak Miren neskutsari: "Salbamenaren Iturri".

Beste gauza batzuk ere aurki dezazkegu Ireneo Deunaren teologi orren gunean:

- Giza-endaren batasuna;
- Gizadiaren altzoan emakumea eta gizakumea alkarren kide dirala;
- Gizadiaren ondamenean emakumeak lenen maillako eraginmena izan zuan bezala, lenen maillako eraginmena izan duala gizadiaren salbamenean ere.

Arrazoi osoz beraz "Causa Salutis" izen-eman zion Ireneo Doneak Miren Neskutsari. Eta, edestiaren oiñarri izandako Ebe bera ere, edestiaren buru gertatu zan Miren Neskutsaren bidez salbatu zala adierazteko, dotore esan zion "Advocata Evae" edo "Ebe'ren Babesle", Miren Neskutsari

Justino ta Ireneo'z gero, laister kidatuko dira Miren Neskutsa eta Eliza "neskutsa" ere, izadizgaindiko bizitza baten sortzaille lez.

Baiñan "la primera Iglesia daba gracias a Dios por los grandes cosas que habfa hecho a travs de Marfa antes de extenderlas a la Iglesia" (Garcfa Llata).

II mendekoa dugu Sardes'ko Meliton'ek pazkoz egindako omili bat. Omili ortan Josu erditu zuan "Ardi Garbia" esaten dio Miren Neskutsari.

Pazko egunez, Pazko-Bildotsa ospatzen zuan orduan ere Elizak. Jon Batailariak, Itun Zarreko pazko-bildotsa buruan zuala, "munduko pekatua kentzen duan Jainkoaren Bildotsa" lez Jordan ibaiean aurkeztu zuan ura bera. Guzi ori gogoratuz, Jainkoaren Bildotsa eta Jainkoaren Bildotsa erditu zuan "Ardi Garbia" erarik politenean alkartu zituan Meliton sardestarrak.

Beste gauza bat ere atera daiteke bere omili ortatik. II mendearen bigarren erdian, Neskutsa esatea, ez zala neskatil baten izaera adierazi nai izatea, Miren aipatzea baizik. Soilki, gaur bezala, --Ia Virgen Miren Josu'ren ama aipatzea zala.

* * *

Teologilarien idazkietaz gaiñera, izan zan H mendean beste literatura kristau bat ere: Apokrifoena ainzuzen.

Apokrifoak ez dira Jainkoak goi-argitutako liburuak, baiñan garai artako giroa ezaguerazteko balio aundia dute. Orra ba: II eta III mendean ugari agertu ziran apokrifoek maiz eta ugai oso ugari — eta era txit goresgarrian mintzatzen zaizkigu Miren Neskutsaz,

Miren Neskutsari erri kristauak zion eraspnaren adigarri!

Egia da neurri zintzotik ere irtetzen dirala Miren goratu naiean asten diranean. Baiñan geiegizko goratzarre oiek ez dituzte, geienbat beintzat, beraiek beren buruz asmatuak, erri kristauaren siniskerietatik jasoak baizik. Baiñan geiegikeri orixe bera ere erri kristau arek Miren'i zion maitasunaren ezaugarririk bikaiñenetakoa dugu. Eta ori bera adierazten digute apokrifoan idazleek armatuak izan daitezkean beste geiegikeriek ere. Aiek, erri kristauaren gurariari erantzuteko asmatu bait zituzten.

Orregaitik izan zuten apokrifo aiek alako arrera maitekorra, eta ain sendo sustraitu ziran kristauen biotzetan asmakizun aiek. Batzuk Elizaren liturgira igaro ere igaro bait ziran! Jokin eta Ane, Miren Neskutsaren gurasoen izen biak adibidez. Edo Miren neskatoa Jerusalem'go Jauretxean Jainkoari eskeiñia izan zaneke jaia. Erdiaroko literatura eta ertia, apokrifoetako gaietaz beterik dagoz.

II mendekoa da, seguruaski Siri'n idatzia izan zan "Jakoba'ren Protoebangelioa" deritzan apokrifo. Egiazko eraspenez damaizki-gu, berak asmatuak?, erriarengandik jasoak? Miren'en sorkuntzari-buruzko onako xeetasun pitxi auek:

- Ane eta Jokin izan ziran Miren Neskutsaren gurasoak.

 - Biak adiñez zarrak, eta umerik gabeak.

- Seme baten eske jainkoari otoitz egiteko basamortura joan zala Jokin, eta eske bera egiñez, etxean gelditu zala otoitzean Ane.

- Aingeru bat agertu zitzaie, Ane'ri lendabizi, Jokin'i gero, Jainkoak beren eskaria entzun zuala mezu-emanetz.

- Ori jakitean, pozaren pozez alkartu zirala biak, eta besarkada artan, Jokin'ek eman zion musuaren eragiñez, birjintasun osozko eran sortu zuala Ane'k erraietan Miren bere alabatxoa.

 - Ane'k ez ziola bere alabatxoari titirik eman, legeak agindutako garbikuntza bete zuan arte.

- Miren, iru urteko neskatoa zala, Jerusalem'go jauretxean Jainkoari eskeiñia izan zanean.

 - Ordurarte ez zituala neskatoak oiñak lurrean ipiñi. Oin sagaratu aiek ukitzen zuten aurreneko lurra lur sgaratua izan zedin?

 - Jerusalengo Jauretxean aingeruek elikatu zutela.

 - Apaiz Nagusiak berak aukeratu ziola senarra, eta Apaiz arek berak eratu zuala Miren eta Joseba'ren ezkontza.

- Josu erditu zuanean, an egon zala sorzain bat Josu jaio ondorean ere Miren birjin gelditu zala egiztatu aal zezan.

Orrela jardun oi dira Miren'i eta Josu eta Josu aurtxoari-buruz apokrifoek, Ebangelioek diotena ipui utsezko pitxiz ornituz. Jakiña izango duzu noski, zenbat mirariz bete zuten Sendi Donea'k Erodes'engandi igesi Ejito'ra egin bear izan zuan ibillaldia.

Ori dana ipuikeri utsa dala eta edesti-liburu batean aipatua izaterik ez duala merezi? Oker zabiltz. Ipui oiek sortu ziran giroan Miren Neskutsari zitzaion maitasuna zein en aundia zan iragartzen bait digute.

Ebangelioek, idazti ofizialei dagokien bezala, laburrak dira, eta legorrak. Kristauek xeetasun geiago eta goxotasun geixeago nai zituzten, Ebangelioetan maitagarri agertzen zitzaizkien pertsonen buruz. Miren Neskutsari-buruz, bereiziki. Lei sutsu orri erantzuna emateko sortu ziran apokrifoak. Eta, erriak "irrika aundiz irakurriak izan ziran; eta geienen artean egizat artuak": "were eagerly read and largely accepted" (Cath. Enc.).

I eta II mendeetako kristauek ari galararik entzun dezaio gun Garca Llata irakasleari: "Nos centramos primeramente en lugares y textos del ambiente judeo-kristiano palestiniense. Aunque sometidos todavfa a investigaci3n, recientes descubrimientos arqueoldgicos han echo suponer la existencia de una primitiva veneraci3n a Marfa y de una teologfa que la sustentaba. En este mismo ambiente florecieron tambiM escritos ap6crifos y **composiciones pofficas de probable uso** (Azpimarraketa, nerea).

* * *

Arkeologia edo "antziñiztia" aipatu digu irakasle orrek. Ona, gai orri-buruz damaizkigun xeetasunak:

- 1.955 eta 1.960'a bitartean Nazaret'en "Miren'en Etxea" esan oi zaionaren aztarnak argitaratu ziran Anuntziazio edo Iragarpenaren Jauretxeko ondo atxurtuz. Judu-kristautasunaren denborako eliz bat agertu zan, Miren bizitu omen zan etxearen omenez eraikia. Ots ordea! Kristautasunaren lenen garaiean eraikia! Elizatxo aren ormak, bertara joandako kristauek Miren'en omenez egindako idazkiz beterik dagoz. Ona, 11 eta III mendeko idazki bi.

Idazti oiei, beste idazti zar askori bezala, izki batzuk falta zaizkie. Gerkeraz idatziak dira. Baiñan eleneratik, eta beste edozein izkuntza indeuoparretik euskerarako zuloa ain aundia dalako, falta diran izki oiek gazteleraz errezago eman daitezkealata, Garcia Liata'k dakarzkian bezalaxe, falta diran izkiak mako-tartean gazteleraz emango dizkizut.

Aurrenekoa, bertan bere izena ezarri zuan emakume batena da:

"(Yo N. postra)da
bajo el Lugar Santo de M(aria)
inmediatamente escribf allf (el nombre?)
la efigie adornada
de Ella".

Eta idazki orren zentzua au omen da: Emakumezko erromes arek, bere eta bere sendiaren izenak idatzi omen zituan elizatxo aren orma batean, eta Miren'ganako bere maitasuna agertzeko, aren irudia apaindu duala esaten omen dio.

Laburragoa da bigarren idazkia baiñan garrantzi aundiagokoa: Aingeruak Miren'i agertutako mezuaren asiera: Agur Maria. Eta an dagoan bezala, eleneraz: "XE MAPIA".

Garrantzi aundiko idazkia; ordurako Elizak, otoitzerako "agurmaria" erabiltzen zuala adierazten bait digu seguruaski.

- Leenago, 1.937'an Jerusalem'dik ez urrun, Ain Karen uriskan, itxuraz Jokin eta Elisabete Jon Batailariaren gurasoen etxea zanaren ondakiñak agertu ziran. Ondakin oiek I mendekoak dira. Eta ondakin aiek benetan etxe aren ondakiñak dirala uste aal izatearen oiñarri ditugu, uste orrek eraginda toki artan, Miren'ek Elizabete'ri egindako ikustaldiaren omenez, edestia-zear eraiki diran jauretxeak.

- Belen'go uriaren alboan, abereen estalpe eta gizakumeen bizileku izandako leize-zulo bat agertu du arkeologiak. Zalantzarik gabe leize-zulo ori, oso-oso-oso goiz, I mendean bertan, Josu'ren eta Miren'en omenezko otoiztegi izan zan kristautentzat, bestela ez bait du zentzurik, 117'garren urtean agintaritzza artu zuan Adriano inperatoreak leize-zulo ura indarrez ankapetuta, bertan Benus eta Tammuz'en irudiak ipiñi izateak.

Tammuz, il eta berbiztu zan sasijainko bat zuten jentillek, eta ezpairik gabe leize-zulo artan Josu'ren irudi edo beste adigarriren baten ordeztu Adriano'k ipiñia. Benus berriz senarrik artu ez zualako "neskutsa" esaten zitzaion jainkeme lizun lizunkeriaren zaindaria. Miren Neskutsaren lekuan izan zan toki artan jarria.

Kristauekin biguiña izan zan Adriano, Belen'go toki artan, eta Belen'go toki artan bakarrik ori egitera iritxi izateko, 117'a baiño leenago naitanaiez izan bear zuan toki arek Josu ta Miren'en omenez eraspen txit aundiko tokia. 117 baiño leenago, alako arrakasta! Noiztik asita? 100'garren urtetik asita? Leenagotik? Noiz il ote zan Miren Neskutsa bera?

Ori, Adriano'k Belen'en bakarrik egin zuala esan dugu, baiñan naiz ori bera ez, egin zuan orrelako zerbait Jerusalem'go Kalbari-Mendi'n ere, arkeologiaren atxurketak agertu digunez. Kristo il zan tokia kristautentzat gurketa-leku bereizia zalako, Kristo'ganako gurketa ura ezereztarren, an Osiris sasijainko ejiptziarraren "misterio" edo "izkutuko gurketak" egitea agindu zuan. Osiris ere, errurik gabe illa izan ondorean berbiztu egin zala erakusten bait zuan mitiztiak.

Naikoa izango zuan Adriano'k Osiris'en gurketa agintzea, Kalbari-Mendi'n kristauek Josu bakarrik gurtu ba'lute. Baiña bazekian berak, an beste norbait ere omentzen zutela judu-kristau aiek, Miren Josu'ren ama alegia, eta Miren'neganako eraspen au ezerezteko, Osiris'en illeta egin zuan eta aren gorpuaren zaindaria izan omen zan Isis jaikemea ere Osiris'ekin batera an bertan gurtzea agindu zuan.

Egia da Inperatoreak edo aren izenean bi toki sagaratu oien lizunketa egiharazi zuten ordezkariak ez zutela Josu'ren eta Miren'en izenik aipatu. Baiñan zer beste elburu izan zezakean kristautasunaren bi tokirik sagaratuenetan Josu jaiotze eta il zan tokietan sasijainko eta jainkeme baten gurketa indarrez ezarri nai izateak?

Bietan jainkeme bat ere sartu izate orrek berriz, toki aietan judu-kristauek ez zutela Josu bakarrik omentzen, arekin batera

Miren Josu'ren ama neskutsa ere omentzen zutela, adierazi nai digu.

- Oraindik atzo, I.972'an, ikerketa bat egiña izan da "Miren'en Illobia" esan oi zaion jauretxean. Ikerketa orrek agertu duanez, eliz ori arri gorrian irikitako illobi baten gaiñean egiña izan zan. Inguruan badira beste illobi batzuk ere, Kristo'ren denborakoak danak. Baiñan kristauek illobi aietako batean ipiñi zituzten begiak, aren gaiñean Miren'en Illobiaren eliza eraikitzekeo.

"Transitus Virginis" ("Neskutsaren Igarokuntza") eta "Dormitio Mariae" ("Miren'en Lokartzea") izen bikoitz ori duan III mendeko apokrifo batek esaten digunagaitik uste genduan leendik ere, toki ura Miren'en obitegia izan zitekeala. Orain uste orri indar bereizia ematera etorri zaigu arkeologia. Eta Elizaren jaiotza-denborako judu-kristau aiek Miren Neskutsari zioten jaiera adieraztera.

III mendean ere aurkitu ditu arkeologiak Miren Ama Neskutsaren aipua. Aberzio izeneko kristau baten illeta-idazkian adibidez.

Idazti ori ulertzeko, oroi ezazu, zigorketa-aro artan arrai baten itxuran aurkezten zutela kristauek Kristo'ren irudia. Idazti onek Miren'i, bere izenik aipatu gabe, soilki "Neskutsa" esaten dio, gazteleraz "Ia Virgen" esango baTu bezala, eta neskuts ori Eukaristiari loturik aurkezten digu. Guzia, kristauek bakarrik ulertu zezaketen eran idatzia dago:

"La fe me condujo a todo lugar
Y en todas partes me serví como alimento el pez de
Fuente grandísimo, puro, que la casta Virgen toma
y ofrece a los amigos para que se nutran siempre,
teniendo un vino agradable que se ofrecía mezclado
junto con el pan".

Bada II mendean azken aldean, 180 eta 190 garren urteen bitartean margoztua, Miren'en irudi bat Erroma'n, Priszila'ren katakunbetan: Erregin baten antzera aulkian jarrita agertzen zaigu Miren, bere Semetxea gurketarako Magoei aurkeztuz.

III mendea katakunben mendea dugu. Jakina da illobitegi aietan arras ugari dirala irudiak. Ez da erreza irudi guzti aien zentzua

ziurki iragartzea, baiñan bat egiñik uste dute antzifliztilariek, margo-lan aien bidez salbapenaren edestia eman nai izan zutela mende aietako kristauek.

Aipatutako Priszila'ren katakunbetan dago III mendeko Miren Neskutsaren irudirik ederrena. III mendeko lenen amarka-urteetako omen da. Gutxi gora bera, 230'garren urtearen aurrekoa. Bertan Miren bere Semetxoa besoan duala agertzen zaigu. Alboan, profeta bat dauka, beatzez Semetxo aren gaiñean dagoan izar bat erakutsiz; agian Itun Zarrean Balaan sasiprofetak aurre-iragarritako izar ura bera.

Miren'en irudi ontatik bertan dago Artzai Onaren irudia ere.

Irudi auek, ez ziran katakunbetan, gure elizetako irudiak bezala gurtza-irudiak izan, baiñan Miren'ek salbapenaren edestian izan zuan eginkizun bereizia azturik ez zeukatelako, kristauek arengan zuten usteon guztia adierazten digute.

III mendearen azken aldekoa dugu Ejito'ko papiro batean agertu zitzaigun "Sub Tuum Praesidium" edo "Zure Zaintzapean" izeneko otoitz ezaguna. Miren Neskutsarentzat asmatutako otoitzetan zaarrena. Ez da norbait baten otoitza, kumunitate batena baizik, gaur ere Miren Neskutsaren maitaleek poz aundiko gozotasunaz sarri eraballi oi dutena.

Zuzenean Jainkoari zuzendua ez dalako, antziña artan ez zan liturgiko otoitza, liturgiaz kanpo kristauek beren eragiñez erabilli oi zutena baizik. Baiñan erri kristauak mendeak-zear Miren Neskutsari beti izan dion jaiera ain egoki agertzen dualako, orain "Orduen Liturgian" sarturik daukagu.

Ikus, eskierki ezaguna duzun otoitz au, bere aurreneko elenidazkeratik Calabuig'k gazteleratua:

"Bajo tu misericordia nos refugiamos

oh Madre de Dios.

Nuestras stílicas no las rechaces en la necesidad,

mas en el peligro lfranos,

oh casta,

oh sola bendita

* * *

III mendearen asierakoa da Erroma'n 235'garren urtean martiri il zan Ipolito Donea, Elizaren edestian lenen sasiaitasantua. Entzun, arren, onako bere itz eder auek:

"Sines dezagun, anaiok, Apostoluek irakatsi digutena: Jainkoaren Itza, zerutik, Miren Neskuts txit Donearen erraietara jetxi zala; errai oietan egin zala aragizkoa, eta bertan artu zigula, pekatuan izan ezik gizakume guztiona bezalakoa izan zuan giza-zertasuna..., jactsizik Arraigizsiciistetclutaibgartiei ezilkortasuna eskeintzeko. Aldarrikatua izan zaiguna bera, bir-aldarrikatzen dizuet nik ere: Bera, Josukristo, ez zala mamu bat ala lilluramenak eratutako irudi uts bat izan; egiazko gizona izan zala; Miren Neskutsagandik eta Gogo Deunagandik sortua".

215'aren inguruan argitaratu zuan bere "Traditio Apostolica" edo "Apostoluengandiko Jakintza". Liturgirako idaztia da. Eta bertan sagaraketako otoitzean bi aldiz aipatzen du Miren Neskutsaren izena.

Geroztik ez da sagaraketa otoitzean Miren Neskutsaren aipurik peituko.

II mendearen azkenean eta III'aren asieran Tertuliano dugu Miren'ez era arrigarri xamarrean idatzi zuana. Miren neskutsa izan zala Ebangelioetan dagoan gauza da, eta Tertuliano'k ez zuan orrelakorik ukatuko. Alderantziz, "a los ojos de Tertuliano, la concepción virginal en el seno de una Virgen forma parte de la regla de fe" (Carol. Careaga'k gazteleratua).

Gero ordea, noiz arte izan zan neskutsa Jainkoaren ama? Bai noski, zalantzarik gabe, Josu'z ernetu aurretik eta Josu'z ernetu zanean. Baiñan Josu'z erditzerakoan? Eta Josu'z erditu ondorean? Azkeneko bi galde oiei erantzuterakoan agertzen zaigu Tertuliano eliztar geienen oldozkeratik at.

Erriak, oroi Donejakoba'ren Protoebangelio zarrak erditze aren birjintasunaren lekuko izan zedin Josu'ren jaiotzakoan ipiñitako sorzain ura), Miren'en erditzea birjintasun osozkoa izan zala uste

izan zuan ordurarte. Tertuliano'k ordea, erditze ura, "oiriaze eta odol" artean egiña izan zala idatzi zuan. Zergaitik? "Josu'ren Soïña itxura utsezkoa izan zala erakutsi zuan doketakeriari aurka egiteko": "Dans la vigueur de son opposition au docetisme qui réduisait rhumanite de Christ a une apparence" (Cath.). Josu'ren jaiotza ere itxura utsezkoa izan zala esaten zuten bda doketakerizale aiek.

Errez oartu gindezke Tetuliano'ren asmo ortaz, erabilli zuan idazkerari so egiten ba'diogu: "Fue virgen por lo que respeta a marido; no lo fue en lo que se refiere al parto... La que dio a luz lo hizo verdaderamente, y si fue virgen cuando concibid, en el parto fue esposa" (Burghardrek Carol'en liburuan). Josu'ren jaiotza ez zala itxura utsezkoa izan, adierazi nai die Tetuliano'k doketakerizaleei.

Badirudi gaiñera Miren neskutsaren erditzea ez zala beste emakumeena bezalakoa izan, adierazi nai digula Tertuliano'k: "El seno de la Virgen se abrid de un modo especial, porque habfaido sellado especialmente. De hecho se le deberfa llamar no tanto una virgen sino la virgen que se hizo madre sin transicidn, como si dijeraus antes de ser esposa. (Id. Azpimarraketa berea). "Se abrid de un modo especial". "Sin transicidn" "Como si dijeraus antes de ser esposa". Zer esan nai ote du Tetuliano'k itz oien bidez? Miren Neskutsaren ema-mintza ez zala erditzerakoan urratu? Soilki zabaldu egin zala eta gero bereala lengora biurtu?

Orixe bera esan nai ote zuan Jeronimo Doneak ere onako itz auek idatzi zituanean? "Solamente Cristo abril las puertas cerradas del seno virginal de Marfa, y, sin embargo, estas puertas permanecieron siempre cerradas". Ederki Carol itz oien azalpena egitera-koan: "Parece que podemos afirmar segura estas palabras, que, en opinion de Jerdnimo, Nuestro Señor pudo de alguna manera abrir eI seno de Marfa sin destruir su virginidad".

Birjintasunezko erditzeari buruz, Jeronimo ere ez bait zan bear bezalako argitasunaz mintzatu. Alare, bereak ditu itz eder auek:

"Cristo es virgen, y la madre del virgen es virgen tambi&I para siempre; es virgen y madre. Aunque las puertas estaban cerradas, JesUs entró en el interior; en el sepulcro que fue Marfa, nuevo, tallado en la mais para roca, donde no fue depositado nadie ni antes ni despuÑ... Ella es la puerta oriental de la que habla Ezequiel, siempre cerrada y llena de luz, que, cerrada, hace salir de sf al Santo de los Santos" (id).

Danadala, ordurako arrakasta aundia izan zuan Milan'go Ambrosio Doneak, leendik ere Miren'en birjintasun osoa sinisten zuan erri kristaua-baitan, Miren Neskutsak bere gorputzaren neskustasunik galdu gabe, ots, emamintzaren urraketarik gabe, Josu argira eman zigula, oi u egin zuanean.

"Emamintzaren urraketarik gabe". Beraz, euskerazko "erditze" itzak ez du balio bere zentzu estuan Miren Neskutsaren aurgintza adierazteko. Baiñan ori bera gertatzen zaie laterazko "partus" eta ortik sortu diran "parto" bezalako erromatz-itzei. Oiek ere "erditze" adierazi nai bait digute. Orregaitik bere zentzu zabalean erabilli bear dira itz oiek Miren Neskutsaren erditzeaz mintzatzera-koan; eta orrela erabilliko ditut nik ere.

"Erditzerik gabe". Miren osorik geldituz. Ori sinispide Katolikoaren zati bat dala diosku Donambrosio'k: "Ambrosio dice claramente que esto forma parte de las creencias catÓlicas" (Id).

Baiñan Ambrosio'ren idaztien aurretik ere baditugu gauza bera dioten dokumentuak:

Zenon Berona'ko gotzaiak, eskiertasun osoz diosku 350'ean, Miren Neskutsak Josu'z erditzerakoan ez zuala neskustasunik galdu; eta erditze-aurretik bezala erditze-ondorean ere neskuts jarraitu zuala beti.

Orixe bera diosku, urte beraren inguruan "Consolationes Zacchael" edo Zakeo'ren Pozbideak" izeneko liburuaren egilleak: "Aurrak ez zuan jaiotzean amaren sabelik urratu". "Josu Jainko dalaren adigarri dugu bere birjintasunezko jaiotza".

Eta auek baiño leenago, II mendean, erri kristauaren lekuko lez, apokrifoak. Aipatu dugu "Donejakoba'ren Protoebangelioa"

"Ascensio Isaiae, edo "Isaias'en Igokundeak", Miren neskutsa lez ernaldu zala, neskutsa lez erditu zala, eta neskutsa jarraitu zuala bere bizi guztian, diosku borobil-borobilki.

"Salomonis Odae" edo "Salomon'en Olerkiek" berriz, Miren, ama-neskutsa izan zala, dio ez zuala erditzerakoan oiñazerik izan, eta, ezta, erditzeko, sorzain baten bearrik ere. "Semeak ez zuan bere amaren osotasunik urratu. Bere sorketa Gogo Deunaren ekintzaren ondorioz arras garbia izan bait zan, ba alakoa izan zan bere jaiotza ere".

Era berean itzegiten digu "Sibila Aztiaren Iragaketak". Apokrifoko ontatik artuko dugun zatia, oso polita benetan, II mendekoa da. "Sibilak" jentillediko aztiak ziran. Baiñan juduek aurrena eta kristauek gero aien elertiera, estiloa, artu zuten erlijiozko gertakizunak azaltzeko. Ona, aipatu dugun zatia Calabuig'k gazteleratuta:

Josu'ren sorkuntzari dagokiona da, eta Miren'ganako eraspenez eta maitasunez, kuttunkeriz ia, beterik datorkigu, eta Miren'ek Gabirel'en itzak entzutean izandako jardunkeraz mintzatzen zaigu:

"Turbacidn y asombro la dominaron a un tiempo al escucharle, y quedó en pie temblorosa: su mente se exaltd mientras su corazdn se agitaba con las desconocidas nuevas; pero al punto se alegrd y se regocijd su corazdn con aquellas palabras, sonrid con ternura y enrojeci6 su mejilla, de gozo deleitada y presa en su pecho de la vergenza. Y recobrd la confianza: la Palabra (el Verbo) penetrd en su vientre: se encarnó en él, y en el vientre fue concebido"

Aapaldi ortan ez al dio erriak II mende goiztar artan, Miren't, ia-ia Josu'ri baino garrantzi geiago ematen?. Ez al digu beintzat erarik argiengan Miren Neskutsari zion maitasun bereizia agertzen?

Apokrifoeak garrantzi aundia dute mariologi edo mireniztiarentzat, Miren Doneari-buruz lenen kristau aien sinispide eta sentimena agertzen dizkigutelako. Danek, apokrifoko guztiek itzegiten dute eraspen aundiz Miren Neskutsak berea duan garaitasunaz. Badakite, Jainkoaren egitasmoan, garrantzi bereiziko pertsona dala bera, munduaren salbamenerako. "La conciencia de la dignidad de

Marfa se traduce en un sentido de profunda veneración, matizado de devoto amor que se manifiesta en la frecuente alabanza" (Calabuig).

oietxek ziran, Miren Neskutsaganako, lenen kristauen sentimenduak.

Miren Neskutsaren neskustasunezko erditzeaz Ireneo Donea ez zitzaigula bear bezalako egokitasunaz mintzatu esaten dutenak badira. Isaia Igarlearen esakizun bati-buruz ari da idazten gure Ireneo. "Una interpretación un poco extraña es la que hace Ireneo, de ese pasaje. (Is. 66, 7) ... Su interpretación es mesianica y asimila el texto a Marfa que dife a luz de un modo singular y sin dolor. También en otra parte hace decir a Isafas: "Antes de que la mujer diera a luz y antes de sufrir los dolores de parto vino al mundo un niño varón : dl (Isafas) da testimonio de este nacimiento extraordinario de una virgen". El lenguaje de Ireneo puede no ser demasiado claro, pero no autoriza la acusación que se le ha hecho de que negd a Marfa ei parto virginal" (Caro!).

Alderantziz... ukatu ez baiña aitortu egiten duala dirudi Miren'en erditze garbia. Zer esan dezakete bestela darabilzklan esakizun oiek: "Antes de que diera a luz", "antes de sufrir los dolores de parto" "nacimiento extraordinario de una virgen"... Baldar samarra izango da mintzaera, baiñan, zalantzarik gabe, Miren beste emakumeen oiñaze miñik gabe erditu zala, esan nai digu Ireneo'k. Ori bera, beste esaldi ontan ere, Josu nola jaio zan erakusterakoan: "Purus pure puram aperiens vulvam", ots, "Garbiak sabel garbia era garbian irikiz" egin zala erditze ura. Beste esaldi ontan berriz, Ireneo'k, aipatu ditugun Tertuliano'k eta Jeronimo'k bezala au esan nai digula dirudi: Miren'en emamintza, erditzerakoan, urraketarik eta oiñazerik gabe, zabaldu egin zala, berealaxe berriro lengo egoerara biurtzeko.

Danadala, Josu'ren jaiotzako neskustasuna ez du beññere Elizak dogma aldarrikatu. Egia da erri kristauak kuttunki sinistu duala beti erditze zoragarri aren birjintasuna. Egia da Donanbrosio'k birjintasun orren alde idatzi zuanez gero, protestalaritza sortu arte ez dala

aren aurka idaztera ausartu danik izan. Ezta katolikoen artean ere, XX mende ontara arte.

XX mende ontan badira katolikoen artean ere bat baiño geiago, Miren'en erditzea "egiazko" erditzea izan zala, Tertuliano'k bezala esaten dutenak: oiñaze-odoletan, eta Miren'en emamintza urratuz gertatua.

Zu ordea Elizarekin askoz bat egiñagoa ibilliko zera, guk ikasitako dotriñak esaten zuan lez, Josukristo Miren'engandik, "eguzki-argia kristalean alde batetik bestera, ezer autsi ta zikindu gabe igarotzen dan bezalaxe, amaren garbitasuna batera lausotu gabe jaio zala" sinistuz jarraitzen ba'duzu.

Gaiñera, oraintxe, 1992'ko urrillak 11, II Jon Paul Aitasantuak ofizialki munduari eman dion "Eliza Katolikoaren Dotrifia-Liburu"z gero ez dut uste Miren Donearen erditzea neskustasunik ausi gabe egin zala zalantzan ipintzen duten katoliko oiek, neskustasun ori zalantzan ipiñiz jarraituko dutenik, bene-benetan erakusten bait du liburu orrek, H Batikan-Kontzilloaren irakasketa gogoratu, neskustasun osoan egin zala Josu'ren jaiotza:

"La profundización de la fe en la maternidad virginal ha llevado a la Iglesia a confesar la virginidad real y perpetua de Marfa **incluso en el parto del hijo de Dios hecho hombre**. En efecto, el nacimiento de Cristo, **lejos de disminuir consagró la integridad virginal** de su madre.

"La liturgia de la Iglesia celebra a Marfa como la Aeiparthenos, la siempre-virgen".

Eta Augustin Deunaren itzak aipatzen ditu: "Neskutsa izan zan Miren Josu'z ernaldu zanean, Neskutsa Josu'z erditu zanean, eta Neskuts Josu'z erditu ondorean ere: Beti neskutsa"!

Ori, urraketarik gabeko erditze ori, Miren Neskutsarenganako maitasun sutsuak eramanda erri kristauak apokrifoan giroan sortutako ameskeri eder lilluragarri bat besterik ez dala? Ori esaten dute aipatu-berri ditugun gaurko teologilari oiek ere. Baiñan ori esatean, naitanaiez aitortu bearko dute Elizaren asiera-asieratik erri

kristauek Mire Neskutsari izan dion maitasuna izugarritzkoa izan dala. Nola, bestela, ulertu, "asmakizun" oien sorkuntza?

Ta, orixe da ain zuzen guk atal ontan azaldu ta agertu duguna: Berdiñik gabekoa izan dala Josu'ren ama Miren Neskutsak Elizaren asieratik kristauen biotzetan izan duan maitasunezko toki berezia.

* * *

Alare, izan zan, ordura arte ez bezala, izan zan III mende artan, Miren'i, Josu'z erditzeaz geroko neskustasuna ukatu zionik: Tertuliano ainzuzen! Eta ia berreun urte geroago Elbidius izeneko manikerizaleen etsai aundi bat.

Miren, erditzerakoan, Joseba'ren andregaija besterik ez zala eta erdituz gero ezkondu zala Joseba'rekin, uste izan zuan Tertuliano'k. Ona bere izkera: "Una virgen did a luz a Cristo y dsta se casarfa sólo una vez despu és del parto, "semel nuptura post partutn" (Id). Bikoitza omen da ortik Josu'k jasotako goratzarrea: Birjin baten sabelean birjinki sortua izatea; eta gizon bakar batekin ezkonduako ama baten seme izatea.

Ez dakigu zergaitik esan zuan ori Tetuliano'k.

Ereje montanista zala ori esan zuanean? Baiña Miren'ek seme geiago izateak ez du montanikeriarekin zer ikusirik. Alderantziz beste semerik ez izatea, egongo litzake montanikeriaren irakaskizunekin bateratuago. Manikeri-zaleak bezala gogorkeri orokor eta bizitza latzaren maitale bait ziran montanikeri-zaleak. Ala, montanista egin zan ezkerro, emakumei ain biziera zorrotza eskatzen zien Tertuliano ere.

Ez dezagun ordea azturik utzi, Tertuliano'k emakume alargunei bigarren ezkontza galerazten ziela, eta ezkongee jarrai zezaten aurkeztu ziela, il arte ezkongee jarraitu zuan Miren alarguna, naiz len Joseba'rekin "egiazko" emaztea izan eta "egiazko" emaztea bezala bititu. Bestalde, Tertullano'ren ustez bearrezkoa zala dirudi senar-emazteen arteko gorputz-alkarketa, egiazko senar eta emazte izatera iritxi aal izateko.

Agure zarra zala idatzi zuan Tetuliano'k ori. Beti izan zan gizakume zailla, eta zaillagoa bere azkeneko urteetan montanikerira jausi zan ezkerero.

"Tertuliano es un escritor de gran originalidad y profundo talento. Une la vehernencia del africano con el sentido practico de los romanos. Posefa una inteligencia profunda y conocimientos vastfsimos. Era orador vehemente y jurisconsulto de gran renombre. Con su viva fantasfa su habilidad en el chiste y la ironfa, su dominio de la lengua y su estilo acerado era mordaz e incisivo, era obscuro y amigo de extremismos, se nos presenta como una de ias lumbreras mas brillantes de su tiempo" (Llorca).

Ez zuan Tertliano'k bezala pentsatzen III mende artan ura bezain idazle yayoa eta ura baiña teologilari aundiagoa zan Origenes alexandritarrak 226'garren urtearen inguruan: "Orfgenes insistid en que "nadie que piense rectamente de Marfa puede decir que esta tuvo mas hijos que Jesus" (Burghardt).

Nola esan ote zezakean ain adimen zorrotzeko gizona zan Tertuliano'k, Miren'ek beste seme batzu izatetik, Josu'k bigarren gorespen bat irabazten zualako txatxukeri galant ori?

Bere alde ez du, Tertuliano'k, beste idazle baten laguntzarik aipatzen. Ez zezakean aipatu ere. Ori idatzitako idazlerik ez bait zan ordurarte izan. Eta asko izango ziran, bai orixe, Miren bezalako lenen-lenen maillako emakume bereizi batek seme geiago izan zituala egia izan ba'litu. Ortik aria artuz, ederki erantzun zion Jeronimo Doneak:

"Miren Josu'z neskutsa izatez utzi gabe ernaldu zala, Idatzirik dagoalako sinisten dut, eta Josu'z erditu ondorean ere neskuts jarraitu zuala idatzirik ez dagoalako sinisten dut".

Jeronimo'k baiña leenago ordea, 350'aren inguruan, Poitiers'ko Doneileario'k ezagutzen zituan Miren'ek seme geiago izan zuala esaten zutenak. Baiñan, "individuos sin religiosidad completamente divorciados de una verdadera enseñanza espiritual", eta "hombres extremadamente maivados" omen ziran ori esaten zutenak (Burghardt).

Garai artan agertu zan, egillearen izenik gabe, "Ambrosiaster" zeritzan idaztia. "Libro fascinante, refuta apasionadamente" Miren'ek seme geiago izan zitualako iritzia. Ori uste dutenak eroak omen dira: "están locos y su afirmación es impfa" (id).

* * *

IV mendean Miren Neskutsari izan zitzaion jaierez arduratu bearrik ez dugu, millaka bait ditugu jaiera orren adierazgailuak. Orregaitik, soilki darabilkigun gaia amaitzeko esango dugu zerbait.

Adibidez, Tertuliano'ren bidetik ibilli zirala Elbidio, manikeriaren arerio bizkorra, eta Bonoso Iliri'n Naissus, (gaur Nish), uriko gotzaia. Badakigu Elbidio'k zergaitik egin zuan Miren Ebangelioan agertzen diran "Josu'ren senide" aien ama. Ez bait zuan ori Miren'i neskustasuna ukatzeagaitik esan; umeak sortzea eta ezkontza bera gaitzesten zituan manikeriari aurka egiteagaitik baizik. Ortarako, Ebangelioko "Josu'ren senide" aiek zentzu estuan artuz, ume askoren ama egiten zuan Miren, eta orrela, manikeriak kezkatuko ume askoren amei, ume askoren ama bezala Miren Donea ipintzen zien eredu.

Oker zebillen. Baiña bere okertasun orrek, bai Elbidio berak eta bai sendotu nai zituan emakume kristauek Miren Doneari zioten eraspena erakusten digu.

Ez da arritzekoa. Elbidio ura IV mendekoa bait zan, eta, esan dugun lez, mende ortakoak, asko ta asko bait ditugu Miren Neskutsaganako eraspeneren adigarriak.

Elbidio'k bezala pentsatzen zuan Bosio'k ere, baiñan Iliri'ko gotzai guztiek gaitzetsi zuten aren aburua. Ikus gotzai auetako bati Sirizio Aitasantuak berak agian, edo ia ziurki, Anbrosio Doneak idatzitako eskutitzaren doiñua:

"No negaremos que V. **R.** hizo muy bien en refutarlo (a Bonoso) en lo que se refiere a los hijos de Marfa, y comprendo que sienta horror sólo con pensar que pudiera nacer nadie más de aquel seno virginal del que nack5 Cristo según la carne. Porque el Señor

Jesus no habrfa elegido nunca para madre a una virgen si hubiera pensado que esta serfa tan incontinente como para contaminar con contacto humano aquel lugar del cuerpo del Señor, la corte del Rey eterno" (id).

Anbrosio, Augustin, Jeronimo. Iru Done auek aipatzean, Elizak izan dituan iru teologilaririk aundienetakoak aipatu ditugu, irakurle, eta oien aipua goraiapatuz igaroko gera Erdiaroaren atarira, eta atari ortan bertan amaituko dugu Miren'ganako eraspenari-buruz ari dugun ikerketatxo labur au. Miren Neskutsaren itzal gozoak erdiaro osoa betetzen dualako, ikerketa-lan au aurrera jarraitu bearrik ez bait dugu.

Miren Neskutsa da erdiaroaren Erregiña. Lekarotako bakar-tiak, jauregietako agintariak, Aitasantuak eta gotzaiak, nekazal-baserrietako emakumetxo landerrak, erregiñak, errietako apaizak, zaldun borrokalariak...kristau guztiak egon ziran erdiaroan Miren Neskutsari begira. Ta, maometarrak agertu ziranean, aren irudia eraman oi zuten borrokaldietara zaldun gudulariek zaldi-aulkiaren aurrean ezarria. "Socia Belli", "Gudarako Laguna" esan oi zieten Miren Neskutsaren irudi txiki aiei.

"Socia belli" aietako bat dugu, Tolosa'n, Izaskun'go Birjiñaren irudia.

LAUGARREN MENDEAREN ASIERAKO AITASANTUAK

Sei izan ziran IV mendearen lenen irurdenako Aitasantuak, baiña naiz guztiak santuak izan eta gaur gure aldareetan egon, apika aurkituko duzun aien aipurik eliz-edesti-liburuetan, Kostantino Aundiaren izenak bete bai zuan epe luze ura dana.

Alare, aztertu ditzagun guk emen, naiz laburki, sei Aitasantu aien bizitzak:

MARTZELINO.- Ezer ziurrik ez dakigu, Diokleziano'ren garaieko Aitasantu ontaz. 296'garren urtearen inguruan artu zuan aitasantutza, eta 304'garrenaren inguruan il zan martiri. "Liber Pontificalis" izeneko idazkiak, galdua dugun "Acta S. Marcellini" bat aipatuz, Aitasantu au sasijainkoen aurrean "intzentsua erretzera eramana izan zala, dio eta egin ere egin zuala intzentsuketa ori": "et ipse Marcellinus ad sacrificium ductus est ut thurificaret, quod et fecit", "baiñan, laister, damuturik, martiri il zan azke-nean".

Zer pentsa Aitasantu aren aurkako salaketa larri ontaz?

Lendabizi, "Liber Pontificalis" ek aipatutako "Acta" aiek nork idatzi zituan ez dakigula. Erejeek idatziak izan bait zitezkean. Ereje batzuk izan ziran beintzat, Martzelino Aitasantuaren aurka ori oiukatuz, iskanbillik aundienak atera zituztenak: donatikeri-zaleak. Eta, ori, ia eun urte geroago: donatizaleek ain etsai izan zuten Augustin Donearen garaiean.

Eta, bigarren, "Liber Pontificalis" bera, oso usteon gutxi merezi duan liburua dala.

Donatikeri-zale oiek baiño leenago, Martzelino'ren denboran bertan, Eusebio'k eta geroxeago Teodoreto'k aipatzen dute Martzelino Aitasantua, baiñan aren sasijainko-gurketaz ez dute ezer esaten. Eta esanen zuten ori, naitanaiez esan bearrean aurkituko ziran bâ, gezurtizat artuak ez izateko, Aitasantuaren pekatu aundi ura egia izan ba'litz. Erroma guztia, are geiago, kristaudi guzia izango bait zan pekatu aren jakitun!

Orregaitik, arrazoi zuan Donaugustiir ek, Martzelino'ren sasijainko gurketa ura iñork ezagutzen ez zuan ezkerro egiazkoa ez zala, donatitarrei erantzuten zienean.

Agian, au da seguruaski arazo ontan egia: "Nimis indulgentia erga lapsos in idolatriam quaeque causa fuit ut per calumniam infamatus fuerit quasi thus idolis adhibisset (Breviarium Rom.): "Sasijainko-gurketara jausi ziranekin oso biotzbera izan zalako, salatu zuten gogorkeri-zaleek, gezurgaiiztoa-bitarte, bera ere sasijainkoei intzentsu-eskeinle izan zala".

Agian irakurleren bat edo batek, "ta... Martzelino'k sasijainkoen omenez intzentsua erre zuala egia ba'litz..., zer? Aitasantu batek orrelako pekatu egin al dezake"?, galdetuko dit kezkatu rik.

Aitasantu batek, irakurle, zuk eta nik egin dezazkegun pekatu guztiak egin dezazke. Kristo'k Aitasantuari utsezintasuna agindu zion; ez zion pekat'ezintasunik agindu. Utsezintasunaren ondorioz, Aitasantuak ezin dezake utsik egin, Aitasantu lez eta bere utsezintasuna erabilli nai duala agertuz, zerbait dogma bezala aldarrikatzen duanean. Baiñan egin dezazke pekatu guztiak; baita koldarkeriz sasijainkoak gurtzera makurtze zikin ori ere.

Oroi, Martzelino'ren pekatua, gure Martzelino Donearen pekatua, egiaz gertatu zan pekatua balitz ere, askoz pekatu aundiagoa egin zuala lenengo Aitasantuak, Kepa Doneak, Kristo bera, neskametxo baten aurrean, iru aldiz zinketa egiñez ukatu zuanean.

Martzelino ia lau urtez egon zan Eliza Aitasanturik gabe.

* * *

I MARTZEL0.- Ia lau urte iraun zuan Aitasanturik gabeko epe luze orren ondorean izan zan, 308'aren inguruan Aitasantu izendatua, eta ia 309'araifio iraun zuan Elizaren buruzagitzan: Urte bete geienaz! Bere bizitza kontatzen duan "Passio Marcelli"k konfiantzarik merezi ez dualako, ez dakigu ziur gauza aundirik Aitasantu ontaz ere. Liburu ori kondaira ameskoia askoz geiago da ba, egiazko edestia baiño.

Bestalde, oraingoa ere ezin dezakegu aintzat artu "Liber Pontificalis"ek diona: "Erroma'n kristau-komunitatea ber-bizkortzen saiatu zalako, eta ortaz gaiñera, erlijio-arazoak ez ziranetarako ere komunitate orren Buruzagia, bera zalako, Majentzio inperatoreak Erroma'tik erbestera jaurti zuala" esaten bait digu. Majentzio'k ordea ez zuan sekulan orrelakorik egingo, ezaguna dugu ba Majentzio'k Elizari izan zion begirunea.

Egiaz erbestera jaurtia izan zanik ere ziur ez dakigu. Izatekotan, Erroma'n bertan eta Aitasantu beraren inguruan sortutako zalapar bat edo baten erruz izanen zan erbesteratua.

Norbaitek dionez, I Martzelo onen aurreko Martzelino'k sasijainko-gurtzaille guztiak Elizaren altzora biguinki artu zituan bezala, orain I Martzelo onek, pekatari aientzat Elizak ezarria zeukan penitentzia osoki betetzea eskatu omen zuan. Eta, orregaitik, iskanbil aundia sortu omen zuten Aitasantu onen denboran barkapen-billa zetozen sasijainko-gurtzailleek.

Ori egia danik ordea jakiterik ez dugu. Gauza ziur esateko, benetan esateko, ez dirudi egia izan daitekeanik ere. Penitentzi ori Eliz orokor guztian eskatzen zala, pekatari aiek bai bait zekiten; eta bai bait zekiten, baitare, penitentzi ura Erroma'ko Elizan beste Elizetan baiño biguñagoa zala.

Gaiñera, penitentzi ura Eliz osoaren oitura zalako, Martzelo onen aurreko Martzelino biotz-bera ark ere eskierki eskatuko zuan gauza bait zan.

Esan dezagun azkenik, I Martzelo oni-buruz deus ziurki ez jakiteko, Aitasantu izan zanik ere ez dakigula eskiertasun osoz, aitasantutza ukatu dioten edestilariak izan bait dira. Ori ordea, Aitasantu izan zalako ori, ezpairik gabe aitortu daitekean gauza dala dirudi.

* * *

EUSEBIO Ez dakigu ezer aundirik beste Aitasantu ontaz ere. Aitasantu izan zala, bai; eta lau illabetez bakarrik izan zala, **ori** ere bai. Baiñan zer urtetan izan zan, ori ez. 308'an batzuen ustez, baiña geienen iritziz, 309'an edo 310'ean.

Grezi'n jaioa, sendagille omen zan Aitasantutzara igo aurretik, "Liber Pontificalis"ek dionez. Damaso Aitasantuak (366-384) bi idaztitan aipatzen du gure Eusebio au.

Baiñan "les deux inscriptions damasiennes qui jettent quelque lumiere au sujet de ce pape posent plusieurs problêmes aux historiens" (Catholicisme): "Aitasantu oni buruz argi-apur bat damaiguten Damaso'ren idazti oiek, arazo asko sortzen dizkiete edestilariei".

Damaso'k aurreneko idaztitan, 1 Martzelo'ren denboran idolatrira jausitakoen zalaparta aiek aipatzen ditu, zalaparta aien erruz I Martzelo Erroma'tik Majentzio'k erbesteratua izan zala ad ieraziz.

Ona bigarren idaztitan, zalaparta berdiñak gertatu zirala Eusebio'ren denboran, dio eta zalaparta auek beste aiek bezala idolatrira jausitakoek sortuak izan zirala, eta zalaparta auen bidez Eusebio Erroma'tik Majentzio'k erbesteratua izan zala.

Ta, ona edestilarien arazo batzuk: Bi matxinada aiek, bat bakarra izan ote ziran? Bat bera izatekotan, noren aitasantutzan gertatua? Ez ote zan orrelako matxinadarik izan? Eta, ondorioz, ez

Martzelo ez Esteban, ez ote ziran Erroma'tik erbesteratuak izan? Bere bi idazkietako albiste oiek, nondik jaso ote zituan Damaso A itasantuak?

Damaso'k "martiri" esaten dio Eusebio Aitasantuari, baiñan garai aietako beste idazleek ez diote orrelako goi-izen bikaiñik ematen. Elizak antziña-antziñatik euki du santutzat: "Sanctus Eusebius Pontifex".

* * *

MELKIADES IV mendea berberaz gero Elizak santutzat aintzaldua. Afrikarra jaiotzez. Aitasantu, 311 'tik 3 I4'era izan zan seguruaski.

Elizaren edestian ordurarte beste iñork pentsatu ere ez zezakean poza gertatu zitzaion bere aitasantutzakoan. Bere garai artan amaitu bait zan betirako Elizaren zigorketa, Galerio'k aurrena eta Lizinio'k eta Kostantino'k gero eman zituzten askatasunezko erabakien ondorioz. Ez zuan noski berak, Diokleziano'ren denboran apaiz zala, orrelako poz gozorik sekulan gertatu zezaiokeanik ere asko pentsatuko!

Guk, gaur, ezin usmatu ere dugu, garai artako kristauek Kostantino'ren jardunkera ikustean, beren baitan zoraturik sumatzen zuten gozamina. Izan ere..., erogarria ere bai bait zan ikusten zutena: Inperiotzaren sorketaz gero beti jentilla izandako Erroma'ren Inperatorea, orain, kristau biurtua: Inperatore Kristaua! Mundu guztiaren Jaun da Jabea, mendeak-zear elizaren etsai amorratua, Elizaren serbitzari eta babesle biurtua! Ordurarteko Elizaren gaitz eta oiñaze guztien sort-iturria, inperatorea, orain Elizaren ziurtasunaren, zabalkundearen eta aurrerapenaren oiñarri sendo billakatua! Ez da ez arritzekoa orduango elizkide guztiak Kostantino "elizkide inperatoreari" izan zioten maitasuna.

Melkiades Aitasantuari dagokionez, "Constantine had him and bishops of Gaul and Italy to judge the Donatists' charges against Caecilian, bishop of Carthage" (Enc. Brit): "Donatikeri-zaleek Kartago'ko Zeziliano Gotzaiaren aurka egindako salaketen epaiketa Melkiades'en eta Galietako ta Itali'ko gotzaien eskuetan utzi zuan Kostantino'k".

Albiste ori, Eusebio'gandik artua du Iztegi ospetsu orrek, baiñan ez du, albiste ori, oso era zuzenean agertzen. Au da bei Eusebio'k diona: Kostantino'k Melkiades'eri Donatikeri-zaleen aurka sinodo baten egintza eskatu ziola. Sinodo ori, Itali eta Galietako gotzaiekin, Erroma'n Letran'go Jauregian egin zala.

Jauregi ura, Fausta Kostantino'ren emaztearena zan, baiña inperateme onek, ordurako, Aitasantuen egoitza izan zedin, Aulki Doneari emana. Kostantino beraren onespenez emana, jakiña.

Ordurarte Inperatoreen bildurrez lur-zuloetan-da, izkutuan bizitu ziran Aitasantuek, orain, Inperatorearen naimen onez, Erroma'ko jauregirik ederrenean bizitu aal izatea, ez al da, Aitasantuek, eta Eliz osoak, Kostantino'ri izan zioten eraspena ulertzeko, arrazoi aski mardula?.

* * *

SILBESTRE 314'tik 335'era izan zan Aitasantu, eta bere denboran bildu zan Elizaren Lenen Kontzilio Ekumenitarra, Kostantino inperatorearen aginduz, Bitini'ko probintzian zegoan Nizea zeritzan urian.

Baiñan Aitasantu au, I Kostantino Aundiak egin omen zion emaitzagaitik da batez ere ezaguna. "DONATIO CONSTANTINI" esan oi zaio emaitza orri. Ez da egiazko emaitza, norbaitek, Aitasantuen agintaritza goratzeko eta ziurtzeko asmoz asmatua baizik.

"Vita Sancti Silvestris" izeneko idaztearen egilleak, Kostantino Aitasantu onek bataiatu zuala dio, eta Erroma'n ain zuzen, eta bataiatu ez baita legenetik sendatu ere.

Gezurrezkoa da albiste ori. Alare, sartu zan VI mendekoa dan "Liber Pontificalis"en lenengo zatira: "Silvester. Nazione romanus. Baptizavit Constantinum Augustum, quem curavit a lepra": "Silbestre. Jatorriz erromatarra. Berak bataiatu zuan Kostantino; ta legena sendatu zion".

IX mendekoa da aipatu dugun "Donatio" edo "Emaitza" aren kopiarike zarrena; eta au da idazti ortan daraman izenburua: "Constitutum Domni Constantini Imperatoris": "Kostantino Inperatore Jaunaren Erakuntza".

Bi zati ditu, nik "Decretales Pseudo-Isidorianae" deritzan liburutik jaso dedan Kostantino'ren "erakuntza" orrek:

Aurrenekoan, Silbestre Aitasantuak kristau egiña, bataiatua eta Iegenetik sendatua izan dala, dio Kostantino'k berak, "dum valida squaloris lepra totam mei corporis invasisset carnem", "nere gorputz auleko aragi oro legen biziak mendean arturik bait zeukan" (Decret. Ps-Isid).

Bigarren zatian, Silbestre'rengandik jasotako animaren eta gorputzaren osasun bikoitz ura saritu nairik emaitza aundiak egiten dizkie Kostantino'k Aitasantu ari eta aren ondorengo guztiei: "Beato Silvestri patri nostro summo pontifici et universali urbis Romae papae et omnibus eius successoribus pontificibus qui usque in finem mundi in sede Beati Petri apostoli erunt sessuri" (ib): "Elizaren Buruzagi Guren eta ludi guztirako Erroma'ko uriaren Aitasantu dan Silbestre gure aita doatsuari, eta bere atzetik munduaren azkeneraño Kepa doatsuaren aulkian eseriko diran aitasantu guztiei".

Bikoitzak dira emaitza oiek ere. Batzuk, aitasantutza berari dagozkionak; besteak berriz, Aitasantuen erregetzari dagozkionak.

Aurrenekoen artean, Antioki, Alexandri, Jerusalem eta Kostantinopla'ko patriarken gaiñetik, eta mundu guztiko gotzai danen gaiñetik, agintaritza orokorra ematen zaio Erroma'ko Aitasantuari.

Kostantino'k ez zuala Aitasantuari orrelako almenik emateko eskubiderik? Ez zaitez larritu. Dokumentu ontan, gelditzeke aipatzen eta ber-aipatzen dira Kepa Donea bera, Kepa Donearen Aulkia, eta Aulki ortan esertzen zan Silbestre'ren duintasuna. Argi dago beraz Kostantino'k, Silbestre'ri Eliza osoaren gaidiko buruzagitza **eman** ez baiña, Silbestre'ren Buruzagitza ori **aitortu** besterik ez zuala egiten.

Era ortan izan dira ulertuak beti Elizaren Buruzagitza orokorra-ri-buruzko "emaitza" oiek. Izan ere, bestela ez bait zuan zentzurik izango Erroma'n bertan, Donekepa'ren urian, asmatutako dokumentu batean Aitasantuak Elizaren Buruzagitza inperatore baten eskuetatik artu zuala oiukatzeak. Ongi jakiñik zegoan ludi osoan, eta, nola ez? Erroma'n batez ere, Kepa'k eta aren ondorengo Aitasantuek Kristo ber-berarengandik artuak zituztela beren almen eta eskubide guztiak.

Orregaitik, Kostantino'k politikaren-arloan Silbestre'ri eta bere ondorengoei ematen zizkien almenak dira bereiziki garrantzi aundi-koak; emaitza oien araura izan bait zan eratua erdiaro guztiko politika.

- Aundiak, izugarriak, dira Kostantino'k Elizari egiten zizkion emaitzak: Jauretxe, Jauregi, urrezko eta zillarrezko doaiak, era guztiko aberastasun oparoak...

- Duintasun-adigarrik goikoenak, elizgizon guztiei.

- Aitasantuei, gaiñera, inperatoreen buruntza ta jantziak erabiltzeko eskubidea. Eta, arrezkero, inperatoreei egin oi zitzaizkien omen-adigarri ber-berak egin bearako omen zitzaizkien aitasantuei ere. Ta inperatorea ta Aitasantua erriaren aurrera zaldiz agertzen ziranetan, inperatorea izango zan, bere zalditik jetxita, Aitasantu zaldunaren zaldia agokotik eskuz arturik, Aitasantu zalduna oiñez eramango zuana.

- Ospe aundiko goratarreak eskeintzen zitzaizkien gotzaiei eta apaizei ere. Ala, senatoreen duintasun berbera, "clerici eardenales" edo Erroma'ko apaiz nagusiei.

- Baiñan emaitzarik oparoena eta edestirako garrantzitsuena, Aitasantuari ematen zitzaizkion lurraldeek osatzen zuten.

Iza ere, "Romae urbs et omnes Italiae seu ("seu" ori "et" biurtu zan laister) occidentalium regionum provincias, lora et eivitates", ots, "Erroma'ko uriak eta Itali'ko ta sarkaldeko probintziek, lurraldeek eta uriak" osotzen zuten emaitza ura. Eta au izan zan, ezpairik gabe, Kostantino'k aitasantutzari egin zion doairik aundiena.

Emaizta orren bitartez, Itali osoko Errege egiten zuan Kostantino'k Aitasantua.

"Sarkaldea" aipatzen da dokumentu ortan, baiñan sarkalde orren mugak ez dira ziur ezagutzen. Aurrena, Kortzega'ko ugartea izan zala uste izan omen zan. Gero, Ugarte Britaniarrak ere Aitasantuei egindako emaitza ortan sarturik zeudela sinistu izan zan. Eta, laister, Sarkalde osoaren gain politikazko eskubidea bazutela, usterik-edo ibilli ziran Aitasantuek. Eta, ez ziran seguruaski oker ibilli.

Ez noski Kristo'gandik orrelako agintaritzarik artu zutelako, baizik eta garai aietan Sarkaldean ikerketa bat egin ba'litz, sarkaldetarrek, beren errege ankerren gaindik politikazko goi-agintaritzari ori Aitasantuei pozik emanen zitelako. Ez zan orduan demokrazirik, baiñan izan ba'litz, demokraziaren legeen araura Sarkaldean Aitasantuak izango ziran Erregeen Errege.

Dokumentuaren azken aldean Kostantino'k bere ta bere jaurlaritzaren egoitzarako Kostantinopla'ren eraiketa aldarrikatzen du. "Ez omen da ba egokia, berak dionez Jainkoak kristautasunaren Buruzagien egoitzarako aukeratu duan urian mundu ontako agintari batek aalmenik izatea" (ib).

"Bere eskuz izenpetu" omen zuan Kostantino'k dokumentu au, eta "Kepa Donearen illobi-gaiñean

* * *

Oso polita guzia; ez da ola? Bai noski, guztia oso-osoa gezurra ez ba'litz. Noiz asmatua? Oso berandu. Ez beintzat VIII mendea baiño lenago. "Between the years 750 and 850": "750'garren eta 850'garren urteen artean", "The Catholic Encyclopedia"ren ustez.

"Ori guztia gezurra da, VIII mendean eratu", dio "Kostantino'ren Emaizta" orri-buruz "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclesiastiques" izeneko iztegi ederrak. Berdin, "Catholicisme" iztegiak: "On pense généralement aujourd'hui que la pseudo-

donation a etē inventēe sous le pontificat d'Hadrien l'ier a Rome
ni me" (ib). "Gaur uste danez, sasi-emitza au, I Adrian Aitasantu
zala Erroma'n bertan izan zan asmatua", ots, VIII mendearen
azken-aldera, I Adriano 772'tik 795'era izan bait zan Aitasantu.

Aburu berekoa da Iztegi Britaniarra: "The forgery occurred
about 775": "775'aren inguruan gertatua da asmaketa aizun ori"
(Enc. Brit).

Baiñan, naiz gezurra izan, izugarritzko eraginmena izan zuan
"Emitza" orrek erdiaroko politikan. Danek, aitasantuen adiskideek
bezala aitasantuen etsaiek ere, egiazkotzat euki bait zuten beti.

Bere eskubideak babesteko, "I Adrian izan genuan, 778'an,
Karlomagno'ri idatzi zion eskutitz batean Kostantino'ren "Emitza"
ori erabilli zuan aurreneko Aitasantua": "Le premier pape qui fit
&at de la Donation Constantinienne est Hadrien l'ier en mai 778,
crivant a Charlemagne" (Catholicisme). IX Leon izan zan ori
egiten urrengoa, 1054'garren urtean.

Zirriku guztietatik ustel-usaia darion dokumentu orri, ainbeste
mendeen epe luzean nola ez ote zion iñork beiñere gezur-usairik
artu?

XV mendean, Lorentzo Valla "umanista" eta Eneas Sylvio
Piccolomini, geroagoxeko H Pio Aitasantua izan ziran "Emitza"
ura gezurrezkoa zala aurrena usmatu zutenak. Mende ortan bertan,
11 Pio'k bezala pentsatu zuten beste gizaseme "umanista" ospetsu
batzuek ere: Pekoc, Chichester'ko gotzaiak; Cusa kardenalak...

DONATIKERIA

Kostantino'k Eliza Laterri-barrungo batasuna sendotzeko erabilli zuala esaten dutenak badira.

Baleike. Len ere inperatore erromar guztiek erabilli zuten erlijioa Laterriaren batasuna ziurtzeko. "Laterri bat, erlijio bat", izan zan inperatore jentillen gogapen nagusia. Benetan uste izan zuten Erroma'ko erlijio zaarraren sendotasuna makaltzen ba'zan, aulduko zirala Erroma'ko Laterriaren indarra ta batasuna berbera.

Laterriaren sendotasuna zeukaten buruan kristautasuna odola-bidez ezereztu nai izan zuten inperatoreek Domiziano ta Trajano beraiengandik asita. Laterriaren batasuna bizkortzearen atzetik zebillen Aureliano, III mendean "Eguzkiaren Gurketa" inperio-lur osoko erlijio nagusia egin nai izan zuanean. Orixe bera billatzen zuan Diokleziano'k Elizaren aurka zigorketarik gogorrena piztu zuanean. Jainko zarren erlijioa sendotuz, Laterria sendotu nai zuan.

Bearrezkoa etsitzen zuten inperatore jentillek laterkide guztiek erlijio bat bera izatea, Laterria bera ere bat izan zedin. Eta aien ustez, jakiña, erlijio bat bera ori, Erroma'ko jainko zaarren erlijioa zan. Beste erlijioek izan zezaketen biziteko baimena, baiñan, **soilki**, Erroma'ko jainko ta jaikeme zarren erlijioaren **nagusitasuna** onartzen ba'zuten.

Inperatore jentillek erlijio zaar aren bidez lortu nai zuten gauza bera, lortu nai omen zuan Kostantino'k ere, kristautasunaz baliatuz.

Egia, oraindik gutxiengo bat zala kristautasuna inperioaren altzoan, baiña kristauak asko edo gutxi izateari arreta aundirik

emateke, oartu omen zan Kostantina kristautasunak bere baitan zuan bizkortasun arrigarriaz, eta Eliza babestuz eta indartuz kristautasunaren bizkortasun ori erabilli nai omen zuan aro arriskutsu artan inperioa zuzpertzeko.

Baleike. Kostantino'k ikusi zuan **ba** kristauek Diokleziano'ren zigorketakoa erakutsi zuten jardunkera miresgarria. Ta ikusten zuan era berean, barrungo kemen oro galdua zuala ordurako, sasijainko erromatarren erlijio zaarrak, sekulan egiazko kemenik izan ba'zuan.

Kostantino ez zan iriozaa, eta ez da arritzekoa ortaz jabetu izatea. Jabetu bait zan Kostantino aiñakoa ez zan Galerio bera.

Kostantino'k gaiñera bazuan inperatore lez, barbaritarrak iraultzaturik zebiltzan une artan Laterriaren sendotasunaz arduratzeko bearkizun bereizia.

Baiñan oker dabil, orregaitik bakarrik kristautasunari lagundu ziola uste dezakeana.

Oker dabil baitare, Kostantino'ren arrazoirik nagusiena ori izan zala uste duana ere. Kostantino'k oso-osoan sinistu zuan beti bere garaitza guztiak Kristauen Jainkoari zor zizkiola, eta benetan mirestu ta maite izan zuan Jainko aren Eliza. Gogo guztiz nai izan zion lagundu.

Laister ikusi zuan nondik asi.

Urte aietan ainzuzen, Kristo'ren Eliza zatitzen zitalki ari bait zan donatikeria.

Laugarren mendea, ereji aundien mendea izan zan: donatikeriaren eta arianikeriaren mendea. Ta laister, V'ean, arianikeriaren atzetik, nestorikeria azalduko zaigu. Elizak ez bait du mundu ontan iñoiz atsedeen-arorik izango, Gurutz-bidea *da* U, aintzazko azken-eguna arte, Elizak ibilli bearko duan bidea. Ta, gurutz-bidean, jakiña, ez da atsedeen-une geiegirik izaten.

Baiñan era berean, sinispide zuzenaren babeslerik aundienen mendea izan zitzaigun IV mende ura: "Patres Ecclesiae" edo "Eliz-Asabarik" aundienen mendea: Eliz-Asaben "urrezko aroa". Banan-

banan emango dugu Asaba aien berri, bakoitzarentzat toki egokia gertatzen zaigunean.

* * *

Milbi-Zubi'ko borrokan garaitza lortu zuan ezker, bere eginkizunik nagusia Elizaren zainketa ta babesketa zala uste izan zuan Kostantino'k. Laister gertatu zitzaion eginkizun ortan lanean asteko garaia. Ez bere arioz, donatikeri-zaleek artara beartu zutelako baizik.

Ereji gogor au Kartago'n jaio zan. Eta zabaldu ere batez ere Afrika'n eta Afrika'ren inguruetan zabaldu zan. Afrika, gaur egungo Tunizi'ri esaten zioten Erromatarrek. Sarkaldera, Numidi zegoan, eta sarkaiderago oraindik, Atlantik itxaszabalaren alboan, Mauritani; gaur-egungo Marroki. Probintzi oietako jendeak, ia danak, berebertarrak ziran, eta antziñako feniziarrek eraikitako Kartago zuten uririk aundiena ta garrantzitsuena.

Lurralde ura izan zan, emen geiago an gutxiago donatikeriaren kabia.

Zugaitzek bezala, edestiko gertakizunek ere ez dute sustrai bakar bat izaten. Bat baiño geiago izan zituan beintzat donatikeriak, eta ez danak erlijiotasunaren alorrekoak. Ikus:

- Diokleziano'ren zigorketa asi aurretik, Mesurio zan Kartago'-ko gotzaia. Gotzai onek berriz Zeziliano goidiakonoa zuan laguntzaille nagusia.

Bizi zan, garai artako Kartago'n, izen aundiko emakume bat ere, Luzila, "une espagnole", "une femme plus qu'à demi folle", "españiarra, eta erdi-eroa" (Daniel-Rops).

Emakume au, ildako norbaiten ezur batzuk zorro batean zituala joaten omen zan mezara, ezur aiek martiri batenak zirala esanez, naiz martiri ura iñork ezagutu ez. Jauna artzera urbiltzerakoan, era nabarmenean, eta oiuka, ezur aiek besarkatzen eta musukatzen asten omen zan.

Zeziliano goidiakonoak ordea, jardunketa ori itxusitu omen zion bein. Gozoa jarri omen zan Luzila!

Emakumezko erdi-ero baten buru-barneko zurrunbilloa ulertzeko gauza ba'zera, ulertu aal izango duzu emakume españiar erdi-ero aren barruan sortu zan Zeziliano'ren aurkako asarre gorria.

Laister iritxi zitzaion emakume gaixo ari, bere gorrotoa Zeziliano'ren gaiñera jaurtitzeko adiontasuna:

- Edestilariak dioskutenez, Afrika'ko berebertarren artean beti irauan omen zuan pizturik Erroma'ren aurkako aierkundeak. Ta aierkunde ori iristen omen zan Kartago bezala erromarturik zeuden itxas-ertzeko uri aundietan bizi ziran jendeetaraiño. Eta orrelako zerbait gertatzen omen zan Ejito'ko koptziarren artean.

Kristautasuna berriz, lurralde artan, izkutuko abertzaletasun orri aize ematera etorri omen zan, eta orregaitik zabaldu omen ziran gero, ain errez eta ain naro, Ejito'n melesikeria eta Afrika'n donatikeria. Erroma'ri eta erromatar zan guztiari, Erroma'ko Elizari adibidez beren asarrea erakusteko bide bat izan omen zan afrikatar aientzat ereji bikoitz ura. Ereji bikoitza diot; beren gunean gauza bat bera bait ziran Afrika'ko donatikeria eta Ejito'ko melesikeria.

Ori egia ba'litz, donatikeriaren sustraietako bat, berebertarren abertzaletasuna izango genduke. Baiñan ez zait iduritzen ori egia danik, edo beintzat, ez nuke nik esango abertzaletasunak ereji orren sorkuntzan orrenbesterañoko garrantzirik izan zezakeanik.

Ereji bikoitz orri-buruzko dokumentu asko iritxi zaizkigu ba gure ogunotaraiño; baiña abertzaletasuna susmogarri egin dezakeanik ez da dokumentu oietan deus agertzen. Donatiarrak eta melesitarrak, erejira, abertzaletasunak bultzatuta sartu ba'ziran, aitortu bearra dugu, abertzaletasunaren bultzaketa ortaz ez zirala beraiek oartu.

Ekonomia ere aipatu oi dute edestilariak donatikeriaren sustraizat, ereji aren sorketa adigarri biurtzeko. Egia da mixeri gorrian goseak bizi zirala lurralde artako jende arrunta gaixoak, eta jende aien artean zabaldu zala batez ere ereji berria: goseak bizi

ziran nekazaritzako langineen artean eta "circoncillioni" esaten zitzaien erdi-lapur erdi-matxinoen artean. Naitanaiezko lapurrak, goseak il nai ez ba'zuten eta naitanaiezko matxinoak, zertaz bizi aurkitzen ez zuten ezkerok; Orregaitik, zer-janaren faltaz, "circoncillioni" auek, lan-billa, erriz-erri non kokaturik gabe joan-da-etorri zebiltzan jende alderraiak ziran.

Jende-mota ortatik irten ziran donatikeri-zaterik iraultzalarie-nak, eta baita donatikeriak sortu zuan Eliz berriko apaizak ere.

Ez da beraz arritzekoa ereje auek, aberatsen aurka oiuegiñez urietako enparantza ta karriketan ainbeste istillu ta zalaparta sortu izatea: Bertan-bera barkatu bearrak omen ziran jende txiroek aberatsei zezaiezketen zorrak ; eta lanik gabe aurkitzen ziranei, eta, naiz lan egin, bizitzeko aiña irabazten ez zutelako goseak bizi ziranei eta beroien sendiei geiago laguntzera bearturik omen zeuden aberatsak ez ez gizartea... eta Laterria ber-bera!

Dakusazunez, XIX mendeko anarkisten aurretik, izan dira munduan, gizartekide txiroen egoera latzaz gizarteari kontu eskatu diotenak.

Ta erlijioaren aldetik ere, gaurko Askapen-Teologiaren jarraileak baiño lenago ere, izan dira Eliza-baitan, IV mendeko donatiar aien antzera, txiroen aldeko lei bizia suma izan dutenak.

Zoritxarrez, donatiar aiek bezala, asko, Elizaren altzotik irtenda, erejira jausi izan oi dira. ¿Elizkideok, aberatsekin eta agintariekin ondo konpondu nairik, txiroen aldeko eta aberastasunak berekin eraman duan okerkeriaren aurkako dei sagaratu orri bear bezala erantzuten ez diogulako?

Jainkoak eskatuko digu eliztarroi eta Eliza berari utsegite ortaz kontu zorrotza. Edestia berriz, aspaldi ari zaigu kontu ori bera eskatzen.

Askapen-Teologiaren altzotik, marxikerira jausi danik edo beintzat marxikerira jausidalako itxura eman duanik izan da bateren bat. Ez dira ordea asko izan ori egin dutenak. Ta gaur-egun, marxikeriaren usteltasuna eta baliorik-eza argi agertu dan ezkerok, arrisku ori igarora dala iduritzen zaigu. Jainkoa lagun beza Askapen-

Teologiak, sinispidearen bidetik zintzo ibilli dedin. Teologi ori bear-bear-bearrezkoa bait du gure munduko gizarte au salbatzeko, Kristo txiroaren Eliz txiroak.

Itzuli gaitezen ordea IV mendera.

Gizartea-aldatu-zaleen artean gerta oi dan bezala, donatista aien jardunkerak ere izan zituan alde parregarriak. Ona emen adibidez, Optatus Numidi'n zegoan Milebe uriko gotzai ospetsuak -- kontatzen digun gertakizun au:

Bidez doa "circoncilioni"-talde bat, eta zalpurdi eder dotore batekin egiten du topo. Zalpurdian, aberats bat dator nagi-nagi aulkian erdi-etziña, ta zalpurdiaaren aurretik, izerditan oiñez laisterka, aberats aren jopua. Geldierazten dute "circoncillioni"ek asarre zalpurdia, ta bereala, zalpurdian jopua eserierazi eta zalpurdiaaren aurrean laisterka, aberatsa ipintzen dute. Parregarria? Bai. Baiña Elias'ek edo Eliseo'k ez ote zuten beste orrenbeste egingo? "Actio Prophetica", ots, "Profetizko Ekintza" esango zitzaion orduan "circoncillioni" kementsu aiek Afrika'ko bide batean egin zutenari.

Optatus milebetarra, Optatus Donea, aipatu dugu. Aurrena, Numidi'n zegoan Zirte uriko eta gero Kostantine'ko gotzaia izan zan. Zazpi liburu idatzi zituan donatikeriari buruz, eta, aipatutako Eusebio eta Laktantzio'rekin batera, bera eta Augustin Donea ditugu donatikeria ezagutzeko iturbururik egokienak.

Optatus, jentilleditik kristautasunera etorritako erretorika irakasle bat zan. Bere idaztian, naiz donatikerira eroritakoei itzulpenerako bidea irikiz, gogor eta egoki jorratzen du ereji ura. Optatus'en merezimendua da, aundia gaiñera, ordura arteko beste iñork ez bezala, Elizaren "nota" edo "adigarriak", batasuna, donetasuna, katolikotasuna, apostolutasuna ederki aztertu ta era argi egokian kristaudiari erakutsi izatea: katolikotasuna eta donetasuna, bereiziki. Bi oiek bait ziran, batez ere, donatikeriak urratzen zituan Elizaren "nolakotasunak".

Elizaren donetasuna, Elizaren sakramentuetan ipintzen zuan Optatus'ek: ez, Elizako elizkideetan. Katolikotasuna berriz,

"Erroma'ko Aitasantuekin bat egiñik egotean": "Unitè avec la chaire apostolique de Rome" (Catholicisme"). Eliza bera, santuz eta pekatari osotutako Gorputz Done bat omen da: lore garbi alaigarritz eta belar edentsu zikiñez, baratz done jainkotiarra.

Biotz samurreko gizona zan Optatus numiditarra. Baiñan alatagutziz, ontzat artzen zuan inperatoreak donatiarren aurka zerabilkian esku gogor zigortzaillea. Garai artako oldozkera!

Danadala, oldozkera ori oso katolikoa ez dala, gure teologilari zar ura oartzen zala dirudi, inperatorearen indarkeria zuritzeko, arrazoi lez donatiar beraien gaiztakeria aipatzen bait du.

* * *

Egia da donatikerian eta donatikeriaren sorkuntzan indar izan zutela azaldu ditugun bi sustrai oiek, ekonomiari-buruzkoak batez ere, baiñan askoz indar aundiagokoa izan zan beste irugarren sustrai bat: erlijiozko sustraia, alegia. Aztertu dezagun orain irugarren sustrai ori, baiñan, aurretik, azaldu dezagun ereji aren muiña:

Donatitarren ustez, zalantzan ipiñi ez zitezkean egiak ziran onako atal bi auk:

- "Kristo'ren Eliza, Santuen Eliza da". Lenen denborako Eliz ura bezalakoa. **Soilki** Santuen Eliza. Ez daiteke elizkide izan santu ez dana. Eta ori, Kristo beraren borondatez.

- Orregaitik, "Elizatik jaurtia izan bear du Santu ez dan guztia".

(Oroituko zeranez, Lenen Elizari-buruzko uste oker ori, maiz agertu zaigu orain arte eliz-edestia-zear eta maiz agertuko zaigu gerontzean ere Eta maiz agertuko zaie, baitare, gure ondorengo eliztarrei).

- Eliza soilki Santuen Eliza dalako, Santu ez diranek egindako sakramentuek, adibidez katolikoek egindako sakramentuek batere baliorik ez dute. Orregaitik katolikoek bataiatutako guztiak bir-bataiatuak izan bear dute donatiarren Elizara sartzerakoan.

(Sakramentuei-buruzko aburu oiek ere, len ikusiak ditugu. Afrika'n bertan gaiñera).

- Katolikoak, "impuri", ots, "zikifiak" dira, eta zikindurik gelditzen dira aiekin alkartzen diran guztiak. Orregaitik, aiek bezala auek ere santuen Elizatik eskomikatuak izan bear dute.

* * *

Edestiaren aldetik, montanikeriari sortzea eman ziona Dezio'ren zigorketa izan zan bezala urte batzuk geroagoko Diokleziano'ren zigorketa izan zan donatikeriari sortzea eman ziona.

Oroi, Diokleziano'ren iru zigorketa-legeetatik lenengoak, kristauen batzarrak debekatzeaz gaiñera, Liburu Sagartuak ertzaindegietara eramatea agintzen zuala.

Lege ori betetzea, au da, Elizaren liburu santuak ertzaiñei ematea, besterik gabe, çesan al daiteke Kristo'ren Elizari uko egitea danik?

Era ez berdiñean erantzun zitzaion galde orri elizkideen artean. Bai, erantzun zuten batzuek, Sortaldean batez ere. Ez, erantzun zuten berriz, sarkaldean bereiziki, beste batzuek, eta kezkarik gabe eraman zituzten ertzaindietara elizetako liburuak. Orrela, bearbada, Afrika'n Mesurio Kartago'ko gotzaiak, eta Zeziliano goidiakonoak. Eliza gaitz okerragoetatik gordetzeko liburu doneak ertzaiñei ematea ez bait zuten pekatutzat euki.

Orrela pentsatu-bide zuan Erroma'ko Aitasantuak ere: "De modo semelhante o bispo Marcelino de Roma renunciou a os livros sagrados" (Chadwick-Carvalho).

Era berean pentsatu zuten elizak isteari eta kristauek alkarrekin ez biltzeari-buruz ere. Gaitz aundiagoei atea ez irikitzearren naiago izan zuten elizak itxita "katakunbetara itzuli", ots, liturgia bazter izkutueta ospatu.

Zentzuzko jokaera zugur garbia, gure oraingo ustez beintzat,

Asarretu ziran ordea gogorkeri-zaleak. Auentzat, batez ere Afrika'n eta Sortaldean, Liburu Doneak ertzaiñen esku zikiñetara eramatea, fedea ukatzea zan ba zalantzarik gabe! Eta beren uste orren araura, "traditores", "eramailleak" izen-ipiñi zieten liburu doneak ertzaindegietara eraman zituztenei. Izan ere, "eraman", lateraz "tradere" esaten bait da.

Ainzuzen ori jaurtitzen zioten Mesurio Kartago'ko gotzaiari, Kartago'n bertan bere aurka jeiki zitzaizkion gogorkeri-zaleek:

- "Traditor" izan zala.

- Eta "traditor" izateaz gaiñera, errezegi ematen ziela barkape-na fede-ukatzaillerei".

Mesurio il zanean iertu zan Elizaren altzoan borroka: aren ordeaz, aski arin eta larri, inguru artako iru gotzaiek Mesurio ark laguntzaille izandako Zeziliano goidiakonoa Kartago'ko gotzai sagaratu zutenean.

Gogorkeri-zaleek, alako Luzila andre españiar aberats erdi-ero ura buruzagi zutela, Zeziliano sagaratu zuten gotzaietako bat ere "traditor" zalako, Zeziliano'ren sagaraketa baliorik-eza zala oi u egin bait zuten, "santu" ez dan batek egindako sakramentuak, oiulari aien ustez, baliorik gabeak diran ezker o.

Bereala, beste gotzai bat ipiñi zuten Kartago'ko gotzai-aulkian: Numidi'ko Maiorino; eta, onen ondorean, erejiari izen eman zion Donato. Au izan zan Donatikeriaren Eliza sortu ta eratu zuana. Eta orrela jaio zan Eliz Donatiar zismakoia.

* * *

Era berdiñean gertatu ziran gauzak Ejito'n ere.

Ejito'n, Alexandri'ko Kepa Donea zan lurralde guzi artako gotzairik ospetsuena. Izkutuan gorderik bizi zan bera. Galda bizian bait zegoan Diokieziano'k Elizaren aurka asitako jazarkunde gogorra.

Une artan, Ejito'ren egoaldeko elizgizon izentsu bat iritxi zan Alexandri'ra: Meliton likopolistarra, 'Tebas'ko metropolita, edo gotzai nagusia.

Ez dakigu ziur non zegoan Kepa Alexandri'ko gotzaia, Meliton ura Alexandri'ra etorri zanean: edestilari batzuen ustez, espetxean; beste batzuen ustez, uritik iges-eginda. Danadala, Kartago'ko Eliza illik zegoala iduritu zitzaion Meliton zorrotzari, gotzaiak "aide egin" omen zualako. Gaiñera, **agirian** agertzen ez zan Eliza illik edo beintzat loak arturik zegoan Eliza zan, IV mendearen asierako gogorkeri-zaleentzat.

Alexandri'ko Kepa Doneak eta beste gotzai katolikoek ordea ez zioten artaraiñoko garrantzirik ematen elizkizunak **agirian** ez egite orri. Ala, izkutatzeko agintzen zioten beren erriari, eta izkutatu egiten ziran beraiek ere, eta izkututik bakoitzak bere Eliza zuzendu.

Asarretu zan ordea Meliton, eta zisma bat sortu zigun Ejito'ko Eliza-baitan. Orrela, Kartago'n zismari asiera eman ziona, liburu doneak ertzaindegietara "tradere" edo "eramatea" izan zan bezala, Ejito'n, Eliza "lo zegoala" uste izateak eman zion bertako zismari sortzea.

Al, ta ¿nola ez? fedeukatzaillerei barkapena errezegi ematen ziela ere oiur egin zuten gogorkerizaleek Kepa gotzaiaren aurka.

Danadala, Alexandri'ko Eliza agiriko elizkizunik egiteke egotea izan zan, batere eskubiderik gabe Alexandrren apaizak sagaratzen asteko, Meliton'ek artu zuan arrazoia. Ta, arek sagaratutako apaiz auetako bat, Ario izan zan, gazteleradunen Arrio.

Apaz langillea, Ario au, ta gizon sotilla; edestilariek diotenez, neskatilek benetan mirestua, baiñan arras biziera garbikoa, kaiako langilleen adiskidea ta aientzako kristau-abesti ederren sortzaillea... Altaguztiz, Elizak izan duan erejirik aundienetako baten sortzaillea: arianikeriaren sortzaillea ainzuzen.

Laister ordea, zigorketaren epel-aldi batean, Kepa Donea, yare, Alexandri'ko gotzai-aulkian genduan ostera.

Ario 'k berealaxe egin zituan berekin pakeak; eta, agian, jardunkera ori, Ario'k apaiz-sagaraketa jurisdizio edo almenarik

gabeko gotzai baten eskutik asmo okerrez ez baiña uste onez atzipeturik artu zualaren adigarri dugu.

Beste era batera jardun zuan Meliton'ek, Ejito'ko Eliza-baitan bere izena daraman zisma sortuta, bere burua gogorkeri-zale guztien zuzendari bihurtuz,

Laister, Elizaren aurka zigorketa ber-piztu zanean, baitua ta martiri erailla izan zan, 311'n, Donekepa Alexandri'ko gotzaia, eta baitua ta lan gogorretara beartua Meliton zisma-sortzaillea.

Nizea'ko kontzilioak, agian gogortxoegi, konpondu nai izan zuan melizitarren zisma, baiñan auek Ario'ren alde jarri ziran, eta azkenean, esan oi danez arianikerian, bai, baiñan seguruaski erdi-arianikerian urturik amaitu zan beren ereji zismakoia: melezieria.

* * *

Ez ziran ain azkar ta errez amaitu donatikeria, eta ereji onek sortutako iskanbillak. Izan ere "aventuriers de grand style doubles d'organizateurs geniaux" (R. Aubert), "batera yayotasun aundiko zalapartalaria eta egundoko antolatzaillak" izan bait ziran ereji aren zuzendaritza artu zutenak.

Ona, "aventuriers de grand style" aiek sortarazitako zalaparten aria:

- 305. Diokleziano'ren erabakiz lenen tetrarkiaren amaia, eta bigarrenaren asiera. Pake-aro aski leguna Elizarentzat Sarkaldean. Sortaldean ordea, len bezain anker jarraitzen du zigorketak. Ala, sarkaldetarra zan Afrika'n badu bertako Elizak, Numidi'ko Zirte urian sinodo bat egiteko pake-girorik aski. Ez daiteke sinodo ura donatikeriaren azia danik esan, baiñan bai donatikerirako giroa prestatu zuala.

Afrika'ko Eliza, beti egon zan II mendearen erdiaz gero sakonki zatitua. Zati aietako bat, zaratatsuena, eta baita agian ugariena ere, era batean garbikeri-zale eta gogorkeri-zale izan ziran aien taldea dugu.

Auen aburuz, Eliza, bere Buru Santua Kristo, eta bere bizi-emaille Santua Gogo Deuna dituan Gorputz Santu bat dalako, naitanaiez, Santu diranetaz bakarrik egon daiteke osotua. Pekatariak ez dira Elizakoak. Eta Elizakoak ez diralako ezin dezakete baliozkoa daitekean sakramenturik egin.

Gogapen oien araura antziñako garbikerizale aiek ziur uste zuten, pekatari aundiak, adibidez "traditores" esaten zitzaien aiek eta beste fede-ukatzailleak ez zitezkeala beiñere, naiz damuturik egon, Elizaren altzora pekatutik itzuli. Orrelako pekatuak barkatzeko, ez omen zuan Elizak aalmenik!

11 mendean sortutako gogabide ori sendoagotzen eta bere alde jende geiago irabazten ari izan zitzaigun III mendearen luzaroan. Oroi, ain gogorzale ez ziran aiek ere, izugarritzko penitentzia eskatzen zietela fede-ukatzailleari.

"Sobre estos principios rigoristas, fue aumentando cada vez rri s el fanatismo de los adeptos de la secta, que por su alarde de pureza y perfección fascinaban a muchos incautos" (Llorca).

Giro ortan egin zan Zirte'ko sinodoa. "Traditores" edo "liburu santu erarnailleak" eta beste fede-ukatzailleak izan ziran sinodo artako gaia.

Izugarrikeri mardulak esan zizkioten sinodo artako gotzai aiek batak besteari. Bai bait zan an, besteek fede-ukatzailleei errezegi barkatzen ziela pentsatzen zuan bat baiño geiago.

- Esan dugu, Mesurio Kartago'ko gotzaia il zanean, Zeziliano goidiakonoa aren aulkirako nola izan zan sagaratua. Esan dugu baitare Zeziliano sagaratu zuten gotzaietako bat, Aptunga'ko Felix, "traditor" omen zalako, Zeziliano'ren ordez beste gotzai bat, Maiorino, izan zala une berean Kartago'ko gotzai sagaratua.

Maiorino au, Luzila andre espaniñar aberats erdi-eroaren morroia zan, eta bera sagaratu zuana, azkeneko berrogei urtez gero Kartago'ko gotzaien sagaraketan buruzagi izateko eskubidea bereganaturik zeukan NumidUko "Primas" edo "Lenen-Gotzaia": Tigisis'ko Segundo. Irurogei t'amar gotzaiekin etorri zan au Kartago'ra, eta emen, Maiorino sagaratu aurretik, sasi-sinodo bat

ospatu zuan, Zeziliano'ren sagaraketa baliorik gabea zala erabakitzekeo.

Ta, esan dugun bezala, aldi laburrean egon bait zan Maiorino gotzaigoan, Donato izan zan aren Jekurako sagaratua,.

Bi gotzai beraz Kartago'n: Zeziliano eta Donato.

- Ordurako, garaitua zuan Kostantino'k Majentzio, eta bera zan Sarkalde osoko inperatore bakarra. Baita Afrika'koa ere.

Bear-bearrezko zuan Afrika'n pakea lortzea, Afrika bait zuan Erroma'k gari-ta-olio-emailerik aundiena. Garrantzi aundiko emaitzak biak; orduan batez ere, ainbeste borroken ondorean, Lateria ekonomiz ia lur jota zegoanean.

Asieran Zeziliano'ren alde jarri zan Kostantino, eta eskubide aundiak eman zizkion, berari eta bere Eliz osoari.

Donato'k ordea, eskubide aiek berberak eskatu zizkion bere Elizarentzat: "Martirien Elizarentzat". Orrela deitzen bait zioten donatiarrek beren Elizari.

- Naitanaiezkua izan zuan Kostantino'k auzian sakonago sartzea, katolikoan eta ez-katolikoan inperatore zalarik, ezin bait zezakean Donato'ren deia erantzunik gabe laga. Baiña Elizaren batasunaren maitale ere bai bait zan, Aitasantuaren eskuetan utzi zuan auzia.

Melkiades zan orduan Aitasantu, afrikarra jatorriz, eta, Kostantino'ren eskariari erantzunez, Sinodo bat bildu zuan Letran'go Basilikan, Itali'ko eta Galietako gotzaiekin.

15 ziran Galietakoak: donatizaleek eskatuak; Galietan azkeneko urteetan kristau-zigorketarik izan ez zalako, fede-ukatzailleen aurka gogorragoak izango ziralako ustean. 3 ziran italiarrak. Melkiades Aitasantuak berak izendatuak. An ziran, baitare, donatikeri-zaleen amar ordezkari, eta baita auen aurkako beste amar ere. Guztira irurogei ta zortziren bat gotzai. Ezaguna zan gotzai aietako batzuen oldozkera. Auetatik geienak, 13¹ren aurka 25, itxuraz beintzat donatizaleen gustokoak: 13¹ren aurka 25: beren 10 ordezkari aiek, ta beraiek eskatu zituzten 15 galitarrak.

Alatagutziz oker irten zitzaien donatizaleei joko. Sinodoa'k, Zeziliano, jaurti zitzaizkion okerkeri oroz garbia zala erabaki bait zuan, eta ballozkoa izan zala bere gotzai-sagaraketa. Ortaz gaiñera, donatikeria eta donatikeriaren jarrailleak gaitzetsi zituan, baiñan auentzat barkapen errez bat eskeiñiz.

Ez zituzten donatiarrek erabaki aiek ontzat artu, eta Kostantino'ri dei egin zioten berriro laguntza-eske.

Kostantino'k, Afrika'ko jaurleari idatzi zion, Aptunga'ko Felix gotzaia, "traditor" izan zan edo ez jakitearren ikerketa ziur bat egiteko aginduz. Egin zuan onek inperatoreak eskatzen zion ikerketa sakon ori. Ikerketak ordea, Aptunga'ko Felix ez zala iñoiz "traditor" izan, argira atera zuan. Eta ori aldarrikatu zuan Afrika'ko Jaurle edo gobernadoreak.

- Ez ziran ordea Donato ta beretarrak makurtu. Ez orixe! Donato'k, Kostantino¹ gana jo zuan berriro Aitasantuaren sinodo artako erabakien aurka: Askoz gotzai geiagoko sinodo bat, ots, Eliz osoaren billeratzat eukia izan zitekean sinodo bat bear omen zan auzia zuzen erabakitzeko. A!, ta Zeziliano'ren sagaraketa benetan izan omen zan baliorik gabekoa, Aptunga'ko Felix gotzai sagarat-zaillea, egiaz "traditor" bat zalako.

- Irugarren aldiz arazo mingarri ortan burua sartu bearrean aurkitu zan Kostantino.

Donatikeri-zaleek, "aventuriers de grand style" berebiziko iskanbillak sortzen ari zitzaizkion Afrika'n. Kostantomo'k berriz bearrezkoa zuan une artan, Europa'n pakea egin ondorean, Afrika'n ere pakea.

Ala, Sinodo bat bildu zuan Galietako Arles urian. Ugari etorri zitzaizkion gotzaiak, Itali'tik, Galietatik, Dalmazi'tik, Espafii'tik, Inghlanderritik... Sarkaldeko lurralde guztietatik.

Bazuten oraingoan donatiarrek pozik egoteko arrazoirik aski. Baiñan oker irten zitzaien berriro gauza: Zeziliano'ren alde eta donatitarren aurka mintzatu bait zan bigarren sinodo au ere.

Eman zuan gaiñera garrantzi aundiko lege bat. "that ordination was not invaiid merely because it had been performed by a

traditor": "sagaraketa bat ez dala baliorik gabekoa **"traditor"** batek egiña izate utsagaitik" (Enc.Brit.).

Izan zuan, erabaki orrek, donatiar batzuen adimenetan argia piztutzeko kemenik aski. Baiña beste askok lengo bidetik jarraituz, Kostantino'rengana jo zuten berriro. Ta Kostantino'k, atzera berriz, ikerketa bat eskatu zuan Afrika'tik, Zeziliano'ren jardunketari-butuz.

Berria zan orain Afrika'n ikerketa ori egin bear zuan jaurla: Emiliano. Baiñan berdiña izan zan ikerketaren emaitza: Zeziliano erru ta gaiztakeri orotik zearo garbia zala.

Ez zan ordea Afrika'n pakerik egin. Asperturik zegoan Kostantino; eta erabat arazoa konpondu naiez, bere aurrera deitu zituan, 316'ean, katolikoan eta donatizaleen ordezkari batzuk. Ta danen arrazoiak patxadaz entzun ondorean, donatikeriaren aurka eman zuan bere erabakia.

Baita urrengo urtean lege gogorrek ere, bere erabaki ura ontzat artu nai izan ez zutelako, aien erejia debekatu. Zituzten eliz guztiak kentzea izan zan lege aietan gogorrena. Ekintza zail eta gogor ori Ursazio gudalburuari eman zion. Ursazio'ren ekintza orrek ordea, pakea lortu bearrean, len baiño buru-gogorrago biurtu zituan donatiarrek.

Jasan bear izan zuan donatikeriak beste zartako gogor bat lau urte geroago. Numidi zuten, gaurko Arjeli dagoan tokian, beren lurralderik tinkoena. **Ba**, 320'ean, donatitarren Elizako apaiz batek Numidi'ko donatitarren buruzagiak "traditores" izan zirala aldarrikatu zuan. "Traditor" esaten zioten Zeziliano'ri. Eta ona non, oben orren errudunak, Zeziliano ez baiña, Numidi'ko donatiarren buruzagiak ziran!

"The evidence showed these to be themselves guilty of the crime of traditio with which they accused Caecilian (ib): "Argi azaldu zan Zeziliano "traditoretzat" salatzen zuten aiek berak zirala egiaz "traditore" izatearen errudunak".

"The Donatist cause seemed hopelessly prejudiced": "Itxaropenik gabe galdua zirudian donatiarren etorkizuna", baiñan larru

gogorreko gizakumeak ziran aiek eta jaso zuten laister Numidi'n ere burua, eta borrokara sartu ziran iñoiz baiño gogorrago. Ertzain geiago Afrika'ra bidali bearrean aurkitu zan Kostantino.

Alperrik. Borroketan ildako "martirien" odolak sututa egunetik egunera kementsuago bait zebiltzan donatiarrak. Beren eginkizunetarako ez zitzairen beñere Luzila andre españiar erdi-ero aren dirurik peitu.

Kostantino'k, eta bere aolkulariek ez zituzten erdi-santu erdi-matxino aiek ongi ezagutzen. Eliz aren buruzagien artean izanen ziran "aventuriers de grand style", baiñan Eliz artako jende arrunta naimen zuzeneko jendea zan, fedez eta uste onez beterik zebillena, kontzientzirik garbieneko jendea, ziñopa edo martirien eta ziñopatasun beraren miresle benetakoa.

Jende xume arentzat, ziñopa iltzea zan gizakume baten elbururik ederrena, guragarriena, eta fedearen alde martiri iltzea zuten gurari danetan kuttunena. Orregaitik, aietatik asko Eliza katolikoaren agindua ezentzunez, Dezio eta Maximino Daia'ren denboretan epailleen aurrera agertzen ziran, kristauak zirala eta Erroma'ko sasi-jainkorik ez zutela gurtuko alaiki aitor egiñez.

Are geiago, martiri iltzen ziralako ustean, odolik beroeneko donatitarren artean beren burua il zutenak ere izan zirala badakigu.

Ala, adibidez, arkaitz guren baten muturretik buruz-bera jauzi egin zuten talde artako aiek. Eta, abestuz sutara sartu ziran beste talde artakoak.

Ori guzia, edestilariengan aurki dezagun gauza da. Alare, ori, Eliz artako giroa zala, bai noski, baiña ez zala Eliz artako elizkide **guztien** guraria ere kontuan artu bear dugun gauza da.

Ez ziran, ez noski, Eliz artako elizkide danak, epaille jentillengana len eta Kostantino'ren ertzaiñengana orain, martiri iltzearen gurariz eriotz-billa joaten ziranetakoak.

Egia da alatagutiz, Eliz aren izpiritua martiriotzaren gurbeta zalako, elizkidee aiek, sinismenagaitik il bearrak ez zituala ikaratzea.

* * *

Lau urteko borroken ondorean oartu zan Kostantino zigorra-bidez ez zuala ezer aundirik lortuko fanatikeriz itxututako eriotz-maitale aiengandik, eta 321'garren urtean, azkenean donatiarrei pakea eman bearrean aurkitu zan.

Arro zabaldu zan orduan donatikeria, eta bazirudian Afrika osoaren jabe biurtuko zala. Baiñan Donato'k era txoliñean egindako eskari txoro batek ondatu zion bere Elizari giro-ontasun bikain ura:

Kostantino aren semea, Kostante, zan Sortaldeko inperatore berria, ta inperatore berri oni egin zion Donato'k 346'eanean eskari txepel ura: Lege baten bidez Kartago'ko egiazko gotzaia bera, Donato, bakarrik zala kristaudi osoari jakirierazteko, alajaria.

Asarretu zan Kostante, eta itzuli zan berriro zigorra donatiarren bizkar-gaiñera. Urrengo urtean, Donato ta bere Elizako gotzairik izentsuenak, Galietara erbesteratuak izan ziran. An il zan Donato, 355'aren inguruan.

Gratus zan orain Zeziliano illaren aulkian Kartago'ko gotzaia. Bir-bizkortu zan bere zuzendaritzapean katolikotasuna, baiñan ez zuan bizkortze-lan orrek luzarora irauteko erosotasunik izan. 361'an Eliza katolikoaren etsai aundi bat bait zan osteria inperatore: Juliano fedeukatzailea.

Garaille itzuli ziran Galietan erbesteturik zeuden gotzai donatiar aiek, eta martiri aundi lez izan ziran Afrika'n txalotuak.

Egia da 367'an beste inperatore bat, Graziano, etsai izan zutela, eta berriro zigorpean aurkitu zirala. Kostantino'k bezala, onek ere elizak kendu nai izan bait zizkien. Bildurrik gabe eutsi zioten ordea donatiarrek bere sinispideari.

Geroago, lege sorta baten bidez astunki zigortuak izan ziran berriro eta 405'eanean Onorio inperatorearen agindu baten bidez, "supresa", "ezabatua"!, izan zan donatikeria.

Ezabatua, inperatorearen paperetan. Ez ordea eguneroko bizitzaren arloan.

Izan zituan, donatikeriak, bere barruan ere zalaparta gogorak. Donato bera ilda, arek bere ondorengotzat aukeratutako Parmenian gotzaia il zanean adibidez, baiñan alatagutziz, ez ziran kukildu donatiarrak eta inperatoreen aldetiko zigorketak eta beren arteko zatiketak garaituz, beraiek izan ziran Afrika'ko kristaudiaren geiengoa, arabitarrak lurralde guzti aren jabe egin ziran arte.

Arabitarrek etorri-aurretik ordea, batzar berri bat egiñarazi zuten donatiarrek Kartago'n 411'garren urtean, Afrika'n Legezko-Eliz Katolikoa, ots, "Eliz Katoliko Ofiziala" zein zan jakiteko: donatiarren Eliza ala "donatiarren etsaiek osotzen zuten beste Eliz ura". Ez-apaiza izan zan batzar aren zuzendaria, inperioko epai-mai gureneko epaillietako bat, Martzelino, ordurako ospe aundiaren jabe zan Augustin Donearen adiskide miña.

286 izan ziran Batzarreko gotzai katolikoak. Baiñan 284, Donatiar-Elizakoak. Eztabaida bizia sortu zan batzuen eta besteen artean onako "tesi" edo esari nagusiari-buruz:

"Mundu ontako Eliza Katolikoa, sakramentuen indarrez bateratutako santuz eta pekatari osotutako gorputza da. Zearo santua dan Eliza, beste munduko Eliza da", zioten katolikoek. Ez orixe, erantzuten zuten donatiarrek "Mundu ontako Eliza Katolikoak ere, Idazti Doneek erakusten duten lez, osoki Santua eta orbanik gabea izan bear du". Ondorioa: pekatariak "Ecclesiae Membra" edo "Eliz-Kideak" ez dirala.

Eta, setatsuak eta burugogorak izan bait ziran beti donatiarrak, Zeziliano sagaratu zuan Aptunga'ko Felix ura sekulan "traditor" izan ez zala, arras argi gelditu zala oroitzeke, betiko lelora jo zuten azkenean: Zeziliano'ren sagaraketa baliorik gabea izan zala, "traditor" izan omen zalako Felix ark sagaratu zualako.

Setatsu ta burugogorak ez logikarik gabeko jendeak izan ziran donatiar aiek. Ikus:

Oroituko zera, nola ibilli zan Donato, gelditu gabe, bere Elizarentzat Kostantino'ren laguntza eskatuz eta ber-eskatuz. alatagutziz, Donato bera, inperatorea Elizako auzietan sartzearen

etsai agertu zan beti: "Quid est imperatori cum Ecclesia"? Zer dala-ta, inperatorea Elizari dagozkionetan"?, izan zan bere ikur-itza.

Logikaren falta baiño geiago, buru-muiñetako sendotasunaren falta adierazten digula dirudi Donato'ren jardunkera orrek: Gauza ona da inperatorea elizari dagozkionetan sartzea, aren sartze ori neretzat eta nere elizarentzat onuragarri ba'da, gauza gaiztoa ordea neretzat kaltegarri ba'da", pentsatzen zuala dirudi. Ortik, gaur, laguntza billa, Kostantino'ri Eliza zuzentzen asteko eskatzen ibiltzea, eta biar "quid est imperatori cum Ecclesia" oiugiten astea.

Al, ta Martzelino epaileak zuzendu zuan Kartago'ko batzar artan ere bein berriro zearo galtzaille irten ziran donatiarrak. Uste al duzu akitu zirala? Bai zera! 412'an aurrena eta 414'ean gero, ostera aien aurka lege-gintzan genduan inperatorea, oraingoan Maximo inperatorea, donatiarrei bai erlijioaren barrutian bai politikaren arloan eskubide guztiak kentzen zizkien sekulan baiño lege gogorragoak emanaz.

Alperrik.

Iritxi ziran bandaliarrak, barbaritarrik gogorrenak, Afrika'rairio. Su-ta-gar astindu zuten lurralde ura dana, baiñan ez ziran donatikeria ezabatzeko gai izan.

Santuak mundu ontan zigortuak izan bear dutelako, eta beraiek egiazko santuak izanik, "expecting hostility from the world as part of the natural order", "munduak zigortuak izatea bearrezko gauza zutela ustez", eraso guztien aurrean zutik iraun zuten arabitarren menpera jausi ziran arte.

Ala, VI mendearen azken urteetan, I Gregorio Aitasantuaren esanera jarraitzen zuten gotzai katolikoen aurka borrokan zebiltzan.

Maometarrak izango ziran, donatikeria betirako ezabatu zutenak. Agian, lurralde artan maometarren ezpatak bandalitarren aizkorak baiño denbora luzeagoz agindu dualako.

Ikusia dugu Sortaldeko Eliz osoan, Afrika'ko kristaudian batez ere, beti izan zala igikunde ertzakoi latz eta ugaritsu bat. geiezigiko gogorkeriaren erruz, Elizarentzat aulgarri, eta, geiezigiko garbikeriaren erruz orbangarri gertatu zan igikunde orrek sortu zituan montanikeria, nobazikeria, melezikeria, donatikeria...

Itun Berria baiño geiago Itun Zarra zuten kristau aiek maite: Makabetarren Liburuak adibidez. Erljioa babesteko, liburu oietan agertzen diran gudari makabetarren ardura izan zuten eredu; eta, erlijio-legeak zintzo ta garbi betetzeko, martiri makabetarren kemena.

Donatikeria izan zan igikunde zital aren azkeneko zitua.

Izugarrizko gaitza egin ziguten ereji zakar oiek, Sortaldeko kristaudia zatitu, auldu ta txorabiatu zutelako. Orrelakoa izan zan maometarrek an aurkitu zuten kristaudia: milla eztabaidetan nasturik eta barneko goi-ingar zerukoi oro galdurik, aiek zekarkio-ten erasoari aurpegi emateko zearo gaitasunik gabea.

Eta, orduan zer gertatu zan, badakigu.

Baiñan ez zan donatikeria IV mendean ereji bakarra izan. Ezta arriskugarriena ere. Laister sortu bait ziran Arianikeria, eta onen atzetik, V mendean, nestorikeria, Eliz gaixo aren kemena geiago auldu, makaldu ta ezerezteko, eta orrela, Eliza porrokatuz, maometarrei lurralde aietan kristautasunaren lepotik lortu zuten garaitza orokorra prestatzeko. Non dago gaur adibidez Kartago'ko Eliz dizdiratsu aren aintza?

ARIANIKERIA

(Itz bat, aurrena, ereji aren eta erejiaren sortzaillearen izenei buruz. Latiñez, Arius esan zaio beti sortzailleari, eta "arianismus", aren erejiari. Orrela, "r" goxoa erabilliz eman dituzte bi izen oiek geroagoko izkuntzek ere, gaztelerak izan ezik. Portugaldarrek ere "Arius" eta "arianismo" esaten bait dute. Gaztelarrek, ez dakit zergaitik "r" goxoa "rr" gogorra bihurtuz, "Arrio" eta "arrianismo" esan eta idatzi dute.

Nik, emen, bai euskerak gazteleraren mendean egon bearrik ez dualako, bai mundu guztiaren iritzia jarraitzea egokiagoa etsitzen dutalako, "r" goxoa erabilliko dut beti bi itz oietan).

* * *

Arianikeria, aburu bezala, izan daitekean gauzarik ulerterreze-na da, **Irutasun Donearen Bigarren Pertsona, Semea, Jainkoa ez dala** besterik ez bait du esaten.

Gertakizun bezala ordea, munduan izan dan zalapartarik aundienetakoa izan zan: Naasia, biurria, moidakaitza, laugarren mende osoan Erroma'ren inperiolurrean gizarte guztia, Aitasantuak, inperatoreak, gotzaiak, apaizak eta erria bera, irakiten ipiñi zituana. Etenik gabeko gotzai-aldaketak, gotzai eta gaiñerako elizgizonen artean bata-besteren aurkako eskomika jaurtiketak, karriketetan, kristauak kristauen aurkako matxinada odoltsuen sorketak, bein baiño geiagotan matxinada oien giroan gudarien geiegikeriak eta erailketak...

Lutero'k protestalaritza sortu zuan arte, ez zan edestian alako lardaska mardulik agertu.

Zurrunbillo ura nola sortu izan zitekean ulert'aal izateko, ar ditzagun gogoan onako xeetasun auek:

- Arianikeria eta berak ekarritako naas-maas zoroa, IV menean, Erroma'ren inperio-lurrean, eta lur orren sarkaldean ainzuzen, sortu zitzaigun.

- Erroma'ko jendea, borrokalaria izan zan Errepublikaren garaiean. Gero, inperiotzaren urteetan, gero ta geiago, guduketa sari-trukeko barbaritarren eskuetan eta lang intza jopuen eskuetan utzita, nagikeri gozoan bizi nai izatera jo zuan. Sortaldean bereiziki.

- Sortaldea zan, Ejito, Siri, eta gaur-egungo Turki --, inperiolurraren zatirik jendetsuena, aberatsena, kulturaz aurreratue-na, ta nagiena. Baita arriskurik txikieneko tokirik babestueanean bizi zana ere. Itxasoak eta Kaukas-Mendiak eta Siri, Arabi ta Saara-aldeko lekaro Iegorrek barbaritarren erasoetatik ederki gordetzen bait zuten lurralde ura guztia.

- Sortaldetarren izkuntza, elenera zan. Ez zuten laterarik itzegiten. Grezi'ko izkuntzaz mintzatze orrek erreza egiten zien Grezi zarreko elertirako eta filosofirako sarrera.

- Greziarrek beti izan zuten gogoeten barrutian adimenarekin jokuan ibilliz oro aztertu eta oro eztabaidatzeko zaletasun berezia.

- Zaletasun ori, bete-betean igaro zan Erroma'ko inperioaren denboran sortaidetarrengana. Txit anpatua gaiñera, orain askoz obeki bizi bait ziran ekonomiari zegokionez lurralde artako jende aberatsak. Batez *ere, alkarrizketa* sutsu eta eztabaida zaratatsuetarako zaletasuna izan zuten nabarmena. Ortik, izketan nola dotore jokatu erakusten duan erretorikari eta arrazoiketari arrazoiak nola erabilli dasaigun logikari izan zieten maitasun berezia.

- Kristauak berriz, antziña artan, sortaldetarrak ziran ia danak. Bai beintzat, askoz, geienak. Ez da beraz arritzekoa, aipatu ditugun zaletasun oiek Sortaldeko Eliz aren altzora sartu izatea, eta kristau jakintsuak, apaiz-jendea batez ere, filosofiaren araura banaka-bana-

ka sinispideko egirik garrantzitsuenak arrazoiketaren bidez aztertzen eta eztabaidatzen asi izatea.

Orregaitik, antziña artako ia erejirik geienak-- esate baterako ia ereji danak Sortaldean sortuak eta Sortaldean zabalduak ditugu.

Sortaldeko arazoa izan zan oso-osoa arianikeria ere.

- Erria bera, Sortaldean, kultura aundikoa bait zan, eta jakintsuen zaletasun aiek asko edo gutxi berak ere bai bait zituan, buru-belarri sartu oi zan jakintsuen eztabaida aietan. Eta jakiña, gogorak izaten ziran alde bateko eta besteko kristauen arteko zalapartak.

- Inperatorea kristau egiteak, okerragotu besterik ez zuan egin Sortaldeko kristauen arteko urduritasun ura. [zan ere:

- Inperatoreek, inperio sortu zanetik izan ziran Erroma'n erlijioaren Jaupari nagusi, eta, berezkoa zuten, ondorioz, erlijio-arazoetan sartu naia eta sartu bearra. Inperatore kristauek ez zeukaten azturik ori.

- Inperatoreek beti erabilli izan zuten erlijioa Laterriaren batasuna egiteko eta sendotzeko. Inperatore kristauen aroa, Erroma'ren edestiko arorik arriskutsuena izan zan. Ez da beraz arritzekoa Inperatore kristauentzat Laterriaren batasuna garrantzi aundiko arazoa gertatzea, eta, kristauen arteko batasunik eza Laterriaren eskiertasunerako arrisku aundiko arazoa zalako, ala-edo-ola, kristauen arteko batasuna bir-eratu nai izatea.

- Ortaz gaiñera, inperatore kristauak, benetan izan ziran kristauak. Uste oi dan baiño askoz geiago. Eta Eliza maite zutelako, biotz guztiz sartu ziran Eliza konpontzera.

Ori egitean, askotan oker ibilli zirala? Bai. Baiñan, orduan, teologilari jakintsu bikaiñak ziran borondate oneko elizgizon asko ta asko eta Sortaldeko gotzaien artean ia danak egia non zegoan ikusteko gauza izan ez ba'ziran, arritzekoa al da ez teologilari ez gotzai ez ziran inperatore batzuek egia billateko bidean asmatu ez izatea?

- Eliza konpontzea ez dala inperatoreen lana? Ori badakigu gaur, teologiarien azterketek eta batez ere orrenbeste mendeen luzaroan edestiak berak erakutsi digutenaren ondorean. Orduan ordea gauzak ez ziran orrela ikusten. Orregaitik, batere kezkarik gabe eskatu oi zieten Aitasantuek erejiaren aurkako laguntza inperatore katolikoei, eta erejien buruzagiek beren inperatore adiskideei--.

- Iru izan ziran arianikeriaren alde jardun zuten inperatoreak: I Kostantino bera, aldi luze batez; baiñan bereiziki, II Kostantzio eta Balente. Beste guztiak, Juliano Fedeukatzaillea ez bestek, jakiña Katolikoak izan ziran. Batez ere I Teodosio.

- Gotzaien artean, ariozalerik garrantzitsuena Nikomedi'ko Eusebio izan zan. Eta katolikoan artean Alexandri'ko Atanasio.

- Inperatoreak erejeen eta katolikoan arteko borrokan sartu ziran ezker, gora-bide egokia biurtu zuten gora-igo-nai-zaleentzat erlijioa, inperatoreek zer-ikusit aundia bait zuten eliz-kargu garaietarako jendeen aukeraketan. Arianikeriaren aroan bereiziki, gotzaiak kendu eta gotzaiak jarri ibilli ziran inperatore ariozaleak.

Gogoan dauzkat bi gotzai, eta mintzatuko naiz beraietaz --, alde batetik bestera, katolikotasunatik arianikerira eta arianikeritik katolikotasunera errez ibilli ziranak, dogmen ziurtasuna eta kontzilioen aginmena ez bait zegoan gaur bezala mugatua. Ikus zer dion "Encyclopaedia Britannica" k Nikomedi'ko Eusebio'z: "Eusebius, bishop of Nicomedia who, like Arius, had learned his theology from Lucian of Antioch, used the heresy of Arius as an occasion of intrigue".

Euskeraz:

"Ario'k bezala bere teologia Antioki'ko Luziano'gandik ikasit zuan Eusebia Nikomedi'ko gotzaiak, bere azpijokurako tresna bezala erabili zuan Ario'ren erejia".

Arianikeria, Nizea'ko Kontziioan izan zan gaitzetsia. Ura dugu Elizaren edestian lenen Kontzilio Ekumenikoia.

Kontzilio orrek guk Semea eta sortaldetarrek Itza ("Logos") esaten dioten Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, Aita bezala oso-osoan Jainkoa dala erabaki zuan: Aita'ren "zertasun berekoa" dala: eleneraz, Aita'ren "homousios" dala.

Gero, arianikeria bi zati egin zanean, argi gelditu zan ordura arteko ariotarrik geienak ez zirala beñere egiazko ariotarrak izan, Itza, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, Aita bezala Jainkoa dala aitortzen zuan aldera bildu bait ziran. Alderdi ontakoei, "semiariani" , "erdi-arianitarrak" esan zitzaaien.

Zertan zegoan auen eta katolikoek arteko ezberdintasuna? Katolikoek Semea Aita bezalakoa zala, esaten zuten; erdi-arianitarrek, Aitaren antzekoa zala. Zergaitik Aita'ren "antzekoa", eta ez Aita "bezalakoa"? Semea, "sortua" dalako (Aita'k sortua) eta Aita berriz "ez-sortua".

Ori esatean "zertasuna" eta "nortasuna" nasten zituzten erdi-ariotarrek. Semea'ren zertasuna ez-sortua bait da Aita'ren zertasun berbera dalako. Semearen nortasuna da Aita'k sortua. Ori ordea, gaur! ikusten dugu argi eta garbi. Orduan zertasunaren eta nortasunaren esannaiak ez zeuden oraindik egoki bereziak.

(Egiazko ariotarrek, alderantziz, Semea "Aitak sortua" ez baiña izadiko beste gauza guztiak bezala "Aita'k egiña" dala esaten zuten)

- Alatagutziz borroka izugarria egin zioten erdi-arianikeritar aiek katolikotasunari. Eta katolikoei, jakiña.

- Ariokeria, IV mendearen azkenean, I Teodosio inperatore zala, itzali zan Errorna'ren inperiolurretan. Bizirik jarraitu zuan ordea barbaritarren artean bisigotiarrek eta lonbarditarrak katolikotasunera etorri ziran arte.

Sar gaitezen orain, Atanasio Donearen eskutik arianikeriaren azterketara.

Argixeagoa biurtzeko lau zatitan ebakiko dugu arianikeriaren edestia. Aurrenekoan Ejito'ko Alexandri'n Ario beraren jardunkera, eta Nizea'ko Kontzilioan gaitzetsia izan zan arteko ariokeriaren lenen aroa; bigarreanean, Nizea'ko Kontzilioaren ingurua; irugarreanean, Kontzilio aren ondorena; eta, laugarreanean, Damaso Aitasantua ezkerozko arianikeriaren azkena, aztertuko ditugu.

Iru gotzai, izan ziran aro artan Alexandri'n: Kepa Donea (300-311), Akila (311-312), Alexander Donea (312-328). Urrengo gotzaia, ongi ezaguna eta izen aundikoa izango da: Atanasio Donea: IV mende guztiko gizonik bikaiñenetakoa, bikaiñena bera ez ba'da.

Eta auxe dugu asti labur artako gertakizun bakoitzaren urtegarrena.

* * *

256... Ario'ren jaiotza Libi'ko uri ezezagun batean.

295...Atanasio Donearen jaiotza. Alexandri'n bertan?

300...Kepa Donea, Alexandri'ko Gotzai.

303...Diokleziano'ren zigorketa. Alexandri'ko Kepa Donea igesi.

308...Ario, diakono.

310...Ario, apaiz.

311...Kepa Alexandri'ko gotzaia Maximino Daia'k martiri erailla.

312?...Alexander Donea, Alexandri'ko gotzai.

313...Ario, Alexandri'n Baukalis zeritzan auzoko parroko.

Kordoba'ko Osio, Kostantino'ren aolkulari.

318...Atanasio, diakono, eta Alexander gotzaiaren idazkari.

321...Alexendri'n Sinodoa. Aurrenekoa, Ario'ren aurka.

Sinodo ortan Alexander gotzaiak Ario'ri kontuak eskatu.

324...Ario'k "Thalia" argitaratu.

325...Nizea'ko Kontzilioa. Ekumeniarretan aurrenekoa.

Kontzilio ortan Ario gaitzetsia.

* * *

Esan dugun lez, Ejito'ren sartaldera dagoan Libi'ko bazterren batean jaio zitzaigun Ario. 256'aren inguruan. Urtegarrena ez bait da ziurra. Edestilari zar guztiak mintzatzen zaizkigu gizon zaratatsu aren nolakotasunaz. Ona emen, euskeraturik, aiek esaten duteneta-tik "Dictionnaire d'Histoire et Geographie Ecclesiastiques" k damaigun antz-irudia:

"Gizon aundia, giarra, bakartiek lekaroan jantzi oi duten soñeko z jantzia, eta beti aien biziera eraman zuana, jitez gogortasun-zalea, eta gizarte-bizitzarako basati-xamarra, baiñan ala ere ongi zetorkionean, arraia, xaloe eta atseginkorra azaltzen bazekiana. Era berean baita, aunditasun eta jauntxokeriaren zalea ere. Ta, au Sokrate kostantinoplatarrak diosku aski gezurtia"!

"Andrez ta andereño z inguratua ibiltzen omen zan beti".

Baiñan ez dezagun uste, ain sarri emakume gaztez inguraturik ibilli oi zalako, biziera lizuneko gizona izan zanik. Alderantziz, bizitza garbi eta latzekoa izan zala dioskute bere denborako idazleek. Gogorkeri-zalea; bere burua ber-bera ere gogorki erabiltzen zuana. Ta lekaroetako bakartiak bezala bizi oi zana.

Orrelakoa izanik ez da arritzekoa-ta, santutzat eukia izan omen zan Alexandri'n, erejira jausi zan arte.

"Quant aux femmes et aux jeunes filles qu'il montre dans l'entourage, il serait exagere de conclure de ce trait a l'incontinence de l'heresiarque" (ib). "Bere inguruan agertzen zituan emakume ta neska gazteei-buruz, zer esan? Okerra izango litzakela ortik ereji-sortzaillearen lizuntasuna atera nai izatea".

"Hombre de honestas costumbres, muy cultivado en ciencia y dialectica", eta "de cuerpo prócer" izan zala, diosku opusdeitarren GER iztegi berak.

Ez zion beintzat iñork bere garbitasunaren aurka, sekulan, itz txikienik ere aurpegira jaurti. Ori, etsaiek berari, berak etsaiei bezain gogor erasotzen ziotela!

Ez zion gutxi lagundu bizitzaren garbitasun orrek bere aburu okerren zabalkunderako.

Gizarte-bizitzarako "basati-xamarra" zala, esan digu aipatutako Iztegiak, baiñan jakin zuan Ario'k jende landerraren naimen ona irabazten. Ala, adibidez, Alexandri'ko kaietako langilleena. Gaiñera garai artako Epifanio Doneak dioskunez, basatia ez baiña "goxoa, atsegiña, eta jende-losintxazalea" izan zitzaigun Ario.

* * *

Ez dakigu noiz etorri zan Libi'tik Alexandri'ra. Emen, diakono egiña izan zan. Bertako gotzaia, Kepa Donea, izan zuan sagarat--- — zaille.

Gogor ziarduan oraindik Ejito'n, Diokleziano'k piztutako zigorketak, eta Kepa Gotzaia bere uritik iges egin bearrean aurkitu zan. Orduan, iritxi zan Alexandri'ra Likopolis'ko Meliton, Ejito'ren egoaldean zegoan Tebas uriko "metropolita", ots, goigotzaia. Izugarritzko gogorkerizalea zan elizgizon au, eta jakiña, ustelkeri aundia iruditu zitzaion Kepa gotzaiaren jardunkera. Donatikeri zaleek bezala, zigorketa-aroan izkututzea, fedea ukatzea zala pentsatzen bait zuan.

Alexandri'n iñongo eskubiderik gabe, iges-egindako Kepa'ren eginkizunetan sartu zan. Ala sagaratu zituan apaiz bi. Bi aietako bat, Ario. Bearrezkoak omen ziran sagaraketa oiek "artzaintzarako" Alexandri'ko "artaldean".

Gizon arrigarria, Ario sagaratu zuan Meliton ura. Esan dugu, donatisten antzera izugarri gogorkerizalea zala. Ta, Kepa Gotzaia, Alexandri'ra itzuli zanean, zigorketakoan fedea ukatu zutenak eragozpen aundiegirik gabe Elizaren altzora bir-artzen zitualako, zearo asarretu zitzaigun arekin Meliton.

Eskomikatua izan zan Meliton, jardunkera orren erruz.

Nizea'ko Kontzilioa saiatu zan melitondarrak eta Meliton bera Elizaren altzora ekarri naiean, baiñan ez zuan ezer lortu. Izan ere...

baldintza gogortxoegia ezarri bait zien: Meliton'en elizgizonak besteak baiño duintasun gutxiagokoak izan bearra, alegia!

Baldintza orren bitartez, elizgizon melitondar aiek gotzai ta apaiz katolikoan laguntzaille uts biurtuta, melezikeri edo melitonke-riaren zabalkundea eragozi nai izan zuan Kontzilioak, baiñan ez zuan aien onarmenik lortu-ta, nai izan zuanik ere lortu gabe gelditu zan, bearbada, latzegia zalako erabaki ura. Ta, arrezkero, arianike-rizaleen adiskide ta lagunik aundienak izan ziran Ejito'ko meliton-darrak.

Maximino Daia Ejito'ko "Zesar"ek zigorketa ber-bizkortu zuanean, Meliton meatzetako lan gogorretara bidalia izan zan, eta Kepa martiri erailla. Bikain aldarrikatu zuan onek bere sinispidea, baita Maximino Daia'ren aurrean ere, onek bere epai-gelarako deia egin zionean.

Meliton, itzuli zan Tebaida'ra, eta zisma bat sortu zuan Ejito'ren egoaldeko lur bero aietan. Eskomikaturik il zan. Bereta-rrek ordea, VIII mendera arte iraungo duan lekaidetza gogorrezko igikunde bat sortu zuten: melitondarren igikundea.

Ario ere, melitondarrekin izan zituan arremanen ondorioz, eskomikatua izan zan, baiñan laister egin zituan Elizarekingo pakeak.

"O prdprio Arius em breve deixou os melitianos e se reconciliou com os sucessores de Pedro, passando a ser um respeitthrel e popular presbftero de Alexandrfa, com imensa aceitação, quer (bai) entre as jovens, quer (bai) entre os trabalhadores das docas (kaiak), para os quais escreveu canções religiosas sobre temas marftimos. So (soilki) depois de 318-320 a sua ortodoxia foi posta em dtivida" (H. Chadwick. M. H. Albarran de Carvalho'k portugaleratua).

318 edo 320'aren ondorean biurtu zala, -- diosku edestilari inglandar orrek -- Ario'ren oldozkera kezkarri.

Alexandri'n Alexander Donea zan gotzaia 312'az gero. Larriturik, sinodo bat Alexandri'n bertan bilduta, Ario'ri, sinodo

aren aurrean, bere aburuen kontu emateko agindu zion. 321 'garren urtea zan.

Ario'k Ejito'ko gotzaiei eskatu zien babesa, eta, ala-ola, bere buruaren zuriketa lortu aal izan zuan. Eta baita gotzai batzuen babesa ere.

Ez bait zan arrazoiketalarri makurra. "Vir dialecticae argutiarum minime ignarus", ots "eztabaidaren amarrukerrien ezagule yayao" zala esan zigun Sokrate edestilariak.

Adimen argiaren jabe, Antiokrko Teologi-Eskolan egin zituan Ario'k bere teologi-ikasketak. Ainzuzen Eskola aren sortzaillea, izan omen zuan irakasle: Luzian Antiokiar Donea. Puntuu au ordea, ziur-ziurra ez dan gauza da.

Edestia-zear aski eztabaidatua izan da Antioki'ko Luziano Donea. Eta orrela da oraindik ere.

Bera bizi zala, Paul Samosatarraren izan zan Antioki'ko gotzaia. Eta gotzai au argi-argi erejea zalako gotzai gotik jaurtia izan zanean, aren kide zalako-edo, eskomikaturik gelditu zan Luziano ere. Eta ala jarraitu zuan Paul Samosatarraren ondorengo iru gotzaien denboran. 285'aren inguruan izan zan ostera Antioki'ko Elizaren altzoan onartua.

Alexandri'ko Alexander'ek eta Salamina'ko Epifanio Doneek, Ario'ren arerio bizkorrak biak "arianikeriaren aita" esan zioten Luziano antiokiarrari.

Arianikeriaren etsairik aundienak ordea, Alexander'en atzetik Alexandri'ko gotzaia izan zan Atanasio Doneak, naiz bera teologilari zintzoa eta zorrotza izan, ez zion beñere Luziano'ri erejirik aurkitu, eta geroxeago, Luziano il zanean, Antioki'ko Eskolan ikasle izandako Jon Done Krisostomo'k berebiziko "panegiriko" edo "goratzarrea" egin zuan Luziano aren omenez Antioki'n bertan, elizkizun baten barruan, 387'garren urtean.

Jarraitzen du ordea oraindik Antioki'ko Luziano 'ri-buruzko eztabaidak:

"Luciano se dejó llevar de las ideas de Pablo de Samosata, por lo cual fue excluido algtin tiempo de la comunidad de la Iglesia.

Mas grave todavfa fue su error en la cristologfa; pues fundado en cierta tendencia subordinacionista, formb la base del sistema de Arrio que fue su discfpulo. Por esto puede considerarse con raz3n a la escuela de Antioqufa, no obstante sus indiscutibles m3ritos, como la cuna del arrianismo, y a la confusa ideologfa cristoldgica de su fundador, como la fuente de la negacibn de la divinidad de Cristo".

"Todos estos errores quedaron abundanternente lavados con la sangre del martirio, que derramb Luciano de Antioqufa el 7 de enero de 312"(Llorca). Maximino Daia zan orduan Ejito'ko "Zesar" kristau-zigortzaillea.

"Deriving his ideas possibly in part from Lucian of Antioch, Arius regarded himself as doing no more than carrying on the tradition exemplified by Dionysius of Alexandria and Origen": "Bearbada, Antiokrko Luziano'rengandik artu zuan Arrio'k bere pentsaera, zati batean beintzat. Eta, Alexandri'ko Dionisio eta Origenes'engan aurkitzen dan "tradizio" edo "sinispide kristau orokorra" aurrera eraman besterik ez zuala egin, esaten zuan". (Enc. Brit.).

Ipiñi ditzagun gauzak bere lekuan:

Egiazko "error cristol6gico" edo Kristo'ri-buruzko sinispide okerra, Paul Samosaterra Antioki'ko gotzaiarena izan zan.

Baiñan Paul samosaterra menpekokeri-zale utsa baiño askoz giago ere bazan: "Adoptionismus" edo "Semekotzakeri" esan oi zaion erejiaren zalea, ainzuzen!

Bere tokian agerturik utzi genduan bezala, ereji orrek, Kristo Jainkoaren Seme ez zala erakusten zuan: Jainkoak semetzat artutako gizon utsa besterik ez zala.

Gizon uts jaio omen zan Kristo, beste edozein gizaseme bezala, Miren eta Joseba bere gurasoengandik. Gero, gizon aren barrura, **Itza** sartu omen zan: euskeraz Itza, eleneraz Logos eta lateraz Verbum esaten zaion Irutasun Doneko Bigarren Pertsona: Semea.

Baiñan guk Seme esaten diogun eta Irutasun Doneko bigarren Pertsona egiazko Pertsona dala sinisten dugun ori, Itz edo

Logos edo Verbum ori, egiazko Pertsona ez dala esango dizu Paul samosatarrak; Jainko bakarraren Indar guzialdunari ematen zaion izen utsa besterik ez dala.

Josu'ren oiñazeak, gizon uts zan Kristo'k jasan omen zituan. Mirariak berriz, Jainkoak Kristo'gan sartu zuan Indarrak egiñak izan omen ziran. Orregaitik esan oi zaio "dinamikeria" , "indarkeria" ⁿ , Paul samosatarraren erejiari: "indarra", eleneraz, "dunamis" dalako.

Dakusazunez, egiazko "monarkianismus" edo " jainkobakarke-ria" izan zan Paul samosatar Antioki'ko gotzaiaren erejia: Jainkoa Pertsona bakarra zala esanez, Irutasun Donea zearo ezerezten zuan erejia.

Antioki'ko Teologi-Eskolaren sortzaille eta bertako irakaslerik onena izandako Luziano'k ordea ez zuan sekulan ez orrelako gauzarik esan, ez orrelako gauzarik pentsatu.

Paul samosatarrak, jakiña, Itza Aita'ren indarra besterik ez dala esaten zuan ezker, naitanaiez izan bear zuan "subordinazionista", ots, Itza Aita'ren menpekoea dala pentsatzen zuan gizona.

* * *

Orregaitik, "subordinaziokeri" edo "mendekokeria", Kristo'ri--buruzkoa baiño geiago da Irutasun Doneari-buruzko sinispide okerra. Itza, ots, Semea, gizon "egiñez" Kristo biurtu aurretik ere, Irutasun Donearen altzoan, Aitaren mendekoea dala, erakusten bait du. Bigarren Pertsona, Lenengo Pertsonaren mendekoea.

Mendekokeri-zalea izan ote zan ba, Antioki'ko Luziano?

Ez litzake arritzekoea izango, garai artan, Efeso'ko Kontzilioa- ren aurretik, Irutasunari-buruzko dogma ez bait zegoan, ez ziurki mugatua, ez bear bezala argitua.

Aldi artako teologilari guztiek itzegin eta idatzi zuten menpekotasun ori adierazi nai duala dirudian izkeraz. Ala ere ez daiteke menpekokeri-zaleak izan ziranik uste izan. Soilki, izkera egoki bat peilzen zitzaie, uste izan bear da. Dogma bera argitu eta mugatu

gabe zegoan bezala, oraindik aurkitu gabeak bait ziran dogma ortaz itzegiteko itz eroso ziurak.

orduango teologilari guztietaz esan dugun ori esan bear da Antioki'ko Luziano Doneaz. Bera ere, orduango teologilaria bait zan. Ospetsuenetakoa gaiñera. Eta santuenetakoa!

Alatagutziz, badirudi III mendeko bigarren erdiaz gero aski indar aundia izan zutela menpekokeriaren antzeko aburuek eta menpekokeriak berak.

Aia ba'zan, menpekokeriaren ondorio ote dugu arianikeria?

Bai, eta ez.

Ez, menpekokeri-zaleek Itza'ren jainkotasunik sekulan ukatu ez zutelako.

Bai, Arioⁱk menpekokeriari azken arrazoia eman ziolako.

Menpekokeri-zaleek, "Bigarren Pertsona, Itza, aurreneko Pertsonaren azpitik dago eta aren esanekoa da", oiukatzen zuten.

Ori, ordea zergaitik?

Galdera orri ez zioten beiñere era egokian erantzun. Ario'k bai. Naiz okerra, eman zion Ario'k galde orri erantzun bat: Zergaitik dan zuen Bigarren Pertsona Aurreneko Pertsonaren menpekkoa? Zuek Bigarren Pertsona esaten diozuten ori Jainkoa ez dalako. Aurreneko Pertsona bakarrik da Jainkoa. Bigarren "Pertsona", ark egindako izakia besterik ez da, ederrena, garaiena, bikaiñena, baiña Aita'k, denbora guztien aurretik noizbait une batean egiña.

Monarkikeriaren jarraipena ote dugu ba ariokeria?

Bai, eta ez:

Bai, Ario'k monarkikeri-zaleek bezala, Jainkoagan Irutasuna ukatzen zualako. Aita bakarrik zan Jainkoa, izaki guztien egillea, "mon-arjla", ots "izate-iturri bakarra", "monos", "bat", eta "arje" "astapena" bait dira eleneraz.

Baiñan monarkikeriak, Itza, gure Irutasuneko Bigarren Pertsona, Aita bera zala esaten zuten, izen ori **Itza Aitaren** beste izen bat besterik ez zalako. Jainko bat bakarrari Aita esaten omen zaio batzuetan, aia Jainkoa bere betikotasunean ikusten

dugunean Itza berriz beste batzuetan, adibidez Jainkoari
izadiaren egille bezala so-egiten diogunean.

Ario'k ordea, egiazko izatea ematen dio Itzari. Aita, Aita da:
Jainkozko Pertsona bakarra. Pertsona da Itza ere; baiñan, naiz
gizakumeok eta aingeruak baiño askoz duintasun aundiagokoa izan,
gizakumeok eta aingeruak bezala Aita Jainkoak egindako pertsona.
Ez ordea, iñolaz ere, Jainkoa.

* * *

Ejlto'ko gotzai batzuk Ario'ren alde-edo jarri ziralako izan
zitan gotzai aiekin arazoak, orduan Alexandri'ko Gotzaia zan
Alexander Doneak. Ez zegoan isilik Ario bera ere. Laguntza-eske,
Zesarea'ko gotzaiari eta Nikomedi'koari idatzi zien. Bi gotzai auk
Eusebia ziran izenez, eta biak ziran ospetsuak. Zesarea'koa,
edestilari bezala. Eta Nikomedi'koa, orduan oraindik inperiolurren
uriburu Nikomedi izanik, Kostantino bizi zan uriko gotzaia zalako,
eta, batez ere, Kostantino'ren arreba eta Lizinio'ren emaztea zan
Kostantza'ren adiskide aundia zalako.

Mintzatuko gera bi Eusebio oietaz.

323'an gaude. Bigarren sinodoa Alexandri'n. Gaitzetsia irten
zan sinodo ortatik Ario. Gaitzetsiak izan ziran, baitare, Ario'k
bereganatutako apaiz eta diakono batzuk eta gotzai bi; libiarrak
biak: Tolomea'ko Segundo eta Marmarika'ko Teonato.

Ario'k Palestina'ko Zesarea'n gorde zuan bere burua.

Palestina'n egin zan Ario'ri-buruzko irugarren sinodoa, eta bi
gauza erabaki ziran bertan: Arianizaleek ez zutela jendearen
aurrean eztabaidarik sortuko; sinodo artan eratu zan sinispide-agiria
danek ontzat artuko zutela.

Egin zan astitxo batez pakea. Alexandri'ko Alexander gotzaiak
ere onartu bait zuan Palestina'ko Sinodoaren erabaki bikoitza.

Ario Bitini'ra joan zan, an Nikomedi'ko gotzaia, Eusebio, bere
ikasketa-kide eta adiskide zualako.

Laugarren sinodoa Ario'ren jardunkez. Sinodo au bildu zuan Nikomedi'ko Eusebio'k, Ario berriro Alexandri'ko Elizaren baitan artzeko eskatuz idatzi zion uri ontako gotzaiari, Alexander Doneari.

Urrango urtean, "Thalia" izeneko liburu bat, erdia itz neurtuz idatzia, argitaratu zuan Ario'k. Liburu ori, galdua dugu, eta soilki besteek andik jaso zituzten esaldiak bakarrik ezagutzen ditugu.

Ikus liburu aren aapaldi batzuk L.O. de Urbina'k eleneratik gazteleratuak:

"Segura la fe de los elegidos de Dios, concedores de Dios, hijos santos, rectos, receptores dei Espfritu Santo de Dios, esto es lo que yo he aprendido de los que tienen sabiduria, espirituales, enseñados por Dios, sabios en todo. Siguiendo sus huellas he caminado yo sintiendo con ellos, yo el famoso, el que ha sufrido mucho por la gloria de Dios; instrufdo por Dios, conociendo la sabidurfa y la ciencia...

"El Dios no siempre fue Padre; sino que alguna vez el Dios estaba solo sin ser Padre y mas tarde se hizo Padre. No siempre existid el Hijo; porque habiendo sido hechas todas las cosas de la nada, y siendo todas la cosas criaturas y obras, tambi&I el Verbo de Dios fue hecho de la nada, y alguna vez no existfa; ni existfa antes de ser hecho, sino que tambi&en dl tuvo principio al ser creado. Porque Dios estaba solo y no existfan an el Verbo y la Sabidurfa. Mas tarde, cuando quiso crearnos, entonces hizo a uno y lo llamd Verbo y Sabidurfa e Hijo, para crearnos a nosotros por su medio...

"Hay muchas potencias; una es la que por naturaleza es propia de Dios y eterna. Ahora bien, Cristo no es verdadera potencia de Dios, sino que es una de las llamadas potencias, como el saltamontes y la oruga; pero no se le llama potencia a secas sino Grande Potencia. Las demas y numerosas son semejantes al Hijo, de las cuales tanta David diciendo: "Señor de las potencias" (Ps.24,10)...

"La naturaleza del Verbo esta sujeta a mudanzas, como todo, pero siendo dueño de sf, es bueno mientras lo quiere. Si lo quiere puede cambiar como nosotros, ya que es mudable por naturaleza.

Por eso, previendo Dios que el habia de ser bueno, *le ha* preferido effildole esa gloria que como hombre, y por su virtud ha tenido posteriormente; de modo que por sus obras previstas por Dios hizo que existiera el luego...

"El Verbo no es verdadero Dios. Aunque se le llama Dios, no lo es de veras, sino sólo por participación de gracia como todos nosotros; así el es Dios solo de nombre. Y como todas las cosas son diversas y diferentes de Dios por esencia, así también el Verbo es completamente ajeno y diverso respecto a la esencia y propiedad del Padre; es propiamente una de las cosas hechas y creadas...

"El Padre es invisible para el Hijo; el Verbo no puede ver ni conocer perfecta y exactamente a su Padre. Lo que ve y conoce tiene analogía con sus propias medidas, así como nosotros conocemos conforme a nuestra potencia. Y el Hijo no sólo no conoce exactamente al Padre pues no llega a comprenderle, sino que el hijo no conoce su propia esencia...

"La esencia del Padre y del Hijo y del Espíritu Santo son entre sí naturalmente divididas, segregadas, distanciadas, diversas, aisladas; son completamente diversas en sus esencias y glorias hasta el infinito. El Verbo en cuanto a la semejanza de la gloria y la esencia, es en todo diverso a las del Padre".

Oartuko esaldi oiek, Ario'k eman zien zentzua galdu ez dezaten, itzez-itzez izan dirala eleneratik gaztelerara biurtuak. Orixen berberagaitik ainzuzen, ez ditut nik ere euskerara biurtu nai izan.

Ez dakit, erretorikalaritx txit yayoa eta izlari oso trebea omenzan Ario aren itz oiek jaso zituzten idazleen erruz, edo eleneratik gaztelerara itzuli dituanaren erruz, baiñan nik beintzat esaldi oiek aski baldarki eratuak eman bear izan dizkizutela oartu zera noski.

Oartuko zian baitare edozein kristauaren belarrietarako Ario'k ematen dizkigun oiek baiñan itz mingarriagorik ez daitekeala asmatu.

Orregaitik, ziur uste dut nik oso gutxi izan zirala Ario'ren dotriña oso-osoa onartu zutenak. "Ariotarrak" eta "arianikerizaleak" esaten zaie liburu danetan Nizea'ko Kontzilioaren aurka jeiki ziran guztiei, eta orrela esaten diet nik ere oituraren eragiñari

jarraituz. Baiñan aitortu bearra dut, "ariotar" esaten zaien aietatik ia-ia danak, ariotarrak ez baiña Nizea'ko Kontzilioak sagaratu zuan "homousios" itzaren etsaiak besterik ez zirala.

* * *

ARIOKERIAREN MUIÑA oso gauza xumea duzu: Errez ulertu dezazun, gure itzegiteko eran esango dizut: Ona zer zion Ario'k: SEMEA, Irutasun Doneko BIGARREN PERTSONA, ez da Jainkoa. Izadiko gauza guztiak bezala Jainkoak ezerezetik egindako izaki bat da.

Ario nondik-nora iritxi zan ori esatera?

Ario ez zan Irutasun Doneaz monarkizaleek bezala mintzatzen, ez bait zuan Irutasunik sinisten. Ez zaio beraz "Aita" itza erabiltzerik atsegin. "Jainkoa" da, Aita'ri, ots, gure Irutasuneko Lenengo Pertsonari ematen dion izena.

Guk "Semea" esaten diogun gure bigarren Pertsonari, elendar guztiek bezala, "Logos", euskeraz "Itza" esaten zion maizenik. Eta orrela esango diogu guk ere, arianikeriz mintzatzen geran unerik geienetan.

Ario'k bazekian Ebangelioek Aita eta Semea eta Gogo Deuna aipatzen dituztela. Eta baita Itun Berriko beste liburu doneek ere. Paul'en Epistolek bereiziki. Eta Irukoitasun ori, betidanik Elizak Jainkoaren zertasanaren eta nolakotasunaren barrenge misteriotzat euki duala. Jainkoaren barrentasunaren izkutuki ori argitu nai izan zuan Ario'k, ortarako giza-arrazoiaaren argia erabilliz.

"Zertasan" itza aipatu dugu; aurrerantzean ere maiz aipatuko dugun itza. Zentzu bereko iru itz erabilli zituzten latinez zertasuna adierazteko antziñako filosofilariek: "essentia", "substantia" eta "natura".

"Essentia", zertasuna da, zuzen-zuzenean. "Substantia" ere zertasuna da, baiñan axalean eraman dezazkean xeetasun aldakor edo "akzidenteen" eusle bezala aurkeztua. Berdin "natura";

zertasuna da, baiñan "in quantum principium operationis", ots, "bere eginmenaren iturri lez ikusia".

Ario'k, Jainkoaren Irutasuna aditu nai izan zuala, esan dugu.

Irutasuna ordea, arrazoiaren gaindik dagoan Izkutua da. Ez dago arrazoiaren aurka. Bai ordea arrazoiaren gaindik. Eta, jakiña, ezin izan zuan misterioa argitu. Alderantziz, Jainkoaren Irutasuna ukatuz, misterioa ukatzera erori zan.

Ona, ortarako erabilli zituan bidearen urratsak:

- Jainkotasuna "incommunicabilis", ots, "beretasunik-iriori-eman-eziria" da. Jainkoak ez dezaioke iñori bere jainkotasunik eman. Ezta bere Itza'ri ere. Beraz Itza'k ez dezake jainkotasunik izan. Ez da beraz Jainkoa.

- Jainkotasuna, "inmutabilis", ots, "aldakaitza" da. Ez litzake aldakaitza izango orain batena Aitarena, eta gero beste batena, "Itza"rena, izango ba'litz, Beraz, Itza, ezta Jainkoa.

- Itza berak, orain "oraindik-ez-gizon-egiña" eta gero "yadanik-gizon-egiria" zearo aldakorra agertzen digu bere burua. Ez daiteke beraz Jainko izan. Zearo aldakaitza bait da Jainkoa:inmutabilis"

Jainkotasuna "auto-existens" edo "izatea-berez-duna" da: "Agennetos": "Sortu-eza". Itzak ordea, izatea ez du berezkoa, Jainkoagandik artua baizik. Ez da "agennetos". "Gennetos" da: "Sortua". Orrek, Itza Jainkoa ez dala adierazi nai digu.

- Ez da gaiñera "berez-bizi-dana". Jainkoagan bizi da. Itza Jainkoa ez dalaren adigarri.

- Jainkotasuna, betidandikoa da. Itza ordea ez da betidandikoa. Zergaitik? Jainkoagandik datorrelako. Ortaz, naitanaiez Jainkoa, Aita, Itza baiño Jeenagokoa dugu, eta Itza, arengandik datorrelako, ura baiño geroagokoa. Ta betidandikoa ez dalako, ez da Jainkoa.

- "Izan zan beraz Itza'rik ez zan ueña". **Gero** sortu zan beraz Itza. "Gero" orrek, Itza Jainkoa ez dala adierazi nai digu.

Jainkoa bakarra da. Itza ere Aita bezala Jainkoa ba'litz, Jainko bat ez baiña bi Jainko izango lirake.

Dakusazunez, azkenean matematikarekin egin zuan gure Ario'k topo. Jainkoa matematikeen legepera makurtu zuan. Eta Jainkoa matematikeen legepera makurtu nai izatean, oartzeko jainkotasun oroz erantzi zuan Jainkoa. Jainkotasunez erantzirik, mundu ontako izaki biurtu zuan. Eta ori egitean, gizakume, abere, landare eta arrikozkorren maillara jetxi zuan.

Ario'ren Jainkoa ez da izadiko legeen gaindik dagoan Jainkoa. Ez da betidandik badan Jainkoa. Ario'k berak asmatutako jainko bat da.

Ta? Zer da Ario'ren ustez Itza. gure Irutasun Doneko Bigarren Pertsona? Izadiko beste izaki guztiak bezala Jainkoak noizbait **ezerezetik egindako gauza.**

Noiz egin zuan Jainkoak Itza? "Beste izaki guztiak baiño leenago, denboren asieran", Ario'k erantzungo digu.

"La doctrina de Arrio niega a las claras la divinidad del Verbo, a quien sin embargo llama Hijo de Dios por no apartarse del constante uso bfblico" (O. de Urbina).

Oroituko zera, nola gnosizaleek, "Jainko Onaren" eta izadiaren artean, "Demiurgo" izeneko jainkotxiki bat ipintzen zuten; eta, Demiurgo orren antzekoa, "Arrazoa" izeneko beste jainkotxiki bat platontasunberri-zaleek ere nola ipintzen zuten.

jainkotxiki oien antzekoa da, Ario'ren ustez, Itza ere: Jainkoak egindako izakirik aundiena, eta beste izaki danen egillea, baiñan, bera ere, egiña izan dan zerbait: izakia.

Donatikeria Afrika'n arin zabaldu zan bezala, arin zabaldu zan Arianikeria ere. Ejito'n, Palestina'n eta Siri'n batez ere, baiñan baita Asi-alde artako beste probintzietan ere.

324'ean sartu zan Nikomedi'ra I Kostantino, Lizinio menperatuta garaille. Ordurarte soilki Sarkaldeko inperatorea zan. Orain berea zuan Sortaldea ere. Inperiolur osoko inperatore bakarra zan arrezkero.

Larritu zan ordea yadanik berea zuan Sortalde guzti ura ain sakonki naasirik ikusi zuanean. Min eman zion baitare, kristauen nasketa ura zala-ta jentillek par egiten zutela jakiteak. Izan ere,

"era tan grande la disensiÓn en el campo cristiano que los paganos y judfos hacfan chacota de ella" (Id).

Kostantino'k ez zuan teologiaz ezer aundirik jakingo, baiñan bazekian zerbait baiño geiago, Laterri-barrungo pakearen garrantziaz.

Oartu zan gauza arriskutsua zala kristauen arteko zaratots oker ura: "discordia que enfrentaba a obispos contra obispos y hacia bullir en disputas dogrnicas a enteras provincias" (Id); istillu artatik onik gutxi eta okerrik asko sortu Iekiokela, sumatzen zuan.

Eta orregaitik, inperatore erromatar guztientzat beti ain gauza sagaratua izan zan Laterri-barrungo pakea gordetzeko, eta berak ordurako benetan maite zuan Elizaren batasuna zatiketa orotik babesteko ere bai, -- zerbait egin bearrean aurkitzen zala uste izan zuan. Ta gauzarik egokiena, mundu guztiko gotzaiak kontzilio batean biltzea izanen zuala, iduritu zitzaion.

NIZEA'KO KONTZILIOA

325'garren urtean bildu zan, eta bera dugu Elizaren Kontzilio Ekumenetarretan aurrenekoa. "Ekumene" itza, "mundu guziko jendea" esan nai duan elenerazko "Oikoumene"tik dator. Orokortasuna adierazi nai du beraz. Elizaren izkeran "ekumeniko" Eliz osoarena dan gauzari esaten zaio. Ortaz, "Kontzilio Ekumenikoa", Eliz osoaren kontzilioa dugu, ots, Aitasantuaren baietsiarekin Eliz osoko gotzaiak biltzen dituan kontzilioa. Ez dugu noski esan bearrik izango gotzai-kopuruaren osotasun ori, ez dala matematikeen araura neurtu bearra.

Gure aurreneko Kontzilio Ekumenikoa egin zanean, Silbestre Donea zan Aitasantu. Baiñan kontzilio ura ez zuan Silbestre Aitasantuak bildu. Kostantino Inperatoreak bildu zuan.

Ez zaitez arritu. Elizaren lenengo zortzi Kontzilio Ekumenetarrak inperatoreek bilduak izan bait ziran.

Orrela inperatoreen aginduz egindako kontzilio aiek, egiaz Elizaren kontzilioak izan zirala esan daitekean? Bai, noski. Lendabizi, Aitasantuek onartuak izaten ziralako. Eta, gaiñera, kontzilio aietara Aitasantuek beren ordezkariak bidaltzen zituztelarik, ordezkari aien bitartez kontzilio aietan kontziliokide ez ezê egiazko zuzendari ere izaten ziralako.

Ori kontuan artuz gero, esan dezagun, egia da-ta, Nizea'ko kontzilioa oso-osoan Kostantino'ren egintza izan zala.

Alai sartu zan Kostantino orduan inperio osoaren uriburu zan Nikomedi'ra, 324'garren urteko iraillean, Lizinio bein betirako

garaituz gero. Onen aurkako borrokaldi motz ura, egiazko gurutzegudua izan zan Kostantino'rentzat. Ain zuzen Milbi-Zubi'ko "labarum" ura aurrean zuala ekin zion, berea baiño ugariagoa zan gudarozte liziniotarrari.

Oparo lortu zuan garaitza. Garaitza orokorra! Eta garaitza aren ondorioz, inperio guztiaren inperatore bakarra zan orain Kostantino.

Ta, guzia, bere ustez, "labarum" ark zeraman Jainko kristauaren ikurrari eskerrak!

Ala, Jainko kristauarenganako esker onez beterik aurkitzen zan inperatore garaillea, eta Jainko aren guruteta inperio osora zabaltzearren al zuan guztia egiteko ederki prestatu rik.

Gaiñera, garaille amaitu-berria zuan guda ura laterkideen arteko gudua izan zala oarturik, laterkideen arteko batasuna bir-ezartzea zuan eginkizunik bearrezkoena. Ta, elburu ortara iristeko ez zuan kristautasuna beste biderik ikusten.

Ori, erlijioaz politikarako baliatzea zala? Galde au, ordea, gaur-egungo kezka baten ondorioa dugu, eta ez gaitezen anakronira jausi.

Erlijioa ta politikaren arteko ezberdintasuna, ta Elizaren eta Laterriaren arteko bereiztasuna, eta ortik sortzen dan Laterri "laiku" edo "erlijiozkoa ez dan" Laterria, orain-oraintzeko arazoak dira. Ez ordea atzokoak. Eta askoz gutxiago eranegunkoak.

Aro zarrean Laterri laikurik ez zan. Laterria eta Erlijioa izaki bat bera ziran. Laterri bakoitzak bazuan bere erlijioa, berea bakarrik, eta erlijio ura zan Laterriaren anima. Ta politikaz eta erlijioz eratutako izaki bakar artan, "Imperator et Pontifex", "Agintari Nagusi" eta "Jaupari Nagusia", Laterri-Burua izaten zan: aalguztidun Buruzagia: Erregea; Inperatorea.

Ori zan aro zarreko oldozkera, eta, Kostantino ere aro zar aren semea bait zan, ori izan zuan, politikari ta erlijioari-buruz, bere oldozkera bakarra. Alare ez zan erlijioari-buruzko arazoetan inperatore jentillak bezalakoa. Gotzaien aalmena ta nagusitasuna

onezagutzen bait zituan. Baiña Jainkoak Elizaren zaindaritza eman ziola, ori, ezpairik gabe uste izan zuan.

Kontzilioa biltzen asi aurretik zerbait egin nai izan zigun, -- Kostantino'k Alexandri'ko Alexander gotzaia, eta Baukalis'ko Aria apaiz biurria batasunera erakartzeko. Biak ziran aski adin aundiko gizonak, bai gotzaia eta bai apaiza, au ere zarra bait zan bere erejia zabaltzen asi zanean.

Bi agure aiek bateratzeko eta pakeratzeko, eskutitz bana idatzi zien Kostantino'k. Garrantzi aundiko idaztiak, Eusebio Zesareatarrak osorik damaizkigun eskutitz oiek, Kostantino'ren izpirituaren barrunbea ezagutzeko.

Bi gauza dituzte, nere ustez, oargarrienak:

- Kostantino ziur dago, esan dugun lez, erlijioa zaintzea Jainkoagandik artu duan eginkizuna dala. Eta eginkizun orren elburua, bikoitza dala diosku berak eskutitz oietan: "Bata, jainkota-sunaren gurketari-buruz, jende guztien aburuak oitura eta arau batera erakartzea; eta bigarrena, "leendik ere gogozkoa nuan lez, gaitzez zauritutako gizadiaren gorputzari osasuna biurtzea".

Ona bere itzak:

"Primum ut omnium gentium de numinis cultu opinionem ad unius habitudinis ritusque formam traducerem; deinde, quod in animo habebam, corpus totius mundi, tanquam gravi aliquo morbo acerve vexatum, ad sanitatem restituere".

Erljioari dagozkionetarako ere agintari eta maixu bezala agertzen zaigu Kostantino. Ez da arritzekoa, erlijio-arazoetan maixu ta agintari nagusiak izan bait ziran inperatore jentillak. Oldozbide ortatik ibilliz, gizadiko gurketa ezberdiñen baterakuntza ere, Jainkoaren aginduz berak egin bear duan gauza dala uste du gure Kostantino'k irakurri duzun lez: "... ad unius habitudinis ritusque formam (ego) traducerem": "nik oitura eta zirimoni-kera berdin batera biurtu ditzadan".

- Esaldi orrek adierazten digun bezala, Kostantino'ri dogmak edo sinispidearen zuzentasunak ez baiña, gurketak, ots, liturgiak ematen zion kezka. Ez dugu zertaz arritu; ori izaten bait zan

inperatore jentillen ardura ere: liturgia: Jauretxeetan jainko zarren omenez zirimoni guztiak dotore egitea.

Ez zezaiela beintzat Erroma'ko jainko zarrei opari naroen bidez zor zitzaien gurketarik peitu, Erroma'rekin asarretu ez zitezten!

Jainko aienganako fedearen garbitasunik ez zitzaien ajola, berberaiek ere jainko zaar aietan fede aundirik ez zuten inperatore aiei. Ala, kristauei ere ez zieten, bereiziki, jainko zar aienganako sinispenik eskatzen. Soilki, naiz gezurrezko intzentsu-erretze utsaren bitartez, jainko aiek gurtzea zan, kristauei eskatzen zitzaiena.

Ez zuan, ez orixe, gure Kostantino'k, inperatore jentil aiek bezala pentsatzen, baiñan alatagutziz, bi gutun oietan esaten duanaren azpitik igarri daitekean lez, ez dirudi dogmak buru-auste aundirik ematen zionik. "Txepelkeri bat iduritzen zaio — Alexander gotzaiak batzar batean egindako galdeari Ario'k eman zion erantzunagaitik" alako eztabaida zakar bat sortu izatea. "Alexander gotzaiak ez omen zuan alako galderik egin bear; ezta Ario apaizak ere alako erantzunik eman".

Ugari ditu oien antzeko esariak, arianikeria batere garrantzirik gabeko arazoa zala bein da berriro adierazi naiez. Asarretu egiten da gaiñera Alexander gotzaiak arazo ari ainbesterailioko ajola eta alako ardura eman zizkiolako. Eta asarre idazten dio.

Bi gutunek badute gaiñera aita batek semetxo biurriei edo irakasle batek adimen motzeko ikasleei idatziko lieketen ezkutitzaren doiñua. Ikus:

"Inanis quaestio", "galde alua", omen zan Alexander gotzaiak Ario'ri egindako galde ura. Eta Ario'k eman zion erantzuna "isilik gorde bearrean zentzurik gabe aizatu omen zuan" Alexander gotzaiak. "Quod silentio praeterisse debebas inconsiderate effutivisti". ("Effutire", "zerbait era txatxuan zabaltzea" da). Arazo guziaren mamia, "batere bearrezkoak ez diran ñimiñokeriei-buruz, axal-axaleko itz-jario utsa" besterik ez omen zan, "levem et inanem verborum contentionem"... "de rebus exiguis minimique necesariis "

"Orregaitik, batak besteari barkatuta, ar zazute zuen morroikide onek, ez noski arrazoirik gabe, eskatzen dizuten au". Zer? "Emendik aurrera orrelako eztabaidetan ez ibiltzea, eta norbaitek sortu Iezazkean eztabaidei erantzunik ez ematea": "Proinde, uterque vestrum vicissim veniam alteri tribuens, illud approbet ad quod non sine causa vester conservus vos cohortatur. At quid istud est: ut de rebus huiusmodi nec omnino rogetis nec ad rogatum respondeatis".

Eta iñoiz orrelako eztabaidarik "adimena zorrozteko", ots, "ad ingenii acumen exercendum" nonbait eratzen ba'da ere, ez bedi ariñegi (temere) kanpora zabaldu, "erria biraoketara ta iskanbillera bultzaturik aurki ez dedin": "Ne populus in blasfemiae aut in dissensionis necessitatem incurrat". "Orrelako gaietaz ez bait daiteke marmarrean ibilli": "In talibus rebus loquacitas coerenda est"

Alexander gotzaiak eta Ario apaizak darabilkiten auziaren kirtena ("ansa") ez omen da Liburu Santuen atal nagusi bat, "ezta erlijioaren altzoan sortutako okerkeri berri bat" ("neque novus ullus de religione divina introductus error"). Alderantziz, "sinispide bat berekoak omen ziran" Alexander gotzaia eta Ario apaiza ("unam eandemque tenetis de fide sententiam"). Eta ori orrela izanik, "erreza gertatuko omen zitzaien aburu baten alkartasunera iristeko bidea": ("facile possitis ad ipsum communionis consensum venire").

Filosofilariek ere, naiz filosofi-kera batekoak izan, ibiltzen omen dira garrantzirik gabeko gauzatxoetaz eztabaidan. Alatagutziz filosofi-kera berean alkarturik jarraitzen omen dute. Ori kontuan artuz, bat egiñik jarraitzea "errezagoa izango zaigu guri, erlijio bat berean kide izateak Jainko gutzialdunaren serbitzari egin gaitunoi": ("qui famuli praepotentis Dei constituti sumus propter ipsum religionis institutum"), esaten die Kostantino'k bere eskutitzen artzaille izan bear zuten bi aiei.

Ala, alkarren-arteko barkapenaren bearra aitatzten die berriro: "zentzumen gutxiko galde batengaitik (interrogatio temeraria) eta ez zentzumen geiagoko erantzun batengaitik (inconsulta responsio),

zuetako bakoitza, besteari barkapena eskatzera bearturik dago ("veniam utriusque vestrum alteri impetrare debet").

Egin bedi pakea, Alexander Gotzaiak eta Ario apaizak pittinkeri bati-buruz darabilkitena bezalako eztabaidatxo oiek "erriko jende landerrei eta ume txiki ezjakiñei geiago bait dagozkie jaupari eta gizon zugar jakintsuei baiño": ("popularia quidem sunt et puerili inscitia magis quam sacerdotum et prudentium hominum sapientiae congruentia"),

Eskutitz oiek idatzi zituan Kostantino, naiz, dirudianez, kristautasunaren dotriñatik ezer aundirik jakin ez, gogoz beintzat zearo kristau zala ukatzerik ez dago. Oroi, adibidez, bere bi-iru esaldi auek: "erlijio bat berak egin gaitu Jainko aalguztidunaren serbitzari", idazten die Alexander-Ario'ri; aiekin batera Jainkoaren "conservus", ots, Jainkoaren serbitzurako morroikide dala esaten die, eta kristautasunari, "religio divina" izen-ematen dio.

Ta, auxe arrigarria: Kostantino'rentzat, arianikeriari-buruz piztutako ardaillaren erruduna, Alexander gotzaia da, apaizen billera batean, sekulan egin bear ez zuan galde txolin bat egin omen zualako.

"Billera" ura, Alexander berak, ain zuzen galde ura egiteko, Alexandri'n ospatutako sinodo bat izan zan. Galde ura ez zan galde txoliña; Ario'ri, Irutasunaren Bigarren Pertsonaz, zer erakusten ari zan jakiteko egiña izan zan; eta Alexander gotzaia, bere apaiz ari galde ura egitera bearturik zegoan.

Alexander Donea, Ario'ren gotzaia, jakinduri aundiko gotzaia izan zan. Eta santua gaiñera. Badirudi ordea, Kostantino'k iñozo batekin ari izan ba'litz bezala idazten diola; eta izkera zakarra erabilliz gaiñera!

Ez ote zan Alexander donea, Alexandri'ko gotzai ospetsua, eskutitz ura artzean asarretu?

Ez, noski. Ondotxo zekian b Alexander gotzaiak inperatore erromatarrak zer erako gizonak ziran eta mendekoekin nolako izkera erabiltzen zuten, mendekoak zerbaiten errudun zirala uste zutenean.

Kostantino'k ez zuan arianikeriaren astuntasunik ulertu. Ez dakigu nor izan zuan ereji berri aren albistea eman ziona. Eta, aolkulari ark ere, edo ez zuan arianikeriaz ezer askorik ulertzen, edo, arianikerizalea zalako, Ario'ren jardunketa babestu nai izan zuan.

Zein izan ote zan aolkulari ura? Beti Ario'ren alde egon zan Nikomedi'ko Eusebio gotzaia, seguruaski. Ez noski bera, zuzenean. Lizinio'ren adiskide izan zalarik, goiztxo bait zuan oraindik Kostantino'ren aurrera agertzeko. Baiñan bai, agian, adiskide kutuna zuan Kostantzi Kostantino'ren arrebaren bitartez.

Kordoba'ko Osio'k eraman zituan Kostantino'ren bi ezkutitz aiek Alexandri'ra. Itxasoz. Askoz gogorragoa ta zaillagoa bait zan lurrezko bidea. Osio'k ez ote zuan Kostantino ereji berri aren garrantziaz oartu?

Badaiteke ordea Osio'k berak ere arazo artaz ordura arte ezer aundirik ez jakitea. Alexandri'n Ario apaizari eta Alexander gotzaiari zekarzkieen eskutitzak eman ondorean, aiekin mintzatuz gero jabetu bait zan eskierki arianikeriak bere baitan zekarkian eden izugarriaz.

Inperatoreak ordea ez zuan, oraindik beintzat, kezka aundiegirik: "Orrenbeste izketa sortu duan txepelkeri orrek, bitan zatitu du sinispen batekoa izan bear duan kristau-erria, eta arriskuan jarri du Jainkoari zor zaion gurrketa zintzoa", bir-esaten zien bere bi gutun aietan Ario apaizari ta Alexander gotzaiari

Eta, amaitzeko, "garrantzirik gabeko eztabaidak aztuta", batasunera biurtzeko eskatzen zien, Ta "fedearen sendotasunari al duten arduraz guztia emateko, Jainkoa egoki gurtua izan dedin".

Orra or Kostantino'ren kezka bikoitza: batasuna eta liturgia: Batasuna, Eliza-baitan; batasuna, Lateralria-baitan. Eta liturgia; Jainkoa, zor zaion gurrketa egokiaren faltaz, inperatorearekin eta inperio osoarekin asarretu ez zedin.

Eusebio edestilariak ematen dizkigun idazki aien bir-idazketatik jaso ditut inperatorearen esaldi oiek.

Ez zuan Kostantino'k asmo zuanik lortu. Alexander gotzaiaren eta Aria apaizaren arteko eztabaidaren muiña, izkerari-buruzko ezberdintasun bat ez baiña, sinispide kristauaren gune ber-bera bait zan: Jainkoaren nolakotasunari zegokion arazoa.

Orregaitik, Osio'ren aolkua jarraituz? Kontzilio bat eratzea pentsatu zuan Kostantino'k.

* * *

Nizea, Nikomedi'tik bertan, egoaldera, Bitini probintziko uri txiki bat zan. An, bazuan Kostantino'k jauregi eder bat, eta Elizako gotzai guztiak an biltzea erabaki zuan bere baitan.

Erreztasun guztiak eskeiñi zizkien inperatoreak gotzaiei, eta aien serbitzura ipiñi zituan Laterriaren "postak" oro, ots, "zalpurdi, abere, eta ostatuak"; eta bere kontura izanen ziran gotzaien gastu guztiak.

Inperatorearen aginduz, oparoa izan zuten gotzaiek probintzietako jaurle ta agintarien laguntza ere.

Gaur-egun zalantza guztitik kanpoko gauza da, Nizea'ko Kontzilioa Kostantino'ren ekintza izan zala. Berak asmatu zuala, eta bera izan zala, ez Aitasantua, Kontziliarako deia gotzaiei egin ziena.

Inperatoreak egindako kontzilio bat Elizaren kontzilioa, -- Kontzilio Ekumenikoa gaiñera izan daitekean?

Bai, len ere agertu dugunez. Kontzilio artara bere ordezkariak bidali bait zituan Silbestre Aitasantuak. Urrengo Kontzilio ekumenikoetara ere, ez da Aitasantua bera joango; ordezkariak bidaliko ditu

Silbestre'k Nizea'ra bidali zituan ordezkari aiek, bi izan ziran: Bitor ta Bixente; bereterrak biak, ots, presbiteruak, apaiz utsak; ez, gotzaiak. Arrigarria? E'tzazula uste. Gotzai bikaiña, bere uste on osokoa, Silbestre'k bai bait zuan leendik an bat: Osio kordobatarra.

Au izan zan, egiaz, kontzilio artako zuzendari nagusia, naiz lendakaritza Kostantino'k berak euki. "A Osio hay que atribuir el

que Constantino estuviera durante el concilio con tanta habilidad como eficacia de parte de la ortodoxia" (O. de Urbina).

Gertatu zan pitxikeri polit bat, Kostantino Nizea'ra iritxi zanean: idazti-mordo mardula aurkeztu bait zioten gotzai eta apaiz batzuek bata-bestearen aurka. Kostantino'k, idazki guzti aien "azterketa ta epaiketa azkenjuizio egunean Zeruetatik etorriko dan Epaillearen eskuetarako uzten zituala" esanez, sutara bota zituan danak. Ez zala ergel iñozoa Kostantino inperatorea!

Beste bein, berak deitu ziolako Kontziliaora etorri zan Aszesio izeneko gotzai nobaziandar lazkeri-ta-gogorkeri-zale batekin ari omen zan izketan:

- Zu, zergaitik irten ziñan Elizaren altzotik?
- Elizak gezurra esaten dualako.
- Noiz esan du Elizak gezurra?
- Pekatu aundiak ere barkatzeko eskubidea baduala esaten duan bakoitzean.

Ta, ori ez al da egia?

- Ez.
- Aszesio: egin'tzak ik erorrek Zeruraiñoko zurubi luze bat. Eta igo adi, i bakarrik, zurubia gora, zerura.

Ori, Sokrate edestilariak dasaigu. Nik arek dioskun ori alkarrizketa eran jarri besterik ez dut egin. Sokrate'ek berak, Kontzilioan egon zan bati entzun omen zion ori.

Asmoz, munduko gotzai guztiak bildu nai izan zituan Kostantino'k. Baiñan ori batez ere bide-ibilketak ain zaillak eta neketsuak ziran antziñate artan gauza eziña zala berak ere bazekian-da, pozik gelditu zan kontziliarako egin zuan deiari ainbestek erantzun ziotela ikusi zuanean.

Irureunen bat gotzai bildu bait ziran Nizea'ko jauregi artako gela nagusian 325'garren urteko orrillaren 20'ean.

Geroxeago Liberio eta Damaso Aitasantuek esan zuten ez ordea, 318 izan omen ziran Kontzilioan bildutako Asaba guztiak. Baleike, baiñan zenbaki ziurrik ez dugu.

Baziran Asaba aien artean omen oro merezia zuten gizonak. Santuak batzuk. Ala, izen aundi onuragarria zekarren Jakoba, Mesopotami'n zegoan Nisibis uriko gotzaia; bi ildako berbiztu zituala esaten bait zan. Beste batzuk, santuak, eta jakintsuak ziran; ala, adibidez, Donealexander Alexandri'ko gotzaia eta Doneatana-sio, aren goidiakono laguntzaillea.

Baziran an "Aitorleak" ere bat baiño geiago, ots, azkeneko zigor-aroetan fedea ez ukatzeagaitik espetxeratuak, eta gogorki oiñazetuak izan ziranak. Soiñean zekarten "aitorle" auek oiñazeketa aien aztarna aintzagarria.

"Aitorle" auen artean aipa ditzagun, Lizinio'ren aginduz esku-muturretako kirioak burni guriz erre zizkioten eta erreketara orren ondorioz esku biak zearo elbarrituta gelditu zitzaizkion Paul, Ponto'ko probintzian Itxas Beltzaren egoaldean aurkitzen zan Neozesarea'ko gotzaia.

Aipa dezagun baitare Maximino Daia'ren aginduz begi bat atera zioten eta, begi-bakar, meatzetako lan izugarrietara jaurti zuten Maximo Jerusalem'go gotzaia.

Ta, danak ez aipatzeko, aipa dezagun azkenik, Maximino Daia beraren aginduz gauza bera egin zioten Pafnuzio zeritzan gotzai ejitotarra...

Pafnuzio onek, orain Nizea'n Kostantino'rekin topo egin zuanean, muin eman omen zion begi-zulo artan eraspen guztiz Kostantino'k.

Oso gotzai jaungoikoia omen zan Pafnuzio. Baiñan baita, era berean, oso gizakoia ere, dirudianez beintzat. Ona zergaitik:

Kontzilioko eseraldi batean, norbaitek, gotzai eta apaiz ezkondueti, naiz beren emazteekin bizitzen jarraitzea Iaga, ezkontza erabiltzea debekatu bear zitzaielako eskatu zuanean, bera ezkongea eta lekaidetxe batean bizitua zan Pafnuzio'k, irriparez, ezkontza gauza garbia zala eta gauza garbi bat erabiltzea ere naitanaiez gauza garbia izan bear zuala, erantzun omen zion adimen estuko gotzai ari.

Eta beste onako au esanez jarraitu omen zuan: Ezkondueti legea bidez orrelako zamarik ipintzea zillegi ez zan gauza zala. Naikoa zuala Elizak ordurarteko araua jarraituz, bein eliz-gizon sagaratuak izanez gero sagaratutako oiei ezkontzea debekatze utsa.

Garaille irten zan Pafnunzio'ren zentzu zugurra. Yare utzi bait zien Kontzilioak ezkondu ondorean elizgizon sagaritzen ziranei ezkontza erabiltzea, edo, beraiek ala nai bazuten, beren emazteekin senideak bezala bizitza.

Lege jarraitzen zuan beraz Kontzilio-ondorean ere, ordura arteko oiturak: ezkonduak, egin zitezkean apaiz; apaizak, ez zitezkean ezkondu.

Kontzitoria agertutako "aitorleen" artean, oroi dezagun baitare Kristo'gaitik begi bat galdu zuan Potamon, Trazi'n, ots, Marmara itxasoaren ipar-ertzean zegoan Eraklea'ko gotzaia.

Leendik Sortaldean aurkitzen zan Osio'z landa, lau besterik ez ziran, Sarkaldetik Kontzitoria joandako gotzaiak: Afrikar bat, Donatikeriaren istillua ezkerro ezaguna dugun Zeziliano Kartago'-koa; italiar bat, Kalabri'ko Markos; Galietatik etorritako Nikasio; eta gaur Ungari dan Pannoni'tik iritxitako Domno.

Kostantino'ren mendekoak ez ziran bi gotzai atzerritar ere kontziliokide izan zitzaizkigun: Pertsiarra bat, Jon. Bestea, Teofilo, gotiarra, "godoa", Danubio'ren ipar-sortaldera zegoan eta Szizia zeritzan lurraidetik etorria.

Gotzaietaz naiz Kontzilioan autarki-ematerik izan ez, eraginmen aundia izan zuten, gotzaien laguntzaille bezala, an ugari bildu ziran apaiz eta diakonoek: Aien artean, Atanasio alexandritarrak, adibidez, eta, mola ez², baita Ario'k berak ere bere adiskiddeen bitartez.

Filosofilariak ere aski ugari bildu omen ziran Kontzilioaren ingurura. Eta, auen artean, baita kristau ez ziranak ere. Danak, seguruaski, aolkulari bezala alde bateko edo besteko gotzaiak eramana. Arianikeriaren auzia, naiz ordurarte bereiziki, ia soilki, Bibliaren aldetik bakarrik aztertua izan-- , Kontzilioan

filosofiaren aldetik ere aztertua izan zitekeala, ikusten bait zuten gotzaiek.

Izan ere, gertatu ere ala gertatu bear zuan, auzian zeuden gogoetak, "zertasuna" eta "nortasuna", Irutasun Doneko Bigarren Pertsonaren zertasuna eta nortasuna filosofiarri dagozkion gogoetak diralarik.

Filosofilari jentil aiei-buruz, arras gertaera pollita damaigu Rufino edestilariak:

Oso dialektikalari azkarra omen zan aietako bat, eta gelditzeke ari omen zan, filosofiaz ezer askorik ez zekiten gotzaiak arianikerira eraman naiean.

Bein, filosofi-gizon ura, gotzai aietako bat ari omen zan zirikatzen; gotzai ona, apala, Idazti Doneetako jakintzaz landa, ezer askorik ez zekiana, baiñan sinismen sendoko gizona, zigor-aroen espetxean gogor oifiazetua, "martir" esaten dio Rufino'k eta gozotasun aundikoa.

Filosofilariaren arrazoi guztiak entzun ondorean,

- Au da nik ezagutzen dudan eta sinisten dudan filosofia esan omen zion "Apostoluen Kredoaren" antzeko sinispide luzexeago bat jalkiz Eta "zuk ori sinisten al duzu?" gaidetuz.

Bai, erantzun omen zuan filosofilariak.

- Atoz ba nerekin elizara, eta berealaxe bataiatuko zaitut.

Geiagorik gabe joan omen ziran biak elizara, eta an bataiatu omen zuan gotzai "martiriak" filosofilari jentilla!

Polita? Politegia, era ortan kontatua beintzat, guzia kondaira uts ez izateko.

Ikus dezagun nola pentsatzen zuten Kontzilioko Asaba aiek:

- Ezker-ezkerrean Ario eta bere lagunak; adibidez asiera-asieratik berekin izan zituan Libi'ko bi gotzai aiek: Ptolemaida'ko Segundo eta Marmarika'ko Teonas. Oso gutxi ziran alderdi ontakoak, baiñan beren alde zituzten Eusebio Nikomedi'ko gotzaia eta onen lagunarteko gotzaiak.

Ario'k bezala Irutasuneko Bigarren Pertsona, Itza, Jainkoa ez zala sinisten zutelako? Ez da erreza erantzuna, baiñan ez noski

danek, eta ezta geienek ere seguruaski. Danadala, Antioki'ko Teologi-Eskolako ikasle izanak ziran talde ontako buruzagiak.

Kontuz ordea? Eusebio Nikomedi'ko gotzaia aipatu dugu egiazko ariotarren artean. Baiñan, bere barren-oldozkeran ez ote zan au ere, gero "erdi-ariotar" esango zaien aietakoa? Orrela bait dirudi.

Eusebio Zesarea'ko gotzai edestitariari aitortu bait zion beintzat, Semea Jainkoa zala eta Aita'k sortua zala, sinisten zuala! Berez berena duten egiazko zentzua ematen ote zien itz oiei? Ario'k ere aitortu bait zuan orixe bera Kostantino inperatoreari egindako aitorpenean.

Danadala, Ario'ren aitorpeneri garrantzi aundiko beste zerbait erantsi zion Eusebio nikomeditarrak Zesarea'koari egindako aitorpenean: "Semea, Aita'k sortutako bakarra" dala. Ez dala beraz, Ario'k esaten zuan lez beste izakiak bezalakoa, nikomeditarraren esakizun ori bere zentzuan artua izan bear ba'da.

- Nizea'ko Kontzilio artan, erdi-aldera, ezkereruntz okertu-
xeak, Kontzilioko "Asaben" batasuna, al zan guztia lortu nai zuten
gotzaiak zeuden. Auen buruzagi lez Eusebio Zesarea'ko gotzai
edestilaria. Onen ingurura bildu ziran origenes-zaleak; eta,
teologilari mottelak ziralako, zer erabaki artu ez zekiten gotzaiak.
Eta baita bildurtiak ere; ots, bibliak darabilkian izkera-modutik
irten nai ez zuten guzti aiek.

- Erdi-aldean, baiñan eskubirago, arianikeriaren arriskua argi
ikusten zuten Asabak, Atanasio diakonoaren girokoak ia danak:
adibidez Atanasio beraren gotzaia zan Alexander alexandritarra:
Jerusalengo Makario; bai Sortaldean bai Sartaldean ain santu
mirestua izan dan Mira'ko Nikolas; Kapadozi'ko Zesarea'ko
gotzaia, Leontzio, Armeni^sko lenen apostolua izanen zan Gregorio
"Argiernaillea" gotzai sagaratu zuana...

- Eskuiñ-eskuiñean, oso gutxi baiña borrokalariak, Antioki'ko
Eustakio, eta, batez ere, Markel, orain Ankara eta orduan Anzira
esaten zitzaion uriko gotzaia, arianikeria erabat zapaldu naiean,
beste ereji bat zan sabelikeriaren albora urbildu zitzaigun gizona,

eta orregaitik urrengo Kontzilio Ekumenetarrean, Kostantinopla'ko Kontzilioan, bere dotriña gaitzetsia izango zuana.

Illa zan ordea ordurako Antzira'ko Markel.

Ario berak, apaiz uts zalako, ez zuan kontzilioan itzegiterik izan. Ezta Atanasio'k ere, au soilki diakonoa bait zan. Alatagutziz lan aundia egin zuten biek beretarren artean, Atanasio'k batez ere, berak dioskunez, orduan erakarri omen zituan ba bere buruaren gaiñera arianikeri-zaleen gaitzespen eta gorroto guztiak.

Egia da beintzat, arrezkero ez duala Atanasio'k bere bizitza guztian pake-une geiegirik izango.

Bera izan zan, Atanasio, kontzilio artan gizonik jakintsuena. Eta Atanasio'rekin batera, naiz mailla batzuk beerago, bere gotzaia, Alexandri'ko Alexander. Aipa dezagun Eustakio Antioki'ko gotzaia ere.

"Hay que reconocer, sin embargo, que el concilio de Nizea no vio entre sus obispos a lumbreras de primera magnitud, como otros sfnodos ecuménicos, y ,quien sabe si esta deficiencia no fue una de las causas de que el arrianismo no recibiera entonces su golpe de gracia"? (O. deZerate).

Ez dut uste, ori ain egia izan daitekeanik. Ez al zan ba "te6logo de primera magnitud", bere gotzaia zuan Alexandri'ko Alexander-en bidez Kontzilioan ain esku aundia izan zuan Atanasio aolkularia?

Gaiñera, arianikeria orduan illik gelditu ez izatearen errua, Kostantino'k aurrena eta onen atzetik II Kostantzio'k eta I Balente inperatoreek eman zioten laguntzarena izan bait zan.

Ez dira Nizea'koak baiño teologilari ernegoak izango, laister Kostantinopla'ko Kontzilio Ekumenekoiean, Gogo Deunaren jainkotasuna ukatzen zuan mazedonikeria gaitzetsiko duten Asabak. Alatagutziz, betirako illik gelditu zan antxe bertan mazedonikeria. Zergaitik? Inperatoreen aldetiko laguntzarik izan ez zualako.

Atsegin aundiz edesten digu Eusebio'k "Kostantino'ren Bizitza"n, Kontzilioaren asiera: Nolako dotoretasunaz sartu zan Kostantino "tanquam quidam coelestis Dei angelus", "Jainkoaren aingeru zerutiarra bezala", gotzaiek bildurik zueden aretora: eta, nola, bera sartu zanean, gotzai aiek danak zutik jarri ziran, eta nolako itzaldia zuzendu zien arek, Kontzilio aren garrantzia goi-aipatuz.

Lateraz mintzatu zitzairen Kostantino; agian izkuntz au elenera baiño obeki ezagutzen zualako. Eta itzaldi artan benetako kristaua agertu zan Kontzilioko Asaba guzti aien aurrean.

Bikoitza izan zuan itzaldiaren mamia: Gotzaiek, batzar artan beren artean ondo alkaturik lan egitearen bearkizuna, eta batzar artako gotzai guztiek lan aren elburua Eliz osoa bateratzea zala gogoan euki bearraren garrantzia.

Dirudianez, sinispidearen garbitasunak baiño geiago kezkatzen zuan Kostantino, bere mendekoen batasunak. Alare ez daiteke esan sinispidearen zuzentasunagaitik ajolik ez zitzaionik.

Orduan esan ote zien ain aipatua izan da bere esakizun ura? "Elizari dagozkionetan zuek **barrungo** gotzaiak zerate; ni, **kanpo-koa**".

Edota, Kontzilio amaituta gotzaiei eskeiñi zien otoruntza ederrean izan ote zuan esana.

Gaur-egun, esaldi ori, ontzat artu ez daitekean gauza da. Pozik entzun zuten ordea, ezpairik gabe, orduan, kontzilioko gotzaiek. Ez bait zan txantxetako gauza, bezpera arte, iru mendez Elizaren etsai amorratua izana, Erroma'ko inperatorea, orain, ardura guztiz eta maitasun osoz, gotzai bat ba'litz bezala, Elizaren babeslerik aundiena biurturik ikustea!

Kontzilioan, Kostantino, deduzko Lendakaria izan zan. Legezko lendakaritza, Antioki'ko Gotzaia zan Eustato'k euki zuan. Baiñan an egiazko lendakaria eta Aitasantuaren benetako ordezkari lez kontzilio guziaren aingeru argi-emaillea, Osio Kordoba'ko gotzaia izan genduan.

Ez zan erreza gertatu Batzar Nagusi artako langintza.

Ario'k idatzitako "Thalia"ren aapaldi batzuk irakurri ziran aurrena. Asarretu ziran Kontzilioko Asabarik geien-geienak aapaldi aien aurka. Asaba aiek, ia danak, egiazko ariotarrak ez ziralako siñale bikaiña!

Irakurketa aren atzetik, bere txosten bat aurkeztu zuan Nikomedi'ko Eusebio, Ario'ren adiskideak. Bertanbera ez-ontzat etsia izan zan txosten au ere. Ez zutela, ez, Kontzilioko asaba aiek ariokeri-usairik zezakeanarekin deus jakin nai!

Jainko Irukoitzaren nolakotasuna bein betirako era argian ematearren, "azalpen-ele" edo "formula" berri bat, ots, kredo berri bat eratzea gogoratu zitzaien orduan Asabei. Baiñan ez zan eginkizun ura uste bezain erreza. Bereala sortu bait ziran eragozpenak

- Bearrezkoa al zan kredo **berri** ori? Are geiago: **Kredo berri** bat, egin al zitekean Eliza-baitan?

Baziran ezetz uste zuten Asabak. Ordurako ondo ezaguna bait zan III mendeko I Esteban Aitasantu Donearen arau zugar ura, edo beintzat arau zugar aren izpiritua: "Nihil innovetur nisi quod traditum est": "Ez bedi deus aldatu; baizik eta, zintzo gordea bedi antziñatik jaso duguna".

- Ez al ziran aski tokian-tokiko Elizetan bataiorako erabilli oi ziran kredoak, kredo aiei zerbait erasten ba'zitzaien?

Berriro, ordea, ori egiteko ere I Eztebe'ren arau ura, ots "Apostoluengandik artutakoa ezer berritu gabe gorde bear" ura, ikusten zuan oztopogarri Asaba batek baiño geiagok.

Alatagutziz, ordurarteko kredo aiek Ario'ren okerra agirian ipintzeko gauza izan ez ziran ezkerro, egi ukagaitza lez agertzen zan gero ta geiago, beste kredo berri baten egokitasuna.

- Kredo artan ordea, erabilli ai zitekean filosofiaren barrutikoa zan itzik? Liburu Doneetatiko itzak ez al ziran naikoak?

Luzeak eta gogorrak, gai orri-buruz, Asaben arteko eztabaidak.

- Asabei irten-bide bat eman nairik, bere Elizan bataiaketakoa erabilli oi zan kredo eskeifi zien Zesarea'ko Eusebio'k. Eta kredo

zintzoa zalako, ura artu zuten azkenean kontziliokideek, zerbait aldatuta, Kontzilioaren legezko kredoa antolatzeko.

Eta piztu zan eztabaida berriro:

- Jainkoagandik artua dugunari filosofikeririk erantsi gabe, Zesarea'ko Eusebio'k ekarritako kredoa ura Liburu Doneetatik artutako itzekin borobiltzea, ez al zan naikoa?

Ez. Ario'ren auziari erantzun argi bat emateko, Liburu Doneetatiko esaerak ez ziran naikoak, Ario'k Itzari buruz sortu zigun auzia, filosofiari zegokion auzia bait zan: Itza, edo Irutasun Doneko Bigarren Pertsonaren ZERTASUNA.

"Zertasuna": Latíñez, "essentia", "substantia" edo "natura". Gorago esan dugun bezala, iru itz oiek ez dute oso-osoan zentzu berdiña, baiñan danak, esan naiari dagokionez, elenerazko "ousia" bezala, mami berekoak diralako, euskeraz "zertasuna" eta lateraz "substantia" erabilliko ditugu guk idazki onetan".

Ario ez zan filosofilaria. Ez zan filosofizalea ere. Baiñan, bera oartzeke, Itzari buruzko arazoa filosofiaren barrutira eraman zuan ezkerro, ari erantzuna emateko filosofizko itz bat erabilli bear izan zuten Kontzilioko Asabek ere. Itz ori, "ousia" izan zan; eta itz ori erabilliz, Itza Aita bezain Jainkoa zala adierazteko, Itza, Aita'ren "ousia" edo "zertasun" berekoa dala erabaki zuten: Aitaren "homousios" edo "zertasunkidea". Lateraz, "consubstantialis Patri".

Itz arras egoki ori, "ousia", ez zuten Nizea'ko Asabek asmatu. Len ere erabillia izan bait zan kristaudian.

- Erabilli zuten gnosizale kristauek. Aiek ordea, Itza Aitaren zertasun berekoa zala esaten zutenean, Itza, Aita'ri bere zertasunetik "isuri" zitzaion zerbait zala ezan nai zuten: era ortan Aita'gandik "sortutako" bigarren mailleko jainkotxiki bat besterik ez zala.

- Erabilli zuan itz ori, -- "ousia" Samosata'ko Paul'ek. Eta itz ori erabiltzeagaitik ainzuzen izan zan gaitzetsia; itz orrek Samosata'ko Paul'en izketan, eta bere idazketan, zertasuna ez baiña nortasuna esan nai bait zuan. Aita eta Itza Pertsona bakar bat zirala erakusten zuan ba" Paul samosatarra Antioki'ko gotzaiak. Are

geiago, Itza, pertsona bat ez baiña Aitaren indarra zala esaten zuan. Kristo berriz, zerutik Indar ori etorri zitzaion Nazaret'eko Josu, Aitak **Semetzat artutako** gizon utsa besterik ez zala.

- Ezaguna zan "ousia" itza, zertasuna adierazteko, Alexandri'ko Teologi-Eskolan ere; eta erabilli zuan Origenes'ek. Ez zuan ordea erabilli uri artako beste teologilari bikain batek, Dionisio Alexandritarrak ainzuzen. Eta orregaitik aurkitu zan bertako teologilarien aurrean bere burua zuritu bearrean. "Ousia"rik ez erabilli nai izateari ereji-usaia artu bait zioten teologilari katoliko zorrotz aiek.

Bere idaztietan "ousia"rik ez ba'zuan erabilli, soilki, "askok itz orri zentzu okerra ematen ziotelako" izan zala, arrazoi-eman zien Dionisio'k bere burua zuritzeko.

Teologiarentzat iztegi egoki eta zuzen bat eratzea zeñien gauza zailla izan dan adierazten digu teologilari zar aien arteko nasketa orrek. Batez ere, "ousia" eta "hypostasis" ("hypostases" eleneraz), itzei-buruz ez zuten luzaroan guztiek bat egin.

- "Ousia", bere zentzu zuzenean gaiñera ezaguna zuten Kartago'n Tertuliano'k eta andik Nikomedi'ra aldatutako Laktantzio edestilariak. Orregaitik bearbada, Tertuliano'ren idazkiak Sarkalde guztian anitz ezagunak izan ziralako, Kontzilioan Asabei itz ori aurkeztu ziena, Osio Kordoba'ko gotzaia izan zala, diosku "Catholicisme" iztegi naropak.

Baiñan Alexandri'ko bi teologilari ospetsu, Alexander gotzaia eta Atanasio diakonoa, Nizea'ko Kontzilioan zeudelarik, eta Alexandri'ko teologilariak, aipatu berri dugun Dionisio lekuko

leendik ere "ousia"ri ematen zioten garrantzia jakiñik, dez ote da zугurragoa, itz ori an aurkeztu zuana, bi aietako bat izan zala uste izatea? Nor? Alexander gotzaia eskierki, ez-gotzaiek ez bait zuten Kontzilioan itzegiterik.

"Ousia"k "zertasuna" esan nai duala, badakigu. Ta, elenerazko "hornos"ek berriz "berdiña" esan nai dualako, Itza, ots, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, Aitaren "homousios" zala erabaki zuan Nizea'ko kontzilioak: Aitaren zertasun berekoa.

Noia artu zuten Kontzilioko Asabek, Jainkoak erakutsitako erlijiorako, gizonek asmatutako itz ori?

Ezpairik gabe esan dezakegu, ez zala an zeuden askorentzat atsegiña, itz ori, jentillen filosofitik artutako itz bat onartzea Jainkoaren dotriña gizonengandiko dotriñ batekin nastea zala iduritzen zitzaielako.

Beste batzuk berriz kredora ezer berririk sartzearen adiskide motzak ziran.

Baiñan Kostantinolc, Osio'ren aolkua jarraituz seguruaski, itz "ori poz aundiz artu zualako, eta era goxoz baiña kemen guztiz itz ura ontzat artzea eskatu zielako", danek eman zioten onetsia. Baita itz ori oso atsegiña ez zitzaien aiek ere.

Danek... bostek izan ezik danek eman zioten "homousios" itz berriari beren on-iritzia.

Bildurrak eraginda? Baleike, bateren batek. Ez ordea besteek.

Inperatore kristauari zioten maitasuna ta esker ona gaitik? Bai, zalantzarik gabe.

Gaiñera, naiz jentillen filosofitik jasoaz zalako itz ari maitasun geiegirik izan ez, zentzu oker nabarmenak beintzat ez bait zioten aurkitu!

Alare, "ousia" eta "hypostasis" alkarrekin nasten zituztelako, laister asiko zaizkigu, Kontzilioa amaitu bezain laister asiko zaizkigu Kontzilio artako Asabarik geienak "homousios" itza sabelikerirako bidea dala aldarrikatzen, eta itz ura babesten zutenaren aurka asarre bizian altxatuko zaizkigu.

Ezbaikeri guzti oien gaindik ordea, berez, arras itz egokia zan "homousios", Asaba aiek erakutsi nai zutena Itza Aita bezain Jaungoikoa dugula adierazteko.

Orregaitik, oraindik Kontzilioan bildurik zeudelarik, Itza "Jainkoagandik Jainko eta argitik argi" zala aitortzen zuan Eusebio Zesareatarrak aurkeztutako kredoari, aurrerantzean orrelako esaldi oiek arianikeri-zaleek oker erabili ez zitzaizen zalantzarako biderik uzten ez zuten beste esaldi auek erantzi zizkioten kredo ari:

Itza, "Jainkoagandik Jainko eta argitik argi" ez ezê "egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko" ere bazala; eta, "sortua, ez, egiña", "Aitaren zertasun berekoa": "homousios" edo, "consubstantialis" Patri": "Aitaren zertasunkide".

Argi-argi gelditzen zan gaitzetsia, Itza Jainko ez zala, Aita'k egindako norbait zala, eta bere zertasuna jainko-zertasuna ez baiña izaki-zertasuna zala" erakusten zuan Ario.

Ta, iñork zalantzarik izan ez zezan, eskomikaz zigortu zituan Kontzilioak, onako esaldiok:

- "Izan zan aldi bat Itza'rik ez zana".

- "Itza, ezerezetik Jainkoak egiña izan da".

- "Itza, Aita'renekoa ez baiña beste "ousia" edo zertasun batekoa da" (Dentzinger).

(Azkeneko esaldi ontan "uosia" ez baiña "hypostases" erabilli zuan kontzilioak. Orduan oraindik askok "zertasuna" adierazteko itz ori erabiltzen bait zuten).

Orra or berriro, teologi aratz bat eratzeak izan zuan nekearen adigarri bat.

* * *

Kontzilioaren erabakia ontzat artu ez zuten bost aietatik iruk, lurren alkarrengandik oso bertan bizi ziran Nikomedi'ko Eusebio'k, Kaltzedoni'ko Maris'ek eta Nizea'ko Teognis'ek --, inperatorea aurka zutela eta erbestera izateko arriskuan aurkitzen zirala ikustean, laister makurtu zuten burua, eta ontzat artu zuten, len onartu nai izan ez zutena.

Ez ala, asiera-asieratik Ario'ren adiskide min izan ziran Marmarika'ko Teonas'ek eta Ptolemaida'ko Segundo'k.

Biak, Ario berarekin, eta aolkulari bezala Kontziliora Ejito'tik etorritako apaiz ariozale batzuekin batera, orduan Iliri (gaur Yugoslabi) izeneko probintzira erbestera izan ziran.

Azkenean, "ousia" onartuz Kontzilioaren erabakia izenpetu zuten beste iru aiek ere,-- Nikomedi'ko Eusebio eta bere bi lagunak

- Ez daitezke onako auek eliz-gizon sagaratuak izan: "neofiti" edo kristau berriak; beren borondatez irendu edo zikiratuak; giza-odolik isuri dutenak; eta fedea ukatu dutenak.

- Apaizak ez daitezke etxe berean emakumezko batekin bizi, emakume ori ama, arreba, izeba edo kezka txarrik sorterazi dezakeana izan ezik. Apaizen emazterik ez da aipatzen. Emazte auek ez bait ziran orduan kezagarri, ezkonduan apaiz sagaratuak izan zitezkean ezkeru.

- Apaizak ez dezakete besteri utzitako dirutik mozkin edo irabazirik jaso.

- Gotzai-sagaratzailleak, gotzaigaiaren probintzikoak izan bear dute, eta iru gutxienez. Sagaraketa, gotzai metropolitarr edo gotzai nagusiak onetsia izan bear du.

- Alexandri'ko Gotzaiari Ejito ta Libi osoko gotzaien gaindiko nagusitasuna onezagutzen zaio. Antioki'koari ere ematen zaio, Siri eta inguruko lurraldeei zegokienez, garaitasun bereizi bat. Zesarea izango zan Palestina'ko gotzaien metropoli-uria, baiñan aipu eta garaitasun bereizia ematen zitzaizkion Jerusalem'go gotzaiari.

Ori aginduz, baiki moztu zituan zerbait, Kontzilioak, gotzai bakoitzaren almena eta askatasuna, era berean probintzietako metropolita edo uriburuetakoko gotzaiak goratuz. Orrela asi ziran sortzen Sarkaldeko Patriarka agurgarri aiek.

- Gotzaiak, apaizak eta diakonoak Eliz batetik, ots, elizbarruti batetik, bestera aldatzea, debekaturik gelditu zan.

Ikusiko dugu Nikomedi'ko Eusebio'ri zegokionez, kanon ori nola ez zan bete. Inperioaren uriburutzan Nikomedi'tik Kostantinopla'ra bein betirako aldatu zanean, Nikomedi'ko gotzaigoa utzita Kostantinopla'ko gotzaigora aldatu bait zan bera ere, II Kostantzio inperatorearen ongi-naiez.

- Apaizgai bat bere gotzaiak bakarrik izan daiteke apaiz sagaratu. Beste edozein gotzaiak egindako sagaraketa oro, debekaturik gelditzen zan.

- Erejeek eta zismatikoek egindako bataioak, baliozko bataioak dira. (Gai ontaz mintzatzerakoan, Nobaziano'ren eta Samosata'ko

Paul'en jarrailei dei maitekor bat egin zien Kontzilioak, Elizaren altzora itzuli zitezen).

- "Diaconisae" edo "diakonemeak", sagaraketarik artzen ez dutelako, laiku utsak dira; ots, soilki kristauak.

* * *

Ez zan asarre Kostantino kontzilioa amaitu zanean. Eliz batu bat nai zuan Laterri batuaren barruan, eta lortu zuan Elizaren batasuna.

Bere aalmen guztia erabilliz antolatutako otoruntza dotore batera eramán zituan berekin Kontzilioko gotzaiak.

Arriturik igaro ziran alako zori onez lilluratutako gotzai aiek, agur egiteko ezpatak zutik zituztela bi lerrotan eraturik zeuden Errorna'ren lejiotako zenturioi edo euntarien artean. Arriturik, eta pozez zoraturik. "Ils se demandaient s'ils n'etaient pas Ujã dans le royaume de Dieu": "Jainkoaren erreinuan aurkitzen ez ote ziran galde zegioten beren buruari" (ib).

Ez zan gutxiagorako. Aietako nork pentsa zeakean orrelako gauzarik, urtetxo batzuk leenago apaiz sagaratua izan zanean?

Odurarte, Erroma'ren Iejiotako euntariak gotzai ei lepoa moztutzeko erabilli oi zituzten ezpata aiek. Eta baziran an, ezpata aien losintxa mingarria beren aragian jaso bear izan zuten gotzaiak. Orain ordea, ezpata aiek ber-berak, gotzaiak agurtu ta goresteko zerabilzkiten Erroma'ko euntariak.

Gizarteko gaizkillerik okerrenak eta inperioaren etsairik makurrenak zirala esaten zitzairen gotzai aiei oraindik aitzintxe. Orain, gotzai aiek, omenez beterik ikusten zituzten beren buruak; eta, **gizarte osoaren egiazko gidari soillak eta inperioaren zutaberik sendoenak eta garrantzitsuenak** zirala entzuten zuten inperioko Agintari Nagusiaren agotik.

Ez al zan txoratzeko aña?

Ta, guztia, Kostantino'ri zor zioten. Bazuten noski, Kostantino Jainkoagandik artutako doi berezia lez ikusteko arrazoirik aski.

Otordua amaituta, Elizaren batasuna zaintzen jarraitzeko eta jentillak kristautzen benetan saiatzeko eskatuz, emaitza eder ugariz bete zuan Kostantino'k gotzai aietako bakoitza.

Berak idatzi zien kristaudiko Elizei, pazkoari-buruz Kontzilioak agindutakoaren berri emanez.

Alexandritarrei berriz, "Asabek eta Gogo Deunak Ario gaitzetsi zutela" eta ori egitean "egiazko bide zuzena" erakutsi zutela adieraziz, eskutitz bereizi bat bidali zien.

Ario ordea ez zegoan etsitzekotan, Balkan-Mendietako bere erbestegian. Eta borroka ta gaitz aundiak egin bearra zan oraindik Elizaren altzoan berak sortutako ereji zipotza.

Baiñan orduan ez ziran Kontzilioko Asabak ortaz oartzen. Ezta Kostantino ere. Eta zorionsu amaitu zuten danek Nizea'ko Kontzilioa.

* * *

Nizea'n ospatutako Lenen Kontzilio Ekumenetar aren lorketarik aundiena, "ousia" oiñarriztat artuz, Irutasun Doneko Pertsonen buruz Elizak Jainkoagandik artutako sinispidea argitzeko "homousios" itza ontzat artzea izan zan.

"Ce mot exprime non seulement l'origine mais l'identit absolue de substance, l'unit absolue de Dieu dans la diversitd des Personnes" (Catholicisme). "Ederki adierazten digu itz orrek (Aita ta Semea'ren arteko) zertasunaren berdintasun orokorra eta Jainkoaren batasunean Pertsonen ezberdintasuna".

Gauzak Nizea'ko Kontzilioan gertatu ziran bezala gertatu ziralako, Kostantino'ri zor diogu itz arras egoki orren arrakasta.

Ez luzerako arrakasta. Ikusiko dugun bezala, berebiziko zalaparta sortu bait zan itz eder orren aurka arianikeri eta erdi-arianikeri zaleen aldetik. Baiñan azkenean garaille atera zan bera, eta mezan abesten dugun kredoan daukagu "dogma" edo egi-sinest-bearra biurturik.

Badu gaiñera beste alde batetik ere anitz garrantzi bikaiña itz ori dogmara sartu izateak:

L'adoption de cet mot homousios pour le maintien duquel de durs combats vont bientôt se livrer, marque une date m&norable dans l'histoire doctrinale du christianisme. En insérant de la sorte dans la profession de foi une terme nouveau d'origine non plus scripturaire mais savante, le concile de Nice reconnaissait la fécondité de reffort propremant tMologique d'Ucidation du donn

sanctionnait de son autorite le progr s réaliÉ dans l plicita-tion du contenu de la foi. Avec lui **s'est engage resulu-**ment dans la voie qui devait aboutir aux defionitions solemnelles des dogmes" (Marrou).

Euskeraz:

"Homousios itza onartzea, naiz bere alde laister borroka latzak jasan bear, urrats berri aztu-ezin bat izan zan Eliz-Sinispidearen edestiarentzat. Urrats ori ematean, Idazti Donekoa ez baiña giza-jakintzetakoa zan itz berri bat artu zan kristau-fedearen aitorketarako. Ori egiñez, Nizea'ko Kontzilioak, Jainkoak erakutsia argitzearren teologiak egindako saiaketa neketsuen zituak onezagutzeaz gaiñera, bere aginmen osoz onesten zituan sinispidearen azalpenerako saiaketa aren bidez lortutako aurrerapenak".

Nizea'ko Kontzilioa, Elizaren edestian lenengo Kontzilio Ekumenetarra, ain azkar, dirudianez illabete baten inguruan --, eta, "homousios" itzaren bidez, ain era egokian amaitu izatea..., eta baita Kontzilioa egin izatea bera ere, Kostantino inperatorearen laguntzari zor izan zion, zor dio eta beti zor izango dio Elizak.

Ez da arritzekoa-ta, ainbeste zigorketen ondorean Eliza ez zan orduan inperatorearen laguntzari alde ona besterik ikusteko gauza. Ez zan oartu agintarien laguntza orrek ekarri zezaiozkean arriskue-taz. Izan ere naikoa izango bait zitzaien inperatoreak aburuz aldatzea, laguntza ura etsaigo mingarria biurtzeko.

Ta, agintariak aburuz aldatzeko, naikoa izan da edestia zear maiz aski, agintaria adiskide berriz inguratu izatea.

Ori gertatu zan Kostantino 'rekin ere.

KONTZILIO-OSTEKO BORROKAK

Nizea'ko Kontzilioak sinispidea era egokian aldarrikatu zuan, baiñan ez zuan arianikeririk ezabatu.

Ario'k, bere erejia zabalduz jarraitzen zuan Iliri'n, eta, Nizea'ko kontzilioak erlijio kristaua filosofikeri uts biurtu zuala, zegian oi.

Ez zegoan geldi Galietan Nikomedi'ko Eusebio ere. Politikolari yayo eta agintari-losintxazale ausarta, ez zan bera noianaiko mutilla.

280'aren inguruan jaio zan. Antioki'ko Teologi-Eskolan egin zituan ikasketak. Eskola aren zuzendari ospetsua, Luziano Donea, izan zuan irakasle, eta Aria bera berriz ikasle-lagun. Fenizi'n, Berite'ko gotzaia izan zan aurrena, eta, andik, seguruaski Lizinio eta onen emaztea zan Kostantzi'ren laguntzari eskerrak, orduan Erroma'ko inperiolurraren uriburu eta inperatoreen egoitza zan Nikomedi'ko gotzai-aulkira izan zan jaso.

Beso-zabal onartu zuan Nikomedi'n, Antioki'n ikasketakide izan zuan Ario, onek Ejito'tik alde-egin bear izan zuanean, eta bere adiskide onen babesle bipilla biurtu zitzaigun. Onen alde idatzi zituan eskutizetatik bat, Tiro'ko Paulino'ri egin ziona, osoa gorde zigun Teodoreto'k bere "Eliz-Edestian".

Gutun ortan, Ario'ren aburua babestuz **Alexandri'ko** "Alexander gotzaiari idazteko eskatzen dio Paulino'ri. "Ziur omen dago ba onek idazten ba'dio, ura bere aburu okerretik aterako

duala": "Fac ut Domino meo Alexandro scribas. Nam persuasum habeo, si ad illum scripseris, te eum de sententia deducturum".

Nizea'ko Kontzilioan, Ario'ren alde egon zan beti, eta naiz azkenean, "homousios" eta guzti, Kontzilioaren erabakia izenpetu, azkenean, Ario'ren aurka Asabek jaurtitako "anathema" edo gaitzespen aiek izenpetu izan nai ez zitualako, Kostantino'k Galietara erbesteratua izan zan.

Urte bete leenago Kostantino'k garaitutako eta laister ark berak eriotzara galdutako Lizinio'ren ain adiskide kuttuna izateak ere ez zion orain Eusebio'ri on aundirik egingo noski Kostantino garaillearen aurrean.

Baiñan, iru urte..., ta Nikomedi'n, eta bertako gotzai, genduan ostera gure Eusebio. Naikotzat artu bait zuan Kostantino'k arek bidali zion sinispen-aitorketa bat. Era berean artu zuan ontzat zazpi urte geroago Ario'k bidali ziona ere. Aski zintzoak eta zuzenak omen ziran ba Kostantino'ren iritiz-- aitorketa bi aiek.

Ez dut ezagutzen Eusebio'ren aitordpena. Ona, Ario'k aurkeztu zuana:

"Credimus in unum Deum patrem omnipotentem: et in Dominum Jesum Christum filium eius, ex ipso ante omnia saecula genitum, deum sermonem per quem omnia facta sunt cum quae in coelis tum quae in terris ¹: "Sinisten dugu Jainko bat, aalguztiduna: eta Josukristo Jauna, aren semea, arengandik mende guztien aurretik sortua, jainko itza; beragandik izan dira gauza guztiak egiñak, bai zeruetan bai lurrean" (Sozomeno).

Itz berdin-berdiñekin damaigu Sokrate'ek ere Ario'ren aitordpena.

Ez da arritzekoa izkera orrek Kostantino atzipetu izatea, itxuraz zearo katolikoa bait da, itz oiei berenez duten zentzua ematen ba'zaie.

Zentzu ori ematen ote zien ordea Ario'k? Len ere, Semea Jainkoa ez dala argi-argi esaten zuan "Thalia" bere liburuan, zentzu illuneko esaldiak bai bait ditu, Semea'ri "Jakintza" esaten dionean. Ikus:

" Hay, pues, dos Sabidurfas: una, la que es propia de Dios y coexiste en el, y el Hijo fue hecho en esta misma sabiduria, y por **tomar parte** en ella solo **ël** lleva el nombre de Sabiduria y Verbo. Porque la Sabidurfa ha existido por la sabiduria, por la voluntad del sabio Dios. Asf tambien hay en el Dios otro Verbo junto al Hijo que esta en Dios y por participar de el se llama asfmismo Verbo e Hijo POR GRACIA". ("Gateleratzaillea, I. O. de Urbina. Azpimarraketa nerea).

" Arrio niega a las claras la divinidad del Verbo, a quien sin embargo llama Hijo de Dios por no apartarse de! constante uso bfblico" (O. de Urbina).

Sozomeno'k dionez, asko izan ziran Ario'ren aitorten ari bereala usai txarra artu zioten gotzaiak:

" Hince fidel formulam nonnulli ita callide compositam esse dicebant, ut verbis solum ab ariana doctrina discrepare, re ipsa cum eadem consentire videretur: quandoquidem voces in ea positae talem facultatem dabant in utramque partem ambigendi, ut sensus uterque tum orthodoxorum tum arianorum ex illis colligi posset".

Euskeraz:

"Fede-aitorten ori, askoren ustez, maltzurkeriz eratua izan zan, mamiz arianikerizaleen dotriñarekin bat izanik, itzez beintzat beste gauza bat zala eman aal zezan: zeramazkian itzek, bi aldeetatik onartuak izateko ematen bait zuten eskua, bi zentzuak, bai katolikoena bai arianitarrena, beraiengadik atera zitezkean ezker".

Sozomeno'k", Kostantino'ri zion eraspenak eraginda? **ez** du, Kostantino'ri atsegin izandako Ario'ren aitorten ortaz, bere abururik ematen. Soilki "askori" ez-atsegiña izan zitzaiera esaten digu. Baiñan, "asko" auei "orthocloxo" ots, "sinispen zuzenekoak" esaten dielako, argi dago berari ere ez zitzaiola batere atsegiña Ario'ren aitorten ura.

Eta ez zitzaion ortan Sozomeno'ri arrazoirik peitzen. Naiz axalez katolikoa, bere muiñean zearo ariotarra bait da Ario'ren azalpen ura: "Semea mende guztien aurretik sortua izan zala" dio. Baiñan gure edestiko mende guzti auen aurretik sortua, mende auen

aurretik, baiñan noizbait sortua, ez betikotasunean sortua. Ez du esaten ezta, Semea Jainko danik, are gutxiago Aitarekin Jainko bat bakarra danik. Soilki Jainkoaren Itza esaten dio, baiñan Itz ori Pertsona dala aipatu ere gabe.

Semea Aita'k sortua izan zala ere esaten du aitorpen artan. Baiñan "sortu", era eskotan erabili oi dan itza da. Ala esaten dugu "lana langilleak sortzen duala", baiñan langilleak sortu ez baiña egin egiten du lana. Zentzu au ematen zion bere baitan "sortu" itzari Ario'k ere, "Semea, beste izaki guztiak bezala, Jainkoak ezerezetik egiña izan zala" oiukatzen zuanean.

Sozomeno oartu zan ortaz.

Beste askok ordea, Aria, bere okerkeritik aterata, egiazko sinispidera itzulia zala uste izan zuten. AIA adibidez Jerusalem'en sinodo batean bildurik zeuden gotzaiek, Kostantino'rengandik Ario'ren "itzulpena" jakin zutenean. Entzun Sokrate edestilariari:

"Referebatur (gotzai aiek Alexandri'ko Elizari idatzi zioten eskutitzean) Arium erroris sui poenituisse, ueritatem agnouisse, de coetero Ecclesiae uelle adherere", gotzai aiek Alexandri'ko Elizari idatzitako eskutitz batean esaten ziotenez: "Bere okerkeriz damutu omen zan Ario, egia ezagutu omen zuan, eta Elizara bir-itzuli nai omen zuan".

Kostantino'k berak ere ziur "uste izan zuan Sozomeno'k idatzi zigunez Ario'k Nizea'ko Kontzilioan bildu ziran gotzaiekin bat egin zuala. Eta orrek poz aundia eman omen zion": "Arium cum episcopis in concilio Nicaeno coactis sentire arbitratus, re admodum delectabatur".

Garrantzi aundikoak dirala derizkiot Sokrate ta Sozomeno'ren esakizun oiek.

Izan ere:

- Jerusalem'go Sinodo artako gotzaiek "Ario bere okerkeriaz damutu zala" uste izan ba'zuten, argi dagoan gauza da gotzai aiek okerkeritzat euki zutela beti Ario'ren dotriña eta ez zirala beñere egiazko ariotarrak izan, soilki "homousios" itzaren etsaiak zirala.

- Kostantino'k ere "Ario Nizea'ko gotzaiekin bat egitera iritxi zala" uste izan ba'zuan, argi dago baitare Kostantino bera ere ez zala beñere egiazko ariotarra izan.

Alatagutziz, Kostantino, atzipeturik, Ario'ren alde jarri zitzaigun, eta bereala gotzaiei Ario'ren aldakuntza aren berri ematen asi zan. Eta Elizaren altzora artu zezatela eskatu-agindu egiten. Zerk eraginda zebillen orrela Kostantino? Zerk eraginda? Teologian ez-jakiña izateak, seguruaski Nikomedi'ko Eusebio'ren aolkuek, Sortaldeko ia gotzai guztiak Atanasio'ren aurka zeudela ikusteak, eta, azkenik, Sortaldeko gotzai aiekin Elizaren barrengo pakea errezago eta azkarrago lortuko zuala uste izateak eraginda!

Dakusakezunez, Elizarentzat era arriskugarrian ari zan yadanik Kostantino Elizaren arazoetan eskua sartzen.

Danadala, erbestetik itzulita yare genituan ostera Nikomedi'n Eusebio eta Ario bera. Eta arrezkero, Ario ez baiña Eusebio izan zan ariotasunaren aintzindaria eta buruzagia.

Ario bazterrean gelditu zan. Eta il ere, laister il zan. Era kupigarrian; esteak zintzilika zituala komon-bazter batean odolusturik, orrelako gertakizunak kontatzerakoan oso fidagarri ez dan Sokrate'ek dioskunez.

Arrezkero, "Eusebio nikomeditarrak izugarrizko eraginmena artu zuan Kostantino-baitan": "Eusèbe resta tout-puissant sur l'esprit de Constantine" (Catholicisme).

"Eusebio'k bazuan Nikomedi'n beste adiskide zindo bat: Kostantzi, Kostantino'ren arreba eta Lizinio zanaren alarguna.

Badirudi ez zala bere arreba arekin oso txukun ibilli: Kostantzi'k, maite zuan Lizinio bere senarra, eta aren bizia salbatzeko eskatu zion Kostantino anaiari, onek ura, **Lizinio 324'an** garaitu zuanean. Baiezkoa eman zion Kostantino'k orduan bere arrebatxoari, eta adiskidetasun aundiz artu omen zuan garaitutako ezkon-anai ura. Baiñan andik laister, ostera gudua gertutzen ari omen zalako, itota erailla izan zan aurkitua Lizinio. Kostantino'ren aginduz erailla. Egiazkoak ote aren gudu-prestaketa aiek?. Baleike. Lizinio ere ez bait zan zeruetatiko aingeru gardena.

Zana zedilla erailketaren zioa, arras mindurik gelditu zan Kostantzi maitekorraren biotza. Ta arrezkero edozer gauza egiteko gerturik aurkitzen omen zan Kostantino, Kostantzi bere arrebari eriotz aren samiña gozatzeko. Kostantzi ordea, aski arianikeri-zalea zan!

Izan ote zuan Kostantzi'k zer-ikusirik, Kostantino bere anaiak Eusebio'ri eta Ario berari emandako barkapen aietan?

Ordurarte Osio kordobatarra izan zan Kostantino'ren aigeru zuri gidaria. Emendik aurrera, Eusebio nikomeditarra izango da aren aolkularia, aren aingeru beltz zirikalaria. Kostantzi'ren laguntzarekin, agian?

Gaiñera, Kostantzi ez eze Elene Donea ere Antioki'ko Luzian martiri Donearen miresie aundia omen zan. Doneluzian'en eraspenera bultzatu ote zuan ba Kostantino bere ama zaar arek?

Baiñan Doneluzian, Aritioki'ko Teologi-Eskolaren zuzendaria, Nikomedi'ko Eusebio eta Aria beraren irakasle izana zan, eta berenakotzat zeukaten arianikeri-zale guztiek.

Antioki'ko Doneluzian'enganako Elene Deunaren eraspen arek, izan ote zuan, naiz neurri txikian, Kostantino'k Eusebio'gan ipiñita zeukan onuste oso arekin zer-ikusirik?

Laister asi ziran beintzat ariozale guztiak burua jasotzen eta berebiziko eztabaidak sortzen.

Ez ditzagun ordea gizon aiek inpernuko etsaitzat artu.

Ario'k, agian bera oartzeke, eta arek txinparta piztu zuanez gero aren jarrailleek, ots, egiazko ariozaleek, ulerteziña dan Jainkoaren misterioa ulertu eta argitu nai izan zuten.

Alaz ere, zillegi ez zaigun gauza da arianikeri-zale eta erdiarianikeri-zale aiek asmo gaiztoz ibilli zirala uste izatea. Azkeneko auek beintzat, soilki "homousios" itzak naasten zituan. Ez zuten aditzen Semea nola Aitaren zertasun-bat-berekoa izan zitekean, homousios itzak zer esan nai zuan ongi ulertzen ez zutelako. Ikus:

"Eusebius of Nikomedia appears to have been agreed with Eugene of Caesarea in placing Christ above all created being, the

only begotten of the Father but in refusing to recognize him to be of the same substance with Father, who is alone in essence and absolute being" (Enc. Brit. Azpimarraketa berea).

Euskeraz:

"Badirudi, Zesarea'ko Eusebio'rekin bat egin zuala Nikorriedi'-ko Eusebio'k, onako au aitortzeko: Kristo izadi guztiaren gaindik dagoala, eta Aita'k sortua dala, Aita'gandik sortu dan bakarra, baiñan alare ez dala Aitaren zertasun berekoa; Aita, bai zertasunean eta bai beste edozertik edo edozeiñengandik zearo yarea edo "ab-solutus" izaten, bakarra dalako".

Semea beraz, aien ustez, "Aita'k sortua", bai, bada. Baiñan, "Aita'ren zertasun berekoa", ez.

Nere ustez, Aita'k Aita izatea bere zertasunekoa dualako, Semea ere Aita'ren zertasun berekoa dala esatea, Semea ere Aita biurtzea dala iduritzen zitzaien. Eta, Semea Aitaren zertasun bat berekoa dala esatea berriz, Aita ta Semea Pertsona bat egitea dala. "Ousia" (zertasuna) eta "hypostasis" (nortasuna) itzen arteko nasketa!

Aita Aita izatea aren zertasunari ez baiña aren nortasunari dagokion gauza bait da, Semea Seme izatea ere, onen zertasunari ez baiña onen nortasunari dagokion gauza dan bezala. Biak Jainko bat bera izatea, bat bera duten zertasetik datorkie; bial bi pertsona bereizi izatea berriz, biek ezberdiña duten nortasunetik.

Baiñan alare... ez zerala, irakurle Irutasun Doneko izkutukiak zuk nai bezain argi ikustera iristeko gauza? Ez zu, ez ni, ez zeruetako aingeruek. Josukristo'k berak, -- bere jainko-adimenez bai noski baiñan bere giza-adimenez ulertzen ote zuan Irutasuneko izkutukia bere sakontasun guztian?

Ortan datza misterioa. Ori, ulertu daitekean gauza ba'litz, ez litzake misterio izango. Eta gu, ori ulertu aal izateko gauza biotako bat: edo Jainkoa gu bezain ezereza izango litzake, edo gu Jainkoa bezain aundiak izango giñake.

Neurri motz parregarrikoa dan gizakume gaixoak ez dezake neurrigabea dan Jainkoaren zertasunik eta nolako 2sunik ulertu.

Gizakumeak ulertu lezakean Jainkoa ez litzake Jainkoa izango, gizakumearen sorkari ezereza baizik.

Nikomedi'ko Eusebio'k ordea, çnolako zentzua ematen ote zion "sortua" "begotten" itzari, Zesarea'ko Eusebio'ri Semea izaki guztien gaindik dagoala eta Aita'k sortua, Aitak sortutako bakarra dala sinisten zuala, Zesarea'ko Eusebio'ri aitortu zionean?

Semea gaiñerako izaki guztien gaindik dagoala Ario'k ere beti erakutsi bait zuan, eta Aitak sortua dala ere, aitortu bait zuan Kostantino inperatoreari aurkeztu zion kredoan. Ikusi dugu ordea, Ario'k aitopen artan "sortua" itzari ematen zion zentzua, ziurki ez dakigun gauza dala, esan dugun bezala "sortu" itzak zentzu aski zabala dualako. Sortua esaten bait diogu, gazta-mota berri bati ere: orrelako artzaiak sortutako gazta-mota.

Arianikeriak ez zuan teologilari ospetsu'Tik izan. Ario bera ez zan teologilari. Ezta Nikomedi'ko Eusebio ere. Zerbait izatekotan, politikalarri nastaille bizkorra izan zan azkeneko au.

Ala irabazi zuan Kostantino'ren naimen ona. Aren eskuetan ipiñi bait zuan onek, **Kostantino'k gero inperatore izango** ziran Galo eta Juliano illoben eziketa. Bataiatu ere arek bataiatu zuan Kostantino, 337'an. Eta, 339'an, Nikomedi'tik aterata, ordurako Erroma'ren inperioko uriburu zan Kostantinopla'ko gotzai egin zuan Kostantzio inperatore berri Kostantino'ren semeak, onela Nizea'ko Kontzilioak 325'an agindu zuana zapalduz.

341'ean, izan zan Eusebio Antioki'n egindako kontzilio batean. Baiñan urte artan bertan il zan-da, ura izan zuan bere azkeneko ekintza.

* * *

330'ean, erbestetik itzulita arianikeriaren zuzendaritza bere eskuetan artu zuanean, berealaxe asi zan lanean Eusebio nikomeditarra, eta Eustazio Antioki'ko gotzaiari ekin zion beste iñori baiño leenago.

Izan ere, Nizea'ko Kontzilioaz gero, eta baita leenago ere, Siri'n sinispide zintzoaren babesle aundia agertu bait zan Eustazio Donea, Bere zeritzan uriko gotzai lez aurrena, eta Antioki'ko gotzaigotik gero.

Laister oartu zan gaiñera gure Eustazio, Semea Aita'ren "homousios" edo Aita'ren "zertasun" berekoa zala Nizea'n izenpetu zuten aietatik bat baiño geiago aburuz aldatzen ari zala.

Ta berealaxe asi zan aiek esaten zutenaren aurka idazten eta itzegiten.

Orduan ordea, oraindak ez zegoan egoki eratua teologiaren izkera-ta, baleike, dana biotz eta dana kemen zintzoa zan gizon arek, Semea Jainko ez zala esaten zuten arianikeri-zaleen aurka Semea'ren jainkotasuna ziurtzeko, Aita ta Semea ongi bereizten ez zituan izkera noiz edo bein erabili izatea. Sabelikeriz salatu zuan beintzat Zesarea'ko Eusebio gotzai edestilariak.

Ez zuan ortan Eusebio'k arrazoirik, Eustazio ez bait zan sekulan sabelikeri-zalea izan.

Orregaitik, ez zan Eustazio isilik gelditu. "Aita'ren eta Semea'ren zertasunaz mintzatzerakoan ez zuala izkera garbirik erabiltzen", jaurti zion aurpegira Eusebio salatariari. Eta, Eustazio'k bai, arrazoi zuan ortan Eustazio'k. Ordurako, aski urrundu bait zan Eusebio zesareatarra Nizea'ko Kontzilioaren sinispidetik, edo beintzat, homousios itzaren etsaia zalako **Nizea'ko** Kontzilioaren mintzaeratik, naiz bera egiazko ariotarra sekulan izan ez.

Salaketa bera egin zuan Eustazio'k, ezaguna dugun Tiro'ko Pautino'ren aurka.

Askoz zakarragoa izan zan arianikeri-zaleek Eustazio'ri jaurtitako beste salakuntza bikoitza: Elene, inperatorearen amaren aurka itzegin zuala; isillean emakume ezkondu batekin nasirik; zebilela.

Azkeneko zikinkerri onek nondik arturik ez du. Garai artako Eliz Asabek Alexander, Atanasio, Jeronimo eta baita edestilari zarrek ere Sozomeno, Sokrate, Teodoreto danak onesten dute

Eustazio gizon santua bezala. Teodoreto'k "Eustazio Aundia" esaten dio. Martiri il zala diosku berriz Donejeronimo'k.

Elene "ama inperatemearen" aurka mintzatu zalarikoari-buruz entzun deiogun, gauzak ongi ezagutzeko egokitasunik aski bazuan bati: "Eustazio, inperatorearen ama iraindu izateaz salatzen dute. Baiñan ondo daki inperatorearen amak, erejia gorroto izatea dala Eustazio'ren erru bakarra", diosku Atanasio'k: "D'avoir insulté la reine de l'empereur qui sait trop bien qu'il est coupable seulement de hak l'héresie" (Dic. Hist. et Geog. Eci.).

Agintari gogorra, "tiranos" zala ere esan zuten Eustazio'ren aurka arianikeri-zaleek. Agian, sei gotzaigai sagaratu nai izan ez zitualako. Ez omen zitzaizkion ba, sei aiek, sinispen garbiko kristauak iduritzen.

Eustazio'k gaiñera, Antioki'ko metropolita zalarik, gertakizun artan, Nizea'ko Kontzilioak metropolitei, gotzai-sagaraketari-buruz, leporatu-berri zien bearkizuna bete besterik ez zuan egiten. Zuzen ibilli zan gaiñera! Sei aiek, sagaraketa beste gotzai baten eskuetatik artuta, gotzai arianitarrak izan bait ziran seiak.

330'garren urtean, Teodoreto'k idatzi zigunez, Nikomedi'ko Eusebio'k, lagun batzuekin Lur Donetik erromes zetorrela, Antioki'n bertan kontzilio bat bildu zuan, eta, kontzilio artan, arianitarren ekintzaz, bere gotzai gotik kendua izan zan Eustazio.

Ez zitzaien zailla gertatu Eusebio nikomeditarrari eta bere lagunei, inperatorearengandik, egin zutenaren onespena lortzea. Ondorioz, Kos- tantino'k Trazi'ra erbesteratu zuan Eustazio, eta an il zan au azkenean.

"Fue el primer acto de manifiesta protección al arrianismo por parte del emperador que tan católico se mostraba en Nicea" (Espasa).

Inperatoreak eta erregeak eta gaiñerako agintariak, oiñarri txepela dirala Elizarentzat! Idazti Doneak esana da, izan ere, "vae illis qui confidunt in principibus": "Ai!, ustea agintarrietan ipintzen dutenek"!

Donejerantimo'k dionez asko idatzi omen zuan Eustazio'k arianitarren aurka, baiñan Origenes'en aurkako itzaldi bat izan ezik, galdua dugu gaiñerako guztia.

*

Orrelako salaketak, orrelako borrokak eta orrelako zigorketak, maiz ikusiko ditugu emendik aurrera ia IV mende guztian.

Alexandri'n il berria zan Alexander gotzai donea; eta, berak utsik uzten zuan aulkirako, Nizea'n aren diakono laguntzaille ikusi dugun Atanasio izan zan gotzai sagaratua. 328'garren urtea zan.

Ondo irabazia du, IV mendeko Eliz-Asabarik aundienetako onek aipu goresgarri bereizi bat,

Ejitarra, agian jaiotzez Alexandri bertakoa, adimen zorrotze-ko gizon jakintsua izan zan Atanasio, kristautasunean zintzo eta greziarren jakintzetan dotore ezia; teologilari sakona, ordurako idatzirik zeuzkan apologi-liburuek adierazten dutenez.

Bi izan ziran liburu oiek, naiz edestilarien ustez biak Apologi orokor baten zatiak izan:

"Orazio contra Gentes". "Jentillen aurka Arrazoiketa", "jainkoaskokerti" edo "politeismoaren" zentzurik-eza agertzeko idatzia.

"Orazio de Incarnatione Verbi" edo "Itza'ren Gizakundeari-buruz Arrazoiketa". Misterio ori argituz, misterio orren aurkako juduen eta jentillen eragozpenak askatzeko argitaratua.

Atanasio, liburu oiek idatzi aurretik, basamortuetaka Andoni Abata Donearen adiskide aundia izan zitzaigun gartzetan eta aren bizitz-idazlea izango zaigu geroago. Adiskidetasun ortik sortu zitzaion eskierki bakartasun-zaleenganako maitasuna.

Alexandri'ko Gotzaiak sagaratu zuan diakono, eta aren laguntzaille zintzoa ikusi dugu Nizea'ko Kontzilioan.

Gorroto eta bildur zioten arianitarrek, eta orain, Alexander Donea illik, Alexandri'ko gotzaigoa berak artu zuanean, askoz aundiagoak :gin ziran aien gorrotoa ta bildurra. Alare, Nikornedi'-

ko Eusebio'ren lenengo urratsa, gotzai berriari, Ario ostera Alexandri'ko eliza-baitan onartzeko eskatuz, gutun bat bidaltzea izan zan. Ezezko erantzuna eman zion Atanasio'k. Ez zuan noski erantzun orrek, ariozaleek zioten aierkunderik geiegi motelduko.

Kostantino'k ordea, eraspen aundia zion Atanasio'ri. Eta baita, ezpairik gabe, bildurrik aski ere, Nikomedi'ko Eusebio aolkularitza zerabilkianez gero. Ori zala-ta, agian Eusebio onek eskatuta, eskutitz bat idatzi zion berak ere, Ario berriro Alexandri'ko Elizaren altzora onartu zezan arren-egiñez. Ezezkoa izan zan, len Eusebio'k bezala, orain Kostantino'k jaso zuan erantzuna: "Ereja ez omen daiteke iñoiz, Eliza-baitan onartua izan".

Ez zuan orduan Kostantino'k deus egin. Aundiegia bait zan oraindik zion begirunea.

Ez zuten arianitarrek etsi: "Arrianos y melecianos, unidos a Eusebio de Nikomedia, levantan contra Anastasio una serie de calumnias de todo tipo, desde las más bajas, como la seducción de una mujer, hasta el ilegal aumento de impuestos, cosa que como ninguna, podía exacerbar al emperador" (GER).

Iztegi orrek ez du esaten, baiñan zerga-auzi ori, meleztarrek, ots, ezaguna dugun Melezio gotzai ejitoar aren jarraileek, eraman zuten Kostantino'ren auzitegira, ortarako aukeratu zituzten beren iru gotzaien bidez.

Kostantino'k ordea zuzen jokatu zuan: Atanasio beraren ago ber-beretik, onek esan zezaiokeana jakin nai izan zuan; eta, ortarako, Nikomedi'ra joateko aginduz gutun bat bidali zion. Eskutitz ori, Atanasio'k bere idatzi batean jaso omen zuan, baiñan zoritxarrez "galdua dugu, ber-idazleen laburtasun-zaletasunaren erruz": "Des copistes tres pressés ne l'ont pas recopié" (Dic. Hist. Geogr. Ecl.).

Joan zan Atanasio Nikomedi'ra; zuritu zuan ederki bere burua; eta garaille itzuli zan Alexandri'ra, Kostantino'ren gutun bat berekin zekarrela. Gutun artan, Atanasio'ren etsaien jardunkera itxusituz gero, "Atanasio Jainkoaren gizona zala" aitortzen zuan inperatoreak.

Alare, bereala ikusiko dugunez, ez bide zan Kostantino oso lasai gelditu.

Atanasio'k ordea eskierturik ikusten zuan bere egoera-ta, melezikeria ezerezteko garaia iritxia zuala iduritu zitzaion, eta Melezio'ren jarraileak zuzendu naiean asi zan. Baiñan "contre certains d'entre eux il prit de mesures assez sevres qui n'eurent autre resultat que d'exciter la rancune": "Gogorregi ibilli zan aietako batzuekin ordea-ta, guzti aien gorrotoa aizatzea besterik ez zuan lortu" (ib).

Bada meleziaz aiek Nizea'ko Kontzilioan Elizara itzuli zirala dionik ere. Eta ori diona, ez da edozein, edestilari ospetsu bat baizik: "Os melitianos cismaticos haviam-se reconciliado com as deciseles de Niceaia, mas continuaram a ser muito enfadosos. Atanasio tratou-os tao rudamente que se qeixaram da violência dos seus metodos. A acusaçao apresentada per estes coptas (ejitoarrak) dissidentes, papiros recentemente encontrados demonstran que tais acusac8es eram fundamentadas foi rapidamente explotada por Eusebio de Nikomedia" (Chadwick. Portugaleratzaille, Albarran de Carvalho).

Ori, orrela izan ba'zan, badirudi Atanasio ez dala, meleziazarra era bat Elizatik at gelditzeari-buruzko auzian, erruz osoki garbia.

Beste edestilari bat ordea, au ere benetan ospetsua Atanasio'ren aurkako gogorkeri-salaketa aietaz "il y avait bien Ia un noyau de verites, mais on lez exagerait pour les besoins de la cause" esanaz mintzatzen zaigu: "Bazuten, salaketa aiek, egiazko gunea, baiñan, Atanasio garaitzarren, anpatuak izan ziran" (Marrou).

Dirudianez ez zan Atanasio meliziarren auzi ortan, bear bezain apal ibilli. Santuak, baita santu aundiak ere, zearo akatsik gabeak ez bait dira izaten.

Ezpairik gabe, "multo enfadosos" jarraitzen zuten "aspergarri" aiekin, goxotasunaren bidez ezer lortzen ez zuala ikustean, gogor jokatzeko ordua iritxi zitzaiola uste izan zuan Atanasio'k. Eta ez zuan noski asmatu.

Baiña meleziar "muito enfadosos" aiek ere, ez zuten, ematen duanez, Elizaren barruan jarraitzeko lei aundiegirik.

Urduri zebillen, esan dugun bezala, anitz urduri zebillen Kostantino inperatorea, Elizaren batasuna urraturik eta era berean Laterriaren batasuna ere urratua izateko arriskuan ikusten zitualako. Ta egoera ori konpontzeko, izkera gogorreko bi gutun bidali zituan Alexandri'ra: Bata Atanasio eta bere jarraileentzat. Ario eta ariozaleentzat bestea.

Bi eskutitz oiek garbi adierazten digute, auziari bein betirako amai ematekotan aurkitzen zala inperatorea, eta ori lortu aal izateko, Atanasio Alexandri'tik ateratzea naitanaiezko gauza zuala iruditzen zitzaiola. Atanasio bait zan Nizea'ko Kontzilioak erabaki zuana benetan artu nai zutenen artean gotzairik gartsuena.

Aitanasio'ren gotzai adiskideetatik asko, gutxienez zortzi -- aien artean Antioki'ko Eustazio ordurako erbesterratuak zituan Kostantino'k. Danetan garrantzitsuena eta aundiena gelditzen zitzaion: Alexandri'ko Atanasio Donea bera: beste guztien gidaria.

Alare, ez zuan orduan Kostantino'k bat-bateko erabakirik artu.

Ario'ri, Nikomedi'ra joateko agindu zion, an bere sinispenaren arrazoi eman zezan. Joan zan Ario eta "egin zuan Kostantino'ri beintzat naikoa iruditu zitzaion zentzuibikoitzeko aitorpen bat": "Profesion de foi 6quivoque qui satisfit du moins Costantin" (ib).

Jaso ditugu goraxeago, Ario'k egindako aitorpen orri orri-buruz Sozomeno garai artako edestilariaren itzak.

Sinispen-auzietan bere kasa ari nai ez zualako, jarraitzen zaigu esaka Sozomeno aitorpen ori Kostantino'k orduan Jerusalem'en bildurik zeuden gotzaiei aurkeztu omen zien, eta aiek ontzat artua izan omen zan.

Gotzai-billera artan ordea, buruzagiak, arianikeriz kutsatuak ala "hornousios" nizeatarraren etsaiak ziran. ¿ez ote zan Kostantino ortaz oartu? Ta buruzagi aien antzrera, gotzaiak ere batzuk, geienak, erdianikeri-zaleak, ots, "homousios"en etsaiak; beste batzuk, agian teologilari mottelegiak batzar artan jorratzen zanaren

garrantziaz jabetzeko eta ondorioz inperatore txit kristauak ontzat arturik zeukana zalantzan ipintzeko.

Gaiñera, Ario'k bere aitorenari eman zion idazkera bera naikoa bait zan edozein iruzurtzeko, teologilari mottel ziran gotzai aiek zentzu ona besterik ez zuten Ario'ren aitoren artan ikusi, eta ondorioz beren bakuntasunean arrapatuak eta atzipetuak izan ziran, bearbada.

Ez zeuden Atanasio'ren arerio maltzurak deus egiteke gelditze-kotan. Ez beintzat deus esateke!

Zer esan ez zekiten aren aurka: Ejito'n, Mareot izeneko lurraldean, Iskiras zeritzan apaiz meleziar batek mezarako erabiltzen zuan "ontzi donea" apurtu zuala..., inperatorearen etsai iraultzalari bati urrez betetako zorro bat eman ziola...

Ez zien Atanasio'k orrelako salaketa zirtzil oiei jaramonik egin. Baiñan larritu zan aski, 332'an, gaiztakeri aundi bat Ieporatu ziotenean.

Baziran bost urte Arsenius izeneko gotzai bat mundutik ezereztu zala. Ez zuan inork aren berririk. Bizi zan? Atzerrira iges-egiña zan? Ez zan beintzat inondik agertzen.

"Ez da agertuko", oles egin zuten meleziarrek. "Ez da agertuko, Atanasio'k illa izan dalako". Eta gotzai-iltzailletzat salatu zuten Atanasio, inperatorearen eta Elizaren aurrean.

Inperatoreak auzi astun ura ikertu ta epaitzeko, Dalmazio bere erdi-anaia izendatu zuan epaille, eta gotzaiak, pentsa dezakezu nolako gotzaiak, okerkeri makur ikaragarri ura kanon-legearen ikuspidetik epaitzeko, Palestina'ko Zesarea'n bildu ziran: Eusebio edestilariaren gotzai-urian.

Atanasio'k, bere burua legearen aldetik nola babestu oldozten asi-aurretik, "detektibetzari" ekin zion. Eta berdin-gabea agertu zitzaigun ontan ere. Berak erail-zualako gotzai ura, bizirik aurkitu bait zuan, ortarako erabili zituan adiskide batzuen bidez, Fenizi'ko Tiro'n!

Epaiketa egin aal izaterik gabe itzuli zan Dalmazio, Kostantino bere erdi-anaiarengana. Eta Zesarea'n bildutako gotzaiak, ezer esan gabe ixil-ixilik itzuli ziran, bakoitza bere etxera.

Kostantino'k, lotsatuta noski, arazo ari-buruzko auzi oro bertan bera gelditzeko agindu zuan, eta meleziarren artetik irten bait zan salaketa, aski irrigarria dan "eskutitz bat idatzi zien, aurrerantzean bare egon zitezela aginduz": "Ecrit aux mètitiens d'avoir clnormais se tenir tranquilles" (ib). Ez al da lotsagarria? Alako salaketa zikin ura atera zutenei, ez zien erantzukizunik eskatzen. Soilki, patxadaz goxo jarraitzeko eskatzen zien. Ori, inperatore **Aundi baten** jardunkera izan al daiteke?

Badirudi, pakea lortzeko urduritasunak txorabiatuta, katolikoei baiño bildur geiago ziela beste guztiei, beste anitz aldetik bai, Aundia esana izatea ongi merezi duan inperatore bizkor arek.

Kostantino'k meleziarrei zuzendutako gutun arek indarrrik aski izan ote zuan? Emendik aurrera arianikeri-zaleak izango bait dira Antanasio'ren etsairik amorratuenak.

Amorru deabrukoi orren edestian oroipen bereizia zor zaio 335'garren urteari. Kostantino inperatorearen eta Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarraren urtegarrena bait zan: ogeitamar urte betetzen zituan Kostantino'ren agintaritzak; amar berriz Nizea'n ospatu zan Elizaren Lenen Kontzilio Ekumenetarrak.

Giro ederra iduritu zitzaion Kostantino'ri Elizaren batasuna Lortzeko, ta beste kontzilio bat egitea pentsatu zuan. Fenizi'ko Tiro'n, oraingo au.

Kontzilio eta sinodo asko agertu zaizkigu orain arte, Ario'k bere erronka jaurti zuan ezker. Eta askoz geiago agertuko zaizkigu edestiaren ibilleran, arianikeria ezabatzen ez zaigun bitartean. Bi bakarrik izan ziran ordea Ekumeniarrak IV mende guztian: Nizea'koa eta Kostantinopia'koa. Besteak ia danak bai beintzat geienak egiazko Elizatik at egiñak izan ziran, eta, asko, egiazko Elizaren aurka. Orregaitik, nik, bi aiek beste auengandik bereizteko, "K" nagusiz emango ditut Kontzilio Ekumeniarrak beti, eta "k" ttipiz besteak, naiz egiazko Elizak egiñak izan.

Ez da erreza, edestia-zear "kontzilioa" eta "sinodoa" zertaz bereizten diran esatea. Kontzilioa, sinodoa baiño duintasun geiagoko izena da. Zerbaitez bereiztekotan, antziñako aiek beintzat, beren zabaltasunaz bereizten dirala esango nuke nik. Kontzilioak, sinodoak baiño gotzai geiago, lurralde geiagoko gotzai geiago biltzen dituala. Ez da arau ziurra. Alare, guretzat edesti-lan ontarako balio dezakeala derizkiot. Azken-azkeneko arau ziurra, bata bestearengandik bereizteko, Elizak eman izan dien deitura dugu. Alatagutziz Eliz-Batzar bat berari batzuetan sinodo eta bestetan kontzilio esan oi dio bein baiño geiagotan Elizak berak.

Bildu zan 335'ean Tiro'ko kontzilioa. Aal izan zuten ardurarik aundienaz, eusebiotarrek, ots, Nikomedi'ko Eusebio'ren adiskide ta lagunek gertutua izan zan. Deiak, bai, Kostantino'k egin zituan, baiñan soilki eusebiotarrek aukeratutako gotzaiei. Ez zuten eusebiotar aiek billera artan arriskurik nai. Kontzilio artan bein betirako Atanasio gaitzetsi, erbesteratu eta isillik uzteko asmoa arturik bait zeuden. Ala eskatu zioten Kostantino'ri, onek maiteegi ez zituan Ejito'ko gotzai meleziarrei ere kontziliaora deitzeko. Eta an izan ziran auek.

Baiñan Atanasio berrogei ta amar gotzai lagunekin Ejito'tik iritxi zanean, ez zioten auei sartzen utzi, Kostantino'k deituak izan ez ziralako. Bakarrik sartu zan Atanasio eta bakarrik egon zan an kontzilioketa guzian. Taldetxo bat besterik ez zuan an bere aldekoa; bi bakarrik inguru aietako kristaudian aski ezagunak: Tesalonika'ko Alexander eta Jerusalengo Makario.

Aurka zituanen artean, Eusebio biak: Nikomedi'ko eta Zesarea'koa. Ta, Europa'tik etorritako bi balkandar gazte, biak arianikeriaren alde ospetsu egingo ziranak; biak Ario'k berak, Balkanetan erbesteraturik egon zanean, bere alderdirako irabaziak: Mursa'ko Balente eta Sinjidunum'go Ursazio.

Kontzilioaren jardunkera zuzendu zezan, bere uste oneko norbait aukeratzeko eskatu zioten eusebiotarrek Kostantino'ri, eta onek Dionisio kontea izendatu zuan eginkizun artarako.

* * *

Atanasio'ren aurkako salakuntza irakurriz asi zuten Tiro'n bildutako gotzai aiek kontzilio aren ibilketa. Salaketa guztietatik bat bakarra izan zan, aztertua izateko "Asabek" aintzat artua: Alako kaliz-apurketa ura. Oroi: Ejito'ko Mareot zeritzan lurraldeko Iskiras apaiz meleziar batek mezarako erabiltzen zuan kalizaren puskaketa. Mareot'eko apaiz atanasiar batek ondatu omen zuan "ontzi done" ura, baiñan Atanasio beraren aginduz.

Irriparrez entzun zuan Atanasio'k erasten zioten oben irrigarri ori. Azturik zeukaten "kontzilio" artako "Asabek'", guk ikusi dugun lez, "detektibe" bezala ere arras gizon trebea zala aurrean zeukaten Atanasio ura.

Arriturik entzun zuten nola oraingoan ere Atanasio' k lotsagarri uzten zituan, Iskiras ura apaiza ez zala ikusieraziz. Ziona egiztatze-ko, Ejito'ko apaiz meleziar guztien zerrenda aurkeztu zuan kontziliokide danen aurrean. Alare, ez zuten auek etsi, eta, agian zerrenda ura osoa ez izatea bazitekeala uste izan zutelako, Mareot'en zer gertatu zan jakiteko, batzorde bat bidaltzea erabaki zuten Ejito'ra. Eta batzorde artarako, an zeuden gotzaietatik Atanasio'ren etsairik amorratuenak aukeratu zituzten.

Altxatu zan Atanasio aukeraketa aren aurka bere protesta edo osteketa egiteko. Egin zuan berea Tesalonika'ko Alexander'ek ere. Aukeraketa aren aurka irten zan Dionisio kontea bera. Alatagutziz garaille irten ziran eusebiotarrak, eta jarri zan bidean, Ejito'rako aiek autatutako batzorde ura.

Batzorde artako gotzaiak Alexandri'n eta Mareot'en bertan egin zuten ikerketa nolakoa izango zan esan bearririk ez da. Altxa zuten oiva ain gaizki egindako ikerketa aren aurka Alexandri'ko apaizek. Eta baita Mareot ber-berekoek ere. Alde izan zuten ordea beti Ejito'ko "praefectus" edo jaurle nagusia ta, ikerketaren ondorio, Atanasio errudun zala atera zuten.

Okerkeri ura izan zan batzorde artako gotzai aiek Tiro'ko kontziliora ekarri zutena. Badirudi beraiek ere, edo kontzilio artako

Asabek, ez zeudela egin zuten Janagaitik arroegi: "Les procs verbaux de leur enqu&e étaient si peu a leur honneur qu'ils les tinrent cachés le plus possible": "Ikerketa artako galde-erak aal izan zuten guztia euki zituzten gorderik. Ain bait ziran guzti aientzako lotsagarriak" (ib).

Alatagutziz, ikerketa ura Kostantino inperatoreari eta Julio Aitasantuari, biei, izan zan kontzilioko Asabek bidalia. Baita Sortaldeko Elizei ere.

Julio Aitasantuak, ala bear ere zan-da, Atanasio'ri eman zion zikinkerri ari-buruz jaso zuan gutuna.

Tiro'n, kontzilioko gotzaiak epai-itx gogorra jaurti zuten Atanasio'ren aurka: Erruduna zala! Eta, orregaitik, Alexandri'ko gotzai-goa kendu zioten, eta erbestera jaurti-bearra zala erabaki zuten. Erruduna, zergaitik? Zesarea'n, berak erail-zualako gotzai aren auzia epaitzeko bildu zan kontzilio artara joan ez zalako; Tiro'ko kontzilio ontatik iges-egin zualako, eta, batez ere, Ejito'ra bidalitako batzorde aren ikerketaren araura, Mareot'eko apaiz aren zorioneko kaliz ura porrokatu zualako.

A! Ta, nola ez? Elizaren altzora berriro onartuak izan ziran, Atanasio'ren ordura arteko etsairik gogorrenak: Ejito'ko gotzai ta apaiz melezitar guztiak. Gaiñera, auek, danak, eskomika ta gaitzespen orotik eta Nizea'ko Kontzilioak ezarri zizkien bearkizun guzti aietatik yaretuak izan ziran!

Bestalde, ez zan egia, Tiro'tik Atanasio'k iges egin zualako ori. Joan! egin zan. Kontzilio artako Asaba aiengandik eta aiek Ejito'ra bidali zuten batzorde artako gotzaiengandik gauza garbirik ezin itxaro zezakeala ikusten zualako, aien Ejito'tiko itzulpenaren zai egon gabe, Tiro'ko kaiean bertan itxasontzi bat artu eta Kostantinopla'ra joan zan. An bait zegoan ordurako inperatorea.

Aurreneko ikustaldian ederki konpondu ziran gotzaia ta inperatorea, eta onek, Tiro'ko Asabei len-bait-len Kostantinopla'ra joateko aginduz, gutun bat bidali zien.

Bigarren ikustaldian ordea, Atanasio'k gogorregi itzegin ziolako, asarretu egin omen zan Kostantino. "Le patriarche blesse Constantin par la vivacite de ses paroles. Celui-ci decida de s'en tenir aux conclusions du concile de Tyr": "Patriarkaren itzen

bizkortasunak, zauri-egin zion Kostantino 'ri. Onek, orduan, Tiro'ko kontzilioaren erabakiak ontzat artzea erabaki zuan".

Atanasio, bearrezkoa zala iduritzen zitzaionean, bildurrik gabe egia esatearen adiskide aundia zan. Eta baleike orduan ere inperatorearen akatsetaz inperatore beraren aurrean zorrotzegi mintzatu izatea. Ta, losintxazko gexurrak gauza atsegiñak oi diran bezala, egia garratza izaten bait da ia beti, agian asarretu egin zitzaion inperatorea.

Orrela gertatu ba'ziran gauzak, ez diete Kostantino **Aundiari** omen **aundirik** egiten.

Beste arrazoi bat ere aipatzen digu Atanasio'k berak:

Tyro'n bildurrik jarraitzen zuten Asabek, Kostantino 'ren deia artu zuten bezain laister, bildurra ematen zien noski Kostantino-pla¹n inperatore beraren aurrean Atanasio'rekin arrazoiketari asi bearrak-eta Tirop'tik ez ateratzea erabaki zuten. Alderantziz, gotzai ordezkari batzuk bidali zituzten Kostantinopia'ra. Ez ordea, Tiro'n artu-berriak zituzten erabakiak Kostantino'ren aurrean edozein jakintz-iztiari teologiari bereiziki dagokien era bakun apalean aurkeztu ta babesteko; ez; Atanasio'ren aurka beste salaketa berri bat aizatzekeo baizik:

Ejito'tik Kostantinopla'ra garia bidaltzea debekatzeaz mintzatu zala Atanasio. Berak nai ezkerro, kaietako langilleak lan-uztera eramanez, gari-bidalketa ura errez eragotzi zezakeala, esan omen zuan.

Seguruaski, odol beroko gizona zan Atanasio-ta adieraztera ematen zuana egiteko asmorik gabe, noizbait orrelako zerbait esana izatea baleike. Chadwick edestilariak, Nikomedi'ko Eusebio'ri leporatzen dio salaketa ori egin izatea.

Larri omen ziran bâ Atanasio'ren etsaiak, onek Kostantino'ri egindako ikustaldi aren ondorean gertatu zitekeanaz. "Mas Eusébio de Nicomedia anulou o efeito que poderia advir (etorri) dessa atitude testemunhando que nun momento de irreflexk) Atansio procurara provocar a greve (lan-uztea) nas docas (kaietan), a fin de impedir assim o fornecimento de cereais a Constantinopla, se (baldin) o imperador o (berari) nk) apoiasse. Constantino, encolerizado, exilou-o para Tr6/eres, sede da prefeitura na Galia".

Ez zegoan salaketa gaizki asmatua: Uri ura, Kostantinopla, usterik gozoenaz eraiki zuan Kostantino'k, inperio-lur osoko uriburu izan zedin; Kostantinopla, "Kostantino'ren Uria", izen-eman zion, bere oroigarri mendeak-zear iraun zezan. Munduko uririk aundiena eta ederrena eratu nai zuan **bere** uri ura, eta lanean, apainketa-lanean ziarduten oraindik millaka eta millaka langilleek. Une artan Kostantinopla gari gabe uztea, Kostantino'ri iñork eman zezaiokean ostikorik mingarriena ematea zan, Ejito bai zan Alexandri'ko kaia-bitarte Kostantinopla'ren garadia, Kartago'ko kaia-bitarte Erroma'ren garadia Afrika zan bezala.

Kostantino'k, besterik gabe Galietako Treberis'era erbesteratu zuan Atanasio.

Jardunkera onek ere, -- orrela gertatu ba'ziran gauzak ez du Kostantino **Aundiaren** alde ezer **aundirik** esaten.

Pozik gelditu ziran neurri guztietako arianizaleak. Baita melezitarrak ere Ejito'n. Auek ordea zarata ta zalaparta geiegirekin ospatu zuten beren poza. Arriskuan ikusi zuan Kostantino'k Ejito'ko pakea. Eta, une artan bere lei guzia Laterri-barrungo pakea zalako, Ejito'tik kanpora erbesteratu zuan meleziarren buruzagia zan Arkaf goigotzaia.

336'ean Galietan genduan Atanasio. Oso arrera ona egin zion Treberis'ko gotzaiak, Maximino Doneak.

Au izan zuan Atanasio'k bere aurreneko erbesteraketa. Izango ditu erbesteraketa geiago. Izango du, baita, etsaiengandiko samiñik aski ere, bakoitza bere garaiean ikusiko dugun lez.

Alexandri'ko gotzai-aulkirako ez zuan iñork Atanasio'ren ordezkorik izendatu. Ta, urduri bait zebillen an jendea, Kostantino, pakea eskatuz, ango eta inguruko apaizei eta lekaide-lekaimeei idatzi bearrean aurkitu zan. Eta baita Donandoni basamortuetako abata ospetsuari ere, au, norbaitek basamortutik etorrierazita, Alexandri'n bait zebillen arazo artan, uri artako egiazko gotzaia zan Atanasio'ren alde lanean.

Bazegokean pozik Eusebio Nikomedi'koa, bere iru etsairik gogorrenak, Antioki'ko Eustazio, Antzira'ko Markel eta Alexandri'ko Atanasio erbesteratzea lortu zuanez gero, bera bait zan Kostantino'ren biotz-animen jabea.

Naiz arianikeri-zaleen eskuetan egon, zearo kristaua zan azkeneko bere urte aietan Kostantino; eta, Eliza opari ederrez ornitzeko, bere amarekin, Elene Donearekin, bat egiñik zegoan. Orduangoak ditugu Palestina'n Illobi Donearen basilika, Belen'goa, eta Oligondo-Mendikoa. Eraiketa oien ondorioz asi zitzaigun Lur Santuatarako joera Kristaudi osoan piztutzen, eta orduetzkeroko milloika izango dira mendeak-zear Lur Santu aietara erromes joango diran kristauak.

"During the last decade of his reign Constantine became increasingly pious. He devoted more and more of his time to completing his religious education reading the scriptures and theological works supplied by Eusebious of Caesarea, listening to sermons and himself delivering homilies to the court" (Enc. Brit.)

"Gero ta jainkozaleagoa biurtu zitzaigun Kostantino bere azkeneko amar urte auetan. Egunetik egunera asti geiago eramaten zion bere kristau eziketa obeagotzeak; ortarako Idazti Doneak eta Zesarea'ko Eusebio'k eskuratzen zizkion teologi-liburuak irakurriz, sermoiak entzunez, eta berak ere, bere jauregikoei, omiliak egiñez".

Esan dezagun ba benetako kristaua izan zala Kostantino bere azken-urte aietan, naiz arianikerira okertuxea Ez da arritzekoa. AIa ibilli bait ziran, beraiek oartzekete gein-geienak --, Sortaldeko ia gotzai guztiak, Nizea'ko Kontzilioaren "homousios" ura artu nai izan ez zutelako

* * *

Zerk itxutzen zituan era ortan, Ejito'tik Balkanetara, Sortaldeko gotzai guzti aiek?

Zerk? "Homousios" edo "zertasunkide" itzari zioten bildur gaitzak izutzen zituan. Eta ez noski zearo arrazoirik gabe. Bizirik zegoan oraindik sabelikeriak Irutasuna ukatuz eta Jainkoa Pertsona bat bakarra zala esanez egin zuan gaitza.

Orra bâ; une artan bertan, au ere oartzekete, sabelitarren erejia berbizten ari zan Antzira'ko Markel, Nizea'ko Kontzilioaren babeslerik sutsuena. Ziurki, ez zan bera sabehkeri-zalea, baiñan bere izkerak sabelikeri usai aundia zuala, naitanaiez aitortu bearra

dugu. Ori..., "bere izkera" dala esan oi dan ori, egiaz "bere izkera" izan ba'zan. Ori ziur jakiteko genduan bide bakarra, Markerek ariotarren aurka idatzitako liburua, aspaldi galdua bait dugu. Zearo galdua gaiñera. Liburu orren izenbururik ere ez bait dugu ezagutzen.

Oridalata, Antzira ¹ko Markerek "esan omen zituanak", bere etsaiek esaten dizkigutenetatik bakarrik ezagutzen ditugu: Zesarea'-ko Eusebio'k dioskUNETIK batez ere.

Ona Liburu ortatik jaso, Markel antziratarren kristologi edo kristiztia:

- Asieran Jainkoa Nortasun bakar bat zan: "only one Pertsonality" (Cath. Enc.).

- Asieran Itza Logos Jainkoagan zan, baiñan ez Pertsona bezala.

Itza edo Logos ura, Markel'en ustez Jainkoagan zer izan zitekean jakiterik ez dugu, ortaz ez bait digu Eusebio zesareatarrek ezer esaten. Zanazala, pertsonatasunik gabeko zerbait omen zan beintzat.

- Itza, izadia egiterakoan "Irten omen zan Aita'gandik", "went out from the Father", eta arrezkero "izadian Jainkoaren Ekinmena" omen da: "God's Activity in the world".

Ez digu esaten Eusebio'k Markeren ustez Jainkoaren Ekinmen ori Pertsona dan edo ez.

- Itza, gizadasuna artzerakoan biurtu omen zan Seme.

- Gogo Deuna Aita'rengandik eta Semea'rengandik "irten" omen zan: "went forth".

Denboren amaieran Semea eta Gogo Deuna Altairengana "itzuliko omen dira", "will return", eta berriro Jainkoa "zearo bat bakarra" izango omen da: "an absolute unity".

Teologi ori oso-osoan okerra da. Eta oso zaarra gaiñera. Teologiaren asieran bai, orrelako zerbait esan zuanik sortu zitzaigun bat baiño geiago. Baiñan arritzekoa da, iñozoa ez zan Markel antziratarra bezalako gizon jakintsu batek, Origenes'ek Irutasunaren teologiari-buruz egindako aurrerapen aundiaren ondorean, orrelako aspaldikokeriak bir-zabaltzen asi izatea.

Origenes alexandritarra Asi Txiki'n erejetzat zeukatelako..., ¿ez ote zuan Markel asitarrak aren teologirik ezagutzen?

Alatagutziz, Markel'enak omen ziralako aburu oiek danak, aurrez-aurre dijoaz Nizea'ko Kontzilio Ekumenetarrak erakutsitakoaren aurka. Ezagunak dituzu Kontzilio aren irakaskizun aiek:

Itza, ots, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, "Jainkoaren Semea" dala. "Jainkoagandik Sortutako Bakarra (Unigenitus), Aita'ren Zertasunetik sortua". "Jainkoagandik Jainko", "Argitik Argi", "Egiazko Jainkoagandik Egiazko Jainko", "Sortua, ez Egiña", eta "Aita'ren Zertasunkide".

Egia da Nizea'ko kredoak ez duala esaten Semea'z mintzatzerakoan, "aren erregetzak ez du azkenik izango"; ezta, "mende guztiak baiño leenago" sortua izan zanik ere. Bi xeetasun oiek, Elizaren II Kontzilio Ekumenikoiak, Kostantinopla'ko Kontzilioak, erantsi zizkion kredoari, iñork ortaz geiago zalantzarik izan ez zezan.

Nizea'koak ez zuan xeetasun oien bearrik ikusi, Semea oso-osoan Jainkoa zala erakustean, argi erakusten bait zuan Semea'ren betikotasuna. Semea betikoa dala. Betikoa, mendeen asierari begira; betikoa, mendeen amaierari begira: mende guztiak baiño leenago bazala; mende guztien ondorean izango dala. Ez zuala asierarik izan; ez duala azkenik izango.

Nola daiteke Nizea'ko Kontzilioak erakutsitakoa ain sendo sinisten zuan Markel'k Semearen betikotasuna zalantzan izatea? Nola daiteke Semearen betikotasuna ukatu omen zuan gizon ura, Nizea'ko Kontzilioaren aldezerik eta babeslerik aundienetako bat izatea?

Atanasio'rekin batera, gizon ura bait dugu Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak izan zuan babeslerik aundiena eta bizkorrena eta gogorrena: Antzira'ko Markel. Atal batzuetan Atanasio bera baiño gogorragoa. Bai izketarako, bai idazketarako, bai eztabaida borrokalarietarako, neurri ziurrik gabeko gizona izan bait zitzaigun Antzira'ko Markel sutsua.

Ez. Markel ez zan beñere sabelitarra izan. Egia da seguruaski izkera okerra erabilli zuala ariotarren aurka. Ori izan dezake bere utsegite bakarra. Baiñan izketarako eta idazketarako itz eta esaera ez-egokiak erabiltze ortan, ez zan bakarra izan gure Markel, teologiaren lenen urte aietan.

Baiñan, naiz gauzak orrela, ariotar eta erdi-ariotar guztiak leporatu zioten sabelikeri-zalea omen zalako salaketa. Eta guztiak

izan ziran aren etsai amorratuak; bera aiena bezain etsai amorratuak.

Ariotarren buruzagiak, ots, Nikomedi'ko Eusebio'k, Sinodo bat bildu zuan aren aurka Kostantinopla'n (336), eta bertan izan zan, sabelitar omen zalako, gaitzetsia. Sinodo ura ordea, soilki ariozalez egon zan osotua, eta Nikomedi'ko Eusebio, ariotarren buruzagia, izan zuan lendakari.

Alaz ere Kostantino Aundiarentzat gaitzespen ura naikoa izan zan, eta erbestera jaurti zuan Markel antziratarra.

Au, Erroma'ra joan zan. An, Julio Aitasantuak, sinodo bat eratu zuan (340). Sinodo aren aurrean egin zuan Markerek bere sinispidearen aitorpena, eta ontzat artua izan zan aitorpen ori, ta, bai sinodokideek bai Julio Aitasantuak berak. Ondorioz, Markel'en sinispidea zuzena eta sabelikeri orotik yarea zala aldarrikatu zuan Julio Aitasantuak.

Ariotarrek ordea, Markel'en ordez Basilio izeneko gotzai bat ipiñia zuten ordurako Antzira'n. Julio Aitasantuak orain, ekintza ura gaitzetsita Markel'i bir-eman zion Antzira'ko gotzaiagoa.

Bi urte geroago, Sardika'ko kontzilioan, era berean izan zan Markel "sabelikeri oroz garbi" aldarrikatua eta Antzira'ko egiazko gotzai bakarra aitortua. (342-343).

Ta, ona orain berriro gure galdea: Ongi jaso ote zituan, edestilari zintzoa izan zan Zesarea'ko Eusebio'k, Antzira'ko Markel orri leporatu zizkion esakizun zakar aiek?

Ar dezagun gogoan ariotarrek Antzira'n ipiñitako aren izena: Basilio: Antzira'ko Basilio. Bera izango bait zaigu gero, arianikeri zakarra goxatzeko "homoiusios" itz berriaren sortzaillea.

Kostantino Aundia bizitu zan artean ez zuan Markel'ek Antzira'ko urira itzultzerik izan. Kostantino il zanean bai, baiñan atzera berriz Kostantzio inperatore berriak erbesteratua izateko. Antzira'ko bere gotzai-aulkian, lengo Basilio ura bera bir-jarri zuten ariotarrek.

Sorkaldeko gotzaidi guztia zuan Markel'ek etsai. Ez daiteke ordea, -- len ere argi utzi dugu-ta ez daiteke gotzai aiek ariotarrak ziranik esan, oso gutxi batzuk izan ezik.

"Ariotarrak" esan oi zaie, eta "ariotarrak" esaten diegu guk ere oiturazkoa danari jarraituz. Baiñan ez ziran egiazko ariotarrak. Beraiek ere bein baiño geiagotan esan zuten ariotarrak ez zirala. Irutasun Doneari dagokionez, benetan sinisten zuten danek Semea Jainkoa zala. Are geiago, Ario bera ere bide zuzenera etorria zala uste izan zuten, arek Kostantino'ren aurrean egindako sinist'aitorpenaren berri izan zuten ezkerero.

Izan ere, Kostantino'k aitorpen ura naikotzat epaitu zuala jakin zutenean, zalantzarik gabe onartu zuten inperatore txit kristau aren iritzia, eta arianikeriaren auzia betirako amaitua zala uste izan zuten, eta sabelikeriaren berbizkundera eragozteari eman zizkioten beren ardura ta arreta guztiak.

Al Eta sabelikeriaren berbizkunderako bidea zala pentsatzen zuten "homousios" ura. Eta, ala-edo-ola, itz ori len-bait-len kredotik ateratzeari ekin zioten, bero biotzak eta buruak beroago.

Sarkaldeko gotzaiei ordea, eta Sorkaldean Atanasio'ri eta onen jarraillaei, itz ura, "homousios", egiazko fedearen giltza zala iduritzen zitzaien. Eta itz ori, kredoaren barruan gordetzeko asmo sendoa arturik zeuden, naiz bizia kosta.

Ez dira beraz arritzekoak itz orren inguruan sortu ziran borrokak. Ikusi ditugu batzuk. Ikusiko ditugu oraindik beste asko geiago. Inperatoreak, Aitasantuak, gotzaiak, erria, danak ibilli ziran gudu artan leporaiño sarturik.

Atanasio'ren etsaiak, era gaiztoan jardun zutela? Bai batzuk, ikusi dugun bezala, baiñan ez guztiak. Ez zaigu zillegi Sarkaldeko gotzaiak, ia danak, asmo okerrez ibilli zirala pentsatzea.

Iñozoegi jokatu zutela gotzai sortaldetar aiek, inperatorearen iritzia ain errez ontzat eta naikotzat artu zutenean? Bai noski. Ori errez ikusten dugu gaur. Orduan ordea ez zeuden gauzak orain bezain ederki mugatuak. Gaiñera, ain aundia zan, gotzai aiek inperatore kristauagan zuten oste-ona! eta ain sakona, sabelikeriaren berbizkundera sortzen zien kezka mingarria!

Zenbat ziran gotzai aiek? Sorkaldeko geienak. Ia danak. Ez da arritzekoa beraz, geiengo oso-oso zerala ikustean, arrazoia berena

zutela uste izatea; Arritzekoa al da, gotzaidiaren aurka agertzen ziran Atanasio ta bere lagun apurak oker zebiltzala uste izatea?.

Ta, gotzaiak, Sorkaldeko ia gotzai danak, orrela atzipetu ba'ziran, arritzekoa al da Kostantino ere atzipeturik ibiltzea?

Orregaitik da ain aundia, arazoa garbi ikusi zuten Alexandri'ko Atanasio, Antioki'ko Eustazio eta auen laguneren merezimendua.

* * *

Alare, azpimarratzekoa dugu, arianikeriaren aurreneko urte auetan arrigarri gertatzen zaigun zerbait: "Homousios" itzaren aldekoen aurka, ainbeste ta ainbeste kontzilio eta sinodoetan ez zuala iñork sinismenaren aldetiko salaketarik egin, Antziralko Markel'en aurka izan ezik. Eta onen aurka ere salaketak ez ziran "homousios" itza babesten zualako, bere izkerak sabelikeri-usai aundia zualako baizik: "Em nenhum momento houve (izan zan) qualquer acusação doutrinal contra Atansio" (Chadwick). Salaketa guztiak, fedearekin zer ikusirik asko ez duten gauzak izan ziran. Ikus:

Antioki'ko Eustazio emakume ezkondu batekin etziten zala. (Emagaldu baten agotik artua izan zan salaketa ori); beste batean Eustazio bera Elene ama inperatemearen jatorriz oso gaizki mintzatu zala... Alexandri'ko Atanasio'k gotzai meleziar bat il zuala, apaiz meleziar baten kaliza puskatu zuala, meleziarren aurka, --ontan bazuten arrazoi-zati bat gogorreki ibilli zala, Ejito'tik Kostantinopla'ra gari-eramatea eragozi nai zuala...

Atanasio'k berak aipatzen dizkigu aurpegira jaurti zitzaizkion eunen bat gaiztakeri, bere liburu batean. Baiñan eun salaketa oietatik ez da bat bakarrik ere, Atanasio'ren fedearen aurkakoa. Ezta aren laguneren fedearen aurkakoa ere.

Zenbat-aiña salaketa oiek erriak eta gotzaiek sinistu zituzten, ez dakigu. Meleziarrekingo Atanasio'ren jardunkera, eskomikape-nak erabiltzean gogortxoegia izan zala egia da noski, baiñan baita meleziarrek eta arianitarrek arras anpatua izan zala ere. Ejito'tik kanpora, sinistua izan zan seguruaski Sortaldean apaiz meleziarra- ren kalizaren puskaketa ere, Ejito'ra joandako batzorde ura ori egia zala esanez etorri zalako.

Oiñarri koxkorra Atanasio gaitzesteko, batez ere onek guztia gezurra zala argitu zuan ezker. Altaguztiz naikoa izan zuten Tiro'ko kontzilioan bildurik zeuden gotzaiek Atanasio gaitzesteko, eta, zorioneko "homousios" ura ezereztearren Atanasio erbesteratzeko. Orixe bait zan auzi guztiaren mamia. Itz ori bein betirako ezabatzea.

* * *

Motza izan zan Atanasio'ren lenen erbesteraketa au. Ez zan urte t'erdira iritxi, urrengo urtean, 337'garren orrilleko 17'an Kostantino il bait zan Nikomedi'n.

Eusebio bertako gotzai ariotar arek eman zion bataioa.

KOSTANTINO AUNDIAREN SEME KAXKARRAK

KOSTANTINO'REN ERIOTZA, 337'ko orrillaren 22'an gertatu zan.

332'ean Danubio ibaietik aruntz gotiarrak jaurti zituanenez gero, ura izan zuan azkeneko garaitza bere azkeneko urteak bereiziki arianikeriaren auziari emanak izan zituan, ikusi aal izan dugun bezala.

Alare, bazuan pertsiarrek Erroma'ri kendu zizkioten lurraldeak berr-irabazteko guraria, eta, ori lortzeko, gudu-gertuketan asia zan. Gertuketa amaiturik, Kostantinopla'tik irten eta Bosforo itxas-lepoa igarota, Nikomedi'n geratu zan. andik bere gudaroztearen aintzinean sorkalderuntz abiatuta II Sapor "erregeen -errege" pertsiarrari erasotzeko.

Nikomedi'n ordea, gaitzak jo zuan, azkeneko gaitzak, eta an il zan gizon bikain ura, bataioa ain ezaguna dugun Eusebio Nikomedi'ko gotzai arianizalearen eskuetatik artuta.

Ordurako, bere iru seme eta bi illoben artean zatiturik zeukan, bera iltzen zanerako, Erroma'ren inperio-lur zabala.

Gizon aundia, ederra eta sendoa omen zan soñez. Eta era berdiñekoa izan zan animaz ere. "Aundia" izen-eman zaio mendeakzear, eta aunditasun ori ez dio iñork ukatu. Bere bizitzan akatsak billatu bai; baiñan aunditasunik ukatu, ez.

"L'inserzione del cristianesimo nello stato romano e la fondazione di Costantinopla basterebena de sole a dare un particolariss;mo rilievo alta figura di Costantino": "Erroma'ko Laterriari

kristautasuna txertatu eta Kostantinopla irasi izatea, naikoa litzake besterik gabe Kostantino'ri garaitasun bereizia emateko" (Enc. I-tal.).

Iraizean bezala, esan dezagun oso ekintza makurra gertatu zala Elizaren etorkizunerako Kostantinopla'ren eraiketa, Erroma'ko inperioaren burua Erroma'tik Kostantinopla'ra aldatzeak azitzen eta azitzen eraman bait zuen bi uri aien arteko bekaizkeria, eta, baita, bi uri aiek Sartaldearen eta Sortaldearen buru izanik, Sortaldearen eta Sartaldearen arteko aierkundera.

Inperioaren uriburu izanik, Erroma aiña bazan Kostantinopla. Eta baita Erroma baiño geiago ere, Kostantino'z gero inperatorea an bizi zalako. Gero, V mendean Erroma barbaritarren ankaperia jausi zan ezker, Kostantinopla izan zan milla urtez egiazko Erroma bakarra. Bazan or, Kostantinopia'ko Patriarkaren eta Erroma'ko Aitasantuaren arteko giroa zaildu zezakean zio nabaria. Batez ere, kulturaz Sortaldea Sartaldea baiño askoz jantziagoa zala gogora ekartzen ba'dugu.

Ala sortuko zan erdiaroan, oraindik bizirik diraun Sorkaldeko zisma mingarria.

Baiñan zerbait geiago ere egin zuan Kostantino'k:

- Diokleziano'ren asmoak aurrera eramanez, garbitu, eraberritu eta sendotu zuan Erroma'ren inperio-lur edatsu aren administraketa.

- Ainbeste anai-arteko guduen ostean, asperturik, nazkaturik eta auldurik aurkitzen zan gudaroztea. Bizkortasun berria eman zion Kostantino'k. Ala, izpiritu berriz ber-indarturik, lengo aien antzekoak izan ziran berriro Erroma'ko leji bizkorrak Kostantino'ren agintaritzapean. Kristo'ren ikurraz ornitutako ikurriñean berak zuan konfiantza guztia sartu zuan gudari aien biotzetara. Asko maite zuten eta begirune aundia izan zioten gudari aiek. Baita, aren oifiordekoak ziralako, Kostantino'ren seme kaxkarrei ere.

Orrela ez da arritzekoa-ta, beti, guda ta borroka guztietan garaille irten zan Kostantino.

Ez zitzaizkion gozoak gertatu bere bizitzaren azkeneko urteak: "En su vida familiar sufrid Constantino serios problemas, especial-

mente en sus últimos años. Las intrigas de palacio hicieron que Constantino ordenara matar a su primogénito Crispo en el 326, hijo de su primera mujer Minervina, acusado de conspiración e inmoralidad. Su madre Elena denunció a Fausta, segunda mujer de Constantino como verdadera culpable, y Constantino ordenó su ejecución" (GER).

"Enciclopedia Italiana"ko badu orrentzako erantzun polit egokia: "Figlio dei sui tempi commise escese che meritano de per se stessi un severo giudizio, ma che tuttavia devone essere inquadrate nelle concezioni morale dell'epoca e que comunque non possono modificare profondamente l'apprezzamento complessivo sull'opera del'ultimo grande imperatore romano".

"Bere garai aietako semea izanik, berenez gaitzespen latza merezi duten geiegikeriak egin zituan. Alare, geiegikeri oiek, garai artan zintzotasunari-buruz pentsatzen zanaren araura izan bear dute epaituak. Eta, ez dira gainera Erroma'ko azken inperatore aundia-
ren ekintza orokorrari diogun ustea sakonki aldaerazteko gai".

Anakroni zakarrik egin nai ez ba'dugu, lege orren araura gaitzetsi edo onetsi bear ditugu Kostantino'ri-buruzko epai-itx guztiak. Onako auek adibidez:

"Constantino fue un hombre violento caprichoso frecuentemente cruel y extravagante. Pese a estos graves defectos poseyó sobradas cualidades para merecer el título de grande que le reconocid la posteridad. A su gran talento militar unfa la valentfa y el patriotismo de los emperadores ilfricos. Poseyó una amplia visidn política de la crítica situación que atravesaba su vasto mundo, y con gran capacidad organizadora pudo evitar durante algúIn tiempo el inminente derrumbamiento del Imperio agonizante" (GER).

Ñork ez duala Kostantino'ren aunditasunik ukatu, esan-berri dugu. Eta egia esan dugu. Alare, ukatu ez, baiñan zalantzan ipiñi bai, zalantzan ipintzen digu aren aunditasuna "Encyclopaedia Britannica"ko.

Naiz Iuzexamarra, ikus iztegi orren aitopena:

"Constantine hardly deserves the title of "the Grat": he was an

able general but lacked other qualities of a good emperor. He was extravagant, susceptible to flattery, and capricious. His temper was violent, but he was easily mollified and he lacked firmness and steadiness of purpose.

"Still less does he deserve the title of Saint, which he holds in the Orthodox Church. His dominating passion was ambition, and he was unscrupulous and ruthless to his rivals. His religious beliefs, though sincere were perhaps vague. For instance for some years after his conversion he continued to issue coins in honour of the "Unconquered Sun". He may at first have believed, as his vision might suggest, that Christ and the Sun were both aspects of "the Highest Divinity".

"Nevertheless his reign was of immense importance for the future of the empire, of the church and of Europe. Constantinople, which he probably founded as a memorial of his final victory, sustained and inspired the empire for more than a millennium.

"The manner of his conversion influenced the relations of church and state for centuries to come. Believing that he was God's chosen servant he regarded himself as responsible to God for the good government of his church.

"Above all, his conversion assured the future of christianity. From a minority sect christianity became the official religion of the empire and was stimulated by the imperial patronage of Constantine and his sons.

"The church so grew in wealth and numbers that his position could not be shaken by the apostate emperor Julian".

Euskeraz:

"Apika Kostantino'k "Aundi" izengoitirik merezi duan. Gudalburu yayoa izan zan, baiña inperatore on batek bearrezkoak dituan beste duintasun batzuk peitu zitzaizkion. Txolin samarra izan zan, losintxakerien maitalea, eta apetatsua. Jitez zakarra, baiñan errez emeki otzandu zitekeana. Ez zuan, bere asmoak aurrera ateratzeko ez giartasunik ez ekintzan jarraitzeko gaitasunik".

(Ez nago inñolaz ere bat Cambridge'ko unibersitatean aro

zarreko edestiaren irakasle dan Arnold Hug Martin Hones aapaldi orren egillearekin. Batez ere, "Beste duintasun oien faltari" eta "ez giartasunik ez irauterik ez izateari" dagokionez. Ori guztia izan zuala eta ugari izan zuala, erakusten bait digu edestiak). Jarrai dezagun englanderaz idatzi dugunaren itzulpena:

"Askoz gutxiago merezi du, Kostantino'k, Eliz Ortodoksiarrak eman dion Done izengoitia. Aundinaikeria izan zuan bere griñarik nabarmenena; kontzientziko arrik gabea izan zan, eta etsaiekin errukirik gabea. Bere fedea, benetakoa zan, baiñan ez ondo mugatua: Ala, kristau egin ondorean ere "Eguzki Menderakaitza"-ren omenez diruak argitaratzen jarraitu zuan. Asieran beintzat, orduango "ikuspen" arek adierazten duala dirudianez, bearbada, Kristo eta Eguzki Menderakaitza "Jainkotasun Gurenaren" bi "itxura" besterik ez zirala uste izan zuan".

(Atal oni-buruz auxe aurkeztu nai nuke. Kostantino ez zala, iñolaz ere ez zala beste inperatoreak baiño ankerragoa izan. Aiek baiño askoz biguifagoa baizik. Milbi-Zubiko "ikuspenak" ez zion teologirik erakutsi. Ez da beraz arritzekoa aren lenengo sinispidea aski nasia izatea. Ez ordea gero, donatikeria eta arianikeriak sortutako arazozen ondorioz, Osio'rekin, Atanasio'rekin eta Nikomedrko eta Zesarea'ko Eusebio'ekin, atertzeke egon bait zan arremanetan.

Ta, naiz azkeneko bi oiek, bietan aurrenekoa bereiziki -- kezkgarriak izan, ez ziran beintzat iñozoak. Eta...ikasi egin zuan Kostantino'k.

Gaiñera, Kostantino berak ere, irakurketari zaletasun aundia izan zion beti, batez ere bere azkeneko amar urteetan, orduan, Iztegi orrek berak erakutsi digun lez ikus lerro batzuk gorago bere aitorpena Kostantino era bereizian aritu bait zitzaigun erlijio-ikasketan.

Dirua "Eguzki Menderakaitzaren" irudiz argitaratzen eta sasijainkoen jauretxeak antolatzen, eta baita berriak egiten ere, jarraitu izateak ez du deus esana nai, oraindik bere mendekorik geienak jentillak izanik. Gaur badakigu gizakume orok baduala bere

sinispidea onezagutua izanerazteko eskubidea. Aitasantua bera, ostera lengo erreñuaren errege izatera biurtuko ba'litz, maometarren mezkitetarako eta juduen sinagogetarako dirua ematera bearturik egongo litzake, bere erreñuan judurik eta maometarrik ba'lu . Kostantino, bera oartzeko, bai noski, ia bi milla urtez aurreratu zitzaigun ontan.

Onatx, orain, Iztegi artako azken-itzen euskeraketa:

"Alatagutziz, izugarrizko garrantzia izan zuan bere erregetzak Erroma'ko Inperioaren, Elizaren eta Europa'ren etorkizunerako. Bere azken-garaitza ospatzeko eraiki zuan agian Kostantinopla'ko uria, milla urte baiño geiagoko epez Inperioaren eusle ta argimaille izan zan uria".

"Bere kristau-biurtu-izateak eraginmen aundia izan zuan Laterri ta Elizaren arteko arremanetarako etortzekoak ziran mendeetan. Jainkoak aukeratutako morroia zala uste izan zuan-da, era berean uste izan zuan berea zuala Elizaren gobernaketa egokiari-buruz Jainkoaren aurrean erantzun bearra.

"Baiñan beste gauza guztien gaindik, bere kristau biurtze ura izan zan kristautasunari iraunpena ziurtu ziona; taldetxo txiki bat izatetik, Laterriaren legezko erlijioa izatera igaro bait zan kristautasuna; eta Kostantino'k eta bere semeek aurrera ekiteko lagundua izatera.

(Egia guztia, onako auxe izan ezik: Kostantino'k ez zuala kristautasuna Laterriaren legezko erlijioa biurtu. Ezta bere semeek ere. Ori, IV mendearen azkenean, I Teodosio'k eginen zuan gauza bait da").

"Asko azi zan Eliza, bai aberastasunez, bai elizkide berriz. Ainbeste azi ere. Juliano fedeukatzailea ez bait zan aren egoitza ziburra kolokan ipintzeko gauza izan".

Aspaldi irakurria dut eta ez dakit nork esana dan, baiñan oso egoki esana dala iduritzen zain onako lerro bikain auxe:

"Kostantino no fue un genio. Hizo las cosas como pudo. Pero un genio, en su lugar, no las hubiera hecho mejor".

Egia. Ain bait ziran naasiak eta zaillak, Kostantino'ri gaiñera

etorri zitzaizkion arazo biurriak!

* * *

Bi emazte izan zituan Kostantino'k: Minerba, aurrenekoa, Fausta bigarrena.

Seme bat eman zion Minerba'k, Krispo; baiñan au erail zuanez gero, Fausta'k erditutako iruak bakarrik gelditu zitzaizkion: Kostantino, Kostantzio eta Kostante, eta iruen artean zatitu zuan Erroma'ren inperiolur edatsua.

Kostantino'ri Sarkaldea eman zion: Britani, Galiak era España. Kostantzio'ri Sortaldea: Ejito, Siri, Anatoli. Kostante'ri , inperioaren erdialdea: Itali, Afrika, Balkandar-Erdiugartearen sarkaldea.

Kostantino'k izan zituan bi erdi-anai: Kostantzio Kloro bere aitaren eta Teodora, aren bigarren emaztearen semeak: Julio eta Flabio Dalmazio. Bi erdi-anai oietako bakoitza bi semeren aita zan.

Flabio Dalmazio'ren seme ziran Dalmazio gazteak eta Anibaliano'k, izan zuten inperioaren zatiketa artan beren puska: Dalmazio'ri, Kostantino'k, Balkandar-Erdiugartearen sortaldea eman zion; Anibaliano'ri berriz, errege tituloarekin, Pertsiko mugaren alboan erreñu bat eratu zion; agian, Pertsigaraituta Anibaliano au Pertsiguztiko Errege egin nai izan zualako. Ez dezagun aantzi, zatiketa ori guztia urte batez aurretik egiña zeukala Kostantino'k 11 zanean, eta, uste ez zuala eriotzak arrapatu zuanean, Pertsiren aurka gudara zijoala.

Julio beste erdianaiaren semeek, Galo'k eta Juliano "fedeukatzaileak", ez dakigu zergaitik, ez zuten Kostantino'gandik ezer jaso, baiña, geroago, inperatore izango ziran biak: Galo, Kostantzio'ren "Zesar" bezala; Juliano ere, Kostantzio'ren "Zesar bezala aurrena, baña gero, Kostantzio'ren ondorengo Inperatorea: Juliano "Fedeukatzailea".

Guda, borroka, naste eta odol-giroa izan zan Kostantino'ren semeen agintaritzako denbora. Beren artean asarre ibiltzeaz landa, arianikeria izan zuten arazorik larriena.

* * *

Kostantino il zanean, Galietan erbesteraturik utzi dugu Atanasio. Orain II Kostantino Kostantino Aundiaren semea --dugu Galietan inperatore. Eta, bereala Atanasio'ri askatasuna itzultzea egin zuan aurreneko gauza. Une berean, Alexandritarrei idatzi zein gutun batean, Atanasio erbesteratzean, bere aitaren asmoa, ots Kostantino Aundiaren asmoa, etsaien eskuetatik Atanasio'ren bizia salbatzea izan zala jakiñerazten zien. Egia? Aia...aitarenganako seme baten naimen ona?

Jai egin zuan erriak Alexandri'ra, berriro Atanasio bere gotzaia urian ikusi zuanean. Ez zuten ordea aren etsaiek etsi.

Etsai oietatik asko eta asko arianizaleak ez baiña soilki sabelikeriaren etsaiak ziralako, "eusebiotarrak" esaten die "Dictionnaire d'Histoire et Geographie Éclesiastiques" idaztiak, izena Zesarea'ko ala Nikomedi'ko zein Eusebio'gandik artuz ez dakit --, baiñan txit izen egokia iduritzen zaidalako orrela esango diet nik ere bein baiña geiagotan: eusebiotarrak,

Ez zuan II Kostantino'k bere iru urteko agintaritza laburrean beste ezer askorik egin aal izateko betarik izan.

Kostante gaztearen goi-zaindari bezala jarri zuan Kostantino Aundiak bere izena zeraman seme au: II Kostantino. Bañan onek, II Kostantino'k, bere zaintzapekoa zuan Kostante anai gaztearenak, ziran Itali eta Afrika nai omen zituan beretzat.

Deus esateke sartu zan Itali'ra, bere gudaroztearen aintzinean, agian Kostante Adriatik-Itxasoaren beste aldeaz aruntz oso urruti zebillela jakiteaz baliaturik. Une batean iritxi zan itxaso aren iparrean zegoan *An ordea, Konstante'ren gudariek*in borrokan il zan.

Orrela, Kostante gelditu zan Sarkaide osoko inperatore bakarra, 340'garren urtean.

Katoliko zintzoa Kostante au; Nizea'ko Kontzilioaren babesle portitza, sutsu ibilli zan arianizaleen eta jentillen aurka.

Amar urte iraun zuan bere erregetzak. Naiz berak, 341 'ean Rin

ibaiean frankiarrak garaitu, iraultza batean garaitua eta erailla izan bait zan bera ere 350'garren urtean.

Magnentius izeneko gudalburu bat izan zan iraultzalaria, jentilla, eta germaniar-jatorrikoa. Onek euki zuan eskuetan, iru urtez, Sarkaldeko inperiotza, Kostantino Aundiaren beste semeak

Kostantzio'k garaitua izan ondorean, bere burua il zuan arte (353)

Bitartean, Kostantino'ren irugarren seme orrek, Kostantzio'k, izan zuan bere Sortaldean, arianikerizaleekin zer egiñik aski. Auek, Atanasio era bat kenduta, aren aulkian Ario'ren adiskide aundia izandako Pisto jarri nai zuten Alexandri'ko gotzai. Eusebiotarrak ere, Antioki'n kontzilio ugaritsu bat egin ondorean, Pisto'ren alde jarri ziran, eta zentzu ortan idatzi zioten Sortaldeko gotzaidiari, eta baita Julio Aitasantuari ere.

Julio'k, Alexandri'ra zegoan Atanasio'ri eman zion bere etsaien asmo orren berri. Orduan Atanasio'k, bearbada "peut être" (ib)

Julio'k berak eskatuta, kontzilio aundi bat egin zuan gotzai ejitoarrekin Alexandri'n bertan 338'an. Gotzai auek, azalpen luze bat idatzi zuten gotzaidiarentzat, Atanasio'ganako leiatasuna eta Tyro'ko kontzilioan gertatutakoa argira emanaz.

Ez zitzaion laguntza txarra agertu Atanasio'ri, jendea pozetan jarri zuan basamortuetako Andoni Abata Deunaren bigarren etorrera. Izugarria bait zan bakartasun-zale bikain onek erri kristauagan zuan eraginmena.

Ez zan txikiagoa izan kontzilio artako eunen bat gotzaiek izenpetu zuten agiriak Sarkaldean sortu zuan zirrara. Julio Aitasantuak berak ere, Tiro'ko kontzilio doakabe artan gertatutakoa ikertzeko beste kontzilio bat egitea pentsatu zuan.

Eusebiotarrek, Pisto utzita, eragozpen bait zitzairen ark Ario'rekin izan zuan geiegizko adiskidetasun ura Alexandri'rako beste gotzai bat izendatzea erabaki zuten berriro Antioki'n bildutako kontzilio batean. Eta Emesa'ko Eusebio'k alako eginkizunik artu nai izan ez zualako, Kapadozi'ko Gregorio aukeratu zuten azkenean. Berealaxe izan zan au sagaratua eta Ejito'runtz bidalia.

339'an iritxi zan Alexandri'ra. Ezaguna dugun Filagrio ura zan oraindik Ejito'ko jaurle, kapadoziarra bera ere eta onen laguntzarekin azkar igo zan Alexandri'ko gotzai-aulkira.

Atanasio, uritik alde egin bearrean aurkitu zan berriro. Ez ordea "Epistola Evangelica" izen duan idaztiaren bidez, osteketa edo protesta zorrotz bat egin gabe.

Idazti ori, "bere asarrearen azalpena omen da. Alexandri'n gertatuko gauzak an omen daude, baiñan era beroegian eta ordain latzak emateko gogoz idatzirik; orregaitik, epistola ori orri-pillo itz-jario bat geiago omen da edesti sotil baretsu bateko testigutza baiño": "le document de son indignation" omen da "On y trouve le récit des faits qui viennent de se passer a Alexandrie, mais un rdcit enflammé, plein de desir de la revanche, un eloquent pamphlet piutôt q'un t&noignage d'histoire tranquille et apaisée" (ib.).

Dirudianez, jite bizikoa zala gure Atanasio!

Idazle bezala arras gizon aundia izan genduan. Arritzekoa da, ezkutitz eta liburu, zenbat idatzi zuan, pakean eta lasai idatzi aal izateko ain beta gutxi izan zuan gizon bikain arek. Orregaitik, pentsalari baiño geiago ez bait zitzaion oldozketarako asti aundirik gertatu--, kultura zabal aundikoa izanik, besteek erakutsitakoaren eule geiago izan zitzaigun Atanasio. Baiñan eule anitz trebea, besteek esandako aiek batzuetan laburtzen, besteetan luzatzen, edo alkarrekin txikordatzen eta, maiz aski, gogapen berriz edertzen.

Urte auetakoak ditu "Oraciones contra Arianos" izen-duten lau liburuak, naiz laugarrena, agian, Laodizea'ko Apolinar'ek idatzia izan. "Orationes" edo "Itzaldi" oiek, dogmaren aldetik arianikeriaren okerra agertzeko idatzi zituan. Teologi-liburuak dira beraz.

339'an iritxi zan Erroma'ra. Emen aurkitu zituan, Nizea'ko kontzilioaren aldekoak izategaitik, bera bezala erbesteratutako beste gotzai batzuk. Antzira'ko Markel, aien artean. Gotzai auen eskeari erantzunez berbiztu zuan Julio Aitasantuak, Tiro'ko kontzilioaren jardunkera aztertzearren, Kontzilio berri bat egiteko

lendik arturik zeukan gogo.

Asmo orren araura, urrengo urtean, 340¹ean, bi bereterren bidez eskutitz bat bidaliko zuan Julio Aitasantuak Antioki'ra, Sortaldeko gotzaiei Erroma'n eginen zan kontzilio artara deituz.

Axalez txukuna baiñan mamiz zakarra izan zan gotzai aien izenean Antioki'koak eman zion erantzuna: Zail omen zitzaien Erroma'ra joatea. Gaiñera Tiro'ko kontzilioa zintzoa eta zuzena izan zalako, an aztertua, epaitua ta erabakia, berriz aztertzen astea ez omen zan gauza egokia.

Ikusten duzu nola ari dan poliki-poliki Sortaldeko Eliza Sartaldekoarengandik urruntzen? Erru aundia izan zuan alkarrengandiko urruntze ortan arianikeriak sortarazi zuan gorrotozko giro maltzurak.

Egin zuan Julio Aitasantuak Erroma'n bere kontzilioa, baiñan egin zuten eusebiotarrek ere berea Antioki'n. Dakusazunez, Sirkko Antioki agertzen da aspaldi ezkeroko eusebiotarren uriburu bezala. Ez da arritzekoa, uri artako Teologi-Eskolan ikasle izanak bait ziran arianikerizale ta arianikerizaleen lagunik ospetsuenak.

Ikusi aal dezakezunez, bi kontzilio egin ziran batera, Elizako giro nasi aren adigarri: Errorna'koa eta Antiokiikoa.

Erroma'koak, Julio Aitasantua buru zuala, Atanasio aldarrikatu zuan Alexandri'ko gotzai bakarra.

Antioki'koari "astapen-kontzilioa" esan oi zaio. Orduan izan bait zan asia liturgigintza Kostantino Aundiak eraikitako basilika ederrean, jauretze dotore onek azkeneko txukunketak orduantxe artu zituan ezkeroko.

Kontzilio antiokiar onen lana, Atanasio'ren etsaientzat sinispide bat gertutzea izan zan, ez bait ziran danak atal askotan sinispen bat berekoak. Iru izan ziran kontzilio artako gotzaiek aurkeztu zituzten "kredoak". Illabete batzuk geroago beste laugarren bat izan zan eratua, eta Erroma'ra bidalia. 341'ean gertatu zan ori,

Ariotarrak, eusebiotarrak eta aien eta auen adiskideak beraien artean ere zeinñen zatiturik zebiltzan adierazten digu kredo-gertuketa laukoitz orrek.

Urte ortan bertan, frankiarrek eraso zioten Erroma'ren inperiolurrari Rin ibaiaren ertzetik. Baiñan bizi zan oraindik Kostante, ta garaituak eta atzeruntz jaurtiak izan ziran Kostante inperatore onen ekitez.

Inperatore au katoliko sutsua zalako, pakean aurkitzen zan bere agintepean Sarkalde guztia. II Kostantzio bere anaia ordea, Sortaldean, arianizaleen aldera okertu zitzaigun-da, izan zuten auek an, beren iskanbilletan aurrera jarraitzeko adontasun egokia.

Esan dugu, I Kostantino Aundia il zanean, aren sendiko gizaseme guztiak it zituala gudarozteak. Danak!, arek bere oiñordezko izendatu zituan iru semeak (II Kostantino, I Kostante, II Kostantzio) eta mirariz salbatu zan Juliano illobatxoa izan ezik. W, II Kostantzio au izan omen zan, diotenez, "allegedly" (ib.), ilketa ura aolkatu zuana. Ez zan noski, dakusazunez, oso mutiko gozoa.

Bere aurreneko urteetan pertsiarren aurka borrokan bearrean aurkitu zan, eta eginkizun ortan gudalburu yayoa agertu zuan bere burua.

II Sapor, pertsiarren erregea, jo ta jo ibilli zan Goi-Mesopotami'ren erdian aurkitzen zan eta orduan uri garrantzitsua zan Nisibi arrapatu naiean. Ez zuan bere asmorik lortu, baiñan aundiak izan ziran Erroma'ko Iejioek gudu aietan jasan bear izan zituzten jendegalerak.

II Kostantzio bera guda-zelaietan zebilelarik, Sortaldeko barne arazoak Nikomedi'ko Eusebio eta onen lagun en eskuetan gelditu ziran. Arianikeriari indar emateko? Izan ere, orduan Erroma'ko inperioak Sortaldean zuan arazorik larriena arianikeria zalarik, arianitarren adiskidea bait zan II Kostantzio bera, eta arianitarra berriz Eusebio Nikomedi'ko gotzaia.

* * *

Bitartean, Erroma'n erbesteraturik, lagun aundiak egin zituan Atanasio'k. gizon santua eta anitz jakintsua izateaz gaiñera, txit

atxegiña ere bai omen zan ba alkarrizketarako. Erroma'n egindako adiskide oien artean, bat, garrantzi aundikoa, Eutropium andrea, II Kostantzio'ren izeba.

Ez uste izan, gure Atanasio gotzai bezala ere geldik egon zanik, Alexandri'ko bere Eliza, eskutitzen bidez Erroma'tik jaurtzen gelditzeke aritu bait zitzaigun.

Basamortuetako Andoni Abata Donearen adiskide aundia, eta bakartasun-zaleen miresle benetakoa izan zala badakigu. Sortaldean ordurako, indar bizkorra zuan lekaroetan bakarrik bizi ziran lekaideen igikundeak. Ez ordea oraindik Sarkaldean. Atanasio izan zan bere ekintzaren bitartez, eta Ejito'ko lekaroetatik berekin eramán zituan bi bakarbizizaleen laguntzaz Sarkaldean lekaidetasunaganako zaletasun bizia piztu zutenen artean garrantzitsuena.

Ta sendo jarraituko du IV eta V mendeak-zear Erroma'n sortu zuan lekaidetzarako joerak. Izugarrizko eraginmena izango bait zuan, bere alkarrizketa, aolku eta itzaldietaz gaiñera, berak idatzi eta mundu guztian ainbeste jendek irakurri zuan "Lekaideen Edestiak".

Laister etorriko dira Sartaldean, Donebenito'ren atzetik, millaka, lekaide eta lekaime santu jatorrak. Garo, Europaren aro illunean, lekaide oiek izango dira zibilizazioa edo giza-erakobizitza-txukuna salbatuko digutenak.

Ori ordea geroagoko edestia dugu.

342'ean Kostantinopia'n, eta Kostantinopla'ko gotzai lez, ordurarte Nikomedi'ko gotzai izan zan Eusebio il zan, eta eriotz orrek buruzagirik gabe laga zuan arianitarren igikundeak.

Sarkaldeko inperatorea berriz, Kostante, "athanasien cidë" (ib), "atanasiar zindoa", Eliz osoaren batasuna lortzeko beste kontzilio ekumeniar bat egin naiean zebillen eta bere asmo orren jabe egin zuan II Kostantzio bere anai Sortaldeko inperatorea. Eta, baita Atanasio eta Osio ere. Eta bi gotzaiokin izan zituan alkarrizketatik sortu zan Sardika'ko kontzilioa.

Ia kopuru berdiñean bildu ziran, gaur Sofia esaten zaion uri artan, Sortaldeko eta Sartaldeko gotzaiak: 80 gutxi gora bera

alderdi bakoitzekoak.

Izugarrizko ondarena gertatu zan kontzilio ura. Naiz Osio aal izan zuan guztia zugurtasunaren alde saiatu, Sartaldeko eta Sartaldeko gotzaiak ez bait ziran alkarrekin konpontzeko gauza izan. Alkar ezin onartu orren ondorioz bi kontzilio edo sinodo sortu zitzaizkigun an.

Sartaldekoak, Trazi'ra joan ziran, eta an, Filipopolis urian egin zuten bere sinodoa. Eta, bertan argitaratutako erabaki baten bidez, Julio Aitasantua, Atanasio eta Osio ta auen aldeko guztiak eskomikatuz amaitu zuten sinodo ura.

Sarkaldetarrek, beraiek bakarrik jarraitu zuten Sardika'ko kontzilioa, baiñan ez zuten ezer aundirik egin. Egon ziran une batez, Nizea'ko "kredoa" sortaldetarrentzat ulerkaitza gertatzen zan ezkerero, beste "kredo" berri bat eratzekotan, baiñan Nizea'koa babestu zuan ordea Atanasio'k-eta, arekin jarraitzea erabaki zuten azkenean.

Ursazio eta Balente, balkaniar-lurretako bi gotzai arianizaleak, beren gotzaiagoaz erantziak izan ziran Sardika'ko kontzilio ontan.

343'garren urtean gaude.

Arriturik ikusi dituzu noski Sortaldeko gotzai aiek Julio Aitasantua eskomikatzen. Eta, ori, une artan bertan egiazko zisma ez ote zan, agian galde egingo didazu.

Ez. Orduan ez. Gaur-egun bai, egiazko zisma izango litzake, baiñan orduan ez: orduan ez bait zeuden Eliza-barrengo gauzak gaur bezain argi eratuak eta mugatuak. Sortaldetar aiek ez zuten zisma bat sortzeko asmorik izan. Ala, urrengo urtean, Sarkaldean ziran Sortaldeko gotzai batzuk angoen sisnispidea Kostante inperatoreari azaldu naiez, eta Sortaldean ziran berriz Sarkaldetik bidalitako beste batzuk, Kostantzio inperatoreari erbesteturik zeuden gotzai eta apaiz katolikoek itzulpena eskatuz.

Ez zan orduan zismarik sortu, baiñan ;bai izugarriki sakona ari zala gertatzen Sortaldeko Elizaren eta Sarkaldekoaren arteko zuloa!!!

Zer zan ordea Sortaldeak eta Sartaldeak alkar ezik ikusi orren

egiazko zioa?

Une artan, teologiaren aldetik, bildurra: Sabelikeriaganako eta menpekokeriaganako bildurra:

Omousios edo zertasunkide itzari zentzu okerra emanaz, **eta** aitortu bear da Antzira'ko Markel'en izkerak bide ematen ziela ortarako sorkaldetarrei Sarkaldea sabelikerira zijoala, ots, Jainkoa Pertsona bat bakarra zala uste izatera zijoala iduritzen zitzaien.

Alderantziz, sortaldetarrek Semea Aita'rekin "omousios" edo zertasunkide zala aitortzera ausartzen ez ziralako, menpekokerira, ots, Semea Aita'ren menpeko egitera zijoazela uste izan zuten Sarkaldekoek.

Ori ez zan egia. Sarkaldetarrek ez zuten danek Antzira'ko Markel'ek bezala itzegiten, eta Markel ori bera ere, naiz izkeran baldartxo ibilli, ez zan bera sabelikeri-zalea. Sortaldekoek berriz, egiazko ariotar batzuk izen ezik, ez ziran menpekokeri-zaleak.

Atanasio izanen da, ainzuzen, ortaz lendabizi oartuko dana.

Zertasunkide? Nortasunkide? Eginen da azkenean argia; eta Semea naiz Aita'rekin nortasunkide izan ez, zertasunkide badala sinistuko dugu kristauok.

Garai artean ordea illun eta naasirik aurkitzen ziran kristauen adimenak; eta, ori, ez Antzira'ko Markel'en buruan bakarrik.

Ainzuzen, orregaitik bereizi zan Atanasio, ordura arte ain adiskide izan zuan Markel antziratarrengandik: Onen izkerari, azken aldian, oso usai txarra zeriolako.

345'ean, arianizaleek Atanasio kenduta aren ordeaz Alexandri'-ko gotzai izendatu zuten Gregorio ura il zan, luzaro gaixorik egon ondorean. Orduan, Kostantzio inperatoreak, arianizaleei Gregorio'k utzitako aulkirako gotzai berri baten aukeraketa debekatuz gero, Atanasio'ri idatzi zion, Alexandri'ra itzultzeko baimena emanaz.

Ura ordea, ez zan noski fiatzen-da, ezer erantzun gabe gelditu zan. Asarretzeke, bigarren eta irugarren aldiz idatzi zion Kostantzio'k, Alexandri'rako eskaria berr-eginez. Orixe bera eskatuz Atanasio'ri idazteko agindu zien aundiki batzuei ere, eta Sarkaldeko

Kostante bere anaiari ere eskatu zion laguntza, Atanasio'ren naimen ona irabazteko.

Eman zuan onek amore eta Kostante'rekin eta Julio Aitasantua'rekin itzegiten egon ondorean, abiatu zan Alexandri'runtz. Eskutitz batzuk zekarzkian Julio Aitasantuagandik, Alexandri'ko apaizdiarentzat eta Kostantzio'rentzat eta Alexandri'ko kristau ez-apaizentzat.

Antioki'n izan zuan Kostantzio'rekin itzaldi bat, eta laguntza izan zekizkion inperatoreak emandako gutun batzuekin irten zan andik. Gutun aiek Alexandri'ko elizjendeentzat eta agintarientzat ziran. Auei, ordurarte Atanasio'ren aurka egindako guztia ezabatze-ko agintzen zitzaien.

Garaille sartu zan 346 orren urrillean Atanasio Alexandri'ko bere gotzai-urira.

* * *

Uriburu Kartago zuan Afrika'n, donatikerizaleak ziran Eliza-baitako pakea urraturik zeukatenak. Ta, pake ura lortzarren, bi ordezkari bidali zituan ara Kostantzio'k 347'garren urtean: Paul eta Makario, gudaiburuak biak, eta, ordezkari auei, beren eginkizuna lortzeko bearrezkoa ba'zan, esku gogorrez ibiltzeko agindua eman zien.

Esku gogorra erabiltzeari zegokionez, ez zuten ordezkari bi aiek gaizki bete inperatorearen agindua donatiarren artean jendea eraillez, elizak errez, eta beste ankerkeri geiago ugari egiñez.

Bietatik Makario izan zan noski makurrena. Luzaroan aipatu izan zuten beintzat Afrika'ko donatizaleek "era macariana" edo "aro makariar" ura, aro artan izan zituzten martirien goratarrea egiterakoan. Martirio-zalea, eta martirien miresle setsua bait zan donatikerizko erejia. Orrela, ez zuan "makariar-aroko" zigorkeri ark ere ezer lortu, ta bizirik jarraitu zuan donatikeriak maometarrak iru mende geroago Afrika'ra iritxi ziran arte.

Orduan ezabatu zan ereji menderakaitz ura. Maometarren

ezpata Makario'rena baiño gogorragoa izan zalako? Donatikeriaren lenen aroko kemen miresgarri ura ordurako auldurik zegoalako, eta orregaitik donatikerizaleak maometarren sinispidera igaro ziralako?

Ori gertatu ba'zan, donatiarrek koldarkeriz salatzen asi aurretik, gogora dezagun kristauok maometarren sinispidera igaro zirala Kartago'ren Afrika osoko kristau guztiak ere: "moraliter omnes": esate baterako, danak!

Zergaitik? Saiatuko gera, bere tokian, galde orrentzat erantzun bat billatzen.

Kostantzio, II Kostantzio, Kostantino "Aundia"ren semea, 361 'garren urtean ii zan, Galietan Inperatore lez iraultzan jeiki - zitzaien Juliano bere lengusuaren aurka zijoanean.

Juliano orrek artuko du orain inperatoretzan, eta berak, Juliano "Fedeukatzailleak", bir-piztuko digu Elizaren aurkako zigorketa.

Elizarentzat kaltegarria izan zan II Kostantzio ere. "Deeply interested in theological matters, he was an Arianizer and an opponent of the Council of Nizaea and of Athanasius bishop of Alexandria": "Teologi gaietaz sakonki zaletua izan zan: arianikeri-zaleen aldekoa: ta Nizea'ko Kontzilioaren eta Atanasio Alexandri'ko Gotzaiaren aurkakoa ere bai" (Enc. Brit).

ATANASIO DONEAREN URTERIK BETEENAK

Esan dugun bezala aintzatsu sartu zan Atanasio Alexandri'n 346 garren urtean. Pakezkoak izan zituan urrengo urteak, eta ekintza aundiz beteak. Alare ez zan ziurra bere garaitza, Sortaldeko gotzaidia bere aurka zualarik, ez bait zuan an bere alde Kostantzio inperatorea besterik. Eta inperatoreen gogoetak zeñen errez aldatzen diran jakin bear zuan naitanaiez, ordurarte ainbeste neke jasana zan Atanasio'k. Badirudi ordea orrek ez zuala ezer askorik kezkatu. Berealaxe asi zan gotzai berriak sagaratuz-eta Ejito'ko Eliza zuzpertzeko lanean.

Bere ardura guztia eman zion lekaidetzaren sendoketari. Ikusiko dugun bezala, ordurako ugari ziran Ejito'n lekaideak, eta aien adiskide aundia izan zan beti Atanasio; Doneantonio abataren adiskidea bereiziki. Orduangoak ditu, lekaide eta lekaimeei kristautasunaren goimaillara-bidea erakusteko "Amun Lekaideari Eskutitza", eta "De Virginitate" edo "Bijintasunaz" izeneko liburua, ezparririk gabe liburua au berea dala bait dirudi.

Lekaideei aolkuak eman ez ezik, aietaz baliatu ere egin zan Atanasio, Ejito'ko Eliza eraberritzeko; lekaideen artetik sagaratu bait zituan gotzai asko. Garai ontakoa du "Drakonio'rentzako Eskutitza" ere. Lekaide onek, apaltasunaz, ez zion Atanasio'ri gotzaigorako deiari baiezko erantzunik eman nai izan. Asmoz aldãrazteko idatzi zion Atanasio'k, eredu bezala, ordurako gotzai sagaratuak izan ziran lekaide ugarien ekintzak aipatuz.

"Appuye sur les moines, Athanase triompha de l'hérésie" (Dic. Hist. Geogr. Eccl.): "Lekaideetaz baliatuz, garaitu egin zuan Atanasio'k erejia".

Baiñan ez ziran Ejito'ko mugetan gelditu Atanasio'ren ekintzak. Egoaldera luzatu bait ziran Abisini'rairio.

IV mende ontan iritxi zan kristautasuna Erroma'ren inperio-lurretik at aurkitzen zan lurralde urrun artara. Bi feniziar gazte izan ziran ara Kristo'ren Berri Ona eraman zutenak: Edesio eta Frumenzio, Tiro deritzan urikoak biak.

Bietako bat, Frumenzio ainzuzen, Alexandri'ra etorri zan 350'garren urtearen inguruan Atanasio'ren laguntza-billa, eta onek gotzai sagaraturik itzuli zan Abisini'ra. Onela Alexandri'ko Elizari lotua gelditu zan Abisini'ko Eliz berria. Eta Alexandri'ko Elizari loturik iraun du, gure egunotan askatasun osoa lortu duan arte.

Ekintza oien artean ez zitzaion Atanasio'ri luma-lanik aantzi. 338'tik 339'ra bitartean, oraindik erbestean zala beraz, idatzi zituan, lau liburuk osotzen duten "Orationes Contra Arianos", edo "Ariotarren Aurkako Arrazoiketak". Alare lau liburuetatik azkenekoa, ordea, laugarrena, Laodizea'ko Apolinar'ek idatzia izan zala dirudi.

Alexandri'n, eta, laister berriro andik jaurtia izan zalako, basamortuko izkutuan idatziak ditu Atanasio'k beste onako auek ere:

- "De Incarnatione Contra Apolinarem", Irutasuneko iru Pertsonen bereiztasuna eta iru Pertsona oietatik gizon egin zana, Bigarrena, egiazko Jainkoa dala babestuz.

"Apologia Contra Arianos" (350?). Arianikeriari-buruzko edesti-liburua. Liburu aundia. Liburu ederra. Bertan Atanasio'k bere aurka etsaiek asmatutako gezurgaiztoen zerrenda luuuzte bat damaigu

- 357: "Apologia ad Constantium Imperatorem". Ez zuan Atanasio'k liburu au inperatorearen gorespena egitearren idatzi. Aurka jaurtitzen zitzaizkion salaketa guztiak banan-banan ezerezteko baizik. "Erretorikaren araei dagokienez bikainki burututako

idaztia omen da": "Morceau acheve de rhetorique" (ib.).

Urte ortakoa du "Apologia Pro Fuga Sua" edo "Bere Igesaren Aldeko Babesketa". Bein baiño geiagotan iges egin bear izan zuan Atanasio'k ertzañen atzaparretatik. Laister jantziko zizkigun kondairak, olerkizko lorez, igesketa oiek. Ikus kondaira oietako bat:

Bere konfiantza osoko arrantzale batzuen txalupan iges omen zijoan Atanasio Nilo ibaia gora. Atzetik darraikio ertzañen txalupa arin azkarrak. Ikaratzen dira arrantzale arraunlariak:

- Jauna: gero ta urbillago ditugu guregana datozkigun ertzain oiek. Zuri zer egingo dizuten ez dakigu. Baiñan guri, Jauna, ziur, lepoa moztuko digute,

- Lasai mutillak, badakit zer egin bear dugun da.

- Zer?

- Txalupa itzuli, ta ertzaïenganuntz abiatu.

Atanasio erotu egin zitzaïela uste izan omen zuten bere adiskide aiek. Baiñan laister ibaia ezkertera okertzen zalako, ertzaïnek ikusten ez zituzten unean txalupa itzuli, arraunak utzi, eta arrantzuan ari ba'lira bezala amu-agak eskuetan, ibai beera asi omen ziran. Uraren joanak omen zeraman txalupa. Eta txaluparen txopako aulkian, lema-arraunari eutsiz, arrantzale aietako baten txamarraz eta aurpegian igurtzitako loiez mozorroturik, Atanasio bera.

Nilo oso ibai zabala da-ta, goruntz zetozen ertzaïengandik aski urruti ipiñi zuan Atanasio lemazaiñak, urak beeruntz zeraman txalupa.

Orregaitik, oiur egin bear izan zuan ertzaïnen kapitanak arrantzale zarpatzu aiek entzuna izateko:

- Atanasio Gotzaia ezagutzen duzute?

Eta Atanasio'k berak erantzun:

- Nork ez du baztar auetan gizon ori ezagutzen?

- Ibaia-gora dijoan txalupa bat ikusiko zenuten noski. Oartu al zerate Atanasio an zijoan?

- Bai. Aiztintxe igaro da emendik, diozuten txalupa ori. Eta bertan Atanasio. Ez duzute urruti. Errez arrapatu daikezute, erne

ibiltzen ba'zerate.

Eta arraunketa bizian, iraduz asi omen ziran ertzaiñak ibaia-
gora, Atanasio bereala arrapatuko zutelakoan. Eta orrela salbatu
omen zuan Atanasio'k bere burua eta bere arrantzale lagun aien
bizia, batere gezurrik esan gabe.

Bekigu ipuitxo txanbelin ori atsedengarri, arianikeri zakarraren
edestigintza biurri, zail, eta neketsu ontan.

* * *

Aro ontakoak ditu Atanasio'k onako idazti auek:

"De Incarnatione Contra Arianos". 362'a ezkerro idatzia. Liburu
ontan damaigu aurreneko aldiz idatzirik irutasunari-buruzko azalpen
egokia: "Unos Deus in Tribus Hypostasibus": "Jainko Bakarra Iru
Pertsonetan".

"Epistola de Decretis Nicaenae Synodi", "Nizea'ko Erabakiei-
Buruz Eskutitza", Kontzilio ark aukeratutako "homousios" itzaren
egokitasuna agertzeko.

"Epistola de Sententia Dionysii", Alexandri'ko gotzai aundia
izan zan Dionisio Donearen aburuek ariotarrenekin zer ikusirik ez
zutela jakiñerazteko. Baietz esaten asiak bait ziran ariotar batzuk.

Esan dugu nola izan zan eraila Kostante Sarkaldeko inperato-
rea, Magnentzio aurka jeiki zitzaionean. Gertakizun gaitza izan zan
ori Atanasio'rentzat, eta ez ainzuzen Magnentzio garaillea etsai izan
zezakealako baizik eta Kostantzio Sarkaldeko inperatorearen
aurrean babesik ziurrena Kostante zualako.

Alatagutziz, Kostantzio'k ere etsai txit arriskugarria bait zuan
Magnentzio, eta etsai bait zuan baitare, urte artan bertan Danubio
ibaiaren lurraldeetan bere burua inperatore egin zuan Betranio
gudalburua, etsiogo oien artean urduri, ez zuan berealaxe Atana-
sio'ren aurkako neurririk artzeko adiontasunik izan. Alderantziz,
eskutitz bat bidali zion, "Kostante bere anaia zanak egiteko eskatu
omen zion bezala" naimenik onena Atanasio'ri erakutsiz.

Magnentzio'ren jaurkera edo gobernakera nolakoa izango zan

ez dakigu, naiz, aurka altxa zitzaion Nepuziano laister erailla izan zalako iru urtez Sarkaldeko inperatore bakarra gelditu. Bera ere laister, iru urteko epe labur uraz gero, Kostantzio'k garaitua izan bait zan.

Esan dezagun alatagutziz, arianikerizaleen aurka, Nizea'ko kontzilioak erakutsitakoaren zaindari lez agertu zuala Magnetzio'k bere burua; baiñan, aldi berean, jentilla bait zan bera — Kostantino "Aundiak" jentillen sakrifizioen aurka emandako legeak ezabatu zituala, eta berak ere galde-egin eta aolku-eskatu ziela azti eta "mago" edo jakintzizkutudunei.

Egia da beintzat bere aldeko ugari izan zituala Sarkaldean, eta bere gudarozteak sendo lagundu ziola. Asko kosta bait zitzaion II Kostantzio'ri, Pannoni'ko Mursa'n gertatu zan borrokaldi arras odoltsuan aren aurka irabazi zuan garaipena.

Azkenean, gudu labur artan beste borrokaldi batzuk galdu ondorean, bere burua il zuan jatorriz barbaritarra zan Magnentzio'k.

Gurenda oiek irabaziz gero, Erroma'ren inperio-lur guztiko inperatore bakarra gelditu zan Kostantzio.

* * *

Ez zan Atanasio'rentzat oso gertakizun ona izan 352'an 11 zan 11 Julio Aitasantu adiskidearen eriotza. Liberio izan zan aren orde z Aitasantu izendatua.

Azkeneko urteetan kontzilio bat amaitu eta beste berri bat asi, gelditu gabe ibilli ziran urduri arianikerizaleak, eta Magnentzio garaituz gero, orduan Galietan zegoan Kostantzio'ri Atanasio Magnentzio'rekin arremanetan ibillia zala, belarrira jalki zioten.

Eta Kostantzio'k sinistu egin ziela dirudi; izan ere, ez bait zan zearo itxurik gabea ariotarren salaketa ura. Bidali zion bil Magnentzio'k Atanasio'ri ordezkari-taldetxo bat, Sarkaldeko inperatore jarraitu aal izateko, laguntza eskatuz. Zugur ibilli zan ordea Atanasio, bere burua sare artan nasi gabe. Sarkaldeko arazoetan

sartzeke, Kostantzio Sortaldeko inperatorearen alde otoitz egiteko eskatu zien Ejito'ko kristauei.

Danadala, Atanasio'ren aurka biurtu zan Kostantzio. Ez da noski arritzeko gauza, Sortaldeko gotzai danak Atanasio'ren aurka agertzen zitzaizkiola eta aren aurka itzegiten ziotela gogoratzen ba'dugu.

Bitartean, bi ordezkariaren bitartez, Adriatik- Itxasoaren iparrean zegoan Akileia'n Sinodo bat egitea, eskatzen zion Kostantzio'ri Liberio Aitasantuak. Baiezkoa izan zan inperatorearen erantzuna, baiñan sinodo ura Akileia'n ez baiña Arles'en egitea agindu zuan, orduan bera bizitzen zegoan urian bertan ainzuzen, gotzaiak orrela bere mendean ziurrago eukitzeko asmoz.

Sinodo artan ez zan fedeari buruzko gairik ukitu ere. Atanasio'ren gaitzespena izan zan sinodoak jorratu zuan arazo bakarra. Ez dugu ontaz ere zertaz arritu. Garai artan, Atanasio bait zan gizartearen ardatza: Elizaren eta Europa'ren edestiaren ardatza! Aren inguruan zebillen biraka kristaudia.

Atanasio'ri begiratzen zitzaion nor zintzoa eta nor okerra ta gaiztoa zan jakiteko. Aren lagunak, jende zintzoak ziran hatzuentzat, eta aren etsaiak, gaiztoak. Alderantziz berriz, aren etsaiak ziran onak eta zintzoak beste batzuentzat, eta aren lagunak gaiztoak. Ariotarrek bereiziki ez ziran aspaldiz gero teologiari-buruzko arazoetaz kezkatzen. Atanasio zuten buru-ausle bakarra. Atanasio menderatu ezkerro, auzia irabazia zutela iduritzen bait zitzaien.

Atanasio'ren aurkako salaketa bat eskuratu zitzaien sinodoko gotzaiaci. Eta, jakiña, Atanasio gaitzesteko eta Alexandri'ko gotzai-aulkitik kentzeko eskatu zitzaien.

Aitasantuen ordezkari bi aiek bai, eskatu zuten lendabizi teologi-arazoen azterketa. Alperrik. Nizea'n I Kostantino "Aundiak" bezala, orain aren semeak, II Kostantzio'k, Gotzaigoa galtzea eta erbestera jaurtiak izatea eskeintzen zien aurka irtetzera ausartu zitezkeanei.

Zipozkeri orrek eta "la artera elocuencia del obispo Valente de

Nursia" (Jedin) izan zuten eraginmenik aski gotzaien ezpainañak itxirik uzteko.

Eta, au bai gauza negargarria! salaketa ura i zenpetu egin zuten Galietako gotzai guztiek! Danek! Batek ez gaiñeko Danek!

Zergaitik? Galietako gotzaiek Sortaldeko gertakizunen ezaguerarik ez zutelako inperatorearen itzaz geiegi fidatu ziralako?, -- "ils ne pouvaient rien refuser au tres religieux empereur" (Ib.), "ez bait zezaioketen inperatore ain erlijiozale bati ezer ukatu" --, edota, soilki, bildurrak mendean artu zitualako?

Danadala, bai beera jausi zaigula IV mendeko Eliz au, Neron, Baleriano Diokleziano eta Galerio'ren denboretako Eliz arekin kidatu nai ba'dugu

Bat bakarra izan zan Galietako gotzaien artean Kostantzio inperatoreari "nik ez" erantzun ziona. Gizon bikain ura Treberis'ko Paulin izan zitzaigun: berealaxe erbestera jaurtia izan zan Paulin Donea. Eta an il zan: erbestean.

Paulin orrek berak damaizkigu onako xeetasun itun auek:

- Liberio Aitasantuak, bi ordezkari bidali omen zizkion Aries'en zegoan Kostantzio inperatoreari, kontzilio berri baten eskea egiñez;

- Ordezkari auek ordea, Arles'era iritxi ziranean, Inperatorearen agindura burua makurtuz, izenpetu! egin omen zuten Atanasio'ren aurkako salakuntza ura.

- Izugarritzko naigabea eraman omen zuan ori jakitean Liberio Aitasantuak, eta Osio'ri eskutitz mingarri batean agertu omen zion bere samintasun garratza.

Balkanetako bi gotzai gazte aiek, orain ain zuzen Kostantzio '-ren aolkulari ziran Ursazio eta Balente aiek artu zuten Treberis'en Liberio Aitasantuak bidalitako ordezkarien mezua. Ursazio ta Balente izan ote ziran, izketa yayoz Aitasantuaren bi ordezkariak, izenpetze lotsagarri artara eraman zituztenak?

Liberio Aitasantuak ez zuan iñolaz ere 353'an egin zan Arles'ko Sinodo ura ontzat artu, eta beste sinodo berri bat ospatzea, eskatu zion Kostantzio'ri.

Sarkaldeko gotzaiak bere mendean zituala bazekian-da batere kezkarik gabe onartu zuan onek Aitasantuaren eskaria. Urte berean eta Milan'en egin zan sinodo berri ori. 300'nen bat gotzai bildu ziran. Sarkaldetarrak, bat edo beste izan ezik. Eta... an... idanek izenpetu zuten Atanasio'ren gaitzespena! Iruk ez gaineko danek!

Orrela "borobildu zan Sarkaldeko gotzaidiaren judaskeri maku-rra": "se consumma la trahison de l'4iscopat d'Occident" (Ib.).

"Con aquel sfnodo se inici6 una bochornosa tragedia que pesa enormemente sobre el emperador, hombre incapaz de soportar la menor contradicci6n a su voluntad y que se dej6 arrastrar a medidas cada vez mis duras" (Jedin). Milan'go sinodo ontan ere oso ibilli zan zakar eta gogor.

Kontzilio guzti aren aurrean inperatoreari ezetz esateko kemenik aski izan zuten iru gizandi aiek nor izan ziran? Kagliari'ko Luzifer, Bertzeil'ko Eusebio eta Milan'go Dionisio. Irurak izan ziran erbesteratuak. Baiñan ez ziran kukildu. Luzifer, gertakizun aiek agertzeko, liburu bat egiten aritu zitzaigun. Ez noski koldar baten liburua, bertan Antikristo esaten bait dio inperatoreari.

Milan'en bertan, katolikoei, Dionisio erbesteratuaren ordezt, ariotar bat ipiñi zitzaien gotzai: Kapadozi'ko Auxenzio, "un hombre que ni siquiera podfa predicar a sus fieles en su lengua materna" (Jedin). Ortaz badakigu zerbait euskaldunok. Orrelako gotzaiak maiz ezarri bait dizkigu Erroma'ko kuriak.

Itzuli gaitezen ordea 335'garren urtera. Milan'go sinodoa amaitu bezain laister, bertan egon ez ziran gotzaierei ere Atanasio'ren gaitzespena izenpetzeko agindu zien Kostantzio'k, besterik gabe ortarako bidali zizkien ertzaiñen bidez. Poitiers'eko Ilario'k ats eman da, ez ziran ain errez gotzai aiek Kostantzio'ren eskarira makurtu. Onek orduan, urrengo urtean, 356'ean Beciers'en beste sinodo batera bildu zituan danak, eta an, "se logr6 taimadamente que la mayoria diera su asentimiento a la condenaci6n de Atanasio" (Id.). Bik bakarrik ez zuten bururik makurtu: Tolosa'ko Rodanio'k eta Poitiers'ko Ilario'k. Biak jaurti zituan inperatoreak erbestera.

Bazuan Kostantzio'k zertaz alai egonik. Berea zuan leendik

Sortaldeko gotzaidia. Berea zuan orain Sarkaldekoa ere. Soilki gotzai bat edo beste bakarrik zituan aurka, Erroma'ko Aitasantuaz gaiñera: erbestera bota-berriak zituan aiek, eta, danetan bildurgarriena, oraindik bere gotzai-aulkian irmo jarraitzen zuan Atanasio alexandritarra.

* * *

Laister lortuko zuan orrela Kostantzio'k, ainbeste nai zuana: Atanasio Alexandri'tik uxatzea. Oraingoz, beste bi etsai besterik ez zitzaizkion Eliz osoan gelditzen: Liberio Aitasantu berria, eta Osio Kordoba'ko gotzai zaarra. Bi gizon bakarrik! Zer ote da Elizarentzat okerragoa Agintari etsai zigortzailleen gorrotoa?, ala agintari adiskide zaintzailleen laguntza?

Ederki jardun zan ordurarte Liberio Aitasantua. Milan'en gertatua jakin zuan bezain laister idatzi zien, Kostantzio'k erbesterratutako iru gotzai aiei, bikainki jokatu zutelako bakoitzari bere esker ona ta eraspena erakutsiz. Min omen zuan, aiekin naigabeen bat ez izateaz.

Erroma'ko gotzaia, Liberio, Eliz osoko Aitasantua zan-da, arreta aundiz ibilli zan arekin Kostantzio, aren naimen ona losintxabide irabaziko zualako ustez. Asmo oien erara, balio aundiko doaiak bidali zizkion Eusebio izeneko ordezkari guren baten bidez, Liberio'k artu nai izan ez zituan doaiak.

Eusebio'k orduan, Donekepa'ren basilikako aldare-aurrean utzi zituan doai guzti aiek. Liberio'k ordea, danak bereala andik kentzeko agindu zuan.

Asarretu zan Kostantzio, "hombre de una desmedida irritabilidad" (Jedin), eta Liberio Aitasantua katigu bere aurrera eramateko agindu zion Leontzio Erroma'ko jaurleari. Gaez egin zan okerkeri ura matxinada baten bildurrez, oso maite bait zuan Liberio Erroma'ko erriak. Aitasantu bezala, bai noski; baiñan baita gizon bezala ere, arras gizaseme atsegiña bait zan bera.

Milan'en zegoan inperatorea. Asarre ekin zion Liberio

Aitasantuari. Alperrik. Liberio'k baretasunik galtzeke, bein da berriro uko egin bait zien Atanasio gaitzesteko arek egiten zizkion eskari larriei, eta jaurtitzen zizkion zemai guztiei. "Impius" (erlijio-gabea) omen zan Atanasio, eta "aren lotsagabekeria ("insolentia") zenbateraiñokoa zan agertzeko, ez omen zitekean itz egokirik aurkitu", inperatoreak zionez.

Ez zan ordea Liberio kukildu. Iru eguneko epea eman zion Kostantzio'k arazo aren bi ondorioak egoki neurtu zitzaizkien: Atanasio gaitzetsiz Erroma'ra yare bihurtu, ala erbestera jaurtia izan.

Ez zuan Kostantzio'k irugarren eguna-arte itxaron, ikusten bait zuan ez zuala ezer lortuko. Ala, bigarren egunean, Trazi'ra erbesteratu zuan Liberio, eta, an, gotzai ariotar baten zaintzapean ipiñi, Kostantinopla'tik oso urruti ez zegoan uriska batean.

Idatzi zuan, aurretik, Liberio'k bere buruaren "apologi" edo zuriketa egoki bikain bat, baiñan ez zion ezertarako balio izan.

Ez ote zan Kostantzio'ren kontzientzia oso lasai gelditu? 5.000 urrezko diru eskeiñi zizkion beintzat Liberio'ri.

Liberio'k ordea ez zion txanpon bat ere artu izan nai.

Ziur zeuden noski ariotarrek ez zutela sekulan Liberio'rik menderatuko, Erroma'n aren ordeez Felix izeneko sasiaitasantu bat ipiñi bait zuten. "Seguramente se contaba con una larga resistencia de Liberio, puesto que al cabo de algún tiempo se le nombró un sucesor: un dicono llamado Felix, lo bastante falto de carácter como para aceptar el cargo" (Jedin).

Liberio erbesteratuz gero, ixildu zituan Kostantzio'k, Sarkaldean bere aurka zerbait esateko gai izan zitezkean ago guztiak. "Sin embargo, alguien en la corte del emperador recordó que en la lejana España vivía todavía el obispo de Córdoba, Osio. Aunque ya centenario, también aquel anciano pareció peligroso, y, como tras reiterados escritos del emperador no se mostrara dispuesto a romper con Atanasio, se le hizo conducir a los Balcanes y se le tuvo bajo custodia, probablemente en Sirmio".

Eta, Sirmio'n, agure doakabea, etsai ariotarren zaintzapean izan zan ipifiia.

* * *

Orain bai, Sortaldea eta Sarkaldea beren menpean zituzten ezker, orain errez jo zezaketen ariotarrek, eta Kostantzio'k aiekin, alako bildurra ematen zion Alexandri'ko gizandiaren aurka, ots, Atanasio menderakaitzaren aurka.

Laister lertu zan berriro ekaitza Atanasio'ren buru gaiñera. Tximistaka asi aurretik, eskutitz bat bidali zion Kostantzio'k bere jauregira etortzeko dei egiñez. Atanasio'k lendik egiña zion eskari baten erantzuna omen zan oraingo dei ori.

Ez zion egia Kostantzio'k, Atanasio'k ez bai zion beiñere orrelako eskaririk egin. Danadala, ez zan Atanasio inperatorea-rengana joan. Alexandri'n gelditu zan, eta len aipatu dugun "Apologia ad Constantium" bikain ura idazten asi zan.

Kostantzio'ri, orduan, Atanasio Alexandri'tik botatzea gogoratu zitzaion. Ez zuan ordea eginkizun ortan bere bururik agertu nai-ta, Atanasio botatzen zuana erria bera izan zedin, Diogene izeneko baratari edo notario bat bidali zuan Alexandri'ra erria matxinadara eramateko aginduarekin. Erria ordea Atanasio'ren aldekoa zan-da, ez zuan Diogene'k ezer lortu.

Baiñan Kostantzio'k ez zuan orrenbestez etsi, ta Siriano izeneko "dux" edo gualburua bidali zuan Alexandri'ra. Bereiziki eginkizun artarako aukeratu zituan gudari-talde bikain batekin iritxi zan au urira. Aurpegi eman zion ordea Atanasio'k. Eta, Atanasio'-rekin, Alexandri'ko erriak.

Kukildu zan Siriano, eta inperatoreari alexandritarren naiaren berri ematekotan gelditu zan erriaren aurrean. Baiñan ez zuan bere itzik bete. Teonas'ko parrokia, orduan ain oiturazkoak ziran gaubela aietako bat bertan ospatzen zan unean gudariek indarrez artua izan zan, eta oso era zakarrean erabilliak ango apaizak eta elizki-deak. An aurkitzen zan Atanasio'k berak ere, iges egin aal izan zualako gorde zuan bizia.

Alperrikakoa izan zan Alexandri'ko jendearen asarrea. Egun batzuk geroago iritxi bait zan Kostantzio'ren eskutitz bat, Atanasio,

iraultzaillea eta inperatorearen etsaia zalako, uritik erbesteratuz.

Au zan gotzai bikain santu aren irugarren erbesteraketa, baiñan ez zan oraingo ontan Ejito'tik irten. Alderantziz, bertan gelditu zan adiskideen artean izkutatuta.

Ez da noski egia, kondaira utsa baizik, baiñan aspaldidanik esan oi da, asti luzez Atanasio bere aitaren illobian izkutaturik bizitu zala. Danadala, badakigu ziur azkenean Iekaroko bakartien artean gorde zala, baiñan ez an otoizketa utsean jarduteko. Atanasio ez bait zan lekaide, jaupari baizik, "sacerdos" eta bai bait zekian jaupari baten eginkizuna otoitz egiteaz gaiñera apostoladutza dala.

Orregaitik, iñoiz baiño geiago idatzi zuan Atanasio'k lekaro artan, eta andik Alexandri'ko bere Eliza jaurtuz edo gobernatuz jarraitu zuan erne.

Bazuan orduantxe Alexandri'ko Elizak zuzendaritza egokiaren bearrik aski. Katolikoek elizak, danak, ariotarrei emanak izan ziran. Bereala, auek, ariotarrek, eskari bat zuzendu zioten Kostantzio'ri onek aukeratzen zuan gotzaia Alexandri'n ontzat artua izango zala adieraziz: Alexandri'ko jentillei eta juduei beraiei ere izenpetuerazi zitzaaien eskari lotsagarria!

Laister iritxi zan Alexandri'ra inperatoreak aukeratutako gotzai berria: Kapadozi'ko Gorka: Ariotarra, jakiña, ta kapadoziarra jaiotzez: "homme lâche et sans scrupules, et capable de toutes les cruautés" (ib.) "gizon okerra, kontzientziko kezkarik gabea, ankerkeri ororako gauza".

Kostantzio'ren eskutitz batekin agertu zan. Inperatoreak, gutun artan, gotzai ura onartzea agintzen zien alexandritarrei.

Zigorraldi gogorra jausi zitzaaien zigagaixo aiei gaiñera: "41ises

profan&s, vierges ëvUlues fidèles torturës, et mis

mort": (ib) "eliz-lizunketak, indarpean urratutako neskutsak, erbestera jaurtitako gotzaiak, eta astunki oiñazetutako kristau leialak, auetako batzuk gaiñera, eriotzara galduak". Danetik izan zala an, Atanasio Doneak bere liburuetan diosku.

Okerkeri oiek danak ez ziran noski Gorka gotzai berriaren

aginduz egiñak izan; ezpairik gabe, era eta une naasi aietaz baliatu ziran jende biurrien ekintzak izan bait ziran.

Zana zala, ez zitzaigun Gorka ber-bera ere gizakume leguna gertatu: "El nuevo obispo, Jorge, ejerció un verdadero regimen de terror sobre Egipto, envi6 al destierro a obispos y sacerdotes y atorment6 de todas maneras posibles a los cristianos fieles a Atanasio, hasta que finalmente, al cabo de 18 meses los alejandrinos, hartos de aquel terror, obligaron a huir a aquel obispo que les habia sido impuesto" (Jedin).

Ez da arritzekoa. Ejito'ko erri kristaua beti Atanasio'ren aldekoa izan bait zan.

Ez da arritzekoa jende ura ain asarre egotea ere. Atanasio erbesteratua izan zan bezain laister kendu bait zitzaizkien eliz guztiak, ariotarrei emanak izateko.

Lekaroan izkutaturik zegoala idatziak ditu Atanasio'k Alexandri'n asitako "Orationes Contra Arianos", "Apologia ad Costantium" eta "Apologia Pro Fuga Sua" aiek borobiltzeaz gaiñera, onako beste idazti auk:

- "Epistola Encyclica ad Episcopos Aegypti et Libiae Contra Arianos": "Ariotarren Aurka Ejito'ko eta Libi'ko Gotzaiei Gutun Iriki": ereje arianikerizaleek gertatzen ari ziran sinispen-azalpen edo "kredo" berri baten aurka gotzaiak erneerazteko idatzia.

- "Historia Arianorum ad Monachos". Lekaideek eskatuta idatzia. Era atsegiñean eta sakonki ematen ditu Atanasio'k liburu ontan arianikerizaleengandik jasan bear izandako nekeen albistek. Zorrotz epaitzen ditu bere etsai guztiak: Ariotarrak, erdiariotarrak, inperioko agintariak, eta inperatorea bera. Au, du ba Antikristo berarekin kidatzen? Orain, lekaroan izkutaturik egoteak askatasun osoa ematen bait dio edozertarako.

- "Epistola" sail bat ere idatzi zuan bere bakartasun artatik. Danak arras interesgarriak, Serapion adiskideari idatzitakoak bereiziki. Epistola edo gutun auetako batean esaten dio nola it zan Ario, oiñaze aundiren artean sabeleko esteak lertuta. Egia ote? Albiste oiek iturri ziurretik iritziak ote zituan Atanasio'k?

Esan dugun bezala, lan bera egiten ari zan erbestean Kagliari'-ko Luzifer ere. Bost liburu idatzi zituan onek. Baiñan liburu oiek ez dute Atanasio'ren liburuek duten zugurtasunik. Luzifer borrokalaria sutsu arek, maiz egiten bait du neurri egokien gaiñetik jauzi.

* * *

Gauza larriak gertatu ziran arianikeriaren altzoan, 356'garren urtearen inguruan, Atanasio Ego-Ejito'ko lekaroan izkutaturik aurkitzen zan artean. Arianikeriaren zatiketa ainzuzen.

Filosofi-pittin bat egin bearrean aurkitzen gera esango ditugunak ulertu al izateko. Naitanaiezkoa bait dugu ulerpen ortarako, ezaguna dugun itz bat, eta itz orren ondorio diran beste iru itz, gogoan ongi gordetzea.

Ezaguna dugun itza, "ousia" da, "essentia" lateraz, "zertasuna" euskeraz

"Essentia"ren zentzu berekoak diran beste bi itz ere erabiltzen dituzte lateraz filosofiariek: "substantia" eta "natura".

Iru itz oiek essentia, substantia, natura gauza bat bera esan nai duten itzak ditugu: Zertasuna.

Alatagutziz badu iru itz oietako bakoitzak bereiztasun bitxi bat. Gauza orok badituan iru ezaugarri nagusien adigarri izateko sortuak bait dira filosofiaren alorrean.

Izan ere gauza oro zerbait bada; gauza orok, naiz itxuraz aldatu, itxura oien azpitik beti bat bera izanez jarraitzen du; eta gauza oro zerbait egiteko gai ere bada.

1': Gauza ori zer da"? galdetzen digunari, erantzutean, gauzaren "essentia" ematen diogu. "Essentia" itza "esse" aditzatik dator. "Esse" aditzak "izatea" esan nai du, eta aditz ortatik datorren "Essentia" itzak, gauzaren "zer izatea"; laterazko itzaren indarrez "dantasuna": "esserttia". Euskeraren jiteari dagokionez, askoz egokiago, "zertasuna".

Orrela, ogia zer dan galdetzen ba'digute, ogia irin egosia dala erantzutean, ogiaren "essentia" ematen dugu. Itz gogorxarnarra

iduritzen zait, "essentia" euskeraz emateko, "dantasuna", naiz itz au "essentia"ren itzulpen zuzena izan.

2^a : gauzak ordea nolakotasun asko izaten ditu. Itxura asko. Nolakotasun oiei, "accidentes" esaten zaie filoso-izkuntzan. Aia ogi bat ez da bestea bezalakoa naiz biak ogiak izan, eta ogi bera ere ez da gaur eta biar berdiña. Altagutziz "nolakotasun" oien azpitik ogi guztiak zertasunean berdiñak dira. Orregaitik, ogiaren nolakotasun guztien azpitik dagoana zer dan galdetzen ba'digute, irin egosia dagoala erantzungo genuke, eta ori erantzutean, ogiaren "substantia" emango genuke. "Substantia", lateraz, "azpian" esan nai duan "sub" eta "egon" esan nai duan "stare" itzetatik bait dator. Beraz, "substantia", euskeraz "azpitikoa" genuke.

3^a : Gauza orok ordea zerbaiteko balio du. Ogiak zertarako balio dun galdetzen duanari, janari izateko balio duala erantzungo genioke, ori bait da ogiaren eginkizun berezia, bizidunak elikatzea, eta ogiaren zertasunak bai bait du eginkizun ortarako aalmen berezkoa. Eta erantzun ori ematean, ogiaren "natura" agertuko genuke: Ogiaren zertasuna bera, baiñan zerbaiteko duan aalmenaren aldetik ikusia: "natura, essentia rei in quantum principium operationis" dala esaten bait dute filosofiariek: Gauza baten zertasuna, ekintzen iturburu dan aldetik ikusia".

Ortaz, nola esan euskeraz "natura"? "Aalmen-iturri"? Esakizun baldartxo dala derizkiot.

Baiñan gauza bere-baitan "dana" eta gauzaren nolakotasunen "azpitik dagoana" eta gauzaren "aatmenen iturburua" dana, gauzaren ZERTASUNA dalako, iru itz oiek "essentia", "substantia", "natura", gauza bat bera esan nai dute: zertasuna.

Guk, atal ontan beti, zertasun itza erabiliko dugu: "ousia".

Baiñan "ousia" itzarekin batera, beste lau itz sortu zitzaizkigun bata bestearen atzetik, arianikeriaren edestian: "homousios", "anomoios" "homoiusios" eta "homoios".

- "Homousios" itz ezaguna dugu: "zertasun berdiñekoa" esan nai du. "homo" eleneraz "berdiña" bait da. Semea Aitare'kin "homousios" dala, erabaki zuan Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak.

Guk, euskeraz, Semea Aita'ren "zertasunkide" dala esan nai ba'dugu "kide"ri Kontzilioak "homo"ri eman zion zentzua eman bearko diogu, "homo" k berez ez zuan zentzua Aita eta Semea zertasun BAT berekoak dirala adierazteko. Ots, Jainko bat bera dirala, naiz bi Pertsona ezberdiñak izan: Zertasun bat, bi Nortasun.

- "Anomoios" itzak, elenerazko "a" euskeraz "ez" dugulako "ezberdiña" esan nai du euskeraz, eta arianitarrik gogorrenek, Semea eta Aita zearo ezberdiñak dirala adierazteko asmatu zuten: Aita, alegia, Aita bai, Jainkoa dala; ez ordea Semea.

- "Homoios", "homoios" "antzekoa", eta "ousia", "zertasuna" Semea, zertasunean Aita'ren antzekoa zala adierazteko, Semea Aita'ren zertasun "berekoa" zala esatea ontzat artzen ez zuten arianitar biguiñek sortutako itza dugu.

- "Homoios", "antzekoa" dala, esan dugu. "homoios"ostarreregandik" bereizita, arianikerizale batzuk Semea Aita'ren "homoios", ots, soilki Aita'ren "antzekoa" zala esaten asi ziran, antzekoa zertan zan esateke. Ez zuten "ousia" edo "zertasunik" aipatu ere nai, Zergaitik? "Homousios" eta "homoios", axal ezberdiñaren azpitik esannai berdiñeko itzak zirala iduritzen zitzaielako. Izan ere, Antzira'ko Basilio "homoios" itzaren sortzailleak zionez, Semea'ren zertasuna, era bat eta oso-osoan bait zan Aita'ren zertasunaren antzekoa.

Orrela asi zan zatitzen ariotarren multzoa, eta zatiketa oien ondorioz, zati batekoak beste zati guztietakoen aurka **asarre** bizia sortu zan arianikerizaleen artean.

* * *

Esan dugun lez, Atanasio'k Alexandri'ko gotzaigoa artu zuanez gero, filosofiari eta teologiari-buruzko itz oiek eta itz oien azpian zezan auzi larria azturik bezala gelditu ziran kristaudiarentzat. Atanasio zan arrezkero eztabaida, istillu, zalaparta eta borroka guztien gunea. Ala, "no es sorprendente que a mediados del siglo IV apenas se encuentre en las filas arrianas un hombre que se

interese primariamente por la cuestión teológica"(del arrianismo" (Id). Atanasio'ren pertsona izan zan istillu artan sarturik zeuden guztien nora-begira-puntu bakarra.

Aezio zeritzan zalapartalarari bat agertu zan arte. Gaztetan urrezko ta zillarrezko pitxigille izana eta aruntz-onuntz asko ibillitako gizona, filosofia aurrena eta sendagintza gero ikasia, teologiari eman zizkion azkenean bere ardura guztiak. Antioki'n zan 350'ean, eta Leontzio bertako gotzaiak diakono sagaratu zuan an; baiñan laister galerazi bear izan zion diakon-ekintza oro Leontzio'k berak, aren gogabideetaz ikaraturik.

Alexandri'ra joan zan orduan Aezio, eta an, ez zitzaion ezaguna dugun Gorka gotzai ariozale porrokatuaren laguntzarik peitu. 358'an Antioki'n dugu berriro, orain emen gotzai dan Eudoxio'ren adiskide. Baiñan, gaitzetsia izan zan berriro-ta, erbestera jaurti zuan Kostantzio'k. Ez zan luzaro erbestean egon, Kostantzio illik, Juliano fedeukatzaileak, agintaritza artzerakoan erbestetutako elizgizon guztiei itzuli bait zien askatasuna. Gotzai egiña izan zan orduan, baiñan laister il zan, 360'garren urteaz gero.

Antioki'ko bigarren egonaldian asi zan Aezio bere aburua zabaltzen. Aburu ori, Ario ber-berak zabaldu zuana besterik ez da, naiz izen berri batez aurkezturik agertu. Izen berri ori ANOMOIOS izan zan. Semea "anomoios to Patri"; "Aita'rekin zearo ezberdiña" zala esaten bait zuan Aezio'k. "Zearo ez berdiña"... , Aita Jainkoa dalako eta Semea ez. Ezberdiña, Aita Betikoa dalako eta Semea Aita'k ezerezetik egiña izan dalako.

Antioki'n jarraille askorik alderatu ez zitzaiolako, Alexandri'ra joan zan berriro. Alexandri'n lagun berri bat eta lagun orrekin bere alderdiarentzat izen berri bat irabazi zituan. Lagun ura, laister Zizi'ko gotzaia izanen zan Eunomio elizgizona. Eta gotzai adiskide orren izenetik kirtena artuz esan zitzairen izen berriz eunomiotarrak, edo eunomitarrak, Aezio'ren jarrailleei.

Aezio'ren alderdira urbildu zan Germanio Sirmio'ko gotzaia ere. Au izan zan 357'an, "ousia" eta "homousios" itzak baztertuz, "kredo" berri bat sortu zuana, urte ortan bertan ariotarrik gogorre-

nak Sirmio'n bertan egindako sinodoan onartua izan zan kredoa. Sinodoan Ursazio eta Balente izan ziran lendakari, eta aiekin batean, Sirmio'ko gotzaia zalako, Germanio, kredu berriaren sortzaillea. Lagun izan zuten zearo ariotarra zan Lisboa'ko Potamio ere, Ilario Doneak idatzi zigunez.

"Sirmio'ko Bigarren Formula" edo Sinist'Araua, esan oi zaio, Sinodo artan onartua izan zan kredu ariotar ari. Sirmio'ko Lenen Sinistaraua 351'ean izan zan egiña, eta bigarren au ez bezala, izan zitekean ura zentzu katoliko zuzenean artua.

Ona Sirmio'ko Bigarren Sinistarau onen mamia: "Nulla ambiguitas est maiorem esse Patrem: nulli potest dubium esse Patrem honore, dignitate, claritate, maiestate, et ipso nomine Patris, maiorem esse Filio... et hoc catholicum esse nemo ignorat duas personas esse: Patris et Filii; maiorem Patrem Filium subjectum."

Euskeraz:

Aita Semea baiño aundiagoa da: Ortan, eztabaidarik ez dago. Ez bedi iñor zalantzetan duintasunez, gaitasunez, dizdiraz, bikaintasunez, eta baita izen utsez ere, Aita aundiagoa da Semea baiño".

Bigarren atala, nasixeagoa da, eta bere antolaketan ez zitzaizkigun Ursazio, Balente, Germanio eta Potamio latinlari yayoegiak agertu. Ikus nola frantzeratu digun Fliche-Martin'ek: "Nul n'ignore que la foi catholique enseigne qu'il y a deux personnes, du Père et du Fils, que le Pare est plus grand, le Fils plus petit et soumis".

Euskeraz:

"Edonork badaki zer erakusten duan Sinispide katolikoak: Bi Pertsona dirala Aita eta Semea. Aita dala bietan aundiena; Semea berriz txikiagoa, eta (Aita'ren) menpekoa".

Sinistarau orren bitartez, Aezio, eta Aezio'rekin batera Ursazio ta Balente, izan ziran arianikeriaren ondamana azkarragotuko zuan zatiketari asiera eman ziotenak: "Los volubles Ursacio y Valente" (Jedin).

Sirmio'n zegoan orduan Kostantzio inperatorea. Sirmio beti

izan zan lenen maillako guda-uria, barbaritarren aurka Danubio ibaiaren guda-muga arriskutsuan. Maiz egon oi ziran an inperato-reak bizitzen. An jaio ere jaio zan Probus inperatorea. An zegoan orain Kostantzio, eta an zeukan, ariotar sutsuen menpean katigu, Osio Kordoba'ko gotzai zar-zaarra.

Izenpetu ote zuan Osio'k Sirmio'ko bigarren sinistarau makur ura? Ortik, edestia-zear "Osio'ren Auzia" esan oi zaion arazo mingarria.

* * *

Baietz, diosku Atanasio'k; izenpetu zuala Osio zaarrak Sirmio'ko bigarren formula ura: "Cedió a los arrianos un instante, no porque nos creyera a nosotros reos, sino por no haber podido soportar los golpes a causa de la debilidad de la vejez" (Llorca'k gazteleratua).

Zentzu berean mintzatzen zaizkigu Poitiers'ko Ilario, Sozome-no, Sokrate ta Donejeronimo. Eta bide ortatik jo dute gero edestilari geienek:

"Para esta fórmula, (segunda de Sirmio), trataron de obtener (los arrianos) la firma del anciano Osio, que se hallaba en Sirmio, y lo lograron. El anciano, ya centenario, y con las facultades mentales muy disminuídas desde hacía tiempo tuvo todavía suficiente lucidez y energía como para no dejarse arrastrar a la condenación de su viejo amigo de tantos años, Atanasio" (Jedin).

"Under pressure he signed the declaration known as the second Sirmian formula": "Indarpean arturik, izenpetu egin zuan Sirmio'ko bigarren Sinistarau esan oi zaiona" (Cath. Enc.).

"Em poucos meses Valens de Mursa obteve (lortu zuan) o supremo triunfo de alcançar a submissão nada menos de que de Osio de Córdoba, o veterano de Niceia, a uma doutrina que deplorava quer (bai) a identidade da essência quer (bai) a semelhança da essência de Basílio de Ancira, como fórmulas contrárias a Escritura, que perturbavam a fe e defendiam concepções estranhas ao

entendimiento humano" (Chadwick).

"Il est évident que l'on abuse de sa vieillesse et de l'affaiblissement de ses facultés et que sa responsabilité personnelle n'est guère engagée dans cette triste affaire. CeIIa est d'autant plus vraisemblable que, détail touchant, on ne parvint jamais à lui faire maudire Athanase, Sa pauvre tête s'embrouillait sans doute dans les questions de théologie, mais Athanase resta pour lui une personne concrète, un ami, un compagnon de lutte; il y tenait, on ne lui fit pas l'kher" (L. Duchesne).

Euskeraz:

"Argi dagoan gauza da, Osio'ren zaartasunaz eta aalmenen argaltasunaz baliatu zirala. Ori bera erakusten digu garrantzi aundiko zertzelada bikain onek: ez zirala alegia inoiz ere Osio Atanasio gaitzestera beartzeko gauza izan! Teologi-arazoetan bai, naasi zuten are buru gaixoa. Atanasio ordea, ezur ta aragizko pertsona bat zan, adiskide eta borroka-lagun lez ederki oroitzen zuana. Irmo jardun zan. Ezin izan zuten menperatu".

Ariotarren aldetiko indarkeria aipatzen dute edestilari guztiek: "Atanasio, Sacrates y Sozomeno testimonian sus sufrimientos y violencias en un año" (Dic. Hist. EcI. de España). Urte latza, 356'tik 370'era, Osio'k Sirmio'n katigu igaro zuan urtea.

Alatagutziz, izenpetu ote zuan Sirmio'ko bigarren sinistarau ura?

"En Sirmia se celebró el sínodo arriano, al que Osio no asistió. En él se redactó una fórmula de matiz también arriano que Osio no compuso ni firmó. su asentimiento? La mayor parte de los escritores modernos lo afirman" (Ib).

Alare, eman ote zuan Osio'k baietsi edo "asentimiento" ori? Ez dago ain argi gauza. "The facts relating to the end of his life are far from clear": "Bere bizitzaren azkeneko gertakizunak ez daude batere argi".

Sozomeno'k ez digu esaten Osio'k alako baietsirik, ainzuzen baietsi orren billa zebiltzan Balente, Ursazio, Germano ta Potamio--sekulan eman zienik.

Sozomeno'k dioskuna auxe da: "Osio'k ontzat artu zuala, iñork consubstantialis eta substantia similis itzak ez erabiltzea. Alde batetik, itz oiek Idazti Doneetan iñoiz agertzen ez diralako. Eta, bestetik, Jainkoaren zertasuna jakin-min txoroz aztetu nai izatea gizakumearen almenetik zearo urrun aurkitzen dan gauza dalako". Eta, "orixe esanez Osio'k izenpetutako paper bat, jendearen aurrean erabilli nai zutelako, lortu zutela azkenean arengandik paper ori".

Ikus bere itzak: "Concessit ut uoces Consubstantialis et Substantia similis minime a quoquam proferrentur, tum quod in sanctis litteris neutiquam reperirentur, tum quod substantiam Dei curiose indagare hominum captum longe superaret". "Postquam autem litteras Osii hac de re scriptas uti uolebant, consecuti sunt epistolam..."

Ta? Nondik jakin zuan ori Sozomeno'k? Ariotarrengandik. Nondik jakin zuten Atanasio'k, Sokrate'k, Ilario'k, eta Jeronimo'k, Osio'z idatzi ziguten guztia? Ariotarrengandik! Sirmio'n ez zan Osio'ren inguruan ariotarra ez zan Aien mendean ipiñi bait zuan erdi-katigu Kostantzio inperatoreak. Osio'k ez zuan beste iñorekin itzegiterik izan. Orregaitik, ez daki iñork an zer gertatu zitzaigun. Ariotarrek beraiek esan zigutena besterik ez dakigu, eta ez dira ariotarrak iturri garbia. Ez beintzat Osio txorabiatu naiean ibilli ziran aiek. Ursazio alegia, eta Balente, Germanio eta Potamio.

Ursazio Singidunum'go gotzaia eta Balente Mursa'ko gotzaia, aize-orratza bezain ariñak izan ziran aburuz aldatzeko. Pulamenturik gabeko gizonak. Arianikeriaren zati guztietan ibilli ziran, batetik bestera: Ariotar gogorak, Aria berarekin; "anomoioistarrak" orain Aezio'rekin, Sirmio'ko bigarren sinistaraua aizatu zuan sinodo artan; homoiusioistarrak laister Anzira'ko Basiliorekin, omoistarrak gero, Seleuzi-Rimini'ko kontzilioan; eta, agian, baita bearbada homousioistarrak ere noizbait. Ez noski, ez bata ez bestea fiatzeko gizonak.

Ta? Fiatzekoak al ziran beste biak, Sirmio'ko Germanio eta Lisboa¹ko Potamio?

Biotan aurrenekoa, Sirmio bertako gotzaia, Germanio, orduan

inperatorearen aolkulari ziran beste bi aien mendean zegoan: Ursazio'ren eta Balente'ren mendean. Gaiñera, bere asmakizuna zan sinistarau berria Eliz osoaren sinistarau biurtu naiean zebillen. Eta ori lortzeko, zer Osio'ren izenpena baiño gauza egokiagorik?

Potamio Lisboa'ko gotzaia, erejiaren asieratik ariozale buruberoa izateaz gaiñera, pertsona bezala ere Osio'ren etsai aundia zan

Oso lekuko edo testigu txarrak, dakusazunez, lauak, Osio'k Sirmio'n zer egin zuan ala zer ez zuan egin jakiteko. Ta, ori jakiteko, beste lekukorik ez dugu!!!

Osio'ren adin zaarra aipatzen dute edestilariek. Ain zaarra ere! 256'ean jaio omen zan Osio 'k eun-da-bat urte bai bait zituan 358 artan! Ez da arritzekoa adin ortan, aren burua teologi-arazoetarako bear bezain erne ez egotea. Zer esan ote zioten lau arerio maltzur aiek? Zer paper aurkeztu ote zioten izenpekatarako? Izenpetu ote zuan arek zerbait? Ez bait dugu ori jakiteko konfiantzazko lekukorik! Gaiñera, Salamina'ko Epifanio Doneak, Ursazio'k Balente'k jendearen aurrean zerabilkiten paper ura, Osio'ri iruzurketa-bidez ateratako paper bat dala idatzi bait zigun.

Arrazoi aundiz esan zuan Augustin Doneak, eskutitz ura Osio 'k izenpetu zuan, egiztatu gabe dagoan gauza dala.

Nere aburu txiroa jakin nai duzu? EU, Osio'k ez zuala alako paperik izenpetu, esango nuke nik. Zergaitik? Izenpeketa ori sikologizko arauen aurkakoa dalako, eta, bereiziki, Osio'ren sikologiaren aurkakoa dalako:

- Sikologizko arrazoen aurkakoa da: Balente'k eta bere lagunek, egiñaal guztiak eginda ere, ez ziran Osio'ri Atanasio gaitzetsierazteko gauza izan. Baiñan izan ziran Osio ereji nabarmenera markurtuerazteko gauza.

Gaitzespen ura ez zan alako garrantzi aundiegiko gauza. Bazan ordea izugarritzko eta ikaragarritzko gauza, fedea ukatuz, ereji zikiñera era lotsagarrian makurtzea: kristau zintzo batentzat, izan daitekean gauzarik madarikatuen.

Arritzekoa benetan: Balente ta lagunek, errezena zitzaienik ez

zuten Osio'rengandik lortu. Bai ordea zailena zitzaiena! Ez da sinistekoa.

- Osio'ren sikologi bereziaren aurkakoa da: Kostantino il zan unetik asi ziran ariozaleak Osio menderatu naiean, eta lagun izan zitzaien ekintza makur ortan Kostantzio inperatore berria.

Bere anaiak Kostantzio au inperio-lur osoko agintari gertatu zanean, eskutitzen bidez nai izan zuan Osio irabazi. Baiñan eskutitz aiek danek, inperatore idazlea bera geiago zipozteko izan ezik, ez zuten ezertarako balio izan. Osio'k ez bait zuan amorerik ematen.

Ikusi dugu baitare, nola 355'an Milan'en Kostantzio'k kontzilio bat bildu zuan. 13ä, Milan'era ekarrierazi zuan 355 artan 99 urte bazituan Osio agure xaarra. Bein Osio Milan'en, "el mismo Constancio tomO por su cuenta la triste misidn de doblegar su resistencia para complacer a los arrianos, Se hicieron con el toda clase de violencias, mas se mantuvo integro" (Llorca).

Ez inperatore zipoztua, ez gotzai ariotar basatiak, ez zan iñor, aritza bezain tinko ziraun agure aintzagarri ura menderatzeko gai izan.

Orduangoa da noski Osio'k inperatoreari bidali zion eskutitz miresgarri ura. Autentitasunik, ots, egitasunik, sekulan iñork zalantzan ipiñi ez dion eskutitza!

Maximino'ren denboran "aitorle", ots, fedea ez ukatzeagaitik espetxean oiñazetua izan zala eta berriro ere "aitorle" izateko gerturik dagoala, Kostantzio'ri jakiñeraziz gero, onela mintzatzen zaio, GER'ek gazteleratutako izketaz:

"Aciterdate de que eres mortal. Teme el dfa del juicio y conservate puro para el. No te entrometas en asuntos eclesióticos. No nos mandes sobre puntos en que debes ser instrufdo por nosotros. A tf te dio Dios el imperio, a nosotros nos confirid la Iglesia. Y asf como el que te robase el imperio se opndrfa a la ordenación divina, del mismo modo guftdate de incurrir en el tremendo crinnen de adjudicarte lo que toca a la Iglesia... Yo no solo no me adhiero a los arrianos sino que anatematizo su

hereiia. Ni suscribo contra Atanasio, a quien tanto yo como toda al Iglesia romana y todo el sfnodo (de Särđica) prociam6 inocente".

Inperatore zakar alguztidun ari batere bildurrik gabe orren trebe itzegiten zion gizona, lau gotzai ergel batzuen bildurrez ereji gordiriera jausi zala, sinistu daitekean gauza al da?

Inperatore aiguztidunei ez zien bildurrik izan, eta lau gotzai alu ezerez aiei bai? Ez da sinistekoa

Esan dezagun gaiñera, Sarkaldeko gotzaidia ez ez"e`, Sortaldeko gotzaidi ariozale ura bera ere, Sirmio'ko bigarren sinistarau "anomoistar" makur aren aurka jeiki zala.

Orra ba: Gotzai ariozale aiek sinistarau ura gaitzetsi, eta, nork eta Osio'k, sinistarau uraxe bera ontzat artu? Ez da sinistekoa.

375 aren udazkenean il zan Osio. Sortaldean bertan seguruaski. Atanasio'k dionez, "anatematizando a la herejfa arriana y exhortando a que nadie la recibiera" (GER).

* * *

Esan dugu, naiz Kostantzio bera orduan "anomoioistarren" sinistarau berri aren alde egon, Sortaldeko gotzai ariotar beraiek ere gaitzetsi egin zutela Sirmio'ko bigarren sinistarau latz ura. Zergaitik? Naiz arrigarria iduritu, "ariozale" esan oi zaien Sortaldeko gotzai aietatik geien-geienak, ia-ia danak, egiazko ariokerizaleak ez ziralako. Soilki, Nizea'ko Kontzilioak sagaraturtako "homousios" aren etsaiak ziran.

Zergaitik ordea?

Aurkezturik utzi dut, liburu auek eratzeko erabilli ditudan Liburuen zerrendan Ch. Duquoc eta Bruno Forte'ren idaztia aipatzerakoan teologilari auek galdera orri eman-berri dioten erantzuna, eta esan dut an, ez zaidala erantzun ori egokia iduritzen.

Ona orain emen, neri atsegiñagoa zaidan erantzuna:

- Badakigu Semea "sortua" dala, Aita berriz, "ez-sortua". Sortaldetarrek "agenetos" esaten zioten Aita'ri, "ingenitus" berriz sarkakietarrek lateraz. Bi itz oiek, "ez-sortua" esan nai dute. Semea

berriz, Aita'k "sortua, ez egiña", dala esaten dugu guk kredoan Nizea'ko Kontzilioa ezkerro, sortua ez baiña egiña, Aitak beste izaki guztiak bezala ezerezetik egiña, dala esaten zuten Ario eta ariotarren aurka.

- Guk errez bereizten ditugu gaur, Irutasun Deuneko Pertsona bakoitzaren "zertasuna" eta "nortasuna": "ousia" eta "hypostases" eleneraz, "substantia" eta "hypostases" edo "personalitas" lateraz.

Badakigu, "ez-sortua edo "sortua" izatea, nortasunari dagozkion gauzak dirala; ez, iñolaz ere, zertasunari, Semearen zertasuna Aitarena bezain "ez-sortua bait da, Aitaren zertasuna berbera dalako. Bere zertasunean sortzen bait du Aita'k Semea, eta bere nortasun ber-berori bait damaio. Egokiago esateko, betikotasunean denborarik ez dalako, bere zertasunean beti-betidandik ari da Aita Semea sortzen. Orregaitik, Aita bezain betikoa da Semea, Aita ez bait da beiñere Semea sortzen ari gabe izan.

- Semea'ren "ousia", "substantia" edo "zertasuna" zan auzian zegoan arazoa arianikeriaren auzian.

Ariotarrek eta batez ere erdiarriotarrek, onela pentsatzen zuten auzi orri-buruz:

- Aitaren "ousia" ez-sortua da. Semea'ren "ousia" Aita'ren "ousia" berbera baldin ba'da, Semeak ere Aitak bezala ez-sortua izan bear du naitanaiez.

Ori orrela ba'litz ordea, biotako bat: edo "Aita" eta "Semea" Jainko bat bakarraren bi izen besterik ez lirake izango, edo Aita eta Semea betidandik bi Jainko izango lirake. Orrela, edo "monarkikerira" edo "jainkoaskokerira" jausiko giñake.

- Orrela pentsatzean, "ousia" eta "hypostases" itzen esannaiak nasten zituzten. Ez da arritzekoa. Gaur-egun, mundu guztiarentzat, "ousia" itzak, "zertasuna" esan nai du. Aiek ordea, "nortasuna" esan nai ba'lu bezala erabilli zuten: "hypostases" itzaren zentzua eman zioten.

Ez noski asmo txarrez. Orduan itz oien zentzua oraindik oso illun zegoalako. Guk Jainkoagan "ousia" bat eta iru "Hypostases" dirala sinisten dugu. Baiñan Jainkoagan "ousia" bat bakarra dala

esan zualako izan zan gaitzetsia, ariotarrak sortu baiño len, Sabelio monarkikerizalea, berak ere itz orri nortasuna adierazi naiez erabili zualako, Eta "hypostases" itzari dagokionez berriz, Jainkoa "hypostasis bat bakarra dala esan daitekeala, idatzi zuan, ori esaten zutenek bezala itz ori zertasuna adierazteko erabiltzen ba'da.

- Orrela pentsatzen zutenetatik, batzuk osoki ariotarrak ziran: Semea Jainkoa ez dala esaten zutenetakoak. Geienak ordea, benetako kristauak, Semea Jainkoa zala ziurki sinisten zutenak, baiñan Nizea'ko Kontzilioaren "homousios" ura onartu nai ez zutenak. Auek, "semantikaren" edo "itzen esan-naiaren" sarean zeuden naasirik. Eta naiz ariotarrak izan ez, Nizea'ko kontzilioaren agindura makurtu nai ez zutelako, "erdiariotarrak" esan oi zitzaien.

- Giro ortan sortu zan, "erdiariotarren artean, "homousios" itzari "i" bat sartuz, "homoiusios" itz berria.

* * *

Itz berri ori, gaur Ankara eta orduan Ancira esaten zitzaion urian izan zan sortua, 358'garren urtean, orduan bertako gotzaia omen zan Basilio'k sortua seguruaski, onek bere urira deitu zituan gotzai adiskide batzuen artean.

Zalantzan ipiñi dugu Basilio'ren Antzira'ko gotzaigoa. Ango gotzaia oraindik Kostantzio'k erbesteratutako Markel "homousiostar" borrokalari gogor ura bait zan. Basilio berriz, aren ordeaz ariotarrek Antzira'n ipiñi zuten gotzai ariotarra.

Nizea'ko Kontzilioan Osio 'k babestutako "homousios" ura eta orain Antzira'ko Basilio'k sortutako "homoiusios" berri au, itxuraz oso itz berdiñak dira, "i" txiki ori izan ezik. Baiñan aski ezberdiñak dira beren esan-naiari dagokionez; "i" txiki ori barruan izateak edo ez izateak, anitz aldatzen bait die zentzua.

Izan ere "homos" itzak "berdiña" esan nai duan bezala, "homoios" itzak "antzekoa" esan nai bait du. Itz orren bidez, Semea'ren zertasuna Aita'ren zertasunaren "homoios" dala, ots,

Semea'ren zertasuna Aita'ren zertasanaren antzekoa dala, adierazi nai izan zuten itz ori ontzat artu zutenek.

Orregaitik, "homousios" itzak, itz ori bere esan-nai estuan artuko ba'litz ez luke balioko Aita'ren eta Semea'ren arteko zerikusia era egokian adierazteko.

Zentzu estu ortan artu zuten berriz itz ori, Nizea'ko Kontzilioak onetsitako "homousios" itz egokiago aren alde zeuden guztiek; eta, orregaitik, berealaxe gaitzetsi zuten "homousios" berri ori.

Ez zitzairen arrazoirik peitzen. Semea, zertasan, Aita'ren "homousios" besterik ez ba'litz, Semea ez bait litzake Jainkoa izango, Jainkoaren antzeko zerbait baizik.

Alatagutziz, itz orrek zentzu egoki zuzen bat ere izan zezakean!

Atanasio, eta Poitiers'ko Ilario, izan ziran "homousios" itza egiazko zentzu zuzenean artua izan zitekeala, aurrena oartu ziranak.

Arrazoi zuten bi aukerak, eta arrazoi zuten itz berriaren aurka zeuden beste aukerak ere. Zergaitik? Jainkoaz era egokian mintzatzeko gizakumeon izkuntzek itz egokirik ez dutelako. Ez dezakete izan ere. Neurrikeriaz Jainkoaren misterio mugarik gabekoa ez daiteke baina, ain neurri motzekoa dan gizakumearen adimen koxkorrak asmatutako itz murrizetan bildurik aurkeztu.

Orregaitik ez "homousios" ez "homousios" ez dira Irutasun Donearen misterioa bere osotasun guztian agertzeko zearo itz egokiak.

Egia, bai noski, askoz eta askoz egokiagoa dala "homousios" "homousios" baiño. Are geiago, ura bakarrik dala benetan balio duana. "Homousios" itzak argi ta garbi adierazten bait du Aita'ren zertasuna eta Semea'ren zertasuna, zertasan bat bera dirala, eta orregaitik, ezpairik gabe Semea oso-osoan Aita bezain Jainkoa dala; obeki esateko, biak Jainko bakar bat bera dirala.

Alderantziz, ikusi dugun lez, "homousios" itzak, berez, au da, bere-berea duan zentzuan artzen ba'da, Semea Jainkoa ez dala esaten digu. Jainko ez baiña Jainkoaren antzeko zerbait dala.

Baiñan, esanik utzi dugun lez, "homousios" itzak ere ez du Jainkoaren Irutasun Doneko misterioa bere guztitasun neurrigabearen

agertzen, Jainkoa "ineffabilis", "giza-mintzoz agertu eziña", bait da!. Gaiñera, "homousios" itzak, itz ori erdiariotarrek, ematen zioten zentzuan, "nortasuna" adierazteko erabiliko ba'litz, Semea, Aita bezala "ingenitus", "sortu-eza" dala esango liguke; ots, bat ez baiña bi dirala jainkoak.

Bi itz oietatik, Nizea'ko Kontzilioaren "homousios" ura izan da Elizak, biziro egoki, bere kredora sartu duana.

* * *

Sortua izan zan urtean bertan, 358'an lortu zuan bere garaitzarik aundiena "homousios" itz berriak. Sirmio'n. Berriro an egindako sinodo batean.

Urte bete lenago, 357'an, Sirmio'ko Sinodo artan Ursazio eta Balente balkandarrak izan ziran batzarraren gidari. Orain ordea, --aldatu bait da politikaren giroa Antzira'ko Basilio da batzarraren zuzendaria eta bere alde du inperatorea. Ez da beraz arritzekoa Semea Aita'ren "homousios" dala esanez bertan eratu zan "kredoa" ain errez garaille irten izatea.

Ez dezagun gaiñera aantzi, Atanasio'k esan zuala, "homousios" arek zentzu zuzena bazuala. Eta ori bera esaten zuala Poitiers'ko Ilario Doneak ere, naiz biak "homousios" itzaren ain aldekoak izan.

Ta geiago dana, ez dezagun aztu itz ori, "homousios", ontzat artu zuala Liberio Aitasantuak ere, Sirmio'ko sinodo berri onen sinistaraua izenpetu zuanean.

Izenpetze orrek sortu zuan ordea "Liberio Aitasantuaren Auzia". "Osio'ren Auziaren" antzekoa? Ez.

Alde batetik, Liberio'k izenpetutako sinistaraua, Sirmio'ko irugarren sinistaraua, zentzu onean artu ziteakana zalako. Osio'k onartu zualako beste arek ordea, Sirmio'ko Bigarren Sinistarauak, zentzu zuzenean nondik arturik ez zuan. Zearo bait zan erejizkoa.

Best'aldetik, Osio'k sinistarau ura onartu zuan edo ez, ziurki ez dakigulako. Seguruaski, ez. Liberio'k ordea bai; Liberio'k beste

au onartu zuala uste dute edestilarien artean askok, Liberio'k berak lau eskutizetan ori esaten omen dualako, naiz eskutiz oiek egiazkoak diran edo ez, eskierki gauza jakiña izan ez.

Ar dezgun egizat, Liberio'k sinsitarau ura izenpetu zuala, eta orduan au izango da aurrena aurkeztuko zaigun arazoa:

Liberio'k izenpetu zuan Sirmio'ko irugarren sinistarau ark egiazko zentzu katolikoan artua izan ba'zitekean, i, Liberio Aitasantuaren auzia zergaitik sortu zan? Liberio Aitasantuak, ori egitean, ori egin zuala egia ba'da koldarki jardun zualako.

Izenpetze ari-buruzko auzia ez da teologizkoa, Sirmio'ko irugarren sinistarauak zentzu zuzena bazuan ezkeror. Auzi ontan ez dago ezbaiean aitasantuen utsezintasuna. Soilki Aitasantu baten duintasuna dago jokuan.

"Brise par les années d'exil", "Erbesteango urteek makaldurik" egin omen zuan Liberio gaixoak izenpekata ori (Marrou).

" Abatido por el exilio de Tracia, y bajo presión de obispos arrianos, abandonó su actitud anterior y al fin condenó a Atanasio, aceptó la comunión con los adversarios de este" (Jedin).

Or zegoan Liberio'ren pekatua: Liberio'k ez zituan Nizea'ko Kontzilioa eta Kontzilio arek "Semea Aitaren homousios" zala erakutsiz eratu zuan Sinistarau gaitzetsi. Baiña orain Kontzilio aren eta Kontzilio ark erakutsitakoaren gaindik sinistarau berri bat, "Semea Aita'ren homoiusios zala" esaten zuan sinistarau berria onartzarekin, urduritasun gaitza eta nora-jo-ez-jakin larria sortzen zituan katolikoaren artean. Aitasantu batek egin ez dezakean gauza.

Eta bere lagunak, berak une artara arte bezala Nizea'ko Kontzilioa eta Kontzilio aren irakaspenean, zigor guztiak jasanez, ain kementsu zaindu ta babestu zituzten lagun aiek gaitzestean, gaitzetsi zituala egia ba'da karitatearen aurka egin zuan oben aundia.

"Liberio expiarfa amargamente aquella condescendencia (con el emperador) que nth que un fallo en teología significaba una falta de carcter y una flaqueza humana" (Id).

Ori da, Liberio'ren aurka, Elizaren etsai guztiek eta edestilari

katoliko askok ere esan oi dutena. Neri ordea ez zait jardunketa ori, bereala agertuko dedan bezala, jokaera zuzena iduritzen.

Oben (?) aren truke, eman omen zion Kostantzio'k Erroma'ra itzultzeko baimena. Baiñan arrezkero ituna izan omen zan Liberio'-ren bizitza. Entzun:

"Cuando en 358 le permitid el emperador regresar a Rorna, le requirid a compartir con su "sucesor" Fëlix el cargo y la dignidad de obispo de Roma. Si bien el exiliado que volvfa a casa gozaba de las simpatfas de los romanos, y Felix se vefa por ello forzado a bandonar la ciudad, fuera de Roma habia quedado tan menoscabado su prestigio que ya no volvid a desempeñar papel especial en las controversias de los años siguientes" (Jedin).

Alexandri'ko Atanasio Donea gelditu zan, Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak erakutsitakoaren zaintzaille, babesle eta aldezle ia bakarral Beste guztiak erbesteraturik bait zeuden!

Ta? Liberio Aitasantuak Eliza Felix sasiaitasantuarekin batera jaurtzeko Kostantzio'k emandako aginduari-buruz zer esan?

Agindua Liberio'ri ez baiña Erroma'ko erriari emana izan zala. Kostantzio'k berak ezarri zuan Felix sasiaitasantu; sagaratua ere, Kostantzio'ren jauregian izan bait zan Felix ura gotzai sagaratua.

Orain, bere lengo jardunkera baldar ori ezereztu nai ez-ta, Kostantzio'k, eskutitz bat idazti zion Erroma'ko erriari Sirmio'ko sinodoan oraindik bildurik zeuden gotzaien bidez.

Ona zer eskatzen zien erromatarrei sinodotarren eskutitz ortan: "Que Ies (deux) ev4ues occuperaient ensemble la siëge apostolique et feraient d'accord les fonctions sacerdotales; qu'il fallait jeter dans l'oubli tous les evenements fâcheus qui s 'taient produits propos de l'ordination de Felix et l'absence de Libre": "Bi gotzaiek eseriko zirala, batera, Donekeparen aulkian. Eta batera egingo zituztela jaupari-ekintza guztiak, eta azturik gelditu bear zutela Felis'en sagaraketari eta Liberio'ren erbesteraketari-buruz sortutako istillu nekagarri guztiak" (Sozomeno. Frantzerazail]e, Fliche-Martin).

Ez Liberio'k ez Erroma'ko erriak ez zien Kostantzio'ren eskari

zoro orri jaramonik egin. Alderantziz, "Jainko bat; Kristo, bat; Gotzaia, bat" oiuka onartu zuan erriak Liberio Erroma'ko karriketara, Atanasio'k dioskunez. "Eriotzak ere izan omen ziran" *usque ad caedem prorumperet* Erroma'n sortu ziran zalaparten ondorioz (Sozomeno).

Erriko jendeak oso maitea izan zuan beti Liberio, eta erri arekin batera egin nai nioke nere ustez merezi duan goratarrea. Ez bait zait iduritzen ain aundia Firmio'ko irugarren sinistarau izenpetzerakoan egin zezakean obena. Are geiago, izenpetze ura oben izan zanik ere ez bait zait iruditzen. Zergaitik?

- Sinistarau arek, "homoiusiostarra" izanik, zentzu zuzena bazualako;

- Atanasio bera, ariozaleak erakartzeko sinistarau uraxe berbera erabiltzearen aldekoa zalako.

- Liberio ere, Atanasio bezala, sinistarau aren balio ortaz jabetu zalako.

- Balio ortaz jabetu ez ba'litz sinistarau ura izenpetuko ez zualako. Bere edesti guztia da orain esan dedan azkeneko atal onen lekuko. Ikus:

Liberio'k tinko eman zion aurpegi inperatoreari Aitasantutza artu zuan lenen unetik. Eta, bereiziki izenpeketa aren aurreko denboran.

Bera ere orduantxe erbesteratua izan zan Poitiers'ko Ilario dugu guzti onen lekuko. Ikus bere "Contra Constantium" liburutik euskeratutako zati au:

Eusebio izeneko iren bat bidali omen zuan Kostantzio'k Erroma'ra, doai ederren bidez aurrena, eta ori naikoa ez ba'zan zemai gogorren bidez gero Atanasio gaitzestera Liberio beartu zezan. Eta izan omen zan, zikiro aren bidez, Liberio'k Kostantzio '-ri eman zion erantzuna:

"Zerorrek ikusi, eskatzen didazuna egin daitekean gauza dan edo ez. Sinodo batek aurrena, eta mundu guztitik jendea bildu zuan bigarren sinodo batek gero, errugabea epaitu zuan Atanasio. Eta, orregaitik, Erroma'ko Elizak berak ere pakea emanez agurtua izan

zan Atanasio. Ta, zuk, orain, nik gizon ori gaitzetsi dezaketala uste al duzu?

"Inperatoreak Elizaren pakea gura ba'du, eta pake ori lortzeko, nik Anastasio'ren alde agindutakoa ezereztea nai badu, ezereztu beza berak Atanasio'ren aurka eta Atanasio'ren lagun guztien aurka besteek egin duten guztia, eta bildu dezagun Eliz-Batzar bat, inperatorearen jauregitik at. Ez bedi batzar ortara inperatoreak bidalitako konterik sartu, eta ez bedi inperatorearen epaillerik etorri zemai-bidez batzarkideak ikaratzera.

"Bedi batzar ortako bildur bakarra Jainkoaganako bildurra, eta bitez bertako lege ta agindu bakarrak, Apostoluengandiko legeak. Bertan egin bear dan aurreneko gauza, Nizea'ko Kontzilioan gure Asabek erakutsi ziguten bidetik Elizaren sinispidea sendotzea da. Bearrezkoa da, batzar ortatik Ario'ren jarraileak uxatuz, bertan sinispide zuzeneko gizonak bakarrik onartzea".

Oiek danak, Liberio beraren itzak dira.

Inperatore zakarrari orrelako mezua bidaltzeko gauza izan zan Aitasantuak ez zuan Sirmio'ko irugarren sinistarau ura izenpetuko, esannai zuzena bazuan sinistarau ura "arianitar" zintzoak Elizaren batasunera erakartzeko egokia izan zitekeala, Atanasio'k eta Ilario'k bezala uste izan ez ba'lu.

Zemaika atera omen zan Eusebio Trena Liberio'ren aurretik. Orduan utzi zituan ekarri zituan doaiak Kepa Donearen jauretzeko aldarean; bereala Liberio'ren aginduz jauretzetik kanpora atereak izan ziran doaiak! Ez zuan ekintza onek, jakiña, ezer askorik balio izan Kostantzio'ren mutur sumindua goxatzeko.

Ozpindu zan Milan'en zegoan Kostantzio, eta berealaxe agindu zion Leontzio Erroma'ko jaurleari, Liberio Milan'era eramateko.

"La tche etait difficile, car Libere etait tres aime des romains", "eginkizun zailla, txit maitea bait zuten erromatarrek Liberio" (Fliche-Martin). Ala, gauez eta ixillean izan zan Aitasantua katigu artu, eta Milan'era eramana. "La presence de l'empereur n'effraya pas le pape" (ib): "Inperatorearen aurpegiak ez zuan Aitasantua ikaratu".

* * *

Teodoreto'k gorde digu Liberio eta Kostantzio'ren arteko mintzoa, ezaguna dugun Eusebio irena eta Centumcellae gaur Civita Vecchia'ko Epikteto gotzaia, une artan inperatorearekin zeudela jakiñeraziz.

- Inperatoreak, Atanasio gaitzesteko eskatzen dio Aitasantuari. Ordurako mundu guztiak gaitzetsi eta kontzilio baten erabakiz, elizaren altzotik jaurtia omen zegoan ba "erokeri gaizto okerrez" -- " nefariae impiae dementiae" orbandutako Atanasio.

Tiro'ko kontzilioa zeukan, ori esaterakoan, inperatoreak gogoan. Aitasantuarentzat ordea, batere ez zuan balio sasikontzilio biurri arek. Orregaitik erantzuten dio:

- "Iudicia quiden ecclesiastica, o Imperator, summa cum aequitate fieri debent": "Egiazko eliz-epaiketak, Inperatore, zintzotasun guztiz egiñak izan bear dute".

Gero, Atanasio epaitzeko beste kontzilio bat bildu daitekeala jakiñerazten dio, eta Atanasio gaitzetsiko duala berak ere, baiñan soilki epaiketa ura "Prout ordinis ecclesiastici formula postulat", ots, "Eliz-Legeen araura egiten ba'da", eta orrela egindako kontzilio onek Atanasio gaitzesgarri dala erabakitzen ba'du. Izan ere, "guk ezin bait dezakegu epaitzeke iñor gaitzetsi": "Nam fieri non potest ut quemquam condemnemus, de quo non factum sit iudicium".

- Inperatoreak: Mundu osoak gaitzetsi du Atanasio.

- Aitasantuak: Zugandik esker ona lortuko zutela uste zutelako, batzuek; eta zure asarrepera jausi nai ez-ta, zukanako bildurrak ikaratzen zitualako, geienek. Oiek izan dira Atanasio gaitzetsi dutenak.

- Inperatoreak: Zer esker on, zer asarre, eta zer bildur?

- Aitasantuak: Gaitzespena eman zuten aien zukanako bildurra. Eta, zure esker onetiko doaiak Jainkoaganako bildur santuaren gaindik ipiñiz, gaitzetsi-bearrari entzuteke egiazkoa izan ez zitekean epaiketa batean gaitzespena eman zuten aien kutizi baldarra. "Ori

egitea kristau-legeen aurkakoa bait da oso-osoan": "Quod est a christianorum officio plane alienissimum".

- Inperatoreak: Tiro'ko kontzilioan ordea Atanasio aurrean zutela gaitzetsi zuten an izan ziran "mundu guztiko" gotzaiek.

- Aitasantuak: Atanasio'ren aurrean, ez ziran egiazko epaiketarik egiteko gauza izan. Ura joan zanean jaurti zioten gaitzespena, eta ori orrela egitean, "temere et inconsulte", ots, "pularnenturik gabe eta ergelegi" ibilli ziran.

- Eusebio Trenak: Nizea'ko Kontzilioak ere gaitzetsi zuan Atanasio.

- Liberio'k, ori ukatuz gero, izketaldi luzexamar batez sendo egiten du Atanasio'ren babesketa, Ursazio, Balente, eta gaiñerako aren etsaien jardunkera itXuzituz.

- Epikteto "Centumcellae"ko gotzaiak: "Ez da Liberio orrela mintzaten ari sinispideari edo eliz-epaiketen erari-buruzko zioek eraginda, baizik eta arrazoiketean inperatorea garaitu duAla-ta bere burua Erroma'ko senatoreen aurrean arro agertzeko gai izan nai dualako". "Non fidei causa, Imperator, neque iudiciorum ecclesiasticorum faciendorum studio adductus Liberius hunc instituit sermonem, sed quo possit apud senatores romanos gloriari, se rationibus Imperatorem superase".

- Inperatoreak: "Tantane orbis terrae pars, Liberi, in te residet", ots, "mundu guztiak aiña balio al duzu zuk, Liberio", mundu guztiak gaitzetsi duan gaizkille bat babesteko, eta orrela munduko pakea arriskuan ipintzeko?

- Aitasantuak: Ni ortan bakarra naizela? Bedi. **ori egia** ba'liz ere, ez litzake orregaitik egiak berez duan arrazoia aulagoa gertatuko. Bakarrik nagoala zure aurrean? Antziña ere iru gizon bakarrik izan ziran, erregeari ezetz erantzuteko gauza!

Ori entzuteak, Itun Zarrera eraman-bide zuan Eustakio irenaren burua, eta onela egin omen zuan oiui:

"Gure Inperatorea Nabukodonoser'en kide egin nai al duzu"?

- Aitasantuak inperatoreari: "Ez orixe!, baiñan zuk ere gaur, arek orduan bezalaxe epaiketarik gabe eman nai duzu zure gaitzes-

pena".

Ori esanda, zer egin bear dan aurkezten dio inperatoreari Aitasantuak:

- "Aurrena, munduko gotzai guztiei Nizea'ko Kontzilioa ontzat ar dezatela eskatu.

"Gero, askatasun osoa eman erbesteraturik aurkitzen diran gotzaiei, beren aulkietara itzuli aal ditezen.

"Eta, azkenik, ori eginda gero, Alexandri'n, ots, Atanasio'ren gotzai-urian bertan gotzai guztiekin kontzilio berri bat egin.

Epikteto Centumcellae'ko gotzaiak: Ori egin aal izateko Laterriaren asto, zaldi ta gurdi guztiak ez lirake naikoak izango!

- Aitasantuak: Elizak ez du Laguntzarik eskatzen. Badu berak ori egin aal izateko gaitasunik aski.

- Inperatoreak: Zu bakarrik zera "impüi" edo "eraspengabe" orren adiskidea.

- Aitasantuak. Ez da sekulan entzun, Inperatore, erruduna epailleen aurrean egoteke, iñor zintzoki gaitzetsia izan danik. Ori, zuzentasunezko epaiketa baiño geiago, nor bakoitzaren gorroto-ekintza izango bait litzake.

- Inperatoreak: "Ez da iñor, Atanasio'k iraindu ez duanik. Ni neroni ordeba beste guztiak baiño geiago". Kostantino nere anai zarrenaren erailketaz asetzeke, Kostante nere anai gazteena, "nere aurka ipiñi naiez atertzeke ari izan bait da lanean": "nunquam cessavit ad inimicitias nobiscum suscipiendas incitare". Orregaitik, Magnentzio eta Silbano garaituz lortu nuan "garaitza aintzagarri" edo "praeclaram victoriam" ura baiño atsegiñagoa zait gizon ori Elizatik eskomikatzea.

- Aitasantuak: "Ez, arren, inperatore, zure areriotasunaren izkillu lez Elizaren gotzairik erabili": "Noli per episcopos tuas ulcisci inimicitias". Ezer egiten asi aurretik itzuli itzezu beren gotzai-aulkietara orain erbesteratuta dauden gotzaiak. Bildu bitez gero, Nizea'ko Kontzilioan erabakitakoa onartzen duten guztiak kontzilio berri batean, mundua pakeratzeko egokia daitekeana erabaki dezaten. Ez bedi beintzat iñoiz esan errurik gabeko gizon

bat izan dala epaiketarik gabe gaitzetsia".

- Inperatoreak: "Gauza bakar bat nai dut nik": "Unum volo". Zuk emen Eliz osoarekin bat egitea. Eta gero Erroma'ra pakean itzultzea. Pakeari omen egiñez, izenpetu ezazu ba Atanasio'ren gaitzespena, eta itzuli zaitez Erroma'ra.

(Irakurle: Ez zaitez arritu, inperatorea Atanasio gaitzetsi nairik, orren setatsu ikusten ba'duzu. Oroi ezazu, Atanasio'ren etsai zirala, garai artan, Eliza'ko gotzairik geienak ere. Arritzekoa al dugu, ori gogoratu gero, inperatorearen jardunkera?).

- Aitasantuak: Ongi eraturik utzi ditut Erroma'n gauzak. Elizaren legeak zaintzea, geiagotzat bait daukat Erroma'n bizitzea baiño" : "Leges ecclesiasticas observare, pluris faciendum censeo quam habere Romae domicilium".

- Inperatoreak: Iru eguneko epea ematen dizut, zer egin oldoztu dezazun: Edo gaitzespena izenpetu ta Erroma'ra itzuli, edo zein beste urira eramana izatea nai duzun erabaki.

- Aitasantuak: Iru egun, edo iru illabete, nik ez dut aburuz aldatuko. "Bidali nazazu oraintxe bertan, nai duzun tokira": "Mitte me quo lubet".

- Inperatoreak, bere ingurukoei: Bi egunen epean Liberio'k ez ba'du aburuz aldatzen, Trazi'ko Berea'ra erbesteratua izatea nai dut.

Len esanik utzi dugun bezala, inperatoreak "quingentos aureos", "bosteun urrezko diru", bidali omen zizkion konte baten bidez Liberio Aitasantuari. Eta Liberio'k orduan konteari: "Abi, et istos ipsos aureos redde inperatori. Siquidem eis opus habet ad militum stipendia": "Zoaz eta urrezko bosteun auek itzuli eizkiozu inperatoreari. Agian gudarien saritzat bearrezkoak izango ditu-ta".

Itz auen bidez, ez zitzaiola asarretu adierazi nai izan zion Kostantzio'ri Liberio'k. Bazekian bA, gelditzeke pertsiarrekin borrokan ibilti zan inperatore ura, gudarien sariak ordaintzeko, diruz urri ibiltzen zala beti.

Guzti orren berri jakitean, inperatemea izan zan Liberiolri beste ainbeste urrezko bidali ziona. Itz berdiñen bidez itzulierazi

zuan Liberio'k Andre aren mezularia:

- "Erama'izkiozu diru oiek ere inperatoreari; asi bearren aurkitzen dan guda-ekintzarako bearrezkoak ditu-ta".

Eusebio iren ark ere, eman nai izan zion diru-laguntza oparoa. Ez zion ordea Liberio'k onartu nai izan: "Zu, Eusebio, gure elizak lapurtzen ibilli zera. Ta orain, erbestera galdurik eta txiro ikusten nauzulako, laguntza eskeiiiiiz zatozkit. "Zoaz, eta kristau egin zaitez aurrena". "Abi primum ut christianus ipse fias".

Inperatorea, inperatemea, Eusebio irena bera, danak, Aitasantu garaituari laguntzeko leian! Ez al dirudi, auzi ontan, garaitua izan zala garaille?

Arrazoi aundiz "victor", "garaille", esaten dio Liberio Aitasantuari Teodoreto edestilariak: "Iste strenuus ueritatis propugnator et uictor illustris, Liberius": "Egiaren aldeko borrokariari sendoa ta garaille dizdirakorra: Liberio".

Ez. Garaille sendo orrek ez zuan sekulan Sirmio'ko irugarren sinistarau ura izenpetuko, elizaren batasunerako, egiazko zentzua bazuan sinistarau ura izenpetzea, gauza egokia zitzaiola ikusi ez baTu.

Atanasio gaitzesteaz izan zan beraz Liberio'k egindako pekatua. Bainan egia ote da, ikusi dugun bezala inperatorearen aurrean ain gizonki babestu zuan lagun zar maite ura gaitzetsi zuala?. Garai artako gertakizunak ez bait zaizkigu oso jakin-errezak izaten.

Egia da, beste arazo guztien gaindik Atanasio'ren gaitzespena nai zuala Kostantzio'k. Sinispidearen izenpetzeagaitik ez zitzaion artaraiñako ajolik. Atanasio nai zuan menderatu.

Ori lortu zualako, esan oi da, Liberio'ri Erroma'ra itzultzen utzi ziola.

Beste gauza bat esaten digu ordea garai artako Teodoreto edestilariak: Erroma'ko agintari eta aundikien emazteak izan zirala "splendide ut solent et magnifice amictae" "oiturazkoa duten lez apain eta dotore jantzirik"--, Erroma'ra iritxi berria zan Kostantzio'gandik Liberio'ren itzulpena lortu zutenak.

Izan zuan beraz "praestantes illae feminae" edo "emakumezko

garai" aien izketak eraginmenik aski, eta "inperatoreak, unkiturik, artzai txit ospetsu ura, Liberio, Erroma'ra bir-ekarrita, Liberio'k eta Felix'ek, biek batera Erroma'ko Eliza jaurtu zezatela agindu zuan": "Qua causa sic inflectebatur imperatoris animus, ut pastorem illum longe praestantissimum Romam redire et utrosque communiter inter se ecclesiam illam regere iuberet".

"Ori agintzen zuan Kostantzio'ren gutuna Erroma'ko zirkoan izan zan irakurria, eta, aurreneko une artan, ontzat artu zuan Erroma'ko erriak": "Itaque, lectis Imperatoris in circo litteris, plebs clamat aequam esse Imperatoris sententiam".

Bereala oartu ziran ordea erromatarrak, Erroma'n bi Aitasantu izatea zentzurik gabeko txorakeria zala, eta "inperatorearen agindu ura irrigarritzat artuz, ago batez asi ziran oiuka: "Jainko bat, Kristo bat, Gotzai bat": "Itaque cum hoc modo Imperatoris litteras irrisione lusissent, omnes uno ore uociferantur: Unus Deus, unus Christus, unus Episcopus".

Oiu oien ondorioz, igesi joan bear izan zuan Felix sasiaitasantua Erroma'tik.

Orrela, Erroma'ko erria izan zan Liberio'ren auzia konpondu zuana.

Liberio ordea..., i, zergaitik itzuli ote zan erbestetik yare? Atanasio gaitzestera koldarki makurtu zalako?. Ala, Erroma'ko emakumezko pinpirin aiek inperatorearen naimen ona irabazi zutelako?

Zuri, zer iruditzen zaizu?

Danadala jakin bear duzu, emakumezko aundiki aiek ez zeudela bakarrik Liberio'en askatasuna eskatzerakoan. Aiekin bat egiñik zegoala Erroma'ko erri guztia, eta Kostantzio'k ori bazekiala, Erroma'n sartu zan egun beretik.

Ona nola itzegiten digun ortaz Sozomeno'k: "Imperator vero, ut primum Romam ingresus est, et ingens ibi populi multitudo pro Liberio clamorem edidit, eumque denuo habere postulauit, consilio cum episcopis qui secum erant inito, decreuit eum reuocare et populo petenti reddere, si modo episcopos quos secum haberet

consentire in animum induceret".

Euskeraz:

"Inperatorea Erroma'n sartzerakoan, jende multzo aundi bat, Liberio'ren alde oiuka asi zitzaion, aren itzulpena eskatuz. Inperatoreak orduan, berekin zeuden gotzaiekin itzegin ondorean, Liberio erakartzea erabaki zuan, aren etorrera eskatzen zion erriari amore emanez.

Berekin zekarzkian gotzai aiekin itzegin omen zuan!

Gotzai aiengaitik ezer gutxi ajola zitzaion Kostantzio'ri, eta, aien iritzi ori aipatzerakoan, ez zuan auzia luzatzea besterik billatzen.

Orregaitik, gotzai auek ez baiña, bigaramonean irripar goxoz aurkeztu zitzaizkion emakume xarmagarri aiek izan ziran, aien atzetik zegoan erriaz gaiñera inperatoreari irten-bide egoki bat aurkeztu ziotenak:

Emakumezko batzuei Liberio'ren itzulpenerako amore ematean, ez zan Kostantzio, berperaz ori bera ain asarre oiuka eskatu zion erriaren bildurrez ikaraturik makurtua bezala agertzen.

Alderantziz, emakume aien eskea onartzean, esku-zabal eta biotz-aundi agertzen zan. Eta, gaiñera, senatarien maillekoak ziran emakumezko aundiki aien eskaria zaldunki onartze aren bidez, Erroma'ko Senatuari zion eraspina erakusten zuan Erroma'ko erri guztiaren aurrean.

* * *

Amaitu dezagun "Liberio Aitasantuaren Auzia" laburpentxo baten bidez:

- Izenpetu al zuan Liberio'k Sirmio'ko Irugarren Sinistaraua? Baietz uste du "Catholicisme" iztegi bikaiñak ere: "Il souscrivit la troisi me formule de Sirmium": "Izenpetu zuan Sirmio'ko irugarren sinistaraua".

- Bedi. Ar dezagun ontzat Antzira'ko Basilio'k asmatutako sinispide ura izenpetu zuala. Izenpetze artan ez bait zegoan aitasan-

tuen utsezintasuna jokuan, sinistarau ark egiazko zentzu zuzena bazuan ezker. Liberio bera ez ezê', uste ontakoak izan ziran orduan bertan garai artako bi gizon katolikorik ospetsuenak; Aldareetan dauzkagun santuak biak: Atanasio alexandritarra eta Ilario Poitiers'ko gotzaia. "Athanase et Hilaire, bien que conscients des insuffisances de cette thth)logie, acullirent avec sympathie la declaration de Basile d'Ancyre" (Catholicisme): "Atanasio'k eta Ilarlo'k naiz, (Sirtnio'ko irugarren sinistarau ark bere baitan zeraman) teologiaren urritasunaz jabetu, abegi onez artu zuten Antzira'ko Basilio'ren sinistarau ura".

- Ez da ordea Liberio'ren izenpeketa ori "Catholicisme" k uste duan bezain egi ziurra. Entzun ura bezain iztegi ospetsua dan "Encyclopaedia Britannica" k dioskuna: "After some years the emperor recalled Liberius into Rome, possibly because he signed an unorthodox formula".

Agian, --possibly izenpeketa ura egin zuala Liberio'k uste du iztegi onek. Nere aburua ezaguna duzu. Goraxeago agertu dizudanez, nik ez bait dut uste Liberio'k ezer izenpetu zuanik!

Agian, possibly izenpetu zuan sinistarau ura siniste okerrekoa, --unorthodox izan zala uste du iztegi orrek berak. Eta ortan oker dago. Sirmio'ko Irugarren Sinistaraua ezaguna dugu. Semea zertasunez Aita'ren antzekoa dala aitortzen digu: Aita'ren "homoiusios": eta, agertu dugun lez, itz ori zentzu katoliko zintzoan artu daiteke.

Baiñan, Liberio Aitasantuak izenpetutako sinistarau ura, erejizkoa dala agertuko ba'litz, **Ez al litzake orduan aitasantuen utsezintasuna kolokan gertatuko.**

Ez. Aitasantu batek utzeziña izateko, "ex cathedra" itzezin bear du: "maixu-aulkitik". Ta zerbaitek "ex cathedra" esana izateko, "rebelazio" edo "jainkoak irakatsitakoei-buruzkoa" izateaz gaiñera, beste bi baldintza beti bear ditu: Aitasantuak askatasun osoan esana izatea, eta Aitasantuak bere utsezintasuna erabilli nai duala argiro adierazi ondorean esana izatea.

Bi baldintza auek bete dirala, ziurki jakiña izan bear du Elizak,

zerbait "ex cathedra" esana izan dala sinisteko, eta, orren ondorioz, orrela esandako ori dogmatzat artua izan bear duala erakusteko.

Liberio'ren izenpeketarakoan ordea baldintza oiek ez zirala bete, ziur badakigun gauza da.

Gaiñera, Liberio'k izenpetutako sinistarau ura, zentzu zuzenean artua izan zitekeala badakigun ezkerero, siniste okerrekoa, ots, erejizkoa ez zala ere ziur dakigun gauza da.

Ez ote zuan b Liberio'k, zerbait izenpetu ba'zuan --, izenpeketa ortan pekatu egin?

Ez, izenpetu zuanaren aldetik, izenpetutako sinistarau ark zentzu ona bazuan ezkerero. Bai ordea, izenpetze ura egin zuan eraren aldetik, ezer argitu gabe izenpetu ba'zuan beintzat. Elizabarrungo urduritasuna eta naasketa eragozteko, bere ekintza aren zio eta zentzua adieraztera bearturik bait zegoan: adibidez, egitarau arek zentzu ona bazuala eta berak zentzu orretan izenpetzen zuala adieraztera bearturik zegoan.

- Ez ote zuan ezer orrelakorik esan? Nola egiña izan ote zan izenpeketa ura?

Nork jakin! An, Liberio'ren inguruan, jende ariotarra besterik ez bait zegoan!

Gaiñera, Sozomeno edestilariak dioskunez, garrantzi aundiko zerbait atera aal izan zuan Liberio'k Ursazio eta Balente gotzai ariotar sutsuengandik: bi gotzai borroklari aiek onako au ontzat artzen zutela aitortzea alegia: Semea'ren zertasuna zearo eta gauza guztietan dala Aita'ren zertasanaren antzekoa!

Era ortan artua izan ezkerero, ez al da "homoiusios" itzaren zentzua Nizea'ko Kontzilio Ekumenetarrak "homousios" itzari eman zion zentzua bera? Erduango beste teologilari eta gotzai batzuek bezala "ousia" itzari beste zentzu bat, "nortasunaren" zentzua emango ba'genio, Semea Aita'ren "homousios" dala esatean, Semea Aita bezala "ingenitus" edo "ez-sortua" egingo bait genuke guk ere, Aita'ren nortasuna "ez-sortua" dalako.

Alare, naiz Liberio'k izenpetu omen zualako sinispide ura egiazko zentzuan artua izatea posible izan, eta Ursazio'k eta

Balente'k Liberio'ren aurrean ain aitorten ederra egin, Sozomeno'-ren ustez ez zuan sekulan Liberio'k ezer izenpetu. Ezta Teodoro'ren ustez ere. Naiz garai artakoak izan biak, ez bait dute aren izenpeketarik aipatu ere egiten.

- Egia ote da Atanasio gaitzetsi zuala? Ez seguruaski.

Gaitzespen orren aipua Ilario'ren "Idazti-Zatietan" aurkitzen diran Liberio'ren lau eskutizetan aurkitzen da. Baiñan eskutitz oiek egiazkoak diran jakiterik ez dago. Ilario'k berak ere ez zien iritzi onegirik agertu. Naikoa da bat irakurtzea, Liberio'k idaztiak ez dirala edozein oartzeko. Eskutitz ortan, inperatorearen aurrean ain gizon ikusi dugun Liberio, ez gizon eta ez gixon, kemenik eta lotsarik ere gabe, narrazka dabillen barea bezala agertzen bait da. Eta orrelako bare bat mintzatu daitekean bezala mintzaten bait da.

Arrazoi duala "Encyclopaedia Britannica" k Liberio'ren auzi osoari-buruz: "The history of the matter is so confused that it is impossible to determine precisely the concessions which Liberius may have made to Constantius": "Arazo onen edestia ain nasi-illuna dalako, Liberio'k Kostantzio'ri zertan amore eman zezaiokean ziur esaterik ez dagoala" aitortzen duanean.

"Zertan eman zezaiokean". Ederki. Ez, "zertan eman zion". Bearbada ez bait zion ezertan amorerik eman!

* * *

Beste zerbait geiago badut Liberio Aitasantuaren errurik ezaren alde estekoa:

Zerbait Sirmio'n izenpetu zuala esaten dutenek beraiek, ez dakitela zer izenpetu zuan ere.

Batzuek "Sirmio'ko sinistarau bat eta besteak beste bat aurkezten bait digute ark izenpetua bezala. Ikus:

"Si realmente firmö alguna fórmula, esta fórmula hubo de ser la PRIMERA de Sirmio" (Espasa).

- "Sea lo que fuere de sus cuatro cartas llamadas "de la cautividad " en las que anuncia su cambio y cuya autenticidad todavfa se

discute, parece difícil negar que Liberio suscribiera UNA O VARIAS de las fórmulas de fe de ortodoxia discutida" (Roger Gryson'ek GER'en). Dakuskunez, edestilari onek ez daki Liberio'k zer izenpetu zuan ere.

- Opusdeitarren zaindaritzapean argitaratutako iztegi ortan bertan onela mintzaten zaigu A.M.Monje teologiaria:

- "La mayor parte de los críticos, historiadores y teólogos afirma que Liberio no cayó en la herejía ya que no firmó la segunda fórmula de Sirmio sino la TERCERA que era defendida por los semiarianos pero que no era doctrinalmente herética sino ambigua. Según cuenta Sozomeno quiso además poner a salvo su ortodoxia personal añadiendo: "quien no acepte que el Hijo es semejante al Padre en la esencia y en todo, sea anatema".

- "Sirmium 358 voit Basile d'Ancyre l'emporter. C'est sa formule somme toute susceptible d'une interprétation orthodoxe que le pape Libère, brisé par les anis d'exil, accepte de signer" (Marrou): "Sirmio'k, 358'garren urtean Antzira'ko Basilio ikusi zuan garaille, onen sinistaraua, ororen gaindik zentzu zuzena bazuan sinistaraua, izan bait zan Liberio Aitasantuak, erbesteko urteek makalduta, izenpetu zuana". Sirmio'ke iRUGARRENA beraz. Ura bait zan 358'koa.

- Liberio, "suscribió una fórmula de fe rechazada hasta entonces, que probablemente es idéntica a la de Sirmio del año 351" (Jedin). Urte ortakoa, Sirmio'ko LENEN sinistaraua da. Baiñan, dakusazunez, Jedin bezalako edestilari aundi batek ere, ez daki Liberio'k zer izenpetu zuan, arek izenpetutako sinistaraua, agian probablemente beste ura bezalakoa zala bait dio.

- "Tandis que Libère et Ossius, affaiblis par l'exil et les privations acceptaient, dans une mesure difficile à déterminer, l'UNE des FORMULES de Sirmium..." (Dic. Hist. Geog. Ecc1). Onek ere ez daki zer izenpetu zan Sirmio' n: "Liberio'k eta Osio'k, erbestek eta erbesteketa artako neke gogorrek auldurik, naiz zenbateraino neurrian erabakitzea zail izan, Sirmio'ko sinistarauetako bat izenpetu zutela" bait diosku.

"E difficile dubitare che il ritorno al suo seggio vescovile sia stato guadagnato a Liberio a prezzo della condanna di Atanasio e dell'accettazione pubblica di UNA o DUE formule implicantanti ripudio della fede nicena" (Enc. Ital.). "Liberio'k bere gotzai-aulkirako itzulpena Atanasio gaitzetsiz eta agirian Nizea'ko sinispidearen aurkako beste sinispide bat, edo bi, onartuz lortu zuala, ez dirudi zalantzan ipiñi daitekean gauza danik".

- "Grand Larousse" iztegiak ere ez daki Liberio'k zer izenpetu zuan: "Dans l'exil eut la faiblesse de renier de sa première opinion... mais dans la suite, lors du concile de Rimini (359) il revint au catholicisme pur": "Erbestean, aultasunez, lenagoko bere aburua ukatu zuan... baiñan gero, RiminUko kontzilioakoan, itzuli zan ostera katolikotasun garbira".

- Fliche eta Martin'ek zuzendutako "Histoire de l'Èglise"k ez du uste Liberio'k ezer izenpetu zuanik, baiñan izenpeketaren bearrik ez zualako, ordurako makurtu omen zan bere lau eskutitz aien bidez ariotarren aginduetara. Ona zer dion liburu orrek Osio'ren izenpeketa aipatuz gero:

"Alla-t-on plus loin, et s'efforça-t-on d'obtenir également la signature de Libère? Cela est peu probable, car, au moment où se tenait la réunion de Sirmium, Libère avait déjà donné à l'Empereur Constance des gages de soumission. Quatre lettres, conservées par Sait Hilaire, sont pour nous les témoins de cette soumission."

Euskeraz:

"Aurrera joz, egin ote zan Liberio ere izenpenketara beartzeko saiorik? Ez da sinistekoa. Sirmio'ko batzar aren aurretik, Liberio'k eman bai zion Kostantzio'ri, bere menpekotasunaren adigarrik aski. Doneilario'k damaizkigun Liberio'ren lau eskutitzak dira, gure ustez, menpetasun aren adierazle".

(Dirudianez Sirmio'ko BIGARREN sinistarauaz ari dira emen bi edestilariek. Baiña sinistarau ura baiño aurreragokoak ote dira aipatzen dituzten eskutitzak? Ez noski).

- Geroxeago ordea, orri-azpiko oar batean, Liberio'k izenpetu-t4ko sinistaraua, "Sirmio'ko AURRENEKOA izan zala" diosku

liburu orrek berak: "c'est la premiere formule de Sirmium, celle de 351".

- Ez da aburu berekoa **H. Chadwick**. Liberio'k Sirmio'ko **BIGARREN** sinistaraua izenpetu zezan, egiñ-aal guztiak egin zirala adierazten bait digu. Eta Antzira'ko Basilio'ren "homoiusios" ari muziñik egin ez ziolako, Sirmio'ko **IRUGARREN**" sinistaraua onartu zuala. Ikus bere itzak portugalerazko itzulpenean:

"Valens falhara (uts egin zuan) na tentativa de conseguir a aprovação da sua doutrina pelo exilado de Roma, Liberio. Contudo, este pouco objectou a doutrina de Basílio de Ancira e, merce da sua adescão a essa fórmula (que exaltava a autoridade de Basílio), Constâncio permitiu-lhe o regreso a Roma em 358".

- Baiñan ori, Basilio'ren aginmena goratzea, ez zitekean Liberio'ri askatasuna emateko Kostantzio'k erabili zuan arrazoi izan! Kostantzio orduan zearo Basilio'ren aurka aurkitzen bait zan, Ursazio'ren eta Balens'en adiskide min egiñik zegoan ezkeru.

Nasketa geiegi, dakusazunez. Baiñan Liberio'k erbestetik idatzi omen zitualako lau eskutitz aiek aipatu bait dizkigute Fliche'k eta Martin'ek, dakusagun nolakoa dan, Liberio'renak diran iñork ez dakian ezkutitz oien mamia:

Aurrenekoa "Studens Paci", "Pake-Billa", deritzana Sortaldeko gotzaidiarentzat idatzia da, eta bertan Liberio'k, Erroma'n egin zuan kontziliara Atanasio'ri nola deitu zion eta au nola joan ez zitzaion esaten du. Eta arrezkeru "gauza berri asko jakin aal izan duala" dio, ta orregaitik Atanasio gaitzesten duala.

Bigarrena ere, "Pro Deifico Timore, Jainkoaren Bildurrez" esaten zaiona, Sorkaldeko gotzaidiari zuzendua du, gotzai aiei onako auxe esateko: Aien "alkarte" edo "komuniora" sartzan dala bera, aiekin bat egiten duala, Atanasio gaitzetsi duala, "gotzai askok Sirmio'n aurkeztu zioten sinistaraua izenpetu zuala", eta ori dana inperatoreari jakiñarazi diola.

Azkenik, inperatorearengandik Erroma'ra itzultzeko baimena lortu dezaiotela eskatzen die, arren eta arren, Sortaldeko gotzai.

Irugarrena, "Quia Seio Vos", "Badakit Zuek" itzen bidez asten

dana, Ursazio, Balente eta Germanio'ri zuzendua izan zan, eta bigarrenaren mamia ber-bera du.

Laugarrena, "Non Doceo", "Ez Dut Erakusten" itzen bitartez asten da. Itali'ko Kapua uriko gotzaiari, Erroma'ra itzultzeko bere guraria azaltzen dio. Itzulpen ori Itali'ko gotzaiak lortu dezaioketela uste du, eta gotzai aiek eginkizun ortara bultzatzea Kapua'koaren eskuetan ipintzen du.

Eskutitz oiek ikustea naikoa da Liberio'k idatziak ez dirala, edozein oartzeko. Orrelako zerbait aitortzen du aipatu-berri dugun Itali'ko Iztegiak berak: "L'incerta situazione delle nostri fonti", ots, eskutitz oie dagozkien "gure albisteen iturrien balioa ezin jakin izateak", eta "Je discussioni svoltesi fra studiosi pro e contro l'autentizita delle citate lenere", au da, "eskutitz oien egiztasunaren alde ta aurka jakintsuen artean sortutako eztabaidek"... hanno per riflesso agravato il problema storico de la questione", "asko zaillagotu dute, ondorioz, edestiko arazo onen ezagupidea" (Enc. Ital.).

- Filostorgio edestilariak, Liberio'k Sirmio'ko BIGARREN sinistaraua izenpetu zuala diosku, eta ori bera esango zuten gero, XIX mendean, I Batikan Kontzilioan Aitasantuen utsezintasunaren aurka mintzatu ziran gotzaiak. Filostorgio ordea zearo arriotarra izan zitzaigun.

Sozomeno'k, alderrantziz, Liberio'k beste gauza bat izenpetu zuala dio: Antzira'ko Basilio'k eta beste bi gotzai homoiusiostrarrek eratutako sinistarau bat izenpetu zuala.

Leenagoko iru sinsitarauen purtpurri bat zan sinsitarau ori. Bera burutzeko, Samosata'ko Paul erejearen aurka Antioki'ko kontzilioak (267) emandako erabakia, Fotino erejearen aurka Sirmio'ko sinodoak emandakoa (351), eta Antioki'ko kontzilioak (341) bertako elizaren sagaraketakoan aldarrikatutakoa erabilli omen zituzten gaitzat Antzira'ko Basilio'k eta bere adiskide ziran bi gotzai aiek: "decreta de Paulo samosateno et Photino sirmiano quinetiam formulam fidei in ecclesiae antiochenae consecratione editam in unum libellum congegissent".

Purpurri irukoitz orri ipiñi omen zion Liberio'k bere izenpena.

- Baiñan beste zerbaite ere izenpetu zuan Liberio'k une berean, naiz ori nola egin zuan, Sozomeno'n idaztitan argiegi egon ez: "Semea zertasunean eta gaiñerako gauza guztietan Aita'ren antzekoa ez dala esaten duten guztiak, Elizak gaitzetsiak dirala": "illis qui filium patri non substantia et caeteris rebus omnibus similem asseverarent, interdixit ecclesia".

- Ori guztia inondik jakin zuan ordea Sozomeno'k? Ariotarrek zabaldu zutenetik. Sirmio'ko une aietan ez bait zan ariotarra ez zanik Liberio'ren alboan egon. Oso lekuko txarrak, arras testigu makurrak, an gertatu zanaren fede eman aal izateko. Oso iturri zikiñetik jaso zituan beraz Sozorneno¹ k albiste oiek danak. Edo gizan ote zuan izkutuko beste iturri ezezagun bat?

- Arazo oni buruz, ziurki sinisgarri izan daitekeanik edestiak deus ere ematen ez digun ezker, sikologira jo bear dugu naitanaiez Liberio'ren arazoa argitu aal izateko, ez zaigu b beste biderik gelditzen. Liberio'ren sikologiaren azterketak berriz, arras garbi eta ziur utzi digu Liberio'k ez zuala Sirmio'n ezer izenpetu eta ez zuala an ezer okerra zitekeanik egin:

- Errugabea dala beraz Liberio Aitasantua.

* * *

Jarrai dezagun aurrera, 358¹ an Sirmio'ko Irugarren Sinistaraua onetsi zuan sinodo aren ondorean arianikeriak ibilli zuan bidetik.

Arianitarrak, une ontan, iru zatitan bereiziak ditugu: "anomoiostarrak", "homoiusiostarrak" eta "homoiostarrak". Sirmio¹ ko sinodo artan, "homoiusiostarrak izan ziran garaille, baiñan aien buruzagiak, Antzira'ko Basilio'k, ez zuan jakin, orduan berea zuan inperatorearen laguntzaz nola baliatu, naiz ordurako bere etsairik gogorrenak, "anornoiostarren" buruzagiak, Kostantzio'ren aginduz erbestaturik egon.

Basilio gizagajoak, inperatoreen adiskidetasunak zein errez aldatzen diran oroitzeke, Kostantzio'z azturik, Nizea'n bigarren

Kontzilio Ekumeniar baterako prestaketak egiteari ekin zion buru-belarri, an berak asmatutako "homoiusios" ura ofizialki Eliz Osoaren Sinistarau aldarrikatua izan zedin.

Ortan ari zalarik, beste gotzai batzuk eta aien artean Ursazio eta Balente urbildu ziran Kostantzio'rengana, eta aren onginaia irabazi.

Batera bi kontzilio ospatzea aurkeztu zioten aiek inperatoreari; bata sortaldetarrentzat, eta sartaldetarrentzat bestea. Pozik entzun zien inperatoreak. Sortaldeko gotzaiak bereak zituala bazekian. Eta Sartaldekoak Milan'go Sinodoan-da beren aukeria erakutsi zioten ezkerero, ziur zegoan oraingoan ere, txintik esan gabe onartuko ziotela berak aurkeztuko zien sinistaraua.

359'an egin zan sinodo bikoitz ura. Asi Txiki'n, Isauri Probintzi'ko Seleuzi'n sortaldetarrena, eta Itali'ko Rimini'n bestea sartaldetarrentzat. Aurretik, Bazkun bat bildu zan Sirmio'n bertan, bi kontzilioetara aurkeztu bearra zan sinistaraua gertutzeko. Bazkun artan eraginmenik aundieneko gotzaiak Ursazio eta Balente izan ziran, "los mudables Ursacio y Valente" (Jedin). Eta, ostera bi gotzai istillulari auek Kostantzio'ren ongina osoaren jabe ziralako, beraiena da Bazkun ark onartu ta aladarrikatu zuan sinistaraua.

Arriturik ikusi omen zuan Antzira'ko Basilio'k, berak asmatutako "homoiusios" ura ez baiña, bere etsaien "homoios" ura zala oraingo sinistarau berri aren oiñarrizko itza. Beranduegi oartu zan inperatoreen kutizien aldakortasunaz.

Semea "homoios to Patri" zala zion sinistarau onek: "Semea Aita'ren antzekoa zala", antzekoa zertan zan esateke.

Orrela dabil arianikeria alde batetik bestera, sinistarau batetik bestera jauzika.

Sirmio'ko bigarren sinistaraua. "anomolostarra" izan zan, ariokeririk gogorrenkoa: Semeak Aita'ren antzarik ere ez duala, ots, "anomoios" edo zearo "ezberdiña" dala erakusten zuana. Irugarrena, Liberio'k ziñatu-edo omen zuan ura, "homoiusioستarra", Semea zertasunean Aita'ren "antzekoa" dala esaten zuana. Laugarren au, "hornoioستarra", Semea'k Aita'ren itxura zuala besterik

esaten ez duana.

Baiña arianikerizale guztiak, txantxangorriak bezain arin batetik bestera jauzika ibiltzeko Ursazio ta Balente bezain kaskariñak ez ziralako, iru zati egiñik aurkitzen zan arianikeria. Ta, egunetik egunera, alkarrekin asarreago ibilliko dira zati oietako jendeak.

Inperatorea bera, "homoiostarrek" zegoan orain.

Sinodo bikoitza amaitzerakoan, bai Seleuzi'ko sortaldetarrek bai Rimini'ko sartaldetarrek, batzorde bat bidali bear zuten Kostantzio'rengana, ari sinodo bakoitzak erabakitakoaren berri emateko. Eta, gero, Inperatorearekin batera, bi batzorde aiek emango zuten Sinodo bikoitzaren azken erabakia.

Laureun gotzai baiño geiago iritxi ziran Sarkaldetik Rimini'ra: Aietatik geien-geienak, eundik larogei, zearo katolikoak ziran, "homousiostarrak", ots, Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak erakutsitakoaren aldekoak. Arianikeriz joak, eundik ogei besterik ez ziran. Auen artean Ursazio eta Balente betiko nardaspillari trebe aiek, panonitarrak biak; eta, bi Milan'go Auxentzio eta Arles'ko Saturnino.

Rimini'n Sinodoa, geiengoa ziran "homousiostar" katoliko aien eskuetan egon zan. Sirmio'ko laugarren sinistarau "homoiostarra" ez zuten aipatu ere. Alderantziz, eskomikapena jaurti zieten an zeuden eundiko 20 ariozale aiei danei. Eta, egiazko sinistaraua, Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak agindu zuan ura bakarrik zala, erabaki zuten: Semea Aita'ren "homousios" zala erakusten zuana.

Agindu zitzaiena betez, batzorde bat bidali zuten erabaki orrekin Kostantzio'rengana.

Gutxiengoak ordea, eundik ogei ariotar aiek, iñolaz ere geiengoaren erabaki ura ontzat artu nai izan ez zutelako, beste batzorde bat bidali zuten inperatorearengana.

Bi batzorde iritxi zitzaizkion beraz Rimini'tik inperatoreari. Onek berealaxe artu zuan bere aurrera ariozaleena. Katolikoanari ordea, naiz au askoz eta askoz gotzai geienen ia gotzai danen -- eta orregaitik Rimini'ko Sinodoaren egiazko ordezkaritza izan,

berak deitu arte itxoegiteko agindu zion.

Ala, Trazi'ko Adrianopolis'en aurrena eta Nike'n gero, asperturik egon ziran, alperrik, Batzorde artako gotzaiak, Kostantzio'ren deiaren zai.

Ez zan gaiztakeri utsa Kostantzio'ren jardunkera, maltzurkeri aundia baizik. Batzordekoak Trazi'n bezala Batzarrekoak ere Rimini'n asperturik bait zeuden, ezin deus egiñik, eguna joan da gaua etorri, inperatorearen erabaki baten zai. Ez zitekean ba iñor, inperatorearen erabaki ori jaso gabe, Ririnini'tik bere elizbarrutira itzuli.

Laister uxatu zieten asperra, bai batzuei eta bai besteei, ariotarren eta inperatore beraren ekintza maltzurak.

Trazi'n gelditurik zegoan batzorde "riminitar" aren lendakaria, Kartago'ko Restituto, gizon ona zan; baiñan aro latz artan zindo jokatzeko kemen geiegirik gabea gertatu zan. Ala, bai berak eta bai bere batzordekideek, azkenean, Sirmio'ko Laugarren Sinistarau ura izenpetu zuten, ariozaleek asmatzen zizkieten sinispide oker aren azalpen berriak onartuz. Era berean onartu zituzten ostera Elizaren altzora, Rimini'n eskomikatuak izan ziran ariokerizale aiek guztiak.

Rimini'n berriz, iru illabete bazeramazkiten sinodoaren eundik laureun ziran gotzai aiek, bakoitza bere elizbarrutira noiz itzuli zai. Rimini, uri koxkorra zan ainbeste gotzarentzat-eta, zer egin jakin gabe asarreturik zeuden, eta asperturik. An inperatoreak utzi zuan ordezkarria zuten asperkeri aren urratzaille bakarra, eta ez noski oso alaigarria. Bein da berriro esaten bait zien onek, ez zirala Rimini'tik irtengo Sirmio'ko Laugarren Sinistaraua izenpetzen ez zuten bitartean.

Bata bestearen atzetik, kukilduta, geienak amore-emateko gerturik aurkitu ziran azkenean, eta baita, "egiazko sinispidea aratz gordetzeko erakusten zuan arretagaitik eskerrak emanez" inperatoreari eskutitz bat idazteko ere.

Alatagutziz amabost gotzai gelditzen ziran oraindik an, amore errian nairik gabe. Baiñan makurtu ziran auek ere inperatorearen esanera, izenpetzen zuten dokumentuari nai zituzten oar guztiak

erasteko baimena izango zutela esan zitzaienean.

Ajola gutxi Kostantzio'ri aiek ipiñi zezazketen oar aiengaitik. Azkenean egia gertatzen zana au besterik ez bait zan: Sarkaldeko gotzaiak ere, danak, beren gotzai-aulkietatik jaurtita erbestean aurkitzen ziran gutxi aiek izan ezik danak Kostantzio'k babesten zuan Sirmio'ko Laugarren Sinistaraua izenpetu zutela. Eta ori besterik ez zan arek nai zuana.

Orrela, ofizialki, Sirmio'ko Laugarren Sinistaraua zan Elizaren sinistarau bakarra: izearo ariotarra zan sinistarau! Garaille zan erejia kristaudi guztian!

Baiñan bi gizon aundien izenpena peitzen zitzaion sinistarau ari. Liberio Aitasantuarena, eta ortodoksi edo egiazko sinispidearen babesle menderakaitza zan Atanasio alexandritarrarena.

Liberio ez zan Rimini'ko sinodoan izan. Ez zuan ara ordezkari-rik ere bidali.

Ez zuan beraz deus balio sinodo artan egiñak, Elizaren Buruaren onespena falta zitzaion ezkerero. Egia esan, Inperatoreak ez zion Liberio Aitasantuari sinodo artarako deirik egin. Nere ustez, bildur izugarria ziolako.

Baiñan ez da au guztien ustea. Ez beintzat Jedin edestilari alemaniar ospetsuarena: "En Rfmini faltaba sdlo la representacidn de Roma; evidentementee el emperador no habfa cursado ia invitacidn aI papa, lo cual indica que la condescendencia de Liberio con las exigencias del emperador, ni siquiera cerca de aste habla elevado su prestigio".

Liberio'k Kostantzio'rekin "condescendencia"rik, ots, "amore-ematerik" izan zuan iñork ez dakian gauza izateaz gaiñera, oker dabil Jedin. Arrazoia beste bat bait da: Kostantzio ez zan ergel iñoza. Kostantzio'k bazekian Liberio Aitasantuak ez ziola sekulan Sirmio'ko Laugarren Sinistarau arianitar ura izenpetuko, eta Aitasantua orrela bere aurka jartzeak anka-zgora botako zizkiola bere asmo guztiak. Orregaitik ez zion sinodora deitu.

Atanasio non izkutatzen zan berriz, ez zuan beñiere Kostantzio'k jakin, naiz ortarako bere ertzaindia lanean ipiñi. Bikain

gorde zuten Ejito'ren egoaldean basamortuetako lekaideek ain maite zuten Patriarka aren izkuta-tokia.

Ez zuan noski, Kostantzio'k, atsegin goxoegirik artuko, Atanasio'k Ejito'ko gotzai guztientzat gutun bat idatzi ziela, eta gutun ortan Nizea'ko sinistaraua zindo gordetzeko eskatzen ziela, eta Ejito'ko gotzaidiak, Atanasio'k eskatzen ziona onartuz, beste sinistarau guztiei uko egiten ziela jakin zuanean.

Kezkaturik, Seleuzi 'n bildu ziran ostera Sortaldeko gotzai batzuk. Eun da berrogei ta amar, gutxi-gora-bera. Arianikeriaren iru zatietakoak ziran:

- "Homolusiostarrak", Antzira'ko Basitio'rekin;
- "Homoioistarrak", Zesarea palestindarreko Akazio'rekin;
- "Anomoioistarrak", Alexandri'ko Gorka eta Antioki'ko

Eudoxio'rekin.

Ez ziran iru talde auetakoak alkarrizketa neketsun batera etorri, eta inperatorearengana jo zuten azken-erabaki baten billa. An, Akazio'ren "homoioistarrak" irten ziran garaille.

Aurrena, gogor aurpegi emen zieten Basilio'ren "homoiusiostarrak", baiñan azkenean auek ere makurtu zuten burua, Kostantzio'k, urbil zegoan 360'garren urtearen lenengo egunean inperiolur guztiko jendeei elizaren pakea lortua zala aldarrikatzera zijoala esan zienean. Elizaren pakea..., oiñarriztat "homoioistarren" sinistaraua artuz, jakiña.

Sinistarau ura ariotarra zan. Sinistarau ura ontzat artu zuten gotzairik geienak ordea, bereiziki "homoiusiostar" aiek, ez ziran ariotarrak. Semea Jainko zala tinko sinisten zuten. Ariotarra zan sinispide ura ontzat artzean apostasira edo erejira jausi ote ziran ba? Ez, naitanaiez.

Oldozkera au izan zan, nere ustez gotzai aiek beren-baitan erabilli zutena: "Sinistarau orrek, Semea Aita bezalakoa dala esaten du. Ez du, Semea zertasunean Aita bezalakoa danik esaten; baiñan ez du ori ukatu ere egiten. Ez da beraz gure sinispidearen aurkakoa".

Orrela pentsatu bide zuten aiek, baiñan izenpetu zuten sinista-

raua, ezpairik gabe, ariotarra zan: Aita, Jainkoa zan. Semea, ez zan Jainkoa. Soilki "Aita-ren antzeko" edo "homoiios to Patri" zalako, Jainkoaren **antzekoa** besterik ez zan.

"Con esto quedaba totalmente abandonada de Gara al exterior la fe de Nicea, puesto que con la adopci3n de la f3rmula homeana (de Acacio de Cesarea) habfa triunfado una corriente netamente arriana" (Jedin).

* * *

Orain bai. Orain pozik aurkitzen zan Kostantzio. Uste bait zuan Elizaren pakea lortu zuala. Baiñan pake ori geiago sendotu naiez, Kostantinopla'n, bere jauregiaren kerizpean, urte artan bertan, ots, 360'ean, kontzilio orokor bat egitea erabaki zuan. Aski ustelak irten zitzaizkion ordea bere uste guztiak, kontzilio artara Sarkaldek-tik ez bait zitzaion gotzai bat ere etorri, Trazi'ko bat edo beste izan ezik. Eta, ori, Kostantinopla bere altzoan zuan Trazi izeneko probintzi txiki ura Sarkaldekkoa zala esatea zillegi ba'dal

Alatagutziz, egin zan sasikontzilio ura, eta bertan artutako erabakien bidez:

- "Homoiostarra zan sinistarau ura izango zan Elizaren sinistarau bakarra.

- Bere gotzaigoetatik jaurtiak izan ziran sinistarau ura ontzat artzen ez zuten guztiak.

- inperatoreak, kontzilioaren erabaki ori ontzat artuz, erbestera bidali zituan gotzai oiek danak.

Orrela, len Nizea'ko Kontzilioaren aldeko gotzai "homou-siostarrak" bezala, erbesteuraturik gelditu ziran oraingo ontan, bururik makurtu nai izan *ez* zuten gotzai "homoiusiostarrak" ere.

- Ondorioz, kristaudiko gotzai-aulkirik nagusienetan, Alexandri'ra, Antioki'n, Kostantinopia'n, **Palestina'ko Zesarea'n**, eta baita Itaii'ko Milan'en ere, gotzai ariotarrak eseri ziran: "Pastores arrianos convencidos" (Jedin).

Garaille zan arianikeria!

Bazirudian bein betirako Eliza ariotarra biurtua zala.

Ederki esan zuan Donejeronimo'k: "Ingemuit totus orbis et arianum se esse miratus est": "Ulu egin zuan izadi osoak, bere burua ariotar biurtua ikusirik".

* * *

Baiñan ariotarren euslerik garrantzitsuena, ia beren eusle bakarra, Kostantzio inperatorea zan. Ta, inperatoreak ez bait dira betirako izaten, 360'garren urte ortan bertan, euslerik gabe gelditu ziran aiek. 11 egin zitzaizen inperatorea.

Kostantzio izan zan I Kostantino Aundiaren semeetan azkena il zana.

Seme auetaz, zer esan? Ez zirala, beintzat, aitaren aunditasu-nekoak gertatu.

Kristau, bai; benetan izan ziran kristauak; ezpairik gabe izan zitzaikigun kristautasuna benetan artu zuten gizonak. II Kostantino, iruetan zarrena, eta 1 Kostante, iruetan gazteena, katolikoak biak, katoliko sutsuak. H Kostantzio, geienik zalantzetan ibilli zan gizona, ariotarren alde jardun zan ia beti, aburu ziurrik gabe arianikeriaren iru taldeetan batetik bestera jauzi egiñez. Atanasio'-ren etsai aundia izan zan.

Asmo gaiztoz? Ez. Ez da arritzekoa. Atanasio'-ren etsaiak bait ziran Kostantzio'-ren agintaritzakoan Sortaldeko gotzai ia danak. Kostantzio berriz Sortaldeko Inperatorea zan bereiziki, Sortaldea izan bait zuan aitagandiko ondarea, naiz gero, uste gabeko gertakizunen ondorioz bere almena inperiolor guztira zabaldu.

Arianikerira okertu izatea ere ez da arritzekoa, "arianikerizaleak", edo beintzat Nizea'ko "hornousios"en aurkakoak bait ziran Sortaldeko Elizaren gotzai ia danak.

Kostantzio arianikeriaren taldetan batetik bestera ibilli izatea ere ez dugu arritzeko gauza. Teologilari ziran gotzaiak beraiek gauzak illun ikusten ba'zituzten, nola eskatuko diogu teologilaria ez zan Kostantzio'ri gauza illun aiek danak berak argi ikusteko?. Benrtako kristau zintzoa izan zalarik, arianikerizaleen aldera asmo

txarrez itauli zala uste izatea... iñori zillegi ez zaion gauza da.

II Kostantino, **II** Kostantzio eta **I** Kostante, iru anaiak izan ziran ziñez jentiltasunaren arerioak. Alare, ontan beren aitaren jardunbidetik ibilliz, ez ziran gogorregiak gertatu.

II Kostantino'z eta **I** Kostante'z benetako iritzi bat ematerik ez dugu. Asti laburrez egon ziran bâ agintaritzan.

Laister asi ziran biak bata bestearen aurka borrokan. Bi anaiok aiña dugu beroien aita **I** Kostantino "Aundia" borroka orren errudun; **II** Kostantino seme zarrenaren zaintzapean ipiñi bait zuan Kostante seme gazteena bere testamentuan. Danadala, anaiarteko gudu ortan il zan **II** Kostantino (340).

Amar urte geroago, Magnentzio iraultzalariaren aurkako borroka galduta, erailla izan zan Kostante.

II Kostantzio dugu iru anaietan geiena iraun zuana, eta iruetan garrantzitsuena.

Inperatore lez yayoa izan zan. Errez menderatu zuan Betranio gudalburuaren iraultza. Zugur oartu zan, Magnentzio gudalburu bikaiña zala, eta ura borrokan menderatzea gauza zailla eta arras arriskutsua izango zitzaiola. Aundia zan gaiñera Magnentzio'ren gudaroztea. Asmatu zuan ordea Kostantzio'k gudarozte aundi ura bi puska egitera Magnentzio nola beartu: **II** Kostantzio'k gertutua izan omen zan ba, une artan barbaritarrek Magnentzio'ren aurka asi zuten borroka gogorra.

Eta Magnentzio aien aurka bere lejiioen erdiak bidaltzera bearturik aurkitu zalako izan omen zan **II** Kostantzio'k garaitua. Ori beintzat esaten da.

Aro artan, Eusebia inperatemeak eskatuta, Galo lengusua izendatu zuan Sortaldeko "Zesar", baiñan au oso era txoro ta zakarrean jardun zalako, bereganuntz deitu ta eriotzara galdu zuan. Ez ordea azpijokurik gabe: "Dotado Galo de un carcter violento y cruel, fueron tantos los conflictos que provocó que Constancio, **por medio de engailos**, le atrajo a la corte y una vez en su poder le aprisionó y mandió a Istria y le hizo matar (Espasa).

Koloni urian, odolez frankiarra zan gudalburu bat jeiki zitzaion

aurka. Silbano zuan onek izena eta inperatore egin nai izan zuan bere burua. Laister izan zan II Kostantzio'k rnderatua eta eriotzara epaitua.

Orduan, Rin ibai-aldeko arazoan buruzagitzarako, au ere lengusu zuan Juliano, eriotzara galdutako Galo aren anaia ain zuzen, "Zesar" izendatu zuan. Eta Elena zeritzan arreba eman zion emaztetzat. Ez zan atzipetu. Ederki jardun bait zan Juliano germaniarren aurka.

Bitartean, Danubio ibaiarenertzetan iru barbaritar-errialdeetako indarrak garaitu zituan II Kostantzio'k berak: Suebitarrak, Sarmaziarrak eta Kuanditarrak.

Alatagutziz, II Sapur "Erregeen Erregearen" pertsiarrek izan zituan areriorik gogorrenak. Ederki eutsi zien II Kostantzio'k. 359'an Mesopotami-barrura etorri zitzaion gudarozte indartsu batekin H Sapur. Borroka ontan sarturik zegoala, Galietako lejiu batzuk eskatu zizkion Juliano'ri. Gudariek ordea, iraultzan jeiki eta Juliano izendatu zuten inperatore.

Aren aurka borrokara zijoala, sukar gaizto baten ondorioz il zan Kostantzio. Bere aitak bezala, eriotzako orduan artu zuan bataioa. Eta, aitak bezala, gotzai arianitar baten eskutik.

Esan ote daiteke Kostantzio'z, entziklopedi ospetsu batek Kostantzio'ren aita Kostantino'z esaten duan onako au? "Il finit par prendre en faveur les ariens parceque ils etaient plus souples, plus maniables, plus disposes a accepter ses directives, sinon ses ordres" (Catholicisme): "Ariotarrak artu zituan azkenean adiskidetzat. Zergaitik? Auek eskurakoiagoak eta bere aolkuak, ots, bere aginduak betzeko biguñagoak ikusten zitualako".

Ez dut uste, ez batz ez besteaz, ori esan daitekeanik. Bai aitak eta bai aitaren iru semeek katolikoan alde II Kostantino'k eta Kostante'k, ariotarren alde II Kostantzio'k kristautasunari-buruzko arazoak askoz benetasun geiagorekin artu bait zituzten.

JULIANO FEDEUKATZAILLEA

Flabio Klaudio Juliano, I Kostantzio Kloro eta onen bigarren emazte Teodora'ren billoba izan zan; I Kostantino Aundiaren illoba eta II Kostantzio'ren lengusua.

I Kostantino Aundiaren erdi anai bat, Kostantzio Kloro 'k Teodora bere bigarren emazte arengandik izandako Julio Kostantzio -- eta Basilina, Ejito'ko Jaurle nagusiaren alaba, izan zituan guraso.

Benetan zan beraz, errege-odoleko gizasernea.

Kostantinopla'n jaio zan; 332'garren urtean. Ez zuan amarik ezagutu, erditu ondorean laister il zitzaiolako. Arnarik ezak gaitz aundia egin zion betirako. Batez ere ume zala, aitarik gabe ere gelditu zalako.

Oiñazetsua, gogorra, eta legorra, izan zuan bere gaztaroa: "Il avait cinq ans en 337 lorsque le carnage dynastique qui suivit la mort de Constantin, le rendit spectateur de l'assassinat de toute sa parent male, à l'exception de son demi-frère Gallus. L'enfant, d'une sensibilité précoce et frustré de toute affection naturelle, fut par l'œuvre arien Eusthe de Nicomédie et un eunuque goth, Mardonius" (Catholicisme).

Euskeraz: "Bost urte zituan 337'an, bere errege-sendiaren sarraskiak, Galo erdianaia izan ezik beste aide ar guztien erailketa ikustera beartu zuanean. Ala, adiñez gairdiko rrinbera zan mutiko ura sendi-maitasunik gabe gelditu zan eta Eusebio Nikomedi'ko gotzai ariotarrak eta Mardonius izeneko gotiar iren batek azia izan

zan"

Egia. Baiñan zerbait erantsi bear zaio aapaldi orri: Eusebio'k alegia, jaramon aundiz zaindu ta babestu zuala bere ikasle ura. Eta berak aukeratu ziola irakasletzat Mardonius erena, eta jaun au, naiz gotiarra izan, jakintza aundiko gizona zala, elenizaleen filosofiaz eta Grezi zarreko elertiz, batez ere Omero'ren ezagueraz, ederki jantzia.

Danadala, batzuen ustez II Kostantzio'ren eragiñez edo según otros por deseo del propio Constantino" (GER) egindako erailketa anker aiek ez zituan Juliano'k sekulan aztuko, "y causaron en su nimo enorme impacto traducido a un rencor solapado hacia su tfo Constantino y hacia su primo Constancio 11" (ib).

Ikusi ere, bere begiz ikusi omen zuan ba nola iltzen zioten aita, berak "Atenastarrentzako Epistola"n idatzi zigunez.

Iru gauza jaso zituan betirako Juliano'k Nikomedi'ko Eusebio gotzai ariotarrarengandik eta Mardonio irakasle gotiar irenarengandik: Bizitza latzerako gertuketa, ikasketen maitasuna, eta elenitasunaganako zaletasuna.

"Batzuek, zaldiak dituzte maite; beste batzuek, txoriak; eta beste batzuentzat basapiztiak dira kutizigarri. Nere zaletasun guziak ordea, gazte-gaztetatik, liburuentzat izan dira", idatziko zuen berak gero, bere epistoletako batean.

Nikodemi' ko Eusebio il zanean, II Kostantzio'k, beti kezkatu, Kapadozi'ko Zesarea'tik urruti ez zegoan uriska batera bidali zituan erdi-baiturik Juliano eta Galo, Juliano'ren erdianaia.

Lurralde legorra da Kapadozi, gaurko Turki'ren erdian. Eta legorra izan zan ariotarren eskuetan Juliano'ren eta bere erdianaia-
ren eziketa, Marcellum zeritzan uriska artan: "They received a Ionely and strictly christian education": "Bakartasunean izan ziran, era zorrotzean, kristau eziak" (Enc. Brit). An izanen ziran bearbada biak bataiatuak, eta seguruaski an bertan iritxiko zan Juliano Elizaren ordena-txikien mailladian "lector" edo "Irakurle" esaten zaion maillara.

Alatagutziz, uri basati artan Juliano'k filosofilari jentillen eta

bereiziki Jamblike'ren liburuak irakurtzeko betarik aski izan zuala dirudi. "An sortu bait zitzaion sinismena galtzera eramanen zuan barren-zurrunbillo edo krisia" (Catholicisme").

Bai. Kapadozi'ko uri artan erdi baiturik sei urte zakar igaro ondorean, 351'ean, ¹¹ Kostantzio lengusuaren baimenarekin Kostantinopla'ra itzuli zanean, 19 urteko mutil gaztea zan Juliano, eta kolokan zuan noski ordurako Kristo'renganako sinismen oro. Alare, itxuraz beintzat, kristau jarraitu zuan oraindik. Ez dezagun aztu, Juliano'k iru gauza bazekizkiala ziur: II Kostantzio bere lengusua, oso adiskide motza zuala. ¹¹ Kostantzio lengusu ura, izugarri kristau sutsua zala. Eta, ain kristau sutsua zan lengusu aren aurrean ez-kristau agertzea, eriotzari dei egitea zala.

Juliano'k bazuan Jauregian balio aundiko adiskide bat: Eusebia inperatemea, ¹¹ Kostantzio lengusuaren emaztea.

Kostantzio ordea, ez zan oso lasai aurkitzen, eta Kostantino-pla'tik Nikomedi'ra bidali zuan Juliano lengusua. Ez zuan onek Kostantinopla'n igarotako astia alperrik galdu: naiko era dotorean ikasi omen zuan bâ an latera.

Gogo beroz ari zan bitartean jentillediko filosofilariak eta elertilariak irakurtzen, eta Nikomedi'n, aipatu dugun Jamblike eta Efeso'ko Maximo artu zituan irakasle. Biak ziran garai artako jentillen artean itzal aundiko gizonak: Idazle eta filosofilari bezala, aurreneko ura; filosofilari eta irakasle bezala, bigarren au. Biak iriki zuten ildo sakona Juliano gaztearen adimenean. Ordurako, au, jentiltasunaren maitale aundia eta "teurgizalea" zan. Ala bait zan Jamblike. Eta baita Efeso'ko Maximo ere.

"Teurgia" aztikeriarekin aidetasun aundia duan "majia" edo "jakintzizkutua"ren moeta bat da: besteak baiño txukunagoa, dotoreagoa, filosofi-kutsuz apaindua. Kaldea.'ko lurretan antziña sortua, eta Sarkaldera Mesopotami-zear Grezi'ko jentiltasunaren azken-aroan sartua. Grezi'ko Platontasunberrira sartu zan bereiziki, beste iñora baiño geiago.

Maji edo jakintzizkutu landerra izkera illun eta ekintza arrigarrien bidez mundu ontako ondasunen billa ibiltzen

Teurgia, ez. Teurgiak beste munduko gauzak eta giza-gogoaren ondasunak ditu elburu: Giza-gogoa jainkotasunez jaztea; adur edo patu gaiztotik giza-gogoa yaretzea; Gizakumeari etortzekoak diranen ezaguera ematea; naiz ametsen bidez, beste munduko izakiak ikusteko eta Jainkotasuna bera nabari aal izateko aalmenez gizakumeok ornitzea... Mirariak egin nai izate berari, ez zioten teurgilariek ukorik egiten, "teurgia" itzak berak ("theos"- "ergon") "jainko-ekintza" esan nai bait du.

Jamblike izan omen zan Juliano'ri platontasunberriaren eta teurgiaren izkutukiak zabaldu zizkiona.

354'ean izan zan erailla Galo, Juliano'ren erdianaia, "victima de una delaci n" (GER). Juliano ere, kezcatsua gertatzen zan 11 Kostantzio' rentzat, eta, orregaitik, Milan'era erdi-katigu eramana izan zan. Ez denbora luzerako, Eusebia inperatemeari eskerrak. Lortu bait zion onek Atenas'era etorri aal izateko baimena.

Kultur labe ospetsua zan oraindik Sarkaldean Atenas. Pozik etorri zitzaigun uri artara Juliano, bere jakintza-gose neurrigabea ase naiez. An bi gizon aundi izan zituan irakaskide filosofi-ikastoletan: Kapadozi'ko Zesarea'ko Basilio Donea, eta Naziantze'-ko Gregorio Donea.

Laister ordea, Eusebia inperatemearen eragi nez berriro, ostera Milan'era bidalia izan zan, bai an oraingoan Galietako "Zesar" egi nik. Ez zan noski emakume ergela inperateme ura, ederki oartu bait zan Juliano'ren trebetasun aundiaz. Izan ere ez bait zan edozein Galietako "Zesar" berri gaztea. Ikus opusdeitarren GER iztegi mardulak, etortzekoak diran gertakizunak gogoratuz, beraz esaten diguna:

"Jciven de personalidad arrolladora que sobresalid por igual en el campo de batalla como el la administraci n y en la pol tica financiera durante el escaso tiempo que ostent  el poder: Cinco a os de Csar, un a o y ocho meses de Emperador".

II Kostantzio'k ordea ez zion oraindik bere lengusu ari begi onegiaz begiraten. Orregaitik Kostantzio'ren ordezkari zaintzaille nekagarriz inguraturik ibilli bear izan zuan Juliano'k bere jaurlarit-

zako lenen urteetan. Alare, argiro erakutsi zuan bere yayotasuna:

Aurreneko ekintzan, Rin ibaiaren ondoan Koloni uria berirabazi zuan germaniarrak garaituz. Ibai artatik ez urruti, Senone, gaur Sen, izeneko urira bildu zan neguz, baiñan uste gabeen alamandarrek inguratu zuten an. Bikain jardun zuan Juliano'k eta berea izan zuan garaitza.

Laister, Arjentorato'n, ots, Estrasburg'en izan ziran berriro alamandarrak zearo garaituak. 30.000 omen ziran aiek; eta 13.000 besterik ez, Juliano'ren lejoetako gudariak. Liburu zarretako zenbakiei ez zaie beñere jaramon aundiegirik egin bear, baiñan, alatagutziz, ospe aundia eman zion 357'ko ekintza arek Juliano garailleari.

Urrengo urteetan, Belxika'n ibilli zitzaigun. Oraingoan, frankiarrak borrokatzen eta menderatzen. Maiz igaro zan Rin ibaiaren beste aldera, barbaritarren indarrak ezabatzeko.

Juliano'k ez zuan, gudurako, ez ezikuntzarik ez gertuketarik batere izan. Alatagutziz, au bai miragarria! oro garaitza izan ziran aren gudu-ekintza guztiak.

Barbaritarren aurka-edo borrokan ibiltzera bearturik aurkitzen ez zan astietan, neguz adibidez, Magnentzio eta Silbano'ren iraultzak ezkerro lur-jota zegoan Galietako ekonomia zuzentzen aritu zitzaigun Juliano, porrokatutako uriak, bideak eta alorrak berrieraztuz, eta zerga-arazoak egokitasunez eratuz.

Ta ontan ere, ekonomiari-buruzko arazoetan **berdiñik** gabeko eratzaillea izan omen zan, ortarako ere gertukizunik izan ez zuan Juliano. Bai bere zaletasunez, bai izan zituan eta aukeratu zituan irakasleen jardunkeraz, zearo eta soilki filosofizkoa eta elertizkoa izan bait zan bere eziketa guztia.

Inperateme argia izan zala Eusebia, Galietarako alako agintari bikaiña aukeratuerazi zuanean! Ori..., Juliano itxuraz ederra eta izkeraz gozo txukuna zalarik... Eusebia'ri, emakume lez, mutil dotore ura..., bereiziki atsegiña gertatatu ez ba'zitzaion!

Lutezi'n, au da, Paris'en, zegoan Juliano, Mesopotami-aldetik Kostantzio lengusuaren eskea iritxi zitzaionean. Pertsiarren aurka gudan ari zan ura, eta aiek erabat menderatzeko, bearrezkoa zuan, borroka guztiak garaille amaituta eginkizun aundiegirik gabe aurkitzen zan Galietako gudaroztearen laguntza. Orregaitik, gurarozte artako lejiarik onenak Sortaldera bidaltzeko agintzen zion Juliano'ri.

Gudariak ordea Kostantzio'ren eskari arren aurka jeiki ziran; eta inperatore izendatu zuten Juliano. 360'garren urtearen asiera zan. Iraultza aren zergaitia? "Se tenni6 que Constancio querfa derribarle (a Juliano) como a Galo" (GER). Baiñan, iraultza ura, "provocada por el mismo Juliano" izan omen zan (Ib).

Baleike. Baiñan deus ez dakigu ziurki. Bai bait da, asieran ez zuala Juliano'k inperatoretzarik artu nai izan, esaten duanik ere.

Danadala II Kostantzio lengusuarekin alkarrizketak asi naiean agertu zan. Eta bitartean, frankiarrei eraso zien berriro, eta Ringora, Basilea'raiflo iritxi zan, garaille, bidean yaretutako uriak berritueraziz. Negua, Galietako Bienne'n igaro zuan, eta 561 'ko urtarrillaren S'ean, azkeneko aldiz seguruaski, meza entzutera joan zan eliz nagusira. Azken-aurreko aldiz bearbada; geroago, II Kostantzio'ren illeta-mezan izan omen zan ba.

Udaberriz, alamandarrei ekin zien berriro, baiñan II Kostantzio bere aurka zetorrela jakitean, aren billa abiatu zan Europa-zear, arekin alkarrizketan asterik ez zuala izango oarturik.

Orduan idatzi zuan "Atenastarrentzako Epistola", iraultza ari zegokionez bere burua zuritzeko. Laister jakin zuan bere lengusua, II Kostantzio, Zilizi'ko Tarso'ren ondoan il zala, eta arrezkero bera zala, inperiotur guztiko inperatore bakarra.

Kezkarik eta lotsarik gabe agertu zan orduan Erroma'ko Jainko zarren gurtzaille. Arriturik, eta asarre, jakin zuten kristauek aldakuntza aren berri.

Ez zan txantxetan ari Juliano inperatore berria. Benetan itzuli zan jentiltasunera. Zerk eraginda? Ez noski filosofizko arrazoiketa sakonek. Ez zuan Juliano jentiltasunera bere buruak eraman, bere

sentimenkeriak baizik. Egia da filosofia ikasi zuala. Baiñan orduango filosofi jentilla, platontasunberria bereiziki, sentimenkeri uts biurturik zegoan. Edozein filosofi-erarentzat lotsagarriak diran aztikeriz, eta, bereiziki, teurgikeriz beterik!

Juliano, amesbera izan zan bere bizitza guztian. Aundia gaiñera amesberakerian! Ituna ta negargarria, bildurrez betea, izan zuan aurtzaroa iñoren maitasunik gabe; ituna eta legorra, nekagarria, aspergarria Kapadozi'n gaztaroa. Era berean izan zan legorra ta latza ariotar zimelek erakutsi zioten kristautasuna. Juliano gazte ameskoi biotz-bera, greziarren idazle goxoetara irauli zan, ametsez margoztutako filosofikera artan murgildu zan, eta ipui atsegiñez betetako jentiltasunera biurtu zan babes eta atsedeen billa.

Ta, orrela ametsetan igaro zuan bere gaztedi osoa. Esnatu gabe. Mundu oni begiratu ere egin gabe.

Izan ere, begiak irikitzen ba'zitian zer zan bere inguruan ikusi zezakeana? Odola Laterrian; odola bere sendian, eta, agian, odola baitare bere etorkizunean.

Elizari zegokionez berriz, zer zan bere inguruan zekusana? Ariotarren arteko gorroto, zakarkeri, asarre, eztabaida eta jokaera zikin baldarra.

Ez zuan esnatzeak merezi-ta ametsetan jarraitu zuan gure mutillak. Eta ametsetan bizitu zan beti.

Amets utsa zan Mazedoni'ko Alexander'en kide izan nai izatea, Erromako Iejioak ez bait ziran orain Errepublikaren denborakoak. Alare, Alexander'en kide izan nai zuan Juliano'k, pertsiarrek garaituz.

Ametsa zan, Erroma ostera jainko zarren gurtzaille biurtu nai izatea, kristauak bai ziran ordurako neurri aundian uriak, uririk aundienak bereiziki, eta aspaldiz gero jentillena baiño giarragoa eta bizkorragoa bait zan kristauen filosofia; eta indartsuagoa, interesgarriagoa, kristauen elertia, naiz bestea bezain apaiña izan ez.. Alatagutziz, Jupiter zarraren eta bere inguruko jainko eta jainkemeen gurraketa egin nai izan zuan Juliano'k inperiolurraren legezko erlijio bakarra.

Kontuz, ordea. Ori lortzeko ez zuan Juliano'k, leengo inperatore anker aien antzera, odolezko zigorketa erabiltzerik pentsatu. Juliano ez zan odoltzalea. Ez, soilki, odolez asperturik zegoalako bakarrik,-- naiz bere sendian bertan odolez aspertzeko odolik aski ikusia izan Berez zan Juliano biotz legunekoa, ameskoia, eta odolketara oren etsaia.

Ala, Kostantzio garaituz gero, oso gutxi izan ziran eriotzara galdu zituan kostantziotarrak. Gauza arrigarria, garai artako oituren araura.

"Malgre quelques actes de violence, la perscution systematique n'&ait pas dans les principes du nouvel empereur" (Catholicisme): "izan ziran gogorkeriren batzuk; baiñan zigorketan arretaz astea, ez zan inperatore berriaren asmoetan zegoan gauza".

Jentiltasuna garaille ateratzeko, kristautasuna aultzea eta makaltzea pentsatu zuan. Ortarako:

- Eliza-baitan asarreak ugarierazi naiez batzuen ustez, erbesteuratik zeuden gotzai guztiei eman zien askatasun osoa. Ala biurtu ziran danak bakoitza bere gotzai-aulkira. Eta aien artean, Alexandri'ko Atanasio bera.

Elizari gaitz egiteko asmoz emandako askatasuna? Ez dakit. Oiturezkoa bait zuten inperatore guztiek, agintaritza artzerakoan, erbesteratuei barkapen-emate zabal ori.

Danadala, itxaro omen zuan inperatoreak, erbesteratuei itzultzen uzteak balioko ziola arianitarren eta katolikoaren artean asarrea sakonduz Eliza erdibitzeko; eta asarre ikusi omen zuan nola Atanasio, ariozaleek gaitzetsi bearrean, aiek era paketsuan Elizara ekartzeko lanean asi zala. Eta gerturik egon omen zan ura berriro erbestera bidaltzeko.

- Elizari, eta etizgizonei, Kostantino'k eta aren semeek emandako abantail guztiak kendu zizkien.

Ikastola ofizialetan irakasle izatea debekatu zien kristauei. Ikastola aiek danak irakasle jentillei emanak izan ziran. Ortarako, 362'ko lege batez, irakasle guztiak, irakaskintza artu aurretik, Laterriak aztertuak eta onartuak izan bear zutela erabaki zuan. "Ez

omen zezakean Omero, Esiodo, Erodoto, Demostenes eta gaiñerako idazle greziarren edertasunik era egokian erakutsi aien erlijioa ontzat artzen ez zuan irakasle batek". Itz oiek, bereak dira.

Juliano izango da orrela, gaztediaren ezikuntza Laterriaren ekintza biurtzen lenen edo lenenetako agintaria.

Lege ori ordea, oso gaizki artua izan zan. Gaizki artu zuten jentillek beraiek ere, Juliano'ren inguruko platontasunberrizale batzuek izan ezik.

- Laterriko eta gaiñerako agintze-kargu guztietarako, katolikoek gaindik ipiñi zituan jentillak.

- Bir-eraiki eta konpondu zituan jainko zarren jauretxeak. Ortarako, udalei eskatzen zien dirua. Eta udal askotan agintaririk geienak kristauak ziralako, sortu zitzaion ortik asarre-biderik aski.

- Eratu zuan jentiltasunerako, Eliz kristauarena bezalako jerarki-mailladi bat sasijainkoen apaizdiarentzat: Maillarik garaienean, bere burua ipiñi zuan inperatore zarren antzera Jaupari Nagusi: Pontifex Maximus. Gero, jaupari buruzagi bat probintzi bakoitzean, eta aren azpitik jaupari zuzendari bat jauretxe bakoitzean, jaupari laguntzaillez iguraturik. Erakunde berdiña asmatu zuan jaupari emeentzat jainkemeen serbitzurako.

Zorrotz bizitzea, eskatzen zien jaupari ta jauparieme guzti aiei, zorrotz bizi bait zan bera ere: "Su actitud ascética fundamental lo llevaba a despreciar, no sólo la pompa externa, sobre todo en el ceremonial de la corte, sino incluso el confort personal, hasta el descuido casi repulsivo del cuidado del cuerpo, pero a la vez lo preservó del exceso sexual" (Jedin). Bereiziki, "galilearrek egin oi duten bezala" alkar maitatzea, txiroak eta gaixoak zaintzea eta bizitza garbikoak izatea gomendatzen zien jaupari eta jaupariemei.

Ezagunak ditugu jerarki artako jaupari batzuk; platontasunberrizaleak, geienak. Izan zan aien artean jaupari kristau fedeukatzaile bat ere: Pegasio, Ilion'go gotzaia. Ori..., "zigorketa" artan fedea ukatutako kristauak oso gutxi izan zirala! Sendo zegoan oraindik Eliza, naiz ainbeste erejien zurrunbilloan aro luzez era zakarrean astindurik ibilli.

Juliano'k berak, bein baiño geiagotan bete zituan Jaupari Nagusiaren eginkizunak jainko zarren jauretxeetan. Eta ez uste txantxetan ibilli zanik. Itxuraz beintzat benetan artu bait zuan egiazkotzat jainko zarren sinispidea: "El joven cristiano se habfa convertido, no ya en un satfrico como Luciano, o en un esceptico cfnico a la manera de Voltaire, sino en un adicto convencido de la fe en los dioses helenicos, animada por un fervor mfstico, entusistico" (Jedin).

- Tokian-tokiko jainkoen gurketa ere berbiztu nai izan zuan, jentiltasunari indar emateko. Asmo orrekin lagundu zien juduei ere. Jentiltasunaren kide uste izan bait zuan judutasuna. Gaiñera, arentzat, Yabe, tokian-tokiko jainkoetako bat besterik ez zan: "Juduerriko jainkoa"; beste edozein errialdeetako jainkoak bezalako (Enc. Judaica).

Bereiziki, Jerusalem'go Jauretxea bir-eraiki nai izan zien juduei, kristautasuna lotsagarri uztearren. "He tried to rebuild the Temple of Jerusalem, but an earthquake destroyed the work": "Asi zan Jerusalem'go Jauretxea bir-eraikitzen, baiñan lurrikara batek ondatu zuan ekintza guztia" (Enc. Brit). Naiz juduen adiskide agertu, ez zan bere barruan beñere Juliano aien egiazko adiskidea izan: "Julian's attitude toward the jews was generally defined by the needs of his polemic against cristians": "Kristauekingo asarreen neurria izan zuan Juliano'k juduenganako bere jardunkeraren neurria" (Enc. Jud.).

- Asi zan bere erlijio berriarentzat filosofi utsezko teologi bat asmatzen ere. Sarri-sarri ibilli zan Libanio izlari jentillarekin jainko zarren jauretxeak otoizketarako ikustatzen, jainkoei oparizko abere-ilketak eskeintzen, aien omenez abesten eta mintzatzen. "El emperador se dedicÓ tambien con un cuidado minucioso a la revivificaci6n de la instituci6n de los orkulos y de los cultos mistericos, aunque de esta manera abrfa de nuevo la puerta para el retorno de los adivinos, de los hor6scopos y las formas m4icas de la religi6n popular pagana" (Jedin).

Ametsetan zebillen.

Ziur zegoan bere asmoen aurka ez zirala kristauak ezer egitera ausartuko. Ala, kristauak Babilas Deunaren illobi bihurturik zeukaten Antioki-ondoko Dafne jainkemearen leize-jauretzea ostera jainkemearen jauretze biurtzeko agindua eman zuan Antioki'ra iritxi bezain laister. Ortarako, andik Donebabilas'en gorputza kanpora ateratzea erabaki zuan.

Egin zan Juliano'ren gurari txoro ura. Bigaramonean ordea, kristauak, sumindurik, Apolo'ren jauretzea erre zioten.

Ametsetan zebillen.

Agintaritza artzerakoan, moztu zuan inperatoreen inguruko geiegizko diru-txauketa, eta jetxi zituan laterkideen zergak; baiñan Pertsira sartuta pertsiarrek menderatzeko gudarozte aundi baten bearrean aurkitzen zan-da, egin zuan gudarozterako deia, eta jaso zituan ostera zergak. Antioki'n bildu zituan gudari aiek danak gudarozteari azken-prestakizuna emateko.

Asarretu zitzaizkion antiokiarrak. Izan ere ura bait zan, Ejito'ko Alexandri'rekin batera, inperiolur guztiko uririk kristauena.

Lenen maillako gualburua zalarik, jakin bear zuan Juliano'k Pertsia ezabatzeko bere 30.000 gudari aiek baiño geiago, askoz geiago, bear zituala; baiñan, alare, ekin zion guduari 363'aren udaberriaren asieran. Alexander mazedoniarraren kide izan nai zuan. Igaro zuan Eufrates eta sartu zan Pertsiarren lurretara.

Ametsetan zebillen.

Iritxi zan Ktesifonte zeritzan urira. Ura zan pertsiarren uririk aundiena eta ederrena. Ekin zion Juliano'k baiñan ezin izan zuan artu.

Ametsetan zebillen.

Ez zuan uria inguratuta bertan gelditzeko gudaririk aski. Ezta gudarientzat bear aiñako jakirik ere, Itun, geldi-geldi atzeruntz asi bearrean aurkitu zan, Janaren urritasuna, alde batetik eta pertsiarren eten gabeko eraso bestetik, egiazko gurutz-bidea gertatu zitzaion onuntzko bidea lekaroko arri ta ondarra-zear.

Pertsiarren erasoaldi aietako batean, uste gabe etsaiez inguratu-

rik aurkitu zan. Gezi batek zulatu zion bularra, eta zauri artatik odol-usturik galdu zuan bizia. Gero, gezi ura jaurti ziona, bere gudarozteko kristau bat izan zala, esan zuan norbaitek, baiñan batere arrazoirik gabe.

Entzunik egongo zera noski, Julianok iltzerakoan eskuz odola zerura jaurtiz "Vicisti Galilee", "Garaille aiz, galilear ori", deadar egin zuala. Ori, ordea, ez da seguruaski egia. Eun urte geroagokoa dugu beintzat, esakizun borobil ortaz, gugana iritxi dan aipurik zaarrena.

32 urte besterik ez zituan Juliano'k gezi arrek bizia kendu zionean. Bi lagun platontasunberrizale izan zituan alboan azkeneko ordu aietan. Ta, berak agindu zuan bezala, Zilizi'ko Tarso'n izan zan obiratua.

Juliano Fedeukatzaillea, Elizaren Zigortzaille? Bai kezkarik gabe. Arriskugarria gaiñera. "Elizak izan dituanen artean arriskugarriena", ark Atenas'en izandako ikasketakide batek, Zesarea kapadoziarreko Donebasilio'k idatzi zigunez. Geiegi esatea? Bai agian. Baiñan iñork ez daki nolako gaitza egin zezaiokean Juliano'k Elizari, mutil gazte ez baiña agure zar il ba'litz.

Garai artako martiriak ere aipatu oi dira, baiñan martiri aiek, bereiziki, kristauen eta jentillen arteko zalapartetan ildako jendeak dira: "Algunos cristianos perdieron la vida en estas circunstancias y fueron considerados luego como m^srtires" (Jedin).

Orrelako zalaparta asko aipatzen ditu edestilari onek: "algunos paganos crefan que la nueva situacido les darfa a ellos ahora la libertad de saquear las iglesias, de maltratar a los sacerdotes, de violar a las jóvenes cristianas, y de burlarse del culto cristiano". Baleike. Inperiolurra zabala zan-da, baleike an-emen orrelako gauzak gertatu izatea, baiñan ez zan ori, ez noski aro arteko giroa izan. Julianok gaiñera beti gaitzetsi zituan orrelako ekintza zakarrak.

Baiñan ez zan errudunak zigortzen geiegi nekatu.

Juliano'ren asmoen artean aipatuenetako bat, Jerusalem'go jauretxearen ber-eraiketa da. Ona, Jerusalem'go "Enciclopedia Judaica" berriaren eskutik, nola gertatu ziran an gauzak:

- Juliano'ren epistoletako batek "Juduentzat Epistola" deritza. Or agintzen die juduei beren aurkako lege guztiak ezereztuko dituala, et Jerusalem'go Jauretxea ber-eraikiko diela.

- Laister, "ari da Jauretxea goraka jeikitzen", oles egingo du beste "Epistola" batean.

Egia zion. Asi bait ziran eraiketa-lanak. Lengo bi Jauretxeak (Salomon'ek egin eta gero babilonitarrek ezereztutako ura, eta Babiloni'ko erbesteraiketarik itzulita Esdras'ek bir-egin eta Erodes'ek edertutako beste ura) egon ziran toki berean.

Ekintza aren berri orduango idazleek ere badamaigute: Juliano'ren adiskide izan zan Ammiano Martzelino edestilari jentillak, adibidez. Onak dioskunez, inperatoreak Jauretxe ura, juduerriko jainkoaren goratarrez ez baiña bere buruaren omenez altxa nai izan zuan.

Edestilari kristauen ustez ordea, kristautasuna nai zuan lotsa gorrian utzi. Ekintza aren aitorle ditugu Sokrate eta Sozomeno ere.

Sokrate'k dionez, juduek beren jainkoaren izenean non eriotzazko abere-opariak eskeiñi izan zezatan, agindu omen zuan Juliano'k jauretxearen eraiketa. Ori bera adierazten du gutxi gora bera Sozomeno'k ere, baiñan Jauretxe ura ber-egitean "Kristo'ren itza ("ez da arrigaiñean arri'Tik geldituko") agirian gezurtatzea ere" ("Christi praedictiones perspicue falsas ostendere") Juliano'k itxaroten zuala argi jakiñeraziz. Eta, bai inperatoreak, bai beste jentillek eta bai judutar guztiak ere, orretxegaitik asi zutela ekintza bereizi au, "beste ekintza guztiak azturik utzita".

Alipio Antioki'ko gotzaiak, dirua ugari bildu zala dio, eta lanerako gai asko. Jeronimo Doneak, juduek poz aundiz artu zutela ekintza aren asiera, eta ekintza ari-buruz esanak izan ba'lira bezala artzen zituztela Bibliako Daniel profetaren itz auek: "sublevabuntur auxilio parvulo": "Laguntza txiki bat naikoa izango dute bir-jeikitze".

Juduerriko R. Aha "rabi" edo maixuak ez zuen lan aiek ikustean samintasun bat besterik: "Irugarren Jauretxe onek ere ez zituala bere barruan bigarrenak ere izan ez zituan bost gauza doneak". Itun-Kutxa, zazpi besoko argimutilla, intzentsua erretzeko ontzia eta abar aipatu nai zituan,

Juduen poz aundiz asi zan beraz Irugarren Jauretxearen eraiketa.

Baiñan, Alipio antiokiarrak dasaigunez, orma berriak altxatzen asteko saiaketa batzuk alperrik egin ondorean, "sua atera zan an bertan zeuden orma zar batzuen artetik eta lana bertan-bera utzi bearrean aurkitu ziran langilleak".

Oroi, Atenas'eko filosofi-ikastoletan lagun izan zuala Juliano'k Naziantze'ko Gregorio Donea ere. Ona ba zer esaten digun Done onek "Adversus Julianum" liburuan:

Zoriontsu asi zutela juduek ekintza; millaka etorri zirala; batzuk, eskuetan arri bat zutela urbiltzen zirala, langilleak ormak eraikitzen ari ziran lekura; aurreneko arria jarria izan zan une beretik asi zirala lurrikarak eta aize-erauntsi zakarrak; eta azkenean, sua irten zala lurrazpitik eta Kristo'ren "specter" edo irudi-mamua.

Socrate'k, lurrikarak-eta aipatu ondorean, "su ura zerutik jetxi zala eta langilleen tresna guztiak urtu zituala" idatzi zigun: "Ignis namque coelitus demissus omni opificum instrumenta absumpsit".

Ez ditu Sozomeno'k ere lurrikara aiek azturik uzten, eta Jainkoak sortuak izan zirala idatzi ondorean, azkeneko suaz mintzatzen zaigu: "Fertur enim, ut secundo opus aggressi sunt, ignem subito e fundamentis templi erupisse, multosque absumpsit. Atque istud ab omnibus et libere dicitur, et pro certo creditur, et a nemine vocatur in dubium": "Esaten danez, bigarren aldiz (lurrikaren ondorean) lanari ekin ziotenean, bat-batean, sua irten zan jauretxearen oiñarrietatik eta asko izan ziran kiskaldu zituanak. Au, guztiak lasai esaten duten gauza da, guztiak egizkotzat sinisten dutena, eta iñork zalantzan ipintzen ez duana.

Guzi ortaz zer pentsa? Zerbait gertatu zala Jerusalem'go

irugarren Jauretxea eraikitzen asterakoan, eta zerbait orregaitik, egin gabe gelditu zala irugarren Jauretxe ura. Egia, gero, kondaira laister asi zala edesti legorraren baratza elertizko lorez apaintzen. Entzun:

Lurrikara eta suaz gaiñera, beste irugarren mirari bat ere aipatzen digu Socrate'k: Gauez, Kristo'ren gurutzea argitu zala juduen soñekoetan dizdiratsu, argi-printzaz margoztua bezala.

Egokia iduritzen zait juduek damaiguten laburpena:

"Two important facts may be gathered from these sources: 1: Julian wished to rebuild the Temple to strengten paganism againts Christianity (he saw Judaism and paganism as having sacrificial rites in common); 2: he wished to refute Jesus's profecy concerning the Temple" (Enc. Jud.).

Euskeraz: Bi ondorio atera genezazke idazleen esanetatik: 1 a Juliano'k Jauretxea, kristautasunaren aurka jentiltasuna sendotzeko ber-eraiki nai izan zuala (kidekotzat bait zeuzkan judutasuna ta jentiltasuna biek eriotzeko abere-eskeintzak badituztelako); 2a: Jauretxeari-buruz Josu'k egindako igarketa gezurtatu nai izan zuala".

Txolinkeri aundia egin zuan Juliano'k eginkizun artan sartzea. Juduek, naiz ekintza artan asteko, Klaudio'ren denboran adibidez, adiontasun ederrik aski izan, ez ziran beiñere orrelako lanketara ausartu. Ez dute gaur ere ortan asteko asmorik. Beti oartu dira, eginkizun ori, zentzurik ez duan gauza dala, bigarren Jauretxea ezabatua izan zan ezkerro.

Juliano, ez zan oartu. Ta iñork sekulan egitea pentsatu ez duan gauza egiten asi zan.

Ametsetan zebillen.

Eta parregarri gelditu zan.

Arrigarri eta mingarri zaigu, platontasunberrizale eta teurgilari erdi-txoro aiekin naasi zan ezkerro, ain gizaseme bikaiñak bere burua nola galdu zuan ikustea. Aren bikaintasunik ez bait du iñork ukatzen: Ikus adiskide izan ez zituan juduen iritzia:

"Julian governor of Gaul, proved to be an outstanding soldier

and administrator, defeating the invading German tribes and strengthening the provincial administration": "Galietan, jaurle bezala, germaniarren leiñu borrokalariak garaituz eta probintziko aberastasun-giroa sendotuz, lenen maillako gudari eta ondasun-eratzaille agertu zuan bere burua"

Orixe zan ainzuzen, platontasunberriko teurgiaren aztikeri zoroetara jausi aurretik, Flavio Klaudio Juliano, I Kostantino

Aundiaren illoba: Gudalburu jaurle zintzo yayoa. Eta oso mail goienetako ertilaria gaiñera. Asko idatzi zuan. Elerti-era dotorean gaiñera. Bere liburu oietatik "asko erti-balio aundikoak" dira: "Many of them of great literary merit" (Enc. Brit). Aipa ditzagun onako auek:

- Larogei ta zortzi "Epistola". Bere aldakuntza ezagutzeko txit egokiak.

- "Misopogon". Satira edo ziri-idazti bat da. Bere itxuraganako ardura oro galdu zuan Julianok filosofikerira amildu zan ezkerro idatzia. Par egiten zien antiokiarrak, bizar luze baldarrez eta soiñeko aski arlotez jantzirik ibiltzen zalako. Bere isekalari aiei iseka itzuliz erantzuten die Julianok. Liburu au, "una de las mas bellas de la antiguedad tardfa" omen da, opusdeitarren giroko GER iztegi aundiaren iritziz.

- "Kostantzio Inperatorearen Goratzarrea". Giroak eskatzen zionari erantzunez Kostantzio'ren denboran idatzia.

- "Eusebia Inperaternearen Goratzarrea". Lengoa baiño anitz egiztasun geiagokoa. Adiskide eta babesle izan bai zuten, bai Juliano'k berak eta bai Galo bere erdianaiak, Kostantzio'ren emazte adimen-zorrotz ura.

- "Nere Buruari Ats Ematen". Lagun maite baten eriotzaren ondorean idatzia.

- "Inperatorearen Eginbearrak". Agintaritzara-buruz eratutako idazkia.

- "Zinik-Era-Zale Ezerrezjakiñen Aurka". Diogene eta bere zinik-eraren babesketa, sasi-zinik-era-zaleen aurka.

- "Ellos Erregeari". Oraindik aski ;urtea zan Eguzki 1\,,lendera-

kaitzaren aintzaz.

"Bazkaria". Inperatoreen bizieraren azterketa ziri-sartzaillea.

Eta azkenean, galdua dugun bere libururik izentsuena: "Adversus Galileos", kristauen aurka idatzia. Naiz galdua izan, ezaguna gertatzen zaigu liburu orren barne-giroa, Naziantze'ko Donegregorio'k bere "Adversus Julianum" liburuan gorde zizkigun zati ugarietara eskerrak.

* * *

Orrelakoa izan zan edestia-zear ainbeste lerro idatzierazi dituan Juliano Fedeukatzaillea. "Emakumeekingo nasketa zikiñik gabe, gizaseme zintzoa bere bizitzan; baiñan setatsua, ameskerietarako griña berokoa, berekoia, arroxkoa eta filosofikerizko aurre-irritiz bete, eta, bereiziki, erretorikazale itz-jarioei etajakintzizkutudunei itxuki lotua: blindly submissive to the rethoricians and magicians" (Enc. Cath.).

Sinispena utzi ta siniskerira jausi zan ezkerro, ametsetan ibilli zan beti.

Eta ametsetan bezala il zan.

Pozik ikusi dut atal au amaitzerakoan, ez naizela ori esaten bakarria. Nik baiño askoz leenago esan bait zuan orixe bera Sokrate edestilariak berak:

"Julianus...diuinationum conjecturis, quas Maximus (de Efeso) philosophus qui cum eo uersabatur, illi suggessisset confisus, et inanibus somniorum uisis persuasus, se Alexandri gloriam suis rebus gestis uel exaequaturum uel potius superaturum, supplicum persarum postulata reiecit; putauitque secundum Pythagorae Platonisque opinionem, ex migratione animorum ab uno corpore in alterum, animum Alexandri in ipsius corpus inmigrasse: imo uero se in altero corpore se Alexandrum esse".

Euskeraz:

Juliano'k, berekin zeukan Efeso'ko Maximo filosofilariak aurkezten zizkion aztikerizko ekintzetan, eta ametsetan ikusitako

txatxukerietan oiñarriturik, ziur uste zuan, berak, bere garaitzen bidez, Alexander'en aintza berdindu ez ezē garaitu ere egingo zuala, eta, orregaitik, ez zuan onartu nai izan pake-billa zebiltzan pertsiarren eskaria. Pitagora'k eta Platon'ek animen gorputzez-gorputzeko aldaketari-buruz izan zuten aburuari elduz, Alexander'en anima bere gorputzera etorria zuala, eta, eta, ondorioz, bera, gorputzez aldatutako Alexander ber-bera zala sinisturik zegoan".

Eta orrela sartu zan borrokara. Ametsetan.

Eta orrela il zan. Ametsetan bezala

NIZEA'KO KONTZILIO EKUMENIARRAREN GARAITZA.

Sendo eta indartsu irten zan kristautasuna Juliano fedeukatzai-
llearen zigorketa zipotzetik. Sendo ta indartsu, baiñan zatiturik.
Antioki'n adibidez bazituan bost talde. Bost Eliz! Bakoitza bere
gotzaiarekin, jakifia.

Zatiketa ori izan zan une ontaz gero arianikeriaren gaitzik
larriena, arianikeria azkenean eriotzara eramán zuana. Gaitz ori...,
eta, jakiña, Atanasio bezalako gizonen ekintza bikaiña.

Gotzairik gabe zegoan Alexandri, Pertsí'ko lekaro legorrean
Juliano'k bizia galdu zuanean. Ikusi dugu nola ipiñi zuten an gotzai
ariotarrek, Atanasio'ren orde z Kapadozi'ko Gorka. Ikusi dugu
baitare, erriak matxinada batez nola sasigotzai au uritik iges egitera
beartu zuan. Ori, II Graziano oraindik inperatore zala. Orain,
Juliano osterá Alexandri'ra biurtzeko burugabekeria egin zuan
Kapadozi'ko Gorka gixagaixo arek. Ez noski zorionez. Laister, era
illunean, erailla izan bait zan.

Urrengo urtean, 362'an, iritxi zan Atanasio Alaxendri'ra, ain
maite zuten erritarren txalo beroen artean.

Ez zuan, ikusi dugunez, lekaroan ere asti aundirik alper-galdu.
An idatzi bait zituan bere teologizko eta bibliztizko lanik oparoe-
nak, eta unean-uneko arazoei erantzuteko ainbat eta ainbat eskutiz
burutsu. Ala jarraitu zuan Ejito'ko Eliza izkututik jau rtzen.

Ori,lekaroan ere pake aundirik izan ez zuala! Kostantzio'ren
ertzaiñek atzetik gelditzeke ibilli zitzaizkiolako, tokiz sarrítan
aldatu bearrean aurkitu bait zan. Bat baiño geiago izan ziran ertzain

aiek gogor oiñazetutako lekaideak. Alperrik. Lekarotako lekaideek ez zuten sekulan salatu ain adiskide zuten gotzai ura.

Gogoan zituzten gaiñera, beraien alde Atanasio'k idatzitako idazti bikaiñak; ez zituzten aztu Pakomio Doneak ari zuzendutako goratzarreak; eta gogoan zeukaten Andoni Doneak ere eriotzako orduan ari utzi ziola bere bizkargaiñeko berogarria.

Ezta Atanasio'k ere, ez du iñoiz aztuko lekaide zindo aien jardunkera, eta lekaideen lagun eta babesle izango da beti.

Atanasio, Juliano'k emandako amnisti edo barkapen orokorraz baliatu askatasunera irten zanean, Galietan izan ezik, garaille aurkitu zuan munduan arianikeria: "homoios"-eran gaiñera: Rimini-Seleuzi'ko sinodo bikoitzean aldarrikatua izan zan bezala.

Ez Galietan. An, 360'ean, Juliano Galietako Iejioek inperatore altza zuten urte berean, oraindik Kostantzio bizi zala, Paris'en sinodo batean bildurik, gotzaiek, Rimini'n Kostantzio beraren aurrean kukildurik onartu zuten sinistarau "homoiostarrari" uko egiñez, ostera Antzira'ko Basilio'ren sinistarau "homoiusiostarra" onartu bait zuten.

Urrats aundia zan ura batasunaren alde, sinistarau onek zentzu egokia bazualako.

Izan ere, orduan bertan, "homoiusiostarrek guk bezala guk sinisten duguna bera sinisten dute. Aien eta gure artean, auzia, itz baten esannaiari-buruzkoa besterik ez da" oles zegian Atanasio omousiostarren aintzindariak.

Alexandri'ra iritxi bezain laister, sinodo bat bildu zuan onek: Aski txikia, 21 gotzai, baiñan garrantzi aundikoa, 21 aiek danak "aitorleak", ots "fedearen alde espetxez-edo zigortutakoak" izanik, sinodo artan erabakia Sarkalde osoan bereala ontzat artua izan zalako, ta Liberio Aitasantuak eskutitz bereizi baten bidez indartu ta sagaratu zualako, eta azkenean Sorta]dea bera ere, an erabakita-kora etorri zalako.

Sinodo artan:

- Barkapen osoa eskeiñi zitzaien, bildurrez ala ezjakiñean arianikerira jausi ziran gutziei.

- "Hypostasis" ("nortasuna") eta "ousia" ("zertasuna") itzei-buruzko auzia betirako argitu zan. Ta, argitapen orren onodorioz, "Hypostasis" itzak, nortasuna adieraziko du aurrerantzean beti katolikoentzat, eta "ousia" k, zertasuna.

Bi itz oiei zentzu ori emanez, "Jainkoagan ousia bat eta iru hypostasis dirala dion esaria, Jainkoari-buruzko sinispide zuzena adierazteko esari egokia" dala, erabaki zuan sinodo ark. Ez zuan esan ordea "esari egoki bakarra" danik; "esari egokia dala", baizik, orrela "homoiusiostrarrekin" alkartasunerako bidea erreztuz.

Berealaxe egin zuan Atanasio'k Antioki'ko Eliza sinodo arek erabakitakoaren jabe, idazti polit baten bidez: "document precieux de l'arnour du grand pour l'unitè et pour la paix" (Dic. Hist. Geog. Eccl). "Gotzai aundi ark alkartasunari eta pakeari zien maitasunaren adigarri aberatsa".

Juliano inperatore berriak oso gogo txarrez entzun zituan Alexandri'tik iristen zitzaizkion albisteak. Berak Eliza gero ta zatituagoa ikusi nai zuan. Atanasio berriz iez zitzaion ba Elizako zatiak berriro batera erakartzeko lanean ari!

Doi-doi zeramazkian Atanasio'k zortzi illabete Alexandri'n, aren aurka Juliano'k Ejito'ko jaurleari bere lenen eskutitza idatzi zionean. Bigarren eskutitza, alexandritarrei bidali zien bereala. Beren gotzaia zuten Atanasio'en alde idatziz erantzun zioten ordea alexandritarrek. Zapuzturik eman zion erarantzun ari erantzuna inperatore erretxinduak.

Zapuzkeri orren ondorioz, erbestera jaurtia izan zan berriro Atanasio, 362'garren urte artan bertan.

Ostera egoaldeko lekaroa-bidean, Ermapolis urira iristerakoan, bertako gotzaia, bereterrak, erria, eta inguruko eremuetako lekaide guztiak, alboratu zitzaizkion ongietorririk maitetsuena eman naiez. Andik Antinoupolis-zear Tabenne'ko lekarora zijoala jakin zuan Juliano'ren eriotzaren berri.

Ordurartekoa ez bezalako giroa etorri zezaiokean Atanasio'ri. Juliano illez gero, inperatore berriak, Jobiano'k, oso-osoan eman bait zion bere uste on gutzia. Baiñan zori txarrez, urtebete motz

iraun zuan Jobiano'k agintaritzan.

Danadala, beeruntz zijoan arianikeria. Urte ortan bertan (363) Laureun gotzai baiño geiago bazituala berekin, idatzi zuan Atanasio'k; eta arianikeria talde txikia biurtzen ari zala.

Ala, urte ortan bertan beti, Antioki'ko sinodo batean, ogei ta zazpi gotzaiek onartu zuten Nizea'ko sinispeida.

* * *

JOBIANO.- Juliano'ren gudaroztean zegoan, ura il zanean, Flavius Jovianus gudaiburua, eta berari eman zioten gudariek inperatoretzta, aurretik aukeratu zuten Sallustius Secundus gudaiburuak, adintsuegia zala esanez, eginkizun garai ura artu nai izan ez zualako. 363'garren urtea zan.

Jobiano'ren, aurreneko gauza, pertsiar garailleekin pakea egitea izan zan, bere gudaroztea salbatzeko. Ortarako lur-puska aundiak eman bear izan zizkien: Diokleziano'k Tigris ibaiaren sortaldean irabazitako lau "satrapi" edo probintziak, Armeni'ren erdia eta Mesopotami'ren giltza ziran eta orain Turki'n eta Irak'en dauden Nisibi eta Singara izeneko uriak. Bertako biztanleen naimenaren aurka, azkeneko bi uri auek beintzat, eta baita bearbada lau satrapiak ere. Orduan ez bait zan biztanleen naia gogoan eukia izaten.

Batez ere Nisibi zan uri ederra. Politikaren aldetik eta baita kristautasunaren aldetik ere garrantzi txit aundikoa.

Ez zan ura, pake onuragarria izan Erroma'rentzat, baiñan Erroma'ren lejiio garaituak gaizkatzeko ez zuan inperatore berriak beste irtenbiderik izan. Jende guztia, jakiña ez zitzaion pozik gelditu. Izan ziran b, jentillen artean bereiziki, lejiio aiek Pertsiko lur gogorretatik aintzatsu atera zitezkeala esan zutena. Ortarako naikoa omen zan lejiotar aiek bilduta pertsiarrei kementsu erasotzea. Ez ziran oartzen zenbat aiñako ondamenara sarturik utzi zituan an Juliano'k Erroma'ren lejiio "beti garailleak".

Ez zitzaion Jobiano inperatore berriari, ez deus aundirik

egiteko ez ezer askorik agintzeko astirik naiko gertatu, urtebete labor bat apika iraun bait zuan agintaritzan.

Kultura urriko gizona zan. "A zealous and orthodox christian" (Cath. Enc.): "Kristau gartsua eta sinispen zuzenekoa", bai. Baiñan ez ain zintzoa, durudianez beintzat, bere bizikeran, "chr&ien assez peu fidèle aux lois dela morale, "zintzotasunari dagozkion legeei gutxi lotua" izan zala bat diosku "Catholicisme" iztegiak.

Alare, berealaxe itzuli zizkion Elizari I Kostantino Aundiak emandako abantail guztiak.

Idazle kristauak idatzi zuten, itxi omen zituan sasijainkoen jauretxeak eta oparizko abere-ilketak eragotzi. Altagutziz, ez-bide ziran oso gogorak eman zituan agindu oiek izan. Erlij io-arazoetarako txit esku-zabala izan zala bait diosku Temistius filosofilari jentillak.

Ez da arritzekoa. I Kostantino Aundia izan baitzuan jaurketako eredu, eta oraindik inperiolurreko jenderik geiena jentilla bait zan, uri aundietan izan ezik.

Zearo katolikoa, eta esku-zabala, bazuan noski Jobiano'k inperatore on bat izateko ezpala, baiñan Perti-aldetik Kostantinopla'ra zetorrela, Bitini'ra iritxi bezain laister il zitzaigun. Gorputz sartu zan Kostantinopla'ra eta an Apostolu Doneen jauretxean izan zan obiratua (364).

Elizari zegokion arazoetarako, Atanasio Doneak Antioki'n aurkeztu zion egitaraua artu zuan beretzat, eta, ala, zalantzarik gabe Nizea'ko kontzilioaren aldekoa agertu zitzaigun.

* * *

"DIARKIA" BERRIRO: BALENTINIANO ETA BALENTE IMPERATORE.- Gudaroztea izan zan berriro inperatore berria aukeratu zuana. Ta inperatore berria au ere gudari bat zan: Flavius Valentinianus gudalburua. Jaiotzez, pannoniarra, eta guraso txiroen semea. Gudaroztean egin zuan ezaguna bere burua.

Katoliko zintzoa, Juliano'ren denboran, esan oi danez, sasijain-

koak gurtu nai izan ez zitualako Galietara erbesteratua. I Kostantino'ren erara onek ere erlijio guztiakin eraspentsua izan nai izan zuan

Bazuan anai bat, bera baiño gaztegoa, Balente izen-zuana. Au egin zuan, inperatorekide, orrela, zoritxarrez Elizarentzat --, diarki edo agintaritzza bikoitz bat ber-ezarriz. Beretzat, Sarkaldea gorde zuan, Sortaldea Belente'ri emanaz.

Alkarrengandik bereizi aurretik, erlijio guztiakin eraspentsu izatea erabaki zuten, baiñan erabaki ori Balentiniano'k bakarrik gorde zuan. Ez ordea Balente'k.

Ez dijoa noski eraspentsu izan nai orren aurka, gaez egiten ziran odolezko opari-eskeintzen debekua. Agindu ori, dirudianez, gaezko opari-eskeinleen istilluak eragozteko emana izan bait zan.

Bai batak eta bai besteak izan zuten bi inperatoreek barbaritarren aurka inperiolurreko mugak zaintzen lanik aski, baiñan ala ere ez zitzaien, Balente'ri bereiziki erlijio-gaietan sartzeko astirik peitu.

Balentiniano, Balente baiño askoz balio geiagoko gizona zan. Lenen maillako gudal-buruzagia eta arras lege-emaille yayoa. Izan zuan guztiaren bearra eten gabe eraso zioten barbaritarrei eusteko. Agian, aiei inperiolurrerako sarrera eragoztearren gaitzetsi zituan eriotzazko zigorrez barbaritarren eta erromatarren arteko ez-kontzak. Eriotza zigor! Bai senarrentzako, bai emazteentzako!

Ez zeraman oraindik agintaritzan urte bete, alamandarrak Rin ibaia igaroz Galietara jauzi egin ziotenean. Lutezi'ra, ots, Paris'era etorri zan bizitzera, eta andik zuzendu zuan aien aurkako borroka (365). Marne ibaiaren alboan, Durokatalaunum (Chlons) zeritzan urian izan ziran barbaritar aiek garaituak, eta amar milla gorputz utzi omen zituzten borroka-landan.

Urrengo urtean Inghlanderria zan barbaritarren eskuetara jauzi zana. Orain, guda-lekutik bertago egotearren Ambiani (Amiens) urira aldatu zan Balentiniano . Saxonitarrak Londres artzeko unean aurkitzen ziran, Balentiniano'k Teodosio gudalburua aurka bidali zienean. Gero I Teodosio inperatorea izango danaren aita zan

au, eta etsaiak garaituta ederki pakeratu zuan erromatarrek Britani esaten zioten lurralde eder ura (367).

Urte ortan bertan germaniarren erasoetatik Rin-arana zaintzeko, Graziano bere semea albo-inperatore izendatu ondorean, Treberis'era joanda an bizitu zan zazpi urtez, lurralde ura gazteluz-eta sendotuz.

* * *

Bitartean, Sortaldean Balente'k ere bazuan naiko lan Mesopotamr'n pertsiarrekin, eta Danubio'n germaniarrekin. Bere inperio-lur-barruan ere, Prokopio izeneko Juliano fedekatzaillearen aide bat jeiki zitzaion aurka bere burua inperatore egiñez. Garaitua izan zan ordea, baiturik artua eta eriotzara galdua. Bai bera eta bai bere gudarozteko buruzagiak, "suppliciis inusitatis traditos" izan omen ziran, ots, "oituraz gaindiko oiñazeen artean" eraillak (Sokrate).

Ikus Prokopio beraren eriotzaz edestilari berorrek dioskuna: "Procopium uiuum cepit: crura, duabus arboribus quae non longo interuallo inter se distabant, ad terram inflexis alligauit, deinde arbores in sublime se tolli permisit, quae in altum sublatae Procopium dicerpserunt. Igitur in duas partes diremptus misere periit": "Bizirik artu zuan (Balente'k) Prokopio: ta aren bi belauak bata bestearen ondoan zeuden, eta lurrera makurtu zituan bi zugaitzei lotu ondorean, zugaitzei gora joaten utzi zien, Prokopio zartatu zezaten. Orrela il zan au, era mingarrian bi zati egifiik".

Bereala, Prokopio'ren lagun izan ziran eta orain Danubio ibaiaren ertzean borrokan jarraitzen zuten gotiarren aurka ekin bearrean aurkitu zan Balente.

Garaitu zituan, oraingoz beintzat (369), baiñan, laister, Antiokr'n iraultzan jeiki zitzaion Teodoro buruzagiaren aurka itzuli bear izan zuan.

Ez zala errez, garai artan, pakean bizitzea!

Barbaritarren erasoek aiña, edo bear bada geiago, ari ziran gudaiburuaren iraultza auek Erroma'ko inperiotzaren kemenak aultzen

eta makaltzen.

Odoletan ito zuan Balente'k Teodoro'ren iraultz ura (372). Astirik galtzeke Mesopotami'runtz joan da, gelditu aal izan zuan pertsiarren sarrera gogorra; baiñan aiekin pake txiro bat izenpetuta (376) arin Europa'ra etorri bear izan zuan, gotiarrak Danubio igarota, Mazedoni eta Trazi'rutz sartu ziralako. Ez zetozen oraingoan gudulari. Baizik eta, iparraldetik jo zieten beste barbaritar batzuen erasoari eusteko gauza izan ez ziralako. Alamandarrak eta undarrak izan ziran, bat egiñik, gotiarrak Danubio igarotzera beartu zituzten barbaritar aiek.

Danubio'ko gudaroztearen buruzagi erromatarrek baimena emanda igaro zuten ibaia, eta pakean jarri ziran lur berrietan bizitzen. Baiñan inperio erromaterreko agintarien zipozkeriak erretxinduta, laister altxa ziran iraultzan. Alde zituzten oraingoan len etsai izandako beste barbaritar aien talde ugariak.

Etorri zan Balente. Trazi'ko Adrianopolis urian egin zuan barbaritarrekin topo. Ikaragarria izan zan borrokaldi artako sarraskia. Sarkaldetik, ez zan Graziano inperatore berria garaiz iritxi, eta an izan zan ondatua Balente'ren gudaroztea, eta an galdu zuan berak ere bizia. Ez zan beiñere bere gorputzik aurkitu.

Inperatore bezala, bere ekintzarik ospetsuena Kostantinopla'ko "akuedukto" edo ubidearen eraiketa izan zuan. An daude oraindik lan aundi aren ondakiñak turisten atsegiñerako.

* * *

Elizari dagokionez zearo ezberdiña izan zan bi anaien jardunke-
ra: Balentiniano, benetan katolikoa, eta erlijio guztiak era berdi-
ñean legez eraspentsuki erabiltzearen aldekoa "naiz berdintasun ori
zintzo gorde-naiak arianitarrekin eta jentillekin eskuzabalagoa
izatera bultzatu": "Probably in his endeavours to observe impartia-
lity, he bestowed more favours on the Arians and heathens" (Cath.
Enc).

Ezereztu zituan Julianok kristautasunaren aurka emandako lege

guztiak, eta itzuli zituan Erroma'ko "labaro" edo ikurriñera ark kendutako gurutzea eta Kristo'ren ikurra. Debekatu zuan kristauak gladiatore izatera beartu aal izatea, eta lagundu zion Damaso Aitasantuari Ursino sasiaitasantuaren aurka. Kendu zien gudari kristauei sasijainkoen jauretxeak zaintzen egon bear izatea, eta, gotzaiei, soilki beste gotzaiek bakarrik epaituak izan aal izateko eskubide bereizia eman zien.

Nizea'ko Kontzilioaren maitalea ta babeslea izan genduan bere agintaritza guztian. Ala agindu zien Sortaldeko gotzaiei Kontzilioaren sinispidea erakusteko "naiz Balente homousiostarren etsaia izan", Balentiniano'k berak itzez itz bere aginduan esaten zuan bezala.

Bañan Auxentzio Milan'go gotzai ariozalea eskomikatua izan zanean, ez zitzaigun ba Balentiniano aren alde atera? Bai, noski, baiña, gotzai ura ariozale izan zitekeanik sinisten ez zualako.

Bere tokian ikusiko dugunez, inperioko lege egin zuan, Ilirl'ko sinodoak Gogo Deunaren jainkotasuna ukatzen zuten "pneurriatokoi-"en aurka agindu zuana.

Jentillei, debekatu zizkien gau-jaiak, Baiña, ezbairik gabe, jai aietan sortzen ziran istilluengaitik. Akaia'n, bertako jaurlearen eskaria onartuz, yare utzi bait zien "misterio" edo gurketa sortaldetarrei jarraipena, eta legezko egin bait zituan "haruspitia" edo aztikeri-ekintzak,

Babestu zituan, eta baita aundiagotu ere, jaupari jentillen eskubideak, eta, ondare edo erentziei-buruz, apaiz katolikoentzat emandako legetik yare utzi zituan jaupari aiek. Apaiz katolikoei, andre aberatsen ondaretza-gai izatea debekatu bait zien legez. Emakumezko aberats aien oiñordekoak ez ba'ziran, jakiña.

"El reinado de Valentiniano I fue seguramente el reinado en el que se realizd mejor la libertad religiosa" (Garcia Villoslada).

Sasijainkoen jauretxeak ontasun askoren jabe ziran oraindik. Ontasun aiek danak, II Kostantzio'k eliz kristauei eman zizkien. Julianok alderantziz, sasijainkoenjauretxei, eliz kristauen ondasunak. Orain, Balentiniano'k, ez zizkien ondasun aiek eliz kristauei

bir-eman. Ori egiteke, beretzat artu zituan ondasun danak. Aberastasun-egarriz? Bere burua, kristauen eta jentillen artean alderdikeririk-gabeko agertzearren? Erriari zergak moztutzeko?

Manikeritarrekin bakarrik ez zan eraspentsua izan, guztiei eraspen berdiña ematearen zale izan zitzaigun Baleriano. Gaizkilletzat euki bait zituan beti Mani'ren jarraille aiek. Ala, alkarrekin batzartzea galerazi zien Erroma'n, eta batzar-etxeak kendu. Ta beren irakasleak zigortu.

Alderantziz, Sortaldean, Balente'k ez zuan "guztientzako-eraspen-berdifia zer zan ere jakin. **Balentiniano bere** anaiaren antzekoa izan zan bere jardunkera. Elizari zegokionez ordea, zearo ariozaleen aldera okertu zan.

"Valens was a fervent arfan": "Ariozale sutsua izan zan Balente" (Enc. Brit). Gogor ibilli zan katolikoek aurka, eta "auetako batzuk eriotzara galduak ere izan ziran": "Some of whom were put to death" (ib).

Ala, 370'garren urtean. Izendatu berri zuan Domilfilo zeritzan ariozale bat Kostantinopla'ko gotzai. Ori zalata, beren atsekabea erakustera joan zitzaion, elizgizon-talde katoliko bat. Asarretuta, bizirik sutara jaurtiak izatera galdu omen zituan Balente'k

Ta, jakiña, erbestera zituan berriro gotzai katolikoak, eta gnola ez? beste inor baiño lenago Alexandri'ko Atanasio. Baiñan, erriak beartuta, au azkar-azkar ostera Alexandri'ra ekarri-bearrean aurkitu zan": "Public opinion quickly forced him to recall Athanasius to Alexandria" (ib). Inoiz inon erriak maitatutako gotzai bat izan ba'da, gotzai ori Alexandri'ko Atanasio Donea izan bait da.

Esan ere esan oi da Balente izan zala gotiarrak jentiltasunetik arianikerira eraman zituana, ortarako bidali zizkien irakasle ariozateen bitartez, baiñan au egia dan jakiterik ez dago.

"Valens, thou a man of high personal morality, was in many ways weak and cruel and was unequal to his high office" (ib): "Balente, naiz moralitate edo oitura arras garbiko gizona, une askotan aula eta era berean ankerra izan zan, eta, beti ere, ez bere egingizun aundiak eskatzen zuan neurrikoa" (Ib.).

Alderantziz, "Valentinian was affable and kind, ready to profess openly his faith when called upon, but vain": "Balentiniano, arraia zan eta atsegiña, eskatzen ba'zitzaion bere sinispena agirian aitortzeko gertua..., baiñan arroxkoa,

Bi seme izan zituan. Biak izan ziran inperatore.

* * *

Balente ariozalea Sarkaldean inperatore zala, 373Sarren urteko orrillaren 2'garren egunetik 3'garren egunera arteko gauean il zan IV mendeko gizonik garrantzitsuenetako bat: Atanasio Donea, Alexandri'ko Gotzai Donea.

Paketsuak izan ziran bere azkeneko urteak. Ejito'ko erriak bere Patriarka aundiari zion maitasunagaitik, azken urte aietan Balente inperatorea, aren aurka deus okerrik egitera ez bait zan ausartu.

Bere inperatoretzaren asieran bai, erbesteratu zuan Atanasio.

Ura zan Atanasio'ren bosgarren erbesterapena. Baiñan oraingoan ere, laugarrenean bezala, Ejito'tik irtetzeke izkutatu egin zan berriro. Bere aitaren illobian? Ez noski, albiste orrek kondaira utsa dala bait dirudi.

Bidali zuan, Balente'k, gudari talde bat Atanasio'ren billa. Gudari auek ordea ez ziran ura aurkitzeko gai izan. Ez zuten gaiñera, ematen duanez, beren eginkizuna betetzeko neke geiegirik artu. Erria aurka zutela ikusten bait zuten.

Ta, esan dugun lez, Balente berak ere utsean utzi bear izan zuan azkenean erbesterako-agindu ura! Izan ere, une artan bertan bere aurka jeikita, Kostantinopla'ko erriak Prokopio izendatu bait zion inperatore!

Garaitu zuan Balerio'k etsai ori, ikusi aal izan dugun lez. Baiñan gurendaz gero, ez zan geiago Atanasio agurearen aurka jardun.

Ez zituan onek lasaitasunezko urte aiek alperrik galdu. Alexandri'ko bere Eliza jaurtuz, eta bere itzaldi, eskutitz ugari eta liburu ederren bidez, Ejito'ko, eta Eliz osoko, gidari tinko eta argi-ernaille

dizdiratsu izanez jarraitu zuan, azken arnasa-arte.

Garai ortakoak ditu Bibliari-buruzko idaztiak. "Salmoen Azalpena" adibidez. "Alegorien", ots, "irudien" bidetik ibilliz, Origene aundiaren jarraille agertzen zaigu Atanasio bere azken lan ortan. Biak bait ziran alexandritarrak!

aurretik izan zuan, ainbeste urtez ariotarren aurka lagun izan zitzaion Antzira'ko Martzel'ekin pakeak egin aal izateko zorion gozoa. Txit egokia iruditu bait zitzaion adiskide zar arek, bere sinispidea agertzeko bidali zion sinistaraua.

Ezagutu zuan ereji berri baten sorkuntza ere. "Apolinarkeria" esan oi zaion ereji onek, Kristo'k animarik ez duala, esaten zuan, animaren lekua Itzak artu zualako. Ori egia izatekotan, Kristo ez litzake egiazko gizona izango. Laister izan zuten aurka apolindarrek Atanasio zaarra. Aien aurka idaztiak bait ditu bere iru "Epistola".

Arreman aundiak izan zituan, azken-urte aietan Zesarea'ko Basilio Donearekin ere, erejiak garaituta, Elizaren pakea nola lortu zitekean asmatzeko. Baiñan ain maite izan zuan pake ori ikusteke zitzaigun Atanasio, "bere ordezkotzat Kepa izeneko bere anai bat izendatuz": "il avait designé son fthe Pierre pour lui succUler" (Dic. Hist. Geog. Eccl.)

Asko zor dio Elizak Atanasio Deunari.

Atanasio'ri pakean utzi ziola azken urteetan Balente'k, esan dugu. Baiñan, orain, aren ondorengo Kepa'ren aurka gogor sartu zala esan bearrean aurkitzen gera. Egiazko zigorketa izan zan ura katolikoan aurka: "El prefecto Paladio hizo ocupar la iglesia de Santo Toms en medio de grandes tumultos e instaló al obispo Lucio (ariotarra) con el apoyo de fuerzas de la policfa.

"Ckrigos y monjes fueron arrestados, luego desterrados o condenados a trabajos forzados en las minas. Once obispos y 126 ckrigos fueron deportados y con frecuencia se trató de quebrantar la oposiciónd mediante ejecuciones. El obispo Petros huyó secretamente a Roma, cerca del papa Wmaso, desde donde en una carta circular informd a la Iglesia univeresal de los acontecimientos de Alejandrfa" (Jedin).

Atanasio 370'az gero Kapadozi'ko Zesarea'ko gotzaia zan
Basilio Doneak

artu zuan erejien aurkako borrokan katolikotasunaren lendakaritza.

Egunetik egunera aultzen ari zan arianikeriaz gaiñera asia bait zuten beren zabalkundea aipatu dugun apolinarkeriak eta, naiz Kristo jainkotzat artu, Gogo Deunaren jainkotasuna ukatzen zuan mazedonikeriak.

Ederki lagundu zioten itzez eta lumaz, beste bi gotzai aundik: lagun zintzoa zuan Naziantze'ko Gregorio'k eta lagun izateaz gaiñera anaia ere bazuan Nisa'ko Gregorio'k. Iruak ziran Kapadozi'koak, eta orrela esan ere esaten zaie: Aita Kapdoziarrak.

Poz aundia artu zuan Liberio Aitasantuak, bere aurrean Sortaldeko gotzai "homolusiostar"-talde baten izenean bi ordezkari Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarrak "homousios" itza erabilliz eratutako sinistaraua ontzat artu zutenean.

Bere poza agertuz eta Nizea'ko federa biurtu ziranei zorionak emanaz, eta oraindik Nizea'ko fedetik at gelditzen ziranei Eliz Orokorraren altzora itzultzeko dei egiñez, eskutitz eder bat idatzi zien Liberio Aitasantuak Sortaldeko Eliz guztiei.

Balente inperatorearen eriotzak (378) babesik gabe utzi zuan betirako arianikeria, urrengo inperatoreak -- Graziano, II Balentiniano eta batez ere I Teodosio zearo katolikoak izan bait ziran: Nizea'ko Kontzilio ekumenikoaren aginduen babesleak.

Balente eun eta ogei ta amar gotzai baiño geiago bildu ziran urrengo urtean Antioki'n (379), Nizea'ko sinistaraua onartzeko, orrela "arianikerlari" agur egiñez. Bi urte geroago, Kostantinopla'n bildu ziran I Teodosio inperatorearen aurrean, eta esan daiteke, an asi zala, arianikeria gero ta azkarrago eriotzara eramanean bear zuan aldapa-beera. Ikus beeruntz-ko aldapa labur ortako urratsak:

- 383: Katolikotasunaren eta arianitar-zati ezberdiñetako buruzagien artean egindako batzar baten ondorean, I Teodosio'ren lege batek "jendearen aurrean ozenki egindako elizkizun guztiak" eta "beren aburuen zabalkunde oro" galerazten zizkien arianikeriza-

le guztiei. Eta baita mazedonikerizaleei ere.

- 391: I Teodosio'ren beste erabaki baten bidez, batzarketa oro galerazi zitzaien, arianikerizaleei eta mazedonikerizaleei.

Eta I Teodosio'ren erabaki oiek, lege egin bait zituan II Balentiniano'k ere Sarkalderako, eriotzak jota gelditu zan arianikeria, eta, anei pusketan zatiturik, laister ezabatu zitzaigun inperioluraren barruan.

Barbaritarren artean jarraituko du bizirik, bisigotak eta lonbarditarrak katolikotasunera sartu ziran arte. Ortaz ordea, bere lekuan mintzatuko gera.

* * *

GRAZIANO. - I Balentiniano ta Marina aren emaztearen semea, Pannoni'ko Sirmio'n jaioa, Ausonio olerkaria izan zuan irakasle. 375'an artu zuan agintaritza.

Gaurko Budapest'en alboan Danubio'ko gudarozteak ordea, aren erdi-anai bat jaso zuan inperatore: oraindik umea zan II Baletiniano, I Balentiniano'ren eta onek bigarren emazte artu zuan Justina'ren semea. Graziano'k ez zuan izendaketa au ontzat artu beste irtenbiderik izan. Ala, agintarikide egin zuan bere anaitxo ura, orrela diarkiarekin jarraituz: Bi inperatore batera. Oraingo ontan, Graziano ta II Balentiniano.

Graziano gizon ona zala diote edestilariek, baiñan ez zuala agintaritzarako geiegizko gaitasunik. Ausonio olerkariaren eraginmenaren ondorioz, gizon gozoa izan zan beintzat eta errikoia; jende arruntaren maitalea. Adiskide, lagun eta ia-ia gogo-zuzendari ere izan zuan Ambrosio Doneak aren kastitatea ta Jainkoaganako eraspina gorestu zizkigun eta arentzat idatzi zuan bere libururik ederrenetako bat: "De Fide": "Sinismenaz".

Adrianopolis'ko ondamen izugarrian Balente il zan ezkerro, Sarkaldeko eta Sorkaldeko inperatore egiñik gelditu zan Graziano. Ta Sortalderako, Teodosio, Afrika'n eraila ikusi dugun gudalburu aren semea izendatu zuan inperatorekide.

Bada Frantzi'n oraindik bere izena, Grazianopolis daraman uri bat, gaur Grenoble biurtua.

Barbaritarren artean, alamandarrak izan zituan etsairik borrokalarienak, eta aiengandik bertago egoteko, Treberis'en jarri zan bizitzen. Garaitu zituan, 378'an, Kolmar'ko borrokaldi gaitzean. Paris'en zegoan Inghlanderriko lejioek Magnus Maximus izeneko buruzagi bat inperatore altxatu zutela jakin zuanean.

Zabaldu zan iraultza Galietara, eta emengo gudariek, Graziano'ri uko eginda Maximo iraultzalariaren alderdira igaro ziran. Zergaitik? Gudarien arteko bekaizkeriagaitik. Obeki ikusiak omen zeuzkan Graziano'k, gudaroztean, aren esanera bildu-berriak ziran sari-trukeko gudari alamandarrak.

Lugdunum edo Lyon'era iges egin zuan Paris'tik Graziano'k. An ordea saldukeriz atxilotua eta erailla izan zan. Eraille, germaniar endako Andragazio kontea.

"Gratian was a likable person, interested in literature and affluent speaker, but neither effective nor efficient": "Gizon maitagarria izan zan Graziano eta izlari naroa, ez ordea eraginkorra, ezta eragillea ere" (Enc. Brit). Ez dut uste ori oso-osoa egia danik. Ez beintzat orduango erlijio-auziei dagokienez.

I Kostantino ezkerro, tolerantzia, ots, sinispide guztientzako eroapen berdiña izan zan Erroma'ren inperiolurreko legea.

Ba., arlo ortan aldakuntza aundi bat egin zuan Graziano'k; Ambrosio Donearen eta Damaso Aitasantuaren aolkuak jarraituz, erlijio-eroapen-kerak berri bat asmatu bait zuan.

Ala, ez zuan artu nai izan, inperatoretzara igo zanean, "Pontifex Maximus" edo jentillediko Jaupari Nagusiaren jantzia. Ordurarte, I Kostantino Aundiaz gero inperatore guztiek jantzi zuten soñeko sagaratu ura, naiz beraiek kristauak izan. Graziano izan zan jantzi ari uko egiten lenengoa.

378'an, lege baten bidez, kontzientziko askatasuna ziurtu zien bere mendeko guztiei. Baiñan urrengo urtean (379) erejia erakustea debekatzen zien. Ta urte ontan bertan uko egin zion berriro, senatuak eskeintzen zion "Pontifex Maximus" izenari eta izen orrek

berekin zeraman jentiltasunaren zuzendaritzari.

Bereala, Erroma'n senatuaren areto nagusitik "Gurenda", ots, "Victoria" jainkemearen aldarea kentzeko agindu zuan.

Era berean kendu zizkien jentillediko jaupariei eta "vestal" edo lekaike jentillei ordurarte gorde aal izan zituzten abantail guztiak. Ta beretzat artu zituan jauretxe jentillen irabaziak ere.

Ez dut uste, Graziano "neither effective nor efficient" izan zala esatea, zillegi zaigunik. Gudu-arazoetan ez zitzaigula ain eginkorra irten? Ori ere esan ez daitekean gauza da. Garaitu zituan orduango barbaritarrik gogorrenak, alamandarrak, Kolmar 'ko borroka eriogarrian. Ta Maximo iraultzalaria menderatu ez ba'zuan bere gudariek uko egin zielako izan zan.

Erroma'ko gizarte-giroaren aldakuntzarako berak eman zuan urratsik garrantzitsuenetako bat. Entzun: "La vieille religion traditionnelle fut relégue parmi les sectes illicites et prosrites, como telles, sous les peines les plus sver6" (Catholicisme)": "Oiko erlijio (erromatar) zaarra, bere izate utsez lege-zanpokoak ziran eta debekaturik zeuden siniskerizko taldeen artera baztertua izan zan zigorrik gogorrenen zemaipen".

Ori ere, ordea, ez da oso egia. Yare utzi zuan Graziano'k jentiltasuna. Lengo laguntza eta abantailik batere gabe, baiñan askatasun osoan. Egia esan, gogorragoa izan zan erejeekin; auei bai, erejia erakustera galerazi bait zien.

Alderantziz, gogo osoz Iagundu zion katolikotasunari. Akileia'ko (381) eta Erroma'ko (382) kontzilioen aginduak beteeraiz, adibidez. Gaiñera, gotzai ariozale guztiak bota zituan arturik zeuzkaten gotzai-aulkietatik. Bere-egin zuan, 388'an Teodosio'k Sortaldean eman-berria zuan fedeukatzaillen aurkako legea.

"Erroma'k izandako inperatorerik onenetakoa izan zitekeala Graziano"; bazuala ortarako gaitasunik aski. Eta iritxi ere iritxiko zala gurentasun artara, "bere aolkulariek gaizki erabilli ez balute", idatzi zigun Ammianus Marcellinus garai artako edestilariak.

Amiano Martzelino ori ordea..., jentilla zan. Ta berak aipatzen dizkigun Graziano'en aolkulari oker aiek Milan'go Ambrosio Donea

eta Erroma'ko Damaso Aitasantua ziran.

Edestilari ona, Amiano Martzelino, baiñan jentilla; ez beraz oso egokia, jentiltasunaren adiskide motza izan zan Graziano'ri-buruz begietako lausorik gabe mintzatu aal izateko. Idazle bezala, Nerba inperatorearengandik asita (69) Balente'ren eriotzaraifio (378), Tazito'ren edestia jarraitu zigun, baiñan zoritxarrez, 353'garren urtetik gerozko gertakizunei-buruzko liburuak bakarrik iritxi zaizkigu, bere Edesti ortatik. Pertsona bezala, jentilla, baiñan danekin eraspentsua omen zan. Elertilari lez, txukuna da, eta dotorea. Ta egizale zintzoa.

Orregaitik, kezkarik gabe ontzat ar dezakegu, Graziano'ren alde egin zuan goratzarrea.

* * *

II BALENTINIANO.- Graziano'ren erdi-anaia, ura bezala I Balentiniano'ren semea. Ikusi dugu nola artu zuan inperatorekide bere anai arek, baiñan egia esateko ez zuan II Balentiniano onek ia beiñere berak bere kabuz agindu: Galerio bizi zalarik, bera oraindik gazteegia zalako; eta Magnus Maximus iraultzalariak Graziano il zuanean, Britani, Galiak eta Españi arrapatu zikion ezkerero, berari -II Balentiniano'ri Itali bakarrik gelditu zitzaiolako, eta emen ere, egiaz agindu zuana, Justina bere ama izan zalako.

Ariozale sutsua zan Justina inperatemea, emakukemeak Ario'z maitemindurik bezala jarraitu bait zuten aski ugari, Ario ilda ondorean ere Emakume setatsua, Justina inperateme au, bere semea arianikerira bultzatu naiez: "En vano quiso convertirle al arrianismo e infundirle su odio contra los ortodoxos" (Espasa).

Arianikeria inperiolurretan illik zegoanez gero ere, gogor saiatu zan emakume au, bera bizi zan Milan'en eta Ursazio'ren eta Balente'ren sorterri ziran balkan-aldeetan arianikeriaren ondarrak birpiztu nairik lanean.

Larri ibilli ziran ama-semeak 383'an, Magnus Maximus iraultzalaria bere gudaroztearekin ItaIrre sartu zitzaielako, eta

Milan'dik Mazedoni'ko Tesalonika'ra iges egin zuten, I Teodosio'-ren laguntzaren billa. Eta I Teodosio'k Magnus Maximus garaitu ta eriotzara galdu zualako, Sarkalde guztiaren inperatore gelditu zan II Balentiniano, gizon zintzoa ta pakearen rnitalea, baiñan aulegia bere amaren kerizpetik ateratzeko.

Milan'en Ambrosio Donea zan gotzaia. Justina'k ordea beste gotzai bat, ariotarra, sartu nai izan zuan Milan'en. Ambrosio'k eragotzi zuan ekintza ura. Ezaguna bere orduango esaria: "Eliza, gotzaiaren barrutia da; ez inperatorearena".

Ariminum esaten zioten erromatarrek Itali'n Adriatik-Itxasoa-ren ertzean dagoan Rimini uriari. An bazan arianitar-talde bat, eta, aiei laguntzeko, erabaki bereizi bat eman zuan II Balentiniano'k 386'ean. Justina zegoan noski ekintza aren atzean ere. Baiñan alperrik ibilli zan oraingoan ere; bereala ezereztu bait zuan erabaki ura I Teodosio'k. Ama-seeek berriz ezin aztu zezaketen Magnus Maximus'en aurka lagundu zielako, I Teodosio'ri zor ziotela inperoretza.

Erroma'ko Senatuan asko ziran oraindik senatari jentillak, lengo sendi zaar aristokrazikoietako semeak. Bâ, senatari auek, "Victoria" edo "Gurenda" jainkemearen irudia, eta aldarea, ipiñi nai izan zituzten berriro senatuan. Ambrosio Donea izan zan orain berriro inperatorearen bitartez senatari zaar aien guraria ezabatu zuana.

Justina ij zan ezkerok, Donambrosio'-ren adiskide biurtu zan II Balentiniano. Lagundu zion Damaso Aitasantuari ta aren aginduz eta aren laguntzarekin sartu zan au Paul Donearen omenezko basilikaren eraiketan.

Katekumeno egiñik, Galietan zegoala, bere burua gaixo sumatu zuanean, bataiatua izateko Ambrosio Doneari deitu zion.

Ez zan Ambrosio garaiz iritxi, bera baiño azkarrago ibilli bait zan eriotza.

Milan'en izan zan obiratua inperatore il-berria, eta izen aundikoa da illetetan Ambrosio'k opalda zion itzaldia: "De Obitu Valentiniani Oratio": Balentiniano'-ren Eriotzari-buruzko Itzaldia".

LAUGARREN MENDEAREN BIGARREN ERDIKO AITASANTUAK

MARKOS.- Izen ortako Aitasantu bakarra. Urte batera doi-doi iritxi zan bere aitasantutza. 336'ko urtarrillaren 18'an izan zan Aitasantu egiña, eta illik bait zegoan 337'ko urtarrillaren azkeneko. Bi zertzelada damaizkigu, Aitasantu oni buruz "Liber Pontificalis" izeneko liburuak: Jaiotzez erromatarra zala. Bi basiliken eraiketan ongi saiatu zala: Donemarkos'en eta Balbina'ren katakunbetako basiliken eraiketan ainzuzen.

Azkeneko ontan izan zan obiratua, eta garai aietako beste aitasantu guztiak bezal Elizak aidareetara jasoan izan da: Markos Donea, Aitasantua.

* * *

1JULIO.- (337-352). Markos ilda bela izan zan Kepa Deunaren aukira jasoan erromatar au. Ez zitzaion gozoa gertatu agintaritza, arianikerizaleek sortu zizkioten istilluen erruz. Atanasio Alexandri'ko gotzaiaren aurka ipiñi nai izan zuten Aitasantua. Izan ere, Atanasio Donea, izan bait zan, --bai beintzat I Kostantino il zanez gero I Teodosio etorri zan arte IV mendeko gizonik garrantzitsuena ezpairik gabe. Orregaitik aren aurka jo zuten, amorrugorritz, talde guztietako arianikerizaleek, eta auen alde aritu ziran maiz aski inperatoreak.

Eta aren aurka ipiñi nai izan zuten I Julio Aitasantua ere.

Ona, zalaparta aien urratsak:

Bi eskari egiten zizkioten I Julio'ri, ordezkari baten bitartez:

Atanasio gaitzestea; eta Atanasio Alexandri'ko gotzaigotik kendu zuan Tiro'ko kontzilio ura ontzat artzea;

Atanasio jaurti ta aren ordez ipiñia zuten Pistos, Alexandri'ko egiazko gotzaitzat onartzea.

Alperrik ibilli ziran, ezezko borobilla jaso bait zuten I Julio'rengandik.

- II Kostantzio il zanean, garaille itzuli zan Atanasio bere gotzai-aulkira, eta, bereala, sinodo bat bildu zuan Alexandri'n. Pozik jaso zuan I Julio'k sinodo arek bidali zion mezua: "Ejito'ko gotzai guztiak bere buruzagiarekin, ots, Atanasio'rekin, bat egiñik zeudela" adierazten zion mezua: ("Ie temoignage de l'unanimité des évêques égyptiens autour de leur chef" (Catholicisme).

- Arianikerizalerik bakunenak eskatuta, Erroma'n ospatuko zan sinodo baterako deia egin zien I Julio'k ariotarrei eta katolikoei.

- Ariotarrak ordea, ostera Atanasio Alexandri'tik bidalita, aren ordez ipiñia zuten best gotzai bat: Kapadozi'ko Gregorio, ariotarra. Atanasio Erroma'ra joan zan. Aitasantuaren albora.

- Asarre, idatzi zioten ariotarrek berriro 1 Julio Aitasantuari, Atanasio'ren adiskide jarraitzen zualako eta Tiro'ko kontzilioa ontzat artu nai ez zualako. Eta, Atanasio gaitzesteko ta aren ordez Kapadozi'ko Gregorio Alexandri'ko gotzai lez ontzat artzeko eskatzen zioten.

Gauza berdiñak eskatzen zizkioten Antzira'ko Markel'i-buruz ere.

- Alperrik ibilli ziran berriro. I Julio'k, bildurtu gabe, deia egiñik zeukan ezker, Erroma'ko sinodoa aurrera eramatea erabaki zuan. Ta Sinodo ark, Atanasio ta Markel errugabeak zirala, erabaki zuan.

- I Julio'k eskutitz bat idatzi zien Sortaldeko gotzaiei, eta eskutitz ortan:

Aitasantuarekin erabilli oi zuten eraspenik-eza jaurtitzen zien aurreperra; adibidez, sinodora deituak izanik, etorri-ezak adierazten

zuan begirune kaxkarra zakartuz.

- Bera, Kepa Apostolu Donearen ordezkaria zala, eta, orregaitik, Elizako auziak beregana eraman bear zirala, oroiterazten zien.

- Lortu zuan Kostante inperatorearengandik, Sardika'ko kontzizioaren ospakizuna. Joan ziran gaur Sofia deritzan uri artara Sorkaldeko eta Sarkalde gotzaiak ugari, baiñan asi aurretik, Sortalkeoak, Atanasio'rekin eta Markel 'ekin ez zutela bildu naita beren lurraldera itzuli ziran.

Ez ordea, aurretik Atanasio, Markel, Julio, eta sinodo artan auen adiskide agertu ziran gotzaiak eskomikatu gabe.

Bakarrik jarraitu zuten kontzilioan Sarkaldekoek, eta Erroma'ko azken-sinodoak erabakitakoa onartu ondorean, "gauza zintzoa eta egokia dala, --erabaki zuten edozein elizbarrutietako Jaunaren gotzaiak Kepa Apostoluaren aulkian dagoanarengana adi egotea".

- Berrero Atanasio Alexandri'ra itzuli zanean, gutun bat bidali zien I Julio'k alexandritarrei, itzulpen arengaitik zorionak emanez.

- 346. Urte alaitsua izan zan au I Julio Aitasantuarentzat, ondo ezagunak ditugun Ursazio ta Balente gotzai ariotarrek, Milan'en sinispide zuzeneko aitorpen bat egin eta Erroma'rekin "komunio" edo alkartasuna eskatu ondorean beren menpekotasuna aurkeztuz, eta alkartasun ura eskatuz, eskutitz bat idatzi ziotelako.

Pozik onartu zituan I julio Aitasantuak. Baiñan ez zuten jardunkera zintzo ortan asko iraun, aizeak norabidez bezala aburuz errez aldatzen zuten bi gotzai balkaniar aiek.

Aitasantuen eskubideen aitorle eta babesle irmoa izan zan I Julio. "Il affirme avec vigueur et succes l'autorite du Siege Apostolique": "Sendo eta ondorio onarekin, oiukatu zuan Aulki Donearen aginmena" (Catholicisme). Bai tokiz eta bai aroz, luze zabaldu zan bere izena. Ala, bere izenpean ipiñi nai izan zituzten apolindarrek beren idazti oker batzuk. Eta, mendeak gero, "Pseudo Isidoro" edo "Isidoro Alzuna"ren bilduman arek emanak izan zirala esanez agertu zituan "dekretales" edo "lege-sorta" bi, legiztilari ezezagun batek.

* * *

LIBER10.- Erromatarra au ere. 352'tik 366¹ ra arte izan zan Aitasantu eta ez zitzaizkion, ez orixe, amalau urte oiek gozoegiak gertatu. Bere nekeak eta bere garaitzak luze ta zabal jorraturik utzi ditugu, II Kostantzio inperatorearekin izan zituan arremanak naroki aztertu ditugunean.

Esan dezagun orain soilki, erriak, batez ere Erroma'ko erriak arras maitatua izan zala. Ta Kostantzio'k Erroma'tik Trazi'ko Berea izeneko uriskara erbesteratu zuanean, Liberio'ri beti leialak izango ziralako ziña egin zutela Erroma'ko apaiz eta gaiñerako elizgizon-ek: "Ez dugu Erroma'rako Liberio beste gotzairik artuko".

Geienek ordea ez zuten zinketa dotore ori zintzo gorde. Ez beintzat garai artan diakono ziran Felis'ek eta agian Damaso'k. Felix ori izan bait zan, orduan bertan II Kostantzio'k Erroma'n sasiaitasantu ezarri zuana. Eta Felis sasiaitasantu orren alde jarri bait ziran, berak bezala zinketa ura bera egin zuten elizgizon aietatatik geienak, dirudianez beintzat, aipatu dugun eta laister Aitasantu izanen zan Damaso izeneko diakono uraxe bezala.

Ez ala Erroma'ko erria. Zindo jarraitu zuan onek Liberio'ren alde; ezin izan zuan Felix ikusi ere, eta, azkenean, sasiaitasantu gizagaixo au, erriaren bildur, Erroma'tik irten bearrean aurkitu zan.

Sinispidearen alde jasan zituan borroketaz landa, antziñatean "Basilica Liberiana" eta gaur "Basiica Sanctae Mariae Maioris" esaten zaion jauretxe ederraren eraiketa da Liberio'ren eginkizunik bikaiñena.

* * *

DAMASO.- Erroma'n jaioa, baiñan seguruaski jatorriz españiarra zan sendi baten semea. Liberio Trazi'ko Berea'ra erbesteratua izan zanean, beste eleizgizon erromatarrek bezala seguruaski leialtasunezko zin ura egin ondorean, arekin joan zan,

esan dugunez, orduan diakonoa zan Damaso au; baiñan ez zion an luzaro lagundu, laister itzuli bait zan Erroma'ra eta emen Felix sasiaitasantuaren serbitzura jarri, gero, ostera, Liberio berriro Erroma'ra yare etorri zanean, onen esanera jartzeko.

"Esta doble actitud fue para LMmaso fuente de contratiempos, no sdlo en el momento de su eleccidn como papa" (GER). Egia; Felix sasiaitasantua onezagutu zutenetakoa izan zalako, neke ugari eman bait zion, epe luzez, Ursino izeneko beste sasiaitasantu batek.

Liberio ilda, Damaso izan zan Aitasantu aukeratua (366). Bere alde zituan elizgizonik geienak. Eta baita erriaren zatirik aundiena ere. Alatagutziz, Felix sasiaitasantuaren aldekoa izan zalako, ez zuten sasigarbikerizale batzuek Aitasantu lez ontzat artu.

Ez ziran auek asko, baiñan zazpi bereter eta iru diakonoren esanera, aipatu dugun Ursino ura autatu zuten aitasantu, eta, -- Damaso'ri aurrea artu nairik berealaxe sagaratu zuten Erroma'ko gotzai, naiz sagaraketa azkar ori, orduan, legezkoa, edo beintzat, oiturazkoa izan ez. Sagaratzailea, an inguruan dagoan Tiboli uriko gotzaia.

Eta, jakiña, Erroma'ko gotzaia Aitasantua bait da, Erroma'ko gotzai sagaratu izatearekin Aitasantu egiñik gelditzen zan Ursino bere jarraileen ustez.

Kanon-legeen araura, urrengo igandean izan zan Damaso diakonoa Erroma'ko gotzai sagaratu izatearekin Aitasantu egiña.

Izugarrizko borroka sortu zan ursinotarren eta damasotarren artean. "Jovino, prefecto de la ciudad, despues de tres dfas de matanzas entre ursinianos y damasianos, intervino reconociendo la legitimidad de Dknaso y desterrando a Ursino de Ia ciudad". I Balentiniano inperatorearen aginduz egin zuan ori Jobino'k.

Ursinotarrek ordea bere bereterrekin "Liberio'ren Basilika" artu zuten beren egoitza bezala, andik Darnaso'ren aurka jarraitze-ko. Laister itzuli zan berriro Ursino bera, eta, etorrera ori zala-ta ostera karriketari zalaparta ugari sortu zalako, erbesteratua izan zan berriro, eta Damaso Aitasantuari emana "Liberio'ren Basilika".

Alare, Erroma'n zan Ursino urte bete geroago.

Oraingoan I Balentiniano pakezaleak, Erromatik atera bai, atera zuan, baiñan, iskanbillik ez sortzeko baldintzaren truke, Erroma'tik at, nai zuan tokian bizitzeko baimena eman zion.

Urrengo urtean ordea, aske zan Ursazio Erroma'ra itzuli aal izateko. Bere jarraileak Erroma'ren inguruko auzoetan zebiltzan orain istilluketan, egoitza lez arturik zeukaten Ines Donearen jauretxean beren billerak egiñez.

Erroma'tik kanpora jaurtia izan zan bein berriro Ursino nastaillea.

Oartu ziran Ursino ta ursinotarrak, indarkeria-bidez deus ez zutela lortuko-ta, legearen bidetik jo zuten, "acudiendo a la difamación" (GER) Damaso salatuz. Alperrik.

Baiñan iru urte geroago, epaitegira salatua zan berriro Damaso Aitasantua. Salataria, oraingo ontan Isaak zeritzan kristau egindako judutar bat. Ez zan ordea gauza zailla judu aren atzetik Ursino'ren eskua sumatzea.

Graziano zan orain inperatore, eta Graziano'k, berak bere begiz nai izan zuan bigarren salaketa au aztertu, eta Darnaso'ren alde eman zuan bere epai-itza. Ursazio, Koloni'ra izan zan erbesteratua. Espafirra berriz Isaak judutarra.

Damaso'k ordea, bere burua bein betirako aratz utzi nairik, Kontzilio batera deitu zituan 378'an Itali'ko gotzaiak. Zalantzarik gabe jarri ziran kontziliokide aiek danak Damaso'ren alde.

Bi gauza eskatu zizkioten gotzai aiek Graziano'ri:

- Gotzaien epaiketari-buruz, gotzai baten epaille soilki beste gotzaiak izatea. Ta gotzai errudunak ez ba'zuan gotzai epailleen deiarik entzun nai, gotzai ura inperatoreak Aitasantuarengana eramatea, azken-epaillea Aitasantu bera izan zedin.

- Aitasantu baten epaiketari-buruz, Aitasantu bat gaiztakeri aundien erruz epaitua izan bearrean aurkituko ba'litz, aren epaille bakarra inperatorea bera izatea.

Graziano'k, ontzat artu zuan lenengo eskaria: ez ordea bigarrena, ez bait zuan "Aitasantua, gaiztakeri aundietan Laterri-legeetatik yaretu nai izan": "substraire le pape a la jurisdiction

civile pour causes capitales" (Catholicisme).

Iru urte geroago (381) Aitasantua salatzen zuan atzera berriz Ursino'k. Salaketa Akileia'n bilduta zegoan kontzilio bati egin zion. Kontzilioak Graziano'ren eskuetan utzi zuan salaketa au ere. Garbi irten zan oraingoan ere Damaso. Ursino berriz alperrikako borroka artaz asperturik-edo gelditu zala dirudi. Ez zan beintzat geiago aren izenik entzun.

* * *

Ursino'k ez erejiek ere naiko lan eman zioten Damaso'ri: Lengo ereji zarrak ziran, geienak; baiñan oraindik bizirik zeudenak. AIa, donatikeriak, nobazikeriak eta arianikeriak. Baita luzifertarrekin ere izan zuan nekerik aski.

Azkeneko auek, ariotarren aurka ain borrokalari ikusi dugun Cagliari'ko Luzifer aren jarrailleak ziran, beren irakaslea bezala gogorkeri-maitale zakarrak. Zismara joan ziran, Elizak ariotar izanei Elizarako itzulpena geiegi erretzen ziela uste izan zutelako. Luzifer bera 370'garren urtean il zan Zerdeña'ko bere Cagliari gotzai-urian. Erejien arerio beltza bezala, jentillediko kultura zarraren etsai ere izan zan.

Arianikeria, erio-zauriak jota aurkitzen zan ordurako, baiñan bazuan oraindik toki askotan indarra. Garrantzi aundiko Elizak ziran Kartago'koa eta aspaldidanik oso maiz inperatoreen egoitza izaten zan Milan urikoa. bietan ariozaleak ziran gotzaiak: Restituto, Kartago'n, eta ezaguna dugun Ausenzio Milan'en. Ariozaleak ziran Ilirl'ko gotzai asko ere, Danubio'ren alboko lurretakoak batez ere.

Baiñan atsekabeaz gaiñera, pozaldi ederrik ere izan zuan Damaso Aitasantuak, katolikotasuna egunetik egunera nola ziurtzen eta zabaltzen ari zala ikusten zualako. Adibidez, aundia izan zan bere poza, Antioki'ko kontzilio ugaritsu batean Melezio'ren zuzendaritzapean bildutako gotzaiak, Damaso'k berak Nizea'ko Kontzilioaren araura eratutako sinist-aitorpen bat onartu ziotela

jakin zuanean.

Erne egon zan beti, Sortaldean, Alexandri'ko Atanasio gotzaia. Ala, gutun bat bidali zien 369'an Ejito'ko ta Libi'ko gotzaien izenean, Afrika'ko gotzaiei eta Damaso Aitasantu berari, oraindik arianikeria arriskutsua izan zitekeala jakinaraziz. Geroxeagoko beste gutun batean, Españi'n Galietan eta Erroma'n bertan egindako kontzilioek Ausentzio Milan'go gotzaia gaitzetsi zutela esaten zion Korinto'ko gotzaiari.

Egia zion. Erroma'ko kontzilio artan, Darnaso'k, gaitzetsi bait zuan Ausentzio. Ez zan ura gaitzespen erreza gertatu, I Balentiniano itxuturik bait zegoan gotzai ura katoliko zintzoa zalakoan. Ala, Ausentzio il zan arte (374) ezin izan zan Milan'go gotzai-aulkian katoliko bat ezarri.

Urrengo urtean il zan I Balentiniano inperatorea (375).

Erroma'ko kontzilio aren albistea emateko idatzi zuan eskutiz batean, Damaso'k tinko ematen die Iliri'ko gotzaiei Nizea'ko sinistaraua onartu bearraren berri.

Une berean, kontzilio mardul bat bildu zan Akileia'n. Damaso kontzilio artatik at gelditu zan. Ordezkaririk ere ez bait zuan ara bidali. Altagutziz, gogor gaitzetsi zituzten kontziliokide aiek Iiri'ko ariozaleak.

Sortaldeko iskanbiletan ez zuan, dirudianez, asmatu, eta ez bere erruz, Alexandri'ko Atanasio Aundiaren erruz baizik. Eta ez-asmatze orrek bi gizon bikain bata bestearekin sumindu zituan: Damaso Aitasantu Donea, eta Zesarea'ko Basilio Donea, aro artan teologilaririk onenetako bat. Eta baita Basilio Donea ta Alexandri'-ko Atanasio Donea ere.

Garai naasi artan, borondaterik oneneko gizonentzat ere, arrazoia ta egia non zeuden ikustea zeñen zailla zan adierazten digute gertakizun oiek.

Antioki'ko Eliza izan zan suminketa aren zioa.

Esan dugu nola zegoan an zatiturik, aspaldiz gero, Antioki'ko Eliz onuragarria. Naiz egiazko zisma izan ez "zisma meleziarra" esan oi zaio zatiketa mingarri ari. Alare, Melezio baiño leenagokoa

da zatiketa ura

Arianikeriaren barrungo zatiketen erruz, Eliz batean bi, iru, lau gotzai, gertatu izan ziran aro artan maiz aski: Gotzai katoliko bat, erbesteratua bein baiño geiagotan eta ariotarretako beste bat edo bi gotzai. Eta an edo emen, baita, aietan gaiñera, donatizale bat, eta baita beste erejiren bateko beste bat ere.

"Ainsi a Antioche la crise ouverte par la déposition d'Eustache devait durer 85 ans; elle atteint en 362 son maximum de

la chrétient d'Antioche a compte ce moment jusqu'a cinq communautés rivales" (Marrou): "Ala, 85 urte iraun zuan Eustazio jaurtia izatean Antioki'n sortutako krisiak: 362'ean iritxi zan bere gaillurrera; orduan Antioki'ko kristaudiak bai bait zituan alkar ezin ikusi zuten bost talde".

Bakoitza bere gotzaiarekin, jakiña. Eustazio, gotzai bikaiña izan zan. Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarraren babesle bulartsua. Orregaitik ekin zioten arri, beste iñori baiño leenago ariotarrik gogorrenek. Kostantino'k berak erbesteratu zuan 330'garren urtean.

Urte ortan asi zan Antioki'ko Elizaren zatiketa. 362'ean, auek ziran Eliz artako gotzaiak: Paulino, Eustazio aren oroia maitetsu gordetzen zutenek aukeratua; Melezio pakezaleek ekarria; Euzoios, Jaurlaritzak babesten zuan gotzai ariozale porrokatua. Diakono utsa zan Ario berarekin Alexandri'ko Alexander gotzaiak eskomikatu zuanean; Teofilo "Indiarra", "Taumaturgo" edo "Mirarigillea" ere esaten zitzaiona, "homoiostar" latzen gotzaia. Bazan, besteengandik urruti, bosgarren talde bat ere Antioki'n: apolindarrena. Laister izango dute auek ere beren gotzaia: Bitalis.

Guri, Melezio bera eta Paulino zaizkigu emen azterketagarri.

Melezio, Melezio Donea, "homousiostarraren" alde ainbeste lan egindako Eustazio aren ondorengoa izan zan Sebaste'ko gotzai aulkian. Bera ez zan oraindik gizon borrokalaria; are geiago, aski ariozalezat zeukaten Paulina'ren taldeko "homousiostar" gogorrek; urtebete leenago orduan garaille ziran "homoiostarrek" erakarri omen zuten ba Antioki'ra.

Alare, kanon-legeak agintzen zuan guztia egoki betez izan zan

len Sebaste'ko gotzai sagaratua, eta orain Antioki'ko gotzai-aulkian jarria.

Orregaitik, eta Melezio bere arioz egia ikusten asia zalako, eta egia ikuste orren ondorioz Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarraren babesle bihurturik, iru aldiz erbesteratua izan zalako, bere alde izan zuan Zesarea'ko Basilio Donea.

Aurreneko aldiz, sermoi batean Irutasun Donearen altzoan Itza'ren sorkuntzaz Nizea'ko sinispidearen araura mintzatu zalako erbesterratu zuan II Kostantzio'k.

Orduan, pakea egingo zualakoan izan zan gotzai autatua lekaroetako lekaide bakarrikbizizale ospetsu bat: Paulino. Aren ingurura bildu ziran nizeatarrik zindoenak.

Paulino au ordea, berez Antioki'n jurisdikziorik ez zuan Cagliari'ko Luzifer'ek sagaratu zuan gotzai. Altaguztiz, ez dakigu nolako arrazoiren ondorioz, Paulino'ren alde jarri zan Alexandri'ko Atanasio Donea: "Paulino estaba afectado por la tara de una elección que ofrecía dudas canónicas. Ahora bien Alejandría optaba precisamente por Paulino, en virtud de razones más emocionales que teológicas, y, dado que las únicas informaciones que llegaban a Roma sobre la situación eclesíastica en Oriente procedían de Alejandría, tampoco era posible inducir a Occidente a salir en defensa de Melecio y de los empeños de Basilio" (Jedin).

Bai ta ez: Alexandri'ko izparretaz gañera iritxi bait ziran Erroma'ra Basilio'k ara bidalitako eskutitz ugariak... eta apaiz ordezkariak. Damaso Aitasantuarentzat ordea, fiagarriagoa izaki ederki ezagutzen zuan Atanasio, ia ezagutu ere egiten ez zuan Melezio baiño.

Elizaren batasunaren alde ain gogoz lanean ari zan Basilio'k ez zuan Darnaso'ren jardunkera bear bezala ulertu. Ikusten bait zuan arrazoia berea zuala: "No fue sólo por el sentimiento de verse herido en su dignidad por lo que Basilio escribió entonces que Darnaso era un hombre arrogante y que no se podía esperar una ayuda eficaz del orgullo de los occidentales" (id).

Paulino'ren sagaraketarekin pakea ez baiñan ardailla ugari sortu

zan orain bi gotzai, Melezio erbesteratua eta Paulino sagaratu-berria --bazituan Antioki'ko kristaudi zurrunbillotuan. Bazan gaiñera ordurako, uri doakabe artan, irugarren gotzai bat ere: Euzoios, Ario beraren adiskide aundia eta lenen-lenengo unetik ariotar aldakaitza, "Homoiostar" gogorrenen eskaria onartuz, II Kostantzio inperatoreak Melezio'ren ordez Antioki'ko gotzai izendatu zuana.

Melezio erbestetik itzuli zanean, nai izan zuan Basilio zesarea-tarrak pakeak egiteko Paulino'rekin eta Melezio'rekin alkarrizketak eratu, baiñan, bera zala Antioki'n egiazko gotzai bakarra-ta, uko egin zion Melezio'k konpoketa-bide guztiari. Bere kaltean, Paulino izan bait zan orduan Antioki'ko gotzaitzat onartua.

Alare, bere gotzaiaren alde gotor jarraitu zuan meleziotarren alderdiak. Eta Melezio'ren alde jarraitzen zuan Basilio'k ere. Aurka ordea Alexandri-Erroma-Milan'ek, ots, Atanasio-Damaso-Inperatoreak. Alperrik izan ziran amar urte luzez, Paulino kenduta Melezio onezagutua izateko Basilio'ren ekintza guztiak.

Erbestean zegoan berriro Melezio Balente il zanean, baiñan itzuli zan ostera Antioki'ra Graziano'k Sortaldeko inperatoretza artu zuanean. Ta, orduan, ataka portitza iriki nai izan zion norbaitek Antioki'ko arazoari: "It was proposed that both Paulinus et Meletius should rule together", Antioki'ko Eliza "Paulino'k eta Melezio'k biek batera jaurtu zezatela izan zan" norbaitek asmatu zuan irteera (Enc. Brit). Felix sasiaitasantua eta Liberio Aitasantua bateratuz, II Kostantzio'k Erroma'ko Elizarentzat asmatutako "diarki" txolin ura bera!

Ez zaizu "diarki" edo "agintaritza bikoitz" ori ain gauza arrigarria gertatuko, arazoa garai artako oldozkeraz ikusi nai ba'duzu. Oroi aro artan jendea, diarkira txit oiturik zegoala, inperatoreek aspaldidanik maiz artzen bait zuten, inperatorkide bat, Erroma'ko Inperio zabala bien artean batera jaurtzeko. Eliza ordea ta Laterria, zearo erakunde ezberdiñak izaki!

Oraingoan Paulino'k egin zuan oiurik zakarrena Antioki 'rako diarki aren aurka. Arrazoi zuan. Eliz bakoitzak ez bait dezake buru

bat besterik izan Bidalien denboratiko oiturak erakusten digun lez. Baiñan oi u egitea gauza arriskutsua zan orduan da, Melezio izan zan Jaurlaritzak eta Sortaldeko Elizak Antioki'ko gotzai bakartzat artua eta onezagutua.

Ala, Melezio izan zan Antioki'ko gotzaia bezala, Kostantino-pla'ko Kontzilio ekumenikolaren lendakaria. Kontziliokide zan Damaso Aitasantua ere ara bidali zituan ordezkarien bitartez, baiñan, ez ordezkari auk ez Damaso Aitasantuak berak, ez zuten sekulan deus esan Meleziko'ren lendakaritza aren aurka.

Ori dugu Damaso Aitasantuak azkenean Melezio Antioki'ko gotzaitzat onartu zualaren adigarririk bikaiñena.

Ez zan ordea Antioki'ko "zismarik" bertan bera bukatu. 381'ean iI zan Melezio. Itxarrotekoa zan noski Paulino izanen zala Antioki'ko Gotzai bakarria izendatua. Ez Flabian izeneko beste bat izan bait zan eginkizun artarako aukeratua, orrela beste ogei urterako zismari luzapena eman ez, azkenean, ogei urte oien ondorean, Antioki'ko gotzai bakartzat Flabian ura Erroma'k onartu zuan arte.

Damaso'ren denboran egin zan Kostantinopla'ko Kontzilio Ekumeniarra. Baiñan esan dezagun Damaso'ren omenez, Kontzilio arek baiño leenago gaitzetsi zituala berak 368'an eta 369'an Erroma'n egindako sinodoen bitartez apolinarkeria eta mazedonikeria. (Laister mintzatuko gera bi ereji auetaz)

Damaso Aitasantu zala, egin zuan I Teodosio'k katolikotasuna, "Kepa Bidaliak zabaldu eta Damaso'k berea lez daukan erlijioa", Erroma'ko Inperioaren legezko erlijio bakarria (380). Urte ontakoak dira "Donedamaso'ren Anatematizmu" edo "Gaitzespenak", Irutasun Doneari eta Kristo'ri-buruzko 24 okerkeri gaitzetsiz Erroma'ko sinodo batek eratu ta Aitasantuak argitara emanak.

Paketsuak izan ziran Damaso'ren azkeneko urteak. Lan aundia egin zuan Erroma'ko elizak eta katakunbak edertzen. Bereak dira, katakunbetan, martirien illobi edertu-berrien gaiñeko bertso laburrak: elertiaren aldetik asko balio ez duten bertsoak.

Damaso'ren zaletasunik aundiena Idazti Donearentzat zalako,

bere idazkari egin zuan Donejeronimo, au Sortaldetik etorri zanean, eta Sarkaldean erabilli oi zan Idazti Donea zuzentzeko eginkizuna eman zion. Bibliztiak izan duan maixurik bikaiñenetakoa izan dan Jeronimo Deunaren ekintza ortatik irten zan orain-orain arte Elizak Sarkaldean erabilli duan "Vulgata" edo "Errikoia" esan oi zaion Bibliaren laterazko itzulpena.

Zoritxarrez, Damaso Deunaren eta Basilio Deunaren alkarren-arteke-ezin-ulert-eziilak, arianikeria ezkeru Sortaldearen eta Sarkaldearen arteko zuloa zabaltzen ari zala adierazi nai digu: gero mendeak-zear aundiagotzen joanen dan eta azkenean Eliza zismara eramanen duan zulo negargarria.

Ikusi dugu Basilio'k "Sarkaldetarren arrokeritik deus itxarotzerik ez dagoala" nola esaten duan, eta arrokeri ori Damaso Aitasantuari berari nola leporatzen dion. Oker zebillen Kapadozi'ko Zesarea uriko Done jakintsua. Are geiago, jardunkera aren atzean sarkaldetar bat ez baiña sortaldetar bat, Alexandri'ko Atanasio Donea zegoalarik.

Oker dabil **H.** Chadwick edestilari inglanderriarra ere, Donebasilio'ren salaketa ari jaramon geiegi eman diolako, eta baita Damaso'ren aurka bere etsaiek asmatutako gezurgaiztoetako bat, Damaso erailtzaillea izan zala alegia, egiazkoa izan daitekeala-edo iruditzen zaiola ematen dualako. Entzun nola mintzatzen dan, Liberio erbesteratua izan zanean Erroma'n bi alderdi sortu zirala azalduz gero:

"Apos a morte de Liberio (Liberio'ren eriotzaz gero) em 366, os partidos rivais elegeram un bispo cada um, Ursino e Dámaso, desencadeando pavorosa revolta na Igreja, que ceifou (moztu) 137 vidas. Com o apoio do prefeito da cidade, Dknaso conseguiu o papado mais a um preso terrivel, o descrédito pUblico da Igreja. A sua posicao moral nab melhorou quando o acusaram formalmente, perante (aurrean) do novo e pouco simOtico prefeito da cidade de responsavel por homicidio e sb foi liberto de tal humilhação quando amigos influentes conseguiram a intervenÇão pessoal do imperador a seu favor.

"Damaso compensou a sua fraqueza em relação ao poder temporal e a autoridade moral, realçando uma exaltada dignidade espiritual nas suas funções de sucessor de S. Pedro".

Oker dabil. Ez ziran "exaltadas", ots, "zaratatsuegiak" izan Damaso'k aitasantutzari dagozkion duintasunari ta almenei-buruz egindako aitorpenak, benetan Donekepa'ren ondorengo baten duintasunari eta almenei zor zaizkienak baizik. Bestalde, Damaso eraillea izan zitekealako ori, ez da etsaiek asmatu zioten gezurgaiztoetako bat besterik. Emakumeekin pekatuan naasirik ibilli zala ere leporatu bait zioten. Gezurra dana.

Orregaitik zugurra eta edestiaren aldetik zearo egitasun osoz bete iduritzen zait "Encyclopaedia Britannica" ospetsuaren iritzia:

"Damasus was a man of **great virtue** and of cultivate mind".
Euskeraz: "Santutasun aundiko eta adimen landutako gizona izan zan Damaso.

* * *

SIRIZIO.- Aitasantu onen eskutik iritxiko gera IV mendearen azkenera. Ezer gutxi dakigu amabots urte (384-399) iraun zuan bere aitasantutzariburuz.

Milan'go Ambrosio Donearen adiskide aundia izan zan, baiñan ez dirudi Jeronimo Deunarekin ain ongi konpondu zanik: "St. Jerome's departure from Rome, while not forced by Siritius, was not unwelcome to him". "Jeronimo'k Erroma'tik alde egitea, ez zan Silizio'k gaizki ikusia izan, berak sortarazia izan ez ba'zan ere" (Enc. Brit.).

111 mendeko Origenes teologilari ospetsua zegoan axarre orren azpitik, seguruaski. Origeneszale izan zala dirudi Sirizio. Ez ala, ordea, Jeronimo. Orregaitik, ez zitzazkion batere atsegiñak izan Aitasantuari, Origenes'en aurka, Jeronimo'k geroxeago argitaratutako idazlan bautzuk.

Antioki'ko Elizaren zatiketari-buruz, Fabian gotzaiaren aldekoa izan zan Sirizio. Eta ala bait zan baitare bere adiskide aundia,

Anbrosio Milan'go gotzaia.... Fabian ezpairik gabe Antioki'ko gotzai onezagutuz amaitu zuan Sirizio'k Eliz agurgarri artako zisma luze mingarria.

Ereji zarren eta sortu-berria zan priszilianikeriaren aurka irmo jardun ba'zan ere, ez zitzaigun beñere, gogorkerien aldekoa izan. Alderantziz, "Siritius disapproved of Catholic extremists" (Ib): " Gaiztotzat euki zituan Sirizio'k katoliko ertzakoiak".

Damaso'ren bidetik, jarraituz, argi azaldu zuan kristaudia-baitan Donekepa'ren ondorengo izateagaitik zegozkien nortasun bereizia... eta eginkizun astuna. Bereak ditugu Tarragona'ko gotzaiari idatzi zizkion itz eder auek: "Zamatu guztien zamak oro daramazkit lepa-gaiñean. Obeki esateko, Kepa Bidali Donea bera da, nere bitartez zama oiek dararnazkiana".

KATOLIKOTASUNA SENDOTZEN

Arianikeria garaitua eta inperio-lurretan ezabatua izan ondorean ere, ez zitzaion Elizari pake-une aundirik gertatu.

Sortu bait zitzaizkion laister ereji berriak: Apolinarkeria adibidez, eta mazedonikeria; ta priszilikeria.

Egin zuan beste Kontzilio Ekumeniar bat eta, ikusi dugun bezala garaitu aal izan zituan ereji oiek danak. Baiñan orduan beste ereji zakarrago bat agertu zitzaion: V mendeko nestorikeria. Bizirik daude oraindik gure egunotan ereji orren ondorioak.

"Oportet haerexes esse", Donepaul'ek idatzi zuan lez: "Naita-naiezkoa da erejiak izatea". Edo, beste zentzu bat atsegiñagoa ba'zaizu, egiazko Eliza non dagoan erakusten digutelako, "bearrezko gauza dugu erejiak izatea".

Ereji berri auek ez zioten Elizari arianikeriak aiñako zalapartarik sortu, eta beren okerkeria errez izan zan bi Kontzilio Ekumeniarren bidez argitua ta gaitzetsia.

Politikaren aidetik berriz, bazirudian oparoa, orokorra, eta betirakoa zala Elizaren garaitza, I Teodosio inperatoreak, kristautasuna, Laterriaren erlijio ofiziala egin zuan ezkerero. Errez ulertu dezakegu orduango katoliko aien poza:

I mendez gero Laterriarentzat gauzarik nardagarriena eta zigorgarriena izandako kristautasun ura bera, ¡Laterri ber-beraren legezko erlijio bakarra biurtua! Ez al zan edozein zoraturik uzteko

aiña? Pozez zoraturik, alaitasun zerukoiean edozein murgildurik uzteko diña?

Baiñan orduan, katolikotasuna Erroma'ko inperioaren nagusi egin zanean eta inperioaren laguntza guztia bere serbitzura izanen zuala uste zezakean unean, orra non datozkion su ta gar iparraldeko barbaritarrak, eta oiñarri ziurra zuala uste zuan Erroma'ko Inperio Algutzidun ura zearo ezerezten dioten!

Uste izan zuten, izuak jotako kristau gixagaixo aiek, zurrunbillo ikaragarri artan munduaren azken eguna iritxia zutela.

Banaka-banaka aztertuko ditugu, Aro Zarraren azken-uneetako atal oiek danak.

* * *

IV MENDEKO INPERATOREAK.- 1 Teodosio Aundia: Españi'n, Galizi'n, eta probintzi erromatar ortako uririk garrantzitsuena zan Kauka'n, lur-jabe aberatsen seme jaio zitzaigun I Teodosio inperatorea; berak bezala Teodosio zeritzan gudalburu ospetsuaren semea.

Ezaguna dugu gudalburu bikain ura. Eta I Balentiniano'ren serbitzura, Britani'n aurrena, Danubio-ondoko Mesi'n gero eta, Afrika'n geroago alako garaitza aintzakorrak lortu ondorean, I Balentiniano beraren ala onen semea zan Graziano'ren aginduz nola izan zan koldarki Kartago'n erailla, inperatore auen bizitza aztertzerakoan idatzirik utzi genduan gauza da.

Bere aitarekin ederki ibilli zan Mesi'n sarmatiarren aurka borrokan Teodosio gaztea ere. Baiñan, gero, bere aitaren eraiketa jakin zuanean, sumindurik, eta bearbada baita ikaraturik ere, gudaroztetik irtenda, bere Galizi'ra itzuli zan, eta bertan Aelia Flaccilla izeneko andererio batekin ezkondu.

Emazte orrek bi seme, Arkadio ta Onorio, eta alaba bat, Pulkeria, eman zizkion.

Ta, Balente inperatoreak gotiarren ezpata-pean Adrianopoi is 'ko borrokaldi izugarrian bizia eta bere gudaroztea galdu zituanean,

Graziano'ren deiari erantzunez, gorrotorik gabe, gudaroztera etorri zan berriro, eta Sirmio'n Graziano'k berak inperatorekide egiña izan zan (379).

Ez omen daki iñork, alako garai larri artan Erroma salbatzeko, Teodosio gaztea Graziano'ri nork gomendatu zion. Zana zala gomendatzaille ura, ez zan noski gizon ergela. Une artan, inperiolur osoan, gizon egokiagorik ez bait zezakean aurkitu.

Diarki edo agintaritza bikoitz ontan, Graziano'k Sarkaldea artu zuan beretzat, eta Sorkaldea eman zion Teodosio'ri.

Onen lenengo eginkizuna, Adrianopolis'ko sarraskiaren ondorean barbaritarren kutizira irikirik gelditu ziran Danubio-aldeko probintziak sendotzea eta babestea izan zan; baiñan, naiz gudaroztea gudari geiagoz aunditu eta izpiritu berriz indartu, ez zuan ezer aundiegirik lortu, 382'an gotiarrekin pakeak egin aal izan zituan arte.

Pake-itun ura, gero beste barbaritarrekin ere egingo ziranen antzekoa da. Bera izan bait zan ondorengo beste guztien eredu.

Teodosio'k izenpetutako itun aren araura, gotiarrei Danubio ibaiaren eta Balkan-Mendien arteko lurrean bizitzeko baimena ematen zitzaien. Beren legeen araura eta beren buruzagien esanera biziko ziran an, baiñan buruzagi auek Erroma'ko Inperatorea beren Buruzagi Nagusitzat onezagutzer a bearturik gelditzen ziran.

Gotiarren au izan zan, inperiolurraren barruan sortutako lenen Laterri barbaritarra. Eta, Teodosio bizitu zan artean irmo iraun zuan erromatarren eta barbaritarren arteko itun arek.

Inperatore egiña izan bezain laister asi zan Teodosio erlijio arazoetaz arduratzen. Guraso kristau katolikoen semea, benetako kristau katolikoa izan bera; jentillekin eta batez ere erejeekin jolaskerian ibiltzea atsegin ez zitzaion gizona.

Aro artan ainzuzen, inperatore egiña izan da laister, izan zan bataiatua gure Teodosio; 380'garren urtean. Ikus nola: barbaritarren aurkako ekintza batetik itzultzerakoan, gaixo erori zan Tesalonika urian. Orduango oiturari jarraituz, eriotza gaiñean

zualako ustez, bataioa eskatu zuan, baiñan bataioa emanen zion gotzaia arianitarra ez izateko baldintza zorrotza ipiñiz.

Sendatu zan ordea, eta iñoiz baiño arduratsuago jarraitu zuan katolikotasunaren alde.

380'garren urteko lege baten bidez, Nizea'ko Kontzilio Ekumeniarraren erabaki guztiak ontzat artzea, agindu zien bere inperiolurreko biztanle guztiei, "eta banan-banan eraso zien ariotarrei, manitarrei eta jentillei": "Arians, Manicheans, and pagans were assailed in turn" (Enc. Brit.).

Inperio'ko legeak eta kontzilioetako aginduak berdin eta batera erabilli ziran katolikotasunaren indarra sendotzeko eta dotriña ziurtatzeko. "These measures finally smashed Arianism": "neurri oiek, azkenean, zapaldu aal izan zuten arianikeria" (Ib).

Esanik utzi genduan nola altxatu zan inperatore izan naiean Magnus Maximus gudalburua II Balentiniano'ren aurka, eta II Balentinian onen inperiotza babesteko, nola garaitu zuan Teodosio'k iraultzalari jelkitako, eta garaitua izan ondorean eriotzez zigortutako gudalburu ura. Eriotzara galdua izan zan Magnus Maximus'en semea ere.

Etsaia menderaturik, garaille sartu zan Erroma'n Teodosio 389'garren urtean.

Andik bi urtera ordea, berari jeiki zitzaion aurka Tesalonika uria. Eta matxinada ura zigortzeko sarraski nazkagarria egin zuan Teodosio'k zorigabeko uri artan, 3.000 urikide illez (390). 7.000 izan zirala, diote beste batzuek, sarraski artan il zituanak.

Ikusiko dugu, Ambrosio Milan'go gotzaiak nola ez dion Elizara sartzen utziko, oben aren penitentzia jende guztiaren aurrean betetzen ez duan arte. Eta nola Teodosio'k apalki penitentzi ura betetzen duan.

"The story of the emperor's worst crime, the massacre of at least 7.000 citizens of Thessalonica in revenge for a tumult (April, 390); of St. Ambrose's refusal to allow him to enter the Church; of his acceptance of eight months of penance, is one of the memorable incidents of Church history" (Cath. Enc.).

Euskeraz: "Inperatorearen gaiztakeririk aundiena, ots, matxinada baten aierkunder Tesalonika'n, 390'ren jorrallean, gutxienez 7.000 urikide illez egindako sarraskia, ta Donanbrosio'k orregaitik elizara sartzea nola eragozi zion eta inperatoreak zortzi illabeteko penitentzia nola bete zuan kontatzen digun edeskia, Eliz-edeskiaren gertakizunik gogoragarrienetako bat da".

391'an jentiltasunaren aurka legegintzan genduan berriro gure Teodosio.

Esan dugu II Balentiniano il zanean, odolez frankiarra eta erlijioz jentilla zan gudarozteko lenen buruzagia, Arbogast, iraultzari jeiki zala eta Eugenio izeneko erretorika irakasle bat egin zuala inperatore. "The revolt had a decidedly pagan character, although Eugenius personally was a christian": "Iraultza ura ezpairik gabe jentil-itxurakoa izan zan, naiz Eujenio bera kristaua izan" (Ib).

Ez zan nolanaikoa Elizarentzat arriskua. Arbogast buruzagiak, lendabizi, bere odolokide frankiarrak borrokatu ta menderatu zituan Rin ibaiaz aruntz. Gero, Galietako lurak onuntz, Itali eta España irabazi zituan. Orduan, Teodosio Sortaldean utziz eta Eujenio Sarkaldean ipiñita, berriro diarki bat ezarri naiean seguruaski, alkarrizketa bat eskatu zion Teodosio'ri.

Teodosio'k ordea ez zuan Eujenio inperatoretzat artu nai izan, eta adiskide zituan Danubio-ondoko gotiarrei dei egin zien, aiekin izenpetua zuan itun ark ematen zion aalmena erabilliz.

Bete zuten aiek itun artan agindurik zeukatena, etorri ziran bereala Itali'ren iparrera, eta an garaitu zuten Arbogast'en gudaroztea Teodosio'ren esanera. Esan daiteke gotiarrek salbatu zutela oraingoan Erroma'ko inperio kristaua.

Eujenio'ri lepoa moztu zitzaion, eta Arbogast'ek, bere burua il zuan.

Teodosio berriz garaille sartu zan, bigarren aldiz, Erroma'ko urira (394).

Garaitza ura, bere bizian lortu aal izan zituan beste geienak bezala, bereak baiño geiago izan ziran bere gudalburuenak: "El

escaso talento militar del emperador fue compensado por las dotes de sus generales" (GER).

Oraingo ontan beintzat azturik utzi ditu iztegi orrek gotiarren buruzagiak, gotiarrak izan bait ziran gurenda ura lortu zutenak.

Danadala, oraingo au dugu Erroma'ko lejioak eta barbaritarren gudulariak alkaturik etsai bat beraren aurka egindako borroka. Berriro ere ikusiko ditugu barbaritarrak eta erromatarrak bat egiñik, V mendearen erdira arte.

Teodosio'ren agintaritzakoan asi zan beste gualburu guztien-gandik gain bere burua ospetsu jasotzen, endaz bandaliarra zan gualburu gazte bat. Guduiztiak izan dituan buruzagirik yayoene-tako bat, ezpairik gabe: Estilikon gaztea. Iñork salbatu aal izatekotan, une izugarri aietan Erroma salbatzeko gai izan zitekean gizon bakarra. Laister itzegin beariko dugu beraz luzeago.

Teodosio, bere Galizi'n artutako emazte ura ti zitzaionean, I Balentiniano'ren alaba zan Galla printzesarekin ezkondu zan, eta alaba bat eman zion bigarren emazte onek: Galla Placidia, III Balentiniano'ren ama izango zana.

Teodosio, 395'ean il zan, Milan'en, Erroma'ren inperio-lurra bere bi semeen artean zatituz: Arkadio'rentzat Sortaldea; Onorio'-rentzat Sarkaldea. Orrela, betirako bi zati egiñik gelditu zan inperio-lurra. Ta, Erroma'ren zori gaiztorako, bi puska oiek ez ziran beñere alkartuko. Sortaldean Erroma'ko inperioak milla urte baiño geiago iraungo zuan oraindik. Sarkaldean, urte batzuk besterik ez.

I Teodosio'ren ekintzarik garrantzitsuena, kristautasuna Lateraren legezko erlijioa egitea izan zan: Erroma'ko Inperioaren erlijio ofiziala.

Egia esateko, katolikotasuna izan zan Teodosio'k Laterriaren erlijio ofiziala egin zuana. Legezkoa egiten duan erlijioa "Kepa'k zabaldu eta Damaso'k erakusten duana" dala bait dio, ortarako 380'ko otsaillaren 28'z eman zuan erabakian.

Katolikotasunaren aurkako ereji ia danak Sortaldean zeuden zabaldurik-eta, Damaso'rekin batera aipatzen du Teodosio'k erabaki

ortan Alexandri'ko gotzaia ere, baiñan Alexandri'ko gotzaia, Kepa, Atanasio'ren anaia, Damaso Aitasantuarekin bat egiñik zegoala bazekialako.

Arritzekoa da Sortaldeko beste gotzai-aulki ospetsua, Antioki, aipatu ez izatea; baiñan ekar dezagun gogora Antioki'ko zismak irauten zuala oraindik eta uri artako gotzai-aulkian Melezio zegoala orduan, eta Damaso Melezio'ren aurka eta ango beste gotzaiaren alde, ots, Paulino'ren alde, egon zala beti.

"Refleja muy bien la mentalidad del nuevo emperador, (agintzen asi-berria bait zan orduan Teodosio), su primer decreto de politica religiosa, dado el 28 de febrero de 380, por el que mandaba a todos profesar la religidn **que el Aostol Pedro enseild en otro tiempo a los romanos** y qwue ahora profesan el Pontffice Wmaso y Pedro, obispo de Alejandrfa, hombre de santidad apostdlica". (O. Zarate

Bereala asi zan Teodosio lege ori beteerazten. Ikus:

* * *

380'an iritxi zan Kostantinopla'ra. Iru gotzai aurkitu zituan an: Bat, ariotarra, Dem6filo, Balente zanaren jaurlaritzak ezarria. Bestea, Donegregorio naziantzetarra, izatez Sasima'ko gotzaia, baiñan geienik katolikoa zan Kostantinopla'ko erriak Kostantino- pla'ra deitua. Eta irugarrena, Maximo izeneko gora-nai bat: "el aventurero pretendiente Maximo" (ib).

Azkeneko au, bere burua filosofilaritzat zeukan gizona, Teodosio'k bere lege artan aipatzen zuan Kepa Alexandri'ko gotzaiak azpijokuz eta ixillean Kostantinopla'ra bidalitako gotzai batzuek sagaratu zuten Kostantinopla'ko gotzai, kanon legeak agintzen zuanaren aurka. Zergaitik egin zuan Kepa alexandritarrak ori?

Nizea'ko Kontzilioak gotzaiei gotzai-tokiz aldatzea debekatu zielarik, ordurako Sasima'ko Gotzaia zan Gregorio Kostantino- pla'ko gotzai izan ez zitekeala uste zualako? Bai, bearbada. Baiñan

baita, Antioki'ko gotzaien "zisma" ura ezkerro, ejitotarrak eta kapadozitarrak Atanasio ta Basilio alkarren aurka ziralako ere.

Ta, Kostantinopla'ren aurka Alexandri'n sortzen ari zan eta azkenean "monofisiten" zismarako bidea gertutuko zuan areriotasun ark Lez ote zuan Kepa'ren jardunkera artan zer ikusirik izan?

Laister sartuko zan Antioki ere Kostantinopla'ren aurkako aierkunde ortara. Ain ospetsu izan ziran Antioki'ko eta Alexandri'ko bi Eliz zaar auek ezin ikusi zuten begi onez, Kostantino ezkerro inperatoreen egoitza izateaz beste duintasunik ez zuan Kostantinopla'ko Elizak artzen zuan garrantzia.

Bere burua, ia-ia Erromako Eliza ber-beraren kideko egiteraiño ausartu ere ausartzen bait zan ordurako Kostantinopla'ko Eliz ura.

Laister, iru Eliz aien arteko ezin-ikusi ori, oraindik diraun zisma baten iturburua izango da.

Kepa Alexandri'ko gotzaiak, Maximo ala-olako ura Kostantinopla'rako sagaratu zuanean, Alexandri'ko Eliza, Sortaldeko Lenen Eliza zan, Nizea'ko Kontzilio Ekumenikoiaeren erabakiz. Eta uste zuan Kostantinopla'ra gertatzen zanaz arduratzeko eskubidea bazuala.

Bestalde Gregorio Naziantzetarra zan, Basilio Sortaldean eliz-gizonik jakintsuena, eta aundia zan bera Kostantinopla'n egoteak Kostantinopla'ko Elizari ematen ari zion aintza dizdiratsua. Aintza mingarria Alexandri'ko gotzai batentzat. Gaiñera, Antioki'ko zisman Gregorio Naziantzetarra Melezio'ren aldekoa zan, eta Paulino'ren aldekoa berriz Kepa alexandritarra.

"Asi se entiende que Pedro de Alejandria se prestara no sabemos con cunta conciencia a las torpes intrigas de un "filÓsofo" llamado ~imo, caracterizado por su pelambreira "cfnica" quien pretendfa nada menos que ser obispo de Constantinopla.

"Y aqui viene la mancha negra: Pedro se tom6 el cuidado y el gesto de enviar desde Alejandrfa a unos obispos con el fin de que consagrarán a Wximo para facilitarle el logro de sus ambiciones.

"El hecho estuvo contra todos los cánones y suscitó las protestas del papa D^gmaso. Ya se entiende que Gregorio Nacianceno describa con rasgos repulsivos la ordenación abusiva e indigna de quien conspiraba contra su prestigio y dignidad" (id).

Ez da atsegiña, iguingarria baizik eta txorabiogarria, IV mendean Elizaren altzoan sortu zan naasketa mingarriaren xeetasunak ematen ari bear izatea, naiz nik emen, eman daitezkean xeetasunetatik apur batzuk besterik eman ez.

Baiñan naitanaiezkoa da Arianikeriak egin zigun gaitzaren aunditasuna adierazteko, eta, batez ere Eliza agintariekin lotuegia egoteak Elizari ekarri dezaiozkion ondamenak ikusierazteko, IV mendeko gaitz aiek danak, I Kostantino inperatorea Arianikeriaren alde jarri zalako eta aren atzetik II Kostantzio'k, eta Balente'k bereiziki, ariotasunari laguntzen jarraitu zutelako sortuak izan bait genituan.

Danadala, Alexandri'ko Kepa baiño zугurrago ibilli zan Teodosio Kostantinopla'ko arazo artan. Berealaxe ikusi zuan, bai donetasunez eta bai jakintasunez, Naziantze'ko Gregorio zala, askoz, arako gizonik egokiena. Ala, aurreneko gauza, Maximo kalparluzea Kostantinopla'tik kanpora bidaltzea izan zan.

Gero, Demofilo ariotarra erbesteratu zuan Kostantinopla'tik. Ona nola ematen digun Sokrate edestilari zarrak inperatorearen eta gotzai ariotarraren alkarrizketaren albistea:

"Imperator vero omni cura et cogitatione incubuit uti pacem faceret, concordiam constitueret, et ecclesias amplificaret. Itaque sine mora, Demophilo, qui sectae Arianae episcopus fuit, consillum suum aperit: quaeritque ab eo utrum concilio niceno fidem uellet adhibere, populum ad concordiam traducere, et pacem amplecti. Quoquidem eius postulatum abnuente: Idcirco, inquit imperator, si pacem et concordiam fugis, te ab ecclesiis fugere mando".

Euskeraz, Sokrate'k elizbarruti bat adierazteko "ecclesia" bakar-einean ez baiña "ecclesiae" ugari-einean erabiltzen duala kontuan artuz:

"Pakegintza, alkartasungintza, eta Elizaren azkortasuna ziran inperatorearen pentsamentuan bere asmorik sendoenak. Bere asmo oiek, bereala agertu zion Ariotarren taldeko gotzaia zan Demofilo'ri, ea Nizea'ko Kontzilioa sinistu ta erria batasunera erakarriz, pakea egiteko gerturik zegoan galdetuz. Ez zuan ordea Demofilo'k aren eskaririk onartu nai izan. Orduan, onela mintzatu zitzaion inperatorea: Pake-ta-alkartasungintzatik igesi ba'zoaz, Eliz ontatik ere iges egiteko dizut nik agintzen".

APOLINARKERIA

Arianikeriaren aurka sortutako erejia dugu apolinarkeria. Itza, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona Jainkoa ez dala esatean Kristo'ren jainkotasuna ukatzen zuten ariotarrek. Itza, gizon egin aurretik, betidandik Jainkoa dala ziurtu ezkeru, Kristo'ren jainkotasuna ere ziurturik gelditzen dalako, bigarren arazo oni ez zion Elizak jaramonik egin.

Bai ordea Laodizea'ko Apolinar sutsuak. Min eman zion Kristo jainkotasunez erantzita gizon uts biurturik ikusteak, eta Kristo'ren Jainkotasuna salbatzearren gizatasunaz erantzi zuan Kristo Jainkoa. Eta, orrela, ereji berri bat sortu zigun.

Siri'n dagoan Laodizea'ko Apolinar gaztea dugu, ereji-sortzaille

au. Kultura aundiko gizona, idazle yayoa eta teologilari trebea. Alakoa izan bait zan bere aita ere, Laodizea'ko Apolinar Zarra. Ez nolanaiko gizona: "Era senhor de elevada teologia sacranental, de uma aguda inteliOncia e de uma pena (lurra} mordaz".

Lan ederra egiñak ziran ordurako biak, Elizaren onerako. Adibidez, Juliano Fedeukatzaillak kristauei idazle eta filosofilari klasikoen elertia eta filosofia erakustea debekatu zienean, Apolinar aita-seeek Bibliako Itun Zarra Omero'ren erara bertsoz argitaratu zuten, eta Platon'en erara alkarrizketan Itun Berria.

Leendik ere ospetsua zan kristauen artean Apolinar izena. Orrela bait zeritzan 170'ren inguruan lenengo apologietako bat idatzi zuan Ierapolis'ko Apolinar idazle zintzo ospetsuak.

Askoz geroagokoa da gure Apolinar gaztea. 310'garren urtearen inguruan jaioa eta 390'garrenaren inguruan illa.

Idazle ugaria izan zan, naiz bere liburuetatik beste idazle batzuen liburuetan gordetako zati batzuk besterik gugana iritxi ez. Asko idatzi zuan Bibliari-buruz; eta baita teologiari-buruz ere.

Ona bere teologizko liburu batzuen izenburuak: "De unione Corporis et Divinitatis in Christo" ("Kristo'gan Gorputza eta Jainkotasuna Nola Alkartzen Diran"), "De Fide et Incarnatione" ("Sinismenaz eta Itza Gizon Egiteaz"), "Demonstratio Incarnationis Divinae" (Jainkoa Gizon Egitearen Azalpena"). Aurreneko bi liburu auek eta "Dionisio Bereterrari Epistola", Apolinar'en jarrailleen azarikeriz seguruaski, 1 Julio Aitasantuaren izenpean agertu ziran, eta irugarrena, ia osorik Nisa'ko Donegrogorio'k aren aurka idatzitako "Antirrheticum" edo Apolinar'en "Erretorikaren Aurka" idatzi zuan liburuan aurki daiteke.

Ereje guztien buru-muiñetan bezala, zintzoa zan Apolinar'en asmoa bere buru-barruan: Kristo osoki egiazko Jainkoa zala inork zalantzan ipiñi ez zezan, Kristo egiazko gizon osoa ez zala erakusten gogoratu zitzaion. Zer-zala-ta?

- Ziur sinisten zuan Apolinar'ek Kristo Jainkoa zala. Era berean sinisten zuan tinko, Kristo pertsona bat zala: gizon egindako Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

- Pertsona batek ordea ez zezazkean bi zertasan izan, Apolinar'en ustez izpirituzko edo izpiritu-duten izakietan zertasan bakoitza pertsona bait da.

- Orregaitik, Kristo'k bi zertasan osoak dituala esatea, ots, Kristo'k jainko-zertasuna eta giza-zertasuna, biak, osoki dituala esatea, Kristo'gan bi pertsona bizi dirala esatea izango litzake. Kristo'gan Jainko bat, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona, eta gizon bat, Miren'gandik jaiotako Josu Nazaretarra, biak batera bizi dirala, alegia. Ori, ordea, gero Nestorio'k esango duan ori Laodizea'ko Apolinar'entzat erejia zan.

Kristau danok sinisten dugun bezala Kristo pertsona bat bakarria baldin ba'da, Kristo'k ez dezake bi zertasan osorik izan.

Naitanaiez bere bi zertasunetako bat ez daiteke osoa izan. Edo Jainkotasuna edo gizatasuna, bietako bat ez du Kristo'k zertasun osoa. Eta jainko-zertasuna moztutzea ezin daitekean gauza dalako, giza-zertasuna moztu zion Kristo'ri Laodizea'ko Apolinar gazteak.

- Mozketa ori egiteko zer kendu zion Kristo'ren gizatasunari? Izpirituzko anima. Eta mozketa au sinisgarri egiteko, Platon'ek gizakumeon zertasunaz idatzi zuanera jo zuan gure Apolinar'ek.

Oroi: Platon'en ustez iru izagai ditu gizakumearen zertasunak: "Soma", "soiña"; "Psiche" "anitua gorpuzkoa", aberei ere bizia ematen dien anima; eta "Pneuma", "izpiritua" adimenaren eta naimenaren oiñarri dalako gizakumeok gizakume egiten gaituan izpiritua.

- Ba, izpiritu ori kendu zion Apolinar'ek Kristo'ren gizatasunari.

Itza'k, gizon egitean, "soma" eta "psiche", ots, soiña eta anitua gorpuzkoa bakarrik artu omen zituan Miren'gandik.

- Beraz, Kristo'k izpiriturik ez du? Ez; erantzuten zuan Apolinar'ek giza-izpiriturik ez du, giza-izpituaren lekua eta eginkizun oro, Kristo'gan, Itza'k berak artu zitualako.

Ori zan Laodizea'ko Apolinar'en arrazoiketa. Ta arrazoiketa ortara zeinzen errez sartu zan aditzeko, emen oroitu bear dugun gauza da gaiñera, garai artan oraindik "ousia", "zertasuna", eta "hypostasis", "nortasuna" ez zirala oraindik alkarrengandik bereizten. Ez zituan beintzat Apolinar'ek bereizten.

Orregaitik, alde ortatik ere, Apolinar'entzat, Kristo'gan bi "ousia", ots, bi "zertasun", jainko-zertasuna eta giza-zertasuna zeudela esatea, Kristo'k bi "nortasun", bi "personalitate" zituala esatea zan, edo, berdin dana, Kristo'gan, Jainko bat eta Gizon bat bizi zirala esatea.

Ta Elizak "trikotomi" edo gizakumearen "zertasun irukoitz" ori gaitzetsirik daukalako, eta, gizakumeak anima bat bakarra, -- izpirituzko anima besterik ez duala, eta izpirituzko anima bakar orrek, Platon'en "psiche" eta "pneuma"ren eginkizun guztiak betetzen dituala erakusten dualako, eta, baita, orrela apolinarke-

ria obeto ulertuko dugulako ere, esan dezagun au dala Apolinar-
'ek sortutako erejiaren muiña:

- Kristo, Jainko osoa da, baiñan ez da gizon osoa, Itzak gizon egitean, gizakumeen gorputza besterik artu ez zualako. Kristo'k ez du beraz giza-animarik. Giza-animaren tokia eta eginkizunak Itzak berak betetzen ditu Kristo'gan.

- Ez zan oartu Apolinar, ori esatean Kristo'ren gizatasuna ukatzen zuala, anima bait da gizona gizon egiten duana.

- Esan dezagun, zerbait jakingarri lez, Apolinar'ek eta geroagoko Lutero'k badutela alkarrekin atal batean antza: Lutero'k, jatorrizko obenaren erruz, giza-zertasun guztia usteldurik dagoala uste izango du, eta orregaitik oro dala pekatu gizakumeagan.

Apolinar'ek gizakumearen naimena dagoala usteldurik, uste izan zuan, eta, orregaitik, giza-naimen oro ezin zitekeala zearo pekatu gabe bizi. Kristo orde pekatu orotik yare eta osoki santu izan bait zan, bearrezkoa da Kristo'k giza-animarik, eta ondorioz, giza-naimenik izan ez duala sinistea.

Ez zaizu zailla gertatuko Apolinar iritzi ortara nola joan zan igartzea, ura Platon-zale aundia izan zala gogoratzen ba'duzu. Esan genduan Platon'en ustez, An, goiko Gogoeta utsen munduan bakarrik, dirala gauzak zearo garbiak, ez arrizko eta loiezko mundu zikin ontan. Uste ori kristautuz, Apolinar'ek gizatasuna pekatuz zikindurik dagoala uste izan zuan, eta pekatu ori gizakumeon gogoan bakarrik aurkitzen dala kokaturik.

Orregaitik Itza'k, gizon egitean gizagogoia ere artu baTu Kristo ez zitekean santua izan, beste guztiok bezala pekataria baizik. Itza gaiñera ez daiteke pekatuzkoa dan gauzarekin, giza-gogoarekin adibidez, alkartu.

Eliza-baitan sortutako lenen erejeekin, ots, doketiarrekin, ere izan zuan apolindarkeriak kidetasuna. Aiek, Kristo'k egiazko gorputzik ez duala, itxura utsezkoa baizik, erakutsi zuten. Apolinar'ek, Kristo'k gorputz osorik ez duala, esaten zuan.

Atanasio izan zan ereji berriaz lenen oartu zana. Adiskide aundia izan zuan Laodizea'ko Apolinar, jentillen manikeitarren eta ariotarren etsai bizkorra, baiñan orain zalantzarik gabe gaitzetsi zituan aren erakusketak 362'an Aiexandri'n bildu zuan sinodo baten bidez.

Bereala gaitzetsi zuan Damaso Aitasantuak ere apolinarkeria, bere 24 "Anatematismo" edo "Gaitzespen" aietan. Eta, laister Zesarea'ko Basilio "Aundia" izango du Apolinar'ek etsairik bildurgarriena.

Laodizea'ko gotzai zan gure Apolinar. Baiñan andik erbestera-tua izan zan I Teodosio'ren aginduz. Damaso Aitasantua izan zan inperatoreari ori eskatu ziona. Dakusazunez, gero ta geiago ari ziran Eliza ta Laterria alkarrekin naasten, eta, ainzuzen, I Teodosio onen garaican iritxi zan, ordura arte iñoiz baiño gorago naasketa arriskugarri ori.

Ez zuan Apolinar zigorrak kukildu. Antiokira joan zan, izkutuan seguruaski, eta, an, Eliz bat eratu zuan bere jerarki ta guzti: Apolindarren Eliza.

Yayoak izan ziran zabalkunderako. Gaur-egungo mezu-abesla-riek bezala, idaztiñoak eta itzaldiak ez eze, abesti errikoiak ere erabilli zituzten beren iritziak zabaltzeko.

II Kontzilio Ekumeniarrak gaitzetsi zuan Kostantinopla'tik 381'e an Apolinar'en erejia. Apolindarrek ordea ez ziran Kontzilioa-ren agindura makurtu. Aurrera jarraitu zuten naiz bi zati egiñik.

420'garren urtearen inguruan asko Elizaren altzora itzuli zitzaizkigun; bestek, piztu berria zan monofisitarren erejian ezabatu ziran, Izan ere, Kristo'k giza-zertasunik ez duala esango zuan monofisikerira joateko bide egokia bait zan Kristo'k giza-zertasun osorik ez duala esan zuan apolinarkeria.

MAZEDONIKERIA

Oso ereji ulert-erreza mamiz, Gogo Deuna Jainkoa ez dala besterik ez bait du esaten.

Ario'k ere esan zuan ori, eta bere dotriñaren barruan sarturik zegoan, naiz ortaz bereiziki jardun ez. Semea Jainko ez ba'da, askoz gutxiago izan bait daiteke Jainko, guk esaten dugun lez Aita'gandik eta Semea'gandik datorren, edo sortaldetarrei esatea atsegiñago zaien lez Aita'gandik Semea-bitarte datorren Gogo Deuna.

Baiñan zentzuzkoa dan bezala, Irutasun Donearen Bigarren Pertsonaren jainkotasuna erabat ziurtu zan arte, ez zan iñor Irugarren Pertsonaren jainkotasunari era nabarmenean uko egiten asi. Mazedonio agertu zan beste iñor baiño leenago Gogo Deunari jainkotasun ori zuzenean ukatzen.

Ez dakigu ziur non eta noiz jaioa dugun gizon au. 362'garren urtearen inguruan i1 zala, bai. Eta Kostantinopla'ko gotzai izan zitzaigula ere bai,

Alexander zeritzan, 338'az gero Kostantinopla'ko gotzaia zanak. 340'ean il zan Alexander ura. Mazedonio, diakonoa zan orduan, eta adiiiiez aurrera sartua.

Alexander'en gotzaigoan nagusi izan ziran katolikoak. Eta orain beste katoliko bat Paul ezarri nai izan zuten aren ondorengo.

Ariotar eta erdi-ariotarrek ordea, Mazedonio nai zuten gotzai. "Por considerarlo hombre prktico y muy habil y de piedad

irreproachable" (GER). Gaiñera, erdi-ariotarra zan seguruaski Mazedonio bera.

" A duras penas y no sin grandes disturbios callejeros, los católicos consiguen ta entronización de Pablo. Macedonio, en un principio totalmente opuesto al nuevo obispo, se somete rns tarde y consigue la ordenación sacerdotal" (ib).

Asarretu zan Paul'en aukeraketaren berri jakitean Kostantino-pla'tik at zebillen Kostantzio inperatorea, aukeraketa ura berak jakiteke egiña izan zalako, eta sasisinodo bat bilduz, Paul kendu eta aren orde z Eusebio Nikomedi'ko gotzai zaarra ekarri zuan Kostantinopla'ko gotzai-aulkira".

Ez ote zuan aldaketa ortan Eusebio nikomeditarrak berak zer-ikusirik izan? Baleike, "Catholic Encyclopedia"ren ustez, "Eusebio'k azpijokurako erabiltzen bait zuan ariotasuna": "Eusebius, bishop of Nicomedia, used the heresy of Arius as an occasion of intrigue".

Andik bi urtera il zan ordea Eusebio nikomeditarra. Eta utsik gelditu zan ostera Kostantinopla'ko gotzaigoa. Arras gotzaigo kutizigarria benetan, inperio osoaren uriburu eta inperatoreen egoitza zan uri ederreko gotzaigoa zalako.

Katolikoek, Paul ezarri zuten berriro uri artako gotzai-aulkian. Ariotar eta erdi-ariotarrek ordea, Mazedonio sagaratu zuten Kostantinopla'ko gotzai.

" Una cruenta guerra religioso-polftica se desencadena en la ciudad " . Naitanaiezkoa du Kostantzio inperatoreak zerbait egitea-ta, Ermogenes, uriko lejiolarien buruzagiaren eskuetan uzten du arazo aren askapena.

Gudalburu onen bitartez, Paul bidali nai izan zuan uritik. Baiñan, "la violencia de Hermógenes exaspera a los católicos y su t ctica irreflexiva produce el amotinamiento y la muerte cruel del emisario imperial. Costancio castiga al pueblo con reducción de trigo y la expulsión de Pablo. Sin confirmar la elección de Macedonio permite a este y a sus partidarios tener asambleas en su propia iglesia" (ib).

Zergaitik garirik gabe uri guztia zigortu zuan? Kostantinopla'ko erria, geien geiena katoliko zalako. Ea ori bera gertatzen zan, ezberdintasun aundirik gabe, Sortalde guztiko erri xeeko jendeen artean.

Badirudi ez zekiala Kostantzio'k zer egin. Mazedonio askatasun ori eman da laister, Paul'i Lagundu zion Kostantinopla'ko gotzai-aulkira bir-igotzen. Baiñan, epe luzeegirik gabe, Paulino uriko "praefectus" edo jaurleak Kostantzio'ren izenean, ariozale eta erdi-ariozaleen laguntzarekin Paul gotzaigotik kenduta uritik kanpora erbesteratu zuan.

Ez ziran noski gutxi poztu Mazedonio'ren adiskideak!

"El recorrido triunfal de Macedonio en el carro del prefecto y los excesos de los soldados, excitan los nimos de la muchedumbre que se agolpa en las calles y alrededores de la iglesia, y su entrada en la sede patriarcal se ve nuevamente sellada con la sangre de numerosas victimas" (ib).

Ez zan biguiña izan Mazedonio'ren gotzaitza:

- Era gogorrean eraso zien beretarrak ez ziran guztiei;

Lortu zuan Kostantzio Inperatorearengandik lege zital bat ere: Nizea'ko Kontzilioaren "homousios" ura ontzat artzen zuten guztiak erbesteratuak 'eta aien elizak ezereztuak izatera galtzen zituan agindu zipotza;

- Katolikoei, nobaziarrei, eta ariotar edo erdi-ariotar ez ziran guztiei beren ontasunak kentzeraiño iritxi omen zan Mazedonio.

- Ekintza ortan eta beste bere eginkizun guztietan, berak Ziziko eta Nikomedi'ko gotzai sagaratutako Eleusio eta Maratonio izan zituan lagun. Orregaitik, Ziziko'n eta Nikomedi'n ere Kostantinopla'ra egindako zigorkeri oiek danak egin omen ziran.

Xeetasun oiek danak Sozorneno'gandik jasoak ditut, eta garrantzi aundiko beste zerbait ere badiosku edestilari zaar onek: Zigorketa gogor artan, bai Kostantinopla'ra bai Ziziko'n eta bai Nikomedi'n ere, egiazko martiriak izan zirala.

Egiatzko erokeri bat egin zuan gure Mazedonio'k 356'garren urtean: Ez Kostantzio inperatoreari ez beste iñori deus esan gabe,

I Kostantino Aundiaren ezurak Apostoluen Basilikatik ateratzen asi!

Asarretu zan Kostantzio Kostantino'ren semea, eta asarretu zan batez ere Kostantinopla'ko erria, eta ori izan zan Mazedonio biurriaren Kostantinopla'ko gotzaigoaren azkena:

"Nuevos disturbios callejeros, numerosas victimas, acusaciones contra el obispo y, finalmente, caida de Macedonio" (ib).

Kostantinopla'n bertan bildutako sinodo batean gaitzetsi zuten eta, Kostantzio'ren aginduz bearbada, Kostantinopla'ko gotzaigotik kendu zuten Mazedonio, sinodo artan bildutako gotzaiek.

* * *

Sinodo ortan, diakono "adultero" edo ezkontza-zikintzaille baten eskutik Jauna artu zualako gaitzetsi zuten gotzai aiek Mazedonio: Ez erejea izen zitekealako.

Izan ere, Mazedonio ez bait zan seguruaski iñoiz mazedoniotarra izan. "Mazedonius was not himself a heresiarch: it seems that some of his followers became **pneumatomachoi** after his death" (Enc. Brit. Azpimarraketa berea)": "Mazedonio bera ez zan ereji-sortzaille izan: dirudianez, bere jarrailleetako batzuk izan ziran, ura il da gero, pneumatomako, biurtu ziranak. A! Elenerazko itz orrek, "Gogoaren", ots, "Gogo Deunaren aurkako borrokalaria" esan nai du.

Mazedonio'ren jarraile batzuk aipatu ditu "Enciclopaedia Britannica" k mazedonikeriaren sortzaille bezala. Bere jarraile oien artean, bi izan zituan Mazedonio'k adiskide eta lagun aundi, berak Ziziko'ko eta Nikomedi'ko gotzai egiñak: Eleusio eta Maratonio.

Naiz bizitza latz gogorrekoak, aberatsak ziran bi gizon auek. Batez ere Maratonio zan izugarri aberatsa. Mazedonio'ren serbitzura jarri zuten biek zuten guztia, eta lan aundia egin zuten. Basamortuetako bakartien eta lekaidetxeetako lekaideen artean bereiziki, beraiek ere mistikarako jaiok bait ziran: "Tanto ellos como sus

amigos eran de costumbres intachables, casi monjes" (GER), y de un decir grato e ingenioso" (O. Zarate).

Maratonio¹k gaiñera, bere diru ta aberastasunak, gaixoei, txiroei eta mota guztiko beartsuei laguntzeko eraiki zuan "erruki-etxe" batean urtu zituan danak. Len ere bein baiño geiegotan esan dugun lez, ereje guztiak ez bait dira gizakume gaiztoak izan.

Baiñan, naiz gaiztoak izan ez, Eleusio ta Maratonio ote ditugu rnazedonikeriaren sortzailleak?

Beraiek izan omen ziran beintzat sinispen oker orren zabaltzailerik setatienak.

Eta bi oiekin, beste irugarren "santu" bat: Sebaste'ko Eustazio: "Los tres primeros promotores de la herejfa contra el Espiritu Santo fueron Eustacio de Sebaste, Eleusio de Cfcico y Maratonio de Nicomedia" (O. Zarate).

Iru gotzai oietan Sebaste'ko Eustazio dugu ezagunena. Bizitza garbiko gizona, baiñan arras ulerkaitza: lekaidetzaren sortzaille ta zabaltzaillea Armeni'n eta Armeni'ren inguruko lurraldeetan, Nizea'ko Kontzilioaren babesle aundia, baiñan alatagutziz, 360'ean Kostantinopla'ko kontzilio ariotarraren erabakiak izenpetu zituana, alare Kostantzio'k erbesteratua, bañan erbestetik itzulita ostera gotzai katolikoekin bat egiñik agertu zitzaiguna, eta Nizea'ko Kontzilioa babesteaz iñoiz aztu gabe, beartsuen alde eta lekaidetzaren alde errukizko ekintzetan buru-belarri sarturik jarraitu zuana. Donebasilio'ren adiskidea izan zan gaiñera.

Zuzena zan bere sinispidea Semea'ren hinkotasunari zegokioenez, baiñan ez zan ain zuzena Gogo Deunaren jainkotasuna aitortzerakoan. Eta, azkenean, argi nabaritu zitzaion bere mazedonikeria.

Orduan ausi ziran Donebasilio'rekin izandako bere adiskidetasunak.

Donebasilio ber-bera ere, ez dakigu zergaitik, asieran ez zan argi Gogo Deunaz mintzatu. Ta, sortu ziran orregaitik marmariak eta urduritasunaren adierazle ziran zurrumurruak Kapadozi'ko Elizaren barruan.

Adiskide aundia zuan Naziantze'ke Gregorio'k marmari oien berri eman zion arte. Orduan berealaxe aldatu bait zuan Basilio'k jardunkeraz. Ortik, "Gogo Deunari-buruz" izen duan bere liburu ederra.

Ereji berriaz aurrena oartu zana, mola ez?, Alexandri'ko Atanasio izan zan. 328'an idatzi omen zuan sinispide oker orren aurka lenengo aldiz, baiñan gai orri-buruz ezagutuena duan idatzia, izkutaturik zegoan lekaroan 360'ren inguruan idatzitako "Serapion'i Eskutitza" deritzana da.

Bi urte geroago kontzilio bat bildu zuan Alexandri'ra, Gogo Deuna Aita eta Semea bezain Jainko dala aldarrikatzeko: Aita'rekin eta Semea'rekin batera Jainko Bat Bakarra.

Laister etorri ziran bide beretik mazedonikeria itzez eta idatziz salatuz eta gaitzetsiz Zesarea'ko Basilio, Nisa'ko Gregorio, Naziantze'ko Gregorio, Milan'go Ambrosio, Poitiers'ko Ilario eta Damaso Aitasantua bera. 380'ean argitaratutako Aitasantu onen "Anatematismo" edo "Gaitzespenetan" agertzen bait da orduango beste erejien artean mazedonikeria.

Ortarakoxe ainzuzen, ereji oiek danak gaitzesteko, bilduko du I Teodosio inperatoreak Kostantinopla'ko I Kontzilioa, urte batzuek geroago Kaltzedoni'ko Kontzilioan Ekumenikoa biurtua izango dana: Eliz Orokorraren 11 Kontzilio Ekumenikoa.

ASABA KAPADOZIARRAK

Kapadozi, gaur-egungo Turki'ren erdian zegoan, eta Zesarea zuan uriburu. Bi ziran orduan izen ori zeramaten izen aundiko uriak: Bat Palestina'ko Zesarea, Eusebio edestilaria gotzai izan zuana. Bigarrena, beste au: Kapadozi'ko Zesarea, ospetsua Eliz-edestian; batez ere, Basilio Aundia bertako gotzaia izan zalako. Eta, baita, Armeni'ko Eliz aintzagarriaren "ama" izan zalako ere.

Iru dira Kapadozrko Asabak: Basilio Aundia, esaten zaion au, bere anaia, Gregorio nisatarra, eta, irugarrena, Naziantze'ko Gregorio Donea, beste bien adiskide eta lagun bikaiña.

Iruetan garaiena, aurrenekoa, Zesarea'ko Basilio Aundia.

* * *

ZESAREA'KO BASILIO DONEA.- Kapadozi'ko uriburu zan Zesarea'ko gotzaia, Basilio Donea, Kapadozi bertako uriska batean jaio zitzaigun 330'garren urtearen inguruan, bera bezala Basilio zeritzan eta beragandik bereizteko Basilio Zarra esan oi zaion erretorika-irakasle baten semea. Ama, Emmelia Donea, martiri baten alaba izan zuan. Donea amona ere, Makrina "Zarra", Basilio Zarraren ama.

Amonaz gaiñera izan zuan Basilio'k beste Makrina izeneko arreba bat. Au ere Donea: Makrina "Gaztea". Ez edozein erako emakumea, bereala ikusi aal izango dugunez.

Ez bide zan nolanaikoa etxe artako sinispena, An jaiotako amar umeetatik iru eta agian lau, Doneak izan bait ziran, Makrina Gaztea, gure Basilio "Gazte", Gregorio, eta, agian baita gazteena ere, Kepa, naiz onen donetza, "Bibliotheca Sanctorum" idazti ospetsuak zalantzan ipiñi. Iru anai auek, iruak izan ziran gotzaiak: Zesarea'koa Basilio; au ere uri kapadoziarra zan Nisa'koa, Gregorio; eta Armeni'ko Sebaste'koa berriz Kepa.

Donemakrina "Gaztea", izan zan, Basilio Zarraren eta Emmeli'ren lenen umea: bere senideengan eraginmen aundiko emakume argi ta zugarra. 12 Urte zituan bere aitak senargai bat aurkitu zionean: sendi oneko legegizona, bera.

Bat-batean il zitzaion ordea senargai ospetsu au, eta, orduan, bere bizia osoki Jainkoari eskeintzea erabaki zuan. Eta aita zanean amarekin batera, eta jarraitu zioten mirabe eta adiskide batzuekin, lekaima-bizitzara baztertu zan bere aitarengandik izan zuan landa-etxe batera.

Adimen azkar eta zentzu zuzeneko emakumea zalarik, maiz joan oi zitzaizkion senideak aolku eta atsedan billa. Berak erein zuan Basilio'ren barnean lekaidetzarako zaletasuna. Eta Gregorio'k berriz, "Berbizkundeari-buruz Animaren Alkarrizketa" deritzan bere liburuan, arreba arekin izandako solasaldiak jaso besterik ez omen zuan egin.

Gregorio Nisa'ko gotzaiak era bereizian mintzatuko gera.

Kepa zan seniderik gazteena. Basilio bere anaiak sagaratu zuan apaiz. "Basilio, divenuto vescovo di Cesarea nel 730, proffith di una visita alta sorella Macrina per conferire a Pietro l'ordinazione sacerdotale" (Bibl. Sanct.).

(Italierazko esaldi orrek ez du noski itzulpenaren bearrrik izango).

Lekaidetzara jo zuan gure Kepa onek, apaiz sagaratua izan ondorean ere.

Geroago ordea, Basilio il da gero, beste anaiak, Gregorio Nisa'koak, ariotarren aurkako borrokan, bere inguruan uste on

osoko gotzaiak bear zituala-ta, gotzai, Sebaste'ko gotzai sagaratu zuan Kepa apaiz bakartasun-zalea.

Kepa'ren gotzaigoaz berri askorik ez dugu, baiñan onek bultzatuta idatzi omen zituan bere anaiak, Nisa'ko Gregorio'k, liburu bat baiño geiago. Eta gotzai zintzoa izan zala ere badakigu.

* * *

Basilio'k, Zesare'an bertan ikasi zuan aurrena erretorika, eta Kostantinopla'n eta Atenas'en gero filosofia ta elertia. Atenas'en ezagutu zuan betirako lagun izanen zuan Naziantze'ko Gregorio Donea, eta ikasketa kide izan zuan an gizaseme ospetsu bat: Juliano printzipea, gero inperatore fedeukatzaile izango zana.

Ikasketak bukatu, bere aitak bezala erretorika erakusketari eman zion.

Ez zan ordea aro luzez eginkizun ortan egon. Esan dugun bezala, Makrina bere arrebaren eragiñez, lekaide-bizitzarako guraria sortu bait zitzaion. Eta bere bokazio berri au sendotu naiez, Siri, Palestina, Mesopotami ta Ejito-zear ibilli zitzaigun. Eta, ango lekaide ta bakarti edo anakoretak ikustatu ondorean lekaidetxe bat eratu zuan berak ere, Makrina arrebaren Iekaimetxearen alboan. Lekaidetxe ortarako idatzi omen zituan bere "Araudi Laburra" eta "Araudi Luzea".

Zesarea'ko gotzaiak sagaratu zuan apaiz, eta ura il zanean, bera izan zan Zesarea'ko gotzai izendatua.

Arrezkero, erejeak Elizaren altzora erakartzea eta Eliza beraren eraketa edo organizazioa berritu ta sendotzea izan ziran bere kezkarik aundienak. Ez zegoan ortarako gaizki gertutua. Berez bait zan eratzaile bizkorra. Bada edestilari bat baiño geiago, Gregorio nisatarraren gaitasunik aundiena orixe ainzuzen izan zuala dionik ere.

Ariotarren aurka, katolikotasunaren babesle sendoa izan zan "tenaciously upholding the doctrine of Nicaea", "irmo Nizea'ko dotriñari eutsiz" (Enc. Brit). Alare, ez zan beti, katoliko borrokala-

rien gustora ibilli: "a reserva de Basilio en apoiar a teologia niceiana significava que ele prprio era objecto de sospeita de parte dos que acreditavam (uste zuten) que devia ter (izan) proclamado a verdade alto e a ban son (otsa), fosse qual fosse a consecuencia" (Chadwick).

"Eman zion aurpegi Balente'ren arianikeriari", "he opposed the Arianism of Valens" (ib), baiñan asarre gelditu zitzaizkion katoliko borrokalariak, uste bait zuten Balente inperatore ariotarrari elizako sarrera debekatuko ziola, au, 372' an Kapadozi'n zegoalarik, Epifani egunean, bere inguruko aundiki-talde osoarekin, uriko eliz nagusira urbildu zanean.

Eginen zion agian ori, Milan'go Anbrosio'k 1 Teodosio'ri bezala, Balente, Teodosio bezala, Tesalonika'n ikaragarritzko sarraski bat egitetik itzuli ba'litz, baiñan ez zan ori Basilio eta Balente'ren arteko arazoa.

Ona nola gertatu ziran gauzak 366'tik 369'ra, Balente erlijio-arazoei zien zaletasuna utzita gudan ibilli bearrean aurkitu zan: Prokopio iraultzalariaren aurka lendabizi eta Danubio igaro naiean zetozen gotiarren aurka gero.

Urte oietako baretasunaz baliatuz, berebiziko lana egin zuan Basilio'k, Kapadozi'n katolikotasuna sendotzen lagun bikaiñak izan zituan lan ortan bere bi anaiak, Gregorio eta Kepa; eta adiskide aundia zuten Gregorio naziantzetarra. Garrantzia aundikoa zan Antzira'n ere gotzai katoliko bat izan zan **ango gotzaia**, Basilio, "homoiusios" itzaren asmatzaillea il zanean.

Ez zituan katolikotasunaren garaitza oiek begi onez ikusi Balente'k, gudua bukatuta Kostantinopla'ra itzuli zanean, eta asi zan berriro arianikeriaren alde era ankerrean, oiturazkoa zuan lez, eta ortarako gudaroztea erabilliz.

Basilio'ri, kapitan bat bidali zion aurrena. Basilio'k ez zuan berean artu nai izan. Gero, gudaroztearen buruzagia bera, Modesto izeneko ariotar buru bero bat aurkeztu zitzaion, gudaroztearen atzetik, bideko lurraldeetan katolikoak zigortuz zetorren inperato-

rearen izenean. Modesto aren zemai ta zakarkeri guztiek ez zuten Basilio ikaratu:

"Ez dit sekulan inõork zuk bezala erantzun" esan omen zion arriturik gudalburu zipotzak.

"Ez bait duzu sekulan, seguruaski, gotzai batekin itzegin", erantzun berriz Basilio'k.

Iritxi zan Epifani eguna, eta Basilio eliz-barruan meza ematen ari zala sartu zan Balente inperatorea. Bere gudarozteko buruzagi ark bezain arriturik entzun zituan Basilio'k sermoiean jalkitako itzak, eta aski arrigarria iduritu omen zitzaion mezakoan Basilio'ren eraspina.

Zirrara aundia sortu zion baitare, arekin eskuz-esku, meza-ondorean izandako itzaldi luze batean Basilio'k erabilli zuan zugurtasunak. Gregorio Naziantzetarra bakarrik egon zan alkarrizketa artan Balente'ren eta Basilio'ren artean.

Danadala, Basilio'ren miresle irten zan Zesarea'tik, ordurako Atanasio zarraren miresle zan Balente, eta Atanasio pakean utzirik zeukan bezala, pakean utzi zuan Basilio ere, biurtzen „Ez zan bi arrezkero ez bataren ez bestearen aurka sartu.

Ezpairik gabe dute biak, bai Atanasio'k bai Basilio'k, "Aundi" izengoitia ondo merezia.

Erriak asko maite izan zituan. Erria geiengo aundian, katolikoa izan bait zan beti Sarkaldean ere. Kristo jainkoa dala, ¿nola ez ba erri kristauak sinistu? Orregaitik, maiz jeiki zan matxinadan Kristo'ri jainkotasuna ukatzen zioten aurka; maiz jaurti zituan asarre kanpora gotzai ariotarrak, eta azkenean, txistu jo zioten Balente inperatore ber-berari Kostantinopla'ko karriketan.

Ikaratu-edo zitzaigun gizona. Ala ordurarteko aolkulari okerrak baztertuta, entzun zien noizbait aolkulari zintzoagoei, eta baita filosofilari jentil bat edo bati ere, bearbada. Bere azkeneko urteetan beintzat pakea eman bait zien katolikoei.

Inperatorearen ibillereei jaramonik egiteke, nekatu gabe jarraitu zuan Basilio'k itzez eta lumaz ereji guztien aurka, batez ere,

arianitarren aurka, eta sabelikeriaren, mazedonikeriaren eta apolinarkeriaren aurka.

* * *

Gotzaien izendaketa izan zuan Basilio'k, Asi'n katolikotasuna sendotzeko erabilli zuan bideetako bat. Uri batean gotzai bat iltzen zanean, berealaxe izendatuko zuan Basilio'k, Patriarka lez, uri artako gotzai berria. Ezbairik gabeko katolikoa, jakiña.

Orrela, katolikotasuna sendotzeaz eta erejari izugarritzko kolpea emateaz gaiñera, lortu zuan Basilio'k beste gauza bat ere: gotzaien arteko konfiantza edo uste ona. Arianikeria sortu zan ezkeru, gotzaien artean, bata-besteaganako uste onik ez bait zegoan. Batek ez zekian ba bestea bere barruan erejira okertua zan edo ez.

Izendatu zituan gotzaietako bat, Nisa'ko gotzaia ainzuzen, bere anai gaztea izan zan: Gregorio. Baiñan samintasun-iturri izan zitzaion izendaketa ori Gregorio'ren gustokoa izan ez zalako.

"Sortaldetarren arteko Sarkaldetarra" esan oi zaio Basilio'ri, edo "Greziarren arteko Erromatarra", grezieraz mintzatzen ziran sortaldetar aiek ameskorrak ziran bezala, sarkaldetarren antzera eginkorra izan bait zan bera.

Merezimendu askoko gizona izan zitzaigun:

- Amorekaitza, sinispena zintzo eta garbi gordetzeko izkera egoki aukeratu eta erabiltzerakoan, baiñan biozkorra arlo ortan okerrera jausitako erejeekin. Erejeen itzulpena, eta, itzulpen orren bitartez Eliz baten altzoan kristau guztien batasuna izan zan bere asmo eta ekintzen guztien elburua. Ori dala-ta agurtu zuan alkartasunerako bide egokia lez "homolusios"en sorketa.

- Biotz biguiñeko gizona, etsai izan zuten beti katoliko ertzakoi gogorkerizaleak.

- Bereiziki bere zuzendaritzapera sartutako lekaiume eta Iekaideekin. Geiegizko gogorkeriak bazterrean utzita, obedentziari

eta karitate-ekintzei eman zien garrantzirik aundiena, lekaime-lekaide aientzako idatzi zituan araudietan.

- **Sortaldeko Eliz-Asaba Doneen artean, bera izan zan, klasikoen elerti eta filosofiari, berea duten edertasuna onezagutzen aurrenekoetakoa. Txit egokiak omen dira klasiko oiek gaztedi kristauaren eziketa oso eta egoki baterako. Arazo arrigarria, antziñako jakintza jentillari-buruzko arazo au. Entzun:**

"Indeed the Greek seem to have had a greater problem with their pagan literature than the Latin fathers had with theirs; the problem of adaptation was much more keenly felt in the east than in the west": "Benetan, lateraz mintzatzen ziran Asabek laterazko elerti jentillarekin baiño arazo aundiagoa izan zuten Eleneraz mintzatzen ziran Asabek elenerazkoarekin. Elerti aren erabilketak sortzen zuan arazoa, askoz larriagoa gertatu bait zan Sortaldean Sartaldean baiño" (Enc. Brit.).

Orrek badu azalpen erreza. Iztegi ospetsu orri pozik emango diogu azalpena: Basilio jaio aurretik, Sorkaldean bertan jende geiena jentilla zan. Orduan ain zuzen, I Kostantino'rekin zigorraldiak bukatu ziran ezkerero ari ziran jentillak kristau biurtzen. Baiñan jakintsu jentillak geienak, batez ere idazleak eta filosofilariak, lengo jentiltasunean jarraizen zuten arro. Arriskugarriak zitekean beraz, zigorraldietakoak bezain sendoak ez ziran kristau berri aien eskuetan jakintsu jentil aien liburuak. Ortik eliz-gizonen kezka. Sarkaldean ez zuten orrelako arazorik. Sarkaldean ez bait zan Sortaldean aiña kulturik.

- Basilio ez zan Gregorio bere anaia bezain sakona ta gogapen berri sortzaillea, Baiñan bai, mundu ontan ziur ibiltzeko gidari trebea, eta bide berriak asmatzeko yayoa. Jaurlea zan, gauzak eratzeko eta gero esku sendoz erabiltzeko, berdiñik gabea.

- Ala eratu zuan lekaime-lekaideentzat bide egoki berri bat. Bera da Sorkaldeko lekaidetzaren Aita. Berak idatzi zituan, aipaturik utzi ditugun bi liburuetan, lekaide-bizitza artarako araudiak. Araudi zugarrak eta ongi neurtu ta mugatuak benetan.

Alare, "It was really Gregory who gave a deep philosophical and mystical direction to the sound monastic structure erected by Basil": "Gregorio izan zan Basilio'k asmatutako lekaidetza-kerari filosofoi eta mistika-zentzuz ornitu zuana".

Geitxo esatea dala deritzait. Alare, Basilio filosofitari eta mistik-gizon uts baiño geiago izan zan artzai: bere lekaide-lekaime "basilitarren" artzaia, eta, ¿nola ez? bere erri osoaren artzaia. Ala arduratu zan bere lurraldeetan gaixotegiak eta, bidaztientzat, arroztegiak eraikitzen.

Asko idatzi zuan. Bere libururik ezagunenak auetxek dituzu:

"Araudi Luzea" eta "Araudi Laburra", lekaide-bizitzarako.

"Moralia". Oitura kristau zuzenei-buruz idatzia.

"Jainkoak Izadia Sortzeko Artu Zituan Sei Egunetaz". Genesi Liburu Santuaren azalpena.

Txit garrantzi aundikoak ditu bere eskutitz ugariak ere. Gaiñera badakigu ziur eskutitz oietatik 300 beintzat berak bere eskuz idatziak dirala.

Artzai zintzo, eta gidari yayoa, era miresgarrian izan zuan une bakoitzean Elizarentzat onuragarria zer zan ikusteko eta besteei ikusierazteko doai bereizia. Atanasio bera izan zan ariotasunaren eta orduango beste ereji guztien aurka lanik geiena egin zuan gizona. "Fue. Basilio, el gran artffice de la victoria ortodoxa" (O. Urbina).

Egia.

Gaiñera, Asaba Kapadoziarren artean, buruzagi eta gidari bezala, au, Basilio, izan zan iruetan yayoena,

379'ko ilbeltzaren aurreneko egunean il zitzaigun.

* * *

GREGORIO NAZIANZETARRA.- Aztertu-berria dugun Zesarea'ko Basilio "Aundia"ren adiskide eta lagun aundia izan zan. Idazle atsegina, baiñan batez ere teologilari ziurra bere idazki,

gutun eta olerkietan. Ainzuzen, lenen maillako teologilaria zalako, esan zitzaion eleneraz "O Theologos": "Teologilari Nagusia".

Gotzaia, baiñan ez sekulan Naziantze'koa, Sasirna'koa baizik. Bi uriak ziran Kapadozi'koak.

Naziantze'ko gotzaia, bere aita izan zuan, Greogorio Naziantzetar Zarra. Gizon au, naziantzetar aberatsa, eta jentilla, "hypsitari" edo erdi-jentil erdi-judutarra zan "Jainko Txit Goikoa-ren" gurtzailleen talde batekoa izan zan, neskatil kristau batekin ezkondu zan arte.

Neskatil au, Nonna Donea, etxeoandre zintzoen eredu izan zan, eta beartsuen maitale aundia. Bere eragiñari esker bataiatu zan Gregorio senarra, 325'ean. Andik lau urtera berriz, Naziantze'ko gotzai izan zitzaigun sagaratua. 45 urtez egon zan gotzaigo artan, ia eun urte zituala 374'ean il zan arte.

Iru ume, alaba bat, Gorgonia, eta bi seme, gure Gregorio au eta Zesar izeneko beste bat izan zituan Nonna Donearengandik. Irurak, Santuak.

Badu merezimendurik aski, bere senarra kristautu eta bere iru umeak aldareetaraiño jaso zituan Nonna Doneak!

Gregorio, bere aita gotzai zala jaio zan Naziantze'ren alboko urixka batean, eta, naiz berak apaiz izateko gogorik izan ez, apaiz sagaratu zuan aitak eta bere laguntzat artu.

Semea ordea, jakintzarako bai noski, baiñan bereiziki olertirako eta mistikarako jaio izan-da, aita utzi ta basamortura jo zuan, ordurako an bakartasunera bazterturik zegoan Basilio'rekin lekaide bezala bizitzera.

Aita ordea, ez zan noski teologiari dagozkionetan semea bezain ernea-ta, erejira jausi bait zan 362'en Rimini-Seleuzi'ko kontzilio "homoiostarraren" erabaki ariozalea izenpetzean.

Ori jakin bezain laister etorri zan basamortutik Gregorio semea, eta onek zuzendu zuan bere aita gotzaiaren oztopoa.

Baiñan Gregorio gaztearen beste bi senide aiek ere ongi merezia dute aipu bana:

Gorgonia Donea, oso gazterik ezkondu zan lkonio'ko Alipios jentil aberatsarekin. Eta, len Nonna bere amak Gregorio bere aita kristautu zuan bezala, berak kristautu zuan orain bere senar jentilla. Baiñan ez zuan, onengandik izan zituan bost umeei-buruz, bere gurasoek beren umeekin izan zuten bezalako zori ederrik izan.

Ez bait ziran, ez beintzat danak bera eta bere bi anaiak bezain santuak izan: Bere bi seme nagusietaz deus ez dakigu. Ezta izenik ere. Iru alabetatik bi zarrenak, Eugene eta Nonne, Gregorio aitona zarrak bere testamentutik at utzi zituan, bizimodu enasera jausi ziralako. Eskerrak ez zala gazteena, Alipiane, osaba Gregorio Donearen illobatxo kuttuna, bere bi aizpa zarrenak bezalako izan.

369'an il zan Nonna Donea, eta Gregorio bere semeak egin zion illetetako itzaldia.

Zesar, izen aundiko sendagillea, Kostantzio eta, sendi guztiaren samintasun aundiz Juliano Fedeukatzaille inperatore beraien sendagille izan zan. Juliano'k eraspén aundiz entzuten omen zion, baiñan, ezin izan zuan bere sendagille jakintsu ura kristautasunetik jentiltasunera eraman, naiz artarako saiaketaren batzuk egiña izan.

Kostantinopla'n lan egiñez, izen aundia eta dirutza ederra irabazi zituan. Kristau zintzoa zan, baiñan entzungor egin zien lekaidetzara eraman nai zuan Gregorio bere anaiaren eskariei. Lurrikara batek Nizea'ko uria zearo desegin zuan arte. An zan orduan gure Zesar, eta mirariz irten zan andik bizirik. Orduan bai, anaiaren deiei erantzunez, bakartasunera jo zuan.

Garai aietako oitura jarraituz, aski zarra zala bataiatu zuan, eta zituan diru guztiak beartsuei eman ez, lekaide bizitzan santuturik zan, iru senideetan aurrena. Oraindik bizirik jarraitzen zuten bere bi gurasoen aurrean ospatu ziran illetak. Eta Gregorio bere anaia izan zuan illetetan izlari.

Itzuli gaitezen gure Gregorio Donearengana.

Gregorio, Basilio'rekin batera, Aurrena Palestina'ko Zesarea'n Origenes'ek sortutako Teologi-Eskolan eta gero Alexandri'n ikasketak egiña zan. Ikasketa aien aroan sortu zan bien arteko

adiskidetasun irmoa. Gero lekaroan lekaide bezala bizitu ziranean egin zuten "Philokalies" izenez argira eman zuten Origenes'en esaldirik ederrenen bilduma.

370 izan zan Basilio gotzai sagaratua, eta, aurka bait zituan Nizea'ko Kontzilioaren etsaia, katolikotasuna Kapadozi'n ziurtzeko gotzaigo berriak sortzen asi zan. Lekaidetzarako jaio zan Gregorio'k ez zuan orain, len apaiz izateko izan ez zuan bezala ez zuan orain ere gotzai izateko gogo aundirik, baiñan soilki Basilio'ren ariketa sendotzeko makurtu zuan burua eta onartu zuan Sasima uritxoko gotzai sagaratua izatea. Sagartzaillea, Basilio adiskidea izan zuan, eta Aita berriz, sagaraketa artan Basilio'ren gotzai laguntzaille.

Baiñan "ez zuan beñere bere gotzai-aulki aren "posesio" edo jabetasunik artu": "Never took possession of his see" ("Enc. Brit.). Ia itz berdiñekin "Catholicisme" k: "Il refusa de prendre possession de son sige". Xeetasun au garrantzi aundikoa da, geroago gertatuko diran gauzei begira.

Sasima'ra joan gabe aldiz isilik lekarora iges egin zuan.

Aita zartzen ari zitzaion ordeata, aren eskariz, Naziantze'ra itzuli zan, ari gotzaigoan laguntzeko.

* * *

Aita il zanean, Naziantze'n jarraitzeko eskatu zioten naziantzetarrek. Ez zuan ezetzik esan baiñan bai, esan zuan argi, berak gotzaigo artan bertako gotzai lez ez baiña "atzerritar" lez jarraituko zuala, eta soilki Naziantze'rako beste gotzai bat sagaritzen zan arte

Baiñan luzatu egiten bait zan gotzai berriaren sagaraketa, irugarren aldiz isilik, lekaide-bizitzara jo zuan Gregorio'k.

Balente ariokerizalea il zanean, "Kostantinopla'ra deitu zioten" uri artako katolikoek Gregorio'ri gotzai lez "Eliz artako zuzendari izan zedin". "Was called to organize the orthodox church at Constantinople": " Les catholiques de Constantinople dernanUrent

Gregoire de venir prendre la direction de leur communnate" Id. Id.). Badu xeetasun orrek ere bere garrantzia, Gregorio ez bait zan Kostantinopia'ko Elizara bere gogoz sartu.

Bai ordea, len ikusia dugun lez, Alexandri'ko Kepa'k ziria bezala Kostantinopla'ko Eliz artara sartutako Maximo "zinikera-zalea"

Bere erako gizakurtea Kepa izeneko Alexandri'ko gotzai au.

Zesarea'tik Basilio'k arren gotzaigo ura artzeko eskatzen zion Gregorio'ri eta onekin bat egin zuan Teodosio inperatoreak ere-ta, eman zuan baiezkoa Gregorio'k. Ez zitzaion errez gertatu eginkizun berri ura, gogor egin bait zioten aurka ariotarrek. Orduan iriki zan "Anastasis" edo "Pizkunde" izeneko elizatxo txiki batean asi zituan bere lanak, eta eman zituan bere "Teologilari-buruzko Bost Itzaldi" ospetsuak.

Asarretu ziran ariozaleak, eta arrika ekin zieten egun batean, an barruan bildurik zeuden guztiei. Ez zan Gregorio kukildu, eta aurrera jarraituz, "hacfa prkticamente de obispo de Constantino-pla, aunque su verdadera sede dada, por Basilio, era Sasima" (Jedin).

Teodosio ordea, bere uri nagusi ura ariokeriz erabat garbitu nairik aurkitzen zan-da, berak, eta bere eskua emanez, eraman zuan Gregorio, Sancta Sophia edo "Jakintza Donea" izeneko Basilika Nagusira. Eta an izan zan, gotzaidiak eta erriak Kostantinopla'ko gotzai aldarrikatua.

Urte bete geroago, Elizaren II Kontzilio Ekumenikoia izatera iritxiko zan Kostantinopla'ko I Kontzilio ark ere, Gregorio'ri eman zion Kostantinopla'ko gotzaigoa. Ez ordea, arazorik gabe, ikusi aal izango dugun lez.

Kostantinopla'ko II Kontzilio Ekumenikoi orrek Antioki'ko Melezio izan zuan Lendakari, eta aul zanean, gure Gregorio'ri eman zitzaion lendakaritza.

Antioki'n ango gotzai nor izan bear zanari-buruz nola asarreak zeuden pizturik, aztertuak gera. Badakigu gotzai-gai oietako bat Paulino zala eta bestea Melezio, gotzaigai zismatikoak kontuan artu

gabe. Badakigu, meleziotarren eta paulinotarren artean itun bat egiñik zegoala bietako bat iltzean bestea gotzaitzat danek artua izateko itz emanez.

Orregaitik, itun orren araura, Gregorio'k, Kontzilioaren lendakari lez, Paulino'ri eman nai izan zion gotzai-aulki ura. Kontziliokideek ordea, meleziarrekin bat beste bat aukeratu zuten Antiokrrako: Fabian.

Min aundia eman zion orrek Gregorio sentikorrari.

Gero, Ejito'ko gotzaiak iritxi ziranean, Gregorio Kostantino-pla'ko gotzai izendatua izatearen aurka mintzatu ziran Kontzilioaren barruan. Sasima'ko gotzai sagaratua izan zalako, ez omen zeukan Kostantinopla'ko gotzai izaterik Nizea'ko Kontzilioak gotzaiei gotzaigo-tokiz aldatzea debekatzen zielako.

Egia da Gregario baiño leenago izan zala Eusebio Nikomedi'tik Kostantinopla'ra aldatua, baiñan gotzai ejitotar aiek ez zuten, Nizea'ko arau aren aurka zijoalako ainzuzen, sekulan ontzat artu. Gregoriotarre'k, Gregorio'ren aldaketa babesteko, Gregorio'k ez zuala sekulan Sisima'ko gotzai-aulkiaren jabetasunik artu, erabili zuten arrazoitzat.

Iñori ez zitzaion burura etorri, dogmak ez diran gauzetan Kontzilio Ekumeniko batek agindua beste Kontzilio Ekumeniko batek aldatu dezakela. Alakoa bait zan aro zar aietan Sortaldean bereiziki "Kanon Sagaratuei" izan zitzaien begirunea.

Gregorio ordea ez bait zan borroka-zalea, eta, gaiñera len bezain bakartasun-zale jarraitzen bait zuan, bere burua babestu gabe, Kostantinopla'ko gotzaigo eta Kontziliooko lendakaritza utzi, eta Naziantze'ra biurtu zan isil-isilik.

An, naiz bere gogokoa izan ez, ostera Naziantze'ko gotzaigoa artu bearrean aurkitu zan, "beste gotzai bat" arako aukeratua izan arte. Ta, gotzai au, Euialio bere lengusua, Naziantze'ko gotzai sagaratu izan zanean, bere jaioterrira, baztertu zan pozik Gregorio. Bakartasun artan idatzi zituan bere olerti-lanak.

"Si S. Basile, son ami, tait avant tout un actif, prodigieusement Uvou, Grgoire, mal fait pour l'action, fut une ame Wicate,

toute assoiffée de contemplation et de solitude. Esprit cultivé et brillant, théologien solide, gracieux poète, il est une des figures les plus belles et les plus attachantes des Pères du IV siècle" (Catholicisme).

Euskeraz:

"Donebasilio bere laguna, ekintza-gizona izan zan, era miresgarrian ekintzari lotua. Gregorio ordean, ain biotzbera eta ain zearo zerukoitasun eta bakartasun egarriz betea, ez zan ekintzarako sortutako gizona. Adimen landua, ta dizdiratsua, berea; teologilari sendoa, izlari ospetsua, olerkari atsegiña, bera dugu IV mendeko Asaben artean ederrenetako eta unkiarrietako bat".

Iru asaba kapadoziarretatik, Gregorio naziantzetarra dugu gozoena.

* * *

NISA'KO GREGORIO DONEA.- Basilio Zesarea'ko gotzai Donearen anaia. Zesarea'n bertan jaioa. Diokleziano'ren aroan zigortua izandako sendi txit kristau baten altzoan jaioa.

Bere aita, Donebasilio Zarra, erretorika irakaslea izan zan. Bederatzi seme-alaba izan zituan. Bederatzi oietatik bost auek ditugu ezagunak:

Makrine Donea, sendiaren barruan eraginmen aundia izan zuan neskatilla.

Basilio Donea, Kapadozi'n Zesarea'ko gotzai ikusi eta aztertu duguna.

Nektario

Orain aurkeztuko dugun gure Gregorio au, Nisa'ko gotzaia.

Kepa J3onea?, Sebaste'ko gotzaia.

Ez dirudi, Basilio bezala ikastola ospetsuetan ibilli zanik. Bere ikasketak Neozesarea'n aurrena eta gero Zesarea'n bertan egin zituan. Azkeneko ontan filosofia ikasi zuan bereiziki eta bertan egin zan Platon zarraren, Filon judu platonzalearekin eta Plotino neoplatondarraren adiskide.

Eta, Lnola ez? ikasi zuan baitare, aldi zar aietan danei ain atsegiña zitzaien erretorika edo "ederki itzegiteko eta idazteko"ertia. "Y se distinguir⁵ de tal manera por la profundidad de su ingenio que fue llamado **el filósofo**" (Llorca).

Gazterik eskatu eta artu zuan bataio, eta "irakurle" egiña izan zan, orrela Elizaren Ordena Txikietan bigarrena dan "irakurletzara" igota elizgizonen taldera sartuz.

Geroago ordea, elburuz aldatuta ezkondu egin zitzaigun, eta erretorika irakasten asi. Ez zan ordea Makrina arrebaren eskari goxoei, Naziantze'ko Gregorio adiskidearen eskutitzei eta Basilio anaiaren aolkuei luzaroan ez-entzuna egiteko gauza izan, eta berak ere lakaidetzara eman zion azkenean.

Ez dakigu zer izan zan bere emazteaz. Illa ote zuan ordurako? Biak alkar-artuta, pake santuan bereizi ote ziran, biak bakartasunera joateko?,

Gregorio beintzat Neozesarea'ren alboko lurraldera izkutatu zan.

Basilio anaiak atera zuan andik, eta Nisa uriskako gotzai sagaratu, ariotarren aurka gotzai lagunen bearrean aurkitzen zalako.

Laister zituan gotzai berriak aurka inguruko ariozale guztiak. Nisa'tik jaurtia izan zan, eta aldi batez zoko izkutu batean gorderik bizitzera beartua.

Bi urte egon zan erbestean. Epe orren ondorean, bere inguruan nisatarrak pozez negarrez eta txaloka zituala "trionaphalement" (ib), "garaille", sartu zan berriro bere gotzaigora.

Basilio anaia il zanean, berak jarraitu zuan katolikotasunaren alde ordurarte ark eramandako lana. Gotzaigoetara gotzai katoliko adiskideak sartuz ark erabilli zuan jardunkera jarraituz, lortu zuan Kepa bera anaia Sebaste'ko gotzai-aulkira jasotzea.

Beste Asaba kapadoziarrak bezala Melezio'ren alde, izan zuan Antioki'n bertako gotzaien "zisma" konpontzeko 379'an bildu zan kontzilio artan esku. Eta konpondu zuan Sebaste'n ere, bertarako gotzaigaiei-buruz sortu zan borroka, ikusi dugun bezala, uri artako gotzai bere anaia izendatuz.

Ospe aundia izan zuan Kostantinopla'ko Kontzilio ekumenikoian. "Egiazko Sinispenaren Zutabe" izen-emanen agurtu zuten an Asabek.

Urrengo urtean beste kontzilio bat bildu zuan Teodosio inperatoreak Kostantinopla'ra bertan. An izan zan Gregorio, eta arrezkero arremen asko izan zuan uri arekin eta uri artan bizi zan inperatorearekin.

Berak egin zuan Pulkeri inperatemearen eta onen alaba Flazile printzesaren illetetako itzaldia. Eta il zan arte, gero eta geiago apolindarrek zuzendu zizkioten eraso gogorren gaindik, guztiek onetsia, bera izan zan Sorkaldeko Eliz-Asabarik aundienetako bat.

* * *

"Peu fait pour manier les affaires, comme Basile, en revanche, plus profond que lui": "Ez, Basilio bezala arazo-konponketarako jaioa, baiñan bai alderantziz Basilio baiño sakonagoa" (Catholicisme):

Naiz oso ugariak ez, txit ederrak dira, bai bibliaz, bai teologiz, bai kristau-barne-bizieraz idatzi zituan liburuak. Auek ditugu bere libururik aipatuena:

- "Hexaameron" edo "Seiegundia", Basilio 'k munduaren sorketaz asitako lanaren jarraipena.

- "Gizakumearen Sorketa". Lengoaren jarraipena. Bi liburuok Genesiak diona, eta filosofizko aburuak alkartzea dute beren azken-elburua.

¡Ez dala gaur-egungo saiaketa, Idazti Doneen itzak eta gizonengandiko jakintzak alkartu nai izate ori!

- "Moise'ren Bizitza" eta "Salmoen Izenburuak", Filon'en bidetik "alegorista" edo "irudizaleen" erara idatziak ditu.

"Eunomio'ren Aurka". Eunomio zearo ariotarra zan, "anomeostarra", Aezio bere lagun aundiarekin batera. Ordurako "Apologia" bat idatzia zuan. Zesarea'ko Basilio'rengandik erantzun gogorra jaso zuan liburua. Basilio illik ordea, "Apologia'ren

Apologia" idatzi zuan orduan Ziziko'ko gotzaia zan Eunomio'k bere aurreneko "Apologia" ura babestu naiez. Liburu oni erantzun zion gure Gregorio'k.

Jainkoa bere zertasan eta nortasan osoan ezagutu daitekeala esaten zuan Eunomio'ri, "la vraie connaissance de Dieu consiste comprendre qu'il transcende toute connaissance, separe de toute part par son incompraiensibilitë (ib), "Jainkoaren egiazko ezagupena, bera ezagunmen ororen gairdik dagoala jakitea da; ezagukaiztasun orrek bereizten duala Jainkoa beste izaki guztiengandik".

Alare, naiz Jainkoaren zertasuna ulerkaitza izan, Aren gaitasun asko ezagutu omen dezazke gizakumeak, Ark izadian zabalduko doai ederrak aztertuz.

- "Gogo Deunaz Itzaldia". Gogo Deunaren jainkotasuna erakusteko Kostantinopla'n esana. Gogo Deuna Aita'gandik omen dator Semea bitarte.

- "Antirrheticus". Beste izenez, "Apolinar'en Aurka". Semea gizon egiteari-buruzko teologi osoa dakarren idaztia. Kristo egiazko Jainko eta egiazko gizon osoa omen da giza-anima ta guzti. Alare Miren Neskutsari "Zeotokos" esan bear omen zaio, ez "anzropotokos". "jainkerditzaille" alegia, eta ez "gizaerditzaille", erditu zuan Pertsona ez bait zan gizakoia, Jainkozkoa baizik: Irutasun Doneko Bigarren Pertsona: Aita'ren Seme Jainkoa.

- "Katekesirako Arrazoiketa" . Emen berriz Gregorio nisatarraren teologi osoa aurki daiteke. Naiz guztiz ederra, badu teologi orrek akats bat: Origenes'en "apokastasis" edo " azken-gaizkapen-orokorra" ontzat artu izatea, ots, azken-unean, inpernura galdutako guztiak, baita deabruak berak ere, damaturik, araturik eta barkaturik, gaizkatu edo salbatuko dirala danak.

- Kristau-bizitzari-buruz, baditu bost liburuxka, kristau-bizitza ori gaillureraiño nola eraman irakatsiz. Auen artean, Makrina bere arrea Donearen bizitza.

- Iritxi zaigu baitare, Gregorio'ren gutun eta itzaldi-sorta polit bat.

Donegregorio'ren pentsaerak baditu zailtasunak eta illuntasunak. Badu baitare, ikusi dugun bezala, apokastasiari-buruzko oztopotxo ura. Alatagutziz, iru Asaba Kapadoziar aundien teologian, berea da aberatsena, geien pentsatuena eta ondoen eratuena.

"Gregorio Niseno fue sin duda el más profundo pensador de los tres Padres Capadocios" (Llorca).

SORKALDEKO BESTE IDAZLE BATZUK

Sortu zuten IV mende ontan gizon jakintsurik aski aurreko mendean eraturako Teologi-Eskola ospetsu aiek.

Alexandri'ko Eskolakoak eta onen alaba izan zan Zesarea palestindarreko Eskolakoak ditugu, edo bertan ikasi zutelako edo bertako girokoak izan ziralako, Atanasio bera eta iru Kapadoziar aundietaz gaiñera beste asko eta asko ere. Adibidez, Didimo Itxua eta, Lekaroetako Aita bakartasun-zaleen artean Makario Zaarra eta Ebaristo Pontiarra, idazti batzuen egilleak biak.

Didimo berriz Alexandri'n bertan jaio zan .Ez dakigu noiz, baiñan 398'an il zan, larogei ta bost urteko agure zarra. Lau urteko mutikoa zala gelditu zan itxu. Alatagutziz, bai Bibli-jakintzan bai munduko jakintzetan kultura aundiko gizona izatera iritxi zan. Alexandri'n bertan Teologi-Eskola ospetsu aren lendakari izan zaIa ere esan oi da, baiñan ez da ori gauza ziurra.

Berak asmatu ta esan, eta bestek idatzi, liburu asko eman zituan argitara, baiñan geienak galduak ditugu. "De Trinitate" kopi makur batean bakarrik iritxi zaigu, eta "De Spiritu Sancto", Doneambrosio'k eta Donejeronimo'k laterara egindako itzulpenetan.

Zoritxarrez, galduak ditugu gai kilikagarrietaz idatzi zituan beste idazki batzuk: "Animaz", "De Incorporalitate" edo "Soirlikezari-buruz", "Aurtxoen Eriotzaz", "Sinismenaz"...

Nizea'ko Kontzilioaren eta Gogo Deunaren jainkotasunaren babesle aundia izan zan. Bada, Jainkoaren nolatasuna adieraztera emateko "zertasun batean iru nortasun" edo "ousia batean iru

hypostase" berak asmatu zuala dionik ere. Ez dakigu ala izan zan, baiñan egia da beintzat esakizun ori agertzen dala bere idaztietan.

Origen-zale irmoa, oso santutzat eta txit jakintsutzat eukia izan zan, baiñan "Didyme n'est ni un grand ecrivain, ni un grand theologien. Son style est diffus. Sa doctrine est exactement celle de au moment ou il vecu":

"Didimo ez da idazle aundi bat. Ezta teologilari aundi bat ere. naspilduegia da bere idazkera. Ta bere dotriña, soilki bera bizitu zan une artan Elizak ordurako bazuana besterik ez da" (Catholicisme)..

* * *

Antioki'ko Eskolan ikasle izanak ditugu Tarso'ko Diodoro, Jerusalem'go Zirilo Donea, Epifanio Donea, eta baita, azkenean erejira jausi zan Laodizea'ko Apolinar ere.

Asi gaitezen azkena aipatu dugunarekin, besteak baiño leenago il bait zan bera, 390'garren urtean.

* * *

"APOLINAR de LAODICEA se hizo benemerito de la causa catolica con su actividad contra los arrianos" (Llorca). Asko idatzi zuala badakigu. Ala, adibidez, "Apologi" bat Porfirio'ren eta Juliano Fedeukatzaillearen aurka, "Bibliari-buruzko Azalpenak", eta baita teologizko liburu batzuk ere. Ia dana ordea galdua duguta, gutxi iritxi da gure egunotaraiño, "si bien lo suficiente para apreciar su justo valor" (id).

Badakigu, Kristo egiazko Jainkoa zala babesteko, nola jausi zan erejira, Kristo'gan giza-animaren tokia eta eginkizunak Itzak artu zituala esanez.

* * *

TARSO'KO DIODORO, garai artako gizonik aundienetakoa dugu, eta ikasle izan zituan Jon Krisostomo Donearekin eta Teodoro Mopsuestiarrarekin batera Antioki'ko Eskola aren aintzarik bikaiñenetakoa.

Lekaidetxeko abata aurrena, Antioki'ko Teologi-Eskolako irakasle ospetsu, eta Tarso'ko gotzai gero, ederki lan egin zuan izlari ta irakasle bezala, erejeen aurka. Baiñan bera ere, erasten zaizkion esaldi guztiak bereak ba'dira beintzat, erejira erortzeko arriskuan ibilli zan azkena.

Kristo'k animarik ez zuala esaten zuan Apolinar'en aurka Kristo'ren gizatasun osoa babestearren geiegi bereizten bait zituan Kristo'gan Diodoro'k jainkotasuna eta gizatasuna, "Jaikoaren Semea eta Miren Neskutsaren semea".

Bereiztea, ez da naitanaiez batasuna urratzea, eta Diodoro'k ez zuan beinere orrelakorik egin. Bazuan ordea geiegizko bereizketa orrek urraketa ortara iristeko arriskua. Ikusten zuan arrisku ori Diodoro'k berak. Orregaitik esaten zuan, bereizketa ura aurreraegi zeramakiala iduritzen zitzaionean, "alatagutziz, Miren'en semea eta Jainkoaren Semea ez dira bi seme, Seme bat bakarra baizik.

Orregaitik, Diodoro ez zan sekulan erejira jausi. Baiñan, era berean, ez zuan sekulan jakin berak ainbeste bereizten zituan Jainkoaren Semea eta Miren Neskutsaren semea Seme bat nola izan zitezkean. "Nola" ori ulerterreza biurtzen, Diodoro'ren ikasle izandako Teodoro mopsuestiarra saiaturko zaigu laister.

* * *

MOPSUESTI^sKO TEODORO. Alare gizon aundia izan zan Zilizi'n zegoan Mopsuesti'ko gotzaia.

Antioki'n jaio zan. Jon Krisostomo Donearen adiskidea, alkarrekin ikasi zuten erretorika, Libanio izen aundiko filosofilari sofista jentillaren ikastolan.

Legegizon izan nai zuan Teodoro'k. Krisostomo'k aldatuerazi zizkion asmoak, eta aren aolkuz, lekaidetxe batera bildu zan.

Teologi-ikasketan Diodoro tarsotarra izan zuan irakasle. Aldi bat lekaidetxean emanik, Mopsuesti'ko gotzaigoa artu zuan, eta ogei ta amasei urtez iraun zuan eginkizun ortan.

Berrogei ta bat liburu idatzi omen zituan, eta bere lan oiek sirierara itzuliak, Osroene'n Efeso'ko Eskolan ikasliburutzat artuak izan ziran, ordurarte erabilitako Efren Donearen liburuak bazter-tuz

"The man who speaks through these works compels admiration. He is a scholar of astounding knowledge" (Enc. Brit"): Liburu oien bidez mintzatzen zaigun gizonak arriturik uzten gaitu. Jakintza ikaragarritzko azterlaria izan zan gizon ura".

Ederki saiatu zan Aita'ren, Semea'ren eta Gogo Deunaren jainkotasuna iragartzen. Irutasuniztian ez du akatsik. Bearbada kristiztian egin zuan oztopo.

Apolinar'en aurka Diodoro bere maixuaren bidetik joz, era bat bereizi zituan Miren Neskutsaren semea eta Jainkoaren Semea, orrela gero etorriko zan Nestorio'ri atea irikiz.

Esan dugu Diodoro maixuak ezin ulertu zuan ura, ots, berak geiegi bereizten zituan Miren'en semea eta Jainkoaren Semea nola bi seme ez baiña Seme bat bakarra izan zitekean alegia, Teodoro'k ulerterreza biurtu zuala, baiñan era okerrean zoritxarrez, berak erabilitako itzei berez duten zentzua ematen ba'zaie.

Jainkoaren Semea'ren eta Miren Neskutsaren semearen arteko batasuna, "bien naimenen batasuna", zala esan bait zuan: Senar-emazteen arteko batasunaren antzekoa.

Teodoro ereje?

Kontuz! Esakizun ori bi Seme aien batasuna nolabait argitzeko erabilli zuan adigarri bat besterik ez bait da seguruaski. Bibliatik artutako adigarria, "senar-emazteek bi ez baiña aragi bat dirala" irakurtzen bait dugu Biblian.

Beste adigarri bat ere erabilli oi zuan Miren'en semea eta Jainkoaren Semea bat dirala adierazteko: Bien arteko batasuna, animaren eta gorputzaren batasuna bezalakoa dala, alegia. Anitua eta gorputza ordea, ipertsona bat bakarra dira!

Orregaitik esaten zuan asarre Teodoro'k berak, "ez zituala bi Seme edo bi Jaun oiukatzen": "se defend avec energie de parler de deux Seigneurs ou de deux Fils" (Marrou).

Bera bizi zala, ez zion iñork Mopsuesta'ko Teodoro'ri ereji usairik artu, eta pakean il zan Eliza Katolikoaren altzoan, 428 edo 429'an.

Gero izan zan erejetzat artua eta V Kontzilio Ekumenikoian gaitzetsia, agian, Nestorio'k aren esakizunak gaizki ulertu zitualako

"El obispo Teodoro de Mopsuestia, discipulo de Dador, desarrollo 116, en la cuestión cristológica nuevas ideas y fórmulas que son de gran importancia para el ulterior desarrollo de la doctrina sobre Cristo. Ciertamente que la reciente investigación de la historia del dogma ha debido practicar rns de una corrección en la apreciación tradicional de la cristología de Teodoro, cuya ortodoxia no fue ciertamente puesta en duda durante su vida, pero que en la polémica en torno a Nestorio fue tenido por sospechoso de herejía como supuesto maestro de este, sobre todo por Cirilo de Alejandría, y finalmente condenado como nestoriano en el 5º concilio ecuménico (553)" (Jedin).

Mopsuestiarako Teodoro'z nere iritzia², Ez zala sekulan ereje izan. Zentzu okerrean artu daitezkean esaera batzuk badituala, eta zentzu oker ortan gaitzetsi zituala esaera oiek V Kontzilio Ekumenikoak, ikusiku dugunez.

* * *

JERUSALEN'GO ZIRILO DONEA. - Uri ortan jaio zan eta katekesia izan zan bere lana apaiz sagaratu zuten une beretik. Eta eginkizun ori izan zuan maiteena Jerusalem bertako gotzai egiña izan ondorean ere.

Izen aundikoak dira bere "Ogeitalau Katekesiak" , ots, bataiaketarako Jerusalengo Elizak zerabilkian sinistarau edo "kredoa" bataiatu-bearrei aditzera emateko idatzi zituan irakaspenak.

Ez zitzaion bere gotzaigoan bizitza-giro gozoegia gertatu, ariokeriaren erruz. Egiatzko ariotarren arerio tinkoa izanik, oartu zan ala ere, erdi-ariokerizaleen "homoiusios" arek egiazko zentzu zuzena bazuala, eta formula edo adierazkera ura babesten zutenak egiazko ariotarrak ez zirala. "Aunque algunos han pretendido poner en duda su ortodoxia, sobre todo por sus simpatías con los semiarrianos, sin embargo no puede dudarse de ella" (Llorca).

386'an il zan Jerusalem'go Zirilo.

* * *

SALAMINA 'KO EPIFANIO DONEA.- Kristautasunaren asieratik ain eraginmen ederreko ugartea izan genduan Txipre'n Salamina'ko gotzaia izan zan, naiz bera Palestina'n jaio.

Gaztetan Ejito'n egin zituan ikasketak, eta an ezagutu lekaideen bizitza, eta lekaidetzaz zaletu. Ala, Palestina'ra itzuli zanean, lekaidetxe bat iriki zuan eta bertako abata izan zan Salamina'ko gotzaigo artu zuan arte. Ez zan lekaidetzaz aztu, alderantziz lekaidetxeen ats-emaille eta laguntzaille izan zan bere gotzaigo guztian.

Erejiaren aurkako borroka batez ere ereji guztien eredu iduritzen zitzaizkion Origenes eta origenes-zaleen aurkako borroka izan zuan bere bigarren eginkizuna, baiñan eginkizun ortan gogorregi beti eta maiz aski atzipeturik ibilli zitzaigun.

"Sólo una sombra obscurece su figura, y es un espíritu demasiado rectilíneo, que lo hace a las veces incapaz de hacerse cargo de las dificultades de su adversario. Esto apareció de un modo especial *en* las grandes cuestiones contra el origenismo" (Llorca).

Origenes'en jarraille agertzen ziran lekaide batzuen geiegikeriek atzipetuta, Origenes begi-tartean arturik zeukan. Ederki agertu zuan arenganako asarrea 390'en Jerusalem'era egindako bidaldian.

An aurkitu zuan Jeronimo Donea-ta, izan zituan berarekin itzaldi luzeak. Gauza atsegiña bait zan Jeronimo bezain gizon

jakintzu batekin mintzoa. Egun batean, Liturgian itzegitera deitua izanik, Origenes'i ekin zion gogor gure Epifanio'k bere itzaldian. Asarretu zitzaion Origenes'en miresle zan Jerusalem'go Gotzaia.

Laister bera zan, Kostantinopla'ra zijoala, Jon Krisostomo uri nagusi artako gotzaiarekin asarretu zana. Zergaitik? Alexandri'ko gotzaiak, berak Alexandri'tik origenes-zale izateagaitik erbesteratutako lau lekaide Krisostomo'k Kostantinopla'n onartu zituala jakiñerazi ziolako.

Gero ikusi aal izan zuan, Kostantinopla'ra iritxi zanean, atzipeturik zegoala Alexandri'ko gotzaia, eta atzipeturik ibilli zala bera ere Krisostomo'ren aurka.

Bi liburu ospetsu idazti zituan. Erejien edestiari-buruzkoa bata: "Panarion" edo "Sendagailluen Otarra". Larogei erejien berri ematen digu bertan, eta dogmaren edestiarentzat balio aundikoa da. Alare. Grezi'ko filosofilarien eskolak eta juduen eta samaritarren oldozbide okerrak kristau-erejien artean sartzen dituala esan bearra dugu.

Bigarrenak, "Ankoratus" deritzanak, teologia du gai, kristausinispidearen azalpena. Bereiziki, ariotasunaren aurka, Irutasun Doneari-buruzko sinispidearen azalpena.

Bi "kredo" edo sinistarau sartu zituan liburu ontara, eta oietako bat artu zuan II Kontzilio Ekumenikoiak, bere langintzarako oiñarri bezala.

Beste zio batengaitik ere, arras aintzagarri Epifanio'ren liburuak. Galdurik diran liburuen zati luzeak, bere idazki oietan ugari ematen dizkigulako.

403'an il zitzaigun Kostantinopia'tik itzuliz etxera zetorrela, Txipre'ra iritxi gabe bidean, akats bat besterik izan ez zuan gizon aundi au: bere geiegizko zuzentasuna:

"A zealous bishop and a man of austere life, Epiphanius was lacking in moderation and judgment, defects reflected in his writings, which have no literary grace" (Enc. Brit.): "Gotzai zintzoa, eta bizitza latzeko gizona, Epifanio. Gauza batean bakarrik izan zitzaigun motxa: epaiketagintzarako bearrezkoa dan baretasu -

nean. Ederki agiri da baretasunik-ez ori, etertizko lillura aundirik ere ez duten bere idaztietan".

* * *

EDESA'KO TEOLOGI-ESKOLA. Jakiña dugu, II mendea ber-beraz gero Osroene'ko Elizak Urrutiko Sortalderuntz izan zuan eraginmena.

Aztertu genduan bere kristau-bizitzaren sendotasuna, eta baita Efeso bere uriburuko Teologi-Eskola aipatu ere. Bi gizon izan ziran eskola orri aipu berezia eman ziotenak: Afraates eta, bereiziki, Efren Siritarra.

Txit interesgarriak dira Eliz ontako albisteak, Osroene astirik geienaz Erroma'ko inperio lurretik at bizitu bait zan, yare urte batzuetan, baiñan pertsiarren mendean luzaro.

Pertsiarrek Elizaren aurka laugarren mendean jaurtitako zigorraldi gogorra ber-bera ez zan Osroene'ko Eliz bikain ura birrintzeko gai izan. Baditugu zigorketa artako martirien "'atta" edo "agiriak", eta laugarren mendekoak ditugu, ainzuzen, aipatutako bi idazle aundi aiek ere.

* * *

AFRAATES.- Persi'ko mugan guraso jentillen ume jaioa, laugarren mendean bizitu zitzaigun Lekaide, apaiz, eta gotzai izandako gizon ospetsu ura. Bere urterik geienak Tigris ibai aundiaren sortaldeko ertzean zegoan Mar Mattai izeneko lekaidetxean igaro zituan. Badiraute oraindik gaur-egun Xeik Matta esaten zaion lekaidetxe zar aren ondakiriak.

Jakoba artu zuan izen gotzai egin zanean baiñan bere garaiekoek, eta baita ondorengoek "Pertsiar Jakintsua" esan oi zioten.

Sirieraz idatzi zituan bere ogeitairu "Demonstrationes" edo "Azalpenak". Alfabetik'eran idatziak dira aurreneko ogeitabiak,

baiñan bakoitza sirierak dituan 22 izkiez asitako itz batez asten dirala. 23^a, geroago idatzia izan zan.

Oso garrantzi aundikoak dira idazti oiek Erroma'ko inperioaz kanpoko kristautasun zarraren berriak zuzenean damaizkigulako Orregaitik zar-usai aundia darioe "Azalpen" aiei: "une couleur arechaïque tres prononcC (Catholicisme).

Txit interesgarriak idazti oien gaiak ere, "IV mendeko Eliz aren eta Eliz orokor katolikoaren sinispidea berdiñak zirala adierazteko adigarri beterik agertzen bait zaizkigu": "Are pregnant with important conclusions in favour of the conformity of the doctrines of the Catholic Church with those of the early Christian Church in the fourth zentury" (Cath. Enc.).

Afraate'ren gaiak? Dogma, oiturizti edo morala, liturgia, Elizaren, eta baita, munduaren edestia... Eta gai orokor oien barruan, auetxek, garaitzak, gai bereizi aipagarriena: Miren'en betiko neskustasuna; bere amatasun jainkotiarra; Eliza Kepa'ren gainean eraikia izatea; Eukaristia egiaz dala Kristo'ren gorputza eta odola...

Sakramentu guztiak aipatzen ditu, bat izan ezik. Ezkontzakorik ez bai da bere "Azalpen" aietan azaltzen. Ez noski ezagutzen ez zualako. Baizik eta, ortaz itzegiterik egokitu ez zitzaiolako.

Bere idazkiek zaar-itxura nabarmena dutela, esan dugu. Pentsa: Dirudianez, arianikeria bazanik ere ez bait zuan jakin. Ondorioz, ez zuan Nizea'ko Kontzilorik ere ezagutu.

337 eta 345'garren urteen bitartean egin zuan Idazketa-lana, eta lan ortarako, Itun Zar eta Berria izan zituan jakintz-iturri.

* * *

EFREN DONEA.- Mesopotami'ren iparrean aurkitzen zan aro zarrean garrantzi aundikoa zan Nisibi uria. Gaur-egun lurralde ura Turki'rena da. An jaio zitzaigun, 306'aren inguruan "Ephrem Syrus", edo "Efren Siritarra" izenez ezagutua izan dan Asaba Donea.

Bere aita sasijainkoen jaupari izan zala diote Siri'tiko albisteez, baiñan Efrenⁱek berak idatzi zuanak adieraztera eman nai duala dirudianez, sendi kristau baten altzoan jaio zala uste dugu. Eta ez nolanaiko sendian irakasle Jakoba Nisibi'ko gotzaia izan zuala egia baldin ba'da beintzat.

Gazterik, Ejito'ra joan omen zan, ango lekaideen bizitza ezagutu nairik. Bere otoitzei eskerrak ez omen zan Nisibi inguraturik zeukaten pertsiarren atzaparretara jausi. Egon omen zan Nizea'ko Kontzilio ekumenekoiean, bere gotzaiaren laguntzaille. Kapadozi'ko Zesarea'n ere izan omen zan, Basilio ango gotzaia ezagutzera eta arekin itzegitera besterik gabe joana. Eta ederki ulertu omen zuten biek alkar, naiz bata bestearen izkuntzarik jakin ez..

Gauza oiek, noski, edesti ez baiña kondaira uts besterik ez dira.

Ez da beintzat egia bi Asaba aiek alkar mirariz ulertu zutelako ori, Efren'ek bere sirieraz gainera eleneraz ere bai bait zekian. Eta baita, bearbada, kopzieraz eta eberkeraz ere.

Diakono izan zan bere bizitza guztian. Apaltasunaz ez omen zuan apaiz sagaraketarik artu.

363'an Juliano fedeukatzaillak pertsiarren aurkako guda galduz gero Jobiano inperatoreak Nisibi II Sapur Pertsrko errege garaillearen eskuetan uztera bearturik aurkitu zalako, Efeso'ra etorri zan Efren, pertsiarrengandik igesi. Eta Efeso'ko Teologi-Ikastolan egin zuan, irakasle, izlari eta idazle bezala, bere lan ederrik geiena.

Iru sailletan banatu dezakegu bere idazti-kopurua: "Omillak", Itun Zar eta Berriari-buruzko "Azalpenak", eta "Olerkiak". Olerkiak batez ere, itz neurtuz egin bait zuan bere lanik geiena, osroenetarrak oso bertso zaleak ziralako.

Onako auetxek ditugu bere idazti guztietako gaiak: teologia, moralitate edo oituriztia, eta erejiak. Erejiak batez ere: Mani eta manikeria; Marzion, Bardesan eta gnosizaleak; Ario eta ariokeria. Eta baita Juliano inperatore fedeukatzaillak ere.

Olerkiak berriz bi motakoak ditu: Abestuak izateko egiñak batzuk; soilki irakurketarako idatziak besteak. Aurrenekoei "Madraxe" esaten zitzaien; "Menre" berriz besteei.

"Madraxe" izenekoek Josu'ren Jaiotza, Epifania, Eriotza, Piztuera, Miren Neskutsaren edertasuna eta beste orrelako gauzak abesten dituzte. Besteak berriz, "Menre" esaten zitzaien aiek, edestiari-buruzko gaiak erabiltzen dituzte. Orrela adibidez ain aipatuak izan ziran bere irurogei ta amar "Carmina Nisibina" edo "Nisibiar-Abesti" aiek. Nisibi'ko gotzaien eta Uriaren pertsiarren-peko egoera aurkezten bait dizkigute.

"Ephrem; a prolific writer, popular with his contemporaries, though to modern taste his verse is tedious, repetitious and overfull of metaphor and allegory (Enc. Brit.), ots, "idazle ugaritsua izan zala Efren Donea, baiñan gaur-egungo txastamenarentzat bere olertia aspergarria, gauza bera bir-eta-bir-esaillea dala eta iduriz eta kidetakeriz betea".

Barka bezait ori idatzi duanak, baiñan ori idazterakoan gauza bat aztu zuala esan nai diot: Efren Donea, elertilari ez baiña irakasle izan zala bereiziki, eta jendeari atsegiña ematearen gaindik ulertua izatea billatzen zuala. Ulertua eta ikasia izatea, ortarako bere irakaspenak bein da berriro ber-esanez, entzule eta idazleen adimen-barruan era aztukaitzean sakonki sarturik gelditu zitezen.

"Iduri olertikoiez jantzitako idaztiak omen dira Efren Donearen idaztiak, "Catholicisme"k dioskunez. Arretaz eta astiro irakurri-bearrak, oker artuak izan ez daitezen".

Esan dezagun atal au amaitzeko Miren neskutsaren maitale aundia izan zala Efren diakono siritarra. Ikus bere aapaldi polit au, aipatu-berri dugun idaztiak sirieratik frantzeratua:

"Toi Seigneur,
et ta Wre,
Vous êtes les seuls parfaitement beaux.
Aucune soillure n'est en toi;
Aucune faute n'est a ta Wre".

*

"Zu, Jauna,
eta zure Ama;
Zuek bakarrik zerate oso-osoan ederrak
Ez da zugan orbanik;
Ez da zure Amagan obenik".

Itz oiek noski, ez digute Miren Neskutsaren obenik gabeko Sorkuntza Garbia adierazten, baiñan bai, ederkitxo adierazten digute Efren Doneak Miren Neskutsaren donetasun orokorrean zuan siniste sendoa.

ELIZAREN II KONTZILIO EKUMENIKOA

Ainbeste erejiz, eta ereji oien ondorio ziran Laterri-barrungo istillu ta zalapartaz aspaldidanez gogaiturik aurkitzen zan I Teodosio inperatorea, eta egoera biurri era bat konpontzeko, beste Kontzilio Ekumenetar bat Inperioaren uriburua bertan egitea erabaki zuan. Ortarako, Kostantinopla'ra deitu zituan Sorkaldeko gotzaiak. Sorkaldekoak bakarrik, bera soilki Sortaldeko inperatorea bait zan oraindik, Sarkaldekoak Graziano ta II Balentiniano zirala.

381 'garren urtean egin zan Kostantinopla'n Elizaren II Kontzilio ekumeniarra izanen zan Sorkaldeko gotzaien Batzar ura.

Urte batzuk lenago Zesarea'ko Basilio Doneak ere izan zuan Kontzilio ura egin bearraren ezaguera argia, eta zentzu ortan idatzi zien Damaso Aitasantuari eta Sarkaldeko gotzaiari. Basilio'k eskatzen zuan kontzilioa **Sortaldeko eta Sarkaldeko** gotzaiak bilduz, egiaz zan Ekumenikoa.

Baiñan orduan, Batente inperatorearen agintaritzakoan, ez zan orrelako Batzar aundi bat egiteko giro egokirik. Gaiñera, Basilio'k, garai artako erejeen artean Antzira'ko Markel sartzen zuan, eta Antioki'ko Paulino Markel'en aldera okertuxea zebillela esaten zuan.

Donedamaso Aitasantua ordea Paulino'ren aldekoa izaki!

Basilio berriz Melezio'ren aldekoa, jakin aal izan dugun bezala. Doneen artean ere izaten dirala orrelako alkar-ezin-ulertukeriak! Doneak ere, naiz santuak izan, gizakumeak bait dira.

Gaiñera, bai Damaso'k bai Basillo'k bazekiten Balente ariozalea inperatore zan bitartean kontzilio Ekumenikoi bat **era egokian** egiterik ez zegoala.

Antioki'ko Melezio izan zan ainzuzen, Kontzilio berri oni bidea iriki nai izan ziona, berak 379'an Antioki'n egin zuan sinodo baten bidez. Sinodo artan eun da berrogei ta amairu gotzaiek, Erroma'ko sinispidea ontzat artzen zutela aldarrikatu bait zuten.

Irikerik zeukan beraz Aitasantuak, Kontziliogintzarako bidea.

Alare ez zan Aitasantua izan Kontziliorako deia egin zuana, inperatorea baizik. Kostantinopla'ko Kontzilioa, erabat I Teodosio'-ren ekintza izan zan. Bera izan zuan sortzaille, bera "zuzentzaille" eta bera Kontzilio ark artu zituan erabakien inperioko lege biurtzaille eta lege aiek beteerazle.

Damaso Aitasantua ez zan, jez orixel kontzilio aren aurka jarri, baiñan ez zuan berea bezala artu. Ez bait zuan Batzar artara ordezkariarik bidali.

Orrelako kontzilio bat Elizaren Kontzilio Ekumenikoia izan daitekean? Ez. Kostantinopla¹'ko Kontzilioa ez zan egin zanean Ekumeniarra izan. Urteak geroago egin zan beste Kontzilio batek, bera bai ekumeniarra izan zan Kaltzedoni ¹'ko Kontzilioak, 451'n biurtu zuan Ekumeniarra Kostantinopla'ko Kontzilio au, onen erabakiak sagaratzuz, eta Kontzilio bera Ekumenikoia egiten zuala aldarrikatuz.

Kostantinopla'n kontzilio-bilketan asi aurretik, emana zuan Teodosio'k katolikotasuna Laterriaren sinispide legezkoa egiten zuan erabaki gaur-ain-etzabaidatu ura: "Cunctos Populos", ots "Erri Guztiak" zeritzan 380'ko otsaillaren 28'ko erabaki ospetsua.

Arrezkero, Erroma'ren inperioko errialde guztiak "katolikotasunean bizitzera bearturik zeuden, katolikoek bakarrik erabilli zezaketen "kristau" izengoitia, besteez ez zitezkean kristau bezala agertu eta ez zuten beren jauretseei "elizak" esateko eskubiderik izango, eta Jainkoarengandiko eta inperatorearengandiko -- zigorrak beren gain izango zituzten.

Orrelako erabaki bat zuzentasun orean aurkakoa dala? Bai gaur. Ez ordea atzo.

Bi gauza erantzun nai nizkieke, galde ori egin dezaketenei.

Lenengoa: Erabaki ura, soilki Sortalde-Sarkaldeko inperato-reen ekintza izan zala. Elizak ez zuala erabaki artan eskurik sartu. Damaso Aitasantuari ez zitzaiola ez ezer esan, ez aolkurik eskatu.

- Bigarrena: Baiñan ez Damaso'ri ez Teodosio'ri ez beste iñori, ez zezaiokeala erabaki arek kontzientziko kezkarik sortu. Erlijiora-ko askatasuna gaur-egungo arazoa bait da, ez, iñolaz ere, laugarren mendekoa. Anakroni gorrira jausten dira beraz, galde ori egiten duten guztiak.

* * *

381'aren asieran idatzi zien Teodosio'k gotzaiei Kontziliarako deia garaiz egiñez. Kostantinopla'ko Melezio izan zuan seguruaski gotzai aien aukera egiten lagundu ziona bere "patriarkadutzakoek" osotzen bait zuten Kontzilia deitutako gotzaien artean talderik aundiena: ia gotzai guztien erdia.

Era berean izan ziran deituak bere adiskideak: adibidez, ordurako illa zan Zesarea'ko Basilio eta onen bi anaiak, Nisa'ko Gregorio eta Sebaste'ko Kepa.

Gutzira, gutxi gora bera, eun da larogei ta amaika gotzai bildu ziran Kostantinopla'ko Kontzilio artara. An ziran, aipatutakoetaz

Jerusalen'go Zirilo, Tarso'ko Diodoro eta Ikonio'ko Anfilokio.

Jerusalen'go Zirilo Donea norbaitzuen ustez ariokeriruntz okertuegitxo zala esanik utzi genduan. Ona, orain gai ori buruz gaurko edestilari batek diona:

"Cuando, ya obispo, pronuncié a los catecúmenos aquellas deliciosas homilias catequéticas que son aun hoy día modelo de su Onero, debía ser ortodoxo en su fuero interno, pero no lo suficientemente lanzado para repetir a propósito del Hijo, las expresiones que habla definido el concilio de Nicea. Pero si sus fórmulas no

eran siempre nicenas, sf lo era su doctrina, como lo podemos comprobar leyendo sus homilfas. Casos como el de Cirilo fueron bastante frecuentes en aquellos años de persecuci3n" (O. Zarate).

"No suficientemente lanzado", Nizea'ko Kontzilioa aizatzeke ausardirik-eza ala aizaketa aren bidez kaltegarria zitekeala uste zuan iskamillik sortu nai ez izateko zugurtasuna, zer izan ote zan Zirilo'ren jardunkera aren egiazko zioa?

Danadala, Ariotarrek Jerusalem'dik erbesteratua izan zala jakitea, naiko arrazoia dugu Zirilo Deunaren sinispide zintzoaren alde. Kostantinopla'ko Kontzilioan beintzat ez zuan iñork aren zintzotasunari-buruzko kezkarik izan.

Ezaguna dugu Tarso'ko Diodoro ere. Sinismen zintzoko gizona au ere, naiz bere sinismena idatziz agertzerakoan bein edo bein izkera egokia erabiltzen asmatu ez. "Hasta su muerte fue mirado como un admirable paladfn de la fe cristiana. S6lo mds tarde cuando se fueron desarrollando los grmenes del nestorianismo en su discfpulo Teodoro de Mopsuestia y en Nestorio, se comprob6 que tambi3n las obras de Diodoro lo contenfan, y por eso, Cirilo de Alejandrfa conden6 sus errores en materia de Cristologfa" (Id).

Ikonio'ko Anfilokio, Antioki'n Libonio filosofilari sofista jentillaren ikasle izana, kultura ederreko legiztilaria izan zan, bakartasunerako zaletasuna sortu zitzaion arte. Lekaidetzatik Ziliz'i'n zegoan Ikonio'ko gotzaigora jaso zuan Basilio bere adiskideak.

Asaba Kapadoziarretako bat da bera ere. Ez beste iru aundi aiek bezain dizdiratsua, baiñan bai aien laguntzaille trebea. Sortu zituan Irutasun Doneari eta Miren neskutsari-buruz esakizun eder borobillak.

Dirudianez Antioki'ko Melezio'k, mazedonikerizaleen eskuetan zegoan Asi Txikiaren itxasaldetik gotzai asko deitzeko asmorik izan zuan. Alare Ziziko'ko Eleusio buru zutela, Kontzilioan egon ziran ogei ta amasei gotzai "pneumatomako" edo mazedonikerizale. Teodosio inperatoreak berak deituak, seguruaski. Izan ere,

mazedonikerizaleei entzun gabeko mazedonikeriaren gaitzespena, ez bait zitekean gauza!

Berandu iritxi ziran Ejito'ko gotzaiak ere. Garaiz deitu ez zitzaielako?

Beraz 150 gotzai katoliko eta 36 mazedonizaleek osotu zuten Kostantinopla'ko Kontzilio ura, Elizaren II Kontzilio Ekumenikoa.

Antioki'ko Paulino, gotzai-aulki artarako Melezio'ren gotzaiagai etsaia, ez zan Kostantinopla'ra urbidu ere, dirudianez. Orregaitik iñoren aurkatasunik gabe artu zuan Antioki'ko Melezio'k Kontzilioaren Lendakaritza, naiz orduan Kostantinopla'ko gotzaiagoa zeukana Naziantze'ko Gregorio bezain gizon zintzo jakintsu eta santu bat izan.

Ainzuzen Naziantze'ko Gregorio'ri Kostantinopla'ko gotzaiagoa ziurtzea zan Asabek kontzilioan egin bear zuten lanetako bat.

Zergaitik lendakaritza ura, beste iñori ez-ta, Melezio'ri eman zitzaion? Agian, Teodosio'k gotzai bakoitza agurtzean Melezio era gozoagoan agurtu zualako. Asabek ez bait zuten orduan garrantzi aundirik gabeko gauza batengaitik inperatorearekin eztabaidan asteko arrazoirik.

Gaiñera, egia da, naiz Kostantinopla'ko gotzaiagoa orduan Gregorio naziantzetarraren eskuetan egon, Melezio'k ere ondo irabazia zuala erejeen aurka egindako borroken truke Kontzilioaren lendakaritza. Gaiñera, "por su prestigio y habilidad diplomática, Melezio estaba perfectamente capacitado para esta función" (Jedin).

Kontzilioak, Alexandri'ko Kepa'ren eragiñez, isilean eta era okerrean sagaratua izan zan Maximo "el aventurero" (id) ala-olako gizaseme aren sagaraketa baliorik gabea aldarrikatuz gero --, Donegregorio naziantzetarra ezarri zuan erabat Kostantinopla'ko gotzai. Naiz ordurako Sasima'ko gotzai izendaturik egon, gotzaiagoaren jabetzarik artu ez zualako ez omen zuan ba gotzaiiei gotzaiagoz aldatzea debekatzen zien Nizea'ko Kontzilioaren "kanon" doatsu arek arrapatzen.

"Despejado el campo de toda objeción, Melezio no tardó en entronizar oficialmente al nuevo elegido" (O. Zarate).

Zaillagoa izan zitekean Melezio zanari lendaritzarako ondorengo bat aurkitzea. Ez zan ordea zailla gertatu. An zeuden gotzai danek, eta baita I Teodosio inperatoreak ere **ederki** ezagutzen bait zuten Kostantinopla'ko gotzai izendatu-berria zuten Gregorio naziantzetarraren gaitasuna.

Berari eman zioten lendaritza.

Alderantziz, erreza zirudian Melezio'ri Antioki'ko gotzai-aulkirako ondorengo bat aurkitzea, bai melaziarrek bai paulindarrek itun baten bidez, bi aietako bat iltzen zanean, gotzaigoa besteak artuko zuala erabakirik zeukaten ezker.

Baiñan ez zan erreza gertatu. Paulino'ri zegokion, itun aren araura, Antioki'ko gotzai izatea, eta Paulino'ri eman nai izan zion Gregorio Lendakariak Antioki'ko gotzaigoa, naiz bera, ordurarte aren aurkakoa izan.

Bere biotzaren zabaltasuna erakutsi zuan Gregorio'k Kontzilio-ko Asabei gustokoa ez zuan Paulino ura Antioki'ko gotzaitzarako aurkeztu zienean.

Asarretu ziran ordea meleziarrak, eta izugarrizko iskamilla sortu zuten Kontzilio barruan. Entzun Gregorio berari, O. Zarate'k eleneratik gazteleratutako aapaldi ontan:

"Los obispos graznaban como urracas cada uno por su cuenta, como un tropel de crfos, como un talter nuevo, como una racha de polvo y de ventarrdn. Ninguno de los que son perfectos en el episcopado y en la caridad divina se hubiera atrevido a decirles una palabra. Discutfan sin orden y como avispa se echaban sobre la cara todos juntos. La canicie venerada en vez de corregir a los jÖvenes los imitaba".

Ez dirudi oso ongi itzulia dagoanik, baiñan an gertatutakoaz jabetu aal izateko naikoa dugu. Gizakumea, unerik aundienetan ere izaki aula bait da beti. Eta Eliza berriz gizakumez osotua izaki.

Azkenean, Flabiano zeritzan apaiz bat izan zan Antioki'ko gotzai sagaratua, naiz bera ere, Paulino'ren edo Melezio'ren eriotzarako gertututako itun ura izenpetu zutenetako bat izan.

Oiñaze aundia sortu zion zalaparta orrek Gregorio minberatsuari.

Eta oiñaze ori aundiagoa izan zitzaion, Ejito'ko gotzaiak iristean, Nizea'ko Kontzilioaren kanon ura aipatuz, Kostantinopla'ko gotzaigoa bereala uzteko eskatu ziotenean. Kostantinopla'ko legezko Gotzaia izan ez zitekean ezkerro, baliorik gabea omen zan aren alde kontzilioak artu zuan erabakia, eta, orregaitik, ez omen ziran aren liturgietan partaide izango.

Geiegi zan ori Gregorio'ren sentimen biguiñarentzat. Jakin zuan gainera, bere Kostantinopla'ko gotzai-izendaketa aren aurka zuala Damaso Aitasantua ere, Nizea'ko Kanon aren zentzua ariñegi aldatua izan zala iduritzen zitzaiolako.

Usmatzen zuan Teodosio inperatorea ere aurka jarriko zitzaiola, ez, soilki Damaso'ren adiskide aundia zalako, baizik eta, baitare, Kontziliora iritxi berria zan Tesalonika'ko Askolio'k, Teodosio bataiatu zuan gotzai ark ainzuzen, bere aurka ejitoarrekin bat egin zualako.

Bazuan Gregorio'k berak lendakaritzan jarraitzen ba'zuan kontzilioan eztabaidak eta asarreak sortu zitezkeala bildur izateko arrazoi mardula.eta une artan, beti zaldun izan zan gizon aundi arek, egin zezakean gauza zuzen bakarra egin zuan: Kontzilioaren lendakaritza utzi, Kostantinopia'ko gotzaigoa utzi, eta isil-isilik, apalki, bere Naziantze'ra baztertu.

"La abdicación de Gregorio a la ambicionada sede de Constantinopla ha pasado a la historia como ejemplo de desinterés personal con miras al mayor bien de la Iglesia" (O. Zarate).

Ederra da benetan elertiaren aldetik, lenen maillako izlaria zan Gregorio naziantzetarrak bere elizkideei agur egiterakoan Santa Sofia edo Jakintza Donea izeneko basilikan egin zuan itzaldia.

Utsune aundia, eta betea izateko arras zailla, utzi zuan kontzilioan eta batez ere Kostantinopla'ko Elizan. Gauza jakiña da orrelako uneetan gizon apal, aski illun bat billatzen dala eztabaidatuak diran tokietarako: gizon apala, gutxi ezaguna, iñorekin beñere asarretu ez dana eta iñorekin asarretzeko gai ez dana.

Tarso'ko Diodoro'k aurkitu zuan orduan orrelako gizon ori. Eta erarik pitxienean gaiñera. Ikus nola, Sozomeno'k dioskuna laburtuz:

Diodoro Tarso'ko gotzaiari, politikari ospetsu bat etorri zitzaion goiz batean, Tarso'ko senatore bat ainzuzen, Tarso'ra itzultzen zala-ta, agur egitera eta bere gotzai-uri artarako zerbait nai zuan galdetzera. Eta itzegiten ari zirala, zaldun adintsu, bare, gozo eta eraspengarri au ez aI daiteke ederki Kostantinopla'k bear duan gotzaia gertatu? pentsatu omen zuan Diodoro'k.

Eta, besterik gabe, senatore aren izena sartuerazi zuan Teodosio'ri aurkeztu zitzaion gotzaigaien zerrendan. Zerrendaren azkenean, baiñan zerrendan ala ere. Teodosio'k berriz zerrenda irakurtzerakoan, azkeneko izenera eraman omen zuan bere beatza, eta zerrenda osoa bir-irakurri ostean, ura aukeratu omen zuan Kostantinopla'rako gotzai.

Eta arritzekoa Inperatoreak senatore baten bere uste on guzia ipiñi izatea.

Senatore ark, Nektario zuan izen. Bataiatu gabe zegoan, (dirudianez Diodoro'k ez zekian gauza), baiñan bataiatua, eta andik egun batzuetara gotzai sagaratua, bera izan zan aulki kutizigarri artan eseri zana.

Txukuna guztia, bai noski, baiñan badu barruan arra edestitxo txukun orrek. Sozomeno'k, gotzaigaiein zerrenda Teodosio'ri Antioki'ko Melezio'k aurkeztu ziola bait dio. Guk berriz badakigu illobiturik zegoala ordurako Antioki'ko Melezio. Baiñan badaiteke ar ori Sozomeno'ren "lapsus" edo irristada bat izatea. Bestalde, "una narracidn cuyos detalles humanos le dan suficiente garantia de verdad" (id), omen dugu ba edestitxo ori.

A! Nektario'k artu zuan Kontzilioaren lendakaritza ere.

Egiñalak egin zituzten Kontziiioko Asabek, Gregorio naziantzetarrak batez ere, eta an "presente y activo" (id) zegoan Teodosio inperatoreak ber-berak, Ziziko'ko Eleusio eta bere talde mazedonikerizalea sinispen zuzenera ekartzeko.

Alperrik oroitu zieten, Erroma'ra Liberio Aitasantuarekin itzegitera joan ziran ezkeroko Irutasun Doneko iru Pertsonen jainkotasuna sinisten zuten Nizea'ko Kontzilioaren babesle katolikoekin luzaro bat egiñik bizitu zirala..., alperrik esan zitzaaien orain ere Semearen jainkotasuna sinisten ba'zuten, Gogo Deunarena ukatzeak zentzurik ez zuala... alperrik gogoratuerazi nai izan zitzaaien, sakramentugintzarakoan betidandik egin-bearra izan zan Iru Pertsonen aipuan argi iragarria zegoala Elizaren betidandiko sinispidea...

Kontziliokide guztien aurrean Gogo Deunaren jainkotasuna ukatuz gero, kontzilio-gelatik irten ziran. Eta ez ziran geiago batzar artara itzuli. Gaitzetsiak izan ziran, jakiña, eta gaitzetsia izan zan mazedonikeria ere.

Arrigarria gotzai aien setakeria. Bazekiten beren jardunkerak inperatorearen zigorra ekarriko ziela gaiñera. Alare ez ziran makurtu. Orrek, nere ustez, gizon oiek beren kontzientzian asmo onez zebiltzala adierazten digu. Ez zezaketen beintzat, naiz zearo atzipeturik ibilli, uste onez eta kontzientzi garbiz zebiltzala adierazteko argumento aundiagorik eman.

Buru-gogorkeri utsa, guztia? Ez dut uste, naiz gizakumearen sikologia anitz arrigarri izan. Danadala, utzi dezagun zuzenki gaitzetsiak izan ziran gizon aien barren-asmoen epaiketa Jainko epaille errukitsuaren eskuetan.

Danadala Nizea'ko Kontzilioak emandako sinispidearen aurka idazti bat zabalduz gero alde egin zuten Kostantinopla'tik. Ordurarte Semea'ren jainkotasuna sinisten zuten gizon aiek, zergaitik orain, Semea'ren jainkotasun besterik erakutsi ez zuan kontzilio aren aurka? Naiz zutenean aipatu ez, Nizea'ko sinispide ark Gogo Deunaren jainkotasuna ere aski argi erakusten zualako noski.

* * *

Kostantinopla'ko Kontzilioak, bein betirako erabaki zuan Gogo Deuna Jainkoa dala. Ortarako, Kostantinopla'ko Kontzilio ark,

- irakurri eta ontzat artu zuan Nizea'ko Kontzilioak eraturako "sinbolo" edo "sinistaraua",
- sinistarau ura borobildu zuan, xeetasun batzuk erantsiz,
- Gogo Deunari dagokionez, esaldi auek erantsi zizkion:
- "Aita'rengandik datorrela". "Jaun eta bizi-emaille dala".

"Alta'rekin eta Semea'rekin agur eta gorespen berbera artzen duala", eta "Profeten bitartez itzegin zuala".

Semea'ri dagokionez berriz ikus nola aldatu zuan Kostantino-
pia'k Nizea'ko Sinistaraua:

NIZEA: "(Sinisten dugu) Josukristo Jauna, Jaungoikoaren Semea,

Sortubakarra (Unigenitus); Aita'rengandik, ots, Aita'ren zertasunetik sortua; Jainkoagandik Jainko; Argitik Argi; egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko; sortua, ez, ordea, egiña; Aita'ren zertasunkide (homousios)"; bere bitartez egiña izan da guztia, bai zeruan dagoana bai lurrean dagoana."

Eta Josu'ren berbizkundera aitortuz gero, "Zeruetara igo zan; biziak eta illak epaitzera etorriko da".

KOSTANTINOPLA: ("Sinisten dugu) Josukristo jaun bakarra; Jainkoaren Sernea, Sortubakarra" mende guztiak baiño leenago Aita'k sortua; Argitik Argi; egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko; sortua, ez, ordea, egiña; Aita'rekin zertasunkide. Oro, beraren bidez izan zan egiña".

Eta, berbizkunde eta zuruetarako igokundearen aipua egin ondorean, onela dio: "Aita'ren eskuirialdean jarririk dago"; "aintzaz etorriko da berriz biziak eta illak epaitzera eta bere erregetzak ez du azkenik izango".

Kostantinopla'ko Sinistaraua da gaur egun mezan esan oi dugun kredo, eta Nizea'ko sinistaraua bere barruan daramalako, "Nize-kostantinopolitarrak" esan oi zaio. Ez da Kostantinopla'ko Asabek sortua, Kontzilio ura baiño zazpi urte leenago argitaratu zan

Salamina'ko Doneepifanio'ren "Ancoratus" izeneko liburuan agertzen bait da.

Esan genuan nola artu zuan Epifanio txipretarraren liburuko kredo ori Kontzilioak lanerako azterketagai bezala. Epifanio bera ez zan kontzilioan egon. Baiñan bai Txipre'ko lau gotzai, eta auek izanen ziran bearbada, kontzilioari aurkeztu ziotenak. Asabek beraz, kredo ura sagaratu besterik ez zuten egin.

"Profeten bidez itzegin" zualako ori berriz, Jerusalem'go Donezirilo'k 350'aren inguruan bataiorako erabiltzen zuan kredotik artu omen zuten Kostantinopla'ko Asabek.

Mezako gure kredoak Gogo Deuna "Aita'rengandik eta Semea'rengandik datorrela" dio: "ex Patre Filioque procedit", lateraz. Kostantinopla'ko sinistarauak ez du Semerik aipatzen, leenago Nizea'koak ere aipatu ez zuan bezala. Nizea'koak, soilki ("sinisten dugu) Gogo Deuna" besterik ez du esaten. Eta Kostantinopla'koak, "Aita'gandik datorrena" esaten dio Gogo Deunari.

Ta ezberdintasun orrek izugarritzko gaitzak ekarri dizkio Elizari, ikusiko dugun bezala, IX eta XI mendeetaz gero.

Zergaitik ez zuan sinistarau ortan Kostantinopla'ko Kontzilioak Semerik aipatu? Mazedonikeri-zaleek Gogo Deuna Semeak **bakarrik** egiña dala erakusten zutelako.

Au zan mazedoniar oien arrazoiketa: Gogo Deunak, Jainko izateko, naitanaiez jainkoaren zertasun berekoa izan bear du. Eta, ortarako, naitanaiez Aita'gandik sortua. Bera ere Aita bezala sortugabea ez ba'da beintzat.

Baiñan sortugabea ba'da, Aita beraren beste izen bat besterik ez litzake izango, edo bi jainkoren aurrean egongo giñake. Aita, bat; Gogo Deuna bestea.

Sortua baldin ba'da berriz, Gogo Deuna, Aita'gandik sortua ba'litz, Semea'ren anaia izango litzake, eta Semea'rengandik sortua ba' litz, Semea'ren Semea.

Beraz, naitanaiez, egiña izan dan izaki bat dugu Gogo Deuna. Nork egiña? Semeak egiña.

Ederki erantzun zien Gregorio naziantzetarrak, Adan, Ebe eta bi auen seme izandako Set oroitzuz, norbaiten zertasunkide izateko ez dala norbait orrek sortua izan bearrik: Set bai, Set, Adan'ek sortua izan zalako Adan'en zertasunkide izan zan. Ebe ordea ez zan Adan'ek sortua izan. Alare, egiaz eta benebenetan izan zan Adan'en zertasunkide.

Emaidazu baimena, irakurle, une ontan teologiaren alorretik ibilladitxo bat egiteko. Gogo Deunaren izkutukia teologiariek nola "argitu" oi duten azaldu nai nizuke.

Oroi zer esan genuan Semea'ren sorkuntzari-buruz:

Aita'k beti danik bere burua ezagutzen duala. Eta zerbait ezagutzen danean, ezagutzen danaren gogapena ezagulearen adimenean naitanaiez beti sortzen dalako, Aitak ere bere burua ezagutzean bere buruaren gogapena sortzen duala bere adimenean,

Aita'gan sortutako gogapen ori ordea neurrigabea da Cinfinitus") eta edertasun-oro-duna ("perfectissimus), ala bait dira, bai Sortzaillea Jainkoa bera bai Sortzailleak sortu duan gogapenaren gaia edo zertasuna ere: Jainkoa bera.

Jainkoagan sortutako Gogapen neurrigabeko eta edertasun-oro-dun orrek naitanaiez izan bear du nortasuna, ainzuzen nortasuna bait da izaki batek izan dezakean edertasunik aundiena. Beraz, Jainkoagan sortu zaigun Gogapen ori pertsona bat dugu: Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

Eta Aitak bere burua betidanik ezagutzen duala, eta beñere bere burua ezagutu gabe egon ez dalako, Aita bezain betikoa da Aitak sortzen duan Gogapena, ots Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

Gogapena dalako Logos esan zioten eleneraz sorkaldetarrek Irutasun Doneko Bigarren Pertsonari. Sorkaldetarrek "Verbum" biurtu zuten lateraz elendarren "Logos" ura, eta guk "Itza" biurtu dugu euskeraz laterazko "Verbum" ori.

Ta, sortua dalako, Seme ere esaten zaio Bigarren Pertsona orri.

Ta? Gogo Deuna ^tz zer esan?

Gogo Deuna, Aita'ren eta Semea'ren arteko Maitasuna dala. Eta, naitanaiez, maitasun orrek neurrigabea eta edertasun-oro-duna izan bear duala, maitaleak Aita eta Semea, maitasunaren gaia edo zertasuna, Aita eta Semea berberak, eta maitaleek maitasun ori sortzeko duten almena ere, neurrigabeak eta edertasun-oro-dutenak diralako.

Pertsona dala, beraz, Semea bezala, Gogo Deuna ere, esan dugunez, pertsonalitatea bait da izan daitean edertasunik aundiena.

Era berean Aita, eta Semea bezain betikoa dala, Aita eta Semea alkar maitatu gabe beñere egon ez diralako.

Ta.. "Filioque" edo Gogo Deuna Semea'gandik ere badatorrelako ori nork sortua izan ote zan, ez Nizea'ko ez Kostantinopla'ko kontzilioek sortua ez ba'da?

VI mendean sartu zan aurrena mezako kredora. Eta Españi'n ainzuzen; mozarabeen artean. Auek sortua izan ote zan ba? Ez, Kostantinopia'tik ekarria seguruaski, an egona izan zan ba, Leandro Donea, mozarabiarren gotzai nagusia.

Kostantinoplatarrak ote ditugu ba eraskin orren sortzailleak? Eztare, askoz zarragoa bait da. Nizea'ko Kontzilioko Asabek, seguruaski, eta Kostantinopla'koek ziur, ezagutzen zuten Gogo Deuna Semea'gandik ere badatorrela zioten sinistarauak, "pues ya para entonces estaba en uso entre los Padres griegos la fórmula teológica de que el Espíritu proviene del Padre mediante el Hijo o también que proviene del Padre y del Hijo. Esta última fórmula ha sido en Oriente menos frecuente que la primera: pero el mismo Epifanio, probable autor del símbolo constantinopolitano, la emplea varias veces" (O. Zarate).

* * *

Esan dezagun itz batean orduango ereji guztiak gaitzetsi zituala Kostantinopia'ko Kontzilioak:

- Arianikeri-mota guztiak lendabizi. Au izan zan arianikeriaren eriotza inperio barruan, ereji ura ordurako, bere barrungo zatiketen

ondorioz aski lur jorik egoteaz gaiñera I Teodosio'k eta onen ondorengo inperatoreek Kontzilioaren erabakien alde jarri bait ziran. Inperatoreen Laguntzarik gabe, il egin zan arianikeria.

- Erdiarianekeria. Ots, orde: "Pneumatokoi" edo montanikeri-zaleei esaten die Kontzilioak erdiarianikeri-zale. Zergaitik ote? Aiek auengandik jaio ziralako? Ariotarrek Semea'ren eta Gogo Deunaren jainkotasuna ukatzen zuten bitartean, mazedoniarrek Gogo Deunarena bakarrik ukatzen zutelako? Balente inperatorearen zigorketa 378'an amaitu zanez gero "homolusiostrarrik" geienak, "homousiostrarrengana" itzuli ziran ezkerro, gelditzen ziran erdiarianikeritar apurra mazedonikerira jausi ziralako? Ez dakigu.

- **Sabelikeria. Oroi, Ill mendeko Sabelio ark, Jainkoaren Irutasuna ukatzen zuala, "Alta", "Semea" eta "Gogo Deuna", jainko bat bakarraren iru izen, edo iru itxura, edo iru izakera besterik ez dirala esaten zuala. Sabelio'rentzat gaiñera, Jainko bat bakar ura, nortasunik gabekoa zan, "ez-pertsona", "impersonalis" lateraz. Gero Hegel filosofilari doixtar orojainkozaleak "Idea" esanen dion jainkoaren antzeko zerbait.**

- Fotinikeria. Fotino, Sirmio'ko Gotzaia, Antzira'ko Markellen ikasle eta jarraille izan zitzaigun. Markel'en aburuak ezagunak ditugu. Baiñan Markel'ek sekulan emango ez zuan urrats aundi bat eman zuan Fotino'k okerkerirako bidean: Kristo gizon utsa zala alegia: Jainkoaren indarra era bereizian bere baitan zuan gizona.

- Samosatikeria. Antioki'ko gotzaia zan Samosata'ko Paul, "Aita, Semea, eta Gogo Deuna "ousia" batekoak ziralako esaten zualako, Antioki'n bertan egindako sinodo bastek gaitzetsia izan zanean. Orixe bera esango du eta egi-sinesbearra biurtuko du Nizea'ko Kontzilioak ere.

Baiñan Paul samosatarrak "ousiari" zentzu okerra ematen zion: gero "hypostase"ri emango zaion zentzua? Ez dakigu. Egia esan, Pablo samosatarraren aburuetaz deus aundirik ez bait dakigu. Baiñan ala ba'an, Jainkoa pertsona bat bakarra biurtuz, Irutasuna ukatzen zuan. Bada, "ousiari" agian beste zentzu bat ez ote zion ematen susmatzen duanik ere: Aita eta Semea zertasunkide dirala, baiñan

biak zertasun bereko beste norbaitengandik datoztelako". Baiñan Teologilari erneegia zan Samosata'ko Paul orrelako iñozokeri aundi bat esateko.

Auxe besterik ez dugu benetako egia: Ez dakiala iñork Samosata'ko Paul'en erejia zertan egon zan.

* * *

Kostantinopla'ko kontzilioak artu zituan erabakien artean, bada "kanon" bat izugarri garrantzitsua, Erroma'ko gotzaiaren ondorean, Kostantinopla'ko gotzaia ipintzen bait du duintasunezko mailladian lendakari. Ikus kanon orren doiñua O. Zarate'k gazteleratua: "Que el obispo de Constantinopla tenga el primado de honor después del obispo de Roma, por ser ella la **nueva Roma**".

Baleike teologiaren aldetik zentzurik ere ez duan kanon orren azpitik I Teodosio inperatorearen eskua ibilli izatea. Teodosio ez zan Erroma'ren etsai, ez orixe. Alderantziz Damaso Aitasantuaren adiskide aundia zan. Teodosio'k, Sortaldeko Eliz urduri aren baitan pakea naizan lortu, eta, ortarako, Kostantinopla'ko gotzaiaren duintasuna jaso nai izan zuan gora, billatzen zuan pakea ezartzera-koan bere uriko gotzai ura lagun egokiagoa eta altsuagoa gerta zekioken:

"Un obispo en la cima de la dignidad serfa excelente instrumento para unificar y garantizar esa inspección activa en los asuntos eclesísticos que desde Constantino habia sido, y serfa aun durante siglos, uno de los axiomas de la política imperial" (id).

Baiñan kanon orren bidez, edestirik gabeko, eta Elizaren zabalkundean batere garrantzirik gabeko uri berri bat, aintzaz eta merezimenduz, eta ordurarte beintzat aalmen eta eraginmen aundiz betetako Alexandri eta Antioki'ren gaiñetik ipintzen zuan.

Ortarako gaiñera, elizaren legedian batere baliorik ez duan arrazoi bat ipintzen zuan: Kostantinopla, inperatorea bertan bizi zalako, "bigarren Erroma" izatea, ots, politika utsezko arrazoia.

Antioki'k eta Alexandri'k ez dute ori aztuko; ez dute barkatuko ere, eta laister ikusiko dugu nola Kostantinopla'tik bereizita zismara joango diran. Eta geroxeago, Kostantinopla'ko inperatorei bizkar emanda, egoaldetik garaille zetozen arabitar musulmanekin nola bat egingo duten.

Eta, au ere bere tokian ikusiko dugun bezala, ez zan ori, Siri'k eta Ejito'k arabitarrei ateak iriki izatearen arrazoi bakarra. Baiñan naiz arrazoi bakarra izan ez, arrazoietako bat, bai; ziurki izan zan arrazoietako bat.

Baiñan kanon aren aztarnak ez ziran sorkaldearen muga-barruan geratu. Kanon ori, "un primer hito que al cabo de los siglos llevo al cisma entre la primera y la segunda Roma" izan bait zan (id).

Kanon ori sekulan Aitasantuek onartua izan ez zalako batere baliorik gabea dala ez dugu noski esan bearrik izango.

* * *

Teodosio bera izan zan Kostantinopla'ko Kontzilioaren giro aintzatsua gaillurrerairio jaso zuana, Kostantinopla'ko Paul Donearen gorputza erbestetik ekarrieraziz. Donepaul Kostantinopla'ko gotzaia zan. Ariotarrek gotzaitza artara Mazedonio jaso zutenean ordea, Paul erbestera jaurtia izan zan. Eta, an, urkatua, jaurle baten aginduz. Ariotarrek lapurkeriz Kostantinopla'ko gotzaigora sartutako Mazedonio ura omendu naiez egin zuan ori jaurle arek.

Orain ordea, Ario eta Mazedonio betirako garaiturik gelditzen zirala adierazteko, Teodosio'k berak, garailleen gorpuei dagokien eran ekarrierazi zuan Kostantinopla'rairio Paul aren gorputza, eta aundikiro illobiratu uriko eliz bate altzoan. Arrezkero, bere izena

Donepaul'en izena darama Kostantinopla'ko eliz eder arek.

SARKALDEKO IDAZLE ETA ASABA DONEAK

Laugarren mendearen azkeneko urteak arte, kristau-jakintza sortaldetarra izan da. An, Sortaldean sortu zaizkigu bibliztia, teologia, oiturizti edo moraliztia. Sortaldetarrak izan ditugu Eliz-edestilariak eta katekistarik bikaiñenak

Orrek ez du esan nai Sarkaidea antzu izan danik. Lotsa-apur batekin aipatuko ditugu Lyon'go Ireneo Donea eta Erroma'ko Justino Donea, jaiotzaz ura eta oldozkeraz eta idazkeraz biak, idazterakoan elenera erabilli zutelako, sortaldetarrak bait ditugu. Lotsarik gabe aipatuko dut ordea Kartago'ko Tertuliano, agian bere garaieko latin-idazlerik bikaiñena.

Ez da legorra izan Sarkaldeko Eliza, baiñan, alatagutziz, koxkor gelditzen da, jakintzari dagozkionetan, Sortaldekoaren aldean, Milan'go Ambrosio Donea idazten asiko zaigun arte. Ortik aurrera bai, Sarkaldeak artuko du jakintzaren zuzia, eta gero eta bikaiñagoak izango zaizkigu, Ambrosio, Jeronimo eta Augustin'en bideetatik, gure Asaba eta doktore ospetsuak.

Sortaldea alderantziz, bere betiko zisrna ta erejietarako joerak auldurik, gero ta txiroago biurtuko zaigu, azkenean, Erroma'tik zearo bereizten danean, lokarturik bezala gelditzeko.

Orain guk IV mendearen azken-urteetako idazle kristau eta Asaba Doneak aztertuko ditugu.

POITIERS 'EKO ILARIO.- Sendoa ta bizkorra izan zan IV mendean Galietako Eliza. Bizkortasun aren lekuko dugu Ilario Donea. 315'aren inguruan jaio zan. Eta 366'ean edo 367'an il.

Erroma zarreko jakintzetan ederki ezia gaztetan, gizon eldua zala izan zan bataiatua. Eta laister Poitiers'eko gotzai egiña. Arrezkero, Galietako Eliza Sortaldetiko arianikeritik babestea izan zan bere ardura nagusia. Elburu ortara zuzendu zituan bere itzaldi, idazti eta ekintzarik geienak.

Borrokari sendo zintzoa izan zan egiaren alde. Ez zion Kostante inperatoreari bildurrik izan-da, Sortalderuntz erbesteratu zuan onek eta an, Friji izeneko probintzian egon zan iru urtez. 356'tik 359'ra.

Ez zuan astirik alperrik galdu. Saiatu zan greziera txukunago ikasten eta sarkaldeko idazle kristauak irakurtzen eta lurralde artako lekaideen biziera sakonki ezagutzen.

Ilario'ren idazkerak, badu Sortaldean ikasitako ioretasunarekin batera orduango Sarkaldearen legorkeria. Orregaitik askotan izjarioegia gertatzen da, eta baita illunegia ere. Alatagutziz, bere idazkeraren axalari dagozkion noizean beingo akats oien azpitik, idazle sendoa ta ederra izan zitzaigun Ilario.

Batez ere "De Trinitate" izeneko liburu bikaiñak egin zuan ospetsu. Au bait da Irutasun Doneaz Europa'ren Sarkaldean argitaratutako lenen azterketa mardula. Arlo ontan, Kartago'ko Tertuliano'rekin batera, egiazko aintzindari eta bide-irikitzaile izan zitzaigun Ilario.

Bereak ditu, bibliari-buruzko azalpen batzuk, sinodoetaz idatzitako beste bat, Eliz-edestiari buruzko idazti batzuk, eta Kostantzio inperatorearentzako "informe" edo txosten batzuk.

Aundia izan zan Sarkalde guztian izan zuan itzala, eta beste iñori baiño geiago, berari zor zaio agian arianikeria Sarkaldean geiago zabaldu ez izatea.

PRUDENTZIO OLERKARIA (348405).- Euskalerrian, baskoien uri nagusia zan Kalagurriⁱ n jaioa, ezpairik gabe. Baiñan..., izkeraz, edo beintzat odolez, euskalduna izan ote zan Aurelio Prudentzio Klemente? Badirudi baietz, berak Kalagurri'z eta baskoietaz itzegiten duan erak adierazten digunez.

Gazterik, orduango beste mutillen antzera, aski biziera lasaixamarra eramana, eta geroago, lege-gizon egiñik, lanketa garrantzitsuetan kontzientzi zintzoz aritua, illea zuritzen asi zitzaionean ekin zion, bere etxeko bakartasunean, olerki-liburuak idazteari.

Bi dira bere olerki-lanik aipatuena: "Katemerinon" edo "Egunerokoa" eta "Peristefanon" edo martirien "Koronaketari-buruzkoa".

Aurrenekoa, eguneroko zeregiñak santutasun-bide biurtu nairik idatzitako amabi "oda" edo biotz-olerkien bilduma da. Kristau-sentipen unkgarriz betetako olerkiak dira amabiak. Nola gaiñera! Olerki oietako batzuk bere liturgirako artu bait zituan Elizak!

Bigarrena, Prudentzio'k bereiziki maite zituan martirien buruntza done zoriontsuak goraiapatuz, amabi abestik osotzen duten liburua da: ziurki gure olerkariari izenik aundiena eman diona.

Baditu idazti geiago ere:

- "Apotheosis" edo "Jainko Aitortzea": erejeen aurka Irutasun Doneari-buruzko dotriña.

- "Hamarigenia" edo "Gaitzaren Sorkuntza": manikerizaleen eta aiek bezala gaiztakeriaren sortzaille jainko gaizto bat izan zala esaten zuten guztien aurka, "gaiztakeriaren iturria" gizakumeen askatasuna dala erakusten duan poema.

- "Psychomakia" edo "Animagaitiko Gudua". Gizakumeen animaren jabe egiteko Ontasunaren eta Gaiztotasunaren arteko borroka. Gudarien itxura artuz, "Onbideek" laguntzen diote Ontasunari; "Joera Lizunek" berriz Gaiztotasunari.

Olertilan au da, "the first completely allegorical poem in European literature, it enjoyed immense influence in the middle age": "Europa'ko elertian osoki irudi utsezkoa dan lenen olerti-

lana, eta neurtu ez daitekean aiñako eraginmena izan zuan erdiarozear" (Enc. Brit.). "Cette oeuvre presente une grande importante historique, car elle a beaucoup influence la litterature et Part du Moyen Age" (Catholicisme): "Garrantzi aundikoa da lan ori edestiaren aldetik, erdiaroko elertian eta erti orokorrean izan zuan eraginmen aundiagaitik".

- "Syrnmako'ren Aurka" bi liburu. Senatuan Garaitza Jainkemearen irudia bir-ezartzea eskatu zuan senatore jentil aren aurka, etsai bizkorra agertzen zaigu liburu auetan Prudentzio.

Bete-betean kristaua da liburu eta olerti-lan guzti oien idazlea. "La forma poetica de Prudencio no es vacfa, es riqufsima en contenido doctrinal, asf dogintico como moral" (Dic. Hist. Ecl. Esp.). Bai. Bere denborako teologilariak ederkitxo ezagutzen zituan Prudentzio'k.

Eta naiz batzuetan bere izkera gogortxoegia izan, eta, Lukano eta Seneka'ren antzera, "comme Lucain et Senëque" (Catholicisme), itz-jario berritxu aspergarria ere bein baiña geiagotan gertatu, olerkari ederra dugu Prudentzio. Eleneraz bazekian eta, Erroma'ko olerkari zar aundiak ederki ezagutzeaz gainera bazuan lateraren erabilketan nagusitasuna: "dominio de la lengua. Cosa tanto mas de notar, por ser aquel un tiempo en que esta se hallaba en franca decadencia" (Llorca).

"Prudencio maneja con facilidad los ritmos mas variados, inspirando su versificacidn, sin servilismos, en Lucrecio, Virgilio y I-Ioracio" (ib). "A tasteful metritian, all the techniques of ancient rhetoric are at his command" (Enc. Brit.): "Txatamen oneko itz-neurtzaille izanik, erretorika zarretiko lan-kera guztiak menderatu zituan" (ib).

"Createur de la poesie didactique chretienne", "irakasketa-olerti kristauaren sortzaille" izan zitzaigun Prudentzio (Catholicisme). "No estuvo exento de lunares. A pesar de ello, por Ia riqueza de su doctrina, y su esmerada forma de expresidn, fue el poeta de Calahorra uno de los grandes educadores de la edad media como lo

prueban los mas de 300 manuscritos de sus obras" (Dic. Hist. Ecl. Esp).

"Prudencio es el mayor poeta Ifrico de la antigüedad cristiana" (ib).

Egia; baiñan ez da naikoa esatea. Prudentzio dugu ba, idazle klasikoetaz gero, aro zarrean eta erdiaroan olerkaririk onena. Garai aietako olerkari jentillak baiño obea. Aro bereko Damaso Aitasantua, Milan'go Ambrosio Donea, Donepaulino nolatarra, Donegregorio naziantzetarra eta gaiñerako olerkari kristau danak baiño obea.

Iritzi ortakoa dugu Chadwick anglitarra ere: "a igreja ocidental conquistou nesse periodo um poeta Ifrico de alta estirpe artfstica, de rara sensibilidade: Pru&ncio (388-405).

Borobilki emango digu Menendez Peiayo'k bere iritzia: "Prudencio es el poeta Ifrico mas inspirado despues de Horacio y antes del Dante".

Prudentzio olerkariaren atzetik, aipa dezagun orduango beste olerkari kristau bat:

* * *

NOLA'KO PAULINO.- Jatorri erromatarreko sendi ospetsu baten semea, agian orduan izkuntzaz euskalduna zan Bordele'n jaio zan 353'garren urtean. Erroma'n senatore zan 378'an, eta Erroma'tik ez urruti, Kanpani zeritzan probintziaren jaurle gero. Oso aberatsa zan. Oraindik gizon gaztea zala, politikagintzaz asperturik, Bordele'ra, bere jaioterrira, itzuli zitzaigun.

Bordele'tik Bartzelona'ra joanda, an, Tarasia izeneko neskatx kristau batekin ezkondu zan, eta neskatx zintzo onek ekarri zuan goxoki Elizaren altzora.

Kristau egiñik, bereala maitemindu zan Paulin olerkaria kristautasunaren edertasunaz. Edertasun ori txastatuz, bakartasunera bildurik bizitu zan aldi batez bere emaztearekin, onek Bartzelona'tik bertan zuan land'etxe batean. Eta, geroxeago, apaiz genduan Paulino; Bartzelona'ko gotzaiak sagaratua. Garai ontan

idatzi zituan, sentipen berriek unkiturik, bere olerkirik biozkoeneta-ko batzuk.

Itali'ko Kanpani'n Nola bait zan bere sendiaren jatorrizko uria, ari joanda, Nola'ra joanda, naiz an bera aberastasun aundien jabe izan karitategintzarik aztu gabe bertako Donefelis martiriaren illobi-ondoan jarri zitzaigun lekaide bakarti bezala erarik latzenezan bizitzen, "escribiendo allf preciosas composiciones poéticas" (Llorca), 400'garren urtean, berak nai ezik Nola'ko gotzai autatua izan zan arte.

Gotzai zintzoa izan zan benetan. Donefelis'eri zion maitasuna, aren izenera jauretze bikain bat eraikiz mamitu zuan. Eta laister il bait zan bera, bere eta Donefelis'en omenez erromes txit ugarien biltoki biurtu zitzaigun Nola. Arras maitatua izan zan ba erdiaro guzian Paulino Nola'ko gotzai olerkaria.

Alatagutziz, olertiaren barrutian ez dugu Donepaulino oferkari-rik onenetako. Idatzi zuanetik, Felis Donea goraiapatuz "Poemata Natalitia" izeneko amairu abesti iritxi zaizkigu gure garai auetara. Baiñan ez goien-goieneko maillakoak. "Paulino no se distingue por la riqueza de colorido, e inspiración poética de Prudencio, sino más bien por su facilidad, piedad y devoción, que dan a sus poemas un sabor de antigüedad y sencillez que encanta" (Llorca).

* * *

MILAN'GO ANBROSIO DONEA.- Ederki ezagutzen dugu Anbrosio'ren bizitza, ortarako berak ere bere liburuetan aztarna politak ematen dizkigulako, eta, batez ere, bera ilda andik ogei ta bost urtera, aren diakono izandako Pulino'k "Vita Ambrosii" bat idatzi zigulako. V mendeko edestilari kristauek ere zertzelada ugari damaizkigute Anbrosio'ri-buruz.

Galieta uriburuan, Treberis'en, jaio zan, Galieta epaille nagusiaren seme. Laister gelditu zan umezurtz. Iru senide ziran: Anbrosio bera, Satiro, ta Martzelina. Erroma'n egin zituzten, iruek, beren ikasketak.

Gizon egiñik, inperioaren serbitzailleen artera sartu zan Itali'ko epaille nagusiaren laguntzaille bezala, eta onek Milan-aldera bidali zuan Liguri-Emili probintziaren konsul edo aguntari ta epaille bezala.

Milan'en Ausentzio gotzaia il zanean, aren ondorengo gotzaia-
ren aukeraketan esku artu bearrean aurkitu zan. Ezagutzen dugu
guk Ausentzio, eta ariozalea zala esanak gera.

Milan'go erria ordea, katolikoa zan geien-geiena eta ez zuan
geiago gotzai ariotarrik gura. Baiñan Milan'go kristauen artean
ariotarra zan gutxiengo arek, eta baita ariotar ziran gotzaiaren bat
edo bestek ere gotzaigora beste ariotar bat jaso nai izan zuten-
da, sortu zan zalaparta ederra uri eder artako basilikan.

Konsul izendatu berria zan Anbrosio'ri deitu zioten Milan'go
kristauek, gotzaiaren aukeraketa pakean egiña izan zedin.

Asmorik onenarekin artu zuan Anbrosio'k eginkizun ori, eta ala
sartu zan auteskunde-egunean Milan'go jauretze nagusira.

Eta ain ederki itzegin omen zuan pakearen alde, ain ederki
ere...! "Avec tant d'Ioquence, qu'une voix d'abord, puis le peuple
entier et les weques le rclamrent comme év4ue"; "abots batek
aurrena, eta erri guztiak eta gotzaiek gero, gotzai izateko eskatu
zioten" (Catholicisme),

Ume bat izan omen zan aurrena "Anbrosio gotzai" deadar egin
zuana. Eta ume aren atzetik erri guztia asi omen zan deadarka:
"Anbrosio gotzai, Anbrosio gotzai".

Bataiatu zan Anbrosio, orduan oiturazkoa zan bezala bataiatu-
gaberik bait zegoan oraindik; eman zuan oniritzia I Balentiniano
inperatoreak, pozik gaiñera, bere ofizialetako bat ain eginkizun
garai baterako aukeraturik ikustean, eta andik egun batzuetara,
Milan'go gotzai genduan ain era arrigarrian aukeratutako gizon
bikain ura.

Ez berari izendaketa ura oso atsegiña gertatu zitzaiolako. Izan
ere, "he tried every subterfuge to escape the office, but when the
emperor approved the choice he yielded", "saiatu zan al izan zuan

guztia, gotzaigoatik iges egiteko. Soilki inperatoreak autaketa ari onespena eman zionean makurtu zuan burua" (Enc.Brit.).

"San Ambrosio era el tipo perfecto de romano. Posefa una autoridad natural, que se imponfa con su presencia y con el prestigio de su persona. Pero al mismo tiempo estaba dotado de un carácter blando y de una voluntad enérgica que no conocfa dificultades" (Llorca).

Ez zan erreza Ambrosio'k bere begien aurrean zekusan lana:

- Teologia ikastea lendabizi, eliz-jakintzetan ezjakiña bait zan bera. Leia guztiz asi zan ikasketa oiek egiten ortarako, bereiziki sortaldetarren liburuak erabilliz. Laister zan lenen maillako teologilaria.

Alare teologilari baiño geiago, moralista eta mailla garaieko "katekista" izan zan bera. Alia dira ain ederrak Milan'go basilikan egin oi zituan itzaldiak. Itzaldi oietako batek ekarri zuan Augustin Donea, manikeriaren illunpetatik kristautasunaren argiTa.

- Arianikeriak nasi zuan Eliz aren sinispidea berbiztu, garbitu eta sendotzea. Ortarako, Origenes'en bidetik Liburu Santuen zentzua agertuz, eta teologiaren arazo garrantzitsuenak argituz, sermoilari eta idazle neka-eziña biurtu zan. Piztu edo beintzat berpiztu zuan kristauengan Doneenganako eraspena.

Sortaldeko oitura Sarkaldera ekarriz, sartu zuan emengo kristauen artean, elizkizunetan eresiak ugari abesteko oitura ederra, ortarako berak eresi berriak ugari sortuz. Gogor ekin zuan, berriro arianikeria ernarazi nai zuan edo gutxienez ariotarrentzat Milan'go jauretze bat eskatzen zuan Justine inperatemearen apeten aurka.

- Aldi artan Milan zan inperatoreen bizitokia-ta, Ambrosio'ri gertatu zitzaion inperatore kristauen eta Elizaren arteko arazoei--buruz era berriak antolatzea. Iru izan ziran bere gotzaigoaren astian ezagutu zituan inperatoreak; Graziano, II Balentiniano eta I Teodosio. Katolikoak irurak. Alare noizbeinka, izan zuan agintarit-zari aurpegi eman bearra. Ikus:

- Zesaraugusto'ren garaian gero, Erroma'ko Senatuaren tokirik omentsuenean Garaitza jainkemearen irudia zegoan bere aldare ta guzti, senatoreen zaindari lez ipiña.

382'an, Graziano'k, senatore kristauen eskariari erantzunez, irudi ura kentzeko agindu zuan, eta ez zituan bere aurrean artu ere, irudi aren bir-ezarketa eskatzera etorri zitzaizkion senatore jentillak.

Urrengo urtean ordea, 383'an, erailla izan zan Graziano, Ambrosio'ren adiskide aundia; eta amabi urteko mutikoa zan, Graziano¹ren ondorean buruntza jantzi zuan II Balentiniano.

Bereala urbildu zitzaizkion senatore jentillak. Senatore jentil aien artean, Simmako zan ospetsuena, Senatuako izlaririk yayoena ainzuzen garai artan. Bikaiña ta atsegiña izan omen zan II Balentiniano muttikoaren aurrean, "Victoria" edo "Garaitza" izeneko jainkeme aren irudia Senatuako bere aldarera berriro ekarria izan zedilla eskatuz egin zuan itzaldia.

Simmako'ren eskari ari-buruz zer pentsa ez zekiala gelditu omen zan Balentiniano gaztea.

Jakin zuan ordea ori Donambrosio'k eta beste itzaldi ederrago baten bidez, bereala irabazi omen zuan inperatore gaztetxo aren borondatea. Garaitza jainkemea eta bere aldarea ez ziran itzuli geiago Erroma'ko Senatura. Simmako baiña izlari yayoagoa eta dotoreagoa bait zan Ambrosio.

- Osroene datorkigu berriro orri auetara. Osroene Erroma'ren probintzi zan orduan. Probintzi artan, Kaliniko zeritzan urian, bazan juduen sinagoga bat, eta 388'an su eman zioten lekaide kristauek sinagoga ari.

I Teodosio'k, zalantzetan ibilli gabe eman zien juduei sinagoga ura bir-eraikitzeke baimena, eta eraiketa ura gotzaiak ordaindu bear zuala agindu zuan, eginda okerkeriaren erantzukizuna, -lekaideek txindirik ez zuten ezkeru, azken unean gotzaiarena zala iruditu bait zitzaion.

Zuzen jardun zuan Teodosio'k. Bai beintzat gure ustez. Baiñan ez zan ori izan Ambrosio gotzaiaren ustea. Andik egun batzuetara

elizan zan 1 Teodosio, jende guztiek ikusi aal zitzaten inperatorentzako eraturik zegoan aulki deduzkoan. Igo zan Anbrosio pulpitura diakono batek ebangelioa abestu ondorean eta zuzenean ekin zion inperatoreari, onek antxe bertan, sinagoga ura ez zala geiago egingo, itz-eman zion arte.

Oker zebillela Donanbrosio? Bai, gure iritziz, baiñan, legiztilari zaarrek esan oi zuten bezala, "distingue tempora et concordabis iura": "bereizi itzezu aldiak eta epaitu aal izango dituzu zuzen jendeen jardunkerak".

- Oroi 390'ean gaurko Salonika eta orduango Tesalonika'n I Teodosio'k egindako sarraski zital ura. Uria matxinadan jeiki zan eta ofizial batzuk il ere il zituan. Agindu ankerra eman zuan orduan Teodosio'k: uriko biztanleak zirkora biltzeko, an kirol-jai bereizi bat izatekoa zala aitzakitzat eta bein jende guztia zirkoan, gudaroztearen erasoz guztiei bizia kentzeko.

Egia da, agindu ori Teodosio'k berak ezeztu zuala, baiñan, zoritxarrez, berandu iritxi zitzaion aginduaren ezarezketa Tesalonika'ko gudalburu nagusiari, eta ikaragarria izan zan uri artako jende-erailketa.

"Ambroise et les eveques jugerent avec raison qu'il fallait exiger de l'empereur une eclatante reparation de ce crime" (ib), "Anbrosio'k eta gotzaiek, arrazoi osoz, inperatoreari gaiztakeri aren damu-aitorpen egoki bat eskatu bear zitzaiola uste izan zuten", eta Anbrosio'k idatzi zion Teodosio'ri, erabaki aren jakitun egiteko, eta ipintzen zitzaion penitentzia onartzera bearturik zegoala adierazteko.

Makurtu zuan burua Teodosio'k eta bete zuan Anbrosio'k jarri zion penitentzia.

* * *

Iru gertakizun oiek Anbrosio'ren kemena eta ausardi santua erakusten dizkigute.

Anbrosio'k argi ikusten zuan, Eliza irakasle ez ezê profeta ere badala, eta profeten eginkizuna, aundikien, eta errien pekatu aundi nabarmenak agirian salatzea dala.

Erabat ikusten zuan argi, irakasle eta profeta izanik Eliza dala pekatuei dagozkien auzi eta arazoetan munduaren Epaille Nagusia, eta pekatuari dagozkionetan, danak, agintari ta menpeko, danak egon bear dutela Elizaren esanera.

Orrela, "Ambroise est le premier qui ait conçu et tente de réaliser l'ideal de l'empire chretien, "Anbrosio dugu inperio kristauaren gogoeta aurrena aditu eta munduan egi biurtu nai izan duana".

"Alare, Anbrosio'ren elburua Elizaren eskubideak babestea izan zan beti", "il s'agissait pour lui de defendre les droits de l'Èglise" (ib). Ori, eta bere zaintzapeko animen zoria lortzea, izan zuan bere eginkizun, itzaldi eta idazki guztietan elburu bakarra.

Idazle baiño geiago izlari izan zitzaigun Donanbrosio. Ala, bere liburuak ere, geien-geienak, pulpituetatik esanak izan ziran, argitara emanak izateko, axkar-axkar prestatuak izan aurretik.

Bibiliztiari buruzko bere idazki ugarietan Alexandri'ko Eskolaren "alegorizko" edo "irudizko" azalpen-kera erabilli zuan, eta Filon, baiñan batez ere Origenes izan zituan maixu. A! Eta baita Zesarea'ko Donebasilio kapadoziarra ere.

Oituriztiko bere liburuen artean aipagarriak ditu "De Officiis Ministrorum" ("Elizgizonen Bearkizunak"; "De Virginibus ad Marcellinam Sororem", ("Martzeline Nere Arrebari Neskutsetaz"); "De Viduis", ("Alargunemeetaz"); "De Institutione Virginis", ("Neskuts Baten Eziketaz"; "De Virginitate", ("Neskustasunaz"), "Exhortatio Virginitatis", ("Neskustasunaren Aldeko Deia"); eta anitz geiago.

Teologizkoetan aipa ditzagun "De fide ad Gratianum". ("Sinismenari-buruz Graziano'ri") inperatore onen eskaria onartuz idatzi omen zuan ba. "De Spiritu Sancto" deritzana, ezaguna dugun Didimo Itxua gidaritzat artuz idatzia; "De Incarnationis Dominicae Sacramento", ("Jaunak Aragi-Artzearen Misterioa); "De Myste-

riis", katekumenoentzako, sakramentuen azalpen bat da. Badu Nobatiano'ren lazkeriaren aurka, Aitortzako Sakramentuari buruz idatzitako liburu bereizi bat ere. "De Sacramentis" izen daramana, ziur berea duan ez dakigu.

Anbrosio'ren teologia zuzenki animen onerako antolatua dugu. "Ez bait dugu bera teologiaren arloan ikerketa-egille aundi oietako bat. Ez bait zuan mota ortako teologirik sortzeko astirik izan. Ezta zaletasunik ere"; "He was not a great speculative theologian having neither the time nor the interest to develop such a theology" (Enc. Brit.). Izan ere, "ikerketalari baino geiago, buruzagi izan zitzaigun Anbrosio". "II a etb surtout un chef" (Catholicisme).

Alatagutziz, pentsalari eta ikerketalari izateko ere bazuan gaitasunik aski. Pentsaketaren arlo ortan, "his most important theological contribution to the west was the influence he exercised on the thought of Augustine, particularly in the doctrines of original sin and grace", "Sarkaldeari Anbrosio'k egindako emaitzarik aundiena, Donagustin'en oldozkeran izan zuan eraginmena dugu, batez ere jatorrizko obenari eta Jainkoagandiko Graziari-buruz aren pentsaeran izan zuan eraginmena" (Enc. Brit.).

Olerkiak, asko ditu, baiñan ez da erreza zein bereak eta zein beroien itxurara bestek idatziak diran jakitea. Donanbrosio'ren olerki oietako elertiera legun, apal, eta gogoan artua izateko erreza, gero sarritan izan zan beste batzuek beren olerkigintzan erabillia.

Anbrosio'renak dira ziurki, gaur-gaur arte liturgian abestuek izan diran: "Deus Creator Omnium" ("Jainko Ororen-Egillea"); "Jam Surgit Hora Tertia", (Eldu Zaigu Irugarren Ordua); "Intende Qui Regis Israel", ("Begira eiguzu Israel'ko Errege"); "Aeterne Rerum Conditor", ("Izakien Egille Betierekoa"). "Te Deum" ordea ez du berea. Ezta "Quiquaque Vult" ("Nai Duanak") itzen bidez asten dan sinist'araua ere.

Eskutitzak, guregana iritxi zaizkigun bere larogei ta emeretzi eskutitzak, orduango edestia ezagutzeko oso egokiak dira. Bere itzaldietatik berriz, lau bakarrik iritxi zaizkigu: Satiro bere anaiaren, eta III Balentiniano ta I Teodosio inperatoreen illetetan

egin zituanak. Ta oiek baiño leenagokoa, Auxentzio Milan'go gotzai ariotarraren aurka esan zuana.

Ikusi aai izan duzunez, Sortaldeko teologia agiri zaie zirriku guztietatik Ambrosio'ren liburuei, Sarkaldeko teologia ez bait zan oraindik Sortaldekoarengandik yaretu. Baiñan Ambrosio izan zan yareketa ortarako bidea gertutu zuana:

"On ne saurait oublier, en particulier, qu'il a contribuë a faire connaltre a l'Occident les oeuvres des grecs en un temps oU peu de penseurs latins puvaient les lire dans leur texte original" (ib); "Batez ere bera izan zan sortaldetarren elenezko liburuak Sarkaldean ezagutzera eman zituenetako bat. Eta ori, ainzuzen, liburu aiek eleneraz irakurri zezazketen pentsalari latindunak oso gutxi ziranean. Ez da azturik laga daitekean gauza".

397'ko jorraillaren 4'ean il zitzaigun Ambrosio Donea,

Donanbrosio'ren lana Donagustin'ek eramán zuan aurrera. Baiñan Donagustin'ez eta Donejeronimo'z itzegiten asi aurretik bearrezkoa izango dugu Done auek aurrean izan zuten erejirik gogorrenaren azalpen bat egitea.

PELAJIKERIA.

Augustin Donea "Graziaren Teologilaria izan zala esan dugun ezkerro bearrezkoa dugu une artan graziaren etsairik aundiena izandako Pelajio'ren aburuaz emen bertan mintzatzea.

Jaiotzaz inglandarra izan zan Pelajio ezpairik gabe, nai Donejeranimo'k Irlanda'n jaio zala esan. Iñork ez daki zergaitik etorri zan Erroma'ra, bainan txit ospetsua egin zuan emen bere izena, 390'garren urteaz gero.

Beste ereji-sortzaille asko bezala arras biziera garbiko gizona, basamortuan lekaide bezala ziardun garbai edo penitentzigintzari eta otoizketari emanik bakartasunean. Ez bait zan lekaidetxe batera sartu. Lentxeago, Damaso Aitasantu zala, Jeronimo Doneak Erroma'n lekaidetzaren aintza egin zuanetik, aundia zan an biziera artarako begirune ta zaletasuna.

Gauzak ola, ez da arritzekoa-ta, laister bildu zan Pelajio'ren inguruan aren jarraille-sail bat, "principalmente doncellas y matronas cristianas mas o menos amigas de novedades" (Llorca). Ori esatea, emakumezkoetaz oso uste makurra izateaz gaiñera, Pelajio'k erakusten zuan bizieraren laztasunik gogoan ez artzea dala deritzait.

Oroi dezagun, "peiajiotarrentzat oben ariñik ez zala, aundi edo txiki, oben guztiak Jainkoaren legearen aurkako oben astunak ziralta": "qu'il n'y a pas de fautes legeres, que toute infraction, si minime soit-elle, i3 la loi morale est d'une extreme gravite" (Marrou).

Danadala, bat izan zan aurren-une aietako pelajiotarren artean garrantzi aundiko gizona: Zelestino, lekaide biurtutako legiztilari yayoa.

"Como razón decisiva del alto predicamento de Pelagio (...) hay que mencionar la seria autenticidad e integridad con que aquel asceta vivía a la vista de todos" (Jedin). Gaiñera jendea beraganatzekeo almen bereizia omen zuan, izan ere, Augustin'ek eta Jeronimo beraiek aitortzen dutenez, arras dotore ta atsegiñak bait ziran bere izkera-idazkerak.

Batez ere urikide aundiki, kristautu berrien artean izan zan aundia bere erakarmena.

Asko idatzi zuan, baiñan iru liburuskak bakarrik iritxi zaizkigu guri: Donepaul'en epistolen azalpentxo bat, elertiaren aldetik oso txukuna eta mamiz "muy sugestivo" (ib), "anitz kilikagarria" dan Demetri andreari egindako aszetika-idaztiño bat eta I Iñozentzio Aitasantuarentzat idatzi zuan bere "sinistaraua". Bereak dira seguruaski beste lau auek ere: "De Vita Christiana", "De Divina Lege" "Epistola de Virginitate" eta "Epistola ad Celantiam", azkeneko au, Zelantzi izeneko andre erromatarrarentzat idatzia.

IV mendearen azkenean asko makaldu zan Erroma'ko Eliza-baitan kristau-bizitzaren sendotasuna, ta aszetikaren bidez kristau-bizitz argaldu ori ber-bizkortu nai izan zuan Pelajlo'k.

Ori lortzeko, gizakumearen gaitasunean ipintzen zituan oiñak gure Pelajlo'k. Gizatasunaren naimenak bai omen du indarririk aski iñoren laguntzarik gabe Jainkoaren Legea beti zintzo betetzeko, ortarako Jainkoak eman zion askatasuna era zuzenean erabilli nai ba'du.

Ori Jainkoagandiko graziaren beartasuna ukatzea da. Bai beintzat "supernaturalis" edo izadiz-gaindiko graziaren beartasuna ukatzea, Pelajio'k zionez Jainkoak gizonari emandako grazirik aundiena Paradisuan emandako giza-izatea bait da. Jainkoagandik artutako giza-izate orrek ez du galdu Jainkoagandik artutako "ona" edo "gaiztoa" aukeratu aal izateko askatasun orokorra, ez du galdu

zer dan ona eta zer gaiztoa ezagutzeko adimenaren argia, eztare ona aukeratu eta gaiztoa danari uko egiteko naimenaren indarra.

Ori berriz, ezpairik gabe, Jatorrizko obena ukatzea ez ba'da, bada beintzat oben aren ondorioak ukatzea edo beintzat era izugarrian auldu, makaldu eta ia-ia osoan ezereztea.

Oridalata, pelajiotarrek ezin izan zuten ordurako Elizan oiturazkoa zan ume jaio-berrien bataiaketarik ulertu, eta alde ortatik erasoko die Augustin Doneak. Esan dezagun irazean bezala, jatorrizko obenari-buruz Pelajio, orduan Donaugustin bera bezala, tradukziokeri zalea izan zala, baiñan Augustin'ek, eta berarekin Elizak betirako, aburu oker ori laister utziko zutela.

Ta, jatorrizko obenak ez ba'zuan gizadia pekatari biurtu, eta gizakumeak bere naimenaren indar utsez santutasunik garaiena lortuz bere anima salbatu al ba'zezakean, ez al zuan Pelajio'k Kristo'ren salbatzailletza ukatzen, edo beintzat garrantziz oso-osoan ustutzen? Ala dirudi. Pelajiotarrek beintzat, batez ere Irakasle eta Gidari eta Eredu bezala ikusi oi zuten Kristo.

* * *

410'ean artu eta lapurtu zuan Alariko'k Erroma. Ikaratu zan jendea, eta askok, Afrika'ra iges egin zuten itsasoz. Ala Pelajio'k eta Zelestio bere laguntzaille trebeak. Eta, emen ere beren aburuak zabalduz jarraitu bait zuten, errez ulertu daiteke Augustin'en eta Afrika guztiko gotzai katolikoan urduritasuna. Gotzai aukeratu danak ziran ba ordurako maixu aundi aren adiskide ta miresle.

Ez zan Afrika'n luzaro egon Pelajio. Bertan Zelestio utzita Palestina'ra joan bait zan bera. Zelestio'k bere yayotasun guztiak erabilliz Afrika'n, eta era berdiñean Palestina'n Pelajio 'k, atsedetik gabe jarraitu zuten beren sinispide okerra zabaltzen. Borondate onez ibilliko zirala? Bai seguruaski, baiñan erakusten zutena ereji bat zalako, urte bete baiño leenago gotzaiek Kartago'n bildutako kontzilio batera deitua izan zan Zelestio lekaide Iegiztilaria, eta, an, Afrika'ko gotzai danek gaitzetsia.

Ez zan kukildu eta ez zuan damurik agertu, Alderantziz, Afrika'tik Sizili'ra joan zan eta emendik Efeso-aldera an da emen bere erejia zabaltzez utzi gabe.

Palestina'n, an ez bait zan Augustin bezalako teologilari galantik, eta ango gotzaiek graziaren eta askatasunaren arteko arazoetaz ezer ez bait zekiten, adur ohea izan zuan Pelajio'k. Aisa atzipetu zituan gotzai aiek bere izkera yayoa erabilliz, eta, zer egiten zuten konturatzeke, ontzat artu zituzten aren aburuak, ortako Palestina'ko Diospoli urian egindako kontzilio batean.

Sorkaldeko gotzaiek ez zeuden gizakumearen askatasun eta gaiñerako doaietaz pentsatzen ibiltzera jarriak.

Gizakurnea zan Pelajio'ren pentsamentuen muiña. Alderantziz, sortaldetarren pentsamentuen muiña Jainkoa izan oi zan beti: Jainkoa zeruan Irutasuneko Pertsona lez, ala Jainkoa lurrean gizon egiñik. Baiña Jainkoa beti. Gizakumearen zertasun, nortasun eta nolakotasunari buruzko ardura, sarkaldetarren ardura da, eta orrela agertu da edestia-zear, gero ta geiago, gure egunok arte.

Palestina'ko kontzilio doakabe aren berri izan zuan bezain laister asi zan Donaugustin ereji berri aren aurka liburuak idazten. Bildu ziran gotzaiek kontzilioan eta berritu zuten Peajio'ren aurka len Zelestio'ren aurka lendik aldarrikatorik zeukaten gaitzespena. Eta egin zuten I Iñozentzio Aitasantua ereji berri aren ondorio arriskutsuen jakitun.

Bazirudian ortxe bertan bukatuko zala pelajikeriaren arazoa. Baiñan urtebete baiño lenago il zan Doneiñozentzio Aitasantua (417) eta bereala Zosimo Donea izan zan aren aulkirako autatua. Arin joan zan Aitasantu berriarengana Zelestio lekaide legiztilaria. Ta, ez dakigu nola Aitasantu berria atzipetu zuan, baiña lortu zuan arek errurik gabekotzat artua izatea. Bai beintzat bere eta Pelajio bere adiskidearen auziak kontzilio batean berriro aztertuak izan arte.

Ikaratu ziran Afrika'ko gotzaiak, eta asi ziran lanean egiaren alde; jarri ziran Zosimo Aitasantuarekin, Itali'ko gotzaiekin,

Rabena'n inperatorearen laguntzailleekin, eta Onorio inperatore berarekin arremanetan; eta laister irten ziran oso-osoa garaille:

Afrika guztiko gotzaien kontzilio orokor batean, erarik sendoenean gaitzetsia izan zan pelajikeria bein berriro. Erejeen zerrendan sartu zituan Onorio'k pelajiotarrak, eta Erroma'ko uritik Pelajio eta Zelestio erbesteratu. Ta, gauzak argiago ikusiz, ordurako Zelestio'ren aurka zegoan Zosimo Aitasantuak ere, gaitzetsi zuan, oraingoan Aitasantu lez, Pelajio'ren ereji berria "Epistula Tractoria" izeneko enziklikaren bidez.

Pelajio Palestina'n zegoan orduan, baiñan bereala izan zan andik jaurtia, eta seguruaski Ejito'ko lekaidetxeren batean amaitu zuan bizia. Zelestio, gaur emen biar an, batzuetan bere buruaren errugabetza oiukatuz, beste batzuetan Elizan berriro onartua izatea ezkatuz ibilli zitzaigun il zan arte.

Ta, Onorio'ren ondorengo inperatoreek eta Zosimo'ren atzetik etorri ziran Aitasantuek beren aurreko aien bidetik jarraitu zutelako, orduantxe bertan amaituko zan betirako ereji gogor ura... beste ereji berri baten azia utzi ez ba'ligu. "Semipelagianismus" edo "erdipelajikeria" esan oi zaio, laister aztertuko dugun beste okerkeri berri oni.

* * *

JERONIMO DONEA.- "El mas docto de los Padres latinos" (GER), Dalmazia'ren iparraldean jaio zan, 347'aren inguruan, gotiarrek zearo ezereztu zuten Stridon izeneko urian. Nola ezereztu ere! Gaur uri ori non egon zan ziurki jakiterik ez bait dago. Jeronimo bizi zala ere, uria egon zan tokia baso biurturik zegoan, berak idatzi zuanez.

Anai bat izan zuan, Pauliniano, eta buru austerik aski eman zion arreba bat. Biurtu zan ordea neska bide zuzenera eta lasaitu zan Jeronimo. Pauliniano, ikusiko dugu gero-xeago ere, ez oso era zuzenean apaiz sagaraturik.

Jeronimo bera ere aski mutil kaskariña izan bide zan, Erroma'ra joanda erretorika, filosofia ta legitzia ikasten aritu zan urteetan, biziera txolin ura gogoratzean bere idaztietan agertzen damuaz igarri al daitekeanez. Bi erritar, Rufino ta Bonoso, eta aundiki erromatar bat, Pammakio, izan zituan ikaslekide.

Rufino'k eta Parnmakio'k nekerik aski emanen zioten gero, Jeronimo bera izan ez ba'zan nekeak Rufino'ri eman zizkiona.

Rufino au, edestilari bezala ezaguna dugun Rufinus Tyrannicus uraxe bera da. Pammakio berriz, egiazko gizon santua, laister ikusiko dugu gaixo-zain, baiña baita Jeronimo etsaien aurka borrokara bultzatzen ere.

Erroma'n Liberio Aitasantuaren eskuetatik artu zuan bataioko ur santua.

Erroma'tik Galietako uriburu zan Treberis'era joan zitzaigun Jeronimo, eta, andik, Adriatik-Itxasoaren ipar-iparrean zegoan Akileia uri ederrera. Ordurako asia zan Idazti Doneetaz arduratzen Poitiers'ko Doneilario'ren idaztiak gidaritzat artuz.

Akileia'n lekaide bizitzari eman zion, Rufino ikaslekidearekin eta beste lagun batzuekin batera. Ez dakigu zer gertatu zitzaion, baiñan berak dionez "ustegabeko zurrunbillo" batek uxatu omen zituan Akileia'tik eta Sortalderako bidean ipiñi.

Ler eginda ta osasuna galdurik iritxi zan Siri'ra. Emen, adiskide zitzaion Ebagrio'k artu ta zaindu zuan berean.

Kontuz: Ebagrio au, ez da liburu onen asieran edestilari lez aipatu dugun Evagrius Scholasticus ura. Ura VI mendekoa zan. Au, IV mendearen bigarren erdian Antioki'ko gotzai bezala, uri artako "zizman" sarturik erabilli zenetako bat dugu. Ez zan oraindik gotzai Akileia'tik zetorren Jeronimo bere etxean artu zuanean.

Jeronimo, bere adiskide aren zaintzapean sendaturik. Alepo uriaren lurraldean dagoan Kalzis izeneko Iekarora joan zitzaigun, an, bi urtez, bakartasun osoan bizitzeko. "Lekaideei non-koka ikaragarri bat darraien eguzki kiskalgarriak erretako bakartasun neurrigabea", esan zion berak eskutitz batean Kaizis'ko lekaro legor ari.

Lekaro artan izugarrizko biziera latza eraman zuala ere badiosku: Eta baita an ere pakean utzi ez ziotela ere, Antioki'ko "zisman" esku-artzera bultzatua izan bait zan.

Ezaguna dugu "zisma" ori. Une artan iru gotzai ziran bakoitza Antioki'ko egiazko gotzaia bera zala esaten zutenak; Paulino, katolikoa: Melezio, len erdiarianitarra, ots, "homoiusiostrarra" izana, baiñan ordurako, egia ikusita, benetako katolikoa, ots, "homousiostrarra" biurtua, ainzuzen gero Kostantinopla'n Elizaren 11 Kontzilio Ekumenetarraren Lendakaria izango zan ura bera; eta, irugarrena, zearo erejea, Bital apolindarra.

Zesarea'ko Basilio eta beste Aita Kapadoziarrak, Melezio'ren aldekoak ziran. Paulino'ren aldekoak ordea Erroma'ko Damaso Aitasantua, eta Alexandri'ko Atanasio'ren ondorengo gotzaia. Kalzis'ko lekaideak, urduri eta, Melezio zala Antioki'n egiazko gotzaia, edo Paulino zala, beren artean asarre.

Jeronimo'k Damaso Aitasantuari idatzi zion argi-eske. Ez zuan ordea erantzunik izan. Erroma'ko jardunbidearen "zugurtasuna"? Ala, Damaso'k ere arazoa argi ikusten ez zualako adigarri zorrotza?

Danadala, lekaideak asarre bizian ikusteaz nazkatuta. Antioki'-ra itzuli zan: Ebagrio adiskidearen etxera. Au, Paulino'ren aldekoa zan, eta Paulino'ren alde jarri zuan iritxi-berri zitzaion adiskidea ere. Are geiago, Ebagrio'ren eskaria onartuz, apaiz egin zitzaigun Jeronimo, sagaraketa Paulino'ren eskuetatik artuz.

Al Egin zan apaiz, baiñan lekaide bizitzan jarraitzen utziko zitzaiolaren baldintza Ala, alditxo labur batez izan ezik, ez zuan sekulan mezarik eman.

Laterazko idazle klasikoen miresle aundia izan zitzaigun Jeronimo. Ala dugu bera elertiaren aldetik IV eta V mendeetako latin-idazlerik onena. Baiñan Kalzis'en izandako amets baten ondorioz utzi zuan klasikoen irakurketa, zearo bere burua eliz-jakintzei ernateko. Alare ez zuan beiñere bere estilo edo idazkera txukun dotorerik galdu.

11 zala eta Kristo epaillearen aurrean zegoala, amets egin omen zuan. "I nor aiz"?, galdetu omen zion Kristo'k. "Ni?, Kristau bat", Jeronimo'k berriz erantzun. Eta Kristo'k jarraitu: "Gezurra diok. I ez aiz kristotarra, zizerondarra baizik; ire altxorra non, an bait duk ire biotza".

Bere asmo berria era dotorean agertzeko, elertilari bikaiña zan Jeronimo'k asmatutako antzekitze edo "drarnatizazio" bat? Baleike. Jeronimo'k beintzat ez zituan, ez orixe, klasikoen liburuak era bat baztertu. "Conhecia táo (ain) ben Cfcero, Salustio, Lucrecio, Virgilio, Terncio, Horcio e Juvenal que nada conseguia escrever sem os evocar" (Chadwick).

Urte aietan, otoiketak uzten zion beta guztia, eberkera ikasten igaro zuan Jeronimo'k. Antioki'n, azkenean ereje irtengo zitzaigun Laodizea'ko Apolinar'en ikasle izan zan Idazti Doneei-buruzko gaietan. Ikasle arengandik asko ikasi zuala eta orregaitik zor aundia ziola, idatzi zuan gero Jeronimo'k

379'an Kostantinopla'n dugu Donejeronimo. Donegregorio naziantzetarra zan uri artako Gotzaia, eta izlari bikain eta teologilari sakon aren miresle izan zitzaigun Jeronimo.

Ta Kostantinopla'n bait zegoan uri artan Elizaren II Kontzilio ekumeniarra egin zanean, izan zuan Zesarea'ko Basilio'ren anaiak ziran Nisa'ko Gregorio eta Sebaste'ko Kepa'rekin adiskidetasuna lotzeko adiontasu ederra.

Kostantinopla'n sortu zitzaion, dirudianez, Origenes'enganako zaletasuna. An itzuli bait zituan laterara aren omili batzuk.

382'an Erroma'n dugu, ara Donesteban Salamina'ko gotzai txipretarrarekin eta Paulino Antioki'ko gotzaiarekin joana. An Paulina izeneko andre aundiki baten etxean artzen dute non bizia. Berrogeiren bat urte ditu orduan Jeronimo'k, eta une artara arte ikasi eta ikasi aritu zitzaigun ibilli zituan toki guztietan.

Bi gotzaiak Sortalderuntz itzuli ziranean ere Erroma'n geratu zan bera, Damaso Aitasantuaren laguntzaille. Aundia izan zan bi gizon auen arteko adiskidetasuna. Ederki baliotu zan Aitasantua

laguntzaille aren kultura arrigarriaz, bera bait zan "o horren (gizon) mais informado e culto da poca" (Chadwick).

Ordurako ere asko idatzia zan Jeronimo, baiñan orduan asi zuan benetan bere izugarrizko lana,

"Lagun bikain" asko egin zituan Erroma'n, "emakumezkoen artean batez ere", "fortes surtout f&nenines" baiñan baita "bizitza guztian bere atzetik izango zituan etsaigo gogorak piztu ere": "les haines tenaces qui devaient l'accompagner tout au long de sa vie" (Fliche-Martin).

Damaso Aitasantuak bultzatuta, Erroma'n bertan asi zituan Bibliari buruzko azterketek ez zioten bere lekaidetzarako zaletasunik makaldu. Zaletasun orrek eraginda asi zan erromatarren artean lekaidetzarako eta birjintasunarako joera zabaltzen. Ez zan ziturik gabe gelditu erein zuan azia, eta bere ereintzak batez ere kulturazko jendeen artean aurkitu zuan lurmen egokia:

"Entra en contacto con varios grupos de la nobleza romana, particularmente con nobles damas de acendrado espfritu cristiano y de no desdeñable cultura. Son muchos los nombres que aparecen en su correspondencia: Paula y sus hijas Eustoquia y Blesilla, Marcela, Asela, Fabiola, Principia, Furia, Lea, etc."

Gizezko ta emakumezko, talde eder bat bildu zuan, Abentino auzoan, bere esanera Biblia aztertuz, lekaidetzaren eta birjintasunaren ulerpenera eta maitasunera iristeko.

Abentino ordea, Erroma'ko aristokraziaren auzoa zan. Auzo artara ain maiz Jeronimo'k egiten zituan ibillaldiek, ango andre eta anderefioekingo arremank, eta, erriko jendearen zati aundi baten zabarkeriaren aurka, batez ere apaiz askoren axolagabekeriaren aurka ain sarri jaurti oi zituan trumoi ta tximistek, sortu zioten bat baiño geiagoren ezin-ikusia ta gorroto beltza.

Jeronimo'k berak esaten digu Paule'ri idatzi zion eskutitz batean nolako txolinkeriraiño igo zan jende aien bekaizkeria. Entzun:

Blesilla il da, Paule'ren bi alabetatik gazteena. Alargun il da. Gazterik eta semerik gabe. Illetetakoan onela mintzatzen omen

ziran, ama negarrez ikustean, Jeronimo'ren ekintza ulertzen ez zuten jendeak:

"Alaba il diotelako dagi negar andre gaixo orrek. Ainzuzen, alaba geiegizko barauketen ondorioz il diotelako. Eta, alaba gazte orri bigarren aldiz ezkontzen utzi ez ziotelako, alaba orrengandiko billobarik gabe utzi dutelako. Lekaidetza-lekaimetza zaleek txorabiatu diote alaba gazte ori. Oiek dira guzti onen errudunak. Zergaitik ez dituzte uritik bidaltzen, edo bertan eriotzaraiño arrikatzen edo itxasoko bagetan itotzen"?

Esan bearrik ez da, Jeronimo'k bera zala oker-mintzaille aien asmoetan uritik erbesteratu-bearra, arrikatu-bearra, eta baga-pean ito-bearra.

Ona, nola amaitzen duan ama naigabetuari idatzitako eskutitz ura: "Laburra izan da bere bizia; baiñan amairik gabea izango da bere oroitza. Gaur Kristo'rekin bizi dana, biziko da gizakumeen ezpafiñetan ere". Egia. Jeronimo berak eman dio gazterik ildako andre zintzo ari, gizakumeen arteko ez-iltasuna.

Orduangoa du gaiñera, neskustasuna goratuz, andre il aren aizpari, Eustokia'ri, zuzendua, "De Virginitate Conservanda" deritzan liburuskak. Erroma'n idatzi zuan baitare, Ebangelioak aipatzen dituan Kristo'ren senideak Miren eta Joseba'ren seme-ala-bak izan zirala esaten zuan Elbidio'ren aurka, "De Mariae Virginitate Perpetua" deritzan liburu ederra.

Damaso il zanean otsoak bezala jausi ziran Jeronimo'ren aurka bere arerio guztiak: Emakumezkoekin lizunkerian ibillia omen zan, eta gezurtia.

Bere aurka irten zitzaion errukirik gabe errukide eta ikasketakide eta len ain adiskide izan zuan Rufino ura ere. Birjintasunari eta aszetikari-buruz, bere aburuak geiegikeriz orbanduak ziralako, Erroma'ko jentil guztien jostailu alai parregarriak gertatu omen ziran eta lotsagarri utzi omen zuan Jeronimo'k kristautasuna.

Bere izena aipatu gabe onela idatzi zuan Jeronimo'k berak, "Paule andre donearen sendia ezagutu zuan arte Erroma'n guztien iritziz arrats aintzagarria, eta Aitasantu izatera iristeko ere gai bai

omen zan uraxe bera, gaur, askoren iritiziz, gizakume lizun eta gezurti bat besterik ez da". Ta, nazkaturik, Sortaldera abiatu zitzaigun berriro gure Jeronimo Donea.

Bidez, Txipre'n egin zuan geldiune bat, txit adiskide bait zuan Jeronimo'k Doneepifanio Salamina'ko gotzaia.

Origenes'en arerio sutua zan gotzai au. **poliki-poliki**, ordurako aski agure zarra zan gotzai borrokalari onek, Origenes'en etsai biurtuko digu, ordurarte Origenes'en miresle aundia izandako Jeronimo Donea.

Biak Salamina'n zeudela iritxi zitzaien Erroma'tik Paule andrea Eustokia bere alabarekin eta bere rnorroi-mirabeekin, eta guztiak, Epifanio Txipre'n utzita, Palestina'ra abiatu ziran Jeronimo'rekin.

Ejito'ra gero, Palestina'n leku santuak eraspén aundiz ikustatu ondorean.

Ejito'n ere izan zituzten lekaroetako lekaideekin alkarrizketa sakonak. Jeronimo'k gaiñera, oraindik aski origenestarra zan Jeronimo'k, egin zituan Alexandri'ra origenestarra zan itzal aundiko Didimo "Itxua"rekin adiskidetasunak.

Urte bete geroago Belen'en ziran danak. Emen, Paule'k bere diruz, erromesentzat babes-etxe bat eta emakumezkoentzat bi lekaimetxe ta gizonezkoentzat lekaidetxe bat eraiki zituan. Emakumezkoenetan bera jarri zan abateme, eta Jeronimo'k artu zuan gizonezkoenaren zuzendaritza. Arrezkero, ez da Jeronimo andik irtengo. Ogeitamar urtez bizitu zan Belen'go bakartasun artan, eten gabe lanean. Bere luma dotore aren bidez, kristaudiko arazo guztietan sartu bait zan, baztar guztietatik bere aolku jakintsua eskatzen ziotelako.

Dotorea izan zan Jeronimo'ren luma, bai orixe, baiña baita zorrotza, mingarria eta aski zitala ere batzuetan. Alakoa bait zan bere jitea ere: era batekoa, erdikeririk gabekoa, kementsua, eta naiko zakarra toleskeriren baten aurrean aurkitzen zala iduritzen zitzaionean.

Bi izan ziran beriziki, Jeronimo'k Belen'go bakartasunetik arrotu zituan arazoak: Origeneskeria eta Pelajikeria.

Origeneskeria, Origenes'ek bere teologian "ipotesi" edo "lanerako gai" bezala aurkeztutako atal batzuk, egizkotzat artuta ertzeraiño eramanez sortu zitzaigun okerkeri nabarmenari esan zitzaion.

Origenes bera, ez zan sekulan "origeneskeri-zalea" izan. Origeneskeri esaten zaion auzi au piztu zanean, origeneskeri-zalerik ez zan. Origenes'en "ipotesi" aiek, oroi izadiaren sorketari ta gizadiaren salbamen orokorrari-buruzko ipotesiak gaizki ulertu zituztelako Origenes'en aurka idatzi zuten buruetan bakarrik egon zan teori edo aburuketa bat besterik ez zan origeneskeria.

Origeneskeriaren aurka aurrena idatzi zuana, Olimpio'ko Metodio izan zan, "Berbizkundez" deritzan bere liburuaren bitartez. Gero, ain ariotarren etsai gogorra ezagutu dugun Antzira'-ko Markel ura, beste batzuei bezala berari ere Origenes ariokeriaren bide-gertutzaille izan zala iduritzen zitzaiolako.

Jeiki ziran, idazti oien aurka origenezaleak, Panfilio eta Zesarea'ko Eusebio edestilaria adibidez, eta beste Zesarea'ko Basilio, Naziantze'ko Gregorio, Nisa'ko Gregorio, Alexandri'ko Atanasio berbera... Dakusazunez, ez nolanaiko eliz-buruzagiak!

Ola zegoan "origeneskeriaren lenen auzia" esan oi zaion eztabaida, Jeronimo origenezalea, eta Salamina'ko Epifanio origeneskeriaren etsai bizkorra alkarrekin bildu ziranean. "El fervor origenista de Jeronimo debió de enfriarse ya en los contactos con su amigo S. Epifanio" (GER). Ala dirudi, berealaxeko gertakizunek erakusten digutenez.

Epifanio'k Salamina'tik bidali zien ordezkari baten bidez, Origenes'en aurkako azalpen bat izenpetzea eskatu zien Jeronimo'ri eta Rufino'ri. Rufino au ezaguna zaigu: naiz Jeronimo'ren errikide eta ikasketakide izan, orain baiño len ere Jeronimo'ren aurka idazten ikusi dugun ura bera dugu. Orain Palestina'n bizi zan, au ere aren ikasle bezala ezaguna dugun Melania andre erromatar aberatsak eraikitako lekaidetxe batean.

Jeronimo'k arrera baiezkorra egin zion Epifanio'ren eskariari. Rufino'k ordea ez zuan Epifanio'ren ordezkari ura bere aurrean artu ere.

Geroxeago, Salamina'ko Doneepifanio bera etorri zan Palestina'ra. Ez zan oso adiskidetsua izan Rufino'k eta origenezalea zan Jon Jerusalem'go gotzaiak egin zioten arrera.

Gauzak okerragotzeko Epifanio'k, Jon gotzaiari deus esan gabe, apaiz sagaratu zuan Pauliniano Jeronimo'ren anaia, eta arrazoi txepel au eman zion Jon gotzaiari bere ekintza oker ura zuritzeko: Basamortuko lekaide aien artean bi apaiz bazirala, Jeronimo eta beste bat, baiñan bi apaiz auek ez zutela, apaltasunaz, mezarik ematen, meza-emateko gai ez zirala uste zutelako, eta, orregaitik, an norbaitek meza eman zezan, Pauliniano sagaratu zuala apaiz.

Batere baliorik gabeko arrazoaia, Epifanio'k an jurisdiziorik ez zualako, zearo kanon-legearen aurka egindako sagaraketa izan bait zan ura.

Gauza askoz larriagoa izanen zan gaiñera, "Catholicisme" iztegiak diona egia ba'litz: "Il fut ordener par S. Ęrpipthane son frre Paulinien": "Jeronimo bera izan zan Epifanio Deunari Pauliniano bere anaia sagaratuerazi ziona".

Santuek ere, itxututa, egin oi dituztela zuzenak ez diran gauzak! Zorionez, Elizaren bizia ez dago bere Santuen santutasunean oiñarritua!

Epifanio'k, Jon gotzaiaren baimenik gabe, Origenes'en aurka jarraitu zuan omilietan eta lekaideen arteko itzaldietan: Origenes, "Ario'ren aita eta gaiñerako ereji guztien sustraia" omen zan.

Jon Jerusalem'go gotzaiak, Epifanio'k egindako Pauliniano'ren sagaraketa ura baliorik gabea zala, esaten zuan. Epifanio'k berriz origeneskeri-zale izatea botatzen zion aurpegira Jon gotzaiari. Asarre zebiltzan bi gotzaiak. Gauzak okerrago ipintzeko, Jeronimo sartu zan tartean Epifanio'ren alde.

Jeronimo'ren inguruko jendeek arriturik zeuden onen aldaketa ikustean. Len Origenes'eri, "genio inmortal" (Jedin) eta "Aposto-

luen ondorean Eliza-baitan irakaslerik aundiena" esaten zion Jeronimo ura bera ote zan oraingo Jeronimo au? Gogoan zeukaten nola idatzi zuan bein asarre, "porque se habfa procedido en Roma contra Origenes no por la novedad de sus tesis, no por herejfa, como entonces pretextaban contra 61 perros rabiosos, sino por que no podfan soportar la fama de su elocuencia y de su saber" (Ib).

Zer izan ote zan Jeronimo'ren aldakuntza oren zioa? Origenes'en miresle izatetik Origenes'en ain arerio gogorra biurtzeko? Egia ote da Jedin'ek dioskun au? "Este giro de 180 grados solo parece poderse explicar por el temor del dirigente del monasterio de Belën, de poder incurrir también 61 siquiera en la mfnima sospecha de desviaci6n de la doctrina ortodoxa". Santuek ere izaten bait dituzte beren akatsak.

Santua zan Salamina'ko Epifanio ere, baiñan santu izanda ere, bere jurisdiziotik at zebillen Palestina'n "ce trublion d' piphane" (Marrou) "Epifanio lardaskatzaille au", Jon bertako gotzaiaren aurka sermoiketan eta, okerragoa dana, apaiz sagaraketan.

Jon Jerusalem'go gotzaiak, Errroma'ra idatzi zuan Epifanio'ren eta Jeronimo'ren jardunkeraren berri eman ez. Errroma'n Jeronimo'ren aurka asi ziran lanean, onek an utzitako etsai ugari aiek danak. Jakin zuan ori Jeronimo'k eta, bere izaera sutsuaren araura, "compuso un panfleto mordaz y ofensivo contra el obispo de Jerusal6n al que echaba en cara su soberbia y su origenismo" (Jedin).

Zorionez, Jon gotzaiak eskatuta aspaldidanik Palestina'ko borroka ura baretu naiean zebillen Alexandri'ko Teofilo'k lortu zuan pakea, eta oraingoz beintzat eskua eman zioten alkarrri, len ain adiskide izandako Jeronimo'k eta Rufino'k. Alatagutziz, bereala ikusiko dugun bezala, ez zan Teofilo ura batere konfiantzazko gizona.

Rufino, Errroma'ra itzuli zan, Palestina'n lekaide lez 25 urte igaro ondorean, eta eraspén aundiz eman zitzaion ongietorria. An, Origenes'en alde aritu zan itzegiten eta idazten, Origenes'en liburuetan agertzen diran geiegikeriak, liburu aietara gero lotsagabe

batzuek iruzurkeriz sartuak zirala esanez. Egia ez dan gauza, naiz agian Rufino'k orrela uste ez.

Gaiñera, Panfilo Doneak eta Zesarea'ko Eusebio'k idatzitako "Origenes'en Aldeko Apologia" eta Origenes beraren liburu bat, "Peri Arjon" itzuli zituan, eleneratik latiñera. Liburu oni, "De Principiis" esan zioten lateraz. Euskeraz, "Oiriarrietaz" esan genezaioke: Teologiaren oiñarrietaz, jakiña.

Azkeneko itzulpen ontan, Origenes'en geiegikeri aietako batzuk kendu edo aldatu egin zituan Rufino'k. Baiñan ez berak esaldi berriak sortuz, Origenes'en beste liburuetatik artutako esaldi zuzenak oker aien lekuetan ezarriz baizik. Merezimendu ederreko lana!

Itzaurrean onako au esaten zuan:

Itzulketa ura egitean, eta artarako erabilli zuan eran, "laterara Origenes'en 70 itzaldi baiño geiago itzuli zituan eta oraindik itzulketa geiago agintzen zituan gizon aundi aren lana jarraitu besterik egin nai izan".

Danak aditu zuten Erroma'n "gizon aundi" ura Jeronimo zala, "aunque no tenemos motivos para suponer que con aquella alusión tuviera la menor intención de censurarlo. Por eso se sintió tanto más afectado cuando se enteró de que algunos amigos romanos de Jerónimo lo habían puesto al corriente en Belén" (id).

Izan ere, "tos, empleando de medios sospechosos, habían echado mano a la traducción todavía no revisada ni autorizada por Rufino para la publicación, y la habían enviado a Palestina" (id). "En un momento en que las relaciones de Rufino y Jerónimo se habían suavizado, la indiscreción, echando leña al fuego de estos amigos de Jerónimo es manifiesta" (GER).

Ona zer esaten zioten, GER'ek gazteleratua: "Por cierto que muy sutilmente en la prefación a la obra, hizo el intérprete (Rufino'k) mención, sin nombrarte, de tu santidad, afirmando que lleva a cabo la obra por tí prometida y dando a entender, de soslayo, que tu sientes de la misma manera. Limpia, pues, la

sospecha de la gente y refuta al que te acusa, no sea que, si disimulas, des la impresiÓN de que asientes".

Bi adiskide auek, Jeranimo'ren ikasketakide ezagutu dugun Pammakio aristokrazikume ura eta Ozeano izeneko beste bat ziran: santuak biak. Pammakio'k bere diru guztiak sosik gabeko jendearentzat babestegi bat eraikitzen urtu zituan, eta an bizi zan bera, bere eskuz gaixoak zaintzen.

Santuen artean izan zan beraz borroka ura dana. Bi adiskide auek "Peri Arjon"en egiazko itzulpen bat eskatu zioten. "Afiadfan maliciosamente que Rufino se expresaba como si b1 y Jeronimo coincidieran en sus juicios sobre el tebloglo Alejandrino" (id) .

Oartuko ori esatean Origenes aipatzen zutela, alexandri-tarra izan bait zan teologilari aundi ura.

Bereala bete zuan Jeronimo'k adiskide aiek eskatzen ziotena. Eta itzulpen berri arekin batera, una carta escrita muy conforme a su carcter vehemente, en que trataba a Rufino de mentiroso, doblado, perjuro y aun hereje" (Llorca) bidali omen zien bi adiskide aiei.

Ez da egia. Bi eskutitz bidali zizkien Jeronimo'k: Bi adiskide beraientzat bata, Rufino'rentzat bestea. Rufino'ri idatzia, aski goxoa, ain, (Catholicisme), "pol&iiste violent" zan Jeronimo'k etsai bati egiña izateko, naiz ziriren bat edo beste sartu, "Jerusalen'en bir-egin zuten pakerik ez duala urratu nai" esaten bait zion.

Bestea bai, gogorra zan bestea, Pammakia'ri eta Ozeano'ri idatzi ziena. "Con excitacin y virulencia" (id) astintzen zituan ba bertan Origenes'en miresleak "aren geiegikeri arriskutsuak onartzean erejira jausten zirala" esanez.

Orain egin zuten Pammakio'k eta Ozeano'k egin daitekean txarkeririk aundienetako bat. Jeronimo'k Rufino'rentzako idatzi zuan eskutitz goxogo eta paketsuago ura gorde, eta Jeronimo'k Rufino'rentzat ez bere adiskide auentzat idatzitako zakar eta gorroto-sortzaille au eman zioten Rufino'ri.

Zerbait arrigarria gertatu zan orduan Ejito'n. Ordurarte origenezalea izan zan Teofilo Alexandri'ko gotzaia, bat-batean,

Origenes'en etsai amorratua biurtu zitzaigun. "Es de notar que el cambio no parece haber obedecido en primer lugar a motivos teoldgicos, sino a dificultades de orden disciplinario con monjes del desierto de Nitria" (Jedin).

Izugarri origenes-zaleak izan ziran Sortaldean lekaideak, eta ainzuzen bi adiskide aundi, Rufino eta Jeronimo ber-bera, Salamina'ko Epifanio'rekin alkartu aurretiko Jeronimo ura, izan ziran Lekaideen artean, batez ere lateraz mintzatzen ziran lekaideen artean, origenestasun ura geienik zabaldu zutenak:

"Los dirigentes de los dos cenobios latinos (de Palestina) Jeronimo y su amigo Rufino, habfan contribufdo notablemente con sus traducciones de homilfas de Orfgenes, a la propagacidn en el ambito latino, sobre todo dei ideal de espiritualidad del tedlogo de Alejandria" (Id).

Jeronimo'ren aginduz, bere Belen'go lekaidetxeko lekaide batek, Kremona'ko Eusebio'k, Origenes'en geiegikerien zerrenda bat aurkeztu zion Anastasio Aitasantuari, eta Jeronimo'k berak bere eskutitzetako batean idatzi zuanez, "gaitzetsi omen zituan Anastasio'k, aurkeztuak izan zitzaizkion birao batzuk, eta berak bildutako beste batzuk".

Ordurako, "junto con Pammaquio y Marcela, Eusebio de Cremona se habia convertido en Roma en uno de los mas activos y desaprensivos agitadores contra el prestigio teoldgico de Orfgenes y de su traductor Rufino" (Jedin).

Gaitz egin zioten Jeronimo'ri Erroma'ko bere lagunek: "Sus amigos romanos, los que le tenfan informado de lo que ocurrfia en Italia, no escapan a la sospecha de incitadores del animo inflamable del solitario de Beln; la versidn que le dieron a Jeronimo en la cuestidn de la traduccidn de Orfgenes es manifiestamente garcia]" (GER).

Arriturik gelditu zan Rufino, bere liburutik atera zala esanez Aitasantuari aurkeztu zitzaion esaldi bat gezur ustel bat, "una burda falsificacidn" besterik ez zala jakin al izan zuanean, eta bereala,

bere burua babesteko, "Anastasio Erromar-Uriko Gotzaiarentzat Apologia" idatzi zuan.

Ez dirudi Atanasio'k erantzun zionik. Onen alde idatzi-bide zion Jerusalem'go Jon'i, eskutitz batean "Rufino'ren auzia, Rufino "beraren kontzientziaren gain eta Jainko epaillearen eskuetan utzi bear zala" esaten bait zion. Erantzun baldarregia, Aitasantu batek emana izateko.

Ez zuan Rufino'k Jeronimo azturik utzi. Bera, Jeronimo'k gutun batean idatzi zuan bezala erejea ez zala aditzera emateko, "Jeronimo'ren Aurka Nere Buruaren Apologia" izeneko liburu bat argira eman zuan:

"Este libro que vino a ser un rudo golpe contra el cabeza del monasterio betlemita, y pone al descubierto su inconsecuencia en el enjuiciamiento de Orfgenes asf como la frivolidad con que sus amigos romanos pretendfan manejar la verdad" (id).

"El entero escrito de Rufino rezuma su profunda decepciÓn por su antiguo amigo, que en lugar de examinar por escrito con ei en dialogo fraterno las faltas y deficiencias de su trabajo, le habia colgado inmediatamente el sambenito de hereje y, por si esto fuera poco, habfa sido el promotor de la campafia difamatoria desplegada contra el en Roma" (id).

Berealaxe eman zioten Pammakio ta Marzela'k, Jeronimo'ri liburu onen berri, bere muiñaren xeetasun batzuk ere bidaliz. "Apologia Adversus Libros Rufini" zekarren izen, Jeronimo'ren erantzunak. Iru liburu ziran. Bigarrena, Rufino 'rena eskuetara iritxi zitzaionean idatzia. Ez zaitez nerekin asarretu, Jedin'en iritzia, osooan ematen ba'dizut:

"En elegancia de exposiciOn y en ironfa mordaz el escrito de defensa de Jeronimo es claramente superior a la apologfa de Rufino, mientras que si se atiende al contenido, es uno de los mas deplorables ejemplos de polemica teoldgica. Jeronimo no se enfrenta con la crftica verdaderamente sÓlida de Rufino, o a lo sumo trata de desvirtuarla con meros sarcasmos.

"Son muy desagradables sus invectivas contra su amigo de otrora, como cuando dice que el estilo desgarbado de Rufino revela que escasamente habla ido a la escuela, aunque también en los libros de los ignorantes hallan todavía lectores. Jeronimo pone en tela de juicio sin el menor escrupulo la sinceridad de la profesión de fe dirigida por Rufino al papa Anastasio, y compara su argumentación con las artimañas de una zorra".

Rufino'k, galdua dugun eskutitz baten bidez erantzun zion. Orregaitik ez dugu aren azkeneko itzik ezagutzen, il arte, zearo isilik gelditu bait zitzaigun arrezkero.

410'ean il zan, Sizili'n.

Jeronimo'k, aren eriotzaren berri jaso zuanean, alaiki, onako itz iguingarri auek idatzi zituan: "Ahora yace por fin el escorpidón aplastado bajo la tierra de Sicilia, ahora cesa por fin de silbar la hidra

"El espectáculo que estos dos hombres de fe ortodoxa ofrecieron al mundo cristiano fue lamentable. (GER). Larritu eta aspertu zuten Ipona'ko Augustin Donea bera. Ona zer esaten zion Jeronimo'ri GER opusdeitarrak gazteleratutako eskutitz batean: "Te confieso haber sentido profundo dolor de que tamaña calamidad de discordia haya podido darse entre personas tan caras y familiares, unidas por un lazo de amistad que era conocidísimo de casi todas las Iglesias".

Jeronimo eta Augustin'en arteko arremanak ez ziran beti goxoegiak gertatu. Begirune aundia izan zion Augustin'ek. Aren kulturaren aunditasuna eta sakontasuna ezagutzen bait zituan. Maiz idazten zion, batez ere Bibliari-buruzko arazoetan aolkua eskatuz.

Bein ordea, Jeronimo'k Paul eta Kepa'ren arteko asarreari (GaI. 11, 11-14) ematen zion adierazpenarekin bat ez zetorrela esanez gutun bat idatzi zion Augustin'ek.

Jeronimo'ren etsaien poza berbiztuz, asko zabaldu zan eskutitz ori, Jeronimo'ren eskuetara bide okerretik iritxi baiño len. "Esa carta llegó a manos de Jeronimo por caminos indirectos, provocan-

do una vez más su enojo". Asarretu zan Jeronimo. "En su respuesta did rienda suelta a su mal humor.

Adiskidetu ziran berriro, ordea eta, naiz beñere alkar ikusi ez, andik aurrera adiskide zintzoak izan ziran: "Se apreciaban mutuamente" (ib).

Esan dugu Pelajio'ren aurka ere borroka egin zuala Jeronimo'k. Egia esan, bere denbora'ko ereje guztiei eraso zien oiturazkoa zuan b izkortasunez.

Ala oiue egin zuan, Miren Josu'ren Amari neskustasuna ukatzen zion Elbidio'ren aurka;

Kristau-jende landerraren eraspén errikoa,-- adibidez santuenganako eraspén jentiltasunetik etorria zala iduritzen zitzaioke, eraspén errikoa gaitzesten zuan Bijilantzio'ren aurka; Birjintasuna ezkontzaren gainetik ez zegoala esaten zuan Jobiniano'ren aurka...

Eta, „nola ez?, aro artako okerkeririk aundiena zan pelajikiariaren aurka ere bizkor egin zuan oles.

Alatagutziz, Jeronimo'k ez zion teologiari aurrera bultzatu, "ez bait zitzaigun teologiaren arloan oldozketari izan, ordurarte bestek landutakoen ezagule oparoa baizik, eta klasikoen erabilketan eta bibliaren eta agoz-agozko kristau-jakintzaren azalpenean yayo": "Jerome's characteristic is his extensive erudition, especially his control of the classics, the Bible and Christian tradition" (Enc. Brit.).

"Pentsalari sakon bat baiño geiago jakintzetako xeetasun-argitzaile yayo": "He is a learned scholar rather than the deep thinker" (ib).

"Lengoa-gordetzaille sendoa geiago, teologiarentzat uler-bide berrien billatzaille baiño": "A sound traditionalist and not a speculative theologian"(ib).

Ulerkera berrien atzetik ez ibilli nai izate orren itzala iristen zaio, bere bibliari-buruzko ekintzaraiño. Oridalata, ederki orraztu eta egokitutako bibliaren liburuak argitara ematen yayoagoa da Bibliaren exegesi edo azalpena egiten baiño": "more competent as editor than as exegete" (ib).

Egia. Baiñan esaldi oiek idaztean "Encyclopaedia Britannica"k ez du gogoan euki Jeronimo bizitu zan aldiko giroa. Erejiak pil-pil zeuden une ura, ez zan teologiaren arloan egi zarren itxura berriak billatzen ibiltzeko garaia. Ezta bibliari dagozkionetan azalpen berriak emateko edo ulerpide berriak idorotzekoa ere.

Berrikeri okerrez betetako erejeen teologiari aurpegi emateko, Elizaren teologia ongi eta ziur ezagutzen zuan, eta, ezagutzen zuan ari era egoki dotorean emateko gai zan gizon bat bear zan orduan. Eta ori izan zan Jeronimo.

Teologiaren oiñarria, "Tradizio" edo "Agoz-Agozko Jakintza Donea", eta, bereiziki, Biblia dira. Orduan ordea, Bibliaren aldetikoa zan batez ere arazorik larriena. Biblia erabiltzen bait zuten erejeek beren okerkeriak babesteko. Bearrezkoa zan beraz garai artako teologiari bibliaren aldetik oiñarri sendo bat ematea, eta, ori, iñork ez bezala egin zuan Jeronimo'k.

Egia da iñor ez bezala zegoala ortarako gertutua: Latera eta eberkeraz gaiñera, ederki ezagutzen bait zituan Juduerri eta Kaldea'ko izkuntzak ere.

Ortaz gaiñera, arras adimen zorrotzeko, kultura txit aundiko, eta lanerako zaletasun sendoko gizona izanik, izugarritzko lana egin zuan, orduan ain bearrezkoa ikusten zuan bibli-araztasunaren billa.

Ortarako nekatzeke saiatu zan biblia idatzirik zegoan larruki zarren billa. Eta larruki oiek begien aurrean zituala egin zuan biblia egokiagotzeko fan arrigarria. Auek dituzu bere egintzarik bikaiñenak:

- Berak aurreneko aldiz itzuli zuan, eberkeratik, Itun Zarra.
- Berak aurreneko aldiz zuzendu zituan elenerazko larrukien araura laterazko Lau Ebangelioak.

- Bera da, lateraz "Vulgata" esan zitzaion laterazko Bibliaren egillea. Damaso Aitasantuaren aginduz asi zuan eginketa ori, ordurarte Sarkaldean erabilli oi zan "Italica" esaten zitzaion itzulpena akats geiegiz beterik bait zegoan. Orduetzkeru, gero Trento'ko Kontzilioak legezko egin zuan "Vulgata" ori izan da lateraz, Sarkaldeko Elizak erabilli duan Biblia.

Asko idatzi zuan Jeronimo'k-eta, esan dugu bere liburu guztiak aipatzerik ez dugula. Baiñan, bai, aipatu bearrak ditugu bere eskutitz ugariak, "Edestilari, biblilari eta teologilarientzat, jakintz-iturri kilikagarriak" bait dira: "Exciting source for historian, scripture student, and theologian" (Enc. Brit).

420'ean iI zan Jeronimo, ikasle nekazeziña aurrena, izugarri langille porrokatua gero, bere egunetako giroak teologi-sakontze edo "espekulaziora" jotzea eragozi zion adimen txit argiko jakintsua, idazti ugari dotoreen egillea, ea, beti, bizitza !atzeko lekaidea, ta, beti beti, jenio txarreko santu aundia.

IPONA'KO AUGUSTIN DONEA.- "Zer balio dute Beastei'ko Loentxo'k eta Ibarre'ko Barttolo'k, Berrobi'ko gure San Agustin aundi onen aldean"? oiuegin omen zuan pulpittutik erriko pestetan Berrobi'ko apaiz jaunak, meza nagusiko sermoiean ari zalarik.

Ez dakit Berrobi'ko apaiz jaun arek Berastegi'ko San Lorentzo'ren eta Ibarra'ko San Bartolome'ren aunditasunen berri zeatzik bazuan, baiñan San Augustin'en aunditasun berdingabea ondo ezagutzen zuala, ori beintzat bai, argi utzi zigun ori Berrobi'ko apaiz erretore jaunak.

Ez zebillen ortan oker. San Augustin bait dugu Elizaren Donerik bikaiñenetako bat, "kristaudi zarreko oldozlerik aundiena"; "is generally recognized as the greatest thinker of Christian antiquity" (Enc. Brit.).

Erromatarren Hippo Regius edo Hippona, Numidi zeritzan Probintziaren itxas ertzean zegoan. Gaur-egun Arjeli'rena da Tunezi'ren alboko uri zaar ura. Bone izen-eman zioten frantziarrek. Orain, arabieraz, Annaba deritza.

Uri ortako gotzaia izan zan Donaugustin 396'tik 430'era. Jaio, berriz, Ipona'tik bederatzi leguaz egoaldera zegoan Tagaste urikoxkorrean; 354'ko azaroaren 13'an.

Berrogei ta bi urte zituan beraz Donagustin'ek Ipona'ko gotzai sagaratu zutenean. Zurrumbillo ugariz betetako 42 urte zaratatsuak.

Urte oiek ezagutzeko, Donaugustin'ek berak idatzitako "Aitorpenak" ditugu, eta, bere ondorengo jardunkera ezagutzeko berriz, "Retractationes" edo "Zuzenketak" deritzan idaztia. Berak idatzia au ere.

Konfiantza osoa merezi duten liburuak dira. Alare, onako au kontuan euki bear dan gauza da: Biografi bat ez dirala. Soilki, bere pekatuak Jainkoaren aurrean agertzen dituan pekatari baten aitorpena dirala, eta, orregaitik, ez digutela Augustin'en bizitza osoki ematen.

Zorionez, Augustin beraren itzaldiek ere zertzelada ugari ematen dizkigute, beraien egilleari-buruz. Eta, gaiñera, Augustin il da bereala, bere ikasle batek, Kalama'ko Posidio'k idatzi zigun aren bizitza, eta liburu onek ere baiki merezi du gure uste ona.

Augustin'en aita, Patritius, gizartean erdi-maillako gizona, jentilla zan, eta jentilla iraun zuan bizitza guztian, iltzear zegoalarik bataiatu zan arte. Benetako kristaua berriz Donemonike bere ama, fede errikoieko emakume erritar xaloa.

Amak erakutsi zion otoiketan, eta "les impressions que lui laissrent ses premires prires ne s'effacent jamais de son coeur", "lenengo otoitz aiek utzi zioten aztarna goxoa ez zan sekulan bere biotzetik urrundu" (Catholicisme)

"Monica was a Christian of intense but simple piety from whose early teaching Augustine retained a reverence for the name of Christ that never ieft him" (Enc. Brit. Azpimarraketa, berea): "Monika, erlijiotasun irmo baiñan arrunteko kristaua izan zan. Berak irakatsita gorde zuan Augustin'ek, beñere galdu ez zuan Kristo'ren izenaganako eraspem bereizia".

Eta gero, semea lizunkerira aurrena eta gero sinispide okerretarra jausi zitzaionean, otoi ta negar etenik gabe aren Jainkoaganako itzulpena eskatzen itxaropena galtzeke etenik gabe ari izan zalako, arrazoi guztiz uste izan zuan Donanbrosio'k Augustin'en salbatzaillea aren ama, Monika Donea, izan zala.

Egia, noski. Baiñan alatagutziz, orduango oituraren bidetik Augustin ez zan umetan bataiatua izan. Katekurnenoen zerrendan idatzia, bai. Baiñan bataiatua, ez. Amabi urte betetzean, gertutu omen zan bataiorako; dirudianez, semea bataiorik gabe azitzen ari zala ikustean, bere ama aski urduri zebillelako.

Une artan ordea, mutikoa eriotzaren atariralho eraman zuan urdailleko gaitz makur batek atzeratuerazi zuan aren bataioa. Eta, orrela, erabat gelditu zan atzeraturik, mutiko arek berak, gizon egiñik, Milan'go Anbrosio Donearen itzaldien bidez argia lortu ondorean bataioa eskatu zuan arte.

Azkoz leenago ordea, orandik mutiko gaztea zalarik, lenengo eta bigarren mailleko ikasketetan ederki ikusterazi zuan bere adimenaren zorroztasuna. Bere inguruko guztiak oartu ziran ortaz.

Nola gaiñera oartu ere! "The modest family funds were banked upon securing him an academic career such as might qualify him for government service" (Enc. Brit.): "Bere sendiak zituan txanpon urriak mutiko aren eziketean ziran korrituan jarriak. Jaurlaritzaren serbitzurako mutilla gaitu zezakean unibersitateko ikasketa eman nai izan bait zioten gurasoek".

Bigarren maillako ikasketak Madora'n bukatuta bere jaioterrira itzuli zan, eta urte bete egon zan emen, goi-maillakoak asi aurretik. "L'anne assez cisoeuvrée passa alors i3 Thagaste lui fut tout 4ards funeste: elle coincide avec le premier eveil des passions et ses parents ne firent pas grande chose, semble-t-il, pour le surveiller" (Catholicisme).

Euskeraz:

"Aski kaltegarria izan zitzaion alde guztietatik, ia deus egiteke Tagaste'n igaro zuan urte ura. Ta, lenengo griñen sorkuntzako aro artan, gurasoen aldetik zaintza askorik izan zuanik ez dirudi".

Ori oso errez, errezegi, esandako gauza dala derizkiot. Izan ere zer egin zezakean jentil baten semea zan mutil gazte zail batekin lizuntasunezko mundu artan Monike gaixoak?

Alare, mutil ura ez zan era nabarmenean esan oi dan bezain okerra. "After an adolescence that probably was no more licentious

than was common in his tiene and country he had formed a liaison with a woman of low berth to whom he remained loyally attached throughout the nine years of his association with the Manichaeans": (Enc. Brit.).

Euskeraz:

"Augustin'en gaztaroa ez zan seguruaski bere denborako eta bere errialdeko mutillek oiturazkoa zutena baiño lizunagoa izan. Gero, jatorri apaleko emakume batekin alkartu zan, eta manikerizaleen artean igaro zituan bederatzi urteen luzaroan, leial izan zitzaion beti emakumezko ari". Seme bat ere izan zuten. Deodato ipiñi zioten izena.

Ez zan gizaseme alperra ere. Emeretzi urte zituala iritxi zan Kartago'ra, eta an Ian egiñez borobiltzen zuan ikasketa nagusietarako bearrezkoa zuan dirua.

Ez zan aragikerian murgildutako gizon loitua ere. Alderantziz, bizkorra zuan goi-bizitza aratzerako apeta bizia. Katolikotasuna ordea, agian bere ama kulturik gabeko emakumea zalako, ez zitzaion kulturazko gizaseme batentzat egokia iruditzen. Era ortan bizi zala, bein, Kartago'n, gure aldi ontara iritxi ez zaigun liburu bat jausi zitzaion eskuetara: "Hortensius". Filosofizko Iiburua. Zizeron'ek idatzia,

"Izugarrizko zirrara sortu zion liburu orrek. Filosofirako zaletasun sutsua. Baiñan filosofi ura ez zan egiaren billa ibiltze utsa, mundukeriei jaramonik egiteke egiari **begira bizitzearen** ederragotasunaz maitemintzea baizik".

Ikus aapaldi ori Iztegi orrek damaigun bezala: "He was profoundly stirred by the reading of a treatise of Cicero (the now lost "Hortensius"), with a entuhusiasm for "philosophy", which meant not only a devotion to the pursuit of truth but a conviction of the superiority of the life so devoted (the **vita contemplativa**) over any aims of secular ambition". (Azpimarraketa, berea).

Goi-bizitzarako zaletasun ori, ta neska batekin alkarturik bizitza, bata bestearekin zailki konpondu daitezkean gauzak dirala?

Bai gureztat baiñan ez aldi aietako jentillentzat. Eta jentilla zan orduan Augustin.

Oroi, era berean bizitu zala jentilla izan zalarik Doneelene Kostantzio Kloro inperatore izango zanarekin alkarturik, eta era artan bizi zala eman ziola Kostantino inperatoreari sortzea. Mailla ezberdiñen arteko ezkontza gaizki ikusia bait zan aro aietako gizartean.

Orregaitik, beste alkartze aiek, benetan eta asmo zintzoz egiñak ziranean, ezkontzen antzeko zerbait bezala ikusiak izaten ziran: legeztasunik gabeko ezkontzak, baiñan gizarteak ontzat artzen zituanak.

AIa, Doneelene'ri zintzoa izan zitzaion Kostantzio Kloro... inperatoretzara igoa izan zan arte. Eta zintzoa izan zitzaion Augustfn ere bere neskari..., kristau biurtu zan arte.

Manikerian ase nai izan zuan Agustin'ek bere goi-bizitzegarria. Ain adimen argiko gizaseme ura nola manikeriak atzi aal izan zuan jakiteko, ikusi dezagun nolakoa zan IV mendearen azkenean Afrika'ko manikeriaren aurpegia:

Ontasuna ain ederra eta gaiztotasuna ain zakarra iduritzen zitzarzkioiako, gaiztotasunaren sort-iturria aurkitu naiean zebillen eta "ontasuna" eta "gaiztakeria" iturburu bat beretik nola sortu zitezkean bere buruari galde zegion filosofilari gazte ari, ona zer erako erantzunak ematen zizkion manikeriak:

- Bat ez baiña bi dira izate ororen iturriak. Ona bat: "Argia". Gaiztoa bestea: "Illuna".

- Izadia, Argiaren eta Illunaren arteko borrokaren ondorioa da.

- Gizakumea, Argiaren eta "Illuna"ren ekintza da; anitua, Argiak sortua da, baiña "Illuna"k sortutako soñean baiturik dauka.

- Kristo da gizakumearen salbatzaillea bakarra, (Afrika'ko manikeri ura oso "kristo-zale agertzen bait zan IV mendean).

- Nola salbatzen zuan Kristo'k gizakurtea? Anima bere soñaren katigutzatik yaretuta Argiaren erreñurako bidean

- Bi mailla beintzat bazituan Manizaleen Elizak. Goiko maillakoei "Electi",ots "Autatuak" esan oi zitzairen, eta ezkontza debekaturik zeukaten, gorputzari atsegiña, eta, gizakume berriak sortuz, "Illuna"ri anima berriak gorputzezko espetxeetan baitu aal izateko egokitasuna ematea bait zan.

Augustin, bere neskarekin "ezkondurik" zegoalako, ez zan goi-mailla ortara iritxi. Beeko maillan gelditu zan. "Auditores", "Entzuleak" esaten zitzairen mailla ontakoei, eta ezkontzea zillegi uzten zitzairen, okerragora jausi gabe beren "auleriaren" sendagaillu izan zezaten.

"But his zeal for this **religion of enlightenment** (azpimarraketa berea) did not last long" (ib), "'baiñan ez zion luzaro irauan argitasunaren erlijio onentzako zaletasunak". Manikeriko irakaslerik yayoena ez ziran bere galdeei erantzuna emateko gauza izan: "Jainkoa zer da"? "Eta gaiztotasuna? Zer da gaiztotasuna"?

Kartago'n erretorika erakustez utzita Erroma'ra joan zan, eta Milan'era Erroma'tik, an ere erretorika irakastera. Bildu zitzaion irakasle-sail zintzo bat.

Milan'go gotzaia, Donanbrosio zan, une artan kristaudiko jakintsurik aundiena.

Norbaitek, agian bere semearengana etorri-berria zan Monike'k bidea gertututa, itzegin zuan Augustin'ek Anbrosio'rekin. Baiña ez zan bi gizandi aien artean berealako adiskidetasunik sortu.

Alare maiz-maiz joan oi zan Augustin Anbrosio'k bere elizan eman oi zituan itzaldiak entzutera. Oso atsegiña gertatzen bait zitzaion aren itzegiteko era bikaiña.

Baiñan , Alexandri'ko Teologi-Eskolan oiñarritua bait zan bereiziki Anbrosio'ren teologia aren izkerari zerion platontasun-doiñu gozoak poztutzen zuan eztiki Monika'ren seme edertasun-zale biotz-bera.

" Anbrosio'ren omiliak entzute au izan zuan Augustin'ek kristau jakintsu batekingo bere lenen topaketa. Naikoa katolikotasunaren aurka gorderik zeuzkan kezka guztiak ezbaiean ipintzeko": "He

went to hear him preach, and this, his first contact with the mind of a Christian intellectual, was enough to shake his prejudice against Catholic teaching" (ib).

Baiñan ez zan bat-batean katoliko biurtu. Ta, manikeriari bai, manikeriari uko egin bait zion, jainkorik gabe gelditu zitzaigun, aldi batez beintzat: "ateo" borobilla, "Jainkoa zer izan zitekean", eta "gaiztotasuna zer ote zan" bere buruari galdezka.

Alatagutziz ordea, **izpirituzko** bizitza garden baten billa zebillen. Sakon sartu bait zitzaion manikeriak giza-soiñari, eta giza-soifiari dogokion guztiari zion gorroto zipotza. Oro, manizaleentzat gorpuzki oro zala gaiztoa; eta, bereiziki, giza-gorputza.

Egoera ortan Ambrosio'ren itzaldietako platontasun-usaia ain atsegiña zitzaion gazte urduri garbitasunzale ari, Plotino platontasunberritarren liburuak eskuratu zizkion norbaitek, eta liburu aien irakurketan murgildu zan egiaren egarri. Platon'ez, platontasunberriaz eta Plotino beraz itzeziñak gera.

Ona, Augustfn gazteak Plotino'ren platontasunberrian aurkitu zituan gogai nagusiak:

Jainkoa "BAT"a da. Ez, soilki, Jainkoa bat bakarra dalako, baizik eta, denboren asieran izaki guztiak Jainkoagan zeudelako.

- Izakiak ez dira Jainkoak egiñak, Jainkoagandik isuriak baizik.

(Esan dezagun gogapen ori argitzeko, platontasunberritarren ustez, uraren gaindik laiñoa eta eguzkiaren barrendik argi-printzak irtetzen diran bezala irten zirala izaki danak Jainkoagandik).

Izaki oiek danek badute berengan "BATA"ren, zertasunetik zerbait, bere gurean oro jainkotasuna, "panteismoa", izan bait zan platonberritasuna.

- Zenbat eta "BATA" gandik urrutiago, gero ta txikiagoa izakien "BATA" rekingo zertasunkidetza. Izaki guztiak "BATA"ren inguruan eraztunak bezala eraturik bait daude.

- Eta "BATA" bait da "ONDASUNA", izaki bat zenbat eta "BATA"rengandik bertago, orduan da ontasun geiagokoa, orduan da santuagoa. Gaiztotasuna beraz, "BATA" gandik urrunduz,

"BATA"rekingo zertasunkidetza galtzen joatea besterik ez da. Gaiztotasun orokorra, berriz, "BATA"rekingo zertasunkidetza zearo galdu izatea.

Jainkoagana jo bear zuan beraz Augustin'ek, ontasuna lortu nai ba'zuan.

- Eta egitasun oro "BATA" gan dagoalako, obeto esan, egitasun orokorra BATA bera dalako, gaiztotasuna, "BATA" gandiko urruntasuna izanik, egitasunik-eza da; gaiztotasun orokorra berriz, egitasunik-ez orokorra: gezurtasun utsa.

- Era berean, izate oro ere "BATA" bait da, gaiztotasuna izatea galtzean datza. Gaiztotasun orokorra, izate oro galtzea da: "ez-izatea", izatetasuna galdu izatea: utsa. "BATA" gandik urruntzean, egiazko "izatea", ots, "errealitaea" galdu izatea.

"Unum, verum, et bonum convertuntur", "bata, egia eta ona, gauza bat dira", esango dute gero filosofilari kristauek beren metafisian. Gogai ori, platontasunetik jasoa zuten eskolastikatarrek. Gogai orri jarraituz, aurkitu zuan Augustin gazteak bere galdeetako bati erantzun egokia:

- Zer da gaiztotasuna? --galdetzen zion bere buruari.

- "Eztasun" utsa: egiarik-eza, benetako izaterik-eza, ondasunik-eza, erantzun zemaion platonberritasunak.

- Zer daiteke beraz, ontasuna? Izate betea, Egi osoa eta Ontasun orokorra dan Jainkoagana urbiltzea.

- Nola ordea Jainkoagana urbildu?

Platontasunberri zaleek, Jainkoagandik bertena dagoan izakia izpiritua dala esaten zuten, eta urrutiena dagoana gorputza. Gorputzari uko egiñez izpirituzko bizitza egin bear zuan beraz Augustin'ek orain Jainkoagana urbildu nai ba'zuan.

Orra or, gaiztotasunari zegokionez nola azken unean bat egiñik bezala ikusten zituan Zizeron'en "Hortensius", Plotino'ren liburuak, Donanbrosio'ren itzaldiak, eta manikeritarrek gorputzari-buruz erakutsi ziotena.

Bide-gurutz ortatik, nora jo?

Bein, lore-baratzean oldozketa oiek iraultzen zebillela, bere barrendik abots batek "tolle, lege", "Ar'zak, "Irakur'zak, oiuegin omen zion, eta urbillena zeukan idazki bat artuta, Donepaul'en Epistoletan, erromatarrentzat (13,13-14) idatzitako itz auek irakurri omen zituan, berak "Aitorpenetan" dioskunez:

"Ibilli gaitezen zintzo, egunez bezala, ez ordea jan-edanetan, ez lizunkerietan, ez lasaikerietan, ez alkarrekin ziztaka eta alkar ikusi-eziñez; baizik eta soñekotzat jantzi ezazute Josukristo, eta ez izan aragiaganako apetarik, ez zaitezten aragi-griñaz asetu naiean ibilli".

Orra or nola zetorkion Paul Donea bera, Zizeron eta Plotino eta Mani bezala gorpuzkerietatik iges eginda izpiritu utsezko bizitzara jo bear zuala irakasten!

Bere adimen zorrotzari ta bere orduango naimen zuzenari eta Ambrosio'rekingo adiskidetasunari eskerrak, Augustin'ek idoro zuan bide zuzena. Ez zan Zizeron'en filosofikeri uts politean gelditu. Urrundu zan Plotino'ren orojainkotasunetik eta utzi zuan atzean Mani'ren mitokeria.

Baiñan bere baitan kokaturik gelditu zan betirako, manikeriak erakutsi zion gorputzaganako gorrotoaren aztarnatxoa. Uxatu zuan beregandik manikeriaren mamua, baiñan barruan gelditu zitzaion mamu orren isatsaren puntta.

Eta okerragoa dana, isuri zuan manikerizko ttantto ori Elizaren edestira. Ttantto ortatik sortuko dira gerontzean gogorkeriaganako zaletasun guztiak. Ttantto orrek igitu zuan Martin Luter XVI mendean, eta ttantto orretzek berak ats eman zien XVII'ean Jansen olandatarrari eta Saint-Cyran'go abata euskaldunari. Ta, gaur ere, lurrindua ote dugu betirako ttantta gaitz-ekarle ori Elizaren altzotik?

Doneanbrosio aipatu dugu, Augustin'en laguntzaille. Eta Donemonike aztu zaigu. Baiñan semeari bere ama laguntzaille bikaiña gertatu zitzaiola ukatzerik ez dago.

Semearen idaztietan agertzen danez, Monike, naiz kulturik-eza, adimen argi ta zintzoko emakumea izan zan. Eta orrelako pertsonak

errez jakin oi dute, bizitzari dagozkionetaz, kultura aundiko pertsonak aña. Baita geiago ere maiz aski.

Ainzuzen, bere amarekin, eta ikasle-talde batekin batzartu zan lagun baten land'etxera, an bakartasunean bere burua kristautzen jarraitzeko. Arras era politean idatzi zizkigun "Aitorpenen" zazpigarren eta zortzigarren liburuetan orduango bere barren-borrokaren xeetasunak. Irakurri eitzezu. Ikusiko duzu nola alde guztietatik platonberritasuna darioen.

Berdin gertatzen zaie bere aurreneko beste idaztiei; eta, baita, naiz neurri txikiagoan, bere bizitza guztikoei ere. Ez da arritzekoa. Gero Akino'ko Tomas Doneak Aristotele'n filosofia erabilliko duan bezala, Platon'ena erabilli bait zuan Augustin Doneak kristautasuna zientzi-eran agertzeko.

Urte bete geroago, 387'an, Donanbrosio adiskidearen eskuetatik artu zuan pozez beterik Augustin'ek bataioa. Aundia ba'zan bere poza, ez zan txikiagoa izan Anbrosio 'rena. Eta zer esanik ez Monike'rena. Ekintza artan, bera bait zan egiazko garaillea.

Ama-semeak, Milan utzita Erroma'ra jetxi ziran, andik Afrika'ra joateko asmoz. Erroma'ren kai-uria da, Ostia (euskeraz Atari) deritzan uria. An il zan Monike. Ama bertan obiratuta, Kartago'runtz abiatu zan semea, ikasle-taldetxo ura lagun zuala. Eta Kartago'tik Tagaste'ra. An, otoi eta garbai, lekaide bizitzara jo zuan berelagun aiekin.

Ordurako irakurriak zituan Augustin'ek basamortuetako lekaideen albisteak. Eta arriturik uzten zuten lekaide bakartasunzale aiek, aragikeria nola garaitu zuten erakusten ziotelako.

Bere erritarrek ordea ez zioten luzaro bakartasunean bizitzen utzi.

Iporia'ra joan bearrean aurkitu zan bein. An, erriaren eskariz, ez zuan apaiz-sagaraketa artu beste irtenbiderik izan. Bein apaiz sagaraturik, laguntzailletzat artu zuan Balerio bertako gotzaiak.

Bost urte geroago, illa zan Balerio, eta, ostera erriak ala nai izan zualako, aren gotzai-aulkian eseri bear izan zuan Augustin'ek.

Gotzaia, garai artan, batez ere Afrika erromatarrean, ez zan soilki Eliz bateko artzaia, irakasle eta profeta. Bazan erlijioari--buruzkoak ez ziran auzietarako epaille nagusia ere.

"The presiding judge in a much-frequented court of summary jurisdiction in civil cases" (ib): "Maiz lanean ari bear izaten zuan almen garaieko epai-gela bateko auzi sekularretan epaille nagusia" ere bazan gotzaia, I Kostantino ezkerreko Eliza ta Laterria bat egiñik egotearen ondorioz.

Eliz-barruan ere izan zuan zer-egiñik aski. Numidi'n, erri txikietan batez ere, baiñan baita uri aundiago batzuetan ere, kristaurik geienak donatitarrak bait ziran. Azaldurik utzi genituan donatikeriaren bi ezaugarriarik nabarmenenak: Pekatuan dagoan apaiz edo gotzai batek egindako sakramentuen baliorik ez zuala uste izatea, eta donatiar danek martirirotzari izan zioten maitasuna eta aietako askok martiri-iltzeko izan zuten apeta.

Donatikerizaleek nagusi ziran Numidi artan ainzuzen zeuden, ugari, ia-ia bezpera arte Augustin'en lagunak izandako manikerizaleak. Eta an zebiltzan sortu-berriak ziran pelajiotarrak: Augustin'ek ain irmo oiukatzen zuan Jainkoagandiko graziaren bearra, mugatuz eta kimatuz, ia-ia osoan ukatu ere egiten zuten Pelajio'ren jarraileak. Baziran, oraindik, bizirik, beste ereji zaar batzuen aztarnak ere Augustin'ek bere zaintzapean artu zuan eliz-barrutian,

Eliz ura bizkortzea eta txautu ta garbitzea, eta Eliz artara erejelmultzo artatik al zuan jendetzarik aundiena erakartzea izan zan Augustin'en aurreneko lana. Ondo naasia zegoan benetan Afrika'ko Eliza.

Ainbeste erejiz pattaldurik, ez da arritzekoa izango berreun urte geroago ain errez maometarren ankapera jausita zearo ezabaturik gelditu izatea.

Laister Ipona'ko Elizaren mugetatik aruntz Eliz osora luzatu bear izan zituan bere ardura ta bere kezkek, bazter guztietatik idazten bait zioten argi-billa. Danei erantzuten zien. Bere gutun ugarietatik berreun iritxi zaizkigu, gutun luzeak, batzuek liburuxka baten neurria ondo bete dutenak.

Eliz osoari begira idatziak ditu bere liburuak ere. Zenbat? Asko eta asko. Larogei eta amairu aipatzen ditu berak, "Retractationes" ("Zuzenketak") deritzanean. Liburu oietetaik asko oso-oso mardulak dira.

Idazte-lan ortaz gaiñera, eten gabe aritu zan itzaldi eta itzaldi bere ardiak argitzen eta bizkortzen. Bere itzaldietatik, bost eun iritxi dira gure egunotara.

Jarri dezagun lanketa orren alboan len aipatu dugun arazo sekularren epaiketa-lana... eta kontuan are dezagun, Augustin beti arras osasun auleko gizasemea izan zala..., eta galde bat jeikiko zaigu gure barnetik: Nola egin aal izan zuan beti erdi-gaixo ibilli zan gizon arek lan ori guztia?

Iru doai bereizi izan zituan ortarako gizon arrigarri arek:

- Izugarrizko kultura zabala. Alakoa izan bait zan bere adimenaren indarra. Nonbait irakurria dut Edestiaren luzaroan bi izan dirala adimenik aundienak: Platon'ena bat: Augustin'ena bestea. Adimenen neurketa, orde, oso gauza zailla dala derizkiot.

"Gauzak bat-batean egoki, txukun, eta dotore, esateko iñork ez bezalako yayotasuna. Ori egiztatzeko baditugu arek egindako bosteunen bat itzaldi": "Extraordinary capacity for the extempore formulation of ordered thought, of which approximately 500 sermons remain as proof"(ib).

Alare "ez zuan orrenbeste idazterik izango, bere serbitzura une oroz "taki-grafo" edo "arin-idazle" talde bat izan ez baTu": "His literary output was made possible only by the constat services of stenographers" (ib).

Augustin'en liburuak, beraz, ez ditugu berak astiro-astiro, gauzak luzaro eta sakonki pentsatuz egiñak. Ez zituan gaiñera berak idatzi. Gure bertsolariak beren bertsoak kantatu bezala, esan egin zituan ark bere liburu aiek: itzetik ortzera, esan. Eta, bere arin-idazle talde arek, lumaz larrukietara jaso.

Gero, Augustin'ek berak, apika idazti aiek kixaz irakurtzeko betarik izaten zuan. Ez zuan beintzat zuzenketa sakon bat egiteko beiñere astirik eta atsedetik aurkitu, bere bizitza guztian.

Zaturik, azkeneko urteetan, bere eginkizun ugarien artean billatu aal izan zuan tartetxo labur bat, "Zuzenketak" deritzan liburuia amaitzera iristeko.

Alatagutziz... ain dira politak ain dira txukunak, ain dira dotoreak, ain dira sakonak eta era berean gozoak Augustin'en liburuak! Ez zebillen gaizki, ez orixe, ez zebillen ain gaizki bere sermoiean, Berrobi'ko apaiz erretore jaun ura.

* * *

Ainbeste idatzi zuan Augustin'en liburu guztiak aipatzerik ez dugu. Orregaitik, aren oldozbideak azalduko ditut emen al dugun argien eta laburki.

Oldozketaren arloan, beste ororen gaindik, teologilari izan zitzaigun Augustin. Alatagutziz ez zuan, gero Donetomas'ek egingo zigun bezala, Jainkoagandik artua dugun jakintzaren atal eta arazo guztiak aztertuz, liburu-talde batean Teologi Oso bat idatzi. Alderantziz, bere garaieko Elizari argi emateko bearrezkoak zituan arazoak bakarrik ukitu zituan.

Baiñan arazo oiek ain sakonki aztertu eta ain egoki agertu zitualako, izugarria izan da mendez-mende Elizaren teologian bere teologi-lanek izan duten, eta oraindik duten, eraginmena.

Augustine'n teologiaren barne-muiña, Jainkoagandiko grazia da.

- Gizakume orok bearrezkoa du Jainkoaren grazia. Gizakumea ordea grazi ori galduta jaiotzen da.

Ez ordea, Platone'k uste izan zuan bezala beste mundu batean, jaiio-aurretik, pekatu bat egin zualako, ez; gure gurasoek munduaren asieran egin zuten pekatua gurekin dakargulako baizik. Gizadiak asieran egindako oben ura, gaurko gizakumeen obena ere zergaitik eta nola izan daitekean? Orra or Graziari-buruzko lenen misterioa.

- Kristo'k gurutzean lortu eta *guri* bataioak ematen digun barkapenaren bidez garbitzen zaigun jatorrizko oben ori.

- Bataioak, jatorrizko obenaren barkapenez gaiñera, asieran gizonak izan zuan Jainkoaren Grazia bir-ematen digu.

- Grazi ori, munduaren sortzea, Kristo'ren etorrera, Kristo'ganako sinismena bezala, Jainkoaren doai utsa da, guk iñolaz ere gure arioz merezi ezin dezakeguna.

Bein bataioa-bide gizakumea Jainkoaren Grazian, grazi ortan pekatuan erortzeke grazi ortan jarraitzeko eta grazi ortan azitzeko bearrezkoa du gizakumeak berriro Jainkoagandiko grazia, grazi ori gabe, gauza on bat egitea pentsatzeko ere, berez gaitasunik ez bait du.

- Grazi oiek, berak nai duanari eta berak nai duan neurrian eman oi ditu Jainkoak.

Ori gaizki ulertu izatetik aria artuta, iritxi zan Kalbino ondoreng') bere Jainkoaren nagusitasunari-buruzko bere arrazoi-keten bitartez "praesdestinatio" edo "aurre-autaketari"-buruz ezagutzen diogun uste okerrera. Batzuek alegia zerurako eta beste batzuk inpernurako aurre-autaturik jaiotzen dirala uste izatera.

- Alare, argi esan zuan Augustin'ek, "Jainkoak mundu guztia salbatzea nai duala", "salbatzeko bearrezkoa dan grazia Jainkoak gizakume orori ematen diola", eta "facienti quod est in se Deus non denegat gratiam" "dagokiona egiten duanari Jainkoak ez diola grazirik ukatzen". "Dieu qui veut la salut de tous les hommes, ne refuse a personne les grkes ricesaires pour la salut" (Catholicisme)

Dakusazunez, Grazia da Augustin'en teologiaren muiña: Grazia da Jainkoak gizasemeari emandako doai nagusia. Jatorrizko obenaren ondorioz galdutako grazi ori gizakumeari bir-emateko egin zan Jainkoa bera gizon. Grazi orren bidez betiko zorionera iritxi aal izateko, grazian bizitzea da gizasemearen eginkizun nagusia.

Baiñan gizakumea ez daiteke grazian bizi, ez dezake grazian bizi nai izate utsarik ere bere naimenean piztu, aurretik Jainkoaren grazia etortzen ez ba'zaio.

- Jainkoaren grazirik gabe gizakumea grazian bizi-nai izateko ere gauza ez ba'da, nun dago gizakumearen askatasuna? Orra or, graziari

buruz, bigarren misterio aundia. Lutero'k misterio ori argitu naiean, argitu ez baiña ezereztu egin zigun misterioa, izadizgaindiko gauzetarako gizakumearen askatasuna ukatuz.

Donagustin'ek, izadizgaindiko misterio orok berezkoa duan illuntasunaren barruan, tinko aitortu zuan gizakumearen egiazko askatasuna: "C'est Dieu qui opere en l'homme *le vouloir et le faire*: et bien que l'homme soit libre, c'est la grke de Dieu seule qui lui vaut la recompense de siel" (ib): Jainkoa da gizonagan naia eta egitea dagiana. Ta, naiz gizakumeak, (ekintza oietan) askatasunik galdu ez, Jainkoaren grazia da zeruko saria ematen diona".

Alare, gizakumea, grazi orri bere laguntza ematera bearturik dago. Alatagutziz, bai garrantzi eta bai denboraz ere, gizakumearen ekintzaren aurretikoa da Jainkoaren ekintza, ots, Jainkoagandiko grazia.

Graziaren nagusitasun eta alguztitasun ori gaizki ulertu dutelako erori oi dira zabarkerira eta lizunkerira, XVII mendeko Molinos aren antzera Jainkoak bere grazia eman dionarentzat pekaturik ez dala erakutsi duten guztiak.

Gizakumearen askatasuna eta graziaren leenagokotasuna konpondu naiean ibilli zitzaizkigun XVII mendeko iñakitarrak eta domingotarrak. Baiñan, Elizaren altzoan asarre zitala sortzeaz landa,ez zuten ezer besterik lortu eta ez zuten ezer konpondu. Molina iñakitarraren edo Bañez domingotarraren adimeneko ipurtargiak ezin bait dezazke Jainkoagandiko izkutuak argiratu.

Aitortu bearra da, graziari ematen zion garrantziak, naiz garrantzi ori egiazkoa izan, geiegikeri batzuetara eramane zuala gure Donaugin. Adibidez, bataiatu gabeko aurrak inpernura galtzen dituenean. "Tortores infantium" esan oi zaie Augustin berari, eta Bossuet'ek bezala ari jarraitu ziotenei: "Aur-oiriazelariak".

Era berean, "Jainkoak mundu guztia salbatzea nai duala" eta "jentillak lex naturalis edo izadi-legea betez salbarnena lortu

dezaketela", idatzirik utzi duala aztuta, bataiatu gabeei "massa damnata", "inpernurako multzoa", esaten dienean, aur bataiatu gabeak inpernura galtzerakoan bezala oker ibilli zan gure Augustin. Ta bide oker ortatik jarraitu ziotelako erakutsi zuten jantsenitarrek Kristo ez zala gizadi guztiaren onerako

Baiñan alatagutziz, garai artan oraindik teologilarien izkera, eta pentsaera, zearo ziurturik ez zeudela erakusten diguten akats oiek kenduta, Donaugustin izan zan, benetan, "Graziaren Teologilaria", eta gaur-egun graziaren teologia, Augustin'en teologia da.

Teologiaren beste atal guztiak graziaren ispilluan ikusi zituan. Ala adibidez Eliza, Kristo'k, bere gorputz aragizkoaren bidez irabazitako merezimenduak zabaltzeko asmatutako gorputz mistikoa.

Orregaitik, gorputz mistikoi orren Burua da gorputz mistikoi orren barrungo santuei grazia ugariagotzen diena eta pekatarietara gratia bir-ematen diena, Eliza, mundu ontan santuz eta pekatarietara osotutako Izaki Santua bait da.

- Orregaitik, gizakume sakramentu-egillea santu izan edo pekataria izan, berdin balio dute sakramentuek, gizakume santu edo pekatari oiek ez baiña Kristo bera bait da, gizakume oien bitartez, sakramentua egiten duana.

Eliza ez da santua bere eliztarrak santuak ditualako, bera santutasun-emaillea dalako baizik. Are geiago, Kristo ^sk ala nai izanda, santutasun-emaille bakarra.

Donatiarren aurka idatzitako liburuetan agertzen dituan gogai oiek berak darabilki "Jainkoaren Uria" izeneko liburuan:

Bi uri omen dira munduan: Jainkoaren uria eta deabruaren uria. Jainkoaren uria eta deabruarena batean eta nasirik bizi dira mundu ontan, eta bata besteagandik bereizterik ez dugu, gaur Jainkoaren urian bai bait dira biar deabruaren urira igarota arekin galduko diranak, eta gaur deabruaren urian bizi diranetatik ere bai bait dira Jainkoaren urira etorrita betirako salbatuko diranak.

Munduaren azken-epaiketan egingo da beinbetirako bi urien bereiztasuna.

Jainkoaren uria Eliza da. baiñan deabruaren uria ez da naitanaiez Erroma'ren Inperioa, naiz alde ortatik ere, esan dugun edo esango dugun bezala, inperioaren erorketarekin Eliza ere eroriko zala, eta Elizaren erorketarekin munduaren azkena iritxia zala uste zuten kristauei, Eliza inperio guztien gaindik illezkorra dala oiukatzearekin on aundia egin eta atsedetik aundiena bir-eman zien Augustin'ek.

Teologilari izateaz gaiñera filosofilaria ere izan zitzaigun Augustin. Baiñan bere erako teologilari eta filosofilaria. Augustin'ek ez bait ditu, "egia", "ona" eta "ederra" ikusi bakarrik egin nai; bereganatu eta atziki eta gozatu egin nai ditu bereiziki.

Orregaitik arrazoiaren indarra aiña erabilliko du sentimenaren eragiña. Era berean baliatuko da arrazoiaren argiz ez eze, sinismenaren goi-argiz ere filosofigintzarako. Eta txoko guztietan ikusiko du Jainkoaren erraiñaua.

Ala adibidez, ezagunmenaren egiztasuna aztertzerakoan ere onako auxe esaten digu:

Adimenak zerbait ziurki ezagutzeko almenik ba'duan edo ez jakiteko, asi gaitezen almen ori ba'duan edo ez pentsatzen eta pentsatzen asten geran une berean oartuko gera almen ori baduala.

Pentsatzen astean, pentsalariak, pentsatzen ari dala, beraz bera zerbait badala, zerbait pentsatzen duala, eta zerbait nai duala ezin bait dezake zalantzan ipiñi. Baiñan, bereala, "izate", "ezagutze" eta "nai izate" oietan Jainkoaren Irutasun Donearen aztarna idoroko digu.

Bere barnean ordea argi sumatzen bait du gizakumeak bere aalmen utsez eta mundu ontako gauzen bitartez, izatearen osotasuna, ezagutzearen betetasuna eta nai-izatearen asetasuna betetzeko gauza ez dala.

Ta, ezintasun orrek, beregandik eta inguruko mundutik gora, Jainkoagana jasoko ditu Augustin'en adimena ta biotza. "Zuretzak egin gaituzu, Jauna, eta urduri da gure biotza zugan atsegiña lortzen ez duan arte".

"Verus philosophus est amator Dei", "Jainko-maitalea da egiazko filosofilaria" idatzi zuan "Jainkoaren Uria" izeneko liburuan. 430'ko dagonillaren 28'an joan zan bera, ainbeste maite zuan Jainkoagan aurki nai izan zuan azken-atsedenera.

Ipona'n il zan. Ordurako bandaliarrek inguraturik zeukaten Ipona'ko uria. Ari zan betetzen Augustin'ek aurre-iragarririk zeukan Inperio Erromatarraren jausketa. Zutik dirau orde, berak betikoa dala erakutsi zuan Elizak.

ERDIPELAJIKERIA

Erdipelajikeria, eta baita pelajikeria ere, Jainkoagandiko Graziaren inguruan sortutako iritziak izan zitzaizkigun. Zearo misterio ulerkaitz aundiko gauza da guretzat Jainkoagandiko Grazia, bai bere izaeran eta baita, bereiziki, bere jardunkeran ere.

misterio ulerkaitz orren atea iriki aal izateko sortu ziran giltzak ditugu bai pelajikeria eta bai erdipelajikeria ere.

Alperrik sortutako giltzak. Gizakumeak ez bait dugu jainkota-sunezko misterioak ulertzeko gaitasunik aski.

Baiñan, guk orain atal ontan ibilliko dugun biderako izan ditzagun, egokia derizkiot, irakurleak agian azturik daukan dotritiean ikasi zituan galde-erantzun batzuk danon gogora erakartzea.

"Grazia zer da"? galde egiten zuan kristau-ikasbideko liburutxoak. Eta erantzun:

"Jesukristo gure Jaunak guretzat irabazi-ta zeruratzeko ematen zaigun zerutar emaitza da grazia.

"Zenbat eratakoak dira graziak?"

"Bi eratakoak, batez ere, dira graziak: donetzaillea bata ta Iaguntzaillea bestea.

"Zer da grazi donetzaillea?"

"Gizona Jainkoaren seme eta zeruaren jabegai egiten duan Jaungoikozko izaki bat da grazi donetzaillea.

"Grazi donetzaillea bearrezkoa aI da?"

"Zerua iristeko ta gure egintza on guztiak sarigarri eta ordaingai izan ditezen, naitanaiezkoa da grazi donetzaillea.

"Zer dira grazi laguntzailleak?"

"Pekatua utzi ta ona egiteko guztioi Jaungoikoak ematen dizkigun laguntzak dira grazi laguntzailleak.

"Grazi laguntzaillea bearrezkoa al da?"

"Grazi laguntzaillea bearrezkoa da: **bera gabe ezin dezakegu, ez asi, ez jarraitu, ez bukatu, zerurako on danik ezertxo ere**".

Azkeneko itz oien azpimarraketa nerea da. Or bait dago auzi guzti onen kakoa.

Jainkoaren grazi laguntzaille ori aurretik artu gabe, gizakumeak ez dezake zerurako on danik ezertxo ere egin. Ezta gauza on bat egiteko asmorik artu ere. Ezta asmo on ori artzerik pentsatu ere... aurretik Jainkoak grazi laguntzaille ori ematen ez ba'dio.

Grazi laguntzailleak ordea bi erakoak dira: "Gratia efficax", bata, "grazi utseziña"; "gratia sufficiens" edo "indarririk askiko grazia". Azkeneko onek ez du fruturik emango. Beste ark, utsik egin gabe, beti dakar bere frutua. Grazi laguntzaille "efficax" auen artean aurrenekoa eta aundiena, zerurako predestinazio edo aurre'aukeraketa da.

Grazi "efficax" edo utseziña, ez da utseziña gizakumeak erantzuna ematen diolako. Beste "gratia mere sufficiens" ura ere ez da fruturik gabe gelditzen gizakumeak erantzunik ematen ez diolako. Baizik eta, gizakumearengana iritxi baiño len, Jainkoaren eskuetatik ateratzen diran une berean dira diran bezalakoak: naitanaiez frutua eman bear duana, bata; naitanaiez fruturik eman gabe gelditu bear duana bestea.

Esan-berri dugun orren araura, eta ori kristau sinispideko egia da grazi "mere sufficiens" aiek bakarrik artzen dituan gizakumea, ez da beiñere salbatuko. Bai ordea beste grazi "efficax" aiek artzen dituana.

Iritxi gera misterioaren atarira. Ez dugu barrura sartzerik izango. Baiñan urbildu gaitezen geixago misterioaren atera.

Jainkoak ez ote du gizakume guztiak salbatzerik nai? Bai. Jainkoak gizakume guztiak salbatzea nai du, eta gizakume guztiak salbatzeko il zan Josu gurutzean.

Ori ordea nola lortu fruturik ekarri ez dezaketen grazi "mere sufficiens" aiek bakarrik artzen dituan gizakumeak?

Jainkoak norbaiti grazi frutuerkargaitz oiek bakarrik ematea, ez al dago Jainkoak gizakume guztiak salbatu nai izatearen aurka?

Orra or misterio onen lenengo atala. Bai bait du beste bat ere.

Beste motako grazi "efficax" aiek naitanaiez ematen dutela frutua, esan dugu. Ori ordea, egia ote da? Bai. Egia da ori. Gizakumeak ez dezaioke grazi "efficax" bati ezetzik esan. Non dago orduan gizakumearen askatasuna?

Orra or misterioaren bigarren atala.

Eta ona berriz misterio bikoitz orren ondorioa:

Grazi "efficax" utseziñak artzen dituana naitanaiez salbatzen ba'da eta grazi "mere sufficiens" utsak artzen dituana naitanaiez inpernura joaten ba'da, ez al da Jainkoa bera batzuk zerura jaso eta besteak inpernura ondatzen dituana?

Ez. Inpernura dijoana, bere erru utsez dijoa inpernura; Jainkoaren graziari erantzun ez diolako. Eta zerura dijoana, Jainkoaren graziari erantzun diolako dijoa zerura.

Erdiaroan eztabaidarik gabe sinistu zuan kristaudiak Jainko-graziari eta giza-askatasunari-buruzko misterio bikoitz ori; ots; gizakumearen askatasun orokorra ezerezten ez duan Jaikoagandiko "gratia efficax" en naitanaiezko eraginmen utsezinkorraren misterio sakon ulerteziña. Irutasun Donearen misterioa sinisten zuan bezala.

Aro berrian, Argikuntza edo "Ilustrazioaz" gero asi ziran teologilariak, iñakitarrak eta domingotarrak bereiziki misterio ori ulerterrezagoa egin nairik azterketa lan gogorrean.

Ona iñakitarrek asmatu zuten irtenbidea: Jainkoak, gertakizunak ezagutzeko, iru jakintza-mota omen ditu. Iru jakintza oietako baten bidez, gertatutako gauzak ezagutzen omen ditu; bigarrenaren bidez, gertatuko diran gauzak. Eta bi gauza oien arteko beste gauzak, ots, gertatuko liraken gauzak ezagutzeko, beste irugarren

jakintza ura erabiltzen omen du. Irugarren jakintza orri "scientia media" esaten diote: "erdikoentzako jakintza."

Jakintza orren bidez bai omen daki Jainkoak onako gizakume onek orrelako baldintzetan graziari zer erantzungo lioken, eta baiezkoa erantzungo liokela ikusten ba'du, "gratia efficax" bat ematen omen dio; "gratia mere sufficiens" bat berriz, ezezkoa erantzungo liokela ikusten ba'du.

Domingotarrek, iñakitarren oldozkera orrek salbapenaren sustraia gizakumearen naimena egiten duala, oi u dagite. Eta egia diotela dirudi, Jainkoak, grazi-mota bat edo bestea eman erabakitze-ko "scientia media" aren bitartez gizakumearen erantzunari begira egon bear duan ezker.

Baiñan domingotarrek beraiek aska-bide obeagorik aurkezten ez dutelako, eta Elizak iñakitarren ori ontzat arturik daukalako, zuk eta nik ere artu dezakegu ontzat, kontzientziko kezkarik gabe.

Baleike gaiñera graziaren naitaneiezkotasunaren eta giza-askatasunaren arteko auzi ori adimenaren arlokoa baiño irudime-naren amets-barrutietakoa geiago izatea. Berez naitanaiezkotasuna ez bait dago askatasunaren aurka.

Adibidez, naitanaiezkoa dugu il bearra. Baiñan askatsaun osoz, eta baita poz aundiz ere, artu lezake gizakumearen naimen yareek eriotzaren ordua. Orrela artuko luke Donepaul'ek bezala "cupio dissolvi et esse cum Christo", "Il egin nai dut Kristo'rekin izateko", oles dagian kristau orok.

* * *

Pelajio'ren ondorean auldu ez baiña zuzpeltu egin zan Pelajike-ria. Zosimo Aitasantuaren entziklika ura ez bait zuten Itali'ko emezortzi gotzaiek ontzat artu nai izan. Aien artean bat, Julen dugu, Itali'ren egoan zegoan Eklano uri txikiko gotzai gaztea; bereala danen buruzagi izango zana. Onorio'k Itali'tik erbesteratu-rik, Sortaldera joan bearrean aurkitu ziran danak.

Gure Julen ura, Donepaulino nolatarraren eta Augustin Donearen adiskide izandako Memor zeritzan gotzai baten semea zan. Emilio Benebento'ko gotzaiaren alabarekin ezkondua zegoan. Grezi'ko eta Itali'ko elerti ta filosofian ederki ezia izan zan, eta gazterik urbildu zitzaigun pelajiokerizaleen aldera.

Orain, ereji ura berbiztu nairik, gogor ekin zien Augustin doneari, eta baita Jeronimo Doneari ere, ortarako, ain yayoki erabilli oi zuan izkera trakets isekalari zakarra erabilliz:

Jeronimo'ren idaztlak, nortasunik gabeko umekeri utsezko liburu par eragilleak besterik ez omen ziran. Augustin berriz "patronus asinorum", "astoen buruzagi" bat omen zan. Eta, aberetalde bat besterik ez, aren jarraileak.

Augustin'en aurka italiarren abertzaletasuna esnaerazi naiez, Errroma'k Kartago'rekin izandako guduak gogoratueraziz, "sus invectivas contra Agustfn no conocfan lfmites, ni los de la justicia ni los del decoro. Recurrió incluso a los sentimientos nacionalistas romanos, pretendiendo que el emprendfa una nueva guerra pÚnica contra un peligroso grupo de africanos que querfan imponer dogmas extraños a la Iglesia de Italia: se trataba por tanto de librar a esta Iglesia de la opresi6n de bandidos africanos" (Jedin).

Mín eman zion Augustin'i lagun baten semeak zegion erdeiñuak, baiñan bizkor erantzun zion aren arrazoiketa okerra gezurtatuz.

Julianok jatorrizko obena ukatuz edo beintzat oben ari bere garrantzi guztia txikertuz, oben aren ondorioak ukatzen zituan, lateraz "concupiscentia" esan oi zaion "okerrerako joera" bereiziki, eta "peccatum originale" edo "jatorrizko obenari" "peccatum naturae" ots "izadiaren obena" esatearen etsai porrokatua agertzen zan.

Amabi urte iraun zuan, Julen gaztearen eta Augustin zaarraren arteko eztabaida latzak.

Txit egokia deritzait Henri Marrou edestilariaren iritzi au:

"Il n'est pas douteux, que trop souvent le vieil evque d'Hippone, accule a une position deferisive, n'ait ete amene sous la

pression de son implacable adversaire a raidir sa garde, u durcir sa pens, u utiliser des formules qui Upassaient peut-tre sa conviction profonde et certainement la foi authentique professe par

"Si celle-ci n'a cesse de v&i&er en lui le Docteur de la Grâce, il est bien vrai qu'elle s'est toujours tenue en desa de certaines majorations contenues dans ces traits antipëlagiens; qu'il y ait eu iii au moins l'amorce d'un l'erreur ou s'engagent tant de leurs lecteurs l'atteste, de Gottschalk a Jansënius, en passant par Wycliff, Luther at Baius".

"Ezpairik gabeko gauza dugu, Ipona'ko gotzai zaarra bere burua babestera bearturik aurkitu zala; eta babesketa ori tinkotzearren, etsai kupidagabeko ark bultzatuta bere oldozkera geiegi gogortzera eramana izan zala; ta era berean izan zala, bere baitako pentsaera seguruaski eta Elizaren egiazko sinispidea ziurki urratuz, esakera ez-egokiak erabiltzera beartua.

"Elizak, Donaugustin'i Graziaren Doktorea esanaz jarraitzen ba'du ere, pelajikeriaren aurkako aren liburu auetan aurkitzen diran geiegikeriak ez zaizkio beñere atsegiñak izan; geiegikeri oiek, gutxienez, arrisku baten azia baziran; ori adierazten digu geiegikeri oiek, Gottschalk'etik Jansenio'ra, Wicklef, Lutero eta Baio bitarteko dirala, ainbeste irakurle okerkerira jausi izateak".

Egia aapaldi oiek diotena. Naiz Donaugustin'ek eskierki bere geiegikeri oiei zentzu okerrik eman ez, berez, geiegikeri oiek predestinaziokeri-usai aundia bait dute, eta Jainkoaren graziak gizakumea, onen aldetiko erantzunik gabe salbatzen duala sinistuerazi bait dezakete.

Eklano'ko gure Julen Sortalderuntz joan zan Itairtik erbesteratua izan zanean. Zilizi'n Mopsustrko Teodoro'ren alboan aurkitu zuan babes, eta au il zitzaionean, Kostantinopla'ko Nestorio gotzaiarenean. Kostantinopla'n zeuden amabi gotzai adiskide italiar aietako batzuk eta baita Zelestio ere. Andik ordea II Teodosio Sortaideko inperatoreak erbesteratuta alde egin bearrean aurkitu ziran.

Arrezkero Zelestio'ren berririk ez dugu. Amabi gotzai aietako batzuk, barkapena eskatuta, itzuli ziran Elizaren altzora. Julen'ek "feigning repentance" (Cath. Enc.), "damu-itxurak egiñez" Eklano'ko gotzagoa bereganatu nai izan zuan berriro. Alperrik, Ez bait zion 111 Sisto Aitasantuak eskari ori ontzat artu. Sizili'n il zan 450'garren urteaz gero, "olvidado de todos y en la miseria" (Llorca).

Sortaldean ez zuan Julen'ek ezertxo ere lortu, gizakumeari eta gizakumearen askatasunari eta gaiñerako giza-almenei buruzko arazoak, ez bait zaizkio beiñere Sortaldeari ajolagarriak iduritu.

Sarkaldean bai, sarkaldean, oiek, azterketa gai kilikagarriak izan dira beti, Ori dalata, Sarkaldean, Afrika'n eta Galietan sortu zitzaigun egiazko "erdipelajikeria,

* * *

Augustin'en geiegikeri aiei, "augustinkerla" esan oi zaie, eta bere gunea, salbatu bear dutenen aurre-aukeraketa edo predestinazioa da. Onatx zer dan augustinkeria, Augustin'en azkeneko irizpidearen araura:

- Jainkoak betidandik aurreaukeratzen ditu salbatu nai dituanak.
- Jainkoak aurre-aukeratutako oiek bakarrik salbatzen dira.
- Jainkoak ez du inñor inpernurako aurre-aukeratzen. Ezta pekatu egitera bultzatzen ere. Soilki, zerurako ez ditu gizakume guztiak zerurako aurre-aukeratzen.

Eta, ainzuzen orretxegaitik joango dira oiek danak inpernura: Zerurako aurre-aukeratuak izan ez diralako. "La condenaci5n afecta a los rēprobos no por un acto positivo de predestinaci6n al pecado, sino de resultados de no haber sido elegidos" (Jedin).

Jainkoak salbamenerako aukeratu dituan oiek, oso gutxi dira, Ebangelioak berak dioskunez: "multi enim sunt vocati, pauci vero electi": "Asko dira deituak, gutxi ordea aukeratuak" (Mt 22, 14). Eta ori adierazten omen digu kristautasunean bertan zintzoki bizi diranak zeñen gutxi diran ikuste utsak ere.

Idazti Doneek ordea argi erakusten dute Jainkoaren naia mundu guztia salbatzea dala. Augustin ez zitzaigun gauza izan, bere aurreaukeraketa ertsi ura, Idazti Doneen zabaltasun orrekin konpontzeko. Bere ikasle batek egin zuan ori: Done Fuljenzio'k, Afrika'n zegoan Ruspe uriskako Gotzaiak.

Gizon onek, azken-azkeneko mugaraiño eraman zuan augustinkeria. Augustin'ek berak, bere azkeneko urte oietan, maiz zuzendu zituan bere sermoietan etsaien aurkako idazkietan esandako geiegikeri aiek. Ez zan berdin mintzatu izlari bezala eta borrokalari bezala. "En Agustfn se hallan contradicciones, no asf en Fulgencio". Defendiá a Agustfn llevando adelante su doctrina hasta las tltimas consecuencias aunque sin exagerarlas. Con una Idgica implacable y sin ceder a ninguna clase de consideraciones".

Ona Fuljenzio Doneak Augustin'en geiegikeriei erantsitako beste geiegikeri larriago batzuk.

- Jainkoak mundu guztia salbatu nai du. Egia. Baiñan orrek ez du au besterik esan nai: Jainkoak mota guztietako jendeak salbatu nai dituala. Ots: jatorri guztietatik, erreñu guztietatik, gizadi--mailla guztietatik..., gizon eta emakume, aur ala agure, naiz jakintsu naiz arlote, danetatik aurre-aukeratzen dituala Jainkoak zerurako.

- Lenen gurasoen obena, gizakume guztiengana igarotzen da, ernalketarako gurasoen alkartze-bidez. Gizakume guztiak dira beraz obendun eta, orregaitik, danak jaiotzen dira inpernurako.

Orretxegaitik ainzuzen joaten dira inpernura bataiorik gabe iltzen diran umeak ere.

Geiegikeri oiei erantzuna ematera etorri zan ainzuzen, bera ere, arazoaren beste aldetik, erejira jausi zan erdipelajikeria.

Erejeek beti jende biurriak izan dirala uste dutenek arriturik entzungo dute ereji onen sortzailleak eta babesleak anitz gizon santuak izan zirala, bizitza arrigarriki santuko lekaideak. Bi izan ziran garrantzitsuenak:

- Martsella'n bi lekaidetxe sortutako Jon Kasiano, "natione scita", ots, gaurko Errumani'ren iparretik aruntz zegoan Esziti'n

jaioa. Barbaritarra beraz, baiñan Kostantinopla'ra, Ejito'n eta Erroma'n bertan lekaidetza ikasten ibillia.

- Martsella'tik ez urruti, itxas ertzean zegoan Lerinsieko lekaidetxean lekaidea zan Bixente Donea izen eder zabaleko gizona.

Lekaidetxeetan sortu zitzaigun beraz erdipelajikeria. Zergaitik lekaide-etxeetan? Lekaideak, Augustin'en azkeneko aburuen berri jakitean, ez noski arrazoi-tantarik gabe zero larritu ziralako. Zergaitik ainbeste larritu ziran?

Augustin'en oldozkera ulertzeko ez filosofiz ez teologiz ondoegi jantzirik ez zeuden lekaide aietako batzuei Augustin'ek predestinaziokeri gordiña erakusten zuala iduritu zitzaielako. Beste batzuei berriz, gizakumeak graziari eman bear dion erantzunari, Augustin'en baliorik ematen ez ziola, iduritu zitzaielako.

Betidandik Jainkoak zerurako aurre-aukeratu dituanak bakarrik salbatzen ba'dira eta aiek naitanaiez salbatzen ba'dira, zertarako gure lekaide-bizitz gogor au guztia? pentsatzen zuten aiek.

Eta au esan zion berriz Afrika'ko lekaide auetako batek bere abatari: "Guztia Jainkoaren graziari zor ba'diogu, utzi ditzagun gure bizierako penitentzi ta lazkeri guztiok, eta eska dezaiozun Jainkoari bere grazia ixurtzeko ugari gure gain".

Eta beste batek: "Gure ekintza on guztien egiazko egillea Jainkoaren grazia baldin ba'da, zergaitik zigortzen gaituzute zuek agintariok, guk zuek nai aiña ekintza onik egiten ez ba'dugu".

Ori, gaur Tunez'ko Susa eta orduan Adramuto esaten zitzaion lekaidetxean gertatua da. Eta lekaide afrikar aien urduritasuna baretzeko idatzi zituan Augustin'ek bi liburu: "De Gratia et Libero Arbitrio" ("Grazia eta Giza-Naimenaren Askatasuna), ta "De Correptione et Gratia" ("Zentzaketaz eta Graziaz").

Liburu oien mamia:

Jainkoak nor zerurako aurre-autatu duan eta nor ez, iñork ez dakialako, danok saiatu bear dugu santutasunaren bidean aurrera egiten, ortarako Jainkoak ugari ematen dizkigun "gratias actuales" edo "ekintzarako graziei" gogoti erantzunez".

- Jainkoaren graziak ez dio gizakumeari, "libertas peccandi" edo "obenerako askatasunik" ezerezten. Orregaitik, bere borondate yarez uko egiten die gizakumeak Jainkoaren "ekintzarako graziei", eta orretxegaitik ainzuzen, zentzaturta ta zigortua izan bear du, oker dabillena.

Egin zan baretasuna Afrika'ko lekaidetegietan, an piztu bait zan aurrena erdipelajikeriaren txinparta. Baiñan, bereala, Galietako egoan berbiztu zitzaigun indar berriz, Afrika'n itzalirik gelditutako sute aren galda: Martsella'n eta Martsella'tik urruti ez zegoan Lerins'en bereiziki.

Ainzuzen bi uri oietako lekaidetxeetan artu bait zuan erdipelajikeriak erabateko bere itxura. Eta Martsella'ko Jon Kasiano (360-435) Donebitorr'en lekaidetxeko abata izan zan tankera ori eman ziona.

Kasiano'k "Collationes" edo "Itzaldiak" deritzan idazti bat utzi zigun, eta itzaldi oietako batean gizakumeon salbapena artzen du azterketagai. Salbapenean, bi aro bereizten ditu: "salbapenaren asiera", eta salbapenaren asiera ori bizitza-zear, "zerua lortu arte aurrera eramatea".

Aurreneko aroari "initium fidei" esaten dio, ots, "sinispenaren astapena". Itza ez du berea, Kartago'ko Bidal'ena baizik. Onek erabilli bait zuan itz ori, salbapenerako bidean "aurreneko urratsa" Jainkoarena ez baiña gizonaren ekintza zala esanez.

- Bigarren aroari, "consumatio fidei" esaten dio Kasiano'k: "sinispidearen betetasuna", eta, "benetasun" ori, bere iritziz, "egintza onen bitartez grazia ugarituz, zeruraino iristea" dugu.

Arazoa era ortan zabaldu ondorean, Pelajio'ren eta Augustin'en erditik joz, bigarren arorako gizakumeak Jainkoaren gratia bearrezkoa duala esaten du, baiñan lenen arorako ez.

Beste era batera esanik, gizakumea, beragandiko eragin bakarraz, eta bere indar soillez, sartzen da salbapenerako bidera. Eta orduan, sinispenari "bai" esanez bide ortan oiña ipiñi duan une berean emango dio Jainkoak bere grazia.

Baiñan bein grazi ori artu ezkeru, pekatuz grazi ori ez galtzeko, eta ekintza onen bitartez grazi ori egunetik egunera aundiagotuz zerurairño iristeko, bai; ortarako bai; ortarako bear-bearrezkoa du gizakumeak Jainkoaren grazia.

Dakusazunez, salbapenaren astapena, soilki gizakumearen ekintza da. Gaiñerako guztia, Jainkoarena bereiziki. Orrela, bai augustinkeria eta bai pelajikeria, biak batera garaitzen zituala iduritu zitzaion Kasiano lekaide zintzoari.

Oker zebillen. Lendabizi, Augustin predestinaziokeri-zalea ez zalako. Eta bigarren, bera ere pelajiokeri nabarmenera erori zalako, gizakumearen ekintzarik aundienerako, ots, sinispenari lenen baiezkua emateko, Jainkoaren graziaren bearrik ez zala esaten bait zuan

Uste onez ibilli zala, zalantzan ipintzerik ez dugu. Are geiago, berak eta erdipelajiokeri-zale guztiek Lerins'eko Donebixente'rekin batera egiazko Elizaren dotriña ori zala eta ori izan zala beti, ziur sinetsi bait zuten.

Orregaitik ainzuzen ipintzen zien onek, Donebixente'k, augustinzaleei oiñarrizko sinistarautzat, geroago ain ospetsu egingo zan esaldi txit ezaguna dan au: "Quod ubique, quod semper, quod ab omnibus". "Toki guztietan, beti, guztiek" onartua izandakoa bakarrik izan daitekeala, alegia, egiazko sinispidea; eta, ori, jakiña, Donebixente beraren eta bere lagunen sinispidea zala.

Lekaide done baiñan iruzurtu auen aurka Donaugin'ek izan duan jarraillerik aundienetako bat jeiki zan: Akitani'n jaiotako Prospero Donea. Euskalduna bearbada, Euskalerra bait zan orduan Akitania.

Gazterik joan zala, dirudi, Mediterran-Itxasoaren ertzera. Bere eskariari erantzunez idatzi zituan 428¹ an eta 429'an, urrengo urtean il zan Donaugin'ek bere azkeneko bi liburuak: "De Praedestinatione Sanctorum" ("Zerurakoan Aurre-aukeraketa") eta "De Dono Praedestinationis" ("Aurreaukeraketa, Jainkoren Emaitza").

Ez zitzaigun Doneprospero lenen mailleko teologilaria gertatu, baiñan bai oldozkeraz zintzoa eta idazkeraz argia. Ona, adibidez,

zeiñen ederki erantzun zion Martsella'ko Kasiano'ri, Jedin'en liburuan irakurri dedan aapaldi onen bidez:

"Su error esta en la prioridad que otorga al libre albedrfo coloc dolo al inicio dela salvacdn, y haciendo asf solo al hombre el autor radical de su propia salvacdn, en lugar de reconocer que es Dios con su gracia quien radicalmente nos salva".

Obeto esaterik ez dago: Izan ere, salbamenaren lenen "sustraia", -- ori bait da "radical" orren esan-naia -- Jainkoagandiko grazia da. Gero dator, "libre albedrfo" edo gizakumearen "naimen yareak" Jainkoagandiko grazi "radical" edo "sustraiko" orri eman bear dion erantzuna.

Ospe aundia lortu zuan Doneprospero'k Sarkalde guztian, Galietan bereiziki eta Erroma'n bertan, emen ere bizitu bait zan, I Zelestino Aitasantuaren laguntzaille eta adiskide zindu.

Ainzuzen, akitaniar onen aolkuz idatzi zien I Zelestino'k Galietako gotzaiei, erdipelajikeriaren lenen gaitzespena izan zan entziklika bat. Bertan, gaiñera, goratzarre aundiak egiten dizkio Aitasantuak Augustin Doneari. "Optimus magister Ecclesiae Christi", "Elizaren Irakasle Txit Ona" esaten bait dio. Errez ikusi daiteke itz oien atzetik gure akitaniararren eskua.

Alare, ez zituan Aitasantuak Donaugustin'en geiegikeri aiek onetsi. Ezta Doneprospero akitaniarrek ere, onek, gaurko edestilarien iritziz, ez bait zituan sekulan bere-egin, ain maite izan zuan Augustin'en neurritz kanpoko esakizun aiek.

"Es cierto que nunca se ha Ilegado al reconocimiento por la Iglesia del agustinismo rigido, pero oste ha tenido enormes consecuencias remotas, puesto que siempre ha tentado a algunos a escalar con el "doctor de la gracia" esas alturas en las que solo pocos pueden respirar sin asfisiarse ese aire tan sutil" (Jedin).

Orregaitik, jarrai dezagun guk apalki Doniñaki loiolatarrak beretarrei eman oi zien aolku zugurra: "arazo ontan bi ertzak sinistu bear dira tinko: "Jainkoagandiko graziaren beartasuna"; "gizakumeen naimenaren askatasuna".

Arazoaren bi ertz oien erdiko guztia, ots, bi ertz oiek nola batak bestea desegin gabe alkarrekin lotzen diran, sekulan jakingo ez dugun gauza bait da. Jainkoa-baitan datzan misterioa.

ELIZA V MENDEAN

ALDIEN URRATSAK

- 400 Undarrak Elba ibaiean.
Eudoxi, Sortaldean inperateme.
Onorato Doneak, Lerins'ko lekaidetxea sortu.
Augustin Doneak "Aitorpenak" idatzi
- 401 Toledo'n kontzilioa.
Barbaritarrak Galiak-zear ugalka bezala.
- 407 Donibane Krisostomo'ren eriotza.
11 Teodosio, Sortaldeko inperatore.
- 410..... Alariko bisigotiarrak Erroma artu ta lapurtu.
SeIeuzi'ko kontzilioa.
Akilea'ko Errufino'ren eriotza.
- 411 Kartago'ko Batzarrean Donatikeriaren bein-betirako
gaitzespen orokorra.
- 411-412...Kartago'ko sinodoan Pelajio gaitzetsia.
- 418 Teodoriko Galietako egoaldean bisigotiarren errege.
- 420 V Bahram Pertsin'erregeen-errege.
Zigorketa Pertsin'kristauen aurka.
- 425 Kostantinopla'ko unibersitatearen sorketa.
- 427 Onorato, Arles'ko gotzai.
Augustin Doneak "Jainkoaren Uria" amaitu.
- 428 Nestorio Kostantinopla'ko gotzai.
Aezio erromar-buruzagiak frankitarrak garaitu.
- 429 Bandaliarrak Afrika'n.
- 430 Augustin Donearen eriotza.

- Frankiarrak Some ibaiaren ertzetan.
- 431 EFESO'n irugarren Kontzilio Ekumeniarra.
Nestorio Gaitzetsi.
- 432 III Sisto, Aitasantu.
Patrizio Donea Irlanda'n.
- 439 Genseriko bandaliarrak Kartago irabazi.
- 440 I Leon "Aundia", Aitasantu.
- 444 Zirilo Donearen eriotza.
- 448 Eutikes monofisiarra Kostantinopla'ra gaitzetsia.
- 449 "Efeso'ko Lapurkeria" esan oi zaion "kontzilioa".
- 450 II Teodosio'ren eriotza.
Nestorio'ren eriotza, erbestean.
- 451 Atila undarra, Galietan.
KALTZEDONI'n, laugarren Kontzilio Ekumeniarra.
Monofisikeria gaitzetsia.
- 452 Atila, Itali'n.
- 453 Atila'ren eriotza.
- 455 Genseriko bandaliarrak Erroma artu.
- 456 Bisigotiarrak Españi'n,
- 461 Patrizio Donearen eriotza.
- 463 Burgundiarrak Rodano ibaiaren lurraldean.
- 466 Euriko, Bisigotiarren errege.
- 474 Zenon, Sortaldean inperatore.
- 476 Odoakro eruldarrak Romulo Augustulo jaurti.
SARKALDEAN ERROMA'KO
INPERIOARENAMAIA.
- 478 Afrika'n bandaliarrek Eliza zigortzen.
- 882 Klobis, frankiarren errege.
Sortaldean, Zenon Isauritarrak, "Alkartasunerako
Agindua" aldarrikatu.
- 484 Justino, Sortaldean inperatore.
Akazio'ren zisma.
- 486 Seleuzi-Ktesifonte'ko sinodoa. Bertan,
Perti'ko Eliza, monofisita biurtua.

- 491 Anastasio Sortaldean inperatore
Armenrko Eliza, monofisita biurtu.
- 493 Teodoriko "Aundia", Ostrogotiarren errege
- 498 Simmako, Aitasantu. Lorentzo, sasiaitasantu.
- 500⁹ Klobis frankiarren erregearen bataioa.

I TEODOSIO "AUNDIA" REN SEME MOTTELAK

Bi seme izan zituan I Teodosio inperatoreak, bere Galizi'n emazte artu zuan Elia Flazilia andreagandik. Bera inperatore izatera iritxi aurretik jaioak biak: Arkadio nagusiena, eta Onorio gazteena.

II aurretik, bien artean zatitu zuan Erroma'ren inperio-lurra.

Inperio zarraren zatirik ederrena, jendetsuena, eta aberatsena, orduan Sortaldea zan-da, Sortaldea eman zion seme nagusiari, ots, Arkadio'ri.

Sarkaldea, gazteenarentzat izan zan: Onorio' rentzat.

Ebakuntza orren bidez, betirako bi puska egiñik gelditu zan ordurarte, naiz batera bi inperatore bein baiño geiagotan izan, Laterri bezala beti Laterri bakarra izan zan Erroma'ko Inperioa. Ez zan noski Laterriaren zatiketa ori I Teodosio Aundiaren asmoa.

Kemen eta yayotasun errikoak izan ziran Teodosio'ren bi seme aiek. Ez beintzat une larri artan Erroma'k, bai Sarkaldea eta baita Sarkaldea ere, zetozkion arrisku ikaragarriei aurpegi emateko bear zituan bezalakoak.

Alatagutziz, lejiotako buruzagiek, naiz maiz aski beraiek ere barbaritarrak izan lortu aal izan zuten Erroma'ren bi zati aiek aldi batez bizirik gordetzea. Aldi laburrez, 476'a arte Sarkaldekoa. Arras aldi luzeagoz Sortaldekoa: 1.473 'ean turkiarrek Kostantinopla artu zuten arte. Sortaldea, izan bait zituan aro luze ortan egiatzko inperatore bikaiñak.

Begira dezaiegun banaka Teodosio'ren bi semeei:

* * *

ARKADIO (395-408). - Sortaldeko inperatorea izan zan. Ez du edestilarien aldetik begirune aundiegirik irabazi, "a small, weak, irritable and stupid youth" omen zan "mutil kaxkarra, aula, erretxindua, ta zearo ergela gaiñera" (Enc. Brit.).

Bera orrelakoa zalarik, ez da noski arritzekoa-ta, ez omen zuan inperioaren jaurketan eskurik sartu, eta politikagintza oro bere laguntzailleen eskuetan utzi omen zuan.

Bata bestearen atzetik iru izan ziran laguntzaille aiek: Rufino, Eutropio eta Antemio. Iruetatik, eriotz makurra izan zuten aurreneko biek.

Rufino, I Teodosio'ren uste on guztiko gizona izan zan, eta Teodosio'k berak eman zion Arkadio'ri laguntzaille. Politikalari yayoa bearbada, ez zitzaion ezer aundirik egiteko astirik gertatu, laister aitzoz erailla izan zalako: agian, Estilikon, Sarkaldeko lejioren buruzagi nagusiaren "aginduz edo aolkuz erailla": "Probably at the instigation of Stilicho" (ib). Bai ote?

Ez ziran beintzat, --Rufino ta Estilikon,-- alkarrekin oso ederki konpondu.

I Teodosio'ren serbitzura egon ziran biak. Eta biek izan zuten era berdiñean aren on-uste gutzia.

Baiñan barbaritarrekingo politikagintzari-buruz, ez omen ziran Rufino erromatarra eta Estilikon bandaliarra aburu berdiñekoak. Estilikon'ek, bisigotak borrokan garaitu zituanean, pake-itun bat izenpetu zuan aiekin. Ori jakitean, zearo asarretu omen zan Rufino, barbaritar arriskutsu aien indarra Estilikon garailleak erabat ezereztu ez zualako.

Rufino Eutropio erenak artu zion jaurlaritzan txanda. Eutropio au izan zan Arkadio Eudoxi'rekin ezkondu zuana. Seme bat,-- 11 Teodosio izango zana eman zion Beauto buruzagi frankiarraren alaba zan Eudoxi ark Arkadio inperatoreari. Eta iru alaba gaiñera. Ospetsuak iruak: Flazile, Pulkeri, eta Arkadi.

Ez zuan Eutropio gizagaixoak zorion aundirik lortu. Eriotzara

epaitua izan ondorean, ezpataz moztu bait zioten lepoa.

"After the fall of the eunuch Eutropius, this beautiful but proud and avaricious woman,-- Eudocia dominated Arcadius": "Eutropio jausi ondorean emakume polita bezain arro ta diruzale ark, ots, Eudoxi'k, zearo menderatu omen zuan Arkadio bere senarra" (Cath. Ene.).

"Bera izan zan Krisostomo Donearen lenengo eta bigarren erbesterapenen zioa": "She was the cause of the first and second exile of St. John Chrysostom" (ib).

Bere izenekoa izan zuan erraiña. II Teodosio semearekin ezkondu zitzaion Eudoxi atenastarra.

Eutropio'ren atzetik, Antemio'rentzat izan zan jaurlaritzako txanda. Gizon yayo eta jakintsutzat eukia izan zala badakigu, baiñan ezer asko geiagorik ez bere jaureketa-keraz. Bai ordea asmo oneko jaurlaria zala.

Ala, "St Chrysostom and he entertained the greatest respect for each other": "Berak eta Krisostomo Doneak eraspenik aundiena izan zioten batak besteari" (ib).

Alare, badirudi motel samar ibilli zala une larri batean. Entzun:

"At the time of the disturbances which followed St. Chrysostom's deposition, and the Saint's enemies demanded troops from him with which to disperse the crowd, at first he refused but then yielded to their importunities, declaring that they were responsible for the consequences".

Euskeraz:

"Donekrisostomo 'ren jaurtiketari jarraitu ziotenerri-iskanbillen garaiean, erria menderatzeko gudari-talde bat eskatu zioten Donearen etsaiek. Eta, naiz aurrena ezezkoa erantzun, makurtu zan azkenean aien eskari nekagarrietara, sortu zitezkean ezbear guztien erantzukizuna aiena izango zala esanez" (id).

Agintari batek ez dezake bere burua zuritzeko orrelako gauzarik esan. Naiz berak nai ez, erantzukizuna berea bait du beti orrela jarduten duan agintariak.

Alatagutziz Krisostomo ez zitzaion asarretu. Alderantziz, "era

adiskidetsuan idatzi zion", "Catholic Encyclopedia"k dionez: "St. Chrysostom wrote to him in warm terms".

Iru izan ziran Arkadio'ren agintaritzakoan Sortaldeko gertakizunik garrantzitsuenak:

- Grezi guztia ankazgoratu zuan Alariko bisigotiarraren eraso.

- Bosforoz aruntz, Asi Txiki'n erromatarren serbitzura zegoan gudarozte gotiarraren iraultza.

- Jon Krisostomo Kostantinopla'ko Patriarkaren erbesteraketa. (Ontaz ordea Krisostorno'ren bizitza aztertzerakoan mintzatuko gera)

Esan dugun bezala, Arkadio Sortaldean inperatore zan bitartean, bere anaia, Onorio, zan Sarkaldean inperatore. Ez ziran bi anaiak alkarrekin ongi konpondu. Biek nai bait zuten, bakoitzak beretzako, Iliri zeritzan Balkanetako probintzia.

408'an il zan Arkadio, eta bere seme bakarra, **II** Teodosio, eseri zan aitak utsik utzitako inperator-aulkian.

* * *

ONORIO (395-423). - Sarkaldeko inperatore, 395'ean Teodosio aita il zitzaion egun beretik. Arkadio bere anaia bezain ezereza. Edo ura baiño ezerezagoa oraindik, bearbada.

Orregaitik, bera ez baiña Estilikon gudaalburua izan zan Sarkaldean egiazko agintaria, ain guda-buruzagi trebe eta menderakaitza izandako bandalitar au ere azpikeriz erailla izan zan arte.

Erroma'ren lejiotan gudari ibillitako bandalitar baten semea zan Estilikon. Ama bai, erromatarra izan zuan ama.

Eta aitak bezala berak ere Erroma'ren serbitzura lejiolari lez zintzo jokatu zualako, gudarozteko mailladia-gora igoz, laister irabazi zuan I Teodosio'ren onginaia.

Leialki erantzun zion beti Estilikon'ek aren onginaia ari. Baita ura aren semea zan Onorio'ren serbitzura gudaroztearen buruzagi nagusi eta Sarkaldeko Jaurleri lez ere.

Estilikon erdi-bandaliarrari eskerrak ez zuten barbaritarrek

Sarkaldea Onorio'ren denboran menderatu. Beti garaitu bait zituan, edestian guda bururik onenetakoa izandako erdi-barbaritar arek.

Alare, ez zituan beñere garaitutako barbaritarrak ezereztu nai izan. Barbaritarrak Erroma'ren serbitzura irabaztearen aldeko izan zan beti 1 Teodosio. Bide ortatik jarraitu zion Estilikon'ek leialki, ura il ondorean ere. Agian, I Teodosio'k bezala, Erroma indar-aulduari beste jardunbiderik ez zitzaiola gelditzen ederki ulertzen zualako..

"Estilicdn fue el más fiel exponente de la polftica de Teodosio de contemporizaciÓn con los b^srbaros, es decir, del asentamiento pacífico de los b^srbaros en el imperio y de su utilizaciÓn al servicio de Roma. Esta polftica unida a su religidn arriana y a su origen, le acarred la enemistad, encubierta o clara, de los sectores defensores de la polftica tradicional y fue objeto de numerosas acusaciones de traicidn" (GER).

Ostrogotiarrekin eta Radagaiso aien buruzagiarekin bakarrik izan zan gogorra Estilikon. 405'ean sartu ziran aiek Itali'ra. Izugarritzko bildur-ikara sortu zan Itali'n. Eundaka milla ziralako zuzmurrua sortu bai zan jendearen artean. Ez ziran orrenbeste, jakiña; baiñan arras ugari bai. Alatagutziz, zearo garaitu zituan Estilikon'ek.

Radagaiso buruzagia, eriotzez zigortua izan zan.

Bi alabaren aita izan zan Estilikon: Miren eta Ternazi'ren aita. Biekin ezkondu zan Onorio inperatorea. Miren'ekin aurrena; eta Miren il zitzaionean, Ternazi'rekin. Baiñan "bere amaren etxera bidali omen zuan" Ternazi au, Estilikon erailla izan zanean: "Thernatia was sent back to her mother" (ib).

Era mingarrian izan zan Estilikon eriotzara galdua. Arkadio il zanean Kostantinopla'ra joatea erabaki zuan. LBerriro inperioaren bi zatiak batera erakartzeko asmoz ote? Zanzala, beste arrazoi bat zabaldu zuan Olinpio izeneko Onorio'ren jauregitar batek: Estilikon'ek Sortaldeko inperatore egin nai zuala Eukerio bere semea. Eta orregaitik joan zala Kostantinopla'ra.

Urduritu zan jendea. Onorio'k, Estilikon atxilotzeko agindu

zuan. Egin zan aren aurkako epaiketa. Ta bertan eriotzara galdurik, ezpataz illa izan zan gudalburu bikain ura.

Ta bereala, era berdiñean, aitaren atzetik, Eukerio semea.

* * *

Erroma'ko inperioa noraiño jausi zan ulertzeko, adigarri egokia dugu Onorio'ren agintaritzako denbora:

- Afrika'n Gildo izeneko gudalburu bat jeiki zitzaion iraultzan. Aren aurka, Maszezel izeneko buruzagi barbaritar bat bidali zuan Estilikon'ek. Garaitu zuan Maszezel onek Gildo iraultzalari ura. Baiñan, garaitza ostean, bera izan zan erailla.

Gudalburu aren iraultza baiño garrantzi aundiagokoa izan zuan Onorio'k, inperatore lez altza zitzaion Maximo'rena. Baiñan ez zuan onen altzakunde ark urte bete baiño geiago iraun.

- Beste bat, Britani'n jeiki zitzaion. Eta Kale'ko lepoa igaroz, arrapatu zizkion Galietako lurraldeak ere. Garaitzak arrotuta, III Kostanzio izen-artuz, inperatore aldarrikatu zuan onek ere bere burua.

- Era berean jeiki zitzaizkion aurka, an-emen, Prisko, Atala, Maximo, Jobino eta beste gudalburu batzuk ere.

Iraultza eta matxinada oiek danak Sarkaldeko Inperioaren ustelkeria nabari digute. Ezta arritzekoa, ikusiko dugun bezala Inperio ura bababaritarren menpera ain errez jausi izatea.

- Barbaritarrei dagokienez berriz, iru aldiz iritxi zan Alariko bisigotiarra Erroma'ren atarietaraiño. Eta, baita, irugarrenean barrura sartu ere. 410'aren dagonillean gertatu zan ori.

"Alarico se instaló en la Urbe, con todo su ejército, pero irnpidiéndole, o tratando de impedirle el saqueo. Los bk.baros recorrieron la ciudad aturdidos y asustados de su propia audacia. Y el mismo Alarico se convirtió de conquistador en prisionero cuando se encontró con Gala Placidia, la bellissima hija de Teodosio I, hermana de Honorio y Arcadio. A partir de aquel momento, el rey a quien obedecían los godos tuvo una reina a la que obedecer. Se

la llev6 consigo a su dltima aventura: la expedici6n a Africa. Pero mientras la preparaba en las costas calabresas le sobrevino la muerte en Cosenza. Le sucedid por aclamacidn su cuñado Ataulfo, un guapfsimo mozo, de quien Gala Placidia hacfa ya tiempo que era su amante" (Montanelli).

Izugarrizko zulo bat iriki zioten Alariko'ri bere gudariiek lurpean illobi lez, eginkizun ortan jopu edo esklabu-talde eder bat erabilliz. Gero, illobi ura zearo ostenduz gero, an lan egin zuten jopu guztiak erail zituzten, Alariko non obiraturik zegoan iñork jakin ez zezan, eta orrela aren gorputz illa iñoren txarkeri orotik gorderik zezan.

Orrela amaitu zuan bere bizia Itali'ko lurretan barbaritarren buruzagirik yaoenetako batek. Erroma'ren adiskide izan zan, baiña esker txar eta irainketa txatxuen bidez, Erroma'k biurtu zuan etsai bisigotiarren "errege" trebe ta azkar ura.

Ikusi dugu nola sartu ziran Itali'ra ostrogotiarrak ere.

Barbaritarren eraso aietatik igesi, Rabena'ko arresi sendoen barruan gorde zuan Onorio'k bere burua. Eta, arrezkero, uri artan bizitu zan il arte.

Oraingoz, Estilikon'i eskerrak, salbatu zan Erroma'ren Sarkaldeko inperio erasoaldi gogor aietatik. Menderatuak izan ziran III sasikostantino eta beste gudaiburu aien iraultzak.

Garaitza oietan ordea ez zuan Onorio'k zer ikusirik izan: ez bait zan bera ezertarako gauza: "Few of Roman emperors were so weak and feeble as Honorius. When he decided to intervene in politics, his intervention was usually disastrous": "Inperatore erromar gutxi izan dira Onorio bezain alu ezerezak. Noizbait jaurlaritzako arazoetara sartzea gogoratzen ba'zitzaion, ondamen beltzak ekarri oi zituzten bere sarrera aiek" (ib).

Itali'tik at, 406'garren urteko azken egunean, abenduaren 31'ean, igaro zuten bandalitarrek, suebitarrek eta alanitarrek Rin ibaia, aren urak oro izozturik zeudelaz baliatuz.

"El asesinato de Estilicdn ei año 408 por envidia de Honorio, dejd de nuevo abierto el camino a la invasidn del imperio" (Llorca).

"Honorio, espantado, olvidd de repente los servicios que durante diez años le habla prestado aquel fiel capit^gn, y ordend su detencidn. Estilicdn hubiera podido fácilmente sublevarse, pues las pocas tropas de que disponfa el Imperio sdlo eran fieles a Pero tenIa demasiado respeto a la autoridad para sublevarse. Le despedazaron en una iglesia, en Ravena. Y fue tal vez el más estdpido, innoble y catastrdfico de los delitos que se hayan cometido en nombre de Roma" (Montanelli).

Zergaitik izutu ote zan orrenbeste Onorio inperatorea? Estilikon bere aurka prestatzen ari zala sinisterazi ziotelako, esan oi danez.

406'ean igaro zuten, esan dugun lez, bandali-alani-suebitarrek Rin ibai izoztua. Galietan, jaun da jabe, nai zuten guztia egiñez ibilli ondorean Euskalerrria-zear tximista bezala igarota, Españi'ko lurretan zeuden iru urte geroago: 409'an.

Aien atzetik bisigotiarrek etorri ziran, Alariko buruzagi zutela, eta Itali'n ibilli ta Erroma arrapatu ta lapurtuz gero, Galietako egoaldean jarri zitzaizkigun bizitzen, Narbona eta Tolosa uriburu zituztela. Ataulfo, Alariko zanaren ezkonanaia zan orain bisigotiarren buruzagi. Aiekin pakeak egin bearrean aurkitu zan Onorio inperatorea, Ataulfo ta onen gudulariak Erroma'ren serbitzura "socii" edo laguntzailletzat artuz. Itun ori sendotzeko, bere arreba, Gala Plazidia, eman zion Ataulfo'ri emaztetzat, agian ez zuan beste irtenbiderik izan da.

Ordurako Gala Plazidia bere gogoz Ataulfo'rekin ezkondurik bait zegoan. Izan zuan senar orrekin, bereala ildako ume bat, eta senarra ber-bera ere laister il zitzaion.

Erroma'ri laguntzaille leiala izan zitzaion Ataulfo. II zanean, GaIa Plazidia, aren alarguna, Galietan "praefectus" edo gudaroztearen buruzagi nagusi zan Kostantzio zeritzan aundiki batekin ezkondu zan. Obeki esanik, gudalburu arekin ezkontzera bearturik aurkitu zan bere anai inperatorearen aginduz: "Honorio la caso a la fuerza con un general chocholo: Constancio" (Montanelli).

Alare, seme bat, Balentiniano, eta alaba bat, Onoria, izan zituan buruzagi "ergel" arekin Gala Plazidia'k; biak, bai semea eta

bai alaba, ospe aundikoak izango ziranak: mutilla, Onorio inperatoreak semerik ez zualako, inperatore izatera deiturik zegoalako, eta neska, Atila'ren ibilketan eraginmen aundikoa izan zalako, esan oi danez.

Inperatore izendatua izan zan Kostantzio, -- III Kostantzio --, (421), eta "augusta" egiña Gala Plazidia, oraindik Onorio bizi zala. Baiñan 421'garren urte ortan bertan il zan III Kostantzio-ta, III Balentiniano, Gala Plazidia'ren seme ta Onorio'ren illobak jaso zuan inperatoreta bi urte geroago Onorio il zanean.

Kristau bezala, Teodosio bere aitaren bidetik jarraituz, gogor eraso zien Onorio'k jentillei eta erejeei. Afrika'ko donatistei bereiziki.

Berdin jardun zuan Sortaldean Arkadio bere anaiak ere. Ortan I Teodosio bezain eliz-zaleak izan ziran bere bi seme kaxkar auek.

* * *

II TEODOSIO (408-450). - Inperio erromatarraren sortaldean II Teodosio'k, Arkadio eta Eudoxi'ren semeak, jantzi zuan inperatoreen buruntza aita il zitzaionean.

Zazpi urteko mutikoa zan orduan. Orregaitik, bere aitaren aolkulari yayoa izan zan Antemio arek artu zuan politikagintzaren zuzendaritza, eginkizun ori, II Teodosio gaztearen arreba zan Pulkeri printzesaren eskuetan utzi zuan arte.

Balio aundiko emakumea, bere anaiak Augusta izendatutako Pulkeri gaztea! Egiazko arretaz saiatu zan bere anaiaren eziketan. Bera zan bezalakoa izan zan bere inguruan inperator-jauregiko bititza: erlijiotasun eta garbitasun aundikoa.

II Teodosio berriz, berez jakintza-zale eta bereiziki teologi-ikasketen zalea izanik, "gizon onbera ta atsegiña azi zan" Pulkeri arrebaren kerizpean: "Grew into a man of kind and gently ways" (ib).

Baiñan bera, besteentzako, gizon atsegiña izan ba'zan ere, ez zitzaion berari erregetza ain atsegiña gertatu:

- 429'an bandaliarrak sartu zitzaizkion Afrika'ra. Gudarozte bat bidali zuan aien aurka 431'an. Garaitua eta ezabatua izan zan gudarozte au. Bigarren bat bidali zuan andik amar urtera, 441'an. Lengoa bezala izan zan au porrokatua.

- Urte ortan, 441'an, Atila iritxi zan, bere undarren aintzinean, Danubio-aldeko probintzietara, eta an ibilli zan 447'rairio. Garaituak izan bait ziran II Teodosio'k aren aurka bidalitako lejiok.

- 428'an Nestorio izendatu zuan Kostantinopia'ko gotzai. Iru urtez, ereji-sortzaille orrek piztu zizkion ardailletan nasirik bear izan zuan.

Esan dezagun II Teodosio'ren alde:

Kostantinopla'ko arresiak ederki sendotu zituala. Bearbearrezko lana, arrisku aundiko garaia ziran urte aietan;

Kostantinopla'ko unibersitateak sortu zuala. 425'garren urtean;

- Legedi berri bat, bere izena daraman legedia, --"Codex Teodosianus" sei urteko lanaren buruan, argitara eman zuala.

Atenas'ko filosofilari jentil baten aiabarekin ezkondu zan.

Atenaia zuan neskatx onek izena. Baiñan Kostantinopla'n bataiatua izan zanean, izen ura utzita beste bat artu zuan: Eudozia. (Eudoxia esaten diote beste batzuek).

Iru ume eman zizkion Eudozi atenastarrak H Teodosio'ri: umetan il zan seme bat, eta bi alaba. Bi auetan ospetsuena, Sarkaldeko III Balentiniano'rekin ezkondu zan Eudozi (edo Eudoxi) Gaztea.

Pulkeri'ren bitartez ezkondu omen zan Eudozi atenastarra II Teodosio inperatorearekin. Laister, ordea, asarretu ziran bi emakumezkoak. Zergaitik? Pulkeri'k Eudozi monofisikerira okertu-edo zala uste izan zualako, seguruaski. Alare, Eudozi ez zan emakume gaiztoa, eta Eliza Katolikoaren altzoan il zitzaigun.

Ibilli zan Lur Santuetan erromes ere. Bere alaba, Eudozi Gaztea, Sarkaldeko III Balentiniano'rekin ezkondu zanean joan zan, ainzuzen, Jerusalem'era. Bere biotzondo kristauarentzat arras atsegiña gertatu zitzaion Lurralde Santu ura. Ala, Jerusalem'era

itzuli zitzaigun berriro 443'garren urtean. Oraingoan, ordea, erabat bertan bizitzeko.

Eta bertan il zan. Ez ordea aurretik, Lurralde Santu artan eliz eder batzuk eraiki, eta urruti ez zeuden pertsiarrengandik uria babesteko onen arresiak egoki sendotu gabe.

11 Teodosio berriz 450'ean il zan, zalditik erortzean artutako zauri larrien ondorioz. Monofisizaleekin erabilli zuan jardunkera, bere tokian aztertuko dugu.

* * *

PULKERI ETA MARTZIANO (450-457). - II Teodosio illik, aren arrebak, Pulkeri "Augusta" k, artu zuan inperatoretza. Ordurako, 15 urteko neskatilla zala, II Teodosio bere aitak "Augusta" izendaturik bait zegoan. Aburu zuzenez, Martziano senatorea izendatuerazi zuan inperatore, eta berarekin ezkondu zan. Ez ordea beste edozein bezala. Birjintasunezko matrimonioz ezkondu bait zan Pulkeri inperatemea Martziano senatorearekin.

Inperatore izendaeraztean eta arekin ezkontzean, bere agintaritzan erdikide egin zuan Pulkerri Martziano bere senarra.

"El primer acierto de Pulqueria fue su uniOn matrimonial con Marciano, si bien con el compromiso de que este respetara su virginidad. Durante los tres años que viviö Pulqueria y los cuatro siguientes que reinb el solo, Marciano supo mantener valientemente el prestigio del Imperio" (Llorca).

Ona Pulkeri'z "Encyclopaedia Britannica" k diona: "Pulcheria was a rigid catholic and quarreled with the heresiarch Nestorius, who repeatedly insulted her": "Katoliko zorrotza izan zan Pulkeri eta asarre ibilli zan Nestorio ereji-sortzaillearekin. Bein baiño geiagotan iraindu izan bait zuan Nestorio'k Pulkeri".

"Katoliko latza", rigid" esaten dio iztegi ortan seguruaski erlijioz angiltarra dan Edward Arthur Thompson edestilariak. Baiñan berak gezurtatzen du bere burua, "erejisortzaillea bein da berriro ura, Pulkeri iraintzen zebillela" aitortzen duanean.

Ezbairik eta zalantzarik gabe esan dezakegu ba, ez zala noski ain latza ta gogorra, naiz Pulkeri-Martzialano diarkian egiazko Agintari nagusia bera izan eta aalmen guztiak bere eskuetan euki, Nestorio erejisortzailleari, ainbeste denboraz ainbeste irainketa zigorrik erabiltzeke jasan zizkion agintari aalguztidun ura.

Kaltzedoni'ko Kontzilio Ekumenetarrean, eraspen guztiz eta maitasun aundiz txalotu zuten Asaba kontziliokideek Pulkeri, aien artera agertu zanean.

Eliz batzuk eraiki zituan bere inperio-lurretan. 453'an il zan. Bere diru guztiak, txiroentzat utzi zituan.

* * *

I eta H LEON. - Odolez teodosiarra zan Pulkeri'ren eriotzarekin eta zerbait luzatzekotan, Pulkeri'ren senarra izan zalako Martzialano'ren eriotzarekin amaitu zan 1 Teodosio Aundiaren sendia Erroma'ko agintaritzan. Bi senar-emazte aien ezkontza birjintasunezko ezkontza izan zalako, ez bait zuten semerik izan. Adiñez, aurrera aski joana zan gainera Pulkeri Martzialano'rekin ezkondu zanean. 54 urteko emakumea.

Bazan Erroma'ren Sortaldeko lejiuetan gudalburu ospetsu bat: Leon Traziarra, eta bazan Kostantinop1a'n politikari ta gudalburu aristokrazitar aberats eta yayo bat ere: Aspar, Erromaren serbitzura zeuden gudari-talde germaniarren buruzagia.

Eta Leon Traziarraren adiskide aundia zalako, Aspar onek jaso zuan inperiotzara Leon Traziarra adiskidea. Ez ordea, arenganako adiskidetetasunak eraginda, adiskide ura inperatoretzan bere jostaillu izango zualako ustez baizik.

Eta ala gertatu zan, asieran beintzat. Ez ordea gero. Batez ere Aspar aitzoz erailla izan zan ezkeru.

I Leon'en ekintzarik aundiena, Afrika'ren jabe ziran bandalialarren aurkako eraso izan zan. Ez nolanaikoa noski. Antemio Sarkaldeko inperatorearen laguntza lortzeaz gainera, "esaten danez 1.113 itxasontzi eta itxasontzi oietarako 100.000 gudari bildu bait

zituan": "He is said to have assembled a fleet of 1.113 ships and to have embarked an army of 100.000 men" (Enc. Brit.).

Berina izeneko emakume batekin ezkondurik zegoan Leon I'goa. Inperateme ori Aspar'en adiskide zan. Inperatemeak Basilisco bere anaiarentzat eskatu zuan ontzidi bikain aren agintaritza. Inperatemearen eskaria babestuz mintzatu zan Aspar ere.

Aolku okerra ta arras kaltegarria I Leon'eri eman ziotena, aien eskaria jarraituz, Basilisco, Berina'ren anai kuttun ura, izendatu bait zuan bandalitarren aurkako eraso aren zuzendari orokorra.

Askoz laburragoak ziran, I Leon'en eraso ari aurka ekiteko, Genseriko bandaliarrak bere esanera zeuzkan indarrak. Alare, borrokaldian Basilisco baiño askoz trebeagoa irten zan. Eta, orregaitik, I Leon'en ontzidi eder ura zearo garaitua izan zan; bere ontzietatik, katigu arrapatuak batzuk, eta, geienak, porrokatuak, erreak, eta, azkenean, itxasperatuak. Iruntsi zuan itxasoak giza-gorputz illik eta itorik aski.

Ikaragarria izan zan Erroma Sortaldetarraren galera. Utsegite negargarrian amaitu zan "eraso ura 130.000 libera urre kostatu omen zitzaion Leon'i, eta Erroma Sortaldetarraren kutxak ia zearo utsik gelditu omen ziran belaunaldi baterako": "The expedition is said to have cost Leo 130.000 lb. of gold, and East Roman treasury was almost bankrupt for a generation" (ib).

Europa'n ordea adur ohea izan zuan I Leon'ek. Maiz eta egoki sartu zan Sarkaldeko inperatore ergelen auzietan.

Barbaritarren aurkako borrokari dagokionez, bere arazorik larrienak ostrogotiarrekin izan zituan; eta, azkenean aiekin pake-itun bat izenpetu bearrean aurkitu zan. Itun orren ondorioz, Panoni'n eta Iliri'n jarri ziran aiek Laterri yare lez bizitzen: gaur-egungo Ungari, eta Yugoslabi'ren lurraldeetan.

Kristau bezala, I Leon, Elizaren seme zintzoa izan zitzaigun; sinispide garbiko gizona.

II zanean, bere izeneko billobak artu zion inperator-aulkian txanda: 11 Leon'ek. Edestiak doi-doi aipatzen duan gizona, 11 Leon au. Urte labur batez besterik ez bait zan aulki artan eseri, eriotzak

berekin laister eraman zualako.

* * *

BALENTINIANO (425-455). - 423'an il zan Onorio, eta Jon "Tiranus" esan oi zaion iraultzalari batek artu zuan agintaritzea, baiñan 425'ean il zan, eta egiazko inperatore-gaia izan zan gudarozteari eskerrak inperatore koroiatua: III Balentiniano.

III Balentiniano aipatzearekin Erroma'ko Inperiotik irtetzeke, Sortaldetik Sartaldera etorri gera. Sortaldeko II Teodosio inperatore zanean, III Balentiniano au izan zan Sartaldeko Inperatorea.

Gala Plazidia Onorio'ren arrebak bere bigarren senar aristokraziko arengandik izandako semea. Bi urte besterik ez zituan inperatoretzara jaso zutenean, eta orregaitik, bere amak, Gala Plazidia'k, euki zuan amabi urtez agintaritzea, naiz amabiko orren azken-urteetan egiazko agintaria, barbariar-jatorriko Aezio gudalburua izan.

Afrika'ko bandaliarrek eta Atila'ren undarrek eman zizkioten buruausterik aundienak Erroma'ko Jaurlaritzari.

Afrika'ren jabe egiñik zeuden bandaliarrekin, pake-itun baten izenpeketa lortu zuan 435'ean. Itun orren bitartez, Erroma'ko inperatorearen "go i-agintaritzea"onezagututa, Erroma'rekin alkarturik gelditzen ziran bandaliarrek Afrika'ren jabe: "Alkarturik": "Foederati".

Laister urratu zuten "foederati" aiek alkartasun ura. Borroka labur baten ostean garaille sartu bait ziran Kartago'ko urian.

Atila berriz, nai zuan bezala ibilli zan Galieta eta Itali'ra bertan. Orain gaiñera ez bait zan Estilikon bizi. Balentiniano'k berriz ez dirudi Erroma salbatzeko deus aundirik egin zuanik. Egoera larria benetan une artakoa, "but it is not known that Valentinian personally played any significant part in meeting the crisis": "Ez dakigu Balentiniano'k berak arazo ura zuzentzeko ezer aundirik egin zuanik" (ib).

Alare, naiz Estilikon bizi ez, bazuan Errorra'k gudalburu yayo

bat: aipatu-berri dugun Aezio, jatorriz asaba barbaritarren oiñordekoa. Au izan zan bisigotiarren Teodoriko eta frankiarren Merobeoren laguntzarekin, Marne ibaiaren alboko Zelai Katalauniarretan Atila "garaitu" zuana.

"En Ravena ocupaba el trono Valentiniano III, pero la verdadera reina era Placidia, que como instrumento de su poder habfa elegido a un barbaro, Aecio, digno sucesor de Estilicdn. Placidia habfa demostrado no creer en los romanos, ni siquiera como maridos, (Araulfo bisigotiarren emazte izana zan bera). Imaginmonos pues si habia de fiarse de ellos como generales y hombres de Estado. Cuando en el horizonte asomd Atila a la cabeza de sus terribles hunos, mandio hacer a su hija, Honoria, lo que ella hizo antes con Araulfo: se la propuso por espasa. Comprendid que en adelante Roma sdlo podfa vencer a los barbaros en un campo de batalla: la carna".

"Pero Atila no era Alarico. (Ikusi dugu zein maitetsu ibilli zan Alariko Gala Plazidia'rekin. Baiñan Atila ez izan Alariko bezalako). No sOlo no demostrd gran entusiasmo por Honoria, sino que ademias reciarn una dote exorbitante: la Galia. Era la mas hermosa provincia del Imperio, y si bien la soberanfa imperial era solamente tedrica, la corte de Ravena no podfa renunciar a ella. Pero Atila la ocupd y Aecio tuvo que salir a guerrear con el. Mas para procurarse un ejercito adecuado, se vid obligado, con un milagro de diplomacia a asociar a la empresa al rey de los visigodos, Teodorico.

(Ez da egokia diplomazizko "milagroaren" aipu ori, erromatarrek bezain etsai bait zuten bisigotiarrek Atila. Diplomazi ezereza beraz, Atila'ren aurka bisigotiarren laguntza lortzeko, Aezio'k erabilli bear izan zuana).

"La gigantesca batalla se desarrolld en los Campos Catalaunicos, cerca de Troyes. Y los romanos vencieron, aunque de romanos sOlo tenfan la etiqueta. Barbaros eran los que derrotaban a otros barbaros, y un barbaro romanizado era su propio comandante en jefe" (Montanelli).

Teodoriko bakarrik aipatu du edestilari italiar ospetsu onek Aezio'ren laguntzaille bezala, eta egia da borrokaldi gogor artan il zala Teodoriko bisigotiarren erregea baiñan laguntza aundia izan zitzaion Aezio'ri Merobeo frankiarra ere bere gudariek. Egia esan Galietako eta Galien inguruko Erri barbariar guztiak aritu ziran borroka artan, edo Aezio'ren edo Atila'ren alde. Benetan izan zan beraz gudu ura barabaritarren arteko gudu.

Aezio gelditu zala garaille, esan izan da. Baiñan alatagutziz ez dirudi Aezio'ren garaitza ark Atila'ri gaitz aundirik egin zionik. Bai, aurretik asmo zuan Paris'ko uriaren arrapaketa Atila'ri eragozteko, dirudianez beintzat; ez ordea Alpemendiak igarota, Ipar-Itali guztia garaille ibilliz gero Erroma'ko atarira iritxi aal izatea galerazteko.

Errez arrapatuko zuan Atila'k Erroma'ko uri eder ura, I Leon Aitasantuak arrazoiketa egokiaren bidez, asmo ori burutik kendu ez ba'lio. Erroma'n aurkitzen zan orduan III Balentiniano inperatorea. Ez zan an bizi, Rabena'n baizik, baiñan Atila'gandik igesi, Erroma'ra etorri berria zan babes ziurragoaren billa.

Ez zan ordea inperatorea izan, Erroma bere bizi guztiko arriskurik aundien artan salbatu zuana, Aitasantua baizik. Ez du aztuko ori Erroma'ko erriak.

Atila, gaurko Ungari'runtz abiatu zan.

Alare ez zan pake ziurrik Erroma'rentzat, bata bestearen atzetik barbaritarren leiñu berriak bait zetozen Itali'ra. Aezio burazagia zuan Erroma'k estutasun artan babeslerik trebeena. Alatagutziz, aren aurkako salaketak sinistuz, III Balentiniano'k il zuan bere jauregian, eta "bere eskuz" gaiñera, ("with his own hands" Ib), gualburu bikain ura.

Laister, III Balentiniano bera izan zan aiztoz erailla. Erailleak, Optila eta Traustila, Aezio'ren laguntzaille izandako barbaritar bi.

Elizkide bezala, katoliko sutsua izan zan III Balentiniano. Erejeen eta jentillen arerio gogorra.

Baiñan bai berak, III Balentiniano'k, eta bai berak baiño leenago Onorio bere osabak ereje ta jentillen aurka emandako lege

gogor aiek danak ez zuten ezer aundirik balio izan. Alperrikakoak gertatu ziran. Inperio Sarkaldetarra barbaritarren ankapean naspildurik zegoalarik, ez bait zan lege aiek beteerazi zezazkeanik.

III Balentiniano'ren atzetik 21 urteko epe laburrez Sartaldean gertatu zitzaizkigun 10 inperatoreek ez zuten ezertarako gaitasunik izan.

Eta aietako bateren batek gaitasun ori izan ba'zezakean ere, giroaren baldintzek ez zioten ezertarako adiontasunik eman.

SARKALDEKO INPERIOAREN AZKENEKO AMAR INPERATOREAK

PETRONIO MAXIMO (455-455). - III Balentiniano'ren erailketan Optila ta Trastila'rekin batera, zer-ikusirik izan omen zuan, Petronio Maximo onek, arek, III Balentiniano'k, emaztea zikindu omen ziolako.

III Balentiniano, Eudoxia Lizinia printzes sortaldetarrarekin ezkondurik zegoan. Emakume au II Teodosio ta Eudoxi bere emazte atenastarraren alaba zan. Eudoxi Lizini ori, III Balentiniano illik, alargun gelditu zanean, berekin ezkontzera beartu omen zuan Petronio Maximo'k. Arek ordea, Eudoxi Lizini'k, sumindurik Genseriko bandaliarren erregeari deitu omen zion.

Egia da beintzat Genseriko'k Itali'ra etorrita, Erroma'ri ekin ziola, eta 445'ean uriaren barrura sartu zala. Petronio Maximo inperatorea, uritik igesi zijoala bere gudariek arrapatu zuten. Arrapatu, eta erail, eta aren gorputza Tiber ibaiera jaurti.

Genseriko, berak eta bere gudariek nai zuten guztia ebatsi ondorean irten zan Erroma'tik. "For a fortnight the vandals occupied the city and plundered it systematically, carrying off many valuable works of art including treasures which the emperor Titus had taken from the temple of Jerusalem": "Amabost egunez bandaliarrak izan ziran uriaren jabeak. Arretaz egin zuten bertako gauzen lapurreta, balio aundiko erti-lanak eramanez. Erti-lan oien artean, baita Jerusalem'go jauretzean Tito inperatoreak arrapatutako altxorrek ere" (ib).

* * *

MARKO MELIZIO ABITO (455-456). - "Gotiarrek izendatu zuten inperatore Tolosa'n, Petronio Maximo jausi ondorean: "When Petronius Maximus fell, Goths proclaimed him emperor at Toulouse

" No supo granjearse la simpatía de sus subditos, antes por el contrario, por su amor a los placeres y por su vida de libertinaje que le hicieron abandonar a favoritos los cuidados del gobierno, pronto fue odiado por el pueblo que deseaba su caída. Aprovechando aquellas circunstancias el codicioso Ricimero, suevo de nacimiento, se levantó contra el y le venció en las cercanías de Plasencia, siendo depuesto a los catorce meses de su oscuro reinado. El vencedor le respetó la vida pero a condición de recibir la tonsura ocupando el obispado de Plasencia" (Espasa).

Azkeneko puntu ori beintzat egia da. Itali'ra Plasentzi'ko gotzaia izan zan eta ango gotzai zala il zan ,

Marko Melizio Abito'ren alabarekin ezkondurik zegoan Sidonio Apolinar'ek idatzi zigun aren bizitza.

Rizimero edo Rizimer ori berriz, Erroma'ren serbitzura zegoan gudalburu suebitarra, Sarkaldeko Inperio Erromatarraren azken urteetan pertsonik altsuenetakoa izan zan.

* * *

MAYORIANO (457-461). - Rizimer buruzagi suebitarraren adiskidea, Marko Melizio Abito agintaritzatik kentzen lagundu zutenetako bat zan. Esker onez, Rizimer bere adiskide arek eman zion inperatoreta.

Bazuan agian Mayoriano'k inperatore on bat izateko gaitasuna. Ala eragotzi zion Afrika'tik itxasoz borrokalari zetorkion Genseriko bandaliar beti garailleari Itali'ko lurretan oiñak ipintzea. Jakin zuan, Galietan iraultza bat gertutzen ari zitzaizkiola. Garaitu zituan ordea II Teodoriko bisigotiarraren laguntzarekin iraultzalari aiek,

eta ziurtu zuan orrela bere agintaritze Gatietao errialdeetan.

Bere asmoetan ausartiena, bandaliarrak Afrika'tik bidali nai izatea dugu. Bildu zituan ortarako España'ko Kartajena'n 300 gud'ontzi. Etorri zan EspailTra ontzidi aren agintaritze bere eskuetan artzera. Bainan oraingoan bera baiño azkarrago ibilli zan Genseriko-ta, 300 ontzi aietatik geienak arrapatu zizkion.

Kukildurik, Maioriano gizagaixoa, Gensertko'rekin pake-itun lotsagarri bat izenpetzera bearturik aurkitu zan.

Itun aren ondorioz asarreturik, agintaritze uztera beartu zuan Rizimer guzialdun arek.

Andik bost egunera, erailla izan zan Maioriano zorigabea.

* * *

III SEBERO (461-465). - Mayoriano illik Rizimer izan zan berriro inperatore berria aukeratu zuana: III Sebero. Agindu orde, inperatore berri au ez baiña Rizimer bera izan zan lau urte auetan agindu zuana.

III Sebero il zanean, bi urtez egon zan Erroma inperatorerik gabe Sarkaldean, ostera Rizimer berak urrengo inperatorea aukeratu zuan arte.

* * *

ANTEMIO (467-472). - Au izan zan Rizimer'ek aukeratutako inperatore berria. Sortaldetarra zan. Amaren aldetik, Arkadio eta II Teodosio'ren laguntzaille yayo ezagutu dugun Antemio aren billoba. Orregaitik izan zan inperatoretzarako I Leon Sortaldeko inperatoreak aukeratua. Orrela aukeratua izan zalako eta Rizimer suebitarrak aukeraketa ori ontzat artu zualako jantzi aal izan zuan Sarkaldeko buruntza.

Ontzat artua izanaren truke, Alipia bere alaba eman zion Antemio'k emaztetzat Rizimer suebitarrari.

Antemio Kostantinopla'tik Erroma'ra etorri zanean, berekin

ekarri zuan gudaroztean, Filoteo izeneko ereje mazedonikeri-zale aietako bat iritxi zan Erroma'ra, ots, Gogo Deuna Jainkoa dala ukatzen zuten aietako bat, eta, Erroma'n bere sinispide oker ura zabaltzen asi zan.

Jakin zuan ori Ilario Aitasantuak, eta ez zan isilik gelditu. Batikan-muiñoko Donekeparen jauretxean, mezako omilian, jende guztiaren aurrean salatu zion ori Antemio inperatoreari. Berealaxe eman zuan onek okerkeri ura zuzenduko zualako itza. Eta bait itz ori laister bete ere.

Luzaro gabe asarretuko dira ordea suiña ta aitagiarraba, ots, Antemio inperatorea eta Rizimer buruzagi suebitarra. Jeiki zaio borrokarako gerturik. Baiñan !Jraingoz ez da odolik isuriko. Pabia'ko Doneepifanio'k, diplomazirako zuan yayotasunari eskerrak, lortu bait zuan suiñaren eta aitagiarrabaren arteko pakea.

Zoritxarrez Laister urratuko zan pakea. Rizimer buruzagi suebitarrak, I Leon Sarkaldeko inperatore erromatarrarekin eta Genseriko bandalitarren erregearekin bat eginda, Sarkaldeko inperiotza Olibrio'ri ematea erabaki bait zuan, jaun au Genseriko'ri atsegiña zitzaiola jakiñik.

Lertu zan gudua. Alpe-mendiak igarota Erroma'runtz zetozen, Antemio'ren alde, Galietako lejiok. Gotiar bat, Bolimer, zetorren lejiu aien gudalburu. Beste barbaritar bat, Rizimer suebitarra irten zitzaion bidera, Itali'ko lejioren buruzagi bezala. Oroipen aintzagarriko Milbi-Zubi aren alboan izan zan borroka. Gotiarra irten zan garaitua. Suebitarra garaillea.

Antemio'k, bildurrez, Batikan'eko Kepa Donearen Jauretxean izkutatu zuan bere burua. Idoroa izan zan ordea, eta bertan moztu zioten ezpataz lepoa.

* * *

OLIBRIO (472-473). - Anizio Olibrio. Agintaritzan lau illabete besterik iraun ez zuan inperatorea.

Sarkaldeko inperatore txepel auen azterketa zerbait goxatzea-

rrren, zillegi bekit inperatore berri onen denborako txatxukeri batzuetaz mintzatzea. Sarkaldeko Erromar-Inperioaren etorkizuna nolako gizonen eskuetan zegoan jakiteko ez bait zaigu gaizki etorriko:

Sendi ospetsu baten altzoan jaio zalarik, senatore zan Erroma'n. "Y tenfa relaciones amorosas con Placida hija de Balentiniano III" (Espasa).

"Placida" ori nor zan jakiteko, oroi dezagun, Ili Balentiniano, Eudoxi izeneko printzes sortaldetarrarekin ezkondu zala. Oroi dezagun bi alaba izan zituztela: Eudoxi Gaztea, eta "Placidia", -- Espasa'k "Placida" izendatzen eta Olibrio'rekin rnaitemindurik aurkezten duana ber-bera. Oroi dezagun III Balentiniano erailla izan zanean, aren alarguna, Eudoxi, Petronio Maximo inperatore berriarekin ezkondu zala, onek artara beartuta. Oroi dezagun, indarrez bir-ezkoduerazitako Eudoxi inperateme alargue arek, bere lenen senarraren eraiketa mendekatzeko Genseriko'ri deitu ziola. Eta oroi dezagun azkenik, Genseriko etorri zala, eta Erroma lapurtu ondorean, berekin eraman zituala katigu dei egin zion Eudoxi ura eta aren alaba biak: Eudoxi Gaztea eta Plazidi.

Bi printzes auetan Eudoxi gaztea zan nagusia, eta berarekin ezkondu zuan Genseriko'k bere semerik nagusia: Unnderiko bandaliarren erregegaia.

Ezkontza egin zanean, andregai, Eudoxi Gaztea, Erroma'ko printzesa zalako dote eder bat eskatu zien Genseriko'k Erroma'ko eta Kostantinopla'ko jaurlaritzei. Beste orrenbeste andregai aren aizpa Plazidi, eta Eudoxi bien ama inperatemearen askatasunerako. Dirutza izugarria, guztira. Eta erantzunik jasotzen ez zualako, Itali'ren itxasaldeko lurralde zabal bat ondamendu zuan, bertako urietan bere gudariei nai zuten guztia ebasten utziz.

Zazpi urte egon ziran Eudoxi ama eta Plazidi alaba Genseriko'ren katigutzan. Goxoki eta legunki, baiñan katigu.

Urte oien buruan, Plazidi, "que todavía amaba a Olibrio a pesar de haber sido abandonada" (ib), Genseriko'rekin izketan jarri zan. Atsegiña izan zitzaion Genseriko'ri neska aren aolkua: Olibrio,

Petronio Maximo erailla izan zanez gero Kostantinopla'n bizi da igesi joanda. Esa'iozu arekin ezkonduko nauzula eta sarkaldeko inperatore izatera iristen lagunduko diozula, eskatzen duzun diru ori I Leon'engangadik lortzen ba'du. Ez dio I Leon'ek orrelakorik ukatuko, zurekin pakean egotea bearrezko gauza zaion ezkeru.

Jarraitu zuan Genseriko'k Plazidi printzesaren aolkua, eta onek aurre-esan bezala gertatu zan guztia:

Ordaindu zuan I Leon'ek Olibrio'ren bidez Genseriko'k eskatzen zion dirua. Lortu zuan askatasuna Eudoxi inperatemeak, eta politika orotik urruti, ekintza onetan igaro zituan bere azken-urteak. Ezkondu zan Plazidi ain maite kuttuna zuan Olibrio'rekin. Eta bere itza bete nai izan zuan Genseriko'k ere, III Sebero zanean Sarkaldeko inperatoretzara Olibrio'ri emanaz, bainan aurrera artu zion Rizimer suebitarrak, inperatoretzara aztertu berria dugun Antemio jasoz, eta aurka etorri zitzaion Genseriko borrokatu ta garaituz.

Alare, etsai gogorregia bait zan Genseriko, ikusi dugun bezala beta luzez zai egon gabe jeiki zan Rizimer berak inperatore egindako Antemio orren aurka. Eta Antemio erailla izan zanean, Olibrio'ri eman zion buruntza. Beranduegi. Buruntza artu, eta andik lau illabetera illik bait zegoan Olibrio.

Olibrio baiño lentxeago il zan Rizimer ere. Buruzagi suebitar eta printzes bisigotiar baten semea, gudaroztearen maillarik goieneraiño gurendaz gurenda igo ondorean, bereak izan zituan gizarteko eta politikako maillarik garaienak ere. Barbaritarra izanik, inperatore izatera iristerik ez zuala bazekian-da, inperatoretzara, bere eskuetan jostailu utsa izango zirala bazekian gizonei ematen ibilli zan. Ala, bera izan zan 16 urtez, "inperatore" izenik gabe, Erroma'ren egiazko inperatorea, Maioriano agintzen egon zan lau urte aietan izan ezik. "For Majorian was no puppet": "Maioriano ez bait zan jostailu" (ib).

GLICERIO (473-474). - Dalmaziarra. Orain Split eta orduan Salona zeritzan urian jaioa.

Illa zan ordurako ainbeste inperatore jarri ta kendu zituan Rizimer suebitarra. Iritxiak ziran ordea beste barbaritar batzuk Itali'ra: burgundiarrak, eta Gondobod burgundiar aien buruzagiaren laguntzarekin eseri zan Glizerio Erroma'ko inperatoreen aulkian.

Rabena artu zuan bizitoki.

Laister, ostrogotiarrek sartu ziran berriro Itali'ra. Diru-sari mardul batez erosi zuan Glizerio'k aien Itali'tiko irteera.

Sortaldeko 1 Leon'ek ordea, Sartaldean eskuak sartzeko bere griña zarrari jarraituz arerio bat altxa zion Rabena'n bertan: Julio Nepote.

Errez arrapatu ta atxilotu zuan onek Glizerio doakabe ura, Sortaldeko 1 Leon'en laguntzarekin.

Alataguztiz, ez zan Julio Nepote Glizerio'rekin anker ibilli. Barkatu bait zion bizia, arek elizgizon egingo zala itz eman zion ezkeru.

Esan dugu Dalmazi'ko Salonaⁱn jaio zala Glizerio. Bá, Salona'ko gotzaigoa eman zion Julio Nepote garailleak: "Nepos, Glycerium expellens, in Salone Dalmatiae episcopum fecit", diosku Ebagrio garai artako edestilariak: "Nepote'k, Dalmazi'n Salano'ko gotzai egin zuan, agintaritzatik jaurtitako Glizerio".

* * *

NEPOTE (474-475). - Julio Nepote, dalmaziarra au ere. Adriatik-Itxasoaren ertzean jaioa.

Sortaldeko I Leon'en laguntzarekin igo zan Sarkaldeko inperatoretzara, Glizerio garaituz gero. Ez asti luzerako, naiz urte bateko bere agintaritza labur artan bisigotiarrekin pake-itun bat egiteko betarik aski billatu.

Itun ura ez zan, ez orixe Julio Nepote'rentzat pozgarriegia. Egia, Itun arek bisigotiarrek Erroma'ren laguntzaille edo " foederati" egiten zituala berriro, Julio Nepote'ren goi-agintaritzapean;

baiña egia zan, era berean, adiskidetasuneko itun aiek ezer gutxi balio izaten zutela, eta ezer gutxi balio zuan itun ura lortzeko, oraingoan Julio Nepote'k Auberni guztia eman bear izan ziela bisigotarrei Galia'ren erdialdean.

Ikusi dugu V mendeko inperatoreen bizitza aztertzerakoan, laterri-barrungo pakearen azarnik ere ez zala aro negargarri artan gertatu. Bâ, oraingo inperatore onek ere, Julio Nepote'k izan zuan aurka jeiki zitzaion etsai bat: Orestes aundiki erromatarra: Erroma'ren serbitzurako gotiarrez osotutako gudari-taldeen buruzagia, Atila'ren adiskidea, eta ainzuzen Atila'rekin aren undarren kapardegian bizitua.

Orestes bezaiako etsai bati aurka egiteko gauza ez zala oarturik, bere Dalmazi'ra joan zan Julio Nepote Erroma'tik igesi, baiñan ez zuan alare bizia gordetzerik lortu. Antxe izan bait zan erailla.

* * *

ROMULO AUGUSTULO (475-476). - Sarkaldeko azken-inperatorea. Julio Nepote inperatoreztatik jaurti zuan Orestes aundiki erromatar aren semea, Orestes aitak inperatore egiña. Umea zan oraindik, eta ume orren izenean, bere aita, **Orestes izan zan** egiazko inperatorea. Inperoretza laburra, Orestes aitarena: urtebetekoa. Itali'ra iritxi-berriak ziran beste barbaritar batzuek, Odoakro buruzagiaren eruldarrek, kendu bait zioten agintaritza, eta agintaritzarekin batera bizia.

Romulo Augustulo mutiko gizagaixoak ez zuan inperoretzan aitak agintaritzan baiño geiago iraun, naiz bizia bai, semeak bizia salbatu: "Este, --Rdmulo Augustulo carecia hasta de las más elementales condiciones, tanto que Odoacro, despu és de dar muerte a Orestes, le destrond sin gran esfuerzo, si bien le perdond la vida, pues por su incapacidad no le inspiraba ningtin temor" (Espasa).

Errezegi itsusitzen du Espasa'k Sarkaldeko azken-inperatorearen oroipena, "las más elementafes condiciones" en urritasuna ez

bait zan Romulo Augustulo'rena, Sarkalde ta Sortalde, Erroma'ko Inperio osoarena baizik, beste arrazoi batzuen artean, IV mendean Erroma'ko gudaroztea, garai bateko lejio menderakaitz aiek --, IV mendean erromatarrez ez baiña barbaritar atzerritarrez osoturik zeudelako. Erromatarrek ez ziran aberriaren alde gudara joateko gauza.

Au zan 476'garren urte artan egiaz gertatu zana:

- Orestes Erroma'ko buruzagiak ez zuan Odoakro'ren aurka borroka egiterik izan. Borrokan asi aurretik, Odoakro^s ren aldera igaro bait zitzaizkion, bere gudari guztiak. Saldurik utzi zuten Orestes doakabea. Gudari aiek danak, barbaritarrak ziran. Atzerritarrak.

Orestes erailla izan zan.

- Romulo Augustulo gazteegia zan aitaren laguntzarik gabe inperatore izaten asteko: 13'ren bat urteko mutikoa.

- Sarkaldean, ezta Erroma'ko urian bertan ere, ez zitzaion iñori Sarkaide'ko Inperioaren nortasuna ta askatasunagaitik axola aundiegirik izan.

- Odoakro'k Erroma'ko Errege egin zuan bere burua. Ez zuan aurkatasunik izan. Erromatarrek ezer esan gabe artu zuten erregetzat Odoakro eruldar garaillea. Badirudi ez zirala aldakuntzaz oartu ere, batez ere Odoakro'k Erroma'ko legedirik eta oiturik aldatu ez zuala ikusi zuten ezkeru.

- Ezta Sortaldean ere, Iraultzen pipiak auldutako Sorkaldeko Inperioak ez zuan Sartaldeko Inperioaren alde zerbait egin aal izateko gaitasunik aski. Urte artan bertan gaiñera, iraultza zipotzean naasirik aurkitzen zan, Zenon egiazko inperatorearen aurka jeiki zan Basilisko sasi-inperatorearen erruz.

- Iraultza oiek baiño gaitz geiago egin zioten Sortaldeko Inperioari, ainbeste ereji zitalen etenik gabeko sorketak piztutako laterri-barrungo iskanbil eta zalaparta izugarri aiek. 476 artan bertan ez ziran txikiak monofisikeriak ekarritako istillu gogorak. Istillu aietaz, ainzuzen, baliatu zan bere borroka odoltsua aurrera atera naiez, Basilisko sasi-inperatorea.

- Sortaldeak ez zuan bear aiñako indarririk Sarkaldeko barbari-tarrak borrokatuz Erroma salbatzeko. Ezta askoz gutxiagorik ere. Aski larri ikusten zuan bere burua, Sortaldean bertan Kostantino-pia, inguruko barbaritarren erasoen aurka, yare gordetzeko.

- Sarkaldeko Inperioak ez zuan almenik Sarkaldekoa babesteko. Ez zuan gogorik ere. Zenon zan Sortaldeko inperatorea. Baiñan berdin izango zan beste edozein izan ba'litz ere. Sarkaldea inperatorerik gabe gelditzen ba'zan, ez zuan Sortaldeko inperato-reak ezer galtzen. Alderantziz, irabazi egiten zuan. Asko gaiñera. Arrezkero bera gertatzen bait zan, Sortalde Sartalde, Inperio osoko Inperatore bakarra

Gizonki jardun zan Odoakro Erroma'ko azken inperatore sartaldetarrarekin: Bizia barkatuz gaiñera, urteroko sari dotore bat ipiñi zion, era egokian bizi zedin; eta Itall'ren egoaldeko Kanpani'-ra bidali zuan, an bizi bait ziran Romulo Augustulo'ren aide ta sendikaak.

Orrela jausi zan Sarkaldean Erroma'ko Inperioa. Bizirik jarraituko du ordea Sortaldean XV mendearen erdira arte ia beste milla urte luzez. Sarkaldekoa jausi zanez gero ordea, Sorkaidekoari ez zaio "Inperio Erromatarra" esaten, "Inperio Bizantziarra" baizik, inperio ark uriburu zuan Kostantinopla'ren izen zarra Bizantzio zalako.

IPARRALDEKO BASATIEN ETORRERA

Larri aurkitzen zan V mendearen asieran Eliza. Ez da arritzekoa. I Kostantino inperatoreak bere ikurriñean Kristo'ren gurutzea ezarri zuan ezkerre, eta, nola ez? I Teodosio'k kristautasuna Erroma'ko Inperioaren legezko erlijio bakarra *egin* zuan ezkerre, pozez beterik Erroma'ko Inperioarekin bat egiñik sumatzen bait zuan Elizak bere burua. Gorputza ta anima bezala ziran Inperioa ta Eliza

Ta, kristauak egoera zoriontsu ori gozatzen asiak ziran unean, orra or non datozen iparreko barbaritar basatiek, ain maite zuten Inperio ura eta inperio ura kristautzeko egin zan lan guztiak ankar gora jaurtiz, Elizaren bizia bera arrisku izugarrian ipintzera. Izan ere jende basati aiek danak, edo jentil sasijainko gurtzailleak edo ereje ariotar Elizaren etsaiak bait ziran.

Nondik eta zertara zetozen barbaritar aiek? Nor ziran? Nolakoak ziran?

Erromatarrentzat, "Barbarus" itzak "atzerritarra" esan nai zuan. Aientzat, Inperioaren mugetatik landa zegoan lurralde guztia zan Barbaria.

Ala, barbaritarrak ziran Saara'ko artzai tuaregtarrak, Saara'z egoaldeko beltzak, Ejito'ko Nilo'z gorako etiopiarak, Itxasgorri 'ren sortaldeko arabitarak, Mesopotarni'z aruntzko pertsiarrak, Rin eta Danubio ibaietaz ipar-sortaldera gelditzen zan lurralde zabaleko germaniar oraillak, eta V mendearen erdialdera Asi urrunetik etorri ziran

Atila'ren "huns" edo undar mongolitarrak.

Baiñan gero, edestia-zear, batez ere germaniarrei esan oi zaien "barbaritarrak",

Erri askotan zatiturik zeuden germaniar auek, eta leiñu askotan Erri bakoitza. Ezer gutxi dakigu beren jatorriaz danak indeuroparrak zirala izan ezik. Beren jatorriaz zerbait jakiteko, edesti-aurreko aztarnarik apika utzi bait ziguten.

Dirudianez, Suezin, Dinamarca'n eta Alemani'ko iparraldean bizi ziran Krist'aurreko II mendean, eta andik zabaldu ziran Europa'ren sortalde ta sartaldera.

Krist'aurreko 11 mende orren azkenera, Erroma'ko Inperio gazteari erasoz, Itairren iparreraiño sartu ziran germaniar aietako Erri bi: Zinbritarrak eta Teutonitarrak. Baiñan Itali'n, zearo porrokatuak izan ziran. Garaillea, Mario Erroma'ko lejiolarien buruzagia. Ori, Krist'aurreko 102 eta 103)garren urteetan gertatu zan. Oiek ditugu, oso luze ta ugaritsua izango zan barbaritar eta erromatarren arteko gudu-zerrendan aurreneko borrokaldiak.

Ordurako, beste germaniar batzuk ere iritxi zitzaizkigun Poloni'ra, eta an zeuden bizitzen: Bandaliarrak, "Vandals", ta Gotiarrak, "Goths".

Krist'aurreko lenen mendean, Julio Zesar'en aldian, Rin ibaiaren araneraíño etorriak ziran germaniarrak, Ain zuzen Rin ibaiaz onuntz bizi ziran germaniarrei erromatarrak ba'lira bezala bertan jarraitzeko eskubidea emango die Julio Zesar'ek.

Ez zuan luzaroan iraun Julio Zesar'ek eratutako pake-une orrek: Krist'aurreko I mende berorren azkenean, Erromatarrek, -- iur-lapurrak izaki-ta Rin ibaia indarrez igaroz, Alemani'ren erdiko Elba ibaieraiño luzatu nai izan bait zuten beren Inperio zabala. Aurpegi eman zien ordea, germaniarrek buruzagi aukeratu zuten Arminio'k, eta menderakaitzak omen ziralako lejiio erromatar aiek, an, Alemani'ko lurretan, Armenio yayoak menderatuak, zearo apurtuak eta ia-ia oso-osoan ezereztuak izan ziran. Al zuten bezain arin itzuli ziran Rin'en alde ontara bizirik irten ziran apurrak. Ori, Krist'aurreko 9'garren urtean gertatu zan, Joseba izeneko mutil

gazte bat eta Miren izeneko neska gazteago bat Nazaret'en bakoitza bere eginkizunetan paketsu bizi ziran garaiean,

Erromatarrek Elba-bidean jasandako ondamen aren ondorean, Rin eta Danubio izango dira laureun urtez Erroma'ren iparraldeko mugak, V mendearen asieran beste germaniar batzuek, suebitarrek, alanitarrek eta bandaliarrek Rin ibaia igarotzen duten arte. Eta bitartean, gaur pake eta biar guda, ez da muga oietan atsedean ziurrik asko izango.

Krist'osteko II mendean, ezagunak ditugu Tazito'ren bitartez beste Erri germaniar batzuk ere: Elba ibaiaren ertzetan bizi ziran Suebitarrak adibidez eta, antxe bertan, suebitarren adar bat ziran Lonbardarrak. Anglitarrak, gaur Dinamarka dan Jutlandi erdiugar-tearen egoan bizi ziran, eta [I mende orren erdialderako, arrapatua dute Bandaliarrek Transilbani. Eta gotiarrak, Ukranian ditugu. Erri germaniar oietako jendeak, geienak artzaiak ziralarik, an-emen-i-biltze-zaleak bait ziran, beren abereentzako larre billa.

Alatagutziz, Inperio Erromatarra sartzea lortzen zuten aiek, al ba'zuten beintzat bertan gelditzen ziran bizitzen nekazari bihurturik. III mendean, barbaritarren eskuetan zeuden neurri aundian inperio-lurretako artzantza ta nekazaritza.

III mende ortan kokatu ziran Burgundiarrak Alemani'ko Mainz ibaiaren ibarrean, andik eun urte geroago Galietara igarotzeko. Frankiarrak berriz, "Franks", gaur Olanda'koak diran Rin ibaiaren ipar-ertzetan dauzkagu oraindik, andik Galietara jauzi egiteko prest. Sartu zaizkigu "Alamans" edo Alamandarrak ere Erroma'ren inperio-lurraren barrura.

IV mendean barbaritarren aurka ia gelditu gabe ibilli bearo dute Erroma'ko inperatore kristauak. Etsairik gogorrenak, iparraldetik, Alamandar oiek eta Gotiarrak izango dituzte, eta sortaldetik, Pertsiarrek: betiko etsaiak, auek, baiñan iñoiz baiño indartsuagoak IV mendean.

Gotiarrak bi talde egiñik agertzen zaizkigu: Ostrogotiar, edo "Sortaldeko Gotiarrak", "oster"itzak "sortalde" esan nai dualako, eta Bisigotiarrak, ots, "Gotiar Kementsuak", eta ez, askotan esan

oi dan bezala, "Sarkaldeko Gotiarrak" , "bisi" ez omen da ba "sarkaldetar", "kementsu" baizik.

Oso gaizki ibilli zan Erroma'ko Inperioa bai sortaldean eta baita sarkaldean ere bere bizia salbatzeko. Arras inperio-lurraren barrura sartu ziran germaniarrak, baiñan alabadare, V mendea izan zan barbaritarren mendea. Ugaldea bezala jausi bait ziran Erroma'-ren gaiñera.

Mende orren azkenean sartuko dira Inghlanderrira Anglitarrak eta saxonitarrak; 500'garren urtean.

Urte ortan bertan, IV mendean Balkanetan ikusi ditugun Ostrogotiarrak, Itali'ko iparraldera etorriak ziran. Bisigotiarrak berriz, ordurako, Galieta'n, Narbona-aldeko lurraldeetan jarriak. Tolosa izango dute laister erreñuaren uriburua.

* * *

Erri barbaritar aiek nola bizi ziran? Julio Zesar eta Tazito izango dira galde orri erantzuna emango diguten edestilari bakarrak. Edestilari bikaiñak, biak. Baiñan gai oni-buruz ez iztunegiak. Agian beraiek ere ez bait zuten askoz geiago jakingo.

Alatagutziz arras interesgarria zaigu guri, Erri aiek nola bizi ziran jakitea, nere ustez beintzat aien bizierak bai bait du EuskalERRI zarreko jendeenarekin kidetasun galanta:

Germaniarrak, Erri askotan zatiturik zeuden. Baita euskaldunak ere. Oro, Dordofia'tik Ibero-Mendietara eta Autrigoietatik gaur-egungo Urjel-aldera arte, zenbat Erri euskaldun zenbatzen dizkiguten erromateko edestilariak.

Germaniarren Erri bakoitza, "klan" edo leiñu askoz osoturik zegoan, eta leiñu bakoitzak "Basa-Uri" asko zituan. "Pagus" esaten diete erromatarrek Basa-Uri oiei. EuskalERRI zarrari dagokionez ere badirudi, Erri bakoitzean, Baskoin-Errian adibidez **aski** biziera yarea zuala Aran bakoitzak, eta baita Aran bakoitzean Basa-Uri bakoitzak ere, EuskalERRIAN "Auzoei" eman oi zaion garrantzia gogoan artzen ha'dugu.

Julio Zesar'ek dioskunez, bere garaiean, pake-aroetan beintzat ez zuten German-Erriek Agintari Nagusirik izaten. "Pagus" baikoitzean bertako "Agureak" ziran batzarrean "pagus" artako bizia zuzentzen zutenak. "Seniores", esaten die Julio Zesar'ek "Agure" aiei.

Guzti orrek badu noski gure Basa-Urietako, oroi Enkarterrietako "Errepublikak" eta gure Aranetako oroi Baztan badu gure batzarrekin kidetasun galanta.

Leiñu edo "Klan" bakoitza, askoz geiago Erri bakoitza --, bata bestearengandik zearo yareak omen ziran. Baita erromatarrekin itunketan asteko ere.

Orrela aritu ziran Zesar'en denborako Leiñu ta Erri euskaldunak ere erromatarrekin bana-banaka itungintzan, eta orrela menderatu zituzten erromatarrek, banaka-banaka Euskal-Erri guztiak.

Julio Zesar'engandik berreun urtera, Tazito'ren garaiean, aski aldatua dakusgu barbaritarren giza-kerak. Ari bait da poliki-poliki germaniarren domokrazi zar ura monarkirako bidera sartzen.

Gudaketarako, aukeratzen zuten len ere barbaritarren Erriek buruzagi bat. Baiñan gudate bakoitzarako bakarrik. Orain ordea, Tazito'k idatzi zuanez, gudate ala pake-aro, denbora guztirako izaten zan aukeratua buruzazgi ura, gure denbora auetako laterriburuen antzera. "1-leruli" edo Eruldarrek adibidez, aristokrazitarren artean aukeratzen omen zuten Buruzagi ura, eta bere bizi guztirako.

Edozein erregerekin buruzagi aiek zer ezberdintasun izan zezaketen? Bat bakarra: buruzagi aiek beren buruzagitza seme bati ondarez uzteko eskubiderik ez zutela. Buruzagi aiek bezalakoak izan ziran beti Bisigotarren erregeak ere. Errege izena bai, bazuten; baiña eriotzako orduan erregetza seme bati uzteko eskubiderik, ez.

Baiñan buruzagi aiek ez ziran diktatore bakarragintzailleak. Bakoitzak bai bait zuan, bere jardunkeraren begira egoteko, "principes" edo "aundikien" bazkun bat. Antza aindiririk ez al du eraketa orrek gure Batzar Orrokorrekin eta Batzar Orokor oiek urte bakoitzarako aukeratzen zituzten Aldun Nagusiekin?

Barbaritarren buruzagi aiek bazuten beren gaidik Euskalerrian sekulan izan ez dugun beste batzar bat ere: "Gudari-Batzarra". Gudari guztiek zuten bazkun ortan bazkunkide izateko eskubidea, iru oben nagusiren errudun izateagaitik, zigorturik ez ba'zeuden beintzat. Ona zein ziran iru oben nagusi aiek: Kuntzeberdinkeri edo ornosexuaitatea, koldarkeria, eta etsaien serbitzura egon izatea.

Garrantzi aundikoa zan Gudari-Batzar ori, bazuan ba buruzagiaren aginduak onartzeko ala gaitzesteko eskubide guztia. Eta guda-arazo txit larrietan, bera zan autoritate edo aginpidedun nagusia.

Larritxo dirudi, baiñan gudugintzarako ere ez omen zezakean buruzagiak bere gudariei agindurik eman: aolkuak bakarrik baizik.

Tazito'ri jarraituz, esan dezagun garai artan bazutela epaikera bereizi bat ere, naiz oraindik aski baldartxo ta eldugabea: Gudari Guztien Batzarrak, epaile batzuk aukeratzen zituan; epaile auek basa-uriz bas-uri ibiltzen ziran, auziak epaizeko. Zigorra, isun bat izan oi zan: orrenbeste zaladi, adibidez.

Eta epaile aien agindua bete gabe gelditu ez zedin, epaile bakoitzari eun izkillu-gizon ematen zizkion laguntzaille, Gudarien Giztien Batzar arek.

Baiñan auzi, arazo eta gaiztakeri aundienak epaitzeko, eriotzaraiño borrokak, ots, salatuaren eta salatzaillaren arteko eskuz-eskuzko erio-borrokak jarraitzen zuan epaiketa-bide bakarra, germaniarren artean.

Eriotza bait zan aien ustez epaile zintzo bakarra, borroka aiek Jainkoaren itzalpean egiten zirala, bene-benetan sinisturik zeudelako. Ala, borrokan illik gelditzen zana, erruduna zalako gelditzen zan illik; eta bizirik irtetzen zana, errugabea zalako irtetzen zan bizirik.

Ia erdiaro osora igaro zan "Jaikoaren Epaiketa" esaten zitzaion oitura basati anker ori. Luzaro jarraitu zuan ba barbaritarrak kristauatuak izan ondorean ere.

Bataioa artze utsez, gizakumeez ez bait dute pekatari izatez uzten. Ez beintzat izaeraz eta oituretas ain errez aldatzen. Ala,

Elizak ezin izan zuan mende luzez oitura odolgarri ura eragozi. Orregaitik, mende luze aietan, araudi zorrotzen bidez oitura makur ura, bakanagotzen, urriagotzen eta legunagotzen saiatu zitzaigun, oitura ori erabat galerazteko garaia iritxia zitzaiola ikusi aal izan zuan arte.

Bitartean izan zuan toki batzuetan Elizak agintarien laguntza. Oroi adibidez Araba'ko Batzar Orokorrak eta Estibaliz'ko "Jainko-Epaiketak".

Tazito'ren denboran sendotu zan germaniarren artean erdiaro guztian iraungo duan "feudataritza" ere. Ikus nola:

Edozein gudarik bazuan, lur berriak irabazteko buru barruan erneturik zeuzkan asmoak Gudarien Batzar Orokorrean aurkezteko eskubidea, eta, baita, asmo aiek bete aal izateko, an bertan lagunak eskatzekoa ere: "Nork etorri nai du nerekin lur-arrapaketa ortara"?

Eskaria egin zuanari, "leader" esaten zitzaion. "Dux" latinez. "Zuzendari", euskeraz. Eta berarekin alkartzen ziranei, "comites", "laguntzailleak".

Borrokan garaille irtetzen ba'ziran, irabazitako lurralde artan jartzen ziran danak bizitzen. Julio Zesar'en aldia "dux" ura, lurra irabazi arteraño izaten zan agintaritzat artua. Bein lur berrian bizitzen asi, erabat bat galtzen zuan bere agintaritza guztia, eta danak ziran ostera berdiñak.

Ez ala Tazito'ren aldia. "Dux" eta bere "comites" aien artean, egiten zan ituna, betirakoa zan. Betirako jartzen ziran "comites" edo "laguntzailleak", yareki zuzendaritzat artu zuten "dux" aren esanera. Lurra irabazteko borrokaldian izan zan bezala, bera zan irabazitako lur berrian ere Agintari Nagusia, eta, laguntzaille guztiak, aren esanera gelditzen ziran. Ori ez zan oraindik feudataritza, baiñan bai feudataritzaren azia.

"Dux" garaillea ez zan oraindik irabazitako lurren "jabea". Tazito'ren aldia, germaniarren artean gizakumeek lurraren jabegorik ez bait zuten izaten. Lurra, gizartearena zan oraindik. Orregaitik, gudatekoan bere "laguntzaillei, izkillu ta jantzi ta janari bear zuten guztia ematera bearturik zegoan "Dux" arek

lurra irabazi ondorean ez zien laguntzaille aiei lantzen asi ziran alorren jabetasunik ematen. Arrapatutako aberastasun guztien zati bat, bai. Baiñan lurren jabetasunik, ez. Berak ere, naiz lurra bai, lur aren jabetasunik ez bait zuan irabazi. Gure Euskalerra ontan ere baditugu antziñako lur-jabetasun-bakarti-bakarti-ezaren aztarnak.

Esan dugun bezala, 'Tazito'ren garaiean, laguntzaille edo "Comites" aiek betirako gelditzen ziran beren "dux" edo "zuzendari" jaun ari Iotuak.

Nola lotuak gaifiera! Gure azken gudateko "kamWaze" japoindarren antzera, zorientzat bait zeukaten "zuzendari" aren esanera borrokan iltzea; eta zoritxar aunditzat, "zuzendaria" illik, berak bizirik jarraitzea.

V mendeaz gero, bai, Erroma'ko Inperio ezereztuz gero, irabazitako lurren jabe ta errege izango da azkenean "dux" bakoitza, eta lur puska ederrak emanez sarituko ditu, arrezkero erreñu berriko konteak izango diran lengo "comites" edo "laguntzaille" aiek. Aldi artaz gero, ori esan naiko dute beti lateraz "comes" itzak eta bere ugaritasun-kerak dan "comites"ek: "Konte", "Konteak"; "dux" ek "duke" esan naiko duan bezala.

Orrelakoak ziran Elizak kristautu bear zituan Erriak

* * *

Zergaitik eta nola etorri ziran?

Erroma errepublika zan denbora beretik asi ziran germaniarrak Erroma'ren lurretara sartzen. Borrokalari, bein edo bein; baiñan geien-geienetan era paketsuean, V mendera arte. Banaka, batzuetan; sendi osoak beste batzuetan; eta talde ugariak, maiz aski.

Zerk ekartzen zituan?

- Erroma'ko Inperio apañaren dizdirak, gure baserrietako neska-mutillak uri aundietako dizdirak erakartzen dituan bezala.

- Zertaz-bizi billatu bearrak. Bearkizun orrek bultzata etortzen ziran sendi osoak inperiolurreko alorretan lan egitera. Eta txit ongi artuak izaten ziran, Erroma beti nekazari-faltan egon oi zalako.

- Mutil gazteak berriz, adur edo patua zirikatuz gizartean goruntz igo naiak zirikatzen zituan. Erroma'ren lejiok ataka ederra eskeintzen bait zien goora-bide ortara sartzeko. Ikusi dugu noraiño igo ziran bide ortatik barbariar gazte aiek eta aien semeak -- gizarteko mailladian, Rizimer, Estilikon eta batzuk bezala. Oroi, baitare, Erroma'ko Printzes batekin ezkontzen ikusi ditugun buruzagi barbaritar aiek.

Jakiña, ez ziran danak gudaroztearen eta politikagintzaren mailla guren oietaraiño igotzen, baiñan pilloka izan ziran lejioretan "centurio" edo "euntari"en maillara, eta baita mailla ortatik gora ere irixita, beren biziera ederki ta dotore eratu aal izan zutenak. Gizartean itzal aundikoak eta eraspen guztiz artuak bait ziran lejioretako "ofizialak".

- Maiz aski, ordea, Erri osoak izaten ziran Erroma'ren gaiñera jausten ziranak. Zergaitik?

Batzuetan bizi-bearraren legeak bultzata, leiñu edo "tribu"ko jendetza asko azi zalako, guztientzako bizi-bide bat billatzera etortzen ziran.

Beste batzuetan, bizi-bearrak baiño geiago, eriotzatik iges-egin-bearrak bultzatzen zituan, Asi-barrundik etorritako Erri indartsuago eta basatiago batek Errusi-aldetik gudaz jotzen zituan erasoari ezin utsiz. Asi-aldetiko Erri mongoliar aietatik, bat bakarrik iritxi zan Erroma'ko Uriraiño: Atila'ren Erri "undarra".

IV Mendean eta V'ean ezpata eskuetan zutela borrokalari urbildu ziran barbaritarrek Erromaren inperio-lurretara. Ugariak, aterrik gabeak --,

eta gogorak izan ziran barbaritarren eta erromatarren arteko borrokak. Sarkaldean, eta Sorkaldean.

Gauza bat da alare egi ziurra: Erri barbaritar borrokalari aiek, ez zirala Erroma'ko Inperioa ezereztera etorri. Maite zuten ain miresgarria gertatzen zitzaien Inperio aundi, dotore, aberats ura. Inperio aren barruan bizi nai zuten, erromatarren antzera. Bein Inperioaren barruan, Inperio aren zati uste zituzten beren buruak; eta Inperio artako biziera, izkuntza ta erakundea eraspen aundiz

ikusi, ta, gaiñera, eredutzat artu zituzten.

Ala, Odoakro eruldarrak Erroma artu eta Romulu Augustulo inperatoretzatik kendu zuanean, bizirik utzi zituan Senatua eta Erroma'ren beste agintegaillu guztiak. Gauza danek jarraitu zuten len bezala eruldarren Itali'n. Eta Odoakro'k bere burua Erroma'ko errege ez baiña Erroma'ko Inperatore izendatu baTu, sumatu ere apika iñork aldakuntzarik sumatuko zuan. Naiz bera ariotarra izan Inperioko erlijioarekin, ots, Katolikotasunarekin arras eraspentsua izan bait zan.

Eta Odoakro'z diogun ori, era berean esan bear dugu beste buruzagi barbaritar ariozaleetaz ere. Bandaliarrak Afrika'n eta Españi'n une labur-labur batez bisigotiarrek izan ezik, Erri aiek danak izan bait ziran katolikotasunarekin eraspentsuak.

Pozik gelditu ziran Barbaritarrek inperio-barruan bizitzen, "foederati" edo "laguntzaille" bezala Erroma'ko Inperatorearen deduzko lendakaritza gurena onartuz, inperiotza, azken-inperatoreak jarraillerik izan ez zualako, ezabaturik gelditu zan arte.

Ordurako ordea, aski erromarturik zeuden barbaritar aiek, eta geiago erromartuko dira urrengo mendeetan. Erdiaroaren luzaro guztian, Erroma'ren izkuntza izango da barbaritarren izkuntza, latiña, eta Erroma'ren erlijioa aien erlijioa: Katolikotasuna. Kulturari dagokionez berriz, Erroma'ko kulturaz jantzi naiko dituzte beren buruak.

Rekaredo'ren bisigotiarrek eta Karlomagno'ren frankiarrek, askoz kidetasun geiago dute I Teodosio inperatorearen denborako erromatarrekin, Tazito'ren denborako bisigotiarrekin eta frankiarrekin baiño.

Eliza izan zan aldaketa orren eragillerik garrantzitsuena. Elizak beste erakunde guztiek baiño millaka aldiz eraginmen geiago izan bait zuan barbaritarren aldakuntza ortan.

* * *

Kristauak al ziran iparraldetiko barbaritar aiek? Bai, Erroma

menperatua izan zanean beintzat: oraindik jentil jarraitzen zuten frankiarrak izan ezik, Kristauak ziran beste Erri germaniar aundiak, baiñan ariotarrak, ariotarra izan bait zuten aurrena bataiatutako barbaritarrek, bisigotiarrek, kristautasunera ekarri zituan mixiolaria: Uffila gotzaia, bera ere bisigotiarra.

Baiñan Ulfila'ren aurretik ere izan zuten kristautasunaren berri. Batez ere, guduetan katigu artzen zituzten erromatarren bidez.

Ulfila'k berak ere, naiz gotiarra izan, amaren aldetik odol erromatarra bazuan zaiñetan. Erromatarrak izan bait zituan bere aiton-arnonak: Kapadoziarrak: III mendean bisigotiarrek Kapadozi'raifio egindako sarrera odoltsu batean Kapadozi'n katigu arrapatuak.

Gotzai ariotar txit ezagun batek sagaratu zuan gotzai Ulfila gotiarra: Nikomedi'ko Eusebio ber-berak.

Bee-Danubio'ren iparraldean, oraingo Errumani'ren lurretan zebiltzan orduan bisigotiarrek, eta inperatoreari bidalitako enbaxada edo ordezkari-talde batean iritxi zan Ulfila Inperioaren uriburura.

Gotzai bereala itzuli zan beretarrengana, aien artean kristautasuna zabaltzeko leiaz beterik.

Ez zan Ulfila, ez orixe, nolanaiko gizona:

Mixiolari aundia, bera izan zan barbaritarren arteko kristautasunaren oiñarria.

"Hornousiostar" katolikoan eta "hornoiusiostar" erdiarianikeri zaleen artean "homoiostarra" izan zan Ulfila, egiazko ariotarra beraz, eta zalantzarik gabeko subordinazionista edo menpekerizalea, eta ori izan zan bisigotiarrei erakutsi zien arianikeria, eta gero beste barbaritarrei bisigotiarrek erakutsiko ziena: arianikeri !eguna, gogorkeri ta indarkeriaren etsaia.

Idazle yayo, berak itzuli zuan Biblia gotiarren izkuntzara.

Izkuntzalari trebea, itzulpen ori egin aal izateko, berak sortu bear izan zuan gotiarren izkuntzaren izkidia, ots, alfabetoa.

Eratzaille bezala ere lenen maillakoa izan zan Ulfila, berak tajutu zuan bd bisigotiarren Eliza. Eta Eliz artako jerarkia. Eta liturgia!

Eraginmen aundiko apostolua, Ulfila. Bisigotiarrak egiaz eta benetan kristautzeko ez eze, aiengan apostolutzarako gogo sendoa sortarazteko ere izan bait zan gauza. Eta ez ziran nolanaiko mixiolariak irten Ulfila'ren bisigotiarrak. Eliz bisigotiar artako gotzai eta apaizen lana izan bait zan ostrogotiarren, bandaliarren, suebitarren burgundiarren eta eruldarren kristauketa.

Bandaliarrak, dirudianez, kristautu ziran; Burgundiar-
rrak, Galietan, eta Ostrogotiarrak Pannoni'n.

Bisigotiarrei dagokienez osoro tinkoturik zegoala dirudi beraien artean kristautasuna, erromatarrekin "foedus" edo alkartasun-ituna egin ezkeru Bee-Danubio'ren ertzeko Misi'n Laterri yare bezala 382'tik 395'ra bizitzen egon ziranean.

Orduan ain zuzen sortu zan germaniarren arteko monarkia. Orduan asi bait ziran buruzagiak beren buruei "errege" izena ematen.

Frankiarrak, arianikeritik igaro gabe zuzenean egingo dira jentiltasunetik katoliko, Erroma jausita gero VI mendearen asieran.

Berdin igaroko dira jentiltasunetik katolikotasunera anglitarrak VII mendean eta sajoindarrak VIII'aren bigarren erdian. Eskandina-bi'n gelditu ziran germaniarrak, X mendean asi ziran Elizara sartzten eta XI'ean katolikoak ziran basoetako baserritar ugari batzuk izan ezik.

Barbaritarren etorrerak sortutako zurrunbillo artan nola bizkortu zan Eliza, eta nola ekin zion barbaritar guzti aiek danak bere altzora ekartzeko lan izugarriari, Erdiario Garaieko Elizaz idatziko dugun liburuan aurkeztuko dizugu.

Aurretik ordea, aztertu'itzegun barbaritarrek sortutako zurrunbillo artan Kepa'ren ontzia zaindu ta zuzendu zuten Aitasan-tuen jardunkera zintzoa.

SORTALDEKO INPERATORE ALTSUEN ETA SARKALDEKO
INPERATORE AULEN ARTEAN
V MENDEKO AITASANTU BIKAIÑAK

Ongi ezaguna zaigu V mende artako giroa: Elizaren barruan, erejiak; lengo mendeetako ereji zarren ondarrak; eta mende artan bertan sortutako ereji berria. Elizatik-at, Europa'n, gora ta bera, ezker-eskubi, era guztietako barbaritarrak, ondamena ta eriotza zabalduz, ez bait ziran gozoak ibiltzen barbaritarrak, gudari lez etortzen ziranean. Aldakuntza aundiak egin ziran Europa'n, gizarte berri baten jaiotza izan zan V mende latz artan. Ta aldakuntza aiek ez ziran oiñazerik, samin aundirik, eta ondamen askorik gabe gertatu.

Nekazal-lurrak, landak, eta baserriak erraustuak, eta nekazariak eraillak edo iges egitera beartuak. Eta etorri berriek erraustu zuten lurraldea, gero beraiek lantzen asten ziranean, an zetorzkien gaiñera beste leiñuko barbaritar batzuk, len beraiek egin zutena bera bir-egitera. Uriak, ugari, porrokatuak zearo. Treberis adibidez lau aldiz izan zan leiñu ezberdiñetako barbaritarrek artu, ostu, ta ondatua, 405'etik 440'era. Sirmio, Sortaldeko Inperioan uri europear ospetsua, zazpi aldiz izan zan leiñu ezberdiñek arrapatua 427'tik, 582'ra "Avars" edo abaritarrek erabat ezereztu zuten arte.

Kalte aundiak ekarri zizkion kristautasunari eskiertasunik ez izate orrek. Alare ez ziran bazter guztietan kalte aiek berdiñak izan.

Itall'n ostrogotiarrak eta Españi'n bisigotiarrak eraspentsuak izan ziran Elizarekin.

Baiñan beste toki batzuetan, batez ere, Danubio eta Rin ibaien lurraldeetan, Pannoni'n adibidez, eta gaurko Suizi ta Ego-Babari'n zegoan Reti izeneko probintzian, Eliza ezereztua gelditu zala esan bait daiteke.

Gaurko Olanda'n eta Inghlanderrian ere izugarri ondatua gelditu zan kristautasuna, eta bearrezkoa izan zan vII mendean lurralde aietan, mixiokuntza berri baten bidez, kristautasuna bir-ereiten astea.

Oso gaizki ibilli ziran gaurko Yugosiabi'n, orduango Iliri'n ere kristauak. Eta Dalmazi'n. Abaritarrek desegin zuten an Sabona, orain Split esaten zaion uria.

Galietaiko iparralde guztian, Belxika'tik Bretaflira, ez zuan Elizak alako galera aundirik izan. Nekeak bai, aundiak, baiñan bizirik jarraitu zuan kristautasunak. Ta, naiz aski ondatuak, bizirik jarraitu zuten uriak ere, eta uri bakoitzean, poliki-poliki barbaritarren gizartea txukunduko zuan erromar-kulturaren dizdira.

Afrika'n bai, gaizki ibilli zan, bandalitarrek gaurko Tunizi'ren mugetatik Atiantik-Itxasoraitio lurralde guzti aren jabe egin ziranean. Benetan eta fede zintzoa ariotarrak, Genseriko eta Unneriko' k batez ere ariokeria oiñarriztat artuz, erlijiozko batasuna egin nai izan zuten Afrika'n, orrela Laterriaren batasuna oiñarri ziurrean ezartzeko.

Egiazko zigorketa izan zan Gensertko'k berak Unneriko aren semeak eta Trasmund'ek, kristautasuna ito naiean Elizaren aurka erabilli zutena. "Perscutions d'ailleurs fort habilement menees" (Marrou), "arras egoki eratutako zigorketa", bereiziki arianikeriaren alde zabalkunde-lan ugariak egiñez, elizak itxiz edo katolikoei kenduta arianizaleei emanaz, gotzaiak erbesteratuz eta katolikotasuna auldu zezakean oro jokuan ipiñiz moldatua.

Egin zituzten martiriak ere. Baiña ez dirudi ezer asko lortu zutenik, 533'ean Justiniano inperatore sortaldetarrak Belisario gudalburuaren bitartez bandaliarrak garaituta lurralde ura Sortaldeko Inperiorako irabazi zuanean, salbatzailletzat artu bait zuten berez sarkaldetar ziran Afrika'ko kristauek Sortaldeko inperatorea.

Naitanaiez esan bear dugun gauza da, giza-ugalde aietan ederki jardun zirala gure gotzaiak, era guztietako barbaritarren buruzagiei jende xearen alde aurpegi-emanenez. Askotan, barbaritarren naas-maas artan gotzaiak jaurlari baten lana egin bearrean ere aurkitzen bait ziran. Ala, naiz lekaide besterik izan ez, Seberino Donea, Danubio'ren ipar-sarkaldean, eta, Inghlanderrian, German Donea, britaniarrak babesteko gudarozte baten aurrean jarrita saxoniarrak garaitu zituan gotzaia. Pazko-egunean gertatu zalako, "Aleluya"rena esan oi zaio borrokaldi ari.

Gotzai guztien ekintzak azaltzeko astirik ez dugu-ta, aztertu ditzagun V mende artako Aitasantuenak. Barbaritarrek erromartu egin zirala esan dugu. Baiñan ez da ori bat-batean egin zan gauza. Izan bait zan aurretik illun-aro luzea: antziñako klasik-kultur bikaiñaren argi dizdiratsu arrigarria aultzen, galtzen eta itzaltzen joan zan aroa. Illuntasun ortan egin zuan Elizak lan miresgarria, Aitasantu yayo jakintsu ta santuen gidaritzapean.

Elizari zor dio Europa'k bere kulturaren salbapena. Izan zituan ortarako Elizak une artan bi lanabes eziñobe arras egokiak; laugarren mendean sortuak biak: Lekaidetxeak, barbaritarren artean sinismena zabaltzeko ta kultur-lanetarako; Parrokiak, uritxo ta baserrietan sinismena gorde ta sendotzeko. Lan ori nola izan zan egiña, urrengo liburuaren gaia izango da.

* * *

I ATANASIO (339-401). Jaiotzaz erromatarra zan Aitasantu onekin igaro zan Eliza IV mendetik V'era. Ez zan Atanasio bi urtera iritxi Kepa Donearen aulkian, baiñan alare bere aitasantutza ez zitzaigun antzua gertatu.

Bereala gaitzetsi zuan origeneskeria, ots, Origenes aundiaren aburu batzuk oker ulertuz lekaide-talde batek sortutako geiegikeri ura.

Naiz bera Jeronimo Deunaren adiskide aundia izan, ontzat artu zuan, Jeronimo Doneak erejetzat salaturik zeukan Akileia'ko

Errufino'k bere burua zuritzearren aurkeztu zion sinistaraua.

Ber-gaitzetsi zuan. Afrika'n oraindik bizirik jarraitzen zuan donatikeria, eta zentzu ortan idatzi zien lurralde artako gotzaiei.

Donejeronimo bezala adiskide miña izan zuan Nola'ko Paulino Donea ere.

* * *

I INOZENTZIO (401-417). - Erroma'ren alboan jaioa. Alariko bisigotiarrak Erroma artu zuanean, Rabena'n zegoan. Uri onen babesak Erroma'renak baiño sendoagoak ziralako, an bizi bait zan Onorio inperatorea, Alariko'gandik igesi joanda. Saiatu zan I Inozentzio, Onorio izutuaren eta Alariko garaillearen arteko pakea sendotu nairik.

Eskutitz asko idatzi zuan; asko aietatik ordea 6 bakarrik iritxi dira gugana. Ederki adierazten digute eskutitz oiek I Inozentzio benetan izan zala Aitasantu. Ondotxo daki Eliz osoaren gotzaia dala bera. Au dugu bere oldozkeraren eta ekintza ororen sustraia:

Kepa egin zuan Kristo'k Eliz osoaren Gotzai Nagusi. Aitasantu bakoitzean ordea Kepa bizi dalako, Aitasantua Eliz osoaren Gotzai Nagusia da.

Ikus, bere eskutitz aietan aurki dezazkezun gogoeta batzuk:

Kristo'ren asmoetan, Kepa, Elizako gotzaigo ta apostolutza ororen "exordium" edo oiñarria zan. Orregaitik, Erroma'ko Gotzaia "quasi caput et aciem totius episcopatus", ots "gotzaitza guztiaren buru ta gaillurra bezala" izan bear omen da ikusia.

"Oiñarri" itzuli dut nik, berez "astapena" edo "iturburua" esan nai duan "exordium" ori. Berez duan zentzuan artuz "iturburu" itzuliko euskeraz, gotzaiei beren almena zuzenean Kristo'gandik ez baiña Aitasantuagandik datorkiela esan naiko bait luke. Ta ori, Elizak erakusten duanaren aurkakoa izateaz gaiñera, Inozentzio'k sekulan pentsatu ere egin ez zuan gauza da, bere irakasketa guztia gogoan artzen ba'dugu.

I Inozentzio'k bazekian, Aitasantuaren almena bezala gotzaiena

ere zuzenean Kristo'gandik, datorrela. Alatagutziz bein baiño geiagotan darabilki izkera baldar xamar ori, gotzaietaz ari dalarik, Aitasantuaren nortasun gurena zindo adierazteko.

Ona zer idatzi zien, Kartago'n egin-berri zuten kontzilio baten mezu eman ondorean kontzilio artan erabakitakoen onespena eskatu zioten gotzai kontziliokideei:

"Ezaguna duzute zuek, zer zor zaion Erroma'ko Aulki Apostolutarrari, Aulki ortan jarririk dagoan gotzaia, Kepa'ren jarrailea dalako, eta gotzaigoa ta izen onek berekin daraman almen guztia Kepa'gandik irtena dalako", "Probintzirik urrutienetan ere, ez daiteke arazo bat zearo amaitutzat eman, auzia Erroma'ra ekarria izan arte. Emen, Erroma'n, izan bear bait du auzi zalantzatsu ark azken-aztertua, eta egiztatua".

Aitasantuari, beren kontzilioaren azken-onetsia eskatzean, gauza ederra ta zintzoa egin omen zuten Kartago'ko gotzai aiek, "Erroma'ko gotzaiarekin nola jardun bear dan Eliz osoari erakutsi ziotelako".

Onela mintzatu zitzairen berriz Milebe'ko gotzaiei: Erroma'ko gotzaiari begira egon bear dute mundu guztiko gotzaiek, Kepa bait da mundu guztiaren onerako "l'auteur de leur episcopat", "beren gotzaitzaren egillea".

Ikus nola jaso duan "Catholicisme"k I Inozentzio'ren iritzi oien gunea: "L'autorite de l'evêque de Rome est celle de l'ApÖtre Pierre lui-merne, qui est la source de l'autorite de tout l'episcopat": "Gozzai guztien almenaren iturri dan Kepa ber-berarena da Erroma'ko gotzaiaren almena". Ez dago ongi esana. Aitasantuaren almena ez bait da gotzaitzaren iturria, sakramentua bera baizik. Baiñan gotzaitza era zintzoan erabilli aal izatearen iturria, bai. Orren iturria, Aitasantuaren almena da.

Euskeraz baditugu itz bi, I Inozentzio'ren gotzaiei-buruzko oldozkera zuzenki eman aal izateko: "gotzaitza", ots, gotzaiaren almena, eta gotzaigoa, gotzaiaren kargua. I Inozentzio'k bazekian gotzai bakoitzari, sagaraketaren bidez, Kristo'k berak ematen diola gotzaitza bere almen guztiekin. Baiñan gotzai sagaratutako kristau

orri gotzai-kargua, ots, Eliza-baitako barruti batean gotzaitza eta gotzai-almen guztiak erabili aal izateko baimena, are geiago almen oiek erabiltzeko eginkizuna, ori bai, ori Aitasantuak ematen dio.

Gaur Aitasantuak aukeratu oi ditu gotzaiak elizbarrutietarako. Antziña artan ez. Baiñan aukeraketa aiek, beraien aurka deus esateke isillean artze utsarekin, aski adierazten zuan Aitasantuak bere onetsia.

Zer esan nai zuan 1 Inozentzio'k bere izkera baidarxe aren bidez? Gotzaia, naiz sagaraketaren ondorioz egiazko gotzaia izan, ez dala Kristo'ren egiazko Elizako gotzai, Aitasantuarekin bat egiñik ez ba'dago.

Ederki esana. Egia bait da gotzaigo ororen iturria Aitasantua dala, naiz gotzaitza beraren iturria Aitasantua ez baiña sagaraketa bera izan. Aitasantuarekin bat egiten ez duan gotzaia, edo erejira edo zismara jausten da, Ta, Aitasantuak, ezin izango dio gotzaitzarik kendu, baiñan kargua bai, kargua kendu egin bear dio. Aregei-ago: olako orri gotzaitzaren erabilketa galeraztera bearturik dago.

Bere oldozketa tinko orren araura, Aitasantu bezala jardun zan I Inozentzio bere eginkizun guztietan. Jon Krisostomo'ren alde adibidez Kostantinopla'n. Eta, Antioki'n, Aitasantu bezala amaitu zuan ain ezaguna dugun zisma.

* * *

ZOSIMO (417-418). Greziarra, jaiotzaz. Pelajikeria izan zuan bere urtebeteko aitasantutzan arazorik larriena.

Aurrena, oreka galdurik bezala ibilli zitzaigun Pelajio'k berak eta Zelestino Pelajio'ren adiskide kutunak erdi-atzipetu zutelako. Ez bait zan Zosimo, bere tokian ikusi genduan lez, bi aien erejiaz argi jabetzen. Aldereantziz, axarre xamar bezala idatzi zien Kartago'n Zelestino gaitzetsi zuten gotzai afrikatarrei, gaitzespren ura ariñegi egiña-edo izan omen zalako.

Zosimo'ren eskutitz ura aztertzeko, Kartago'n bildu zitzaizki-
gun ostera Afrika'ko gotzai aiek, eta Sinodo artatik gutun luze bat

bidali zioten Zosimo Aitasantuari, argi ta garbi pelajikeriaren okerkeria azalduz.

Oraingoan bai, oartu zan Zosimo len egindako oztopoaz, eta bereala, Kartago'ko gotzaiei bir-idatzi zien onespina emanaz; Onorio inperatoreari pelajikeriaren debekua eskatu zion eta, berak, I Inozentzio'ren bidetik jarraituz, pelajikeria bir-gaitzetsi zuan.

"Epistola Tractoria", esan zitzaion Zosirno'k pelajikeria gaitzesteko idatzi zuan gutun ari. "Tractoria" itzak zentzu asko ditu, baiñan emen, gutun ura "jendearen artean al zan guztia zabaldua izatekoa" zala esan nai du.

Onorio'ri eskatutako debekua, erlijiozko arazo baterako "beso sekularraren" laguntza lortu nai izatean zan. Ola esan zitzaian beintzat orrelako ekintzei geroxeago, Kristaudiak bere jaurketa zuzenerako bi beso zituala uste izan zanean. Bi beso. Sagaratuak biak, ez ordea berdiñak. Bat, eskubikoa, beso nagusia: Aitasantua. Bestea ezkerrekoa, eskubikoagandik bere almena artzen zuana, eta orregaitik eskubikoaren esanera egon bear zuana: Inperatorea.

Aburu orren araura, legezkoa zan Aitasantuak Inperatoreari edozer arazorako Laterriaren laguntza eskatzea. Inperatorea berriz Aitasantuari laguntza ori ematera bearturik zegoan kristaudi osoaren onerako.

Aburu ori, ez da zuzena, baiñan bera izan zan erdiaroan Kristaudiko politikagintzaren oiriarria.

V mendean, errez lortu zuan Zosimo'k Onorio'ren laguntza. Pelajikeriaren etsaia bait zan inperatore au. Gaiñera, katoliko zintzoa izan zan beti-ta, pozik debekatu zuan pelajikeria.

Afrika'ko gotzai aiekin bezala, izan zituan Zosimo'k Galieta-koekin ere eztabaidak. Bertako Elizen arteko jurisdizioa zan Galieta-ko auzia: zein Eliza zan "nagusia" eta zer Elizetaraño zabaldu zitekean nagusitasun ura. Ta, auzi ortan ere ez dirudi yayoegi ibilli zitzaigunik. Aitasantuen utsezintasuna ez bait da mota oietako arazoetaraño iristen.

Gaur aldareetan dugu Zosimo Donea. Baiñan Santutasunak ere, berez ez du jaurketa-arazoak zuzentzeko almenik. Ala, sinispideko

gaietatik at, jaurle bezala ez zan yayoegia izan Zosimo, eta bere aitasantutza ez zan egokiegia gertatu. Aski moteldurik utzi zituan Galietan aitasantutzaren ospea ta itzala

* * *

1 BONIFAZIO (418-422). - Bazan orduan Erroma'n Eulalio izeneko diakono bat. Eta bazuan diakono onek bere miresle-talde bat. Zosimo il zanean, Eulalio'ren miresle oiek, Letran'go jauregia ta jauretxea, biak, artuta, aitasantu egin zuten an Eulalio beren buruzagia, kanon-legearen arau guztien aurka.

Bigaramonean, Erroma'ko eliz-gizonik geienek, Bonifazio aukeratu zuten Aitasantu.

Ta orra or zisma berri bat Eliza Katolikoaren altzoan.

Une artan Erroma'ko jaurle nagusia, Simako, Eulalio sasiaitasantuaren miresleetako bat zan.

Onorio inperatorea, Rabena'n bizi zan. Eta Eulalio'ren alde eta Bonifazio'ren aurka jarri zitzaigun aurrena, Simako jaurleak bidali zizkion albiste ta aolkuak egiazkotzat artuz.

Laister ordea, eulaliotarrek Erroma'n sortu zituzten zalaparten erruz begiak iriki ta gauzak obeki ezagutu zituanean, Bonifazio'ren aldera etorri zan.

Pozik artu zuan Erroma'ko erriak Aitasantu lez Bonifazio, zisma artan egiazko Aitasantua bera zala argi egoteaz gaiñera, jitez gizon ona ta atsegiña bait zan.

Onorio'ren aldetik, alperrikakoak irten ziran zisma konpontze-ko Rabena'n egin zuan kontzilioa eta kontzilio orren ondorengo bere saiaketa guztiak.

Aurrera zijoazen ordea, Erroma'n batez ere, zisma arek sortutako iskanbillak-eta, len Zosimo'k bezala, "beso sekularrera" jo zuan oraingoan Bonifazio'k ere eta une larri artan Eliza babestearren zerbait egiteko eskatu zion. Iñork itxaron ez zuan oroiz-kanpoko erantzuna eman zion Onorio'k lege berri baten bidez. Ona lege aren mamia:

Berriro, iñoiz bi Aitasantu aukeratu izatea gertatuko ba' litz, bi autaketa aiek baliorik gabeak izango dira eta irugarren autaketa bat egingo da, irugarren autaketa ontarako Erroma'ko elizgizon guztiak bilduz. Eta irugarren autaketako elizgizon auek aukeratzen dutena izango da egiazko Aitasantua.

Ori izan zan Laterri-Buru batek aitasantuen autaketan eskua sartzen zuan lenengo aldia. Eta errua ez zan oraingoan Laterri--Buruarena, Laterri-Buru ura auzi artara ekarri zuan Aitasantuarena baizik.

Ontzat artu ote zuan I Bonifazio'k Onorio inperatorearen erabaki ura? Ez da sinistekoa, Onorio'k emandako legea ez zan beintzat aitasantuen aukeraketan beinere erabili.

Ezazula beintzat uste, I Bonifazio bere almenen apurtxo bat ere iñoren eskuetan uztekotan zegoanik. Irrno eman hait zien aurpegi bere aitasantutzakoan aurkeztu zitzaizkion arazo guztiei.

Ona, I Bonifazio'ren arazo oiek. Zosimo'gandik jaso bear izan zituan Afrika'ko eta Galietako aietaz gañera:

Grezi'n, Tesali'ko gotzaiek, Erroma'k beraiek aurkeztu zioten arazo bati, aiei atsegina izan ez zitzaien erabaki bat eman ziolako, Kostantinopla'ra jo zuten beste erabaki baten billa. Ori, Aitasantuari bizkar ematea zan.

Gauza askoz larriago jarri zuan oraindik, Kostantinopia'n Sortaldeko inperatore zan II Teodosio'k. Ona, inperatore onek Tesali'ko gotzai aiei emandako erantzuna: Tesali'ko eta Iliri guztiko arazo eta auziak, Kostantinopla'ko gotzaiarengana izan bear dute ekarriak, "uri onek Erroma'ren eskubideak baditualako".

Orra or, gero Sortaldeko Zisma aundia izango danaren biderako ataka zabal-zabalik irikia!

Egia da, Grezi eta Ihri, ots, Ungari'ren mugatik beera Peloponeso'ko itxasoraiño ia Balkanetako lurralde guztia, bi inperatoreek eztabaidan zeukaten lurraldea zala. Baiña II Teodosio'k ez zuan esaten Sortaldeko Inperatorearen eskubidea Sarkaldekoarena bezain aundia zanik. Kostantinopla'ko Elizaren eskubidea zala, --esaten zuan Erroma'koarena bezain aundia. Or zegoan

"pekatua". Agian, II Teodosio'ren aldetik kontzientziaren oarpenik gabeko pekatua, baiñan egiazko pekatu izugarria, Kristo'ren Elizako katolikotasunaren aurka.

Azkar eta ederki billi zan I Bonifazio arrisku orren aurrean. Ikus eman zituan urratsak:

- Eskutitz bat Tesali'ko gotzaiei. Ikus eskutitz onen gunea:

Eliz osoaren ardura Erroma'ko gotzaiari bakarrik dagokion ardura da, Kristo'k orrela nai izan zualako. Erromako gotzaiaren ardurapean daude beraz Sarkaldeko elizak bezala Sortaldekoak ere, Tesali'ko Eliza, eta Kostantinopla'koa bera. Ori izan da Eliz osoaren sinispidea beti. Orregaitik bidali izan dituzte Sortaldeko Elizek ere bere arazo larriak Erroma'ko Gotzaiarengana.

- Eskari bat, Onorio inperatore sarkaldetarrari: Iliri zure zaintzapean dagoan lurraldea dalako, ez zaitez, an Erroma'ren eskubideak zaintzeaz aantzi. "Erroma'ko Elizaren" eskubideak dauzka buruan Bonifazio'k, jakiña.

- Oar bat Sarkaide Kristau guztiari: Aundiak dira Eliz osoan Jerusalem, Antioki eta Alexandri'ko Elizen ospe ta duintasunak. Baiñan Erromalcoa da, Gorputz guztiaren burua. Beste Eliz guztiak, soilki, Gorputz orren gorpuzkiak dira. Burua, Erroma'koa.

Gogapen auek, Bonifazio'ren gutun-bilduman "amalaugarrena" esan oi zaionean aurki daitezke.

Egia da, Onorio'ri egindako eskarian, berriro "beso sekularren" laguntza eskatzeaz gaiñera, politikako arazoetan sartzen-edo dala I Bonifazio. Ez du gezurrik esaten. Orduan Iliri Sarkaldeko Inperatorearena bait zan, baiñan, bere izkerarekin, lurralde ura erabat sarkaldekotzat jotzen duala ez al zezakean Sortaldeko Inperatoreak pentsatu?

Danadala, pozik bete zuan Onorio'k I Bonifazio'ren eskaria, ortarako Ilirrko jaurleari eskutitz bat bidaliz.

* * *

I ZELESTINO (422-432). - Erromatarra zan; eta diakonoa.

Aitasantu egin zutenean.

I Bonifazio'ren bidetik aurrera joz, sendo babestu zituan aitasantutzaren eskubideak. "Partout oiu l'autorite de son siege etait en question, S. Celestin est intervenu por la maintenir et la fortifier": "Non bere Aulkiaren almena arriskuan, an sartu zuan Zelestin Doneak esku, almen ura mantentzeko ta sendotzeko" (Dic. Hist. Geogr. Ecclesiastiques).

Asmo orrekin idatzi zien mundu zabaleko ainbeste gotzaiei, beren elizetako auziak nola konpondu erakutsiz.

Pelajikeriari ere, mundu guztian ekin zion, mundu guztiko Aitasantu lez.

Aia,

Galieta gotzai pelajikeri-zaleei, Inperatorearen agindu baten bidez, ogei ta bost eguneko epea eman zien pelajikeriari uko egiteko. "Beso sekularren" laguntza billa, Aitasantu berria ere!

- Ingländerrira bi ordezkari bidali zituan lurralde ura pelajikeriz garbitzeko.

Nestorio Kostantinopla'ko gotzaiari, an gorderik zeuzkan Pelajio eta Zelestino Pelajio'ren laguna gaitzesteko agindu zion.

Ori guztia, bere ario utsez, "bera izan bait zan iñoren aolkuen zai egon gabe pelajikeriaren aurka irmo ibilli zan lenen aitasantua": "Il est le premier papa qui ait agi energiquement contre les pelagiens sans que personne ait eu a lui indiquer la conduite suivre" (ib).

- Afrika'n, konpondu zituan gure Zelestino'k, Kartago'ko Kontzilio ura zala-ta Zosimo'k sortutako arazoak, eta pozik gelditu ziran gotzai afrikarrak.

Laister ordea, Pelajio'ren adiskide zan Nestorio Kostantinopla'ko gotzaiarekin izan zituan arazoak Zelestino Aitasantuak. Aundiak eta gogorrek gaiñera.

430'garren urtea zan, Josukristo'ren jainkotasunari-buruz argi billa Kostantinopla'ko Nestorio'k eta Alexandri'ko Zirilo'k gutun bana bidali ziotenean.

Jakiña dugu, Nestorio'ren ustez Josukristo'gan bi Pertsona bizi

zirala: Jainko bat, eta gizon bat. Jainkoa, Aita'k betikotasunean sortutako Itza, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona; gizona, Miren Neskutsak Zesaraugusto inperatore zala sortutako Josu nazaretarra: gizon utsa.

Zirilo'k Elizaren betiko aburua babesten zuan: Josukristo pertsona bat bakarra zala: Miren Neskutsaren erraietan gizon egindako Aita Jainkoaren Seme Jainkoa: Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

I Zelestino'k, Eliz osoaren Aitasantu bezala, sinodo bat bildu zuan Erroma'n, eta sinodo aren barruan gaitzetsi zuan, Nestorio'ren aburua.

Sinodoan artutako erabakia aldarrikatzeko, iru gutun idatzi zituan: Bata, Nestorio Kostantinopla'ko gotzaiari; bestea Kostantinopla'ko erriari; irugarrena, Zirilo Alexandri'ko gotzaiari.

Nestorio'ri, aburuz aldatzeko eskatzen zion, eskomikaturik gelditu nai ez ba'zuan.

Kostantinopla'ko erriari bidalitako gutunean, bere aurreko Aitasantuengandik aria artuz, Kostantinopla'ko kristauak ere bere artaldeko ardiak zituala, eta aien zorionaz arduratzera bearturik zegoala, jakiñarazten zien goxoki kristau aiei.

Zirito'ri berriz, bere ordezkari egiten zuala esaten zion, Nestorio gaitzetsi zuan sinodoan artutako erabakiak beteerazteaz arduratu zedin.

Argi utzi zuan ekintza orren bidez I Zelestino¹'k aitasantutzaren gorestasuna: Sortaldeko Elizak ere Aitasantuaren esanera daudela Aitasantuaren zainzapean daudelako eta Sartaldean eta Sortaldean Eliz osoaren Artzai guren bakarra Aitasantua dala erakutsiz.

Nestorio gaitzetsi zuan Efeso'ko kontzilioari-buruz ere bikain ibilli zitzaigun I Zelestino.

Berak Aitasantu lez Nestorio gaitzetsi zualako, Kontzilio aren bearrik ez zan. Orregaitik, I Zelestino'ren gurariari begiratu gabe bildu zuan Kontzilio ura 11 Teodosio Sortaldeko inperatoreak.

Zelestino'k, onartu zuan Inperatoreak emandako urrats ura, baiñan gauzak argi bere lekuan uzteko, "berak Aitasantu lez

Nestorio gaitzetsi zuala, eta Aitasantuak Aitasantu lez egindako gaitzespena Kontzilioak alda-eziña zala", kontziliokideei jakifieraz- teko agindu zien, ara bidali zituan bere bi ordezkariet.

Argi-argi erakusten zuan orrela 1 Zelestino'k Aitasantua Kontzilioaren gaiñetik dagoala, naiz Kontzilioa ekumenekoia izan.

Ez zuten ordezkari aiek Aitasantuaren agindua betetzerik izan. Zorionez, aiek Efeso'ra iristerako Kontzilioak ere gaitzetsi bait zuan Nestorio. Orregaitik agian ez zan orduan ere zismarik sortu.

Zismak eta erejiak, bere lenen urteetatik azkeneko urteetaraiño bearbada, Elizak gaiñetik kendu ez dezakean izurriak dirala bait dirudi.

"Narn et oportet et haereses esse", "bearrezkoa bait da erejeak ere izatea", idatzi zien Paul Doneak korintotarrei beren lenengo eskutitzean, (XI,19). Erejlek, bata besteren atzetik gaur sortu eta biar beren okerkerien bidez, Kristo'k berak, Kepa oiñarriztat artuta sortu zuan egiazko Eliza non aurkitu dezakegun erakusten bait digute.

Efeso'ko kontzilioan, erejia bai, erejia an zegoan, nestorikeria ainzuzen, baiñan ez zan oraindik zismarik sortu. Alderantziz, Filipo zeritzan Aitasantuaren ordezkariak, I Zelestino'k lendik Nestorio gaitzetsirik zeukala iragarri zuanean, albiste ori pozik eta txaloka entzun zioten kontziliokideek.

Ederrak izan ziran Filipo ordezkariaren itzak: Kepa, Aposto- luen Burua, eta sinismenaren Zutabea, eta Elizaren Oiñarri sendoa, bizi da oraindik gaur-egun eta bizi ere biziko da mendeak zear. Kepa, bizi da. Bere ondorengoetan bizi da, eta, bere ondorengo oien bidez, Eliza zuzentzen diardu gaur ere.

Une artan, I Zelestino omen zan Kepa.

Ez zuan an iñork Filipo'ren aitorpenik ezeztatu. I Zelestino Aitasantuak berriz guzti orren berri jakitean, eskutitz bat idatzi zien Kostantinopla'ko kristauei, bein berriro, "Erroma'ko Gotzaia Eliz osoaganako ardura bere gain artzera bearturik zegoala" oroiteraziz. Eta, "aldi larri artan ere orregaitik ez omen zituan babesik gabe azturik utzi Kostantinopla'ko elizkideak".

Guzti ortaz ordea, sakonkiago, Nestorio eta Efeso'ko Kontzilioa aztertzerakoan mintzatuko gera.

* * *

III SISTO (432-440). - Pakearen maitale aundia zalako, etsaiekin aulegia zala ere jaurti zion norbaitek aurpegira. Sisto'k ordea zintzo bete zuan bere eginkizuna. Ez zegoan ortarako gaizki prestatua, eskutitzen bitartez, Augustin Donearekin arremanak izana bait zan.

Pelajikeria eta nestorikeria izan zituan arazorik larrienak, baiñan Kostantinopla'ko Elizak berak ere sortu zion kezka bat edo beste

Pelajikeriari dagokionez, zalantzarik gabe gaitzetsi zuan Eklano'ko Julen pelajiozale berria. Nestorikeriaren arloan berriz, berak onartu, sagaratu, eta Elizaren lege egin zituan Efeso'ko Kontzilioaren erabakiak.

Kostantinopla'n Proklo zan orduan gotzaia, eta onek ere Iliri osora luzatu nai izan zuan bere jurisdizioa. Legunki, baiñan irmo erantzun zion III Sixto'k, bi ataltxo labur zituan eskutitz baten bidez:

- Probintzi ortarako izendaturik daukat nik "bikario" edo "ordezkari" bat: Tesalonika'ko gotzaia: "Vicarius Sedis Apostoll-cae": "Aulki Apostolutarraren Ordezkarria".

- Ziur nago, Proklo, ez duzula zuk, legezkoa danaren aurka probintzi ortako arazoetan eskurik sartuko.

Izan zuan III Sisto'k poz aundi bat ere. Antioki'ko eta Alexandri'ko Elizak maiz egon oi ziran alkarren artean aski zipozturik. Bi gotzai aundi ziran une artan bi Eliz aien buruak: Jon, Antioki'n eta Zirilo Alexandri'n. Asarre zebiltzan bata bestearekin. Lortu zan azkenean, bi Eliz aien arteko pakea: Neke askoren ondorean eta Aitasantuaren laguntzarekin. Ona, Aitasantu pake-maitaleak poz aundiz bi Gotzai ospetsu aiei bidalitako gutunen muiña:

Ziurra izango dugu beti Elizen arteko pakea, Eliz bakoitza

Erroma'koarekin bat egiñik bizitzen ba'da. Erroma'ko Eliz ontan bait dirau, Kepa Doneak Jaunagandik jaso zuan "tradizioa", ots, Jaunagandik jasotako irakaspen guztien kopuru sagaratua.

Erroma'ko uriaren barruan jauretxe-eraikille aundia izan zitzaigun 111 Sisto, Efeso'ko Kontzilioak erakutsitakoa, ertiaren bitartez ere aldarrikatu nairik. Miren Neskutsa "Teotokos" zala, ots "Jainkoerditzaille" zala, erakutsi zigun Kontzilio ark. Ba, dogma ori arriz betirakotzeko, Eskilino muifioan, Liberio'ren basilika bir-eraiki zigun, irudiz eta Miren'en omenezko eradonki edo mosaikulanaz bikainki dotoretua.

Berak bir-eratu eta edertu zuan oparo Letran'go bataitegia ere, Pelajio'k erakutsitakoaren aurka, ormetako idazki apañez Jainkoagandiko graziaren beartasuna goi-aipatuz.

* * *

I LEON "AUNDIA" (440-461). - "Atila'ren Aitasantua" esan oi zaio buruzagi ondar aren erasotik Erroma salbatu zualako.

Toskaniarra zan. Ordura arteko Aitasanturik aundiana seguruas-ki. Sei inperatore ezagutu zituan bere aitasantutzakoan:

Iru Sarkaldean III Balentiniano, Abito, eta Mayorino. Ez ospe aundikoak, noski.

Beste iru Sortaldean: II Teodosio, Martziano, eta I Leon. [ruetan egokiena, Pulkeri bere emaztearekin agindu zuan Martziano.

Sei inperatore oietan II Teodosio sortaldetarra izan zan nekerik aundiena eman ziona.

Ederki babestu zuan I Leon Aitasantuak Erroma'ko Elizaren duintasuna gero ta berenkoiago biurtzen ari ziran sortaldetarren geiegikerietatik. Era berean salbatu zuan Erroma'ko Uriaren bizia AtiIa'k zekarzkian undarren asmo beltzetatik.

Undarrak, "Huns", mongoliarrak ziran. Goiz urbildu ziran V mendean Errusi'ren egoaldera, ordurako an zeuden barbaritarrei, bisigotiarrei eta bandaliarrei adibidez, sarkaldera bultzatuz. 430'ean

abiatu ziran Europa'ra beraiek ere, eta laister, 434'ean, Atila zuten errege. Izugarrizko gauzak esan oi dira Atila'ri-buruz, eta "Jainkoaren Zigorra" izen-eman oi zaio VIII mendez gero.

Bosteun milla gudulari omen zekarzkian Atila'k berekin, jende ikaratuak esaten zuanez. Ziurki, ez ziran orrenbeste. Baiñan naiz orrenbeste izan ez, aundiak izan ziran egin zituzten ondamenak, esan oi danez. "Atila'ren zaldiak anka jartzen zuan tokian ez zala geiago belarrik azitzen" ere esankizun biurturik bait dago. Ori guzia, egia ote? Beste barbaritarrak baiño okerragoak ote ziran bâ undar aiek?

451'ean igaro zuten Rin ibaia. Iritxi ziran Orleans uriraiño. Larri ibilli ziran paristarrak ere. Baiñan kondairak dionez, Jenobeba izeneko neskatil artzai bat etorri omen zitzaien, Atila ez zala Paris'en sartuko, Jainkoaren izenean aginduz. Arrezkero Jenobeba Donea da Paris'ko zaindaria. Kondaira utsa guztia noski, baiñan Atila ez zan Paris'en sartu,

Ikusi dugun bezala, Aezio "erromatarraren", Teodoriko bisigotiarraren, Merobeo frankiarraren eta Guadikaro burgundiarraren aurka, Txanpatia'ko Landa Katalauniarretan borrokara bearturik aurkitu zan Atila. Seguruaski, naiz odola bai ugari, borrokaldi artan ez zan garaillerik izan.

Atila egoalderuntz abiatu zan, seguruaski Erroma bera artzen ba'zuan, Erromaren inperio-lurraz errez jabetuko zala uste zualako. Aezio, eta bere esanera borrokatu ziran barbaritarrak, ez ziran Atila'ri egoalderako biderik ilteko gauza izan. Ain ondatuak gelditu bait ziran borrokaldi aren ondorean!

453'an Alpe Mendien egoaldean genduan Atila, eta errez iritxi zan Erroma'ra. Izugarria zan une artan erromatarren eta iparraldetik Atila'ren aurrean igesi Erroma'n babestu ziran gizon-emakume guztien bildur-ikara.

I Leon Aitasantuaren eskuetan utzi zuten jende aiek danek beren bizia, eta Erroma beraren bizia, eta ez zien Aitasantu "Aundi" arek utsik egin. Ez dakigu nolakoak izan ziran Atila'ren eta I Leon'en arteko itzarmenak, baiña salbatu zan beintzat Erroma.

Atila, Urira sartzeke, ostera iparralderuntz itzulita Pannoni'ra abiatu bait zan bere gudarozte guztiarekin. Eta an gelditu ziran bititzen, ortarako, Erroma'ko Inperioaren izenean Leon Aitasantuak oniritzia emanda? Undarregandik artu zuan Pannoni'k gaur-egun daraman izena: Un-gari: Undarren Erri.

Bereala il zan ordea Atila, eta zearo barreiatu zan arrezkero undarren inperioa.

V mendeko gizandi guztien artean I Leon Aitasantua dugu aundienetako bat: "His success in dealing with Huns (452) and his qualified succes with the Vandals (455) further enhanced the prestige of the Holy See in temporal order and helped to place the leadership of the west in his hands" (Enc. Brit.).

Euskeraz:

"Undarrekingo lorketa ederrak eta, geroago, bandaliarrekingo beste lorketa aski bikain arek, politika-arazoetarako ere asko igo zuten Aulki Donearen itzala, eta izan zuten zer ikusirik Sarkaldeko zuzendaritza, arazo oietarako ere Aulki Donearen eskuetan jarria izatearekin".

* * *

Gizon arrigarria izan zan benetan Atila. Gudalburu berdingabea, agintari zugarra. Gazterik, Sorkaldeko inperatorearen eta undarren artean egindako itun baten ondorioz, baituran egon zan Kostantinopla'n, Inperatorearen zaintzapean, eta, adimen txit argiaren jabe, eta Kostantinopla'n non eta zer eta nola ikasirik peitzen ez, andik bereengana itzuli zanean, ez bide zan Atila, uste bezain basati kupidagabe kulturik-eza.

Gazterik artu zuan undarren agintaritza. Rua osaba il zitzaion une berean. Baiñan Bleda anaia agintaritzakide zuala.

Agintaritzaren jabe, Kostantinopla'ra abiatu ziran bi anaiak, uria arrapatu naiez. Izugarrizko dirutza mardul baten truke gorde aal izan zuan Sortaldean Erroma'k bere askatasuna.

Sarkaldeari ekitea bururatu zitzaien orduan. Une artan ordea,

ez dakigu zergaitik, Bleda anaia il zuan Atila'k eta agintari bakarra gelditu zan bera.

Sarkaldeko gudarozte erromatarraren buruzagi, Aezio zan orduan, barbaritarra bera ere jatorriz, eta Atila'ren adiskidea. Zergaitik bñ aren aurka abiatu zan Atila?

Atila'k ez zuan beñere Aezio'ren aurka zetorrenik esan. Aldereantziz, Teodoriko bisigotiarren erregearen aurka zetorrela mezu-eman zion Aezio'ri.

Akitani'ko Tolosa zuten bisigotiarrek uriburu, eta Tolosa'rako bidea artu zuan Atila'k.

Ez dakigu zer gertatu zan, Tolosa utzita, Gali osoaren jabe egin nairik, Atila'k iparrerako bidea artu izateko.

III Balentiniano zan Erroma'n Sarkaldeko inperatore. Bi emakume, agian iru izan ziran garrantzi aundikoak III Balentiniano'ren agintaritzan: Onoria bere arreba, Eudoxia Lizinia bere emaztea, eta, agian, irugarrena, Gala Plazidia bere ama

batzuen ustez, emakume oietako bat, Onoria, inperatorearen arreba, izan omen zan Atila'ri asmoz aldaarazi ziona eta aren barnean, Galietako jabe izateko gogo sortarazi zuana. Ikus nola:

Onoria'k bere-ekontz eraztuna bidali omen zion Atila'ri, atsegiña ez zitzaion beste ekontza batetik salbatzera etortzeko eskariarekin batera.

Beste batzuen ustez, Gala Plazidia, III Balentiniano'ren eta Onoria'ren ama, izan omen zan Onoria Atila'ri emaztetzat eskeiñi ziona. Danadala, Galietako lur guztia eskatu omen zuan Atila'k ekontza aren dote. Eta ori ukatu zitzaiolako artu omen zuan Galiak indarrez artzeko erabakia.

Ez bide zan printzes ura oso neska garbia. Entzun nola damaigun Espasa'k gertakizun aien berri:

"Honorio era hija de Costancio III y de la emperatriz Plazidia. A causa de sus costumbres disolutas, fue encerrada en un convento, en el que permanecid catorce años. Se dice que habia enviado un anillo a Atila, ofreciéndosele como esposa. Atila aceptd su ofrecimiento

pidiendo como dote a Valentiniano III hermano de Honoria la mitad de su imperio, pretendiendo que el emperador rechazd. En cuanto a Honoria, se ignora el resto de su historia".

Oroi len esan dugunez Indro Montanelli edestilari ezagunak Onoria printzesari ez baiña Onoria onen amari, Gala Plazidia'ri, erasten diola Onoria Atila'ri emazte eskeiña izatearen errua. Ez gaiñera oso izkera txukunean.

Guzti ori egia izan, egia izan ez, danadala, Teodoriko bisigotiarren erregearekin alkartu zan Aezio "erromatarra", eta alkartze orren ondorioz etorri ziran Katalauniar-Landetako borroka, Atila'ren Itali'rako sarrera, eta undarren buruzagi onek I Leon Aitasantuarekin izandako alkarrizketa.

Atila, Pannoni'ra iritxita, an Ildiko zeritzan neskatil batekin ezkondu zan. Laister utzi zuan alargun bere emazte gazte ori. Ezkontz-eguneko gauean bertan il bait zan bera, esan oi danez, norbaitek pozoituta.

Gaia Plazidia'z berriz, eman dezagun emen "Encyclopedia Catholica" k egiten dion goratzarrea: "Placidia deserves a great praise for her services to the church": "Aipu on aundia zor zaiola, alegia, Elizari egin zizkion serbitzuengaitik".

* * *

Atila baiño arerio egoskorragoa gertatu zitzaion I Leon Aitasantuari Genseriko bandaliarra.

Iru urte motx, Atila Itali'tik joan zala, eta ara non datorren Afrika'tik Genseriko, bere burua Erroma'ren jabe egin nairik.

Au ere, Atila bezala, III Balentiniano'ren inguruko emakume aietako batek deitua. Balentiniano'ren emaztea, Eudoxia Lizinia, izan zan oraingoan Genseriko 'ri deitu ziona. Maite zuan emazte onek aiztoz erailla izan zan bere senarra. Bere samintasuna aundiago izan zan oraindik, senar maite ura erail zuan Petronio Maximo'k berekin ezkontzera indarrez beartu zuanean.

Orrela, bizia, inperatoretza eta emaztea kentzen zizkion ekintza

anker eta dollor batez Petronio Maximo'k III Balentiniano gaixoari.

Ez zekian noraiño iritxi daitekean era ortan mindu ta irainduta-ko eme baten apentza-gosea. Eudoxia Lizinia'k, len Onoria bere ezkontzaizpak Atila'ri bezala, Genseriko bandaliarren erregeari dei egin zion, Erroma'ko atea irikiko zizkiola aginduz.

"Eudoxia (Licinia) casd con el emperador Valentiniano III, que percid asesinado a manos de (Petronio) Mi3ximo quien no sdlo usurpd el trono de aquel, sino que oblig6 a su viuda a casarse con el. Eudoxia, en su odio por el asesino de Valentiniano su marido llamd a los vkldalos a Roma" (Espasa).

Orrela gertatu ere gertatu zan, baiñan Eudoxia Lizinia'ri gauzak ez zitzaizkion irten berak uste bezain ederki, Genseriko'k bera eta bere alaba biak katigu eraman bait zituan berekin:

"Genserico se presentd inmediatamente con sus ejercitos, entrd fácilmente en la Ciudad Eterna, y durante quince dfas la entreg6 al pillaje de sus tropas, avezadas a la destruccidn y a la ruina. Son indecibles los sufrimientos de la poblacidn romana y las escenas de salvajismo que se vieron obligados a vivir durante este horrible saqueo de los vthidalos. El Romano Pontffice Ledn Magno que tres años antes habfa hecho retroceder al mismo Atila, ahora solo pudo conseguir de Genserico que respetara las vidas de los ciudadanos. Fue un nuevo beneficio que debfa la Ciudad al Vicario de Cristo" (ib)

Alde guztietatik begiratuta ere benetan Aitasantu bikaiña izan zan Leon Aundia.

Bizirik zeuden oraindik kristaudian, pelajikeri, manikeri eta priszilikeriaren ondarrak. Irrno lan egin zuan ereji oien aurka, bearrezkoa ba'zuan inperatoreari laguntza eskatuz. II Balentiniano 'k manikeriaren aurka emandako lege gogorraren atzean ere, apika zegoan I Leon'ek eskua.

" Baiñan Teologiaren edestiari dagokionez, Leon'en lanik garrantzitsuena ez zan ezezkoaren aldetik, erejirik ez pakean uztearen aldetik egiña izan, baiezkoaren aldetik, ots, kristausinispidea era egokian aurkeztearen aldetik baizik": "But the most

signifikant achievement of Leo in the history of theology is not this negative suppression of heresy but his own positive formulation of Catholic doctrine" (Enc. Brit.).

Ala adibidez Eutikes eta onen monofisikeriaren arazoan. Flabiano Kostantinopia'ko gotzaiak gaitzetsia izan zan Eutikes. Onek, orduan, Aitasantuaren aurrean salatu zuan Flabiano. Leon Aitasantua ez zan Flabiano onestearekin eta Eutikes gaitzestearekin Lasai gelditu. Alderantziz, Flabiano'ri idatzitako "tomo" ospetsu batean, Josukristo'ren zertasunari buruzko sinispidea "argi, egoki eta zeatz" "clear, precise and systematic" eran aurkeztu zuan (ib).

"The Council of Chalcedon (451) summoned to condemn the heresy of Eutych, declared that Leo's tome was a true expression of Catholic faith and that Peter had truly spoken through Leo": "Eutikes'en ereja gaitzesteko bildu zan Kaltzedoniar-Kontzilioak, Leon'en tomoa sinispide katolikoaren egiazko azalpena zala, aitortu zuan, eta Leon'era bitartez egiaz mintzatu zana Kepa bera izan zala".

("Tomo", sinispideko egi baten azalpena egiten zuten gutunei esan oi zitzaien garai artako Sortaldean).

Aitasantutzaren almenaren babesle tinkoa izan zitzaigun 1 Leon "Aundia". Bere aurreko aitasantuen erakutsiak bildu eta yayoki era egokian alkartu eta sakonduz, bera dugu Aitasantuen "jurisdizio" edo almenari-buruzko dotriña gorputz bat egiñik aurrena eman ziguna.

Guregana iritxi diran bere 432 eskutitz eta 96 itzaldiek, ederki adierazten digute I Leon'ek elerti ederrerako izan zuan gaitasuna. "Aitasantu aundi ura dugu, agian, antziñate artako

artean azkenekoa: This great pope is perhaps the last latin stylist of antiquity" (ib).

"His sermons, solemn, graceful, dignified, have the cadence of living Latin, and are held in admiration by latinists":(ib). "Bere sermoiak, eder-dotoreak, polit-atsegiñak, duintasunez beteak, latera biziaren doñua dute, eta latinzale orok mirestasun aundiz ikusiak oi dira" (ib).

Aitasantu bikain aren antz-irudia emateko, naita artu ditut, katolikoa ez dan liburu batetik, irakurri dituzun aipu oiek danak.

* * *

ILARIO (461-468). - Jaiotzaz, kortzegatarra. Beste batzuen ustez ordea, sizilitarra. Zana zala, laguntzaille egokia gertatu zitzaion goidiakono bezala I Leon Aitasantuari.

Aitasantu aundi onek bidalita joan zan 449'an Efeso'ra, monofisizaleek, an, urte ortan bertan egin zuten sasikontzilia. "Efeso'ko Lapurkeria" esan oi zaio sasikontzilio ari. An, kemen aundiz itzegin zuan Ilario goidiakonoak monofisizaleek Kostantino-pla'ko gotzai-aulkitik jaurtia izan zan Flabiano'ren alde.

Asarretu zitzaizkion sasikontzilio artako monofisizaleak, batez ere guzti aien buruzagietako bat zan Dioskoro Alexandri'ko gotzai zakarra.

Ilario'k ordea, gorde aal izan zuan bere burua, Donibane Ebangelariaren elizako barrunbean.

Zirrara aundia sortu zuan gertakizun arek Ilario goidiakonoaren barnean, dirudianez beintzat. Gero, Aitasantu **Erroma'n**, Letran'go bataitegian utzi bait zuan orman idatzirik egun aietako estutasunaren oroigailua: "Liberatori suo Beato Johanni Evangelistae Hilarius Episcopus famulus Christi": "Salbatzaille izan zuan Donibane Ebangelariari (eskeintzen omen zion bataitegi artan egindako Lana) Ilario Gotzai ta Kristo'ren serbitzariak". Estu ibilli zan noski egun aietan Ilario.

Aitasantu bezala, "agintari jakintsu ta arduratsua izan zitzaigun, bere eskutitzek adierazten digutenez": "His letters show him as a wise and zealous administrator" (Enc. Brit.).

Ardura eta jakintasun oiek bearrezkoak izan zituan sinispidea aratz gordetzeko: Sortaldean, monofisikeriaren aurka; Sarkaldean barbaritarren arteko ariokeriaren aurka.

Sinispidea bezala kanon-legea ere tinko babestu zuan Galietan eta Españi'ko "Tarraconensis" izeneko probintzian. Ainzuzen,

orduan euskalduna zan Kaiagurri'ko gotzaiak sortu zion probintzi "Tarragonatar" ontan lendabiziko arazoa. Flabian zuan izen, gotzai onek ere. Kanon-legearen aurka gotzai-sagaraketa batzuk egin omen zituan.

Bigarren arazoa, Bartzelona'ko gotzaia iltzean sortu zitzaion dario Aitasantuari.

Bi arazo aiek aski zalantzarriak zirala-ta, Aitasantuari eskatu bait zioten argi, batzarrean bildutako gotzai "tarrakonensistarrek", orrelako arazoetan oiturezkoa zuten lez. Oitura ori argi bait dakusgu Ilario Aitasantuak, aien galdeei erantzuna emateko idatzi zizkien eskutitzetan.

Ori, eta len ere aien gaideei Erroma'k beti ziurtasun egokiz erantzun ziela: "Que les Eveques de cette province ont l'habitude de demander des instructions a Rome qui repond avec une remarquable precision" (G. Bardy): "Arras egoki erantzuten dien Errorna'ri argitasuna eskatzeko oitura dutela probintzi ontako gotzaiak".

Oroi dezagun, urrengo aitasantutzara igaro aurretik, nola aurpegi eman zion Ilario'k inperatoreari, bildurrik gabe, Donekepa'ren basilikan. Antemio zan inperatorea. Bazuan inperatore onek Filoteo izeneko laguntzaille bat: manikerizalea, eta ereji onen babesle ta zabaltzaillea. Jende guztiaren aurrean eskatu zion Ilario'k Antemio'ri, okerkeri ura aalik azkarren zuzentzeko,

Bereala bete zuan Antemio inperatoreak Ilario Aitasantuaren agindua.

* * *

SINPLIZIO (468-483). - Italiarra; Erroma'ren ondokoa. Bera zegoan Aitasantu, Odoakro eruldarrak, Romulo Augustulo inperatoretzatik kenduz Erroma'ko Inperio zaarrari Sarkaldean, bein betirako amaia eman zionean (476).

Izugarrizko gertakizuna zan ura. Edestiaren aro zarra bukatuta erdiaroari astapena emanez, mundura biziera berri bat zekarrena, baiñan orduan ez zan iñor oartu. Ezta, ezertaz kezkatu ere. Esan

dugunez, Odoakro'k Erroma'ko politikagintzarako erakundeetan aldakuntzarik egin ez zualako, gertatzen zana jabetu ere gabe igaro bait ziran Europa'ko jendeak aro zarretik erdiarora.

Erroma'ko inperio bikoitzaren jausketa ipintzen da ba, edestiaren aroetako aidakuntzen mugarrizat: Sarkaldekoaren jausketa, aro zar eta erdiaroaren arteko mugarri (476); Sortaldekoaren jausketa, erdiaro eta aro berriaren arteko mugarri (1,453).

Barbaritarrei okerkeri asko leporatu zaizkie, baiñan ez zan Erroma'ko Uriaren zoria gozoagoa izango, Erroma Uri barbaritarra eta Uria artzen zutenak erromatarrak izan balira.

Simplizio Aitasantuak ez zuan Erroma'ko Inperio Sarkaldetarra ezabatu zuten barbaritarrekin arazorik izan: Ez bere burua Itali'ko errege egin zuan Odoakro eruldarrarekin, ez Errege barbariar onen gudulari barbariarrekin. Sinplizio'ren arazoak Kostantinoplasko Elizarekin izan ziran.

Orduan eman bait zituan Kostantinopla'ko Elizak, zismarako bidean, urratsik arriskutsuenetako bat.

Akazio zan Kostantinopla'n gotzai. Eta I Leon inperatore. Biak ziran Kaltzedoni-Kontzilioko kanon ausarti aren zale, ots, Kostantinopla'ko Eliza Erroma'koaren kide egin nai zuan kanon doakabe aren zaleak. Eta kanon ura ontzat artzeko eskatzen zioten Sinplizio Aitasantuari.

Bitartean ordea, iraultza bat gertatu zan Sortaldeko Inperio Erromatarrean.

1 Leon inperatorea 11 zanean, Zenon'ek artu zuan aren tokia, baiñan Basilisko izeneko iraultzalari batek kendu zion agintaritza. Ta Basilisko au, laister aztertuko ditugun ereje monofisiten alde agertu zan lotsarik gabe, eta Elizaren batasuna bere erara egin nairik, mamiz monofisita zan gutun bat bidali zien Sorkaldeko gotzai guztiei, gutun ura ontzat artzeko agindurekin. Zoritxarrez, bildurrak eraginda edo gutun aren mamia ongi ulertu ez zutelako, ez bait zuan axalean ereji-itxurarik ia Sortaldeko gotzaidi guztiak makurtu zuan burua Basilisko'ren agindura.

Baiñan laister, Basilisko sasiinperatorea garaituz, Zosimo,

egiazko inperatorea zan ostera agintaritzan garaille. Ta, berriro agintaritza arturik aurrena egin zuan gauza, bera egiazko sinispide katolikoaren alde zegoala Sinplizio Aitasantuari jakiñeraztea izan zan

Konstantinopla'ra ordea, Akazio'k jarraitzen zuan gotzai. "Sin ser propiamente monofisita, ni menos aun ortodoxo, hombre astuto e intrigante, deseoso de obtener a todo trance un dominio universal en Oriente", omen zan Akazio gotzaia (Llorca). Legunagoa da Jedin'ek damaigun Akazio'ren antzirudia. Are geiago, arazo ontan, ura asmo onez ibilli zala eta arrazoirik ez zitzaiola faltatu iduritzen zaio

Danadala garai artako ereje eta zismagilleen jardunkera era zintzoan ulertzeko, garai artan Aitasantutzari eta Kontzilio Ekumenekoi-buruzko dogmak gaur bezain argi ta egoki eraturik ez zeudela gogoan euki bear dan gauza da.

EU, Akazio orrek eskatuta, "Henotikon" izeneko erabaki bat argitaratu zuan Zenon'ek. Au ere Elizaren batasunaren billa asi bait zitzaigun. "Henotes" itzak, ainzuzen, eleneraz orixe esan nai bait du: "batasuna".

Baiñan pakea ta batasuna ekarri bearrean, borroka ta zatiketa ekarri zituan zoritxarreko "henotikon" arek. Naiz ereji guztiak gaitzetsi, ez bait zuan ontzat artzen Kaltzedoni'ko Kontzilio Ekumeniarra!

Istillu oien barruan ii zan Sinplizio Aitasantua. Tinko babestu zituan sinispide zintzoa ta aitasantutzaren eskubide garaia. Ona, I3asilisko

agintzen zegoanean sasiinperatore ari egin zion eskutitz baten doiñua: Kepa Deunaren bidetik dabiltz Aitasantuak. Izan ere, Josu'gandik artalde osoaren zaintza, eta, eginkizun ortarako, Bera beti berekin izango zualako itza artu zuan Kepa'ren oiñordekoak bait dira Aitasantuak.

Akazio'ren jardunkeraren erruz, aski egoera txarrean utzi zion Sinplizio'k Eliza urrengo Aitasantuari.

* * *

11 FELIS (483-492). - Esan dezagun, gaiñerako guztien aurretik, badirala Aitasantu oni III Felis esaten diotenak. Izan zan ba len, IV mendeko Liberio Aitasantuaren garaiean, beste "II Felis" bat. Baiñan IV mendeko "II Felis" ura sasiaitasantua izan zalako, guk V mendeko oni II Felis esango diogu. Sinplizio il zanean Odoakro eruldarra zan Itali'ko errege, eta, errege onen izenean, Basilio Erroma'ko uriaren jaurle.

Seguruaski Sortaldea zismara zijoan bezala Sarkaldean beste zisma bat sortu zitekeala uste izan zualako, bi gauza utzi zituan Sinplizio'k esanik:

- Aurrenekoa, bere ondorengo Aitasantua, Basilio jaurlearen onetsiaren aurka ez aukeratzeko.

- Bigarrena, arrigarria benetan, Aitasantu berriari eta urrengo Aitasantu guztiei, Elizaren ondasunak saltzea debekatzeko.

Pakearen billa zebillen ezpairik gabe Sinplizio, baiñan lenengo eskariaren bidez esku luzeegia ematen zien Laterrietako agintariei, eta bigarrena, zentzurik ere ez zuan gogoeta utsa besterik ez zan.

Sinispideko dogma ez diran gauzetan Aitasantu batek lenagoko Aitasantuek agindua ezereztu dezakean ezkerro, Aitasantu batek ondorengoei zer egin bear edo egin bear ez duten esaten astea batere baliorik gabeko ekintzetan astea bait da.

Giro zail ortan izan zan Aitasantu izendatua II Felis, izen bereko apaiz baten semea.

Sinplizio baiño gizon azkar-ibilli-zaleagoa, ondorio larriak ekartzekoa zan erabaki bat artuz eman zion asiera bere agintaritzari: Bi eskutitz bidali zituan Kostantinopla'ra ordezkari batzuen bidez: Bata Zenon inperatorearentzat. Bestea, Kostantinoplatko gotzai jarraitzen zuan Akazio'rentzat. Eskutitz aietan, Akazio'ri Erroma'ra etortzeko agintzen zitzaion, bere sinispidearen berri eman zezan.

Ez zuan asko pentsatzen II Felis Aitasantuak bere ordezkari aiei Kostantinopla'n gertatu bear zitzaiena. Aurrena, espetsxean baituak

izan bait ziran, eta, gero, okerragoa zana, losintxen bitartez Akazio'ren alderdira eramanak.

Asarretu zan 11 Felis bere mezulari aiek Akazio'ren eukaristi batean partaide izan zirala jakin zuanean, eta Erroma'n sinodo bat bilduz, Akazio eskomikatu zuan. Eta eskutitz ugarien bidez, Akazio berari, Zenon inperatoreari, Sortaldeko gotzaidiari, lekaidetxerik ospetsuenetako abatei, eta Kostantinopla'ko erri guztiari eman zien eskomikapen aren berri.

Laister jakin zuan kristaudiak eskutitz aiei Akazio'k emandako erantzuna: Kostantinopla'ra, Akazio'k, 11 Felis Erroma'ko Gotzaia eskomikatu bait zuan.

Orrela sortu zan Kostantinopia'ko Elizaren lenen zisma. Elizaren errañetan 34 urtez iraungo zuan urraketa.

Bazan orduan Sortaldean beste elizgizon aski biurri bat ere: Kepa Mango, ereje monofisiarra, ta, jakiña, Kaltzedoni'ko Kontzilioa ontzat artzen ez zuana, Akazio'ri eta Zenon't eskerrak Alexandri'ko gotzaia. Sasigotzaia, obeki esateko, egiazko Gotzai alexandritarra Jon Talaia bait zan, bere aurreko gotzaiak, "le pieux et modeste Salofaciol" ots, "Salofaziol jainkozale apalak" aurretik gotzaiagai izendatua, eta ura il bezain laister aren aldekoek Alexandri'ko gotzai sagaratua.

Zenon Inperatoreak ordea asarreturik, eta Akazio'ren aolkuz noski,--onen eskuetan uzten bait zituan erlijio-arazo guztiak --, Kepa Mongo'ri eman zion Alexandri'ko gotzaiagoa.

Sortaldeko Elizaren gauzak garai artan zeñien zikin eta naasirik zebiltzan ikusteko, oroi dezagun bazuala Zenon inperatoreak asarre egoteko arrazoi galanta,

Alexandri'ko Elizaren pakeari-buruzko egindako itun batean, orduan Alexandri'ko gotzaiaren ordezkari zan Jon Talaia onek, ebangelioen gaiñean ziñ-egiñez agindu bait zion, Zenon't, Alexandri'ko gotzaiagorik sekulan ez zuala beretzat, ez eskatuko ez artuko, Oroi dezagun gaiñera, Alexandri'ko jenderik geiena Pedro Mongo'ren alde zegoala, eta, orrela, bere burua bakarrik ikustean Erroma'ra iges egin zuala Jon Talaia'k.

Akazio Kostantinopla'ko Patriarkak, jakiña, bereala onezagutu zuan Kepa Mongo Alexandri'ko Patriarka lez.

Alare izan zan garai bat, Akazio'k Kepa Mongo erejetzat eskomikatu zuana, eta Erroma'ri ere aren eskomikapena eskatu ziona. Gero ordea Erroma'ri aurka egiteko, biak adiskide ta lagun egin zitzaizkigun. Ainzuzen Kepa Mongo'rekin bat egin izatea, izan zan Erroma'k Akazio eskomikatzeko erabilli zuan arrazoietako bat:

"La razón principal de la condenación de Acacio era, según el enfoque romano, el hecho de haber aquel reasumido la comunión eclesiástica con Pedro Mongo, al que él mismo había condenado como hereje, y cuya condenación había además solicitado de Roma" (Jedin).

Bizkorra zan II Felis Aitasantuak Zenon inperatoreari zuzendutako gutuna: "Inperatorea Elizaren seme bat da; ez, Elizaren gotzaia. Sinispideari dagozkion gauzetan, ikasi egin bear du; ez, irakatsi. Eliza zuzentzea, Jainkoak orrela nai izan dualako, gotzaien eginkizuna da; ez, mundu ontako agintariena. Auek, agintariak, egiaz kristauak ba'dira, Elizaren entzule izan bear dute, Jainkoak orrela nai izan dualako.

Akazio eskomikatzen zuan larrukia eraman bear zuan ordezkari izateko Tutus izeneko elizgizon bat aukeratu zuan II Felis'ek. Asko kostata Iortu zuan onek, al izan zuan bezala ertzaiñak atzipetuz Kostantinopla' n sartzea. An, larruki ura Akazio berari ematea zuan arazo larria. Ortarako bere usteon osoko lekaide batzuetaz baliatzea gogoratu zitzaion.

Ez ziran lekaide aiek kukildurik ibilli. "Larruki ura, orratzez "pallium" izeneko bizkar-oial sagaratuari erantsi bait zioten Akazio'ri, au Santa Sofia jauretxean Eukaristia ospatzen ari zanean": "Le document pontifical fut même sspingJ au pallium d'Acace au cours d'une Ur&tIonie qu'il cēlbraait a St. Sophie" (Catholicisme).

Zakarregi ibilli ziran lekaide aiek, baiñan "biziz ordaindu zuten aietako askok beren ausardia": "Plusieurs d&itre eus payrent cette audace de leur vie" (Fliche).

Zakarregi ibilli ote zan II Felis ere. Ez dut uste. Egia da "Henotikon" zeritzan erabaki arek esaten zituanean erejirik ez zegoala. Baiñan argi esaten zuan ez zuala Kaltzedoni'ko Kontzilio-rik onartzen. Eta ori ez zezakean ez Sinplizio'k, ez I Felis'ek ez beste inor Aitasantuk ontzat artu.

Gaiñera, "bere azpi-asmoek, bere ixiltasunek eta esateke uzten zituari gauzek, txit arriskugarri egiten zuten erabaki ura": "Ses sous-entendus, ses silences, ses prétentions, an faisaient un document dangereux" (Fliche Martin).

"Henotikon" aren atzean, naiz agian beraiek monofisitarrak izan ez, beren agintea sendotzearen "monofisitarrak ezagunen laguntza-billa zebiltzan Sortaldeko gotzai-aulkirik ospetsuenetako gotzai gora-igo-zale ta naspillari aien eskua ikusten zan": "De tous les évêques ambitieux et intrigantes qui, sur les principaux sièges de l'Orient, s'efforçaient de conserver la faveur des monophysites avers" (id). Orrelako gotzai aien artean aipa ditzagun Antioki'ko Kepa Fulon, Alexandri'-ko Kepa Mongo eta Kostantinopla'ko Akazio bera.

Zurrumbillo artan, Sinplizio Aitasantuaren eroapen apalak ez zuan ziturik ekarri. Iritxia zan erabaki gogor bat artzeko ordua. Eta ori, II Felis Aitasantuak egin zuan.

Baiñan ontaz, monofisikeria aztertzerakoan mintzatuko gera geixego.

Eliza zisman utzita I Felis zitaigun I Felis Aitasantua.

Eliza zisman utzita I Felis zan Akazio Kostantinopla'ko Patriarka. Berak sortutako zisma. Bere erruz edo bere errurik gabe sortua, -- Jainkoak jakingo du baiñan "Elizari gaitz aundia egin zion zisma": "Au plus grand préjudice de l'orthodoxie" (id).

* * *

I GELASIO (492-496). - Afrikarra, jatorriz. Sinplizio eta II Felis Aitasantuen laguntzaille zintzoa izana. Gizon bikaiña, eta Aitasantu aundia, baiñan gogorregia batzuetan. Ala izan zan

gogorregia Eufemio Kostantinopla'ko Patriarka berriarekin.

Zisman ii zan Akazio. Frabita izan zuan ondorengo, Kostantinopla'ko gotzaigoan. Idatzi zion onek Aitasantuari, zisma laister ezabatu zitekealako uste ona agertuz. Baita Aitasantuak erantzun ere. Zoritxarrez ordea ez zuan Frabita'k erantzun ura artzerik izan. Illa bait zan eskutitza Kostantinopla'ra iritxi zanerako.

Eufemio eseri zan aren atzetik Kostantinopla'ko gotzai-aulkian. Gizon paketsua. Onek ere idatzi zuan Erroma'ra. Baiñan ez zan oraingoan ere zismarik konpondu.

Pakegintzarako baldintza lez, Kostantinopia'n bertan Akazio zana eskomikatzeko eskatu bait zion I Gelasio'k Eufemio Kostantinopla'ko patriarka berriari. Eufemio egitera ausartu ez zan gauza. Inperatorea asarretuko zitzaiolako bildurrez? Zisma ezabatzeko bidea gertutu nairik, Aitasantuen almena goratzen zebillen Eufemio, ez zuan I Gelasio'k bear bezala erabili.

Urruntasun otzez eta iseka-aizez beterik bait zegoan, Eufemio patriarkaren eskutitz eraspentsuari Erromati'k Gelasio Aitasantuak bidali zion erantzuna. "Desconcertante muestra de distanciamiento y de ironfa" izan omen zan Aitasantuaren erantzun ura (Jedin).

* * *

PATRIARKA esan diet azkeneko lerroetan Kostantinopla, Alexandri, Antioki eta Jerusalem'go gotzaiei eta orrela esango diet emendik aurrera ere edestilari askok ori bera dagitelako, naiz izen guren ori Eliz orokorrean "VI mendean erabiltzen asia izan": "Since the 6th century" (Enc. Brit.).

Sortu, lenago sortua da: Nizea'ko Kontzilioan, 325'ean, Erroma'koaz gaiñera, bi patriarkadutza agertzen dira: Antioki'koa eta Alexandri'koa. Oietaz gaiñera, Kostantinopla'ko Kontzilioan, 381'ean, Kostantinopla'koa, eta azkenik 451'ean Kaltzedoni'koak, Jerusalem'goa aipatzen digu. Baiñan izen ori erabili, Eliz osoan erabili VI mendean egin zan aurrena. Eta arrezkero, orrela esan oi zaie uri oietako gotzaiei: Patriarkak.

SORTALDEKO ELIZAREN IBILLERA

Sarkaldeko Inperioa jausi ondorean, barbaritarren menpetik yare, bizirik jarraitu zuan Sortaldeko inperioak, eta aren barruan, aurrera jarraitu zuan bere bizi paketsua Sortaldeko Elizak ere. Paketsua? Bai ta ez.

Bai, Sarkaldekoak ez bezala, Sortaldekoak kanpotiko erasorik, kalterik eta ondamenik jasan bear izan ez zualako. Bainan bere barnean neke aundiz eta oiñaze gogorrez josirik egon zalako, ez daiteke pakean bizitu zanik esan. Ereji zipotzen erruz gurutzaturik egon bait zitzaigun Eliz ura erdiaroko lenen mende guzti aietan.

Ereji aiek, nestorikeriak eta monofisikeriak bereiziki izugarritzko zauriak eta ebakuntzak sortu zizkioten. Oraindik ere bizirik dirauten zisma edo ebakuntzak.

Bizirik jarraitu zuan Elizak, baiñan zauri oiek arras moteldu zuten bere kemena. Ereji-labe izan zitzaigun Sortaldea Eliza sortu zan une beretik, eta etenik gabeko erejikeri orrek eta batez ere azkeneko iru ereji aundiek ariokeriak, nestorikeriak eta monofisikeriak sortu zizkioten anai-arteke gorroto eta zisma makurrek auldurik utzi ziguten Eliz gaixo ura.

Ez da arritzekoa-ta, ainbeste ta ainbeste ereji biurriren artean fedea lausoturik, ardi galduak bezala makurtuko dira Eliz artako kristaurik geienak, danak ia, maometar garailleen mendera, ta Kristo utzi, ta Maorna'ren sinispidera joango zaizkigu. Zertan datza gaur, Alexandri, Kartago, Jerusalem, Zesarea, Edesa, Damasko, Efeso, Nikomedi eta Kostantinopla'ko Eliz bikain aien kemen

arrigarria?

Oso gutxi izango dira maometarren mendean bere sinispidean zintzo jarraituko duten kristauak.

Badute merezimendu ederra, ainbeste neke ta oiñazeren ondorean ain giro makurrean gaur ere, Kristo'ri leialki jarraitzen dioten gure senide sortaldetar aiek. Gutxi dira. Baiñan naiz gutxi izan, gutxi izate orregaitik ainzuzen dute merezimendu miresgarria. Gutxi izate orrek adierazten bait digu zeñen zaila izan dan lurralde aietan kristau izaten jarraitzea.

IV mendean, baiña V eta VI mendeaz aurrera batez ere, lekaidetza izan zan donetasun-barrutirik sendoena. Lekaidetxeetatik irten ziran artzairik, irakaslerik eta santurik aundienak. Aipa ditzagun garai artako sortaldetar askoren artean Alexandri'ko Atanasio, Jerusalem'go Jon, Kostantinopla'ko Krisostomo, Zesarea'ko Basilio...

Inperatoreak berriz, Sortaldeko Inperatore erromatarrak, benetako kristauak izan ziran danak. Lagundu nai izan zioten Elizari, naiz askotan laguntza orren billa oso bide okerretik ibilli.

Orregaitik, izan zituan Elizak aiekin arazo gogorak. Eliza esatean Erroma'ko Eliza esan nai dugu: Aitasantuaren Eliza. Sortaldekoa, Kostantinopla'ko Patriarkaren Eliza, laister asi bait zan Inperatoreen morroi biurtzen. Orregaitik ain zuzen, auek ere oso gutxi izan ziralako merezi dute aipu bereizia Krisostomo'k bezala inperatoreei aurpegi emateko gauza izan ziran Kostantinopla'ko gotzaiek.

Inperatoreak berriz, beren ustez Elizaren aingeru zaintzaille biurturik, gero ta geiago aritu zitzaizkigun Eliz artako bizieran eskua sartzen. Ori izan zan Aitasantuekin izan zituzten istillu guztien sustraia.

"ZEOTOKOS": "JAINKOAREN AMA"

Gaua eta eguna bezala bata bestearen atzetik sortu oi dira erejiak Elizaren altzoan. bañan olloak eta arrautzak bezala, izaten dute batak bestearekin zer ikusirik: 011 oak erruten du arrautza, eta arrautzak sortzen olloa. Era berean, maiz aski, ereji batek esan duanari aurka egiteko sortzen da bigarren erejia; eta, bigarren onek esanari aurka egiteko, sortuko da beste irugarren bat ere.

Ario'k, Itza, ots, Semea Jainko ez dala esan zigun. Ori, erejia da. Orren aurka, gizon egin ondorean ere Semea'k Jainko izaten jarraitzen duala adierazteko, Kristo'gan giza-animaren tokia ta eginkizunak Itzak'k berak betetzen dituala, uste izan zuan Laodizea'ko Apolinar'ek, orrela Kristo'k artutako gizatasunaren osotasuna ukatuz. Aren ustez giza-soiña besterik ez bait zuan Itzak artu

Ereji onen aurka, Kristo'k artutako gizatasunaren osotasuna babesteko, Nestorio'k Kristo'gan bi pertsona ipiñi zituan: Jainko bat: Aita'ren Semea; eta gizon bat: Miren'en semea. Bi pertsona bizi omen dira ba Kristo'gan. Beraz, Kristo batean bi Kristo dira: gizon bat eta Jainko bat. Miren berriz soilki gizon aren ama da, ez, iñalaz ere, Jainko onen ama.

13ä; Kristo'ren batasuna ukatzen zuan ereji orren aurka jeikiko dira monofisitak, Kristo'gan zertasun edo "fisis" bat bakarra aitortuz, jainko-zertasuna ainzuzen, orrela Kristo'ren gizontasuna zero ukatzen zuan ereji berri bat sortuz.

Oraingo ikerketa ontan, guk, Kristo'gan bi nortasun ipintzen

zituan eta Miren Neskutsa "Zeotokos" zala ukatzen zuan Nestorio'-ren erejia eta ereji orren arerio gogorra izan zan Zirilo Donearen jardunkeraz mintzatuko gera.

* * *

ALEXANDRI'KO ZIRILO ETA KOSTANTINOPLA'KO NESTORIO.- Zirilo Donea, guraso aundikien semea, Grezi zarreko filosofi eta elertian ederki ezia, Alexandri'ra bertan jaio zan. Ondo ezaguna dugun Teofilo gotzai alexandritar aren illoba zan, eta bazuan jitez aren antzarik aski-ta, osaba ark kutunki maitatu zuan. Orregaitik atera zuan osabak basamortutik bakartien bizitza eramatera ari joanik zegoan illoba eta, apaiz sagaraturik, berekin eraman zuan Jon Krisostomo Donea gaitzetsi zuan "Aritz-Kontzilia". Zugaitz-izen au ematen bait zaio zoritxarreko "kontzilio" ari.

Osaba ilda, Alexandri'ko Gotzai aukeratua izan zan Zirilo Donea. Baiñan ez istillurik gabe. Gotzai izan nai bait zuan Teofilo zeritzan bertako goidiakono batek ere.

Bein gotzai egiñik, eskomikaturik euki zuan Alexandri'ko Elizan Zirilo Doneak Jon Krisostomo Donea, Krisostomo'ren ondorengo Atikus gotzai kostantinoplatarrak jardunkeraz aldatzeko eskatu zion arte.

Laister biurtu zan txit ezaguna, gure Zirilo, "bere zorrozkeri ta agintekeriagaitik", "par son intransigeance et par son autoritd (Cath).

Aurrena, eliz guztiak itxi zizkien nobazitarrei. Gogor ekin zien ariotarren ondarrei ere. Gero juduei ekin zien; eta azkenean Alexandri'tik bidali zituan "zalaparta, lapurkeri eta erailketa batzuen ondorean": a la suite de scdnes d' meutes, de pillage, et de meurtre" (ib).

Ikus nola ematen diguten juduek istiliu aien berri: "San Cirilo, Patriarka de Alejandria. Fue prkticamente dueño y señor de Alejandria, donde aterrorizd a la poblacidn no cristiana. En 415

orden6 la expulsión de los judios, pese a las protestas de Orestes, prefecto imperial" ("Encl. Jud. Castellana).

"Laister biurtu ziran ordea judu aiek danak Alexandri'ra. Gero, maometarrek uria artu zutenean, aski ugaria bait zan bertako juduen kopurua", 1.971 'an Jerusalem'en argitaratutako Encyclopaedia Judaica" k doskunez: "but appear tu have returned after some time since (Alexandria), contained an appreciable jewish population when it was conquered by the Muslims".

"Encyclopaedia Britannica" berriz onela mintzatzen zaigu: "There were victims on each side in thi riots that followed, of whom Orestes' frend, the learned Neoplatonist Hypatia, is the most famous": "Bai alde batetik bai bestetik, juduen jaurtiketaren ondorengo istilluetan izan zan ildakorik ere; danetan ospetsuena, Orestes'en adiskide zan Hypatia platontasunberrizale jakintsua".

Alkarren arerio izan ziran Zirilo Patriarka eta Orestes Jaurlea. Ejito'ko lekaideak ere igitu omen zituan Zirilo'k Orestes'en aurka.

Agian Nestorio'rekin ere, ez zan bear aiñako patxadaz ibilli gure Zirilo Donea. Ikus dezagun ordea, zein izan zan Nestorio, eta zertan datzan bere nestorikeriaren altzoko okerkeria.

* * *

NESTORIO, Siri'ren Eufrates-aldeko probintzian jaio zitzai-gun. Noizbait 381'garren urtearen ondorean. Antioki'ra joan zan eta an bizitu lekaidetxe batean, apaiz egiña izan zan arte.

Uri artako Teologi-Eskolan egin zituan ikasketak, eta bear ba'da, an, Monpsueta'ko Teodoro gertatu zitzaion irakasle. II Teodosio inperatoreak eraman zuan Kostantinopla'ra uriburu artako Patriarka izan zedin (428), gizon ospetsua bait zan, bizitza gogor latzeko gizona lez. Izlari arras yayo, eta sinispide zuzen zintzoko apaiza zala esaten bait zan gaiñera Antioki'ko kristauen artean.

Kostantinopla'ko patriarkadutzan okertu zitzaion, dirudianez, bere sinispide aren zuzentasuna.

Kostantinopla'ko Patriarka lez, asieran, oso "trumoitsua"

"storming one" izan zan aren jardunkera, "mota guztietako ereji danak sustraitik ezereztu naiez". "Pelajiotarrekin bakarrik izan zan leguna": "Extirpating heretics of every sort, showing lenience only to Pelagians" (Enc. Brit.).

Bere kapillaua, Anastasio izeneko apaiz bat, izan zitzaigun erejiaren azia Kostantinopla'ko Eliza-baitan ereiten asi zitzaiguna, Miren Neskutsari Teotokos izen-ematea zillegi zan edo ez zalantzan ipiñiz.

Antioki'ko Eskola, "diofisizalea" ots, Kristo'gan "bi zertasun", "dia finis" aitortzearen zale izan zan beti, Laodizea'ko Apolinar'en irakaspenen aurka. "Para contrarrestar el apolinarismo, los grandes doctores de Antioquia afirmaban que en Cristo habfa dos naturalezas completas: la humana y la divina: diafisis (J. Zunzunegui).

Egia, baiñan Antioki'ko irakasle aundi aiek, Kristo'ren giza-zertasuna osoa dala esaterakoan, gizatasun ura gorputz eta animaz osotua dagoala esan nai zuten. Besterik ez. Aurrerago joan zan ordea Nestorio Kristo'ren giza-zertasunari, anima ez nortasuna ere ezarri zionean, orrela, Miren neskutsarengandik jaiotako Josu'ri jainkotasuna ukatuz.

"Theos", Jainkoa da eleneraz; "Tokos" berriz, erditza. Orrela, "Theotokos" itzak "Jaink'Erdizle" adierazi nai du. Beraz, Miren Neskutsa "Theotokos" dala esatea, Miren Neskutsa "Jainkoaz erditu" zitzaigula esatea da, Edo, berdin dana, Miren Neskutsa Jainkoaren ama dala.

"Theotokos" izen ori, zarra zan teologilari kristauen mintzaeran; eta askoz zarragoa oraindik kristau erriaren ezpaiñetan.

"Orthodox theologians had long used the title (theotokos) which the growing cult of the Virgin made highly popular", diosku katolikoa ez dan "Encyclopaedia Britannica" k:

Euskeraz: Aspalditik zerabilkiten teologilari katolikoek, erria-baitan azitzen zetorren Miren Neskutsarenganako eraspenak eguneroko izen kutuna biurturik zeukan Teotokos izen guren ori".

Anastasio apaizak ordea, eta berealaxe aren alde jarri zan Nestorio patriarkak ez zuten ontzat artu nai itz ori. Atsegiñago

zitzaien Miren Neskutsari "Kristotokos" edo "Kriseerditzaille" izen berria. Beraiek asmatutako izena.

Zergaitik?

Bearrezkoa izango dugu galde orri erantzuteko, nestorikeri guzia zeatz agirian ipintzea.

* * *

NESTORIKERIA.- Ordurarte, Kristo'k, Nortasun batean bi Zertasun zituala sinisten zuan Elizak. Bi zertasun: jainko-zertasuna eta giza-zertasuna. Baiñan bi zertasun oiek Nortasun bat, ots, Pertsona BAT, osotzen zutela: Miren Neskutsaren erraietan Gizon egin zan Jainkoaren Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

Ori nola? Miren Neskutsaren erraietan gizon egitean Kristo'k giza-zertasun bat artu zualako, ez ordea giza-zertasun orri legokioken giza-nortasuna. Naiko Nortasun bait zan bera, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona.

Nortasunik gabeko giza-zertasun ori Miren Neskutsaren erraietan artu zuan Irutasun Doneko Bigarren Pertsonak. Miren Neskutsak eman zion beraz Pertsona orri giza-sorkuntza. Edo, berdin dana, Jainko bezala betidandik Jainko Aita'k sortutako Pertsona ura ber-bera sortu zuan gizon bezala Miren neskutsak. Eta Pertsona ura ber-bera da Belen'en erditu zuana: Irutasun Doneko Bigarren Partsona.

Ori ukatu zuan Nestorio'k, Kristo'gan bi Pertsona bizi zirala esanez. Bi Pertsona ezberdiñak: Bata, Irutasun Doneko Bigarren Pertsona. Eta bestea Miren Neskutsaren sabelean sortutako gizonaren Pertsona.

Gizon gizaseme oni bakarrik eman omen zion Miren Neskutsak sortzea, ez betidandik badan Jainkoaren Seme Jainkoari.

Beraz ez omen da zillegi Miren Neskutsari "Jaink'Erditzari" esatea, izen orrekin Jainkoari ere sortzea eman ziola adierazi omen daitekealako. Orregaitik, Miren Neskutsari eman dezaiokeagun izen egoki bakarra, Kristotokos edo "Krist-Erditzari" omen da.

Laburki esanda, onatx Nestorio'ren aburua:

- Kristo'gan bi Pertsona ditugu: Jainkoaren Semeari dagokion jainkozko Pertsona eta Miren Neskutsaren semeari dagokion giza-pertsona.

- Kristo'gan, Jainko bat eta gizon bat bizi dira batean.

Miren Neskutsa, soilki gizon orren ama da; ez, iñolaz ere, Jainkoaren ama.

Pertsona bat Pertsona bi, Kristo'ren pertsonalitateari-buruzko arazo orrek ez zuan erri kristau landerra geiegi kezkatu, filosofia-ren arlokoak diran arazo oiek ulertu ere, oso era argian ez bait zituan ulertzen. Baiñan Miren Neskutsa Jainkoaren ama ez zala entzuteak, orrek bai, orrek izugarrizko miña eman zion biotzeko barne muiñetan.

Alare ez uste izan Nestorio asmo okerrez zebillenik. Gaiñera ez dakigu nola ulertzen zituan bere esakizunak, bai bait dira Nestorio ez zala nestoritarra izan esaten digutenak ere. Baiñan naiz bere barruan zer pentsatzen zuan ezin ziurki jakin, berak esaten zuana bai, berak esaten zuana ziurki nestorikeri aundia da. Oroi bere dotriñaren gunea:

Kristo bi pertsonaz osotutako izaki bat zala. Pertsona oietako bat Jainkoa zala; bestea gizon utsa. Miren Neskutsa, soilki gizon uts orren ama dala, eta ez, iñolaz ere, Jainko aren ama.

Zergaitik esaten zuan ori? Kristo'ren gizontasun osoa babesteko. Ordurarte, Ario'ren aurka, Kristo, batera Jainkoa eta Gizona zala, erabaki zuan Elizak Nizea'ko Kontzilioan. Kristo'ren pertsonalitateaz ez zan mintzatu. Ez zuan eztare, Kristo'gan, batera Jainko eta Gizon izatea nola alkartzen ziran erakutsi.

Egiatzko misterioa bait da alkartze orren nolatasuna. Fedeari dagokion misterioa. Misterio ori argitu nai izan zuan Nestorio'k, eta misterio argitu bearrean ezabatu egin zuan misterioa.

Izan zan beste bat Nestorio'ren aurretik sinispideko izkutuki ori giza-arrazoiaren bidez argitu nai izan zuana, Apolinar, ain zuzen, Kristo'ren gizatasunak giza-animarik ez zuala esanez. ITZA'k, ots, Irutasun Doneko Bigarren Pertsonak egiten omen zuan giza-

animaren lana.

Elizak gaitzetsia izan zan apolinarkeria. Jainko osoa izateaz gaitzetsia, Kristo gizon osoa ere badala sinistea bait dugu sinispide zuzena.

Kristo'ren gizatasunaren osotasun ori babestea artu zuan eginkizun bereizi Antioki'ko Teologi--Eskola ospetsuak, batez ere Eskola artako irakasle nagusi izan ziran Tarso¹ko Diodoro'k eta Mopsuesti'ko Teodoro 'k. Gizon auek ez ziran beñere "Kristo'gan pertsonalitate bikoitza" sinistean aldekoak izan, baiñan, beraiek bait ziran gai orri-buruzko teologia lenen urratzen zutenak, beren izkera ez zan sarritan bear bezain aratz argia izan.

Gaizki ulertu zuan beintzat, dirudianez, Antioki'n Eskola artako irakasle izandako Nestorio Kostantinopla'ko Patriarka'k arazo zail ura.

* * *

ZIRILO ETA NESTORIO ALKARREN AURKA. - Kostantinopla'n bertan jeiki zitzaion Nestorio'ri aurreneko arerioa: Kristau uts ez-apaiz bat. Santa Sofia jauretze nagusiko atean josi zuan bere erronka, Miren "Teotokos" zala oiuegiñez. Kristo, bere baitan Jainkoaren indarra era bereizian artu zuan gizon uts bat besterik ez zala erakutsi zuan Samosata'ko Paul erejearekin kidatzen zuan kristasu uts arek Nestorio Patriarka.

Baiñan Kostantinopla'tik urruti, Alexandri'n sortu zitzaion Nestorio'ri etsairik menderakaitzena: Zirilo Donea, Eliz artako Patriarka. Ez oso gizon biguñia, ikusi aal izan dugun lez.

Aundia zan garai artan Kostantinopla'ko eta Antioki'ko Elizen areriotasuna, Alexandri'koak ezin ikusi bait zuan begi onez, Kostantinopla'koak batere arrazoirik gabe, soilki inperatoreen uriburu zalako, Sortaldeko beste Eliz guztien gaindik artu nai zuan nagusitasuna.

Izterbegikeri orrek ere izan zuan noski, Kristo'ren pertsonalitateari-buruzko auzi artan erabillia izan zan laztasunean zer-ikusirik

aski.

Ejito'ko lekaide guztien artean ezin-egon mingarria sortu zuan Miren Neskutsari Teotokos izena ukatzen zitzaiola jakiteak. Urduritasun orren adierazle, bereala idatzi zion Zirilo'k Nestorio kostantinoplatarrari: Teotokos itzak, "Kristo'gan jainkotasunak eta gizatasunak Pertsona bakar bat osotzen dutela", eta "Miren Neskutsa Pertsona orren ama dala", esan nai zuala. Eta, ondorioz, "oso arriskugarria zala" Nestorio'k zerabilkian izkera.

Urduritu zan Erroma'n Zelestino Aitasantua ere.

Oartu zan ortaz Nestorio, eta, Miren Neskutsari zergaitik Kristotokos esaten zion adieraziz, bere itzaldiak bidali zizkion Erroma'ra; eleneraz; esanak izan ziran bezala.

Nestorio'ren itzaldi aiek berak bidali zituan Zirilo'k ere Erroma'ra baiñan laterara itzulita, bai bait zekian Erroma'n elenera ongi ezagutzen zuan askorik ez zala.

Burugabekeri aundi bat egin zuan orain Nestorio'k: Erroma'n gaitzetsiak izan ziran pelajiotarrak ongi artu Kostantinopla'ko bere gotzai-jauregian. Zelestino Aitasantua ikaratzearren? Alexandri'ko eta Antioki'ko eta Erroma bertako Elizei, Kostantinopla'ko Elizaren nortasun bereizia eta aalmena adierazi naiez? Pelajiokeria erejia ez zala iduritzen zitzaiolako, agian?

Asiera artan ez zan errez ulertzen Nestorio'ren okerra zertan zegoan; eta izan zituan Nestorio'k adiskideak. Ez noski "nestoritarra" k baiñan Zirilo'ren idazkeraren etsaiak, -- onen izkera ere ez bait zan bear bezain aratza.

Kristo'ren giza-nortasuna ukatzea, botatzen zioten aurpegira Zirilo'ri, eta ez noski arrazoirik gabe. Zirilo Donea ez zan beñere "monofisita" izan baiñan bere izkera bai, monofisita izan zan bein baiño geiagotan. Askotan onako au esan nai duala bait dirudi: Kristo'k gizon egitean artu zuan giza-zertasuna Jainko-zertasunean urtu-edo egin zala, eta ori egiazko monofisikeria da, laister ikusiko dugun bezala.

Zirilo adimen zorrotzeko gizona zan-da, "bereala oartu zan aurpegira jaurtitzen zioten salaketa aren garrantzi astunaz":

"Cyrille eut la sagesse de comprendre la gravité des objections qui lui étaient adressées" (Cath.) eta aurka zituan gotzai aien aintzindari zan Bereko Akazio'rekin jarri zan alkarrizketan al izan zuan laisterren.

Egin ziran pakeak, eta, bere atsegin aundia agertuz, "laetentur caeli et exultet terra", "poztu bitez zeruak eta alaitu bedi lurra" izenburutzat artuz, gutun eder bat eman zuan Zirilo¹k argitara.

430'ean gaitzetsi zuan Zelestino Aitasantuak, ortarako Erroma'n bildu zuan sinodo batean, Nestorio'ren dotriña, eta Zirilo'ren eskuetan utzi zuan gaitzespen ura Sortaldean beteerazteko eginkizuna.

"Este encargo tendría fatales consecuencias, puesto que Cirilo fue mucho más allá de lo indicado en las instrucciones. En lugar de buscar el mejor modo de ganarse a Nestorio para que pronunciase la retractación postulada, hizo que también la Iglesia de Alejandria se condenase solemnemente en un sínodo reunido en noviembre de 430" (Jedin).

Alexandri'ra Sinodo ori bilduz eta Nestorio ri eskutitz bat bidaliz asi zan Zirilo, Zelestino Aitasantuak emandako eginkizuna betetzen.

Sinodo artan bere "Amabi Anatematismu" edo "Gaitzespenak" borobildu zituan, eta eskutitz arekin batera bidaltzen zizkion "Gaitzespen" aiek izenpetzeko agintzen zion Nestorio'ri, Izkera gogorra, eskutitz ortakoa.

Ez oso zuzena, gaiñera, "gizon egindako Jainkoaren ITZA'k "mia fisis", ots, zertasun bat duala", esaten bait zuan.

Monofisikeriz salatuz erantzun zion Nestorio'k eta Zirilo'ren eskutitza gogorra izan ba'zan, ez zan lrgunagoa gertatu Nestorio--ren erantzuna. Au ere ez bait zan goxotasunezko aingeru biguiña, naiz agian Llorente'k egiten dion antz-irudia bearbada zakarregia izan:

Bai omen zituan "una estima desordenada de su propio criterio, una soberbia intelectual sin límites y un aire de superioridad frente a todos sus impugnadores, que no le dejaba siquiera atender a sus

razones. Esto fue sumamente fatal en todo el decurso de la discusión".

"Por eso, ya en este primer estadio de la controversia, dando por cierto que cierto número de monjes que se oponían a sus ideas eran perturbadores del orden acudió al brazo secular, procuró conquistar en favor suyo la autoridad **hizo prender** y tratar duramente a dichos monjes y prosiguió enérgicamente la campaña a favor de sus ideas".

Danadala, ez zan Nestorio bakarrik izan Zirilo'ren "12 Gaitzespenetan" monofisikeria, ots, zertasunbakarkeria ikusi zuana. Okerkeri berorren usaia artu bait zieten Ziro'ko Teodoreto'k eta Jon Antioki'ko Patriarkak ere, naiz geroago, bi auek, Zirilo'rekin-go adiskidetasuna bir-sendotu.

431. EFESO.

ELIZAREN IRUGARREN KONTZILIO EKUMENIKOA.

Kontzilio aren bearririk ez zan, Zelestino Aitasantuak nestorikeria erejitzat gaitzetsi zuan ezkerero. Izugarriki arriskugarria ere bazan aren astapena. Zisma eriogarri bat sortu bait zezakean, kontzilio artako asabek Aitasantuak Aitasantu bezala lendik gaitzetsirik zeukana, orain, kontzilioan, Aitasantuari bizkar emanaz, ark gaitzetsitako ura ontzat sagarutzen ba'zuten.

II Teodosio Inperatorea izan zan, urikideen arteko pakearen billa, kontzilio ura egitea pentsatu zuana. Efeso aukeratu zuan ortarako: Egeo itxasoaren ertzean Asiko lurretan zegoan uri ederra.

Beste irtenbiderik ez zuan-da, bi ordezkari aukeratu zituan Zelestino Aitasantuak, berak ordurako gaitzetsirik zuekana, tinko babestu zezaten, baiñan Zirilo izan zan Zelestino'ren egiazko ordezkaria, arazo eta auzi guztietan aren esanera egoteko agindu bait zien Zelestino'k bere bi ordezkari aiei.

Asko ziran Sortaldean, naiz nestoritarrak izan ez, Nestorio gaitzespen gogor batetik salbatu nai zuten gotzaiak: siritarrak geienak, eta silizitarrak; Jon Antioki'ko Patriarkaren itzalpean bilduak. "Gotzai oiek sortarazi nai izan zituzten "atermoiements" edo "atzerapenek" ez zuten ezertarako balio izan. manoeuvrire et l'Šnergie parfois quelque peu brutale de saint Cyrille" (id), ots "Donezirilo'ren igiketarako yayotasunak eta bere kemen sendo baiñan noizbeinka zakarregi ark" utsean utzi bait

zituzten Nestorio'ren adiskide guzti aien itxaropenak (Marrou).

Iñori ezer esan gabe, oraindik gotzai asko eta Aitasantuaren ordezkari beraiek ere Efeso'rako bidean aski urruti zeudela, bere jitez, "bat-batean iriki bait zuan Kontzilioa", "Cirille brusqua les choses et ouvrit le concile" (Id), 431'eko ekainillaren 22'an.

"Pesa gravemente sobre Cirilo la circunstancia de no haber aguardado la llegada de la delegación pontificia ni la de los obispos antioquenos, sino que fijase por cuenta propia la fecha de apertura del concilio para el 22 de Junio, contra la protesta expresa del representante del emperador, el comes Candidiano asI como un grupo de 68 obispos" (Jedin).

Alatagutziz, bildu ziran 150 gotzai. Nestorio eta bere adiski-deen taldetxo txiki bat gelditu ziran kanpoan, deituak izan ziran gotzai guztiak iristen ziranean, beraiek ere sartuko zirala esanez.

Asi zan Kontzilioa eta Nestorio gaitzetsia izan zan. "Bigarren Judas" esaten zitzaion, gaitzespen ura adierazteko Kontzilioko Asabek bidali zioten gutunean.

Ez ziran noski danak pozik gelditu:

- Kontzilioaren jarduketaren aurka, gogor egin zuten oi u Nestorio'k eta lagunek; baiña baita Kandidiano konteak ere. Onek, "Kontzilioaren jardunkera legearen aurkakoa izan zala, eta, ondorioz, Kontzilioak artutako erabaki guztia baliorik gabeak zirala" esanez idatzi zion 11 Teodosio inperatoreari.

Memnon Efeso'ko gotzaiari leporatzen zioten, Zirilo'ri baiño geiago, Kontzilioak erabillitako jarduketaren errua.

- Kontzilioak bere erabakiak artu eta gaitzespenak jaurtiz gero iritxi ziran Antioki'ko Jon eta Siri'ko gotzaiak, eta, bereala, beste kontzilio bat bildu zuan Antioki'ko Jon onek 50'enbat gotzaiarekin. Kontzilio txiki onek egindako aurreneko gauza, Efeso'ko Memnon eta Alexandri'ko Zirilo eskomikatzea izan zan. Eta, eskomika oien berri emanez, II Teodosio inperatoreari idatzi zioten kontzilio txiki artako 50 gotzai aiek.

- II Teodosio'ren erantzuna: Baliorik gabe geldi bedi orain arte Efeso'n egindako guztia. Auzia zeatz aztertzeke, nik bidaliko dut

ordezkari bereizi bat.

- Inperatorearen aginduaz arduratzeke, berriro bildu zan Kontzilio aundia, egiazko Kontzilioa, Zirilo, Memnon eta beste 150 gotzai aien Kontzilioa.

Orain ainzuzen, Kontzilio au bigarren aldiz bildurik zegoala iritxi ziran Zelestino Aitasantuaren ordezkariak, eta ontzat eman zuten Aitasantuaren izenean, ordurarte Kontzilio ark aurreneko billeran egindako gutzia, eta bereiziki Nestorio'ren eskomikapena.

- Bein da berriro egin zion dei Jon Antioki'ko Patriarkari Zirilo Alexandri'ko Patriarkak. Eta bein da berriro egin zien uko arek, onen deiketa gutziei. Arek, Jon'ek, Inperatorearen ordezkariaren etorrerari itxo-egin nai bait zion.

Kontzilio aundiak, ots, egiazko Kontzilioak ordea, Aitasantuaren ordezkariak mintzatu ziranez gero, inperatorearen ordezkariaren zai egon bearrik ez zuala-ta, Jon antiokiarra eta aren kontzilio txikiko gotzai siritar aiek eskomikatu zituan.

Ala, Elizaren edestian maiz gertatu oi dan gauza **alde** bietakoak gelditu ziran eskomikaturik. AId e ontakoak, aiek; eta alde artakoak auek eskomikatuak.

Ez alare uste, Antioki'ko Jon kristau zintzoa ez zanik. Oroi, orduan ez zeudela Aitasantuaren eskubideak gaur bezain ongi tajutuak, eta bestalde, Zirilo eta Memnon'en jardunkerak, zalantzan ibiltzeko ziorik aski ematen ziola.

Iritxi zan II Teodosio'ren ordezkaria: Jon izeneko Konte bat. Pozik gelditu zan noski Antioki'ko Jon, konte aren bidez Inperatorearen erabakia jakitean: Nestorio, Zirilo eta Memnon beren gotzai-aulkietatik kentzea izan bait zan Inperatorearen erabakia. Gaiñerako gotzai gutziei, beren elizbarrutietara len-bait-len itzultzeko agintzen zien inperatoreak.

- Zirilo'ren aldeko gotzaiek Inperatoreak erabakitakoaren aurka asarre oi u egin zutelako, Nestorio bera, Zirilo eta Mennon, azkeneko onen etxean espetxeraturik gorde zituan Jon Konteak. Baitura artan Zirilo eta Nestorio nola konpondu ziran ez dakigu.

- Ordurako, Nestorio'ren orde z, Maximiano izeneko beste

Patriarka bat izendaturik zegoan Kostantinopla'n. Ori ikustean, Zirilo'k, Alexandri'n ere bere etsaiek beste orrenbeste egingo ziotela pentsatuz, iges egin zuan baituratik.

- Bein Alexandri'n, inperatorearen onginaia irabazteko, Kostantinopla'n inperatorearen inguruko aundikien artean dirua banatzen asi zan. Santurik aundienak ere gizakumeak dirala, eta ez dirala gizakumeon txikerkerietatik zearo yare gertatzen: "Al objeto de ganarse la benevolencia de la corte, no vacild en emprender una vasta accidn de donativos entre las personalidades mis influyentes de la capital, que mais tarde fue calificada con amargas palabras de soborno por Nestorio y que gravd con enormes deudas ala Iglesia de Alejandrfa" (id).

Ez dezagun ala ere Zirilo alexandritarra ariñegi gaitzetsi. Sendo sinisten bait zuan arek, sinispidea garbi gordetzeak munduko aberastasun guztiak baiño geiago balio duala eta Elizaren aberastasunak zerbaitetan erabiltzekotan ortan erabilli bear zirala. Eta zalantzarik gabe erabilli zituan ortan Alexandri'ko Elizaren aberastasunak.

- Inperatoreak, bi aldeetako ordezkariet dei egin zien bere aurrera. Alperrik. Ez bait zan bi aldekoek batera erakartzeko gai izan.

- Ori ikustean, II Teodosio'k, naiz itxuraz Zirilo'ren 150 gotzaien aide jarri--, ez zituan Jon antiokiarraren 50 aiek gaitzetsi nai izan, eta 431 artako urrillean, "cst sur des paroles svers qu'il cong&lia le concile, en dēplorant **de la rconciliation**" (Marrou): "pakezko alkartasuna Iortzeak uts egin ziolako, itz latzak erabilliz itxi zuan Kontzilioa".

- Gotzai guztiak, yare biurtu ziran bakoitza bere-urira, Nestorio ezik. Au, aurrena, Antioki'ren alboko bere lekaidetxera bidalia izan zan. Eta an urduriegi zebillelako, andik, Ejito'ren egoaldeko lekaro legorraren barruko oasis batera erbesteratua, eta emen il zan 451'ren inguruan, "protexing his orthodoxy ", "bere sinispidearen zintzotasuna oiukatuz" (Enc. Brit.).

Ez zuan asko idatzi. "Apologi" bat eta gugana zati batzuetan

bakarrik iritxi diran eliz-itzaldi batzuk.

Inperatorearen onespén osorik ez zuan beraz Efeso'ka Kontzilioak izan. Ezta bearrik ere. Aitasantuaren onespén bai, oso-osoan lortu bait zuan Aitasantuarena. Orregaitik da ain zuzen Elizaren Irugarren Kontzilio orokorra: Nizea, Kostantinopla, Efeso.

- Garbi utzi zituan Efeso'ka Kontzilioak bi egi sinésbear auek:

1^o: Kristo, nortasunari dagokionez, Pertsona bat bakarra dala: Irutasun Doneko Bigarren Pertsona. Jainkoa, Irutasun Donearen altzoan AITA edo GOGO DEUNA bezain Jainko bait da Bigarren Pertsona: SEMEA.

2^a : Pertsona orrek Miren Neskutsagandik artu zuala giza-zertasuna. Eta Miren Neskutsagandik jaio zala. Eta Miren Neskutsagandik jaio zan Pertsona ori Jainkoa dalako, Miren Neskutsa ezpairik gabe Jaionkoaren Ama dala: THEO-TOKOS.

* * *

Zirilo Doneak, Elizaren batasunaren alde etenik gabe lan egiñez igaro zituan bere azkeneko urteak Alexandri'ra: "Naiz itzak eta izkerak ez berdiñak izan, izan omen daiteke bat, alatagutziz, sinispidea". Oldozkera ori izan zuan azken lan aietan argi ta ats emaille.

Nestorio'ren sinispidea naiz bere itzak baldarrak izan -- zintzoa izan zitekeala pentsatzen asi ote zan?.

Ez dakigu. Baiñan itzak beintzat, Nestorio'ren itzak arras izan ziran okerrak. Orkertasun orren altzoan aren sinispidea zintzoa zan edo ez. Jainkoak bakarrik jakin dezakean gauza da.

Nestorio'rekin ain gogor ibilli ez ba¹liz agian ura sinispide zintzora ekarri aal izango zuala pentsatzen ote zuan? Ori ordea Zirilo'k jakin ez zezakean eta guk ere jakin ez dezakegun gauza da.

Agian bai... eta agian ez: baiñan, iñork ekartzekotan, Zirilo'k baiño obeki ekarri aal izango zuan Nestorio sinispide zintzora il berria zan Ipona'ko Augustin Doneak. Ortarako seguruaski deitu zion Kontzilia II Teodosio inperatoreak, baiñan beste mundura

joana zan ordurako Donaugin, eta aren ordezkari bat bidali zuan Kartago'ko gotzaiak Efeso'ra, Afrika'ko Elizaren ordezkari.

Ez ziran urte asko Ipona'ko Augustin Doneak Galietako lekaide izentsu bat, Leporio, egiazko sinispidera ekarri zuala. Nestorio beraren aurretik aski nestoritarra zan "Jainkoa emakume batengandik jaio zala sinistea" egiazko erejia dala, eta, orregaitik, Miren Neskutsa Jainkoaren ama dala esatea Jainkoaren aurka birao egitea dala" zion lekaide ura. Alatagutziz, sinispide zintzora ekarri al izan zuan Augustin Doneak lekaide "nestoritar" ura. Alkarrizketa goxo baten bidez!

Ez dira ordea beti, alkarrizketa goxo biguñak ain egokiak gertatzen. Mendeak geroago Lutero'rekin asieran biguñegi jokatu izatea jaurti oi zaie aurpegira X Leon Aitasantuari eta V Karlos inperatoreari. Gogorrago jardun balira, bat-batean moztuko omen zuten praille agustindar aren erejia.

Lutero Nestorio baiño gogorragoa zala? Ez dakit Nestorio eta Efeso'ko Kontzilioaren arteko arazoa, soilki itz bakarrei zegokien arazoa ba'zan, zerk eragozten zion Nestorio'ri, Kontzilio-
ra joanda, bere itz aiek nola ulertzen zituan argi ta garbi agirian ipintzea?

Orrela epaitu oi dira edestiko gertakizunak: X Leon Aitasantuari gogor ez ibilli izatea jaurti oi zaio; Zirilo'ri Alexandri'ko patriarkari, gogor izatea.

444'aren Ekainilleko 27'an il zan Done bikain, aundi, borrokari ura: Zirilo Donea..

Asko eta asko idatzi zuan. Bibliaz, aurrena; teologiaz berriz nestorikeriaren auzian sartu zan ezker.

* * *

Ikus nola damaigun 1992'ko urrillaren 11'an II Jon Paul Aitasantuak munduari aurkeztu dion Elizaren Dotriña-Liburu berriak nestorikeriaren berri:

"La herejfa nestoriana vefa en Cristo una persona humana junto

a la persona divina del Hijo de Dios. Frente a ella San Cirilo de Alejandría y el tercer Concilio Ecuménico reunido en Efeso, en el año 431, confesaron que el Verbo al unirse en su persona a una carne animada por un alma racional, se hizo hombre". (Azpimarraketa, berea).

"La humanidad de Cristo no tiene mas sujeto que la persona divina del Hijo de Dios que la ha asumido y hecho suya desde su concepción. Por eso el Concilio de Efeso proclamó en el año 431 que María llegó a ser con toda verdad Madre de Dios mediante la concepción humana del Hijo de Dios en su seno:

"Madre de Dios, no porque el Verbo de Dios haya tomado de ella su naturaleza divina, sino porque es de ella, de quien tiene el cuerpo sagrado dotado de un alma racional, unido a la persona del Verbo, de quien se dice que el Verbo nació según la carne".

(Len bezala oraingoan ere berea da azpimarraketa. Baleike lerro oietako izkera illun samarra gertatzea. Kontzilioak erabili zituan itz beraien itzulpen ertsia bait dira. Ertsiegia, bearbada, teologizko eziketarik ez duten kristautentzat ere egiña izan dan liburu batererako).

* * *

ELIZ NESTORITARRAREN ZABALKUNDEA.- Efeso'ko Kontzilioaren garaian, erromatarrena zan Osroene, eta lore-lorean aurkitzen zan Ibas gotzaiaren zaintzapean Edesa'ko Teologi-Eskola, eta aundiak ziran Antioki'koarekin zituan adiskidetasunak. Antioki'koan irakasle izan zan Mopsuesti'ko Teodor'en teologia bait zan, ainzuzen, Edesa'ko Eskolan erakusten zana. Adiskideak ziran Antioki'ko Jon eta Edesa'ko Ibas ere, naiz azkeneko au "nestorien convaincu", ots, "gogo osoko nestoritarra" izan (Cath).

Antioki'ko Jon, ikusi dugun lez, naiz Nestorio'ren adiskide eta Zirilo'ren arerio, ez zan sekulan nestoritarra izan.

Ala, gertatu zan azkenean, naitanaiez gertatu bear zana, ots,

Antioki'ko Jon'ek eta Alexandri'ko Zirilo'k alkar ulertuz gero bat egitea. 433'an gertatu zan ori. Eta Antioki'k eta Alexandri 'k bat-egite aren ondorioz, aski urraturik-edo gelditu ziran Antioki eta Edesa'ko Eskolen arteko adiskidetasunak. Eta ordurako aski nestoritarra zan Pertsiko Elizara urbidu ziran. Jon'en eta Zirilo'ren alkartze ura gaizki artu zuten gotzai nestorizale batzuk.

Arrezkero, Edesa'ko Teologi-Eskola izango da nestoritasunaren gidari nagusia. Eta 486'ean, Seleuzi-Ktesifonte'ko sinodoan, ofizialki nestoritarra biurtuko zaigu Pertsiko Eliz osoa.

Iru urte geroago, Edesa'ko Eskola ura itxi, eta nestoritar garrantzitsu danak uritik kanpora bidaliko ditu Zenon inperatore erromatarrak. Bidalitako aiek danak, Pertsira igaro ziran, orrela Pertsin'ainzuzen jaio berria zan Eliz Nestoritarra teologilari ugariz ornituz.

612'ko sinodo batean, Mar Babai Aundiaren ikur-itza artu zuan Pertsiko Eliz nestoritarrak bere sinispidearen adierazle bezala: "Fysis" (zertasun) bi, "Hipostasis" (nortasun) bi eta "Prosopon" bat, zion Babai Aundiaren ikur-itz arek. Kristo'k, bi "natura" edo zertasun eta bi Pertsona zituala, baiñan alatagutziz "Prosopon" edo "Izaki" bat bakarra zala. ("Izaki" itzuli dut nik itzulpen errezik ez duan "prosopon" ori, "ens" edo "izaki" bat bezala agertu bait zan Kristo mundura, eta batzuen ustez ori bait da Babai'k itz orren bidez adierazi nai izan zuana: munduaren aurrean Kristo'k izan zuan itxura.

Bi Teologi-Eskola sortu ziran Pertsin'. Nisibis'en bata, garrantzitsuena, eta Seleuzi-Ektesifonte'n bestea. Alatagutziz, ez zitzaien Eliz Nestoritarrari bere sendotzegailurik bizkorrena teologia gertatu. Bere sendotasuna, bizitza zintzo zorrotz jatzeko lekaidetza oparoari zor izan zion.

Ala igaro zituan errege pertsiar zoroastrozaleen zigorketak, musulmanen etorrera eta mongolitarrena gero, XIV mendean Tamerlan'ek ia zearo desegin zuan arte.

VI mendean 540'tik 552'ra Zoroastro'ren erlijiotik kristautasunera etorritako gizon aundi bat izan zuan Pertsiko Eliz nestorita-

rrak Zeleusi-Ktesifonte'n Patriarka: Mar Aba "Aundia", garai artako jakintzetan ongi ezia eta jaurle bezala arras trebea. Lan ederra egin zuan gizon onek Pertsiko Eliz Nestoritarra sarkaldeko Elizaren erara antzaldatzen. Berak eraberritu zuan Ejito'ko lekaideen erak eredutzat artuz eta Abraan Kaxkar izeneko bi Lekaideen laguntzarekin Pertsiko Iekaidetza nestoritarra. Abraan Kaxkar bi aietako batek irasitako Izala izen-zuan mendiko Lekaidetxean bizitu zan lekaide, ipatu dugun Mar Babai ori" (569-628).

Nonofisikeria sortu zanez gero, gogortu egin zan Pertsiko Elizaren nestorikeria. Izan ere, nestorikeriaren sustrai bera ezerezten bait zuan nonofisikeriak. Kristo'k bi zertasan edo "fisis" zitualako naitanaiez bi pertsona edo "hipostasis" izan bear zituala erakusten zuan nestorikeriari, Kristo naitanaiez "hipostasis" edo Pertsona bat bakarra izan bear zuala, erantzuten bait zion monofisikeriak, Arek zertasan edo "fili" bi ez baiña, zertasan edo "fisi" bat bakarra besterik ez zualako: "muno-fysis" eleneraz. Au erakutsiz idatzi zuan Mar Babai "Aundia"k Kristo'gan Jainkoaren eta gizonaren bat egiteari-buruz idatzi zuan "Aikartze-Liburua".

Baiñan sarkaldeko Elizarenganuntzko igikundea ez zan gelditu Pertsiko Eliz nestoritarrean. Hanana izan zan garai artan Nisibis'ko Teologi-Eskolaren zuzendaria. Ba, gizon onek, monofisikeria gaitzetsi zuan Kaltzedoni'ko Kontzilio Ekumenetarra Pertsin ontzat artua izatea eskatu zuan, eta Eliza katolikoak gaitzetsirik zeukan Mopsuesti'ko Teodoro kendu eta Jon Krisostomo Donea ipiñi zuan Nisibis'ko Eskola artan liburu gidari nagusitzat.

Lan aundia egin zan Mesopotamrko Eskola aietan, Edesa'koan bereiziki, eta baita Nisibis'koan ere, Grezi zarreko jakintza sirieratzen. "It was primarily through the Syriac translations that the Arabs became acquainted with Greek thought": "Sirierazko itzulpenetan ezagutu zuten aurrena arabitarrek Greziar-pentsakera" (Enc. Brit.).

Orregaitik, "because Nestorian scholars played a prominent role in the formation of the Arab culture, and the patriarchs occasionally gained influence with the rulers": "jakintsu nestorita-

rrek arabiar-kulturaren sorkuntzan lenen maillako eraginmena izan zutelako, eta, ori dala-ta, Patriarkek agintarien aurrean begirunerik aski irabazi zutelako", eragozpen aundirik gabe igaro zuan Eliz Nestoritarrak arabiarren menpeko aro luzea.

Aunditu egin zan gaiñera, eta aberastu. Eta Pertsiren Asi-aideko mugetaz aruntz, geiago zabaldu.

Askotan aizatu oi da Eliz Nestoritarraren misiogintza. Egia da Eliz ura iritxi zala Arabiaren barrura, Indi'ko Malabar'era, Siberiaren barrura, Turkestan'era, Tibet'era, eta Txina'ra. 781'ekoa da Txina'n SiÑan-Fu'ko idazki siri-txinatarra.

Baiñan mixioketa ura Eliz Nestoritarrarena ez baiña Eliz artako kristauena izan zan, eta oso axial-axalekoa gaiñera. Eta mixioketa baiño geiago Pertsiko jende kristau monofisitaren emigratio edo atzerriaketaren ondorioa. Atzerrietara igarotako pertsiar aiek gure ijitoek gure artean bezala talde bereizi bat osotzen zuten bâ erri aietan. Gure ijitoak ez bezala, langilleak ziran, kristauki bizi ziran, baiñan ez zuten atzerri aietan beren kristautasunik erein. Eta, azkenean poliki-poliki, akitu egin ziran.

Ala, VIII mendean aski ugaria izan zan Eliz Kristau Monofisita, Lurralde urrun aietan. X mendearen erdirako ordea, osoki ezabaturik zegoan.

Beste modukoa izan zan nestoritarrek Indi'ko Malabar'en eta Mongoli'n erabilli zuten jardunkera.

Malabar'en, nasi ziran bertako jendearekin eta sortu zuten, gaur egun ere badiraun Eliz sendo bat.

Mongoli'n ere Eliz indartsua aurkitu zuten ara joandako europar bidaztiekin. Kan Nagusiaren inguruan ere bai omen ziran kristauak. Orregaitik, pakean jarraitu zuan Pertsiko Elizak, mongolitarrek, musulmanak garaituta, Pertsira irabazi zuten.

Garaillea, Hulagu Kan Nagusia bera, uste izan dan bezala, kristau ez ba'zan ere, printzes kristau batekin ezkondu zegoan, eta Armeni'ko eta Georgi'ko erreñu kristauen adiskide izan ziran aren urrengo Kan Nagusiak. Kubtai-Kan ber-berak ere begi onez ikusten omen zituan kristauak.

Baiñan mongoliar nestoritarren kristautasuna ez zan beifñere aski sakona eta garbia izan. "Western travelers of the 13th century speak of the ignorance and superstition of Nestorian clergy in the Mongol empire": "XIII mendean sarkaldetik joandako bidalariek mongoliarren inperio-lurretako elizgizonak ezjakiñak eta siniskerizaleak zirala dioskute" (Enc. Brit.).

Ala, ez zuan luzaro iraun Pertsu'n mongolitarren eta nestoritarren arteko adiskidetasunak ere. XIII mendean gurutz-gudariak menperatuta musulmanek Palestina eta Anatoli osoa menderatu zutenean, musulman egin ziran Pertsu'ko mongolitarrek, musulman garailleen adiskidetasunaren bilia, eta eun urte geroago, XIV mendean, Tamerlan'ek bere burua mongolitarren lurralde guztien jabe egin zuanean, ia ezertara bihurturik gelditu zan Eliz Nestoritarra

Zergaitik? gaur-egungo jakintsu askoren aburuz, "iru mende luzez Bagdad'ko Kalifen mendean aberastu zan "Sortaldeko Eliza" arek , geiegizko aberastasun aren erruz mundokoia bihurturik, bere izpitua moteldu zualako": "For more than three centuries the Church of the East prospered under the caliphate, and some modern scholars have suggested that this very prosperity was the main reason for the ultimate decline. The Church became worldly and its standards were lowered" (ib).

"Sortaldeko Eliza" esaten zioten antziña artan Pertsu'ko Eliz Nestoritarri Eufrates-onuntzko jendeek. Gaur-egun, "Eliz Asiriarra" esan oi zaio; eta Eliz artako elizkideek "Eliz Kaldearra" esaten diote. Libano, Siri, Irak, eta Iran'en dago zabaldurik, baiña ez ditu guztira 1.700 baiña askoz elizkide geiago. Amerika'ko Laterri alkartuetan, 3.000.

ELIZA ERROMA'REN INPERIOLURRETIK AT

Laister zabaldu zitzaigun Eliza Erroma'ren mugetatik kanpora. Guk uste baiño azkarrago. Ikusi dugu nola iritxi zan I mendean bertan Osroene'ko Erreiñura, eta gero Osroene izan zala ofizialki lenen Laterri kristaua.

Oroi Erreiñu ark, eta bere uriburu zan Edesa'k, Elizako jakintza, erti, liturgi eta apostolutza-lanetan izan zuan garrantzia; seguruaski Mesopotami guztiaz aruntz, salerosleen bitartez Indi'raifio luzatu bait zuan bere itza! onuragarria.

Era berean aztertu dugu Armeni'ko Eliza, eta Eliz onuragarri aren ibillera. Ongi irabaziak ditu eliz aintzakor orrek gure maitasun eta gure mireспен guztiak, iñon Elizak kalbario-bide odoltsurik ibilli bear izan ba'du, Armeni'n ibilli bait du bere kalbario-biderik neketsuena.

Azaldu dugu nola sartu zan kristautasuna germaniarren artera ariotarren eskutik. Altagutziz, aztertu gabe gelditu zaigu zerbait; aipatutako jende eta lurralde oietaz gaiñera, beste enda eta lur batzuk ere ezagutzen bait zituzten erromatarrek: Pertsu adibidez, sekulan ezin menderatu izan zuten Laterri indartsua; eta, Nilo ibaia-gora, misterioz betetako Etiopi beltzarana. Eta, beren probintzi zuten Damasko-inguruko Arabia'z aruntz, urrutiagoko beste Arabi ondartsu kiskalgarri ura.

Ikus dezagun nola ta noiz sartu zitzaigun Eliza errialde guzti oietara.

* * *

PERTSI-. Orrela esaten zioten erromatarrek Mesopotami eta India bitartean zegoan lurralde zabalari. Leenago, ordea, Medi esan zioten greziarrek, Ziro, Kanbises, Dario eta Jerjes errege ongi ezagunen denboran. Antziña artan, bi ziran lurralde ura osotzen zuten lurraldeak: Media, iparrean, eta Pertsia egoan. AIa, "nik, meditarren eta pertsiarren erregeak" esanda ematen zituzten legeak ango erregeek.

Endaz irandarrak ziran, eta dira, bi errialde aietako jendeak. Oridalata ainzuzen, askoz egokiagoa du Laterri bikoitz orrek gaur eman oi zaion izena: Iran. Guk ordea, Pertsia esango diogu, ori bait da, erromateaz gero edestia-zear idaztietan gaur-egun arte eman oi zaion izena.

Kristauok baiño leenago, judutarrak iritxi ziran Pertsia'ra, Kristiaurreko VIII mendean Asiria'ra eta VI'ean Babilonia'ra katibu eramana izan ziran ezkerok.

Luka Doneak "Apostoluen Egiñak" izeneko liburuan dioskunez, badakigu kristautasuna ere oso goiz sartu zala Pertsia'ra, eta juduen eskutik ain zuzen, Pentekoste-egunean Kepa'ren itzaldian kristau egin ziranen artean "partziarrak, meditarak, elamdarrak eta Mesopotami'ko biztanleak" aipatzen bait ditu. Jende oietatik, meditarak beintzat, ziurki Pertsia'koak ditugu. Pertsia'ren iparreko Medi'n bizi ziran juduak.

Pertsia'rena zan orduan, gaurko Turkestan eta Afganistan'en Iurraldeetan zegoan Partzia'ren egoalde osoa ere. Eraberean Mesopotami'ren zatirik aundiena.

Pentekoste-egunean Kepa eta beste Bidaliengandik bataioa artu zuten pertsia'ra aiek, Pertsia'ra itzulita an kristautasuna zabalduz Elizarik sortu zuten edo ez, ezin jakin dezakegu, baiñan baietz sinistekoa da, lenen-kristau aien adorea eta mundu guztiko juduek, baita Pertsia'koek ere, Jerusalemgo juduekin zituzten arremen etenkaitez gogoan artzen ba'ditugu.

III mendean Pertsia'ren Mesopotami'n kristau-komunitateak

bazirala badakigu beintzat, ori esaten bait du III mende artako kristau idazlerik ospetsuenetako batek: Alexandri'ko Dionisio'k ainzuzen, eta oso toki egokian zegoan Alexandri'n Dionisio, Sortaldeko lurretan zer gertatzen zan jakiteko.

III mende artan Seleuzi-Ktesifonte izeneko uria zan Pertsiar-Elizaren burua, uri ura bera bait zan orduan Laterriaren uriburua ere.

Pakean bizitu ziran, dirudianez, kristauak Perts'i'n Erroma jentilla izan zan arte, eta kristau askok ara iges egin bide zuten Erroma'ko zigorketa-garaietan. Eta ez oi ziran igesle aiek gaizki artuak izaten. Perts'i betidanik Erroma'ren etsai porrokatua zalarik, Erroma etsaiak etsaitzat zeuzkan aiek adiskide lez ikusten bait zituan Perts'i'ko jaurlaritzak.

Alatagutziz Perts'i'ko Jaurlaritza eta Perts'i'ko erri guztia sendo mazdeitarra ziran, Zoroastro'ren sinispidekoak. Mazdeitasunak, manikeria aztertzean ikusi dugun "Sortburu Bikoitza" erakusten zuan, ots, izadiak Bi Egille, bat Ona eta bestea Gaiztoa, izan dituala. Ta erlijio ori Laterriarekin bat egiñik zegoalako gertatu zitzaigun lurralde artan ain geldia kristautasunaren zabalkundea, endaz pertsiarra ez zan Mesopotami'z kanpo.

Kristautasuna, erlijio atzerritarra zan, erromatarra, Perts'i mazdeitarrean. Eta, laister, erlijio atzerritarra, erromatarra, izateaz gaiñera, erlijio "etsaia" biurtu zan pertsiarren ustez **Erroma** etsaia kristau biurtu zalako. Eta, une berean, Perts'i eta Erroma-arteko gudu geldikaitzetan, Perts'i'ko kristauek Erroma etsaiaren erlijio bera zutelako, Erroma'ren adiskide eta Erroma'ren aldeko zelatari biurtu ziran, pertsiarren begietan, ordurarte adiskidetzat eukitako kristau paketsu aiek.

Alare, iraun zuan pakeak I Kostantino'ren denboran, guda-tokietan ere pakea izan bait zan orduan nagusi I Kostantino eta II Sapor edo Sapor errege pertsiarren artean. Are geiago, aski kristauen lagun izan zan H Sapor "erregeen erregea" (309-381).

Papa Bar'Aggai zan orduan Zeleusi-Ktesifonte'ko "Katolikos" edo gotzai gurena. Baiñan Perts'i'n, une artan, elizbarruti geiago ere

bazirala badakigu. Ala, "Katolikos" onek, Sortaldeko beste Patriarken antzera, bere mendera makurtuerazi nai izan zituan Pertsiko gotzaiak. Aiek ordea, aurka jeiki zitzaizkion, eta Seleuzi-Ktesifonte'ko gotzaiotik kendu zuten.

Papa Bar'Aggai Patriarkak estutasun artan, berak esan zuan eran, "Sarkaldeko Aitei" eskatu zien laguntza, ots, guk "sortalderatar" esaten diegun gotzaiei, gure Sortaldea, Pertsitik begiratu ezkerero Sarkaldea bait da.

"Sarkaldeko Aitek", ots, gotzaiak konpondu zioten auzia. Ez ordea indarkeririk erabili gabe; Papa Bar'Aggai gotzai-aulkitik bota zuten gotzai pertsiar aiek eskomikatuz baizik.

"Sarkaldeko Aita" aiek nor izan ziran ez dakigu. Siri'ko gotzaiak seguruaski; Osroene'koak batez ere.

Eraginmen aundia izan zuan Osroene'ko Elizak Pertsiko kristautasunean. Ala, ezagunak ditugun Afraates "Jakintsu Pertsiarra"ren eta Efren Donearen irakaskizunak eraspen aundiz artuak izan ziran Pertsiko Elizaren baitan. Aurrenekoa gaiñera, Afraates, jatorriz, kristau bihurtutako aundiki pertsiar bat zan. Eta bigarrena, Efren Donea, Pertsin kristau-zigorketa asi zanean Nisibis uritik zigortzailleengandik igesi Edesa'ra etorria.

Nisibis, Mesopotami Garaicain, Tigris ibaietik sarkalderuntz ez urruti, ez zan nolanaiko uria antziñate artan. Batez ere, izen aundikoa zan ordurako, Jakoba bertako gotzaiak irasitako Teologi-Eskola. Orain Efren Donearekin Edesar'a etorri, eta Edesa'n ospetsu eginen zan Eskola.

Ez zuan noski ain eraginmen aundirik izan Pertsin Siri'ko Elizak, naiz Papa Bar'Aggai'k "Sarkaldeko Aiten" laguntza eskatu. Pertsiko Elizak ez bait zuan arianikeriaren usmorik ere izan; eta apika izan zuan, IV mende guztian, Nizea'ko Kontzilio Ekumenetar ber-beraren ezaguerarik ere.

Ez dezagun aantzi Nizea Erroma'ko Inperiolurrean zegoala, eta Erroma eta Pertsia alkarren etsai amorratuak izan zirala beti, etenik gabeko gudaketan ibilli zirala bata bestearen aurka, eta apika arremanik izan zala bien artean, izkilluketakoak izan ezik.

* * *

LENENGO ZIGORRALD/A.- Ala, gudak urratu zituan osteralaister gure arazo aietako denboran ere, pertsiarren menpean aurkitzen zan Babiloni'ko Eliza bitarte Pertsiko Elizak Osroene'ko Elizarekin izan zituan arremanak.

Guda, I Kostantino il zanean, aren semea zan II Kostantzio eta Pertsiko II Sapor'en artean lertu zan.

Seguruaski, guda berriro asi baiño lentxeago asi zan Pertsiko Eliza zigortzen, ordurarte kristauekin biguña izan zan II Sapor. Zergaitik? Ona bere itzak: "Naiz gure lurraldeetan bizi, nazaretarrak Zesar gure etsaiaren asmoetan partaide diralako": "partagent les sentiments de Csar notre ennemi" (Fliche-Martin). "Zesar", esakizun ortan II Kostantzio inperatoreari izen-ematen zion II Sapor'ek. "Nazaretar" berriz kristauei esaten zien.

Aurretik, oraindik I Kostantino bizi zala, artu zuan II Sapor'ek inperatore aren eskutitz bat. Ezkutitz artan bere erlijio berriz, kristautasunaz alegia, berotasun aundiz mintzatzen omen zitzaion ura, eta eskutitz orrek kristauen aurkako kezka sortu omen zuan II Sapor'en barruan.

"During the early years of Sapor II the Christian religion received formal recognition from Constantine, and there is not doubt that this identification of the church with the Roman Empire was the cause of is disfavour in Persia". "The more so, because even the Persian-speaking Christians employed the Syriac language in their worship" (Cath. Enc.): "II Sapor'en agintaritzako lenen urteetan izan zan kristautasuna Kostantino'k legezko erlijio egiña. Ez da zalantzazko gauza, Erroma'ko Inperioak eta Elizak bat egite ori izan zala, kristautasuna Pertsin oker ikusia izatearen arrazoia". "Izan ere, pertsieraz mintzatzen ziran kristauek beraiek ere, siriera erabiltzen bait zuten liturgian".

Bi gogoeta dagoz esaldi ortan bildurik:

1²: Eliza ta Laterria bateratzeak bere arriskuak badituala beti. Egia da geiegi alkartu zala, Kostantino'z gero, Erromar-Inperioare-

kin Eliza. Eta alkartze orrek inperio-lurraren barruan zitu ederrak ekarri ba'zizkion ere, inperio-lurretik at, Perts'i'n adibidez, gaitza besterik ez ziola ekarri kristautasunari.

2º: Elizak bere burua tokian-tokiko ez egitearen ondorio txarrak. Sirieradunak izan ziran Perts'i'ko mixiolariak, sirieraz itzegiten bait zan Edesa'n ere. Baiñan mixiolari aiek, liturgia pertsierara itzultzez azturik, beren izkuntz atzerritarra erabilliz jarraitu zuten, eta izkuntz atzerritar ori txertatu zioten Perts'i'ko Elizari. Erromatarra bezain indartsua zan Perts'i'ko Inperioarentzat atsegiña gertatu ez zitekean gauza. Siri gaiñera Erroma etsaiaren probintzirik indartsuenatako bat bait zan!

Guzti orren ondorioz, onelako zerbait pentsatu-edo zuan 11 Sapur'ek: "Bere erlijio berriak arrotasunez bete du Kostantino. Seguruaski bere erlijio berri ori zabaltzearren edozer gauza egiteko gauza da. Asmo oiekin Perts'i'ri ekiten ba'dio, ziur bere alde jarriko zaizkit nere mendeko kristau guztiak".

Orrela, "kristautasunaren aurkako eraso au, ez zan II Sapor'k erromatarren aurka eratutako asmoen atal bat besterik izan": "This attack upon the Christians was but part of Sapor's anti-Western policy" (ib).

Papa Bar'Aggal Simon Bar'Sabbae zan zigor-aro artan Seleuzi-Ktesifonte'ko "katolikoa", eta, zigorketa asi aurretik, aren baitura agindu zuan II Sapur'ek. Izugarrizko dirutza eskatu zion askatasunaren truke. Simon "nazaretarren" buruzagiak ordea ez zuan isun ura ordaindu, seguruaski, bere kutxetan alako diru-pillorik ez zualako.

Alperrik oiukatu zuan, **Simon Bar'Sabae'k bere eta kristau guztien Perts'i'ko erregeaganako leialtasuna, Perts'i'ko erregea "beren erregea" omen zutelako.**

340'ean asi zan zigorketa, 39 urte luzez iraungo zuan zigorketa gogorra.

Elizaren buruzagien aurka izan zan II Sapor'en aurreneko ekintza: "Se ordenaba el ajusticiamiento de los sacerdotes, la destruccidn de las iglesias y la confiscaciin de los vasos sagrados"

(Llorente).

Urte bete geroago kristau guztientzat agindu zuan eriotzazko zigorra. Lenego ziñopa edo martiriak, Simon Bar'Sabae "Katolikos" bera eta beste eunen bat apaiz izan ziran. 341'eko Ostiral Done egunean eraillak.

Erroma'ko zigor-aldietan gertatu zan bezala, Pertsin ere zigorketa ez zan gogortasunaz alde guztietan berdiña izan. Erroma'ren lurretan bezala, Pertsin ere probintzietako jaurleen ankerkeria, apaiz mazdeitarren zorrozkeria, izan ziran an-emengo zigorketen ezberdintasunaren zioa. Eta baita zoritxarrez kristau batzuen apentza-guraria ta bekaizkeria ere.

Alare, ez dezagun uste, pertsiarrek txantxetan ibilli ziranik. Sozomeno'k dioskunez amasei milla izan ziran martiri ildako kristauak. Aien artean elizgizon asko ta asko. Ala, Simon Bar'Sabae'ren ondorengo "katolikoa" biak: Sandost, 342'an, eun da ogei ta zortzi apaizekin; eta, lau urte geroago, Bar'Ba'Sernin 326'eun.

Urte askoz, "katolikosik" gabe egon bear izan zuan Pertsin'ko Elizak, 384'eun Tomarsa zeritzan gotzai bat aulki artan eseri zan arte

"La persecution de Sapor ne le ceda ni en durete ni en intensite celles qu'avaient subies les eglises du monde romain": "Sapor'en zigorkera ez zan gogorkeriz eta ankerkeriz Erroma'ren Iurretako Elizek jasan zituzten aiek baiño biguiñagoa izan" (Labourt'ek Fliche-Martin'en liburuan).

Errege zigortzaille aren ondorean III Sapor eta IV Bahran eseri ziran bata bestearen atzetik Pertsin'ko erregeen aulkian, eta pakean bizitu zan bien denboran Eliza, eta indar aundia artu zuan lurralde aietan kristau-lekaidetzak. Aipu ona merezi du lekaide aien artean Izia mendiko Lekaidetxeko Awgin abatak.

* * *

BIGARREN ZIGORRALDIA.-390'etik 4 20'era Yezdegerd izan zan Pertsin "Erregeen Errege" edo Inperatore. Bazan Mesopota-

mi'n, Pertsiren muga-ondoan baiñan Erroma'ren inperiolurrean zegoan elizbarruti batean, itzal aundiko gotzai mesopotamiar bat: Marutas, izenez. Gotzai ori bidali zion Erroma'ko inperatoreak enbaxadari bezala, Yezdegerd errege berriari.

Arras atsegiña gertatu zitzaion Malutas gotzai ori, "Erregeen Erregeari", eta aolkularitzat artu zuan jaurketa-arazo zailletarako.

Laister nabaritu ziran Malutas'en aolkularitzaren ondorio pozgarriak:

Ala, askatasun osoa eman zitzaion Pertsizabal guztian kristautasunari. Askatasun-giro ortan uri kristau dizdiratsua billakatu zan berriro Nisibis'ko uria Goi-Mesopotamian. Birregin ziran eliz zarrak eta egin ziran berriak. Eta, garrantzitsuena iduritzen zaiguna, birreratu zan Pertsiko Eliz osoa.

VII mendean arabiarrek Pertsira sartu arte iraungo dio eraketa berri orrek lurralde artako Elizari.

Merezi du esker onik ugari Marutas gotzai mesopotamiarrek, eta ezin igarri dezakegu noraiño iritxi zitezkean aren ekintza onen ondorioak, beste gotzai baten jite gogor eta buru gutxiko ibillera baldarrak Yezdegerd kristauen aurka asarretu ez ba'lu.

Abdas zuan gotzai orrek izen, eta Pertsiren barruan aurkitzen dan Susa uri ospetsuko gotzaia zan. Fedea indarrez zabaldu eta jentiltasuna gogorkeriz zapaltzearen zale, zoroastrotarren zazpi jauretzerik ospetsuenetako bat kiskali zuan sutan. Aski baretsu jardun zitzaion Yezdegerd erregea, soilki zoroastrotarrei gaitzak ordaintzera eta kiskalitako jauretzea bir-eraikitzen beartu bait zuan.

Abdas gotzaiak ordea, ez zuala sekulan orrelakorik egingo, erantzun zion. Arrazoa, gotzai kristau batek ez dezakela jauretze jentil bat eraiki. Ondorioa: kristauen aurkako jazarkunde orokorra. Abdas bera izan zan lenen-martirietako bat.

Gogor jarraitu zuan zigorketak V Bahran Yezdegerd'en semearen erregetzakoan ere. Zigorketatik igesi, Erroma'ren inperio-lurrera igaro ziran kristau-sailen itzulpena eskatu zion V Bahran onek Kostantinopla'ra; eta Inperatore erromatar kristauak ez

bait zuan pertsiarren eskari anker ura ontzat artu, piztu zan berriro Erroma eta Perts'i'ren arteko gudua.

Oraingoan ordea, Erroma'ren onerako izan zan borroka ari azkena eman zion pake-ituna. Eta il zan V Bahram. Eta biurtu zitzaion ostera pakea Perts'i'ko Eliz jazartuari.

Orrela, IV mendearen azkeneko laurdena eta V mendearen aurreneko erdia, zabalkunde-aro izan zan Perts'i'ko Elizarentzat. Giro artan, elerti-lan ederra egin zuan Eliz arek; sirieraz aurrena; pertsieraz gero.

V Bahram'en urrengo erregeek, I Kead'ek adibidez, Perts'i'ren iparraldean barbaritarren aurka borrokan ibilli bear izan zuten adtsedenik gabe: Undarren eta Sziziarren aurka bereiziki, eta ez zuten kristautasunaz arduratzeko beta aundiegirik izan.

Orain arte katolikoa izan zaigu Perts'i'ko Eliz onuragarria. Laister ordea igaroko zaigu erejira.

* * *

PERTSI'KO ELIZA, NESTORITARRA! 488'tik 531'era izan errege I Kead, eta bere agintaritzakoan sartu zan Pertsra nestorikeria. 496'az gero, Zeleusia Ktesifonte uriburuko Elizaren jabe ziran nestoritarrak.

Arrezkero, Zeleusia ortako gotzaia izango da Perts, Siri, Indi, eta Txina'ko Eliz Nestoritarraren Patriarka.

531'en I Kosroes'ek jarraitu zuan I Kead aita illaren atzetik Perts'i'ko erregetzan. "Batera zintzoa eta indartsua izan omen zan", "was both equitable and vigorous" (ib). Berak jaso zuan beintzat Perts bere gaillurrera.

Bere erreñua babesteko, arresi sendo bat eraiki zuan Kaspio itxasoaz aruntz iparraldeko muga luzean; ta, sarkaldean, sendotu zuan Erromatarrekingo pakea. Pake orren ondorioz, inperatore erromatarra pertsiarri laguntzera beartu zan, onek Kaukas-Mendian zegizkian gatzelu eta gaiñerako babes-ekintzetan.

531'an, buruntza jantzi zuan urte berean eman zien Kosroes'ek

pakea sinispide guztiei: Kristautasunari, manitasunari, eta zoroas-trotasunetik irtendako "erejiei".

Zortzi urte iraun zuan Erroma'rekingo pakeak; urte oietan bere erreinuaren sortaldean ibilli bait zan Kosroes, ango mugak sendotzen eta izkillu-bidez lur berriak irabazten.

Zortzi urte oien ondorean ordea, sortaldeko arazoak egoki eratuta, sarkaldera itzuli zan, eta I Kead bere aitaren asmoen bidetik, Siri'ra sartu zan borrokalaria 539'an.

Izkilluz menderatu zuan lenen urian, kristaua bait zan uri ura, kristau-talde ugaria arrapatu zuan katigu. Baiñan yare utzi zituan danak, aien askatasunaren truke Kandido zeritzan Serginopolis'ko gotzaiak 200 ontzako urre agindu ziolako. Ondorio txarrak ekarriko zizkion geroago Kandido gotzaiari I Kosroes'ekin egindako itun arek.

Siri'ko iparraldean aurrera joz, sartu zan Antioki'n eta erti-lan eder asko eta katigu ugari arrapatu zituan an. Itzulbidea artuz, Edesa Osroene'ko uriburuari ekin zion. "A city generally regarded as impregnable" (ib), "menderakaitza zala esaten zan uria". Eta ez noski arrazoirik gabe. Ez bait zan Kosroes, uri ura berak nai bezain azkar menderatzeko gai izan. Alderantziz, gaixo jausi zan, ura inguratzen ari zala, ta arin zabaldu zan, bertan il zalako berria ere Pertsiko lurraldeak-zear.

Andre kristau batekin ezkondurik zegoan Kosroes erregea, eta kristaua zan Muxizad, bi aien semea ere.

Oker aundi bat egin zuan onek orduan. Naiz Kosroes il zalako albiste ura bereala gezurtatua Kostantinopla'ren serbitzura zeuden aolkulari maltzur batzuen burutapenak jarraituz, Pertsiko errege izendatu zuan bere burua aitaren buruntza jantziz.

Asarretu zan zearo Kosroes eta bere gudalbururik yayoena bidali zuan semearen aurka. Garaitua izan zan borrokaldi motz azkarrean seme iraultzalaria, ta bertan eriotzaz zauritua. Gotzai kristau batek lagundu zion eriotzako orduan. Aitortu omen zuan zoritxarreko printzipe arek, okerkeri aundia egin zuala bere aitaren aurka borrokan altxatzearekin.

Berak uste baiño okerkeri aundiagoa noski. Iraultzan jeiki ez ba'litz, bera izango bait zan Kosroe'ren ondorean "Erregeen Erregea". Eta ederki izan zitekean Muxizad au Pertsiko Kostantino, lurralde edatsu ura kristautasunera ekarriko zuan erregea, naiz kristautasun ura, nestoritasunezkoa izan.

Printzipe ari eriotzako orduan lagundu zion gotzaia, Mar Aba izan zan seguruaski, dirudianez 536'tik 552'ra Eliz nestoritarraren Patriarka. Ez, edozein erako gizona. Zoroastro'ren jarraille izatetik Kristo'ren jarraille izatera etorria. Nisibis'en eta Edesa'n ikasia; eta Seleuzi-Ktesifonte'n Edesa'ko Eskolaren antzeko Teologi-Eskola bat irasi zuana. Eskola au izan zan nestoritasunaren unibersitate nagusia.

Idatzi ere idatzi zituan bibliari-buruzko azalpenak eta eskutitz jakingarri batzuk. Badira bereak lez euki diran olerki batzuk ere.

Saiatu zan Eliza nestoritarraren biziera, Eliza katolikoaren arauetara erakartzen. Ala, adibidez, gotzaien ezkontza galerazi nai izan zuanean. Eta noiz-beinka Kosroes erregearekin alkarrizketak ere izan zituan.

Baiñan diplomazirako jaioa ez zala ematen du. Bein, alkarrizketa aietako batean ez bait zituan erregearen arrazoiak ontzat artu nai izan. Ez dugu alkarrizketa aren mamirik ezagutzen. Orregaitik, baleike Mar Aba'k ongi jardun izatea, erregeak ziona kristau batek onartu ez dezakean zerbait izan zitekealako. Baiñan etenketara ura kaltegarria geratu zan Elizarentzat.

- Lendabizi, Mar Aba erbesteratua izanik, erregearen eta kristautasunaren arteko zubi ura ezerezturik gelditu zalako.

Agian, ez zan zubi ura erabat ondatuko, Mar Aba'k apalki erbesterako bidea artu ba'Tu. Baiñan ez bait zuan erregearen agindura makurtu nai izan, espetxean amaitu zituan azkeneko urteak.

- Bigarren, Mar Aba'k, Patriarka bezala, nestoritasuna katolikotasunera alboratzen jarraituko zuan eskierki-ta, aren ekintza orrek agian Pertsiko Eliza Eliz Orokorren altzora biurtu zezakealako.

Baiña gertatu zitekeana eta gertatu daitekeana ez dira edestiaren

alorra, gertatu dana baizik. Eta gertatu dana, auxe da: zoritxarrez bizirik jarraitu duala nestoritarren Elizak gure egunok arte, eta naiz arras auldurik, bizirik jarraitzen duala oraindik ere Pertsin eta Mesopotami'n.

Espetxean i! izan Mar Aba patriarka 552'garren urtean.

Bearbada Mar Aba'rekin gertatu zitzaionarengaitik asarre, katiguen askatasunaren truke eskeiñitako urrezko 200 ontzako aiek eskatu zizkion Kosroes'ek, dirutza ura eskaiñi zion Kandido gotzaiari. Onek, jakiña, diru ura biltzerik ez zuan. Gaiñera, "jaurlaritzaren laguntza izango zualaren itxaropenak eraginda eskeiñi zituala diru aiek" aitortu zuan bere burua zuritzeko, erregearen aurrean. Alperrik. Eriotzaz zigortu bait zuan Kosroes'ek.

Garai ontakoak dira bi lekaide ospetsu. Izen bera zuten biak. Abran. Eta uri berekoak ziran biak: Kaxkar izeneko urikoak. Mar Aba'ren bidetik jarraituz, lan aundia egin zuten biak lekaidetxeak "sarkaidekoen" antzera eraberritzen. Esan daiteke asko "sarkalderatu" zala Pertsiko Eliza, baiñan Eliz bereizia izaten jarraituz.

Mar Aba Kosroe'k izendatu zuan aren ondorengo Patriarka: Josef; bere jauregiko sendalaria. Baiñan, andik iru urtera, Kosroes bera izan zan patriarkadutzatik kendu zuana, eginkizun guren artarako egokia irten ez zitzaiolako. Gauza gogorak esan oi dira Josef aren ankerkeriaz.

Ikus or, agintari guztiek, naiz katolikoak izan ez, Eliza-baitan atzaparrak sartzeko beti erakutsi oi duten gogoia.

Kosroes il zanean, Ormuz bere semeak artu zuan buruntza. Agintari motela, asko auldu zan bere agintaritzakoan Pertsiko erreinua ere (579-590). Iraultza batean izan zan erailla. Bere semea berriz, Kosroes printzipea, aita illik ikustean Kostantinopla'ra joan zan arin, eriotzatik igesi.

Maurizio zan Kostantinopla'n inperatore. Eta onek eman zion laguntzarekin, Pertsira itzuli, iraultzalariak garaitu, eta aitaren errege-aulkira igo zan I1 Kosroes izen-artuz.

Kristauekin esku-leguna izan zan.

" Although not himself a Christian, he paid honour to the

blessed Virgin and to the martyrs Sergius and Bacchus, tow Saints popular among the Sirians, while his wife was a ardent Jacobite" (Enc. Brit.).

Euskeraz:

"Naiz bera kristaua izan ez, omen zintzoa izan zion Miren Neskuts Doneari; eta baita siritarren artean itzal aundiko Sergio eta Bako ziñopa doneei ere. Bere emaztea berriz, jakobitarra izan zan; sutsua gaiñera".

"Jakobitarrak", kristau monofisizalei, ots, Kristo'gan giza-zertasuna ukatzen zuten kristau erejeei esaten zitzaien, laister ikusiko dugun bezala.

Erromatarren laguna izan zan beti II Kosroes, Maurizio inperatorea 604'ean erailla izan zan arte. Orduan, bere adiskide aren eriotza zigortu nai zuala aitzakitizat artuz, Erroma'ren inperio-lurretara sartu zan bere gudarozte indartsuaren aitzindari.

607'an artu zuan Edesa "uri menderakaitza". 608'an Alepo. 611'an Siri'ren iparralde osoa berea zuan. Urte ortan sartu zan Antioki uri ederrean. Urrengo urteetan, Siri guztia irabazita Palestina'ri ekin zion eta garaille sartu zan Jerusalem'era.

615'ean, aurka jeiki zitzaizkion jerusalendarrak. Ikaragarria uritar aiek iraultza aren bidez beren buruen gaiñera ekarri zuten ondamena: 17 milla, ildakoak; 35 milla, atxiloturik eramana. Eta Jerusalemgo kristauen altxorrik maiteena, Kristo'ren gurutzeko zatia, pertsiarrek lapurretan artua.

616'ean, Alexandri bera artu zuten pertsiar garailleek, eta 617'an Kostantinopla zeukan II Kosroes'ek gudariz inguraturik.

Ezin izan zan Erroma'ko Inperioaren uriburu artara sartu, baiñan 624'ean, Erroma'ren sortalde guziaren jabe zan.

Ez zuan luzaro garaille iraun. Baiñan garaitu zuenak ez ziran erromatarrak izan, orduan aurreneko aldiz izen aundia lortu zuten Arabi gutxi ezagutuaren semeak baizik; ondarrezko basamortuaren seme beduindarrak.

Ikus nola gertatu ziran gauzak.

Arabitar aien buruzagirik ospetsuenetako bat, Na'Aman,

kristaua zan. Buruzagi onek bazuan edertasun aundikoa omen zan alaba gazte bat: izenez, Nadikuah,

Ordurako, 3.000 emazteren senarra omen zan II Kosroes, eta 12.000 mirabe eme gazteren jabe. Ez zegoan beraz emakumezkoen faltaz, Baiñan Na'Aman'en alabaren edertasunaz zaleturik, neskatil kristau ura eskatu zion aitari emaztetzat. Emazte berri polit bat geiago, bere "aren" edo "emaztegi" oparorako. Na'Arnan'ek ordea, ori neskatil kristau baten zoria izan ez zitekealako, ez ziola alabarik emango erantzun zion sendo.

Asarretu zan II Kosroes, eta eriotzaz zigortu zuan Na'Aman buruzagi arabitar bikaiña. Elefanteek ankapean zapalduta galdu omen zuan kristau zintzo arek bizia.

Larre igarrean sua bezala zabaldu zan arabitarren artean beren buruzagi bateri egindako irain mingarri ura, eta danak batera jeikirik, borroka latzean garaitu zuten II Kosroes errege arroaren gudaroztea. II Kosroes'ek, Eraklio Inperatore erromatarrarengana iges egin bear izan zuan bere bizia salbatzeko.

Ez ziran asarre gelditu arabitarrek. Orduan oartu bait ziran aurreneko aldiz beren aalmen izugarriaz. Eta laister ikusiko ditugu, maometar biurturik, lurralde ber-beraieran garaille. III Yezdegerd zan orduan Pertsiko erregea. Errez menderatu zuten arabitar musulmanek. Eta 642'an, Pertsiko guztiaren jabe ziran.

Arrezkero, naiz aurreneko iru mendeetan Bagdag 'ko Kalifen babespean pakean bizitu, azkenean, musulmanen mendera jausitako beste Elizen antzekoa izango zan Pertsiko Elizaren edestia.

* * *

Eliz Nestoritarri "Eliz Kaldeatarra" esan oi zaio edestia zear katolikoan artean. Bera da, oraindik bizirik jarraitzen duten Eliz zismatikoien artean zarrena.

1,551'an alkartu zan Eliz orren talde aundi bat Eliza Katolikoa-ekin, Jon Sulaka buruzagi zuala. Urrengo urtean, 1.552'an Erroma'n zan Jon Sulaka. An onartu zuan III Julio Aitasantuak, eta

Eliz aren "Katolikoa" edo Buruzagi Nagusi izendatu.

Ez luzarorako. Jon Sulaka, aren aurka asarre zebiltzan kristau nestoritar batzuek erailla izan bait zan.

1.599'an Indi'ko Eliz Nestoritarrak alkartu zan Erroma'rekin, baiña laister, Eliz aren erdia ostera Erroma'gandik bereizita, Antioki'ko Patriarka monofisitaren esanera jarri zan, orrela bere buruak monofisita biurtuz.

Perts'i'n ere, Erroma'gandik bereizita, zismara eraman zuan ostera Lurralde artako Eliz nestoritarra, orduan Eliz aren "Katolikos" zan XIII Simeon'ek. Erroma'rekin alkaturik jarraitu zuten kaldearrak, mixiolarien zaintzapean gelditu ziran; buruñurdun edo kaputxinoen zaintzapean bereiziki.

Alare, urrengo urteetan, -- 1.681, 1.672, 1.771, 1,778, -- itzuli zitzaizkigun kaldear-talde berriak Eliza Katolikoaren altzora. Itzulketa oietan garrantzitsuena, aurrenekoa izan zan, 1.681'koa, orduan itzuli bait zan katolikotasunera Jose metropolita, Erroma'k Eliz Kaldeatarrari ostera "Katolikoa" katoliko bat emateko aukeratu zuan gizona.

1.881, Erroma'rekin alkartutako Eliz aren "Katolikostza", "Patriarkadutza" biurtu zan eta arrezkero, Eliz orren Buruzagiari Patriarka esan oi zaio. Eliz nestoritar zismakoiaren buruzagiari berriz, "Katolikos".

Oso gutxi dira zismakoi auk. Iran'en ia geienak. Alare, Txikago'n bizi oi da beren "Katolikos" a, beretarren artean bizitzeko eta bere eginkizuna egoki betetzeko bear aiñako askatasunaren faltaz.

Ez dira asko Erroma'rekin alkartuak ere: 190,000, bere egoitza Irak'eko Bagdad urian duan "Babilonrko Patriarkaren" agintaritzapean.

Ez da arritzekoa kaldeatarrak ain gutxi izatea. Bai zismatikoek bai katolikoek, baiñan bereiziki auk, izugarrizko galerak izan bait zituzten I Ludi-Gudatekoan, orduan Turki`renak ziran Mesopotami-aldeko lurralde aietan.

Katolikoan artean, irurden batek galdu zuan bizia, gosez,

gaitzez ala izkilluen kolpez.

Inpernuko deabruak baiño ankerrago ibilli bait ziran turkiar maometarrak beren mendeko kristauekin.

Badute merezimendurik aski, alako giro eriogarri larrian Kristo'ri leial jarraitzeko kemenik aski izan duten Sortaldeko gure anai oiek.

IZTEGIA

Aalmena, almena = poder, capacidad.

Aapaldi = pkrafo, estrofa.

Abagune = oportunidad.

Abateme = Abadesa.

Abata = abad.

Aburu = opinión.

Aditz = verbo.

Adiontasun = oportunidad.

Adiontsu = afortunado.

Aditu = significa entender, aunque se emplea también como oir.

Agian, bearbada =

Aginmena, (agintze-mena) = capacidad de mandar.

Aginte = mando. Agintepean = bajo el mandato.

Agoskatu, aoskatu, aboskatu = pronunciar.

Aierkunde =• inclinación, rabia, inquina. Venganza

Aintzinean = aurrean.

Aintzindari = el que va por delante, precursor, jefe.

Ainzuzen = precisamente.

Albo-inperatore = emperador adjunto.

Aldarrikatu = oiukatu, proclamar.

Alderantziz = al contrario. por contra.

Alderantziketa = contraposición, acto de oponerse.

Alderantzipena = contraposición.

Alderik-eza, Alderdirik-eza = neutralidad.

Alderrai = vagabundo.

Aldeztu = defender. Aldezle = defensor.

Alegia = precisamente.

Alu = Es un adjetivo de sentido despreciativo; v. gr. esttlpido,

Amarrukeri = argucia, artimaña.

Anei = muchos. Se quiso, sin éxito, hacerle equivalente del castellano. Pero anei no significa mi sino en expresiones como "te he dicho mil veces": "anei aldiz esan dizut".

Anitz, aunitz = mucho, muy.

Almena = poder, autoridad.

Antetsu = acertado, atinado.

Antzerki = obra teatral.

Antziñizti = arqueología.

Antzirudi = retrato.

Antzerti = teatro (en cuanto género literario). Antzerki, obra de teatro.

Antzoki = salón de teatro.

Aolku = consejo.

Apentza = venganza.

Apetatsu = caprichoso, antojadizo.

Apezpiku = Obispo. Pero es palabra empleada solo por el 9% de los euskaldunes. Además "piko" tiene mal sentido para el resto de nosotros. Por eso yo emplearé siempre la palabra Gotzai, totalmente aceptada ya en toda Euskalerria.

Ardail = gresca, barullo.

Arameiera = Arameo, orduan Palestina'n juduen izkuntza.

Arau = norma. Araudi, conjunto de normas.

Ardangela = taberna.

Ardura = afán. Como adverbio = frecuentemente.

Are geiago = más aun.

Ario = iniciativa. Bere arioz: por iniciativa propia.

Arlo = campo.

Ararteko = intermediario.

Arrai = alegre, jovial.

Arrandi = alarde, bravata.

Arras = muy.

Arre = gris.

Arremanak = relaciones.

Arrenkura = cuidado, pena, queja.

Arrunt = corntin, ordinario.

Arteka = galerfa, pasillo.

Asaba Doneak = Santos Padres.

Asaldatu = alborotar, incomodarse.

Asarre = enfado, enfadado. Asarrepera jausi = caer bajo el enfado.

Askabide = solucidn.

Askatasun-sari = rescate, precio de rescate.

Askitasun = suficiencia.

Astapen = comienzo.

Aste-une = principio, momento del comienzo.

At = fuera de. Etxetik-at = fuera de casa.

Ataka, ateka = brecha. Ateka gaizto embrollo, dificultad.

Ats Deuna = Gogo Deuna, Espiritu Santua.

Aunitz = Mucho, abundante.

Aurk'ekintza = contra ataque.

Aurreikusi = denboraz aurretik ikusi. Prever.

Aurre-iritzi = prejuicio.

Auzi-gela = tribunal, sala donde se dilucidan los pleitos.

Azkurri = alimento.

Azti = adivino.

Aztiatu = pronosticar.

Baietsi = aprobar.

Baiki = ciertamente.

Baitipat = especialmente, sobre todo.

Bakaldun = monarka, errege bakarragintzaillea, rey absoluto.

Bakalduneme = reina absoluta.

Bakalduntza = monarkia.

Baldarxe = torpecillo.
Baldintza = condición.
Barbaria = la región de los barbaros.
Barbaritarrak = los barbaros.
Barreiatu, barreatu = esparcir, publicar.
Baretu = amansar, apaciguar.
Basamortu = eremu, lekaro: desierto.
Batza, batzar = asociacidn, reunión de personas para algo.
Bazkun = asociacidn.
Bearbada = quiza, tal vez.
Beinbitarteko = provisional.
Belaunaldi = generacidn.
Berebiziko, biribiziko = enorme, muy grande.
Berekoia = egofsta, "muy de sf mismo".
Ber-edatu = extender o extenderse de nuevo.
Ber-eraiki = reconstruir.
Ber-eratu = disponer de nuevo, reformar.
Ber-esan =decir de nuevo. Bir-esan = decir por segunda vez.
Bidalia = enviado.
Billakatu = devenir, convertirse en, llegar a ser.
Bipil = decidido, resuelto.
Bir-esan = decir por segunda vez. Ber-esan = decir de nuevo.
Birgaztekunde = rejuvenecimiento.
Biribiziko, berebiziko = enorme, muy grande.
Bitarte bateko, bitarte baterako = provisional.
Buitzi = tren.
Buruñurduna = kaputxinoa.
Dakus = ikusten du,lo ve.
Dakust = ikusten dut. Lo veo.
Dakusgu = ikusten dugu Lo vemos.
Dakuskezuna = lo que puedes ver.
Dana dan = dan-dana, dana-dana, totalmente.
Daskaiot = eskatzen diot.
Dedu = honor. Deduzko = honorffico.

Derizkiot = me parece.

Deus = Algo.

Dio, diot = lo dice, lo digo.

Diosku = nos to dice.

Diru-uzta = ganancia.

Doai = dones, regalos.

Doakabe = desgraciado.

Doan, duan = gratuitamente

Doi-doi = justamente.

Doixtar = alemaniar.

Doixkera = lengua alemana.

Duan, doan = de batde.

Dukeme = duquesa.

Ebasle = ladrôn.

Eberkera, (ebreo-era) = lengua hebrea.

Ebatsi = robar.

Edatu, zabaldu = extender.

Edakera = desarrollo, manera de exponer algo.

Edatsu= extenso.

Edeski = historia como hecho o conjunto de hechos históricos.

Edesti = historia como arte narrativo. Edeski, historia objetiva; Ia historia vivida; conjunto de acontecimientos sucedidos.

Edesti-era = manera de concebir, de presentar de contar la historia.

Edesti-iztia, edestiztia= historiograffa, ciencia de la historia.

Egoskor = tozudo. Diffcil de ser convencido.

Egitarau, egitamu = programa, plan.

Egitasmo = proyecto.

Eio = moler. Eiotzea = la accibn de moler.

Elenera = lengua griega.

Elerti = arte literario, literatura. Elerki, obra literaria.

Elikatu = alimentar.

Elizkid'artea = comunidad eclesiastica.

Elizkide = miembro de la Iglesia.

Etizkidego = cargo de miembro de la comunidad eclesial.

Elizkidetza = comunidad eclesial, en abstracto.

Emari = fruto, don.

Enda = raza.

Eortzi = enterrar.

Epaille = juez.

Epaitu = juzgar. Epai-Batza tribunal. Epai-Gela = Sala del
~iia = Mesa tribunal: significa el conjunto de magistrados
que formar la mesa.

Era, Kera = manera, modo.

Eragozpen = irnpedimento.

Eraiki = construir.

Eraikille, constructor.

Eragozpena = impedimento, obstaculo.

Eraile = matar, asesinar.

Eraile = asesino.

Erakunde = institution.

Erakuntza disposici6n, orden, mandato.

Eralgi = cerner, gastar.

Erantzukizuna = responsabilidad.

Erasoaldi, zigorraldi = persecuci6n.

Eratu = instituir, poner en forma.

Erbeste = destierro (sitio).

Erbestegi iugar de destierro.

Erdirakoia = centralista.

Erdirakuntza, erdirakoikeri = centralismo.

Eremu = basamortu, lekaro: desierto.

Eren = eunuco, castrado.

Ereserki = himno.

Eresi = nisica.

Erio-gela, Erio-labe = celda u horno mortales.

Erkala = demokrazia, (erri-aala).

Erljiokoi = aficionado a la religi6n.

Ernemin = a punto de germinar.

Ernetu, ernatu = espabilar.

Erpiña = la cumbre.

Erretxindu = irritarse.

Erretolika = retórica.

Erraldoi = gizandi, gigante.

Errautsi = asolar, reducir a cenizas.

Erregegai = candidato a rey, príncipe heredero.

Errege-naia = aspirante a rey.

Erromatekoan = en los tiempos de Roma. Wase "Te".

Erro = razón, causa.

Errotu = enraizar, enraizarse.

Erti = arte.

Ertikera, erti-era = estilo artístico.

Ertsia = cerrado.

Ertzaingoa = cargo de policía. "Go" es sufijo que indica cargo u
oficio. Asf, ertzaintza, es la policía en abstracto.
Ertzaingoa, el cargo de policía. Ertzaindia, el cuerpo de
policía. Ertzaindia, cada uno de los cuarteles o puestos
de los policías.

Ertzakoi (ertza-koi) = extremista.

Eskax, exkax (en diminutivo) = poco.

Eskier = segura. Eskier, con certeza.

Eskutitz = carta.

Etabar, eta abar = etc.

Eule = tejedor.

Euntari = centurión.

Euntze-ola = fábrica textil.

Ezabatu = aniquilar, convertir en nada.

Ezagunmen = capacidad de conocer.

Ez-apaiza = no-sacerdote, seglar, laico.

Ezetzta = negativa.

Ezilkortasun = inmortalidad.

Ezkillta = ta campana.

Ezkongetza = celibato.

Frankiar = franco.
Frutuekargaitza, Zituekargaitza = incapaz de dar fruto.
Gaitzespen = condenación.
Gaizkatu (gaitzetik askatu) = salvar.
Galdu = perder. Analógicamente, condenar.
Galikeri = galicanisme, galicismo.
Gantzuketa = unción.
Garai = tiempo. Como adjetivo, alto.
Garaille, garaipena = vencedor, victoria.
Garaitza = victoria.
Garbai = penitencia.
Geiegizko = excesivo.
Geltokia = estación.
Gentza = paz.
Gerkera, greziera = lengua griega.
Gertakari = gertakizun, suceso.
Gidari, gidatu = gufa, guiar.
Gizandi = gigante
Gizarte = sociedad.
Gizartizti = sociología.
Gogabide = manera de pensar
Gogaeta, gogoeta, gogapen = idea, pensamiento.
Gogo = deseo, alma, espfritu. Gogoeta, gogaeta, gogapen = idea.
Gogaikarri = fastidioso.
Gogapen = idea.
Gogo-eginkizun = tarea espiritual. Gogo-otoitza = meditación.
Gogoeta = idea.
Goi = alto. Como prefijo = "archi", "arz", "super".
Goiaipu = buena fama.
Goidiakono = archidikono.
Goigotzaitegi = arzobispado.
Gorespen = alta estima, alta valoración, alabanza.
Gorri = rojo. Pero puede significar también "puro" en el sentido de
"solo". Así, "arrigorriaga" es "lugar de sólo pierdas",

"aste-egun gorrian", "en puro día de semana"), y, también "grande" ("gose gorria", "gran hambruna", "gorroto gorria", "odio muy grande").

Gotiar, got-tar = godo.

Gotor, gogor = fuertemente.

Gotzai, (gogo-zain) = obispo.

Gotzaigoa = el episcopado como cargo a ejercer.

Gotzonizti = angelología, ciencia sobre ángeles.

Guda = guerra. Mis bien parece ser batalla.

Gudarozte = ejército.

Gudu = guerra.

Gune = raleo, centro.

Gura = nai. Gurari = veleidad.

Guraso Doneak = Santos Padres.

Gurena = excelso.

Gurenda = victoria.

Gurtu = adorar. Gurketa = adoración. Gurtzaille = adorador.

Gurenda = victoria.

Gutxiespen = baja valoración.

Gutuna = eskutitza, carta.

Guztialdun = todopoderoso.

Guztintasun = capacidad para ser de todos.

Jagole, yagole = protector.

laiotasun, yayotasun = destreza. (Debe escribirse yayotasun).

Iardetsi = lortu, alcanzar.

Iare = libre, independiente.

Ibilte = andanza, viaje.

Idazkidi = archivo, conjunto de escrituras.

Idazki = idatzitako gauza.

Idazti = libro.

Idoro = encontrar.

Igaroaldi = transición, tiempo de paso.

Igikunde = movimiento.

Iguingarri = repugnante.

Izpar = notitia.

Izparringi (izpar-ingi) "newspaper", noticiario impreso, periódico.

Iztegi = diccionario.

Jaiera = devoción.

Izorlari = fornicario, fornicaria.

Izorratu = fornicar. De suyo, significa preñar.

Jainkolario = aficionado a dioses. Tiene sentido despectivo.

Jainkotiar = divino.

Jakintzizkutudun = mago, poseedor de ciencias ocultas.

Jardun = ejercitarse en,

Jardunbide = método, técnica.

Jarki = perseguir. Oponerse.

Jasan = soportar, aguantar, llevar.

Jasankor = soportable.

Jaurerri = reino.

Jauretze (jaurtze-etxe) = templo.

Jaurleri = gobernante. Jaurlearitza = gobierno.

Jaurle = gobernador.

Jaupa = sacrificio. Jaupari = sacerdote.

Jaurketa = adoración.

Jaurtu = adorar.

Jaurtze = adoración (en abstracto).

Jazarri = perseguir. Jazarkundea = persecución.

Jopu = esclavo.

Kakotx = coma. Goi-kakotx = tilde.

Kalonje = candnigo.

Kapar = tienda de campaña. Kapartegi = campamento.

Karrika = calle.

Kasa = iniciativa, cuenta. Bere kasa = por su cuenta, a su manera.

Katigu, katibu = cautivo.

Ke = gabe. Es sufijo negativo. Esateke = esan gabe.

Kide = igual; colega, compañero.

Kidetu = igualar, igualarse.

Koi = sufijo equivalente al "ar" y al "co" castellanos. "Errikoi",
"popular". "Zistnakoi", "cismático",
Kondaira = leyenda.
Kirio = nervio.
Komondu = componer, arreglar, arreglarse.
Konte = conde.
Konteme = condesa.
Korritua = la cuenta corriente.
Kuria Agintarien inguruko jende laguntzaillea, curia.
Landa = campo. Como adverbio, "fuera de".
Landua = cultivado.
Lario = aficionado a. Es sufijo de sentido despectivo.
Latera = latfn.
Laterri = estado. Laterkide = ciudadano.
Lau = llano. Comontimero, cuatro.
Legedi= derecho, código, conjunto de leyes.
Lege-erabilketa = jurisprudencia.
Legen = lepra. Legenetik = de la lepra.
Legizti Derecho, (como ciencia).
Lekaide = monje.
Lekaidetxe = monasterio masculino.
Lekaima = monja. Lekaimetxe = monasterio de monjas.
Lekuko = testigu.
Lekukotasun = testimonio.
Leñu = tribu.
Lepo egin -= degollar, matar, acabar con.
Lertu = reventar. Ler-zori = a punto de reventar.
Lez = corno (en bizkaiera). Equivale al "bezala" guipuzcoano.
Lilluratu = embelesar.
Liskar = pelea.
Lur-ikerle = explorador geográfico.
Lurpedi = conjunto de subterráneos.
Lutelesti = geograffa.
Maaitekiro = cariñosamente.

Maiz = sarri, a menudo. Maizko = frecuente. Maizegi = demasiado a menudo. Maizenik = las más de las veces.

Maku = arco.

Malgua = flexible, suave.

Mardul = grueso.

Margo = pintura.

Margo-lan = pintura, cuadro.

Matxinada = motín, sublevación.

Meatz = mina.

Medar = delgado.

Mende = siglo. Dependencia.

Mendizaruntzakeria = ultramontanismo.

Min = esqueje. Minsor = insensible al dolor.

Mintzatu = hablar.

Mintzo = habla, charla.

Mordo = montón.

Mota, moeta = clase, especie.

Mugabetasun = infinitud.

Mundukoi = mundano.

Naas-maas = revoltijo, confusión.

Nabarmen = manifiesto, a la vista. No tiene porque tener el sentido despectivo que en algunos pueblos se le da. En este libro no lo tiene.

Nardaskatu, nardasketa = enredar, enredo.

Nardagarri = repugnante.

Naroa = opulento.

Narrazka = a rastras.

Nasmas = laberinto.

Naspil, Naaspil = lfo, enredo.

Nondikoa = la mención de "de dónde" se ha sacado algo.

Norengandikoa = la mención de "de quien" se ha sacado algo.

Nortasuna = personalidad.

Odolkari = sangriento.

Oieza = Raro, desacostumbrado.

Oizkanpoko = desacostumbrado.

Okin, okiña = panadero, el panadero.

Ola= **contracción de "orrela" = asi, de ese modo. Significa tambien, f brica y tabla.**

Oldozbide = modo de pensar.

Oldozkun = pensamiento.

Oldozle = pensador.

Oldoztu = pensar.

Onarmena = buena aceptación.

Ondare = herencia. Ondaregai = heredero.

Onespena = bendición.

Oniritzia = aprobación.

Onturre = beneficio.

Onuragarri = loable, digno de honor.

Orban = mancha, suciedad.

Oreka = equilibrio.

Oro = todo, todos. Gizon oro = todo hombre.

Oroi = recordad.

Orokor = que abarca todo, general. Barkapen orokorra = **absolución general.**

Orrilla = mayo.

Orritsu = frondoso, de mucha hoja.

Ortzi, ortze, ost = firmamento.

Osakuntza = curación.

Osin = pozo, sima. Tambin, ortiga.

Ospetsu = famoso.

Oste = Parte trasera, detrs.

Osteketa, = protesta.

Ostelari = protestante.

Ostera = de nuevo.

Ots = es decir. Como substativo, sonido, ruido.

Otxan, diminutivo de otzan = mansito.

Otzandu = aplacar.

Ozen = sonoro; como adverbio, sonoramente.

Ozenki = sonoramente.

Peitu = faltar.

Puska = pedazo.

Puskatu = hacer pedazos.

Sagara-ordua = hora de consagración.

Sagaratu = consagrar.

Sail = grupo

Sarkorra = penetrante.

Seiurden = sexta parte.

Senitarte, senide arte = fraternidad.

Seta = carakter.

Setakeri = obstinación.

Sinestun, sinesle = creyente

Sinislario = erédulo. El sufijo "lario" tiene sentido despectivo.

Sinisle, sinistun = creyente.

Sinispide = fe, manera de creer, conjunto de cosas creídas.

So-egin = begiratu. Mirar.

Sortorra (Bizk), Satorra (Gip) = topo.

Sorzain partera, comadrona.

Taju = traza, aspecto.

Tajutu = ordenar, organizar.

Te = sufijo que significa "tiempo de". Erromate, tiempo de los romanos.

Tolestu = doblar.

Tsar = Zar. Errusi'ko inperatorea

Tsareme, tsariñe = zarina.

Txanpon = moneda menuda.

Txantxa = broma.

Txastamen = gusto, capacidad de gusto.

Txautu = limpiar, gastar.

Txikordatu = trenzar.

Txindi = dinero.

Txiro = pobre.

Txolin = bobo, insustancial.

Ugalde = riada.
Ugazaba = amo, patrón.
Ukan = tener, poseer, haber.
Undarrak = hunos. El pueblo de Atila.
Une, une oro = momento, en todo momento.
Une-uneko = instantáneo.
Urbil = cerca. Urbilla = cercano.
Urdanga = ramera. Literalmente, cerda.
Urduritasun = inquietud.
Urrats = paso.
Urre-aro = edad de oro.
Usmo = barrunto, sospecha.
Usteontsu = optimista.
Ustiatu = aprovecharse de.
Utsezintasuna = infalibilidad.
Uzta = cosecha.
Xalo = afable.
Xautu = limpiar, gastar
Xea = menudo, sencillo.
Xee = menudo. Jende xea = gente sencilla.
Yayo = habil.
Yagole = protector.
Yayotasun = destreza
Yare = libre, suelto, independiente.
Zailki = difícilmente.
Zalantza = duda.
Zalaparta = barullo.
Zaldu = curtir, curtirse.
Zalpurdi (zaldi-gurdi) = coche de caballos.
Zama = carga.
Zamari = bestia de carga.
Zanpatu = aplastar.
Zegiten = egiten zuten, lo hacían.
Zeken = avaro, tacaño.

Zekusan = ikusten zuan. Lo vefa.

Zearo = totalmente.

Zemai = amenaza.

Zerrenda = lista.

Zerukoi = celeste.

Zesar Jefe de Estado. Los romanos llamaron Zesar a todos sus emperadores. Pero a partir de Diocleciano se llamaba ZESAR al nombrado adjunto de un emperador con derecho a suceder a este. Después de caído el imperio romano "Zesar" es, otra vez, sinnirno de "Jefe de Estado".

Zertasuna = substancia, esencia.

Ziape = mostaza.

Zigorraldi = erasoaldi: época de persecución

Zillegi = permitido.

Zindo = sano.

Ziñopa martir.

Zipotz, = desabrido testarudo.

Zipozkeria = desabrimiento, testarudez de mal gusto.

Zitu = fruto.

Zurrunbillo = remolino, agua revuelta. Zurrubillatua, arremolinado.

